

**LATIEGI'tar BIXENTE**

(Euskarazaintzakoa)

**DEMOKRAZIAREN  
DENBORAKO  
ELIZA**

[1814 - 1914]

(Demokraziaren Zabalkundea, Sozialismoaren Jaiotza,  
Ameriketako Nazio Berrien Arazoak,  
«Irugarren Munduko» Eliza.)

**ELIZ - EDESTI - SORTA**

Argitaldari: EDILI - Donosti  
Irarkola: IGARRI - Bilbo  
I.S.B.N.: 84-7394-011-3  
Depósito Legal: BI - 1655 - 89

*Anjel nere seniderik gazteena:  
Danon aurretik joan zera Aitaren etxera,  
Ez zaitugu gure otoitzetan aztutzen.*

*Zuri;*

*Malen zure alargunari;  
eta zure seme ta nere illoba diran  
Joxeiñaxio, Lardes, Gotzon eta Patxi'ri,  
danoi  
eskeintzen dizuet nere liburu au  
maitasunaren adigarri.*



## ITZAURREA

Elizaren edestiko irugarren liburu onek XIX mendeko aburuak eta gertakizunak aurkezten eta aztertzen ditu. Napoleon Bonaparte menderatua izan zanetik XV Benedikto Aitasantu egiña izan zan arte.

Liburu oni zer izen jarriko nion pentsatzen luzaro zalantzan ibillia nauzu: «Erromantik-eraren denborako Eliza»? Ez, noski. Erromantikera erti eta elertiaren alorreko gertakizuna geiago izan hai t genduan Elizaren edestikoa baiño.

«Demokraziaren denborako Eliza»? Bai, agian. Baiñan XIX mendea demokraziaren denbora baiño demokrazi mota bereizi baten denbora geiago izan bait zan, ez zitzaidan izenburu ori egokiegia iduritzen.

«Sozialismoaren denborako Eliza»? Egia da, sozialismoa XIX mendean bizkortutako landarea dugula. Baiñan mende ortan ez zuan oraindik, aro guztari bere izena emateko, bear aiñako indarrik izan. XIX mendea demokraziaren mendea izan zitzaigun. Ez sozialismoarena.

XIX mendeko demokrazia, ordea, demokrazi *liberala* izan zan. Alaber, liberaltasun ori ez zan erriko jendeen mailletariño jexi. Erria kristaua zan. Lutertar, anglikan, kalbindar edo katoliko..., erria, jkristau zan!

Liberaltasuna, agintari antiklerikalen azaroa izan zitzaigun. Agintariena, eta jakintza berrien gurtzaille batzuen arazoa. Orregaitik, liburu oni «Liberaltasunaren denborako Eliza izen-burutzat ipintea ez zitzaidan egokiegi iduritzen.

Gaiñera, XIX mendeko liberaltasunak bere ezaugarririk nabermenena, beste ooren gaındik, demokrazia, izan hai t zuan..., azkenean, naiz aurren artan zalantzan ibilli, Demokraziaren demborako Eliza jarri diot izen.

\* \* \*

Onatx, irakurle, liburu onen orrietan aurkituko dituzun gaiak:

Birrezarketa. Napoleon jausi zanean, Errege Garailleek, «L'Ancien Regime», edo iraultza aurretiko politik-era bir-ezarri nai izan zuten Europa guzian.

«Tradizionalismoa» edo «aotz-aotasuna»: Antziñako politik-era birrezarri-nai ari zegokion filosofi-teologizko oldozkera.

—Proletaritzta. Ingladerrian XVIII mendean sortutako industri-iraultza XIX mendearen aurreneko erdian edatu zan Europa'ra. Orduan eraiki ziran

olatzar aundiak. Orduan pillotu zan olatzar aien inguruan langilledia. Orrela jaio zitzaigun proletaritzak.

—Iraultzak' Iraultza askoko mendea izan zan XIX mendea. Azkenekoak eta, batez ere Paris'ko Komunarena, gogorrenak; eta gero etorriko zanaren adigarri kezkarrienak.

—Kapitalkeria. Olandarrek asmatu zuten, —dirua errezago batutzeko—, «erantzukizun mugatutako lagundia». Asmakizun onek erreztu zuan kapitalkeriaren sorkuntza; eta kapitalkeri errukigabe orrek, oparo aberastu zituan len aberatsak ziranak, eta ezbeartasunik gorrienera eraman langilleak.

«Laissez passer, laissez faire» oiu zegian liberaltasunak eman zion arnas XIX mendeko kapitalkeri anker ari. Kapitalista aien eskuetan egon ziran XIX mendeko jaurlaritzak.

—Sozialismoa. Langilledia egoera doakabe artatik ateratzeko sortu zitzaigun aburu-taldea.

—Anarkismoa. Sozialismoa baiño lenago sortua. Inghlanderrian ain zuzen. Asieran naasirik erabili oi ziran «anarkista», «komunista» eta «sozialista» itzak igikunde bera adierazteko. Marx, anarkista da. Altagutziz, merezi du Marx'ek azterketa bereizia, arrakasta aundia izan bai zuan,

—Erromantik-era. Erromatizaleek sortutako giroan ernetu zitzaigun sozialismoa, eta baita anarkismoa ere; eta, erlijioari dagozkionetan ere, izan zuan erromantikerak eraginmena.

—Abertzaletasuna. Gaur-egun ezagutzen dugun moduan, neurri aundian, abertzaletasuna, —eta zer esanik ez abertzalekeria—, erromantitasunaren ondorioa dugu. Len aipatu ditugun iraultzak ere, ekonomiaren eta soziologiaren aña dira erromatitasunaren urne'

—Langillediaren Alkarteak. Inghladerriko «Trade Unions»etatik asita «Korporapenak»zeaz, oraingo «Sindikatoetaraiño» . Arazo mingarria Elizarentzat'

—Filosofikera berria: «Idealismo» edo «gogapenkeria»; Kant'en bidetik azkeneko ertzaraiño Hegel'ek eramana' Ortik jaioko zaigu «inmanentismo» edo «barrenkeria»; jainkoa, soilki gizakumearen adimen-barruan dagoan gogapen utsa besterik ez dala uste duana.

—Laterri berrien sorketa' Ameriketean bereiziki. Eta Laterri oietako arazoak; ia etenik gabeak izan bait dira an iskamillak.

—jaurlaritza liberal kapitalista antiklerizaleekin Elizak izandako arreman zail garratzak.

—La Mennais edo Lamennais'en auzia. Berak, Elizatik bereizi zan arte La Mennais idazten zuan bere abizena. Gero, Lamennais, beti'

—Loisy'ren «berrikerizaletasuna» edo «modernismoa».

Aitasantuen Erregetzaren amaia, eta gertakizun orri Aitasantuek emandako erantzuna.

Sorkaldcko Elizen auzi oiñazekorra, eta, auzi orri-buruz, gure Elizaren XIX mendeko jokaera' Okerra, tamalez, maiz aski.

Elizaren barren-biziaren bizkortasuna' Birjaiotza-aroa bezala, XIX mendea, santu ugari eta santu aundien aroa izan zan.

—Mixiolarien ekintza miresgarriak, eta ekintza oien akatsak. Eta garitza!

\* \* \*

Liburu onek ere, lengoek bezala, irarkolatiko akatsak izango ditu seguruaski. Liburu onen lenen-orriak, irarkolara bidali aurretik, aurrena nik, gero Aita Zubikarai'k eta gero nik ostera irakurriak dira; eta irarkolatik ateratako Ienen-probak ere, nik, Zubikarai'k eta nik berriro irakurriak. Altagutziz, pasako zitzaigun gu oartzeke akats bat baiño geiago.

Luis Alberdi, Ameriketako gure elizbarruti euskaldunetako mixiolarien zuzendari izanak kontatua dut gertakizun au:

*Desclée* irarkola ospetsuak urtegarrena ospatzen omen zuan, eta ospakizun orren adigarri nagusi, aitasantuen «Liber Pontificalis» edo aitasantuek elizkizunetan erabiltzen duten liburua erarik aberatsenean eta dotoreenean argitaratzea erabaki omen zuten argita]-etxe artako buruzagiek:

Egin dute liburua. Ale bakarra gaiñera! Eraman diote Aitasantuari:

—Liburu berezia, ale bakarra, aberatsa, aal danik dotoreena eta akatsik<sup>g</sup>abea gaiñera, duzu liburu au, Aita txit santua.

Eta Aitasantuak (Paul VI'k?) irriño goxoz:

«Gizakumeen lana..., ta akatsik gabea?  
Lortu duzute mirari bete!»

Ta liburua aztertzen asi omen zan. Iriki du liburua bein; iriki du hi aldiz. Eta irugarrenean, irri zirikoia loratu omen zitzaion ezpaiñetan :

Akatsik gabeko liburua, jaunak? Au..! —beatzez itz bat erakutsiaz—, au akatsa ez al da?

—Akats bat bakarra egon liburu guztian, eta ura billatu bear Aitasantuak, —oles egiten omen zuan *Desclée*'ko zuzendariak'

\* \* \*

Gai bat erabili aal izateko, tituloa eskatzea, arrazoizko jokaera da.

—«Liburu auek idatzi dituan jaun ori eliz-edestiaren irakasle al da? —eskatu zion oraindik asko ez dala iñakitar gazte batek nitzaz, nere lagun bati Urkiola'n.

Iñakitar orrentzat, dirudianez, bear-bearrezko baldintza, «conditio sine qua non», izan bear du noski irakasle izatea zerbaitetaz idazten asteko. Tainkoak onetsi bezaio irakasleatz duan uste on garbi ori, eta jakin beza aide orratik ere ez naukala tituloz ain erantzia.

Nere bizi guztian Gazteiz'ko «Instituto Politécnico Diocesano» edo «Elizbarrutiaren Lanbide Ikastetxean» Soziologiaren, Kulturaren Edestiaren, eta Erliijoaren irakasle izan naiz. Eta ona nola eratzten nuan erlijiogaicean nere irakasketa:

Aurreneko urtean, dotriña.  
Bigarrenean Itun Zarra.  
Irugarrenean Itun Berria.  
Laugarrenean Elizaren Edestia.  
Bostgarrenean, Soziologia. Elizaren Soziologia bereiziki.

Esan bearrik ez da, Kulturaren Edestia irakasterakoan ere naroki azaltzen nuala Elizak kulturaren arloan mendeak-zear izan duan eraginmena.

Gutxi izango dira, beraz, eliz-edestiaren irakasleen artean, gai orri nik aiña denbora eta ardura eman diotenak'

On Jose Zunzunegi edesti-ikerle ondo ezaguna izan zitzaidan eginkizun ortan gidari. Neri lagun izan zekizkidan ekarri zituan Gazteiz'ko apaizgaitegiko liburutegi oparora edesti-liburu berri batzuk; Liburutegi artako zuzendaria ere bai bait zan On Jose Zunzunegi'tarra.

Nere ikastetxeko mutillentzat Elizaren Edestiari-buruz esku-liburu bat eta euskeraz erriarentzat gai beraz liburu zabalago bat idazteko aolkua-edo berak eman zidan aurrena'

\* \* \*

Zubikarai'tar Joseba aipatu dut lentxeago. Eskerrik beroenak eman bearean aurkittzen naiz Markina'ko praille karmeldar bikain eta jakintsu orri. Kultura aundiko gizona bera! Bcigira onako oni, esaten dizudan adigarri lez:

Atzerritarren izenak idaztean errez egin ni dira okerkeriak. Berdin, gertakizun bakoitzaren urteak ematerakoan. Erne ibilliko da Aita Zubikarai'ren luma zintzoa, akats oiek egoki zuzentzeko. Ori, irakurle, ez dezake kultur aundikoa ez dan gizon batek egin.

Eta, beti bezala, emen ipintzen dizkizut, irakurle, nere norabideak, liburu au irakurri ondorean, neri zerbait esan edo galdetu nai ba'didazu. Edota, alde edo aurka, liburu ontaz zure iritzia eman nai ba'didazu.

Latiegi'tar Bixente  
Instituto Politécnico Diocesano  
Nieves Cano Kalea  
Vitoria-Gazteiz'  
Nere urrutizkiña: (945) 132211



## BIRREZARKETA

(«The Restoration» - «La Restauración»)

Frantzi'ko Iraultza Nagusiaren aroan, Iraultza ezereztuta berriro XVIII mendeko «Politik-Era Zaarra» Europa'n ezartzea izan zan, Iraultzaren arerio guztien leia.

1800'garren urtean ipintzen dute, edestilari askok, —Ingländcrrikoek batez ere—, Birrezarketa aren asiera, edestilari oien ustez Napoleon izan bait zan, konkordatoaren bidez aurrena eta Inperiotzaren bitartez gero, Iraultza zapalduta, lengo Era Zaarrera politikaren giroa biurtzen asi zana. Reste batzuek ordea, geienek, Iraultzaren atal bat izan zala uste dute Napoleon'en aginte-aroa. Auentzat 1814'ean asi zan Birrezarketa: «La Restauration»

Ibaietako ura berriro goruntz eramatea bezain zailla izan oi da lied, edestiko gertakizunen gaindik, biziera leengoratu nai izatea; batez ere gerta gertatu ziranak bezain mardulak eta al daketak orduangoak bezain sakonak diranean.

Ala, **guztien azpitik, aurrera jarraitu** zuan indartsu Ameriketako Laterri Alkartuetan sortu zan «Iraultzaren Izpirituak». Aurrera jarraitu zuan 1814'aren ondorean; eta Napoleon'en «100 eguneko» berbizkunde laburraren ondorean.

Frantzi'tik at ere, aurrera jarraitu zuan «Izpiritu» arek Frantzi'ren etsai izan ziran errialdeetan, eta baita iraultzalarien aurka borroka amorratuan ibilli ziran aiengan ere.

Alatagutziz, aitor dezagun berriro Frantzi'ko iraultzalariak beren ankerkeriaren erruz gaitz aundia egin ziotela Ameriketara jaio eta andik mundura zabaldu tako «Izpiritu» ari. Baiña ezin izan zuten «Izpiritu» ura ezabatu, «askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren» egarri bait zegoan gizadi guzia'

Zoritzarrez, ain kristauak diran sentimentu oien ezarketa Elizatik at egin zitzaigun, eta baita, neurri ederrean, Elizako buruzagi geienen naimenaren aurka ere. Ori, ordea, ez da Elizaren erru; Elizako gizonena baizik; eta berriz ere gertatu lezaioke Elizari orrelako zerbait, Elizako gizonen «denbo azterketan zeatzago saiatzen ez ba'dira.

Oker pentsatzen dute frantziarrek, —Frantzi'ko ezkertiarrek batez ere—, Iraultzaren gurasoak, 1789'an «Et ats Generaux» edo «Latteri-Maillen Batzar Orokor» artan bildu ziran Jaunak, edo aien atzetik etorritako Dalton, Marat, Robespierre, Barras edo Napoleon izan zirala pentsatzen dutenean. Iraultzaren guraso bakarra Argikuntza izan zan, eta Argikuntzaren giro paketsuan sortu zitzaigun «Iraultzaren Izpiritua»; ta Inghlanderriko borroketa jaio-edo zan, unie aul txiki kemenik gabea lez; eta Iparramerika'n bizkortu eta sendotu eta Iparrameriketarik mundura zabaldu.

Iraultzaren sorkuntzakoan, Iparramerika'n katolikoak izan ziran Iraultzaren maitalerik eta babeslerik bizkorrenak. Eta aurrera jarraituren zuan katolikoek laguntzarekin Iraultzak munduan zear, Frantzi'ko iraultzalariek iraultzaren izena ber-bera iguingarri egin ez ba'zuten. Alde izango zituan beintzat, ordurarte bezala, katoliko sendo burutsuak ugari; katolikoak ain osoki Iraultzaren etsai biurtu izatea Frantzi'ko iraultzalarien errua bait da.

Egia da, «errege Jainkoaren ordezkari, bitartekorik gabeko ordezkari bezala» ikustera oiturik zeudela katolikoak, eta henetan uste zutela Jainkoak berak ipintzen zuala erregea errege eta Jainkoak berak ematen ziola, agintaritzarako, eskubide guzia, baiña Argikunizari eskerrak uste oiek moteltzen asiak ziran ordurako, eta laister ezereztuko ziran osoro; Iparramerika'ko Demokrakazi gaztearen jardunketa bikaiñari gero eta arretea geiagoz begiratzen bait zion, arriturik, Europa'ko jende ikasiak'

Alatagutziz, Argikuntzaren pentsaerak ez bait ziran oraindik Kristaudiko txoko guztietan sakon erroto..., eta errege-gurketak sustrai zaillak Hait zituan aspalditik kristau askoren biotzetan, Iraultzaren eta Demokraziaren izenak iguingarri egiten ederki lagundu zieten Frantzi'ko iraultzalari zipotzei, Frantzi bertako eta Europa guztiko erregeza<sup>1</sup>e protestalari, katoliko, edo ortodoxiarrek, eta, kristautasuna babesteko aitzakiarekin, hereiziki beren onturrearen billa zebiltzan aristokrazitarrek, eta aien inguruko eskubitar guztiek.

Aitor dezagun gaiñera, «eskubitar» itzaren zentzurik okerrenean eskubitar buru-beroak zirala orduan elizjende geienak: gotzaiak eta prailleak; prailleak batez ere! Ez, ainbestean, apaizak.

Danadala, politikari eta soziologiari dagozkion arazoan arlo latzera, ezkertiarrek eia eskubitarrek, batzuek aiña besteek, danek, sarrerazi zuten bide okerretik liziza! Eta, ez du Elizak, Eliz hezala, Jon XXili a etorri arte bide ori oso-osoa utziko. Eta oraindik ere gelditzen zaio, arlo orri buruz, zuzen-keta-ta-craberritze-lan bikaiña!

Frantzitik at, Napoleon'en sundikeri-goseak igo'ngarriago egin zuan oraindik Iraultzaren izena Inperatore berri ark ankapean zapaldu zituan errialdeetako jendeentzat. Politikalarik txarra zan Napoleon. Bere buruaren kontra ibilli zan FI'zarekingo atremanetan ere. Beti 1801'eko konkordatoa-

ren bidetik jo bain eta Aitasantuarekin ain zekna izan ez balitz, ez zitzaion agian ain zailla gertatuko Europa'ko Inperatore izatera iritxi aal izateko bidea. Ederki agertu hai, zezakean orduan bere burua Elizaren salbatzaille bezala katolikoan aurrean, eta askatasunaren babesle bezala Europa osoko jende landerraren aurrean,

Izan ere, Prusi'n, Itall'n, Portugal'en, Españi'n, baztar guztietan, baita Errusi'n ere, ereintza aundia egiña zeukan ordurako Argikuntzak, eta asko izango ziran errialde guztietan askatasunaren eta demokraziaren alde lan egi-tearren lagun izango zituan jendeak; eta, baita, Elizaren altzoan, gotzaiak eta apaizak ugari. Apaizak batez *ere*, Oroï gure Euskalerriko apaiz «argitu» aiek danak!

Errusi'n bertan, ortodoxiarrei askatasuna eta Laterriaren diru-laguntza esku zabalez eman balle, —eta ez zan ortan motza Napoleon—, lurralde artan ere bere nagusitasuna ezartzeko ez zuan bearbada eragozpen, geiegirik aurkituko.

Ezta Aitasantuaren Laterrien arazoa bera, ez zitzaion noski korapillo zaille-gia gertatuko, Laterri aietara indarrez sartu ez balitz eta Aitasantuari atzaparra gainean ipiñi ez balio. Eliz-Laterrietako jendeari berak bere askatasuna eskatzeko eta askatasunaren aide borrokan asteko presarik gabeko epe zabal bat eman balio; eta politik-era orren ondorioz, —asko ban ziran an askatasunaren mai-taleak—, erria bera izan balitz demokraziaren alde jeikitzen zana, munduko katolikoak ez ziran, Aitasantuaren Erregetza babesteko, geiegi kezkatuko.

Gero bai; gero Aitasantu-Erregearen aide ikusiko **nun-nai** katolikoak. Baiña, erriagan, Aitasantua Errege izatearen zaletasun ori, geroagoko senti-menti mentua da, XIX mendean sortua, ain zuzen Napoleon'ek Vil Pio'rekin crab'lli zuan indarkeri zakarraren emaitza, lendabizi, eta «risore mento»tarrek IX Pio'-rekin erahillitakoarena, gero.

Napoleon'ek ordea, borroka-irabazle vivo b?za'n politikolari kaxkarra zan-da, lagun izan zezazkean eliztarrak etsai egin zituan bazter guztietan.

Frantzi'n bertan, apaizen bitartez zabaldu zan Napoleon eskomikatzen zuan bulda; Pouche'ren asarrea ta bere ertzaindi guztia ez ziran zabalketa ura geldiarazteko gai izan. Eta zenbat eta gogorragoa ertzaindiaren zigorra, orduan da aundiagoa katolikoengandiko gorrotoa.

Diktadura guztietan ni dan bezala, gertatu ziran orduan ere gauza borobil parregarriak; errixka bateko emakume errezazaleen espetxeratzea, adibidez. Izenez Obernai deritzan errixka artako emakume aiek, Aitasantuaren alde errezatzen eta jaunartzen omen zuten, eta zearo «seditieuse» «matxinokeriz-koa» omen zan emakume aien jardunkera.

Baiña Frantzi'n baiño gartsuago, ankapean zapaldu zituan lurraldeetan jeiki zitzaion asarre, Napoleon'i, katolikotasuna.

Alemanian bertan etsai izan zituan katolikoen Egia da aurka izan zuala Napolcon'ek Iwropa'n, ordurako piztutzen asia zan nazio-zaletasuna, nazionalismoa, eta erlijioa baiño etsaigo Laterri protesta'arietan, ez bait zuan Laterri aietan erlijioak Laterri katoliknetan ainhat indar. Ain zuzen. idatzi berria zuan hichte filosofilariak «Nazio Alcmadari-buruz Arrazoiket» deritzan liburua, (1808), nazionalismoaren lenengocnetako oi va'

Irnein zegoan baike sentiinentu ori Belxika'n, Itali'ra eta baita Espaini'n bertan ere, baiña nazionalismoa baiño milla aldiz arerio hildurgarriagoa izan mitan Napoleon'ek errialde auetan katolikotasuna. Bizkortu ere, bigarren sentimntu onek bizkortu bait zuan beste ura, errialde auetan guztietan.

Bahiera'ko mendietan, eta Tirolmend tan, kat(likotasunak jaurti zituan haseritarrek borrokara, Ander I lofer buruzagi zutela, eta meudigoizalc au izan zan ain zuzen Napoleon'en aurka Europa guztian ibilli ziran «gerrillero» edo «basa-borrokalarien» artean vavoenetakoa. Zikinkerien bitartez, —diruz aren lagun baten salaketa erosiaz—, arrapatu aal izan zuten azkenean frantziarrek Tirolmendiko abertzale ausarti bikain tira. Bere aberriko mendietan izan zan fusillatua «liberté fraternité egalte»en izenean.

Belxika'n, erri guida zegoan ia-ia guda irikian Napoleon'en aurka. Apaizak, Apaiz *Jaunak*, izan ziran an ere erriaren ats-emaille eta gidariak. Napoleon'en otsein apala zan ordea Malinas'ko Goigotzaia, Belxika'ko IAizaren «Primants» edo Lendakaria, eta herak eskatu zion Napoleon'en ertzaindiari apaiz borrokalaria aiekin esku latza erabiltzeko. Erriak ordea ziur babestu mituan bere apaizak eta alperrikakoak irten ziran ertzaiñen ardura guztiak. A! Lz du Malinas'ko Goigotzai arek izenik aipatzea merezi.

Erria em eze, gotzaidia liera *ere* eraman zuten atzetik apaiz belxikatar aiek poliki-poliki.

Brogie zan Gante'ko Gotzaia. Bazekian onek z\_ 'nbat aiñako gorrotoa zion Belxika'n erriak iraultzalariak «la conscription» esan oi zioten «naitanaiezko soldaduskari». Frantzi'ko iraultmalariek Belxika Frantzi'ren mati hiurtu zutelako, naitanaiezko soldadusketa artara bearturik aurkitzen mitan legez Belxika'n ere mutillak. Apaizek ordea lege orri ez jaramonik egiteko, aolku-ematen zioten gaztediari.

Brogie gotzaia ez zan, *ei*, ortaraino ausartu, baiña berari ere Jaurlaritzak «konskripzioaren» alde itzegiteko eskatu :onean, ez zuan herak gai ortaz ezer esan edo idatzi nai izan. I'a N.'poleon'en semea, ---«Erroma'ko [rregea]—, jaiio zalarik, Jaurlaritzak berriro «h,rrege anen garaitzaren eia zorionaren aide» elizkizunetan otoitz egiteko agindu zionean, «Napolcon'i indar emateko» eskatu zion jende guztiaren aurrean Jainkoari Broglie Gotzaiak; «Indar emateko», baiñan, «Napoleon bere okerrak zuzentzeko gai izatera iritxi zedin»! Bear zan orduan ori esatera ausartuko trcbetasun galanta!

Aurrerago jua izan Pisani du la Gaude, Namur'ko Gotzaia; Napoleon'ek borroka-lekuetan lutn ni zituan garaitza mardul aiek «jainkoaren ongi-nai

bereizi baten adigarri ez zirala» esateraino ausartu bait zan. i?z zan gutxi esatea! Diktatore izkillulari guztiek bezala Napoleon'ek ere gurenda aiek danak jainkoaren adiskidetasunaren ezaugarritzat aizatzen hait zituan!

Belxika'n baiño gogorrago oraindik, «bat egiñik erlijioaren aide», goda bizian zebiltzan Itali'ko mendietan basa-bideetako lapurrak, parrokiekero apaiz jaun batzuk eta masoien antzeko ziran «carbonarii» edo «ikazkiñak». [rlijoa\_ ren alde, bat egiñik danak!!!

«Carbonarii» aiek, orduantxe Napoles'en sortu-berria zan ixiilexko Alkarte bateko «anaiak» ziran. Ez zan erlijioaren aurka sortutako Alkarta. Aberriaren askatasuna lortzeko, Joakin Murat Napoles'ko Errege frantziarraren gudaroztean Frantzi'ren serbitzura ibilli-bearrean aurkitzen ziran kapitan napolitarrek sortua baizik. Izena, «Carbonarii», kolpe bat eman aurretik mendaritzen ziranean ikazkiñan txaboletan izkututzen ziralako sortu omen zitzairen. Poliki-poliki, denborarekin, batez ere Aitasantuak Itali'ren batasunaren aurka ipintzen zirala ikusi zuten ezkerero, Elizatik aldentzen asi ziran, eta Aitasantuen erregetzaren arerio sutsu biurtu ziran azkenean. Ez zuan beñere «karbonaritzak» indar geiegirik izan, jendearen ezpaina tan izan ezik; bere adiskideak eta bere etsaiek, —aiek «ikazkintzaren» bikaintasuna eta auek aren gaiztakeria neurri-gabe anpatuaz—, modan jarri hait zuten Alkarte aren izena. Gaiñera, iñoiz indarririk izan ba'zuan ere, laister asi zan indar ura g\*aitzen Mazzini'k «Itali Gaztea» eratuz gero, eta zuan guztia galdu zuan Itali'k bere askatasuna eta batasuna lortu zituanean.

VII Pio'ren jokaera bikaiñari eskerrak, iñoiz baiño aitasantu-zalegoa zegoan Napoleon'en denboran Eliz-Laterrietako jendea.

Izkirimiri parregarria diktadura guztietan oparo sortzen dan landarea izanik, jo zuan Erroma'n ere jende menderatuak menderatzaileari gorrotoa adierazteko, poz-bide errez ortara. «Lapurra al da Frantzi'ko jende guztia?», Lion galdera batek. «Ez dana, baiña bai *zati ederra*, «Buona Parte», Lion berriz erantzunak. Erroma'ko orma guztietan irakurri zitekean goratzarre au: «Nemini Arnieus, Princeps Omnium Latronum, Ecclesiae Opresor, Neronis Emulus» («Iñoren Lagun ez, Lapur Guztien Buru, Elizaren Zigortzaille, Neron'en Kideko»). Goratzarre ori norentzat zan jakiteko, latinezko esakuntzaren lenen-izkiak irakurri besterik *em* duzu: N A P-O L-E-O N-E.

Baiñan Napoleon'en lepotik par-egitea ez zan, italiarren, jokaera bakarra izan. Ugari ixuri bait zan odola Itali'ko mendietan. Gorde dizkigu edestiak borrokalari «kristau» eta abertzale aien Buruzagi ospetsuenen izenak: Tiburzio artzizprestea, Maneinotti ta Romanelli (biak «anaia» frantziskotarrak), eta Fra Diabolo napolitarra, ordurarte lapurtalde bildurgarri baten nagusi makurra izana, eta, orain, «Aberriaren eta Elizaren babesle» biurtua.

Gurutzea eskuetan zutela «e viva la Madonna» Amabirjiñari oles egiñaz erasotzen zieten frantziarrei gudari «done» aiek danek.

Baiña batez «re Iberi'ko lurretan, Españi'n eta Portu garen izan man gogorra katolikoan altzakundea. Españi'ko jeneralei eta gaiñerako gudalburuei baiño geiago zor zaie parroktako Apaiz jaunei Españi'n, Napoleon'en Mariskalek jasan bear izan zuten zigorkada. Apaiz jaunak izan hait ziran erria «Frantzi'ko erejeen» aurka sutu eta, askotan borrokaldietan giclan ere zutenak. Eta Españi'ko guda, gudarozteak ez baiña, erriak irabazi zuala edonork dakian gauza da. Apaiz «gerrilleroen» artean ondo ezagunak dira, Baltasar Calvo'z gaiñera, balentzi'ko Rico, Sebilla'ko Gil Granada'ko Puebla eta batez ere garai guztietako hasa-gudarien eredurik garaienetakoa izan zan Burgos'ko Merino, «El Cura Merino»,

Zalantzarik gabe uste izan zuten Españi'ko apaizek infernuko etsaiaren aurka ari zirala borrokan. Begira eiezu, ikaratu gabe, orduan zabalduetako «dotriña» batean agertzen diran galde-erantzun auei:

«Zein da Españi'ra sartu zaiguna?».

—«Infernuko Irutasunaren bigarren pertsona».

—«Noren semea da Napoleon?» —«Pekatuarena».

—«Zer dira frantziarrak?» — I;rejc biurtu diran kristau-izanak».

«Pekatu al da frantziar bat iltzea?» —«I z da p-ikau. Merezimendu aundiak irabazteko modua baizik».

Gudate artan asi zan zabaltzen, gero, karlisten guduetan, Ibero Ibaiaren ertzetara iritsiko zan «Jota» izeneko eresi-kera. *Fia* ederki baiño ederkiago mamitu zuan jota aietako batek españiar borrokalarien sentipena: «La Virgen del Pilur dice — que no quiere ser francesa; — Que quiere ser capitana — de la tropa aragonesa». Amabirjiña gudalburu zutela infernuko etsaiaren aurka ari ziran erailketan Españi'ko katolikoak. Uste berekoak izan genituan Apeninetan tiroka zebiltzan italiarrak ere.

Aitortu dezagun, \_\_ogiak ori eskatzen du-ta—, askotan ez zala oso zuzena izan «gerrillero» katoliko aien jokaera. Españi'n izan ziran bereiziki gogorak basa-gudarien ankerkeriak. Entilketa itsu ura geldiarazteko, orduan Españi'n Laterri-Buru zan «Junta-Suprema», katigu eroritako frantziar bat bizirik ekartzen zuan guztiarentzat sari bat ipiñi bearrean aurkitu zan. Gudate guztiak izan oi dira zikinkeriz beteak; Españi'koak batez ere. Oroi azkeneko gudatean bai «gorriek» eta bai «urdiñek» Españi'n egindako nardagarrikeriak. Zorionez, Euzkadi'ko Jaurlaritzak bakarrik *amena* zituan sarraski zikin artatik eskuak araz eta garbi.

Naiz ainbeste ez, Frantzi'ko ireultzalariek eta aien ondorengo ziran napoleondarrek ere egin zuten Europa'n zakarkeririk aski. Aien erailketa, lapurreta, arrokeri eta gaiñerako geiegikeriek, —eta Elizarekin erabilli zuten

;okaera okerrak-- alkartu eta jeikiarazi zituzten Frantzi ren aurka Europa'ko erridi guztiak. Eta, menderatu zuten auek Frantzi'n!

\* >< ><

Frantzi menderatze utsarekin ordea, menderaturik eta ezerezturik gelditzen ote zan Iraultza? Ala uste izan zuten «eskubitar» guztiak: egoaldeko katolikoek bezala iparraldeko protestalariek' Baiña ez zan ala gertatu. Iraultza ez *bait* zan Frantzi'a. Izatez, Iraultza, ez zan frantziarra ere. Are gutxiago Demokrazia. Sendo zekusaten orduan bertan Europa'ko «argituek» itsasoaren beste aldean Amerika'ko Demokrazia; eta Frantzi'ko Iraultzaren aurkako borroka artan bertan ere, Demokrazi bat, Inghlanderriko Demokrazia, izan zan Frantzi'ko iraultzalarien etsairik gogorrena eta azkeneko garaillea.

Gauza bat zan, beraz, Demokrazia, Erkala, eta beste bat Frantzi'ko Konbentziotarren edo Napoleon'en politik-era. Laiño illunetarik eguzkia bezain argi irten zan Frantzi'ko odolkerietatik Demokrazia, Europa'ko «argituen» begientzako izar pozkidagarria. Eta baita erriko jende xearen begientzako ere. Aldakuntza aundiak egin bait ziran erriko jende lander askoren pentsaeran. Ez zan okerra guzia, frantziarrendandik ikasi zutena. Adibidez, Bonaparte'ren jendeek ekarri zuten administra-kerak, Portugal'eko Bragantzatarrena, España'ko Borboitarrena, Austri'ko Augsburgetarrena edo Elizaren Laterrietako Aitasantuenak baiño askoz ohea zan. Eta ori, mundu guztiak ikusi aal izan zuan.

Gaiñera, Frantzi'ko Iraultzaren sahel illunetik dizdiz zegian Argikuntzaren demokrazizko «izpirituak», ta frantziar iraultzalari ezkertiarren biurrikeriek ezin izan zuten «izpiritu» aren argirik estali. «Izpiritu» ura zekarkiren, naiz orbandua ta okertua Napoleon'en gudarozteek, eta Europa'ko erriek jakin zuten pitxi bikain ura, pitxia zekarren ontzitik bereizten. Ala, «ontzia», —Napoleon'en gudaroztea—, birrindu eta kanpora jaurtitzen zuten bitartean, ark ekarri zien pitxiarekin, —Demokraziaganako zaletasunarekin—, gelditu ziran beren onerako edo kalterako.

Onerako? Kalterako? Zer ote zan Iraultza? Zerutik jetxitako aingeru salbatzaillea? Infernutik irtendako deabru gaizkille eriogarria? Galde oiei erantzutea izango da XIX mendearen arazorik gogorrenetako bat; jendea gudaraiño eramango duan arazoa!

Jakiña, Irultzarekin zer-galdurik bazuten guztiak, erregeak eta aristokrazikumeak batez ere, Iraultzaren etsai amorratuak izan ziran. «Satankeri» utsa iduritzen zitzaien Iraultza; Iraultzaren kimu guztiak apurtzea eta Iraultzaren izena bera ezabatzea izan zan aientzat eginkizunik bearrezkoena. Ez zuten usmatu ere egiten Iraultzak, Lisboa'tik Erroma'ra eta Erroma'tik Sanpetersburg'era, ain erro sakonak hoteak zituantik.

1814'ean ordea beraiek izan bait ziran garaille, Iraultzaren aztarna guztiak ezereztuta, Iraultza-aurreko politik-era birrezartzea izan zuten lendabiziko lana.

Aien aldeko izan zan clizjendea ere; eta aien aldeko izan bear zuan naitanaiez Jainkoak sikologiaren arloan mirari bat egiten ez. ba'zuan. [ta, Elizaren edestiak arki erakusten digunez, clizjendcaren cogo-nagitasunik estaltzeko ez (171) Jainkoak orrelako miraririk egiten.

I z zaie<sub>1</sub>a gauza zailla izango elizjendca aristokraziaren aidera bultzatzen zuten arrazoen zerrenda bat osotzea:

Aberastasun asko galdu zuan Elizak Iraultzaren erra; Frantzi'n, zituan guztiak. Ezer gabe gelditu zan Eliza.

[gia da, I.liza txautu, garbitu egin zala, bere aberastasunak galtzean. Oroi dezagun Talleyrand Gotzai izan zala «Batzar Kostituzio-Egillean» Frantzi'ko Elizaren ondasunak Laterriari eskatū zizlciona. Gero, Tellevrand XVIII Koldobika'ren ministru zala, agirian eman zizkion eskerrak ari Consalvi Kardenalak diplornazizko irriño-izpi batekin, «l'rantzi'jco Eliza aberastasunaren zalekeritik sendatu zualako». Aberasrtsunaren gaitzak il-zorian omen zeukan bâ Frantzi'n, «bizitzeko ogi-apur batzuk eta ur-ttanta bat aski duan Fliza».

Consalv'i diplomazilari vavoa. —"l'ellevrand bera baiño yavoagoa—, ta amOre go uko gizona zala kontuan arturik, eta bere itzei iperbole-aizea kenduz gero, egia da esaldi ortan diona. Baina egia da, baita ere, Elizak *mundu* bizitzeko MW/dl(ONTai'o l'auzak heur dituala. Beste cliz.gizonak, gainera, ez ziran amore-,7ozatasunean Cons<ik i'ran jc' deko, eta «lapurreta» esaten zioten Iraultzak egindako eliz-ot;iasnn n arrapaketari; ondasun aiek galdu izanaren mitiez zeuden; gorroto heltz.t zioten ondasun aide kendu zizkien Iraultzari.

—Aristokrazikumeak ziran Frantzi'ko gotzai geienak odolez, eta errege-zalcak pentsaeraz. Len ete Iraultza-aurretik, ez ziran demokrazia ulertu aal izateko gai izan. Eta len ez ba'ziran ortarako ganta, askoz gutxiago orain, Irantziar iraultzalariak demokraziaren izena lausont zutenez gero. Napoleon'en denboran gotzai egindako erri-semeak berak ere... demokraziale baiño geiago napoleonzale ziralako izan ziran gotzai egiñak; eta, XVIII Koldobika'k *erregetza* artu zuanetik, aristokrazikumeak izan ziran ostera gotzai berri guztiak. Naitanaiez, orrelako jatorri eta orrelako olduzkcrako jendeentzatt, iraultzak gauza txarra izan beur ruan.

—Galdu zuan apaiz-jendeak, ordura-te gizartean legeak ematen zizkion abantail] eta onura guztiak. Desegin zan Inki,izioa. Kendu zitzaion Elizari liburu eta oldozkerak aztartzeko eskumena. Gogabide orok izanzen zuan aurre-rantzen askatasun osoa. Edonork aurkeztu zezazkean jendearen aurrean bere buruak; baita crejeek ere! lare izango dira «kardiak» artzaien babespetik! Bildur zan Eliza; babes ura gabe mundua galduko zalako bildur! Iraultzak kendu zion Elizari eskuetatik mundua. Iraultza zan beraz mundua ondamenera



zeramana. Orrela pentsatzen zuten gizonentzat, naitanaiez izan bear zuan Iraultzak, —eta Iraultzaren alaba zan Demokrazi ark—, inpernuko deabruen sorkari.

Egoera berri batera oitu-bearrean aurkitzen zan Eliza' Ordurarte, nagusi bezala izan zan Eliza, Laterri katolikoetan, naiz bein baiño geiagotan errege katoliko aiekin asarre-xamar ibilli. Ez zitzaion an, iñoiz ere, omenik eta eraspenik peitu. Laterri protestalarictan, alderantziz, zigortua eta iraindua ibilli zan beti, baiña, an, zigorketa aietara oiturik zegoan, eta eratu aal izan zuan an ere, ala-edo-ola, bere bizirnodua. Baiña orain, Iparramerika'ko Iraultzaz gero, ez omendua ez iraindua, ez morroi ez nagusi, beste alkarte guztien kide, bentajarik eta abantailik gabe, beste alkarte ta komunitate guztien erdian guztiekin berdintasun osoan bizitzen eta lan egiten ikasi bearrean aurkitu zan. Berritasun orok ordea kezka sortzen du: gero zer gerta daitekean ez jakitearen kezka. Orixe sentitzen zuan Elizak ere orduan. Gaiñera, —aragi ustelgarrikoak bait dira Elizako buruzagiak ere \_\_, ezin aantzi zituan Elizak leengo omenak, begirunea, eta aalmen aiek.

—Lekaidetxe ta konbentuak ezereztea izan zan iraultzalarien aurreneko lana. Ortaz\_, naitanaiezkua zuan konbentu-jendeak Iraultzaren etsai agertzea' Argikuntzatik zetorkion Iraultzari prailleenganako gorrotoa; eta egia da merezi ere ia-ia merezi zutela prailleck gorroto ura dana. Ez noski orduan ere praille onik ez zalako, baiña bai konbentuetan alper asko bizi zalako, eta Ordena edo Anaidi berak eraberritze bizkor baten bearrean aurkitzen ziralako. Baiña erre-zago ikusten bait ela besteen begietako izpia gure begietako aga baiño, Iraultza gaitzesten geiago saiatu zan Eliza bere jendeen biziera aldatzen eta doneagotzen baiño.

Mundu guztia-zear kristau-ekintza zuzentzeko Erroma'n zituan istituzio edo erakunde guziak desegiñak aurkitu zituan Elizak Iraultza jausi zanean. Kardenalen Kongregazio edo Bazkunak ezereztuak; artxiboak, barreiatuak; Paris'era eramana izan bait ziran artxibo aietako paper-mordo galantak. Erlijiosoen Ordena eta Anaidiak, Elizak mixiokuntzarako ain bearrezkoak zituan t\naidi aiek, ia ezerezera iritziak... Eta, ori dana, Iraultzaren ondorioa zan!

Aitasantua errege izan ez balitz..! Baiña errege zan Aitasantua! Benetan uste zuan gaiñera, erregetza ura zuzenean Jainkoagandik zetorkiola; gauza santua zala; Eliz osoaren onerako emana izan zitzaiola. dNola ontzat artu zezakean orrela pentsatzen zuan Aitasantuak erregetza santu ura kentzera zetorkion Demokrazia? Ta..., mola onetsi zezakean beste Laterrietarako bere Laterrietarako gaitzesten zuan gauza?

Napoleon erortzean sortu zan Europa'ko errialde guztietan Alderdi Liberala, demokrazizaleen Alderdia. Españiarra zuan «Liberal» izena Alderdi arek, Alderdi ori eta Alderdi orren pentsakera adierazteko Españi'n erabili bait ziran lendabizi «Liberal» eta «Liberalismo» itzak. Liberaltasunaren ikurrin-pena bildu ziran, baike, azkeneko urteetan Elizaren etsai izandako guztiak;

Liberaltasunera urbildu ziran Laterri guztietako masoirik geienak; baiña baita demokrazizale zintzo guztiak ere naiz kristauak izan. Eta, bazTer guztietan Eliza berriro Errege bakarragintzaillen aldean gelditu zalako, Errege aien despotikeriaren etsai guztiak, ots, liberal biurtutako demokrazizale zintzo guztiak, poliki-poliki, Elizaregandik iges-egiten asi ziran gero-ta-geiago.

Elizak ez zuan ikusten Errege despotikoekin alkartzean egiten zuan oke-rra. Liberalismoak jendea kentzen ziola bakarrik euki zuan begien aurrean. Jende-galtze ortan berak errurik izan zezakeanik ez zitzaion burura etorri ere. Kontuz ordea! Anakronikerira jausi gabe zail izango zaio edozeñi orduango Elizari kontuak artzen astea; orduango gertakizunak orduango buruarekin epaitu beur bait dira, ez gaurkoarekin!

Liberaltasunak berekin zekarzkian gauza onak ez zituan Elizak usmatu ere egin; federik gabekoen, eta are geiago, elizaren arerio ziran liberalen marruak bakarrik entzun zituan, eta liberaltasuna oso-osoan Elizaren aurka sortutako igikunde bat zala uste izan zuan. Ez ote zaigu gaur komunismoarekin orrelako zerbait gertatzen? «Fi liberalismo es pecado», izen ipiñi zion orduan bere liburu bateri Sard2i i Salvanv apaiz katalauniarrak. Apaiz baten geiegikeria? Ez, zuk uste bezain ziur; Rousseau'ren Liberalismoa hait zeukan apaiz arek orduan buruan, eta bere tokian ikusiko dogunez, Marx'en komunismoa pekatu dan bezala, pekatu bait zan Rousseau'ren liberalismoa.

—Une artan, —iraultza jausi zanean—, Aitasantuek, gotzaiek, apaizek eta kristauek mundu guztian, igarotakoaren antzeko beste izurri batetik Eliza salbatzea, gordetzea, eta babestea, besterik ez zuten pentsatu. Errez uste izan dute edestia-zear Elizako Buruzagiek beren lenengo eginkizuna Eliza babestea dala, eta beraiek dirala, aro bakoitzean, Elizaren babesleak. Eta ori ez da egia. Eliza gordetzen duana, Jainkoa da. Elizako buruzagien lendabiziko eginkizuna ez da beraz Jainkoaren Eliza babestea, Jainkoaren itza kosta-ala-kosta mon-duari aldarrikatzea baizik.

Kosta-ala-kotsa! Baiñan elizkideok, iain errez gu-geron kalTea Elizaren kalte izendatzen dugu! Urte luzeak igaro bearco zuten oraindik, elizjendeak Paris'ko Gotzaiaren onturra eta Elizaren onturra gauza berdiña ez dirala oartzen asteko; eta geiago oraindik Erroma'ko Aitasantu Erregearen interesak, edo Aitasantu utsaren interesak, besterik gabe, Elizaren eta Yainkoaren interesak ez dirala ikusteko.

Denbora asko bear izan dute elizjendeek, liberaltasunaren aide txarretik berezita liberalismoak berekin zuan aide onaz jabetzeko ere. Ez da arritzekoa Iraultzaren zurrunbillotik irten berriak ziran eta Iraultzaren zigor-pean ain-beste galdu ta sufritu zuten eliz-buruzagi aiek orrelako bereizketarik egiteko gai ez izatea. Ala alkartu ziran guztiak pozik Errege despotiko garailleekin Europa'n Iraultza-aurreko politik-era absolutista ostera birrezartzeko'

## BIENA'KO BATZARRA eta ALKARTE DONEA

1814'ean bildu ziran garailleak Biena'n Batzar ospetsu batean, Europa'ko birrezarketa antolatzeko. Esan daiteke, Prusi eta Errusi izan zirala batzar artatik era berezian irabazle irten ziranak' Gidari berriz.', Metternich austriarra eta Talleyrand frantziarra izan zituan Batzar arek gidari.

Errien naimena ezertarako kontuan artu gabe egin zuan Europa'ko lalterri-mugen aldaketa Biena'ko Batzarrak.

Consalvi Kardenala izan zan an VII Pio Aitasantuaren ordezkari, eta lortu aal izan zuan Aitasantuarentzat Eliz-Laterrietako nagusitza. Ez errez; Austri'k beretzat nai bait zituan Laterri aien iparraldeko probintziak' Frantzi'k eta Inghlanderriak ordea ez zuten Austri geiegi indartzerik gura, eta, orregaitik, alde jarri zitzaion VII Pio'ri politikaren aizea. Ain zuzen, katoliko ez ziran jaurreriak babestu zituzten Aitasantuaren eskubideak: Suezik, Prusi'k, Errusi'k eta batez ere Inghlanderriak; Austri indartsu bateri zioten bildurrari eskerrak, bai noski, baiña baita VII Pio'k Napoleon'en aurrean erabilii zuan jokaera bikaiñari eskerrak ere. Miresgarri egin bait zuan orduan mundu guztiaren aurrean VII Pio'k bere burua. Danadala, ez-katolikoek gorde zioten, eta babestu, Aitasantuari, Erroma'ko Errege izaten jarraitzea.

Alatagutziz, Austri, Po ibaiaren iparraldeko pusketatxoekin gelditu zan; eta, Frantzi, Abiñon'go Uriarekin eta Benesiar-Konterriarekin. Eta uri-konterri auetako jendeak, ogei urte lenago, frantziar izan nai zuala agerturik zeukalako nunbait, ez zuan Aitasantuak bere bi Laterri aiek Frantzi'ri emateko eragozpen aundirik ipiñi' Baiña ori bai: Aitasantuak Ion aietan zuan eskubiderik eta nagusitasunik ukatzen ez zuala adierazteko, VII Pio'k «une protestation de pure formule» eginen zuala, aurre-erabaki zuten Consalvi'k eta Talleyrand'ek. Salbatu'itzegun beintzat itxurak!

Geiago kosta zitzaion Consalvi'ri Elizaren Laterrietako bat zan Benebento'ko Konterria Talleyrand'i kentzea. Napoleon'ek egin zuan Talleyrand Benebento'ko Printzipe, eta ez zegoan au bere tituloa, besterik gabe, iñorri emateko asmotan. Ezta XVIII Koldobika, bere ministroarik azkarrena zan Talleyrand, auzi ari buruz, ezertara beartzeko moduan; Talleyrand'i zor bai zion geienbat erregetza!

XVIII Koldobika, XVI Kondobika'ren anaia zan; XV Koldobika'ren hillobak biak. Izan zuan XVI Koldobika'k ere seme bat; aitari gillotinak

lepoa moztu zionean Frantzi'ko erregezaleek XVII Koldobika izendatu zuten umetxoan. Baiña urne au, Frantzi'ko iraultzalari «frantenitézaleek» ain era zikiñean erabilli vuten u me au, espetxean il bait van, aren osaba Koldobika XVIII 'a gelditu van Frantzi'ko errege ai. l'ta bera izan van. Napoleon jausi zanean, Frantzi'ko errege egiña. Talleyrand'i eskerrak bereiziki.

Ori lortzeko, I Alexander Errusi'ko Inperatorearen adiskide egin zuan Talleyrand'ek bere borna. Garailleak Paris'en sartu ziranean, beTera eraman yuan apaltzera Talleyrand'ek Errusi'ko Inperatorea, eta apari artan sinistârazi zion Frantzi'n pakea ezartzeko, Koldobika XVIIIan bertako Errege egitea beste biderik ez zegoala; eta Europa pakean gordetzeko, jakina, Frantzi'n pakea sendotzea naitanaiezko gauza zain. Zalantzarik gabe, arrazoi zuan azkeneko ortan Talleyrand'ek, baiña orrai jokatzcan, XVIII Koldobika'rentzat Frantzi'ko erregetza ainbat billatzen yuan berak beruvako, Errege berri aren lenen jaur-laritzako atzerri-arazoen ininisteriotza.

Ez zan argala Talleyrand. Eia arrola ez zalako ez zan esku utsik irten Consalvi'rekin izan zituan alkarrizketetik ere, Benbento'ren ordaintzat dirutza mardula kendu hait vion Aitasantuari: Bi milloi franko, berea ez zanaren truke!

Eliz-Laterrien itzulketaz landa, ez zion Biena'ko Batzarrak katolikotasunari on aundirik egin, katolikoak ziran errialde asko katoliko ez ziran Erregeen menpean ipiñi bait zituan.

Belxika, Olanda'ko Giliermo I Oranxetarraren azpian jarria izan van; Belxika Olanda'rekin alkartuaz «i.atcerri BeekoetakoTaurerria» sortu bait van Batzar artan.

Beste katoliko asko Prusi'ko III Federik Gillermo'ren menpeaa igaro ziran, ari eman bait zitzaizkion Soezi'rena izandako Pomertni, Saxoni'ren puska bat, eta Westfali'z gaiñera, katolikoak viral] Poloni'ren Sarkaldeko zatia eta Rin ibaiaren aldeko lurrak. Arrezkero, Austri ez baiña Prusi izango da Alemani'aren gidari!

Ertza guztietatik kimatua ivan van Poloni'ren enborreko lurrekin Taurerri bat osatu zuten Biena'ko batzarkidcek; (aurerri iarea; izen utsez ordea iarea! Errusi'ko f Alexander egin hait zuten bertako Lrrege! Ondo ezaguna da Errusi'ko Tsar edo Inperatore guztien autokrazikeria. Agintari zipotz ortodoxiar aien ankapean ipiñi zitean Batzarrak Poloni'ko katoliko bikaiñak. Sortu van ori-vala- a lurralde aietan matxinada, guda, eta odolketarik naiko XIX mendeko hurlera guzian! 19I S'a arte ez bait yuan Polont'k bere askatasunik lortuko. Geroago, ez bere erruz, Yalta'ko alkarrizketalarien erruz baizik, 1945'eanean ostera galdu-bearra izan yuan askatasuna!

Esan bearrik ez da erri-banatzte oiek bertako jendenren nain ezertarako

kontuan artu gabe egiñak izan zirala. Errege lur-gosetien etekin eta protxura-ko bakarrik egiñak!

Era ber-berean egin ziran beste Laterrietako aldakuntzak ere. Itali Jaurerri eta Dukaterri askotan zatiturik gelditu zan, Elizaren Laterrietaz gaiñera: Iparraldean Zerdeña'ko Jaurerriari, len bereak zituan Saboia, Piamonte, eta Zerdeña'z gaiñera, Jenoba'ko Errepublikak izanaren lurrak eman zitzaizkion. Zerdeña'ko Jaurerri au zan orain Itali'ko Laterririk aberatsena, jendetsuena eta indartsuena. Berak eramango zuan geroago Itali osoa batasuneraino.

Benezi'ko Errepublikak izandako lurrekin eta Milan'go Dukaterriarekin beste Jaurerri bat osatu zan: «Lonbardi-Beneziar Taurerria», eta Austri'ko Inperatoreari eanari zitzaion bertako Erregetza. Austri'ren zaintzapean gelditu ziran, Itali'ren gerrialdean, naiz izenez iare jarraitu, Modena'ko eta Toskani'ko Dukaterriak ere.

Napoles eta Sizili, «Bi Sizilien Jaurerria» izeneko Jaurerri berri batean elkarturik gelditu ziran' Frantziarrek Napoles artu zutenean Sizili'ra iges egin zuan Fernando Borboiari eman zitzaion Bi Sizilietako buruntza. Fernando I'a, artuko du orain izentzat. Jaurerri berri batentzat, zenbakera berria!

Grezi'ko kristau ortodoxiarrak Turki maometar ustelduaren menpean jarraitu zuten. Sultan eroen Laterria, Turki'a! Alare, «une Puissancee d'ordre» omen zan, an demokrazirik ez zalako, Laterri anker ura, Biena'ko batzarkideen aburuz. «Ordenazko eta pakezko, Laterria!» Baiñan andik urte batzuetara, \*reziarrek askatasunaren aide jeikitzerakoan, turkitarrek Gregorio Patriarka mezatik irtetzerakoan il zutenean, asarretu zan Europa'n kristau zan eta kristau ez zan jendea. Altaguztiz, ez zala zillegi «legezko Agintari eta Jaur-laritzak baten aurka indarrik erabiltzea», jakiñarazi zuan Biena'ko Batzarrean gidari izandako Metternieh Printzipeak'

\* \* \*

Biena'ko Batzarrak Europa'rako sortu zuan eraketa kristautasunaren diz-diraz apaintzeko, «Alkarte Donea» asmatu zuan Errusi'ko Alexander I'ak' Raina ez dugu esan oraindik Biena'ko Batzarrak Alemani nola utzi zuan.

Ez zuan, Napoleon'ek ezereztutako «Sarkaldeko Inperio Erromar-Germaniarrik» berbiztu. Illik gelditu zan betirako bere sustraiak Karlomagno'gan zituan «Sacrum Imperium Romanum-Germanicum» sarkaldetar ura. Aren orde, «Deutsches-Bund» edo «Alemaniar-Konfederapena» sortu zuan Biena'ko Batzarrak. Konfederapen artan sartu ziran Austri, Prusi, Babiera, Wurtemberg, eta Saxoni eta Inperio-barruan Uri iare ziran Lübeck, Bremen, Anburgo eta Frankfurt; eta baita Alemani'ko beste Laterri txiki guztiak ere. Konfederapenaren lendakaritza, Inperio zarreko II eta Austri soilleko I Frantzisko'ri eman zitzaion.

Esan bearrik ez da, batera Gotzai eta Printzipe ziran elizgizonei beren

Laterri guztiak kendu zitzaizkiela, eta Laterri aietako egintea Printzipe sekularren eskuetara joan zala,

Iraultza-ondorean, Alemani'n sortu zan lendabizi erregekeri zarraren txinparta. Biena'ko Batzarraren altzoan bertan ain zuzen; Dalberg Ratisbona'kn Goigotzaia izan zan sortzaillea. Napoleon'en adiskide eta laguntzaille aundia! Napoleon'ek egin bait zuan ain zuzen Ratisbona'ko Goigotzaia, Frankfurt'eko Duke eta Alemani'ko Elizaren «Primas» edo Lenen-Gotzaia.

Talleyrand'en antzera bazan mutiko pijua Karlos 'Feodor() Dalberg. Lz ziran beintzat 10 egon ez bata ez bestea, Napoleon'ek, «Gotzai bateri Printzipe izatea ondo ez zitzaiola esanaz» Alemani'ko eliztarren Laterriak dasegin zituan; 12 millatik 15 millaraiño franko jaso zituan orduan Talleyrand'ek bere kutxarako, eta baita Dalberg'ek ere printzipadu bat beretzako. Orrela, Dalberg bakarrik gelditu zan, batera Gotzai eta Printzipe, Alemani guztian. Morroi apala izan zitzaion Dalberg Napoleon'i, Alemani'ko Eliza ta erria, aren esanera zintzo gordetzeko. Nazka omen zion Napoleon'ek. Altaguztiz, aren bearra bazuan Alemani'n-eta, ederki saritu zizkion beragandik jasotako serbitzuak.

Masoia zan Dalberg. Agian orregaitik barkatu zioten Biena'ko Batzarkideek Alemani'n Napoleon'en alde egindako guzia, eta jaraitu aal izan zuan, lasai, bere lengo aunditasunean, baiña masoitza ez zan orduan Elizaren etsai.

Napoleon'ek «Rheinbund» edo «Rindar-Konfederapena» sortu zuanean, Kofederapenako Laterrietako Eliz guztientzat konkordato bat bakarra egitearen aldeko agertu zan Dalberg, eta orixe bera eskatu zuan orain Biena'ko Batzarrean «Alemaniar-Konfederapeneko» Laterrietako Eliz guztientzat. «Alemani'ko Eliz bat» osatzea zan barman zerabilkian asmo isilla, bere burua Eliz artan erdi-aitasantu jartzeko. Febronikeri utsa, guztial! Ain zuzen, bere ordezkari, Biena'ko Batzarrean, febronikeriaren txapeidunetako bat izan zuan: Kostantzio Wissemberg Kostantza'ko Bikario Orokor ezaguna, gogoeta on eta zorrotz askoko gizona, baiña Erroma'ko agintaritzatik askatuegia.

Alperrikakoak izan zitzaizkion Dalberg'i bere aundikerizko amets guztiak, baiña erregekeria izanen da ostera ere Birrezarketaren aroan Elizarentzat pipirik aspergarriena bazter guztietan; Belxika'n batez ere, eta Frantzi'n; eta Borboien beste Laterrietan'

\* ★

Biena'ko Batzarraren erabakiak zindo betcarazteko izenpetu zuten 1815'-eko agorrillaren 26'ean, —Batzarra oraindik lanean ari zala beraz—, Prusi'ko Federik Gillermo III'ak, Austri'ko Frantzisko II'ak eta Errusi'ko Alexander I'ak, frantzerazko bere lenen idaztian «Le Pacte de la Sainte Alliance» esaten zitzaion «Alkarte Donea»,

Errusi'ko Tsar edo Inperatorearen asmoa zan «Alkarte ura; eta, batez tre, Alkarte amen «donetasuna»: beste alderdikideek, irriparrez artu zioten

asmakizuna. «Atsokeria» izen-ipiñi zion Talleyrand'ek, eta ez arrazoirik gabe, atso bat bai zegoan asmakizun aren iturburuan. Metternich'en iritziz, «ezerez pinpirin bat» besterik ez zan guztia; eta ez zan berea iritzi gezurrezkoa, ezertarako ez bait zuan Alkarte arek balio izan! Inghlanderriko Lord Castlereagh zorrotzak berriz, ez zuan dantza artan inñolaz ere sartu nai izan. «Sasi-eraspenkeria» besterik ez omen zan Alkarte Done ura, eta ez omen zuan berak «kristaudia berriro Cromwell'en eta beste garbikerizaleen politika-eractara jaurti nai».

Talleyrand'ek esan zuan *bezala*, «atso» bat zegoan «Alkarte Donearen» azpian: emakumezko gaztea oraindik eta ederra, polita, atsegiña: Krüdener Andrea, sasi-mistikazalea, ordurako Errusi'ko I Alexander Inperatorearen aingent zaintzaille eta profeteme biurtua.

Baltik-itxasoaren ertzeko aristokrazitar baten alaba zan emakume ura, neska gaztetan biziera aski arinñean ibillia, eta gero Swedenborg ala-olako mistikalariaren ikasle egiña. Paris'era etorri zanean, eleberri bat idatzi zuan frantzeraz: «Valerie». Bera zan «Valerie», eta bere bizitza kontatu nai izan zuan eleberri artan. Ala irten zitzaion ain gordintxo! Eta gordiñaz gaiñera, elertibalioz utsa. Polita izatea ez izan noski naikoa eleberri-idazle yayoaz izateko! Baiña bazan naikoa Napoleon'i eleberri ura irakurriarazteko! Ez bait zan ordea inñozoa Napoleon, «esa'eiozute Andre txoro orri, —oiu egin omen zuan—, emendik aurrera bere liburuak errusieraz edo alemanieraz idazteko, emen Frantzi'n, gu, aren idazkera zarpailletik libre izan gaitezen».

Urratu zioten Krüdener Andreari biotza bere aita maitearen eta senarraren eriotzek, eta zimeldu zioten bizitzeko poza. Ordurarte ain atsegin izan zitzaizkion arinkeria ta lasaikeriak zearo lagata, mistikalarien liburuak irakutzera jo zuan, Imanol Swedenborg protestalari suezitarraren liburuetara eta Claudio Saint-Martin frantziar katolikoaren liburuetara batez ere!

Meritu aundiko gizona zan Saint Martin «le philosophe ineonnu»! Izadiaren eta gizadiaren ibillera, edestia-zear gertakizun guztietaz baliatuaz, Jainkoak berak zuzentzen duala erakusten zuan. Kristau bikaiña zalarik on aundia egin zuan, eta ia oso-osoa igaro zan bere oldozkera De Maistre ospetsuaren idazkietara. Mistikazko oldozkera ori da, ain zuzen, liburu «maistretar» guztien bizkarrezurra.

Beste era bateko gizona zan Swedenborg: erdi-olerkari, erdi-profeta, eta erdi-santu, baiña bere era bereiziko santua, eta «Jerusalen Berri'ko Elizaren» sortzaillea. Eliz onen mamia, eraspenkeria utsa zan, sentimentu soillez oretua. Biblia zuan oiñarri bakarra, baiña Swedenborg'ek irudiz edo alegoriz beterik ikusten zuan Biblia; gero, gaiñera, berak bere iritzi bakarrera ulertzen eta aldarrikatzen zituan irudiz betetako Biblia. «Keri» asko zituan Swedenborg'en mistikak, oro jainkokeriz, arrazoikeriz, irudimenkeriz eta sentimenkeriz, —irudimenkeriz eta sentimenkeriz batez ere—, beterik bait zegoan.

Krüdener Andre biotz-damutuak ez zuan Saint-Martin ondo ulertu eta

Swedenborg'en mistikara murgildu zan itxu-itxuan; eta gero, bere atzetik eraman zuan, beñiere buru-muin sendoegien jabe izan ez zan Alexander I'a Errusi'ko Inperatorea; eta sinistarazi zion bera, —Alexander I'a— «Aingeru Beltza» bein betirako ezabatzeko Jainkoak aukeratutako «Aingeru Zuria» zala.

Pozik artu zuan alboan Tsar ameskoiak ain profieime atsegiña, eta berekin eraman zuan Biena'ko Batzarrera an bere igarle izan zedin. Usterik zegoan ordurako Alexander I'a, mesias baten antzeko zerbeit zala bera, —Alexander—, eta Jainkoarekin adiskidetasun bereziak bazituala.

Bein batean, Metternieh eraman zuan berekin bazkaltzera, Biena'n bizitoki zuan jauregira' Iru ziran bazkaldarrak: Metternich, Alexander bera eta beltzez jantzita aren alboan eseri zan Krüdener andre «kualcerreme» erdi-lekai-mea' Baiña lau ziran maiean zeuden aspil eta jateko-tresnak. Laugarren maikide ura nor ote zitekean Metternich'ek galdetu zionean, «Jesukristo» erantzun zion zintasunik aundienez Errusi Guztietako Jaun da Jabeak.

Ez zebillen beraz oker Lord Castlereagh «Alkarte Deunari» Oliberio Cromwell'en aroko «santu» aien ekintzen itxura artzen zionean, «santu» aien kide bait zan Krüdener Andrea, eta Cromwell bezain diktatore zakarra I Alexander Inperatorea!

Ikus nola asten zan «Alkarte Donearen» jaiotza adierazten zuan agiria:

«Irtasun Txit Done eta zatieziñaren izenean» alkartzen gera iru Erregeok: Alexander, Frederik eta Frantzisko, («Iru Errege Mirarigilleak», Metternieh'en ziri-mintzoan); «gure erregetza Jainko gure Salhatzailleak erakutsitako egi betikor arrigarrien araura erabilli nai dugulako» alkartzen gera. Irurok «alkarren artean anai eta, bakoitza here mendekoen aita» gerala aitortzen dugu, «ori ain zuzen agintzen bait digu Mati Donearen Itzak». Orrela, «sendi bat» osatzen dugu danok eta «nazio kristau» orrek ez du Nagusi bat besterik: Jainkoa, gure salbatzaille zerutarra, Jesukristo, Aita Guztiz-Altsuaren Itza; arena da eta izango da beti almen oro; heragan bakarrik aurki dezazkegu maitasunaren eta neurrigabeko jakintzaren altxor guztiak», gure agintegin-tzarako.

Ez zuan Inlanderriak orrelako dokumentu traketsik sekulan izenpetu. Ezta Aulki Doneak ere. Baiña itz zerukoi oien doñura asi ziran indarkeriaren bidez Iru Errege aiek, bakoitza bere Laterrian, birrezarketa eginen.

Ikus dezagun orain, birrezarketa arek Laterri katolikoetan erabilli zuan filosofia'



## «L'ULTRAMONTANISME»

Frantzi'n sortutako itza dugu «ultramontanisme» au.

Frantzi'tik begiratu ezkerro, Erroma, mendien beste aldetik dago: «ultramont», «mendiz-aruntz». Beraz itz ori euskeraz «mendizaruntzkeritza», «mendizaruntzkeria», edo «mendiostekeritza», ala «mendiz-ostekeria» itzuli bearko litzake. Baiñan itz ori gogortxo iduritzen zaigulako eta itz orren bitartez Frantzi'ko galikerizaleek Erroma'ko Kuriaren geIegizko «agintze-gosea» adierazi nai zutelako, egokiagoa eta nlert-errezagoa izango litzakela uste dugu «erromakeri» erabiltzea.

Jose de Maistre izan zan «ultramontanismoaren» igarlerik bizkorrena. Saboia'ko Jaurerrian, Chanberv'n jaioa, I Biktore Manuel Saboia'ko Erregearen serbitzura egon zan beti, bai diplomaziaren arloan (enbaxadari San Petersburg'en), bai politikarenean, (Jaurlaritza'ko Lendakari, Turin'en). Frantzieraz idatzi zuan, era apaiñean idatzi ere! , eta Frantzi'n zabaldu eta irakurri ziran geienbat bere liburuak.

Literaturaren barrutian, «Les Soirés de Saint Petershourg», «San Petersburg'eko Arratsaldeak» deritzana izango du zalantzarik gabe idazkirik ezagunena eta bikaiñena, baiña politikaren teologiari-buruz askoz garrantzi aundiagokoak ditu «Frantzi'ri-buruzko Gogoetak», «Eliz Galitarrá» eta, bereiziki, «Du Pape» edo «Aitasantuaz», deritzanak. Eta auxe duzu berriz De Maistre'ren oldozketen ardatza: «Aitasantuaren utsezintasuna izan hear duala oiñarri Europa'ko lurraldeetan egin bearra dan birrezarketak». Ona nola ariltzen duan bere pentsaketa.

Munduan, oro, Jainkoaren «Probidentziak», «Jainkoaren Ardura Doneak» darabilki. Edestiaren gertakizun guztiak Ardura Done orrek zuzentzen ditu' Gizonen okerretan, utsegiteetan, eta pekatuetan ere, Jainkoaren Ardura Donea ari da. Oro da Jaungoikoa'k zuzendua.

Ondo dakigu, obenak mundua gaiztotu zuan ezkerro, «odola» nai izan duala Jainkoak munduaren sabalkuntzarako, «odol-ixurketarik gabe ez bait da salbamenik». Ala, gudate, iraultza, matxinada, eta edestiko samintasun guztiak Jainkoa'k nai izan dituan guzzak dira.

Saboiatar diplomazilariaren pentsakera latz orrek badu bere alderdi goxoa ere, egiazko mistikoa bait zan De Maistre. Mistikoa... eta egiazko igarle, askotan, etorkizuna zuzen ikusteko:

Edonork ikusi izan dun gauza da zoritxarraren erasoak maiz ondutzen dituala errurik ez duten gizakume zintzoak.

Ori ere Jaungoikoa'ren naia ote dugu? Bai. Kristo errugabeak mundua bere oñazearen bidez gaizkatu zuan ezkeror, bai hait du gizadiaren oñaze orok, batez ere errugabeen oiazeak, mundua salbatzeko gaitasun berezia.

Gogaketa auen argira, eskatologiazko balio lilluragarria artzen zuan orduango irakurleen begietan Frantzi'ko Iraultzak.

Iraultza oso-osoan gaiztoa zala, dudarik ez duan gauza zan De Maisur'rcn-tzat. «Satanique», deitzen dio, Baiña, Satanas bera ere Jainkoaren esanera dagoalako nunbait..., Iraultza «satankoaia», orobat, Jaungoikoaren eskuak erabili tako gauza izan zan. Iraultzalarick heintzat ez zuten Iraultza erabili! Iraultzak erabili zituan, aizeak orbela bezala, iraultzalariak, eta, inolako ondameoera baztertzeko erabili ere erabili zituan! Mintzo bedi gillotinaren galtzairua! Nork ote zerabilkian, ordea, Iraultza bera? Jaungoikoaren Ardura Doneak, Frantzia bere pekatuetatik gaizkatzeko'

Frantzi'aren obenak zenbat ziran jakin nai duzu? Txikiak, asko; aundia, bat bakarra. Oben txikien artean auek aipatzen ditu De Maistre'k: agintarien lizunkeria, aberatsen geiegizko oparotasuna, eta okerkeri auen antzeko beste batzuk. Baiña oben aundi bakarra, Frantzi'ren egiazko Pekatua, ez da aundikien pekatua; erriaren pekatua da: «Kostituzio bat Lortu nai izatea, eta Kostituzio orren bidez gobernuan parte artu nai izatea». Orixe izan zan Frantzi'ren Pekatu Aundi bakarra; Demokrazia, beraz.

Erriak agintaritzan parte artu nai izate ori pekatu zergaitik daitekean? Agintaritza soilki Jaungoikoaren gauza dalako, Jainkoaren doia. Mundua, gizadia, erria, gaiztoak dira, pekatupean daude, jatorrizko pekatuz okertuak. Erriak ez dezake beretzako «agindu-aal-izaterik» eskatu; era berean, ez dezake Agintaririk jarri, kendu, edo epaitu. Erriak, Jainkoagandik datorren eta jainkoak hakarrik epaitu dezakean Autotitateari obedituaz lortu bear du bere betiko salbamena. Ta ori egiten ez badu, ez du salbamenik.

Iraultza, beraz, matxinada zikin bat izan zan, jeikitze bat, baiña Jainkoaren aurkako jeikitze zoroa. Erria jainkoaren aurka jeiki zan, antziña Satanas bezala. Gizakumearen naimena altxatu zan, jainkoaren naimenaren aurka. Orra or izan leikean pekatu rik aundiena: Frantzi'ren pekatua.

Nola, orain, sendakuntza lortu? Iraultzen ondorio ta aztarnak oro deseginda, Iraultza-aurretiko «Bakalduntza», «Mugarik-Gabeko-Erregetza», ostera kristaudian ezarriaz. Birrezarketa zan De Maistre'entzat kristaudia bit-sel-1(10w zezakean «sakramentua».

Orregaitik ez zitzaion XVIII Koldobika'ren gustatzen. Errege onek erriari eman hear izan zIon «Charte Constitutionelle» edo «Eskutitz» ttottel eta murrirtza bera, geiegikeri iruditzen hait zitzaion; zergaitik? Naiz gutxi, Kostituzio txepel arek Erregearen agintaritza lotzen zualako eta erregetzari mugak ipintzen z'zkiolako. Demokrazi-usairik txikiena zezakean guztia

«satankeri» zan Da Maistre'rentzat. «Monarchia Absoluta». «Mugarik-Gabeko-Errege-Baten-Agintaritzza», «Bakalduntza Orokorra», orixe zan munduak bear zuana!

Ala ere bazituan mugak De Maistre'k Kristaudiarentzat gura zuan Agintaritzak, erregeen gainetik Jaungoikoa bait zegoan, agintaritzari neurriak ipintzeko, eta erregeei kontuak eskatzeko. Orixen bera erakutsi zuan Inghlanderriko Jakob Stuar, I'ak. De Maistre, ordea, katoliko zintzoa zan, eta bere Jainkoa ez da odeiez gaidik zeru urrutian dagoan Norbait, mundu ontan dagoan Jaungoikoa baizik, mundu ontan laga bait zuan almen, indar, eta eskubide guztiekin, Ordezkarri Nagusi Bat, mundua zuzentzeko: Aitasantua. Erdi-aroko Teokrazira jausi zan oso-osoa De Maistre demokrazi ororen etsai izatearren; ikusten bait zuan ez zitezkeala erregeak, erregetzan, iñoren zainkctarik gabe, bakarrik utzi.

Eta, al zer izkera borobilla erabiltzen duan Aitasantuaren Agintaritzza Orokor Jainkotizko ori babesteko eta Aitasantuen pertsona gorestekol: «Buzragi Gurena»; «Errege danen Gidari»; «Erri guzien Aita»; «Jaurerri danen sortzaille»; «Azkatasunaren Zutabe Bakar»; «Kultura ta Zibilizamenaren Eragille Nagusi». Maiz darabilzki esakizun auker, eta auen antzeko beste asko, Aitasantuen nortasuna apaintzeko eta aitasantutzaren garrantzia adierazteko. Maiz deitu ere deitzen dio Aitasantuari «Utseziña»; Aitasantuaren utsezintasuna «sinismeneko-egi laister izango dala egiña», hait dio' Ontan beintzat igarle irten zitzaigun De Maistre.

Bi gauza daude Zerdeña'ko Bitor Imanol I'aren Ministro Nagusi onen ideologian; teokrazi epeltxo bat: (neurritz gaidik aitasantutza jasotzea), eta despotikeria: (demokraziaren gaitzespen orokorra). Aitasantutza goienean zegoan unean agertu zan ideologi ori, eta goxoki entzun zituzten eliz-jendeek De Maistre'k Aitasantuaren pertsonari egiten zizkion gorazarreak; baiña batez ere demokraziaren gaitzespena sartu zan sakonenik aien huruetan eta biotzetan.

Naiz De Maistre bezain idazle vayo ta atsegiña izan ez, asko irakurri zuten orduango jendeek Luis Bonald «tradizionalista» ere. Auxe duzu Bonald'en gogaketen mamia: «Ez da zorionik gizakumeentzat oitura garbi eta zuzenik gabe, ezta ere oitura zuzenik Autoritaterik gabe' Gizadiaren gaitzen sendagaia, beraz, Agintari indartsu orokor bat da». Biziro izan zitzaion Napoleon'i atsegin, Autoritate indartsu orokorraren pentsakizun ori, eta Inperio-ko Unibersitatearen Aolkulari egin zuan Bonald. Alatagutziz borboizale jarraitu zuan onek bere biotzaren barruan'

Ez zion Bonald tradizionalistari ere batere pozik eman Koldobika XVIII'

tutzeraz zatorrela uste izan zualako! Ala ere, oso-osoa ipiñi zan Errege aren esanera, eta Errege ark Estadutzako Ministro aurrena, eta Akademitar gero, egin zuan bere zerbitzari leial ura. Eta baita Frantzi'ko «Pair» edo «Aundiki Nagusi» ere.

Gutziz bereizia eta pitxia da Boiiald'en dialektika, iru mailleko zuruhi baten antzekoa hait da bere arrazoiketa bakoitza. Iru mail oiei «Cause» (« sorburu»), «Moyen» («bitarteko»), eta «Ffiet» («ondorio»), deitzen die. Iru pausoko arrazoiketa orren hitartez matematikeen argitasuna artzen dute Bonald'en idazkiek, naiz politasuna galdu. Ikus itiez-itx euskeratutako bere pentsakizun bat: «Kosmologian Jainkoa da «sorburua»; mobimentua, «bitarteko»; gorputza, «ondorioa». Estaduan, Laterrian, gobernua da «sorburua»; ministroa, «bitarteko»; laterkidea, «ondorioa»,

Iskema ori jarraituz idatzi zituan bere liburu guztiak, eta, auen artean, agian bere idazkirik garrantzitsuena, «La Legislative Primitive», «Aurren-aurreneko Legedia», deritzaiona. Ona bere pentsa-bidea:

—Rousseau ta Montesquieu'ren aurka mintzatu ondorean, «Jendabiziko legegillea Jainkoa izan zala» diosku. Jainkoak errian omen zizkion gizadiari aurren-aurreneko legeak; legeak ez ezC aurren-aurreneko gogapen edo ideia ber-berak ere Jainkoak eman omen zizkion hai!

—Gizonaren adimenak ez omen du «pentsatzen asteko gaitasunik», ez hait du pentsatzen asteko «bearrezkoak diran aurreneko gogapen edo ideiak sortzeko almenik» ere!

—Jainkoak asieran gizadiari emandako, aurren-aurreneko gogapen aiek omen dira gizadiaren lenen-lenengo jakintza.

—Jainkoak emandako asierako jakintza ori, «Tradizioaren» bidez gorde omen du, edestia-zear, gizadiak. «Traditio», latinez, gizaldi;\_ gizaldi arhasoengandik agoz-ago datorren jakintzari esaten zaio. Eta auxe da ain zuzen Elizak Bonald'en liburuetan galerazi duan «tradiziokeria»: eiza-adimena nentsatzen asteko gai ez dala uste izatea.

—Jainkoak emandako «aurren-aurreneko jakintza» antan omen zeuden, Jainkoak emanak aiek ere, gizadiarcu lenen-lenengo legeak, eta agoz-ago gorde omen du asiera ezkeroko gizadiak, Jainkoak eman zion aurren-aurreneko Araudi ura. Lata Araudi edo Legedi jaikotiar ori omen da, ain zuzen, lenen-jakintzaren atalik garrantzitsuena.

—Izan daitekean pekaturik aundiena litzake beraz, gizadiarenzat, Jakintza Zaar zerukoi aren aurka jeikitzea.

—Ikus zen omen dioten Jakintza Zaar aren atalik nagusienak: «Almen oro, Jainkoagandik dator Agintariarengana», «Erria ez da Jaurlaritzaren sorburu; alderantziz, Erria, Jaurlaritzaren ondorio da». «Erria, Agintariaren esanera egoteko jaioa da soilki». «Askatasuna, gizadiaren galdiderik aundiena da».

Erljioa izan omen da gizadiak Jakintza Zaarra gordetzeko naitanaiez-ona duan argia, ez omen da ha Erljiorik <gabc Jakintza ura garbi gordetzeko gai

Bonald ez da De Maistze bezala, teokrazira jausiko. Galikeri-zalea hait >:an Bonald! Raiña Kazan erlijio-zalea ere, ez hait dago arentzat «erlijiorik

gobe gizartea eraturik» . Erljioa omen da bit «legetza ororen oiñarri bakar-  
karra! »

*Orix*e bera zan, ikusi dugunez, Napoleon'en aburua. Baiña, Napoleon ez bezala, benetako sinismenduna izan zitzaigun Bonald. Politikarako, Jakintza Zaarrean Jainkoak gizadiari erakutsitako erakunde bakarra Monarkia dala sinisten zuan, eta erljioen barrutian Jainkoak gizadiari erakutsitako egiazko erljio bakarra Kristautasuna dala: Katolikotasuna, ain zuzen.

Filosofi orren argira Iraultza Jainkoagandik datorkigun Jakintza-Zaar-  
raren aurkako deabrukerizko orru bat besterik ez zitzaigun izan. Demokraziari  
berriz, —ez boit du demokraziak gizarte-mailla bereizirik ezagutzen, eta la-  
terkide danak berdiñak dirala bait dio— «une régime non constitué», «mol-  
datu gabeko politik-era», esaten zion Bonald'ek.

Politika Tik egokiena, Takintza Zaarrean Jainkoak erakutsi zigun poli-  
tik-era, ots, Monarkiazko politik-era dala erakusteko, onenak iñakitarrak ziralo  
uste zuan Bonald'ek, eta gaztediaren eziketa josulagundiaren eskuetan uzte-  
ko eskatzen zuan. Bonal ez eze, despotikeri-zale guztiak ziran orduan kato-  
likoen artean aburu berekoak, eta ala izan dira ia-ia atzo arte, XIX mendea-  
-zear batez ere' Ez noski arrazoirik gobe; monarkizale bero agertu liait dote  
iñakitarrak beren burua; edo beintzat orrela ikusi boit ditu jendeak. Gaur,  
zorionez, beste bide batetik jo dote, eta beraiek dira, hear bada, bide berri  
ortan Elizaren aitzindari. jainkoak gorde bitza aitzinean joateak berekin di-  
tuan arriskuetaatik.

Ikus dezagun orain nota egin zan Birrezarkcta, Iraultzak geicnik naasi  
zitian Laterrietan'



## ELIZAREN LATERRIAK

Gaur badakigu Iraultzak Frantzi'n bertan ere gauza txarren ondoan gauza onak izan zituala. Ez zuten orduango Eliztarrak orrelakorik ikusi; berbaegi zeuden gertakizunetatik, deus argi ikusi aal izateko. Iraultza oso-osoan gaiztotza, jo zuten eta Iraultzaren emari guztiak len-hait-len ezereztea, izan zuten beren lendabiziko eginkizuna.

Biribiziko xelebrekeriak egin zituan Aitasantuaren Jaurlaritzak Elizaren Laterrietan, Iraultzaren izena bera aztuarazteko' Gero Kardenal izanen dan Agustin Ribarola Gotzaiaren eskuetan laga zuan Pio VII'ak Jaurlaritza, eta eliztarrez osatutako Bazkun bat ipiñi zion laguntzaille. Ona, zer galaztera iritxi ziran, frantziar iraultzalariak ekarritako gauzak zirala esanaz, Bazkun artako «zelanti» jaunek eta aien lendakari Ribarola'k:

—Izurrien aurkako, batez ere piko edo nabarren-gaitzaren aurkako txertaketa.

—Erroma zarreko monumentuen billaketa eta azterketa.

Judutarren nun-nai-bizitzeko eskubidea. (Judutar danak bildu hear izan zuten ostera lengo «ghetto» edo «Judutegi» itxietara).

Frantziarrek ekarri zuten «Napoleon'en Kodigo» edo Legedia, naiz antziñako Eliz-Laterrietako legedi naasi moldakaitza baiño askoz egokiagoa izan. (Berbiztuarazi zan ostera erdiarotik zetorren epaitza-sekularraren-eta-eliztarraren-naaspilla, eta Laterri aietan oiturakoa zan amaigabeko epaikera aspergarrria).

—Laterkide sekularren agintemena. (Berriro, agintaritzako eta administraketako *kargu* guztiak, edo beintzat ia danak, gotzaien eta apaizen eskuetan ipiñi ziran).

(Baiña, une berean, birreman zitzaizkien aristokrazikumei legeari-buruz len zituzten abantail guztiak, *eta* ezarri zan Inkisizioa ere. Lekaimetxo bat izan zan inkisiziolarien eskuetara aurrena jausi zan zorigaheha, eta ez du iñortox Iekaimetxo aren errurik iñoiz jakin aal izan.

Bazuan alatagutziz lekaimetxoak pozik egoteko arrazoirik naiko, birrezarketa ura egitean, eman bait zitzaion Inkisizioari epai-aurreko azterketan katibuekin gorputz-oiñazerik edo torturarik ez erabiltzeko aolkua' Aolkua bakarrik, ez, «agindua», baiña, naiz guri gauza motza iduritu, au izan zan Elizak

uiñazekera erabiltzearen aurka eman zuan aurreneko urratsa! Ondo beren garaieko semeak dira, benetan, eliz-jendeak! lata, badute eliztarrek Jaunari beren Buruzagien tzat ikusmen zorrotza eskatzeko bearkizuna, buruzagi oiek aro bakoitzeko uste okerren illunpean itxuturik gelditu ez daitezzen. Illuntasun guztien argi izan bear hait du Elizak).

— Iraultzalari frantziarrek, Erroma 1808'an artu zuten ezkeron eman zituzten salcrosketarako lege eta arau bikaiñak. Ostera, orain, 1808-aurreko prezioak izan ziran legezko egiñak. Lege ori bururik gabeko agindua zalako, saltzailleek ez zioten jaramonik egin, eta inflazio gaitza sortu zan ortik, eta inflaziotik'.. gosea! Pozbide koxkorrak ziran erri gosetiarentzat egunero karriketari antolatzen zitzaizkion ibildeun edo prozesioak.

Mitartean Aitasantuak zer zegian? 1814'aren Loreilleko 24'ean, txalo ta amen-oiuz inguraturik Erroma'n sartu zan Pio VII'a ez zan lengo gizona' Ez zuan buru-argimenik galdu. Urrengo urtean Napoleon, Elba ugartetik igeseginda, ostera Frantzi-ren nagusi egin zanean, «ez zaitez estutu, (esan zion Koldobika XVIII'aren enbaxadari larrituari), au iru illabeteko ixkamilla besterik ez da-ta». Epaillaren, 6'ean esan zuan ori, eta garagarrillaren 18'an izan zan Waterloo'ko burrukaldia. Bi egun laburrez utsegin zuan Aitasantuaren iragarketak.

Baiña ez bait zan beññere osasun oneko gizona izan, eta eriotzaren ertzean ere egon hait zan hein baiño geiagotan..., asko-ta-asko ikusi bait zuan gaiñera Sabona'ko eta Fontenebleau'ko baituran..., nekatua zegoan nunbait eta aspertua, eta artu zion berak ere Iraultzari bildurra, eta galduxa zuan agian aitasantutzarakoan demokraziari izan zion uste ona.

Orregaitik utzi zuan Eliz-Laterrien jaurkintza, gobernutza, «zelanti» esaten zitzaizen eskubiter anwrratuen eskuetan, Erroma'ra itzuli zanean; «zelantia» ziran bâ, VII Pio'k berak asmatutako «Eliz-Auzi-Nagusi-Bazkuna» osatzen zuten Gotzai eta Kardenal guztiak! Baiña ez zuan noski, alatagutziz, demokraziaganako bere uste on ura oso-osoan galdu, bere naimenaren giltza Biena'n jarraitzen zuan Consalvi'ren eskuetan bait zeukan oraindik, naiz Consalvi'ren oldozkera ondo baiño ondoago aspalditik ezagutu.

Larri ikusten zituen Biene'tik Consalvi'k, Aitasantuak Elizaren Jaurlaritzara igotako «zelanti» eskubitar aiek beren eginkizunean zerabilzkiten moduak. «Orrelako okerkeri galantak egiñaz jarraitzen ba'duzute, sei illabete baiño lenago, igaldu dito Elizak bere Laterri guztiak!» , idatzi zion Ribero'ri.

Idatzi zion baitare Pio VII'ani, «Laterrietako gohernukera alkandorak bezain erre aldaterik ez dagoalako» , arreta aundiz ibilli zedilla, eskatuaz. Eskutitz arekin, XVIII Koldobika'ri egin-berria zion <sup>P</sup>este eskutitz baten aldaki edo kopia bidali zion Aitasantuari; «Frantzi'n ere eskubitarrek Erroma'koek egindako okerkeri ber-berak egiten ari ziralako» egin omen zion eskutitz ura Frantzi'ko Erregeari'



Balio aundiko gizona, Erkules Consalvi. «Gu guztion maixu da, diplomazi-lanean», esan oi zuan Lord Castlereagh Estadutzako Ministro inglanderriarrak. Eta ez zuan, eskierki, gezurrik esaten. «Nik ezagutu dedan gizonik "apaizenetakoa" da», zion berriz Napoleon'ek. Eta ez zion onek ere gezurrik. Alatagutziz, «gizonik apaizenetako» ura, ez zan iñoiz apaiztasuneraino igo, eta diakono uts zalarik amaitu zuan bizia.

Biena'ko Batzarra amaituta Consalvi Erroma'ra iritxi zanean, berari eman zion VII Pio'k Elizaren Jaurlaritzako Zuzendaritza.

Gaizki, oso gaizki aurkitu zuan Erroma. Eskubitarrik beroenak Alkarte bat egiñik zeukaten: «Santa Fede» edo «Sinismen Donearen» Alkartea. Eta sinismena ta Aitasantua babesteko aitzakiarekin makurkeri aundiak egin zituzten ordurako, len frantziarren adiskide izandakoen ondasunekin eta pertsonekin'

Consalvi'k moztu zizkien egalak Erroma'ko «sanfedisti» edo «fededonezale» aiei.

Arraz aipagarriak dira Consalvi'k Jaurlaritzatik egin zituan aldaketan artean, onako auek danak:

—Eliz-Laterrien zatiketa berria. Ordurarte, onela zeuden Laterri aiek zatituak:

4 «Legazio», (Boloni, Urbino, Rabena, Ferrara); 5 probintzi edo errialde: (Perusa, Orbiato, Sabina, «Il Patrimonio de San Pietro» edo «Kepa Deunaren Ondarea», «La Campagna de Roma» edo «Erroma'ko Landeta»); aristokrazi-tituloko beste lau errialde: (Espoleto'ko, Kastro'ko, eta Montekorbo ta Benebento'ko dukaterriak, eta Ankona'ko «mare» edo markeserria); «Gobernuketa» bereizi bat, (Citta del Castello), eta beste Uri bereizi bat, (Erroma)'

Laterri zar oien mugak deseginda, 17 probintzi eratu zituan Consalvi'k Probintzi oietako jaunie edo gobernadoreak, guziak, gotzaiak ziran. Aulki Doneak aukeratuak.

Errietako zifiegozi eta alkateek ere, naiz erriak aukeratuak izan, bear zute/1 aulki Donearen onetsia'

Aurrerapen aundia zan au, altagutziz, baiña ez bear aiñakoa. Ez zan Consalvi ausartu probintzian agintaritza sekularren eskuetan bakarrik uztera, ez noski berak nai ez zualako, (maiz esaten bait zuan, «Eliz-Laterrietako erria apaizen mendean bizitzez asperturik zegoala»), bere inguruan Pio VII'ak ipiñi zizkion gobernukide guztiak «Zelantiak», eskubiar beroak, ziralako bai-zik' Jakobindarren adiskide ta maitaletzat salatu ere egin zuten auek Aitasantuaren aurrean Kardenai «berrikeri-zale» ura.

—Napoleon'en Legediaren birrezarketa. Argiegia zan Consalvi, Lgedi aratz ura antziñako lege mordollo aiek baiño askozaz txukunagoa eta egokia-goa zala ez ikusteko. Napoleon'en izenik ez zan, jakiña, aipatu ere egin, baiña

Consalvi'ren Lege-sorta berriaren mamia, aren Legeditik artua zan. Epaille apaizak, erlijio-auzietarako bakarrik izan zitezten, beste auzi-mota orotik bereiziak izan ziran, eta lege egin zan laterkide guztien berdintasuna, aristokrazikumeen abantail guztiak desegina. Consalvi'k galerazi zuan katiguekin gorputz-oiñazeen erabilketa.

—Salerosketarako Legedi berria' Consalvi beraren asmakuntza izan zan au, puntturik geienetan; eta ez nolanaikoa gainera, «un monument de sagesse» deitu bait zion orduango ekonomilari ospetsu batek, Gizot protesta-lariak, Frantzi'ko gobernuaren lendakari izanak.

Jendeari jan-bidea ematearren, saiatu zan erri-lan onuragarriak antolatzen ere, baiña ez zuan gai ontan gauz aundiegirik egiteko astirik izan'

Beti izan zuan Consalvi'k, elizjendeak bere saiaketa guztiei begi okerrez begiratzan zielaren ezaguera garbia' «Badaki askok ez dituztela aldakuntza aukeratzeko, (zion). Ezin dezazkete ulertu ere. Batzuek, sentimeneen berotasunak begi-lausotzen ditualako; beste batzuek, pentsatzen astea ere gogoratzen ez zaiolako; besteek, gai auetaz ezer ez dakitelako; beste aiek, oitura zaarren indarrak oker darabilzkialako, eta beste askok, azkenik, zar-orenen maitalegiak diralarik, gaur-eguneko auzi eta arazo berriak ulertzeko neketorik ariñena ere artu nai ez dutelako»'

Ondo igarri zuan gizon onuragarri arek, orduan gaur eta beti Elizaren onenik nagusia zein izan dan: animeko nagitasuna.

Era berean izan zuan Consalvi'k, ain gogoko zituan aldakuntzak egiteko, asti laburra izanzen zualaren ezaguera, eta maiz esan oi zuan, urrengo Aitasantuak kargu guztietatik kenduko zuala. Ala gertatu ere egin zan.

Edestilari askok esan oi dute, ez zuala Consalvi'k Itali'ko Laterrien Batasunaren sentimenik izan; ezta demokraziarenik ere; Baiña, gure ustez, ori ez da egia. Ondo ikusten zuan, berak egindako aldakuntza ura baiño askoz aundiagoa zan beste bat egin zala, ixillean, Iraultza-aroan, Eliz-Laterrietako eta Itali guztiko jendeen adimenetan eta biotzetan: jendea demokrazi-zale eta Itali alkartu bakar baten zale biurtu zala. «Gure kontra daukagu erria», esan oi zuan Eliz-Laterrietaz ari zala. Bazekian «Ikazkin» edo «Carbonarii» borrokalari aiek ere oiuka zebiltzala; eta ez oiuka bakarrik, eraiketa ta indarke-riaren bidez baita Aitasantuaren Jaurlaritzako serbitzarien artean bildurra ta naasketa sortzen ere.

Egia da Consalvi'k ez zuala Eliz-Laterrien Jaurlaritzatik demokraziaren alde eta Itali'ko Batasunaren alde deus egin. Baiña ez zezakean ezer egin ere. AIda batetik, beste eliztar guztiak, an, bi igikunde aien etsai ziralako, eta, bestetik, bera, aro artako gizakumea zalarik, Aitasantuen erregetzaren aurkakoa ezin izan zitekealako. Len esan dugunez Demokrazi-zalea zan Consalvi, eta baita, seguruaski, Pio VII'a bera ere. Baña gizon aientzat Elizaren Laterriak ez ziran beste Laterriak bezalakoak; beste Laterriak, sekularrak ziran, aien elburua sekularra zalako: laterkideen mundu ontako ondasun utsa'

Baiña Eliz-Laterrien elburua ez zan mundu ontakoa, santua zan, jainko-tiarra: Elizaren eskiertasuna, ain zuzen, eta Elizaren askatasuna: Aitasantuari, Kristaudia zerura-bidean egoki zuzentzeko bearrezkoa zuan iaretasuna ematea. Santua zan beraz Aitasantuen erregetzaren zergaitia; Aitasantu batek ez zeza-kean, Jainkoak berak elburu santu baterako eman zion erregetza santu ura bes-te iñoren eskuetan utzi, animen salbamenari, Elizaren askatasunari eta Jain-koaren naimenari traiziorik egin gabe! Demokrazia, ordea, —Eliz-Laterrietan demokrazia ezartzea—, eta Itali'ren Batasuna egitea, Erregetza santu arri le-poa moztutzea zan. Orduango elizgizon aiek ez zitezkean beraz Aitasantuen erregetzaren amaia ziran igikunde aien alde Erroma'n jarri.

Orregaitik, Consalvi, «Ikazkintzaren» eta beste illunpeko-alkarte guztien etsaia izan zan. Maiz aldarrikatu zien kristaudiko agintariei alkarte aiek ze-karren arriskua, eta 1821'ean, «karbonaritz» debekatzen zuan Bulda bat izen-peratuarazi zion Pio VII'ari'

Baiña ez zuan alare Aitasantuaren ertzaindia, Metternich'ek eskatzen zion bezala Austri'koarekin batu izan nai «ikazkiñen» aurka. Zergaitik? Eliz-Laterriak austritarren mendera eroriko ote ziralaren bildur zalako, eta geie-giko gogorkeririk beiñere atsegin izan ez zitzaiolako.

Consalvi'ren aintza da, baike, Ego-Ameriketako Laterri berriak ain azkar on-ezagutu izatea. Españi'ko Erregearen aldeko ziran, Erroma'n, eskubitarrak, baiña zorrotz ikusi zuan berak Ameriketako etorkizuna Laterri gazte aiena zala.

Bearbada, Erroma'ko elizgizonek baiño begirune ta eraspén geiago izan zioten Erkules Consalvi'ri Europa'ko errege eta politikalariek. Egia da, ez zutela aiek ere askotan aren aolku zuzenik jarraitu, baiña alatagutziz, adei-tasun aundiarekin begiratu, itzegin, idatzi, eta entzun izan zioten beti.

Doai eta emaitzen ere ederki estali zuten Aitasantuaren serbitzari bikain ura' Gero, Consalvi'k, karitatezko eginkizun onetarako saltzen zituan aberas-tasun aiek danak. Ez nolanaiko aberastasunak! Bi elizen aurre-ormak eraiki-tzeko, aski izan zan bâ, iru toxa bakarren arri-pitxiak salduaz ateratako dirua.

Bazituan, noski, Consalvi'k ere bere mugak. Ala, mixioetarako zaleta-sunik ez zuala erakutsi, diote batzuek; eta, sozio-ekonomiaren barrutian or-durako ernemin ari zan beste Iraultza Berri ura ez zuala igarri, beste batzuek. Ez dugu uste bi gauza oiek Consalvi'ren aurka aipatu daitezkeanik.

Mixioetarako ardua geiegirik izateko ez zuan betarik izan, Jaurlaritzan egon zan bitartean; eta, gero, Leon XII'ak «Propoganda Fide»ren Lenda-kari izendatu zuanean, denbora falta izan zitzaion, berealaxe eriotzak arrapatu zualako.

Bigarren Iraultza ura ikusteko berriz, azkarregi zan oraindik, ez bait zuan Europa'ko politikalarien artean beste iñortxok ere ikusi. Eta iñork or-duan ikustekotan, Consalvi izango zan iñor ori!

Gure ustez, Consalvi'ren akatsik aundiena, ekumenetasunaren susmorik ez agertu izatea da.

Elizari italiar-usaia ta italiar-antza nabarmena kentzeko ere ez zuan ezer egin. VII Pio il zanean, Konklabean bildutako 49 kardeneletatik 43 italiarrak zIran. Lz zitzaion bIt antza-ta-usai-kenVC ura zalla izango, aide Irtengo bait zItzaizkion KrIstaUdIko errege eta agintari ^uZtiali, Eta ez dugu Liste VII Pin bezain Aitasantu argi batek eragozpen aundirik ipiñiko zionik ere. Baiña ita barra hait zan Consalvi bera..., ez zuan orrelako ,u-azorik ikusi . Ez zan oartu!

Alatagutziz, gizon argia eta zabala izan zan Consalvi, orduan gizon argirik eIa zabalik izan ba'zan. [ta izan ziran, baike, orrelako gizonak. Asko gaiñera!

Consalvi'rena da «Konkordatoen Politica» . Berak aurrera atera zuan Napoleon'ekin 1801 'koa, eta aisa atera zituan, geroago, itali'ko Laterriekin izenpetutako zazpiak. Bi-Sizilietakoak bakarrik eman zion neke-apur bat, Aitasantuaren ordezkariak eta Irregearenak alkar ezin ulertuaz ibilli ziralako. Setatsuak ziran bâ Aulkidonearcn ordezkaiak; gartsuak berriz I Eernando'renak. Aiek, Pernando I'ak bere Jaurreria, —ala izan bait zan ordurarte—, Aitasantuaren feudo-lurtzat on-ezagutzea nai zuten, eta feudotza orren adigarritzat urtero Erregeak Aitasantuari «zaldi zuriaren» zerga, txukun odaintzea; auek berriz, [rregearentzat «placet» edo Aitasantuen aginduei baiezkoa edo ezekoa eman aal izateko almena eskatzen zuten.

Estu jarri ziran gauzak Eernando'k bere-kasa 4 I gotzai izendatu zituan eta Pio'1: gotzai aiei on-ezaguketa ukatu zienean. Consalvi'k lasatu zuan estualdi ura. Peudoketarik aipatzeke, Zaldi Zuriaren ordez urtero diru-emaitza txiki bat eskatu zion Pernando'ri: onek, bere leurreriko Elizaren bizitzarako, emateko prest zegoala agertu zuan dirutik zati txiki bat. Baiezkoa erantzun zion Pernando'k Consalvi'ren eskari orri.

Zaillagoak izan ziran Alemani'n arazoak.

Gotzai-Printzipeen amaiarekin ez zuan ango Elizak ezer galdu, Gotzai Laterri-Buru aiek febronikeriz beterik ibilli bai t ziran maizenik. Baiñan bazan egiazko gaitza, gotzaien Ialta; Alemani'ko Elizarentzat, sei gotzai bes-terik ez bait ziran, une antan, Alemani'ko lurralde guztietan: ; eta irurogei urtetik gorakoak sei aietatik bost!

Laister gotzairik gabe gelditzeko arriskuan aurkitzen zitzaigun beraz Alemani osoa, gauzak bereala konpontzen ez ba'ziran. Bearrezkoa zan Agintarie-kingo konponketa; Aulki Doneak Argikuntzakoan Laterri-Buruei emandako eskubideen erruz, Ipar Amerikako demokrazian izan ezik ez bait zuan iñon Aitasantuak aurretik Agintariekin itzegin gabe edo aien iritzirik entzun gabe, gotzai bat Elizari emateko aalmenik!

Katoliko asko zituan orain bere altzoan Prusi lutertarrak; Rin Ibaiaren araneakoak, batzuk; Poloni'ri kendutako lurretakoak, besteak. Ta Prusi'ko Erregea, katoliko aiek danak lutertasunera eramanean naiean zebillen. Ori adierazi zuan beintzat 1817'an laterkide guztiei zuzendu 1ien «errege-dei» batean.

Alemaniko Laterri katolikotan, bizirik zegoan oraindik febronikeria, ta Dalberg Goigotzaia zane aize ustelaren auspoa, Wesseberg Konstantza'ko Bikario Orokorra laguntzaille zuala.

Erne ibilli zane ordea Consalvi; eta Dalberg'ek Alemaniko Laterri katoliko guztientzat eskatzen zuan konkordato bakar febronikoi ura baztertzeko, yayo jokatu zuan Pritnzipeen aginte-zaletasunarekin, eta lortu zuan Laterri bakoitzarekin konkordato bereizi bat egitea. Babiera'rekin aurrenekoa; eta, bereala, beste Laterri katolikoekin gaineraoak.

Laterri protestalariet ere egin nai izan zuten bakoitzak bere konkordatoa' Uste baiño askoz errezagoa eta egokiagoa irten zane Prusi'koa 1821'eane. Konkordato orren araura, kanonigoek aukeratuko zituzten aurrerantzean Jaurerri artako gotzaiak, eta Aitasantuak emango zient gotzai oiei jurisdikzioa, Erregeak aietakoren baten aurka eragozpenik ipintzen ez ba'zuan.

Beste Laterri protestalari batzuek ere laister izan zituzten beren konkordatoak. Baita Uri-Laterri ziran Lubeek, Bremen eta Frankfurt'ek ere.

Suizi'rekin ere egin zane beste bat 1828'an. Eta 1818'an Errusi'rekin, Poloni'ko Elizaren arazoak zuzentzeko. Konkordato ortan erabaki zanez, zortzi gotzai izango zituan Poloni'k, eta goigotzai bat: Bartsobi'koa'

Iñon adiskiderik izan ba'zuan, Inghanderrian izan zituan Consalvi'k benetako adiskideak: III Gorka bera, adibidez; eta, beste Laterri-gizon askoren artean, Lord Castlereagh Ministroa. Danak ziran, aiek, Elizarekin Konkordato bat egitearen aldekoak, baiña hi eskari zail egin zituzten Parlamentuko diputadu anglikanoek: Erregeak gotzaiak aukeratu aal izatea; ta Errege katolikoei bezala, Inghanderriko Erregeari ere «placet regium» zeritzan eskubide ura ematea. Baietz erantzun zion Consalvi'k aurreneko eskariari; ezetz, bigarrenari. Ta ez zane konkordatorik egin.

Ez zitzaion Consalvi'ri arrazoirik falta. «Placet Regium» («Erregearen Onespene») eta «Exequatur» («Alabedi»), eskubide bat-beraren izenak ziran: lirregeek Aitasantuen aginduei baiezkoa edo ezezkoa eman aal izateko eskubidea. Errege batek bere Jaurerrian Aitasantuaren lege bateri baiezkoa ematen ba'zion, lege zane agindu ura laurerri artan; Ez zane berriz lege, Erregeak baiezko ori ukatzen ba'zion. Errege protestalari bat-edo-batek ere bazuan eskubide ura, baiña itxuskeri aundia izango zane berriro beste bateri ematea.

Austri'n konkordatozale zan I Frantzisko. Ori beintzat adierazi zuan 1817'an Aitasantua ikustatzera Erroma'ra etorri zanean. Baiña biziegi ta gordiñegi ziarduan Austri'n josepekeriak-eta, ez zan ezer egiterik izan.

Agian, Josulagundiaren berbizkundera dugu Consalvi'ren eta VII Pio'ren eginkizunik ederrena. Ez bata, ez bestea, ez ziran oso iñakitar-zaleak, baiña aundiegia zan Loiola'koaren semeen aurka Elizak egin zuan zuzengabekeria, bi gizon bikain aiek erru ura Elizaren kontzientzitik garbitu nai ez izateko. Gaiñera, iraultzaren arerio danak eta politikalarri absolutista guztiak eskatzen zuten oiuka, Kristaudian, Josulagundiaren berbizkundera.

Metternieh bakarra zan, bearbada, berbizkunde aren aurkako; baiñan ezer egin zezakean berak Alexander I'a bera, Errusi Guztietako Tsar Nagusia, Aitasantuari iñakitarren aide otoika ari zan unean? Aski iñakitarren etsai zan Talleyrand, XVIII Koldobika'ren atzerri-auzietako-ministroa ere; baiña antziñako bere iraultzakeria estaltzen bazuan onek naiko Jan, orain erregeen eta erregezale guztien eskarien aurka bere burua agertzeko.

Oroituko duzu nola esan genduan Errusi'n eta Prusi'n Josulagundiak bizirik jarraitu zuala, an XIV Klemente'ren «Dominus ae Redemptor» Buldari II Kataliñ'ek eta II Federik Gillermo'k, aldarrikatua izateko baimenik eman ez ziotelako' Baitare oroituko duzu nola esan genduan VI Pio, naiz berez iñakitarren zalea izan, zalantzan ibilli zala Prusi eta Errusi'ko iñakitar aiei onetsia agirian emateari-buruz. Aien aide azaldu zan batzuetan, eta aurka berriz beste batzuetan. Ala, «aprobo, aprobo, aprobo», erantzun eman zion bein, iñakitarren alde mintzatzera etorri zitzaion Jon Benilawski, Mohilev'eko Gotzaiari, baiña iñakitar aiek «bururik makurtu nai ez zuten biurri batzuk» besterik ez zirala, oi u egin zuan beste bein.

Garai artako politika-giro naasiari amore eman bear izatearen ondorioak!

Egin ere, ez zezakean naita're, VI Pio'k Errusi'n iñakitarren aurka ezer aundirik egin, zaletasun aundia izan bai zien aiei I Paul'ek, II Kataliñ'en semeak' VII Pio Aulki Donera igo zanean, bereala eskatu zion Paul I'ak Errusi'rako beintzat «Dominus ae Redemptor» XIV Klemente'ren Bulda desegitako, eta ala egin zuan Aitasantu berriak «Breve» edo «Eskutitz Labur» baten bidez; eta pozik gaiñera, eskutitz artan esaten zuanez.

Izan zuten iñakitarrek garai artan gizaseme bikain bat: Jose Pignatelli Donea. Berak lortu zuan, I Fernando Parma'ko Duke Borboiaren naimen onez baliaturik, dukaterri artan josulagundia berbiztutzea. Fernando au, Españi'ko IV Karlos'en aidea zan, eta bere jokaera ez zitzaien atsegin izan, ez Godoy IV Karlos'en Lenen Ministroari, ez orduan oraindik Aitasantu zan VI Pio ber-berari.

Aurrera jarraitu zuan ordea Fernando'k, eta Parma'ko iñakitarrek Errusi'ko Probintziaren zati egin ziran. Errusi'tik iñakitar batzuk ekarri ere ekarri zituan Fernando I'ak. Donejose Pignatelli berriz, Parma'ko nobizioen zuzendari izendatua izan zan.

Eta Napoleon'ek Parma'ko Dukaterria desegin zuanean ere, an jarraitu zuten inakitarrek, naiz «josulagundiaren» izenik erabili gabe, beren ikastoletan lanean'

Napoles'en ere Pignatelli'k berbiztu zuan Lagundia. An beste Borboi bat, IV Fernando, Espaini'ko IV Karlos'en anaia, izan zuan laguntzaille, eta 1804'-eko Brebe baten bitartez eman zion VII Pio'k Napoles'ko Josulagundiaren berbiztutze ari legezko onespena' Baiña andik urte betera, Napoles'ko Errege zan Murat, Napoleon'en Mariskal izentsua, eta barreiatuak izan ziran ango josulagunak'

Ez zitzaien inakitar aiei adiskiderik peitu, Itali'ko gotzai danek artu nai izan bait zituzten beren elizbarrutietan, gotzai aientzat, inakitarrek, Iraulzaren-aurkako-ekinza-ororen ikurrin ziralako' Ordurarte Loiola'koaren semeen etsai izandako Pacea Kardenalak berak, «Josulagundia berbiztea Iraulzari kolperik gogorrena ematea» izango zala, jakiñarazi zion orain VII Pio Aitasantuari.

Ez dezagun aantzi, Pacea zala «Zelantien» buruzagia.

Egia da ez zala dana politikeri utsa jendeak Josulagundiari agertzen zion onginai artan; Lagundia desegiña izan zanean, inakitarrek apaiz bezela asko eta ongi lan egin bait zuten baztar guztietan. Donejose Pignatelli'ren santutasunak berak ez zion gutxi lagundu Lagundiaren izen onari; aren santutasunak ukituta utzi bai zuan Zerdeña'ko erregetza Karlos Manuel IV'ak, bere burua Josu-Lagundian «anai laguntzaille» biurtzeko.

Alatagutziz, Pignatelli'ren santutasuna alde batera utzita *ere*, egia da inakitarren miresle zirala orain demokraziaren arerio danak, naiz galikerizaleak izan Bonald'en modura, eta, ori, izerbait adierazi nai *digun* gauza dugula! Zer? Demokrazia eta Josulagundia, —zerbaitengaitik eta nolabait—, bata bestearen etsai gogorrek zirala.

Ori uste zuten beintzat, eta ez arrazoirik gabe, aristokrazikumee, integristek, erregeek, eta absolutismo-zale guztiek. Eta ori uste zuten eta ori uste izan dute ia gaur-gaur arte demokrazi-zale guztiek ere: Lagundia eta demokrazia alkarren aurkako dirala, eta ala izango dirala beti' Uste ori, naas-keta aundi baten ondorioa izan zan.

XVII mendean eta XVIII mendearen aurreneko erdian errege eta aundiki «moraliter omnes», «e'sate bateko guztien», gogo-zuzendari, inakitarrek izan zirala zalantzan ipiñi ez daitekean gauza da. Inakitarren ikastetxeetan ezitzen ziran Kristaudi'ko aundiki guztien umeak. Inakitarrek izaten ziran gero, beren ikastetxeetan ezitako gizakume aundiki aien aitorle eta aolkulariak. Kristaudi katolikoan, jakiña!

XVIII mendean Frantzi'n batez ere Argikuntza galikeriarekin eta jantsenikeriarekin alkartu zanean, inakitarrekin egin zuan topo, auek bait ziran erregekeriaren eta jantsenikeriaren etsairik bizkorrenak.

Arriagarria irudituko zaizu, baiña Voltaire, Rousseau, Diderot, eta deis-

mora, edo sinisgabekerira, igarotako «argitu» aiek ez ziran prnille asko bezain inakitarren-aurkako izan, ez bai t zioten aiek Josulagundiaren izen aundiari bekaizkeririk, eta ez bait zuten erregekeriagaitik eta jantsenikeriagaitik geIegizko axolarik.

Gero, Frantzi'ko «argituek» iraultzalari biurtu ziranean, ez zuten aztu Iraultzaren etsai guztiak inakitarrek ezitako errege ta aristokrazikumeak zirala, eta aien pentsaera, inakitarren ikastetxeetan jaso zuten pentsaera zala. Bearbada, oker ibilliko ziran iraultzalariak, eta ez da aien ustea oso-osoan egia izango, baiña egia da beintzat ez zutela inakitarrek Argikuntza-aroan despotikerizko mundu ura zintzotzcko ezer aundirik egin. Mundu aren okerkeriak bear bezala ikusteko, ez zuten begi zorrotzik izan. Azturik zeukaten politikari-buruz Suarez'ek erakutsi zuana.

Azturik zeukaten, domingotarrek ere, Bitori'ko Frantzisko'ren erakutsia, eta Josulagundia bezain itsu ibilli ziran beste Lrljioso-Lagundiak; baiña, alabadare, lepotik ordaindu hear izan zituzten danek beren erruak Frantzi'n, Iraultzak zigortu zituanean. Gogorragoa izan zan Loiola'ko Aide Nagusikumearen semeen zigorra: Aitasantu baten aginduz Lagundiaren ezereztea!

Iraultzalariak eta demokrazizaleak ez eze, erregeak berak, Espaiñi'ko III Karlos-eta, inakitarren aurka jarri zirala, esango dit bateren batek. Ala da. Oroi dezagun ordea, zein den adimen-argi motzekoak ziran errege aiek, eta inakitarren aurka nork eraginda jeiki ziran. Ez noski aristokrazikumeek bultzata; Arginkuntzari eskerrak gora-igotako sinismen moteleko kristau erdi-librepentsalari aiek, Josulagundiari bekaizkeri beltza zioten prailleek, erregeen begietatik ikusten zuten gotzaiek, eta Kristaudiko jentsenista ta erdi-jantsenista guztiek bultzata baizik.

Iraultza, Napoleon'ekin batera jausi zanaen ordea, gozatu zan Loiola'koaren semeentzat giroa, eta 1814'ean, «ekaitz artean beti zurrunbilloetan dabillen Kepa'ren ontziskak Lagundiko arraunlari bizkorrak hear-bearrezkoak ditualako», berbiztu zuan VII Pio'k Josulagundia, «Sollicitudo Omnium Eieclesiarum» edo «Munduko Eliz Guztien Ardura» izeneko buldaren bitartez. Bulda ortakoak dituzu kakotxartean eman dizkizudan itzak.

Une artan, doi-doi ziran 800 «arraunlari bizkor» aiek. Izan ere, berrogei urtez ezerezturik egon hait zan La;gundia! Baiña laister ugaritu ziran; sei urte geroago, '1820'ean, bai hait ziran 2.000; eta 6.000 geroxeago, '1850'ean. Bi gizonena da ugaritze miresgari orren merezimendua; biak izan ziran Lagundiaren Zuzendari Nagusi: Fortis Aita (1820-1829) eta Roothan Aita (1829-1835).

Bigarren bizi-aldi ontan ere errugabeak izango dira apaiz bezala Loiola'koaren semeak; jakintsuak gaiñera langilleak, eta eraspenkoiak! Baiña orain ere politikaren eta soziologiaren arloan demokraziatik urruti ibilliko dira geienetan, eta aberatsen eta agintari absolutisten adiskide agertuko dira baitipat.



Egin dezaiozun goratarre, alare, loiolatarraren Lagundiari: azkeneko urte auetan, batez ere II Batikan-Kontzilioaren prestaketa-aroaz gero, inakitarrak dira, apaiz sekularrekin batera, politikaren eta soziologiaren barrutietan eliztarrak aurreratuenetakoak. Bedi amen Arrupe'tar Kepa bizkaitarrari, Inaki beraz gero, Lagundi'ko Zuzendari euskotar bakarrari!

Eta itzuli gaitezten VII Pio'rengana, azken agurra egin dezaiozun. Bere bitza osoan bezala, biotz oneko gizona izan zitzaigun azkeneko urteetan ere!

Erroma'ra itzuli zan une berean asi zitzaizkion «zelanti» eskubitarrak, Napoleon'en serbitzura egon ziran guztientzako zigorketa gogorrak eskatzen. Aitasantua, ordea, biotz-zabala agertu zan guztiekin. 900 aurkitu zituan espetxean, eta 600'i eratan zien berealaxe askatasuna. 13aiña, alatagutziz, osa motza iruditu zitzaion Consalvi'ri askatasun ura; zabalegia berriz iruditu zitzairen kardenai absolutista danci, demokraziale oro deabruaren seme hait zan aientzat, eta deabrukeri, demokraziak egindako guztia.

Orregaitik, Iraultza-aurreko bizikerara itzuli nai zuten Eliz-Laterrietako politik-era arlo eta gai guztietan' «Kaiku utsak dira kardenai oiek, —oles zegian Metternich absolutistak berak—, kaiku aundiak dira! Inork uste lezakean baiño kaikuagoak».

Len ere beste Aitasantu askok bezala, Uriaren cderketan eta kulturazko ekintzetan igaro zituan VII Pio'k azkeneko urteak. Urte oietan, Consalvi'ren eskuetan egon zan gobernu guzia, eta luzetsirik berriz egon ziran Consalvi'ren etsai integrista zenbatu-ezin guztiak Aitasantu zaar gaixo makalduaren azken uea noiz iritxiko uni.

la zutik ezin ibillirik aurkitzen zan VII Pio gizagaixoa. Bere gelaren barruan urrats batzuk eman ani zituan, lokarri luze bat ipiñi heur izan zioten ormen biran, Lokarri orri eltzerako bateau, lurrera jausita iziar-ezuraren burua puskatu zuan, eta andik egun batz\_ietara il zan, 1823'garren urtean'

24 urte egon zan Pedro Deunaren Aulkian' Ez zuan inor askok aren eriotzarik sentittu, eliztar integrista danen iritiziz urte geiegi izan bait zituan aitasantutzan, eta Elizari, Consalvi'ren bitartez, gaitz geiegi egin bait zion, aien iritiziz, ara luze artan.

Ulertuko duzu, ortaz, egun aietan Erroma'tik politikolari frantziar batek idatzi zuana: Erroma'ko elizjendeak, «avec ana joie allant jusq'a la férocité», «in basatikeri zan alaitasunaz» artu zuala Aitasantuaren eriotza; „Frantziar baten idurimen beroa? Ez, noski; arrazoi bait damaikio, frantziar ari, Austri'ko enbaxadariak, Biena'ra ,gertak .znn aren albistea emanaz idatziriko eskutitz batean.

Eliztar aiek baiño zintzoagoa izan zaio edestia Pio VII'ari, eta eman dio merezi duan goratarrea. Oinpeturik aurkitu zuan Pio VII'ak Aulki Doña; odolusturik, Eliza. Erpiñik garaieneraiño jaso zuan ura, eta bizkorturik au utzi; eta askoz geiago eginen zuan eskierki Consalvi'ren eskutik, eliztar mordollo eskubitar aien itxutasuna eragozpen izan ez balu.



## DEMOKRAZIAREN GARAITZA

Alperrik egiña izan zan, Iraultza-aurreko Politik-Era edo «l'Ancien Règime» bir-eratzeko, Errege, Aristokrazikume, ta Eliz-Buruzagiek egin zuten guzia; Argikuntza ezkeren iritxia hait zan, Kristaudira, Demokraziaren aroa!

Demokrazia, zalantzarik gabe, gizarte-dotriña-kristauari egokien datorkion politik-era dugu. Altagutziz, XIX mendean, demokraziaren etsai bezela-edo agertuko zaigu Eliza. Zergaitik?

—Aspaldidanik Eliza, edestia-zear, monarki edo bakalduntzarekin alkar-turik zetorrelako, lendabizi.

—Gero, Kristaudi osoan, gotzaiak, eta elizgizon garaiak, «moraliter omnes», «esatebaterako danak», erregezaleak ziralako; izan ere, erregeak aukera-tuak izaten bait ziran danak.

—Baita're, bai noski, Aitasantuak ere Errege «Bakaldunak», ots, aginta-ritza, oso-osoan beren eskuetan zeukaten eta agintaritza ori iñorri kontuak eman bearrik gabe, beren kontzientziaren araura, beraiek bakarrik erabiltzen zuten Agintari guztialdunak ziralako!

Baiña, baita, XIX'ean munduaz jabetzen ari zan demokrazia, bereala iku-siko dugunez, demokrazi zintzo garbia ez zalako ere. Orixegaitik, ain zuzen, bereiziki!

Arras egokia iduritzen zait demokraziaz Yorke Berrian Argitaratutako «Encyclopaedia of the Social Sciences» idazti mardulak dioskuna: «No definition of Democracy can adequately comprise the vast history which the concept connotes. To some it is a form of government, to others a way of social life' Men have found its essence in the character of the electorate, the relation between government and the people, the absence of wide economic differences between citizens, the refusal to recognize privileges built on birth or wealth, race or creed».

Euskeraz: «Edestia-zear demokrazi itzak bildu dituan era ta zentzu guz-tiak adierazi dezazkean definiziorik ez da. Batzuentzat jaurketa-kera bat; beste batzuentzat, gizarteko biziera bat, oi da demokrazia. (Oroi dezagun emen, az-keneko zentzu au duala bereiziki demokrazi itzak Marx'en idaztietan). Austes-kundeetan eta ortik sorturiko jaurladitza-ta-erriaren-artereko arremantetan ipiñi oi da demokraziaren zertasuna; ortan, eta geiegizko ekonomi-ezberdintasunak ezereztean; baita, jaiotzatik, aberastasunatik, nungotasunatik, eta erlijiotik, sortu oi diran sasi-eskubideei uko egitean ere».

XIX n ndelto demokrazia, Rousseau'rcii demokrazia zan; demokrazi li- hcrala zan; lege Hat edo eginkizun bat ona ala txarra zala epnitzeko nutnrkicn zenbaketa beste araurik on-ezagutzen cz zuana eta, I,lizal:, orretxegaitik bes- crik et ba'zan ore. ii alaz artu oz zezakeana.

Alatagutziz, ez da erru orotik iare XIX mendeko laiza . Deniokraziari- -huruz egiazko ;idarit7arik numduari enuttcaz aztuta, ;nit\_ spcnak jaurtitzc utsarekin etsi bait titan. iz lion , ga. ontan nutnduari, hear zuan eta berak bakarril: eman ic>.aiokean, argirik canin . 'I'a. ori, z:rgairik oic? „XiX men- deko Aitasaniti aiek, Hernick eri ( U iri oraindik artu ikusten et zutelako' ; )Demokraziarcn alde orduan oin zegitenalc s `nigabeak ziralarik, demole-a- zian erri krisruiaren sisnismenarctzatt arrisku a ndin ikusten zutelako? An- ki Donea demokrazian mintzatzen isten ba'zan orduango errege guztiak asa- rretuko zirala-ta, asarre **aundiak sartuko ote zitzaizki-** laren bildur ziralakoz? ;Aitasantua bera rrrc'zc absolutista zalako?

Argikuntza-at-oan eta Argikuntzaren oldozkeratik sortu zan XIX men- deko demokrazi berria; eta arengimako z ilctasuna orain guk uste baiño geiago zabaldu han XVIII mendearen bic,arren erdian T:uropa'ko eta Ame- riketako jende ikasicn artean, Baita katolikocn artean *ere*. [ta demokrazia- ganako zaletasunarckin batera ari izan zan zahaltzen politika-erarik ettokienn errepublika nalaren ustea Ala, crrepublikernren maitasuncra aldcratuxeak iman ZIran canon glue Lnskalcrriko «argitU» ospcrsti aiek ere.

XIX mendeko demokrazi liberalak, John Locke (1632-1704) izan zuan aita, baiña ican Jacques Rousseau'l: (1712-1778) eman zion azkeneko itxu- ta. 'I'a, onek azken-tajutu zuan hezcla edatu bait zan m ndura XiX mendeko demokrazia , oroi ditzagun lahurki, bere tokian astiro azaldit genituan Rous- seau'ren gor\*oetak:

—l;rljioz, dcista izan zan. Deista tan, baita'rc, Rousseau'ren demokra- zia zabaltzen geiena saiatu van masoitza. deismo.tk erlijioa arrazoikcri uts, eta, azken onean, arrazoikerizko jostakcta soilla biurtzen hait da, bere- kin eraman zuan beti XIX nicndc;ki, demokrazi liberalak erlijio guztiak ber- diñak vi ahi, ots, beren izate ber-beraz berdiñak zirala, Lita, danai: berdin egiazkoak izan zitezkean ezker, gizonak zitzazona iareki artu te- zalcalaren ustea . Ovni , «erlijiorako Asienta suna» esaten zion demokrazi areE.

jakina, oz zczake:i otrelako erlij:o-askatasun-orotarik ontzat artu, cita're orreIn n,intzntzcn zan demokrazi-niottlrik. Gaur bertan, !,izai:, ciza- ktimca edt,zein c?ljiotian salBatu daitekela uste onez jarduten hada, --dios ---, ci, ordea, erlijio, guztiak. ka-criez, berdiñak diranik. [gia da. Llizak, cil jiorako askatasuna ore irakasten d^.lilla, baiña oiirekin e: du, erlijioa giza- kumeon kntizien aburura egon bear duanik esan nai, baizik-cta gizakume orok egiazkoa uste duan erlijioa iareki jarrirtzcko eskehide osoa baduala, eta iñt n-k et dczaioke la iñori ez crlijioz iddatuarazi ez erlijiorik artuarazi cd , iikatuatazi'

Ez gaitzke, noski, arriturik gelditu, XIX mendeko Altasantu aiek JiberaFn dcmok,azi ari izrer-begiz so-egiten ikusten ba'ditugu.

Deismo orren altzoan, izarteko arazoetan zer dan «ona» eia zer dan «gaiztoa» jakiteko Jainkoak ez zuala gizakumeen zertasunean legerik ezarri, ots, Politikarako, izadi-legerik ez dala, beraz, zion demokrazi liberal arek.

Izadi-legea, ordea, garrantzi aundlko legea da Elizarentzat; eta, gizarteko bizitza (ratzeko, ots, politikarako, oiñarri-lege bakarra. Naitanaiez, ki beur zuan Llizak liberalen irizpide aren aurka, Gogoan euki heur dugun gauza, XIX mendeko Aitasantuak «demokrazia» gaitzesten entzuten ditugunean.

Gai oni buruz, gaiñera, anitz era txoroan lardon ziran XVIII'go liberalak ci ziran ha oartu, «gizakumearen eskubideak» aldarrikatzean, Izadi-legea bera aldarrikatzen zutela. Gizakumearen zertasunean bertan erroturik ei baleude, «eskutbide aiek» danak ez bait Lirake ezer sendorik izango!

—Gizarte-bizitzarako Izadiak legerik ez duanez, —baita'rc zion—, politikan zer dan «ona» eia zer dan «gaiztoa» jakiteko, gizakume iarecn nainun iarea dugula lege bakarra. Ez, zeruko, ei lurreko, politikarako beste legerik ez dala.

Eta, auteskudeen bidez adierazten bait (lute beren nain gizarte bateko gizakumeek, edozein lege edo edozein ekintza, «una!» edo «gaiztoak» diran jakiteko, gizakumeei galdetzea beste biderik ez dugula. «Onak» izango dira gizakumeek gizarte batean, autarkien bidez, ontzat artzen dituzten ekintzak eta legeak; «gaiztoak» berriz, aiek, era berean, gaitzesten dituztenak.

Elburua zala, —esan zuan Makiabelo'k—, ekintzak eta legeak «on» egiten zituana. Egokitasuna, edo egokitasunik-eza, dirala «ontasunaren» eia «gaiztotasunaren» iturburu bakarrak, esango zuan berriz Marx'ck. Ez bata ta ez bestea!, autarkien kopurua baizik, ikopuru utsa bakarrik! zala, edozer gauza «on» edo «gaizto» egiten zuana, oiuzegiten XIX mendeko liberal «demokrazialeek».

Demokrazi ori gaitzestera Eliza bearturik zegoala, edozeinek ulertu dezakean gauza da.

Demokrazi ura, naiz «demokrazi» itz bakarrarekin etorri, ez zan «demokrazia», ots, «erkala» bakarrik, ez zan gauza bat bakarra; gaula bikoitza haizik: «erkala» eta «liberalakeria» zan, batera. Maiz ikusiko ditugo Aitasantuak izkera gogorra demokrazia gaitzesten. Kontuz ordea! I.z zan «erkala», demokrazia bera, Aitasantuak gaitzesten zutena, «liberalakeria» baizik: demokrazi-mota arekin naasirik zetorren Jon Jakoha Rausseau'ren liberalakeria.

Zugurki pentsatu nai duan guztiak ondo gogoan euki bear duan gauza da, itzek ez dutela beti, aro orotan, esan-nai berdiña izaten. 13â gaur «demokrazi» itzak duan zentzua ere, ez da XIX mendean izan zuana. Tu, Aitasantuek demokrazia ezestean, demokrazi itzak orduan zuan zentzua gaitzesten zuten, ez itz orrek berak gaur-egun duana'

Bere gune-gunean Rousseau'ren demokrazia demagogia besterik ez da: «Egin ezak, erri, gura dukana, i erori aiz-ta «ontasunaren» beraren egillea»'

Baita legearen beraren autoritate edo «agintzeko indarra» ere, —legearen «ontasuna» bezala—, erriaren naikunde utsean dago oiñarritua, Rousseau'ren aburuz.

Orixe besterik ez duzu bâ, demokrazia galeraztean Aitasantuek galarazten zutena. Entzun 1864'eko «Syllabus» deritzan «Erabaki» ondo eza-gunean IX Pio'k zer gaitzesten zuan: «Auctoritas nihil aliud est nisi numeri et virium naturalium summa»: «Agintzeko aala, zenbakien eta gizarte-indar utsen kopurua besterik ez dala» ! «Besterik» itzean eta «indarkeri utsaren» aipuan dago gaitzespenaren zioa; bi gauza oiek kentzen ba'dituzu, gaitzespena bera ere kendua duzu.

—Rousseau'ren aburuetaz landa, bazuten Aitasantuek demokrazia berari orduan bildur izateko beste arrazoï bat ere: Kristaudiko erria, betidanik Errege Autokraten mendean bizitzera oiturik zegoalako, mendeko izatez utzi-ta erri ura agintari izaten nola asi zitekean... ez bait zuten Aitasantuek ikusi ere egiten!

—Aitasantu bezala ere, bazuten Aitasantuek demokraziaz inintzitzen asteko zertaz kezkatu sentittu, Zergaitik? Demokraziaz mintzaten asten ba'ziran, Kristaudiaren altzo berean, Eliza ere demokrazi biurtzearen aldeko igikunderik sortuko zalaren bildurra! Ta ez zan ori bildur txoro geldoa, ordurarteko erejeetan, edestia-zear, asko eta asko, Eliza demokrazi egin naiean ibilli bait ziran! Orrela, adibidez, urte batzuk lentxeago Febronio bera Austri'n eta Alemani'n. Bide ortatik ibilli zan kontziliarismoa ere. Eta demokraziale ez ba'zan ere, aski Eliza-aristokrazi-biurtzearen-zale izan zitzaigun kontziliarismoan oiñarriturik zegoan galikeria.

Eliza berriz, Kristo bere irasleak ala nai izan zualako, eta Gizarte Sagaratua dalako, ezin daiteke ez aristokrazi ez demokrazi izan.

Bi dira gizarte sagaratuak: Sendia eta Eliza' Gizarte oietan Jainkoagandik zuzenean eta bitartekorik gabe datorkie agintariei agintaritzat' Orrela, gurasoci, sendia-baitan, ez diete agintaritzat semeok ematen, Jainkoak baizik. Era berean, Eliza-baitan, Jainkoak ematen die Aitasantuei agintaritzat, ez elizkideen naikundeak.

Erejeak berriz, danak, edo beintzat ia-ia danak, Eliza aristokrazi edo demokrazi biurtu nairik ibilli izan dira beti. Ez al zan ori, demokrazirako oiturik gabeko XIX mende artan Aitasantuak demokrazia aipatzerakoan zurgurki ibilli nai izateko arrazoirik aski?

—Aitasantua, bestalde, Aitasantu izateaz gaiñera Errege ere bazan. Itali'ren gerralde osoa betetzen zuten Eliz-Laterrietako Errege. Aitasantua demokraziaz itzegiten asten ba'zan, demokrazialeek, bere erreñu ura ere demokrazi biurtzeko ez al zioten eskatuko? Elizaren Laterriak demokrazi biur-

tu? XIX mendeko Aitasantu batek pentsatu ere egin ez zezakean gauza. Aurrena, Laterriak bereak ez ziralako; Elizarenak bakarrik ziralako. Eta, bigarren, Laterri aiiek, Elizari Jainkoak emanak zirala uste zualako. Elizari emanak, Elizak bearrezkoa dituan askatasuna ta eskiertasuna izan zitzan.

Alatagutziz, astiro-astiro eta apurka-apurka besterik ez ba'zan ere, demokraziari-buruzko kristau dotriña, demokrazia edatzen ari zan une artan, munduari ematera bearturik zeudela Aitasantuak? Bai. Ori..., argi ikusten dugu guk orain; baiña, orduan, aiiek, ez zuten orrelakorik ikusi. Ta, aro bakoitzeko gertakizunak, aro artako begiekin, —ez gure gaurko begiekin—, ikusi bear ditugu, zugurki epaitu nai ba'ditugu.

\* \* \*

Demokrazia ez zan, ez orixe! , ain gauza berria XIX mende artan. Kristoren aurreko V mendean «demos» (erria) zan Atenas'en «krazia» (aala, au tori tatea).

Baiñan erkalarik sendoena eta osoena eusko-demokrazia izan da, zelantzarik gabe! Anitz txikia bait da, ordea, gure euskalerrria... eta euskotarrak ez bait dira beiñere beren izaera lau aizeetara zabaltzearen lagunak izan..', ez du munduak gure demokraziaren ezaguerarik jaso.

Besterik gertatu da Grezi'koarekin. Eta ez, angoa gurea baiño beteagoa-zalako, edota, —an Atenas'ko Laterriak ez bait zituan beieñere 22 milla baiño laterkide geiago izan—, ango ura gure au baiño geiago zabaldu zalako, baizik-eta greziarrak euskaldunok baiño idazteari-emanagoak eta beren-buruen-goratzaille yayoagoak izan diralako beti. O, Grezi'ko demokrazia!

Antziñako Grezi artan uri bakoitza Laterri iare zan' Ba, uri-laterri aiiek danak, ia-ia dan-danak, edo bakalduntza, monarkia, (errege baten agintaritza) edo aristokrazia (yayoenen agintza) izan ziran, eta, maiz aski, tirani edo oligarki, ots, monarki ta aristokrazi ustelduak'

Atenas ber-bera, Krist'aurretiko V mendean, eunen bat urtez izan zan demokrazi, eta orduan ere aren demokrazia ez zan Euskalerrikoa bezain be-tea izan, Laterkide guztiak ez bait ziran an eskubide berdiñekoak. Ori..., jopu edo esklabuak aipatu gabe! Atenatarrek, —ala Platon'ek eta Aristotele'k—, esklabutza bear-bearrezko gauza zala pentsatu hait zuten, laterkide iareak lan gogorretan astirik galtzen ibilli gabe, politikan, filosofian, ertian, elertian, gudagintzan edo salerosketan ari aal zitezen.

Esan dugu Atenas, —eta bere koloniak—, izan zirala demokrazi. Peloponeso'ko azken-gudua, Atenas zapalduta, Esparta'k garaille amaitu zuanean sartu zion demokraziari biotzean aiztoa' Krist'aurreko 404'garren urtea zan. Arrezkero'.. —Masedoni'ko Filipo, Alexander Aundia, aren ondorengo errege militarrek an, eta Erroma'n monarkia ta errepublika aristokrazikoia ta inperatore autokratak, eta geroago erdiaroko feudalismoa etorri ziran-da—, arrezkero,

ez zan sekulan munduan demokraziaren aipurik egin, eskolastikaren denberraren teolu, ahalari kristauak erriaren aalaz mintzatzen asi ziran arte. AIA. adibidez. Doncontona akinatarra.

Ala're, Birjaiotza aroa, eta baita Arginkuntzaren aroa ere, absolutismoaren eta despotikeriaren ara izan zitzaizkigun, T'parramerika'ko Laterri Alkartuetan, demokrazia, bizkor eta disdiratsu, bir-piztu zitzaigun arte. Orduan asi ziran Europa'ko «argituek» demokrazia benetan irrikatzen.

Inglanderri'ko demokrazia aipatzeak ez du geiegi balio. Egia da, XIII mendean, «Carta Magna»ren bitartez, erregei eskuaklotiti zitzaizkiela; baiña «Gutun Nagusi» ark eratutako Ingalaterra ez zan beñere demokrazi izan, oligarki baizik, lur-jabe aberatsen agintaritza, «The Glorious Revolution»; orrek ere, ez zuan 1688'an gauzarik aldatu; soilki burgesi aberatsa jaso zuan agintaritzara, lur-jabeekin baiera. Oroi, gairera, «Iraultza Aintzakor» ura, ez zala demokrazia ipintzeko egiña izan, Errege katoliko bat (II jakoba), kenduta, Erregiñ protestalari bat (II Mary) aren tokian jartzeko baizik. 1832'a arte ez zan Ingalaterra demokrazirik ezartzen asi. Ordurarte agintaritzatik urrun, oso urrun, egon hait zan erria! Ain zuzen Ingalaterrian betidaniko demokrazi zaarra, Espaini'ko liberal ankerren ankapetan bizia galtzen astera zijioan unean agertu zan Inglanderrikoa.

Gaur, [aizak, Laterri eldu baten gizarte-erarik egokiena, ta kristau-filosoliarekin ondoen kidatzen dana, demokrazia dala erakusten digu. Baiña ez ditu [aizak gauza!; beti, era berdiñean ikusi, hait zaitez arritu: Elizak ez hait zuan bere dotriñaren sakontasun guzia aurrenetik ulertu. Ez du oraintxe bertan ere ulertzen. [ez du munduaren azken unerarte ulertuko! Ta... , ulertuko ote du une artan ere? ;Ain hait da aberats oparoa bere Sortzailleak emon lion dotriña!

„Mendez-mende, aldi bakoitzean, bizi dan mendeko alaba dugu ;gure Fliza, eta mende artako gertakizunek beartzen dote, —Eliza— Gogo Deunak eraginda, gertakizun aiek eskatzen duten erantzuna bere dotriñaren sakontasunean billatzera. «Signa Temporum» izen-eman zien, Eliza orrela beartzen Juter-, mundutiko gertakizun oiei, XXIII Jen Aitasantuak: «Tjenboren Sifalcak» .

Esan ere esan daitekela derizkiot, kristnutasuna munduan zabaluen asi zanean, kristauak baiño obeki ikusi zutela kristautasunaren etsaiek dotriña berriak zekarzkian gogoeta iraultzalari portitzak, ta orregaitik jarri ziralala ain gokor kristautasunaren dotriña berri aren aurka . Dotriña artan hait zetozen demokraziaren azi-ale guztiak. Ikus:

—1 rregeak, naiz Erroma'ko Inperatore izan, ez dirala Jainko.

—Erregeak, naiz Erroma'ko Inperatore izan, gizakume uts dirala; beste edozein gizakume bezala, legea betetzera beartuak.

Legea ez data agintzarien naikeri.



--Legea Jainkoagandiko gauza dala, eta, edo Jainkoak lege ori izakien zertasunean bertan ezarri dualako, (Lex Naturalis), edo profeten bidez eman digulako, (Lex Positiva), Izadi eta Gizadi osoaren oiñarri dala.

—Agintariek ematen dituzten legeak oro, Jainkoaren Lege aren araura egñak egon bear dutela. Lege ortatik bakarrik datorkiela beren indar guzia.

—Gizakumeak ez dezakela Jainkoaren Legearen aurka datorren legerik bete.

Agintaritzea, gizakumeen zerbitzura, ta bereiziki, beartsuen serbitzura, dagoan gauza dala.

Gizakume guztiak dirala Jainkoaren seme-alaba. Ta Jainkoak iñor mai-teago izatekotan, beartsuenak dituala maiteenak.

—Gizakume guztiak berdiñak dirala gizakumetzari dagozkion gauza guztietan.

—Gizakume orok, edozein gizakumek, eskubide osoa duala, gizakumetzari dagozkion eskubideetarako. Baita diru-truke erositako esklabu edo jopu aiek ere!

—Gizakume guztien egin-bearra dala gizartea, ta izadia bera, zuzentasunaren araura eratzea.

—Duintasun berdiña dutela gizakumeen lan-mota guztiek, baita jopuen lanak ere.

—Duintasun berekoak dirala gizakume guztiak, eta baita gizadiko enda, errialde eta kultura guztiak ere'

Erromatarrentzat ez eze, «esklabutzaren babesle ta nai-zuten-bezala-lege-egitearen zale ziran Athnas zaarreko laterkide aientzat ere ulerkaitzak izan hear zuten zearo gogakizun (Olek)», iñoiz entzun aal izan ba'zitzuten: «All this would have seemed quite incomprehensible to the slave-owning self-ruling citizens of ancient Athens» (Wakins).

Esan dugu Elizak ez duala mundu ontako bere bizitza guztian Jainkoak eman zion dotriña bere osotasun guzian ulertuko; giza-adimenaren-neurriz-gaindikoa bait da dotrin ori. Aitor dezagun orain, Elizak oben egin deza-keala, aldi bakoitzeko arazoei erantzuteko, dotrin ori aztertzen bearrezkoa duan leiarik ipintzen ez ba'du: nagikerizko obena'

Oben ortara jausi ote zitzaigun leen-Eliz ura? Ez dut uste. Lenengo, erromatarren zigorketa luze gogorrak politikaz arduratzeko girorik utzi ez izateak, eta bigarren, azken-juizioa berealaxe zetorrela uste izateak, mundu ontako gauzak nola tajutu pentsatzen asteko egokitasunik ez bait zioten eman. Orixe izan hai<sub>t</sub> zan, ain zuzen, Eliz aren arantza: «la tentacibn de la Iglesia primitiva, la expectacibn pasiva del futuro queriendo acelerar la parusia», ots «Kristo'ren bigarren agerkundea azkarragotu nai izatea». (Enrique Tarancón Kardenala).

Alatagutziz ez zuan gutxi egin, ez orixe, lenen mendeetako Eliz gazte arek, piztu bai<sub>t</sub> zuan munduan Iraultzarik audienaren txinparta. Arrezkero,

gizakumeok ez gera zenbaki utsak Agintari baten menpeko gizartean; ez gera, eztare, Laterriaren tresnak; Jainkoaren seme gera, munduaren eta gure buruen eta gizadi osoaren xede edo destinuaren jabeak, eta, orregaitik, gizarte-bizitzarako arau egokien antolatzaileak; iPertsonak! , guzia itz bat bakarrean esateko.

Naitanaiez sortu bear zuan Pertsona auen artean mendeak-zear erkalaren usmoa!

\* \* \*

Lenen-Erdiaroa ez zan, noski, demokraziaren aroa izan. Ez zitekean izan! , iparraldetik etorritako jende basati aiek ezarri zuten giroaren erruz. Alperrik urbilduko zera beraz orduango Elizarengana, demokraziari-buruzko berrien eske. Ez da arritzekoa, leen-elizaren «denboratasunaz» esan dugunaren araura. Ala're, —ta auxe bai arrigarria! Elizaren teologilariak izan ziran, (bere tokian azaldu genuenez), demokrazia ber-idoro ta demokraziaren teoria eratu ta gorpuztu zutenak, orrela, demokrazia politikaren oiñarri biurtuaz. «Quod omnes tangi ab omnibus approbetur» esaten zuten teologilari aiek: «danek eratu bear dute danei dagokiena». Aurrerago joan zan Akino'ko Toma Donea, erriagandik agintaritza artu ez zuan agintaria egiazko agintaria ez zala, erakutsi hait zuan. Ez al da ori egiazko demokrazia?

Iru urrats zituan Donetomas'en erakusketa arek: 1: Agintaritza, Jainkoagandik dator. 2: Jainkoak, erriari ematen dio Agintaritza. 3: Erria da, ez Jainkoa, Agintaritza agintarici ematen diena.

Birjaiotzakoa, Bitori'ko Frantzisko Aitak eman zien indar berri ikasbide zar oiei, eta Suarez'tar Frantzisko'k, Bitorikoaren atzetik; eta beronen bideetatik jarraituz, Argikuntzaren asieran, kalbindar baiño geiago bere pentsaeran katolikoa izan zan Ugo Van Groot, «Grotius», olandarrak.

Elizak, ordea, Eliz bezala, ez zigun mende luze oietan beñere erkalarik aipatu! Nagitasunezko obena? Ez! Ez bait zan mende aietako giroa demokrazizko giroa! Denboraz-kanpoko gauza izango zan orduan, Eliza, Politika demokraziaren araura antolatzen saiatzeko agintariei eskatzen astea. Danadala, arazo oni-buruz, Aitasantua errege izateak, Elizari ez ziola on aundirik egin, esango nuke nik.

Aitor dezagan gaiñera, Elizak bere dotriña erakusterakoan uts egin dezakela dogmari ez dagozkion punttu guztietan. Agian, uts egiten ari da gaur bertan ere! Jainkoak eskatuko digu kontu, aro bakoitzeko eliztarroi, gure aroko arazoei erantzuteko egin dugun guztiaz, eta egin ez dugunaz.

\* \* \*

Izadi-Legeari uko egiten ziolako, Elizarentzat artu-eziña zan Rousseau'ren demokrazia. Baiña libera] guztiak ez bait ziran Rousseau bezain ertzakoi edo

estremistak, bai katolikoak eta bai liberalak, batak besteari amore pixka bat emanaz, errez konpondu ziran alkarrekin toki batzuetan bi alderdiak: Belxika'n adibidez; eta Olanda'n; ta zer esanik ez, Amerika'ko Laterri Alkartuetan' Toki oietan, Elizak askatasun-giroan egindako aurrerapenak arrazoi ematen zioten, Aitasantutzara igo aurretik, oraindik kardenal zala, itz auek esan zituan VII Pio'ri: «Eliza ta demokrazia ederki konpondu daitezkeala alkarrekin, uste dugu guk».

Okerragoa zan Inghlanderrian sortu zitzaigun beste demokrazi-mota bat: anarkismua, edo «agintaritzarik-eza».

Rousseau'k iriki zion bidea demokrazi-mota oni ere; gizarteak gaiztotu duala gizakumea, esaten bait zuan Rousseau'k. Gizakume basatia, bakartasunean, zoriontsua ta zintzoa omen zan, eta gizakume ark, bere kidekoekin alkartuta, «pacte social» edo «gizarteko itun» baten bidez Laterria sortu zuanean galdu omen zituan bere zoriona ta bere zuzentasuna; eta gaiztoa biurtu omen zan'

Ortaz gaiñera, Rosseau'ren demokrazia bera, «demokratia directa» da, «bitartekorik gabeko erkala». Orrelako demokrazi batean erri guziak agindu bear du, errikide guztiak, danak berdiñak dirala, bitartekorik gabe, danak abots berdiñarekin zuzenean aginduaz. Ots, errikozkor txikietaz landa, iñorako eta ezertako balio ez duan demokrazia. Ta ori ez ba'da, ots, «zuzeneko» edo «directa» ez ba'da, demokrazia ez omen da demokrazia' Orregaitik uste izan zuan Rousseau'k berak bere demokraziak ez duala mundu ontarako balio. Gaiñera, badirudi demokraziaren zertasun ber-beraren etsaia izan zala Rousseau' Entzun eiozu:

«A prendre le ternie dans le rigueur de l'acception, il n'a jamais existé de véritable démocratie et n'an existera jamais. Il est contre l'ordre naturel que le grand nombre gouverne et qui le petit soit gouverné». «Itza bere zentzu osoan artzen ba'dugu, sekulan ez dala izan eta sekulan ez dala izango demokrazirik, esan bear ko dugu. Izadiko izaeraren aurka bait doa, geiengoak agintzea eta gutxiengoak agindua-izate ori».

Ikusten duzunez, ez zuan uste aundirik Rousseau'k demokrazi orokorrean' Baiña askoz uste gutxiago merezi du oraindik bene «demoeratie directe» arek. Ura anarki utsa bait da, an, agintaritzan ere laterkide guztiak berdiñak diralarik, ez bait du iñork zergaitik agindua izanik, ezta're iñork beste iñori agintzeko eskubiderik!

Ederki ulertu zuten ori anarkistek, eta agintaritza ororen ezereztea eskatzen zuten. Ta ori lortzeko indarkeria erabiltzeaz ez ziran beñere damutu'

Anarkista aiek danak, demokraziaren maitale sutsu agertzen zuten bu-rua; are geiago, beraiek bakarrik zirala benetako demokrazizaleak, eta anarkia bakarrik zala egiazko demokrazia zegiten oi. Orrek, noski, ez zien orduango elizgizonei demokraziaren egokitasuna ulertzeko geiegi lagundu.

Anarkisten atzetik etorri zitzaigun marxismua; anarkisten bidetik gainera, Karlos Marx bera, oso-osoan, anarkista izan hait zan; eta baita Rousseau'ren miresle adoretua ere, berak ber-berak dioskunez.

Marx'ek komunismua ezarri nai digu munduan. Komunismo ori egiazko anarkia da. Komunismo ortara, iraultza baten bidez iritxiko da mundua. Iraultza orrek, «prestakizun» bat eta bi «maila» izango ditu'

Iraultzaren «Prestakizuna» langilleén ots, proletarien eta kapitalisten arteko borroka da: bear-bearrezko borroka, zientziaren araura jokatu nai duten guztiek onartu eta aurrera-bultzatu beur dutena. Iraultzaren bi «mailletatik» berriz, aurrenekoa, borroka orren estanda da: gogorra, odoltsua; eta, bigarrena, prolétarien diktadura' Ez zaizala ordea izenak atzipetu, diktadura ori demokrazi izango bait da: Rousseau'ren «democratie directe» ura, egiazko demokrazi bakarra. Marx'ek ordea, egi-egiazko demokrazia anarkia bakarrik zala uste izan zuan. Orregaitik, proletarien diktadurari, naiz demokrazi osoa izan, «diktadura» izen-ipiñi zion, proletarick orduan, lan-toki guztien jabe Laterria egiteko, legeak emango dituztelako. Legeak «dettare», «diktatu» edo «ematen» dituan politik'era bat, ordea, Marx'entzat anarkista guztientzat bezala, ez da demokrazia; diktadura baizik; demokrazian gizakume guztiak autoritatean ere berdiñak izango diran ezkerero ez bait da legerik emango.

Bazuten arrazoirik naiko denbora aietako elizgizonek, demokraziaren alde mintzatzen asteaz bildur izateko.

Elizari-buruz, etsai agertu zuan Marx'ek bere burua: Izate-duan guzia gorpuzki utsa omen da: materia; Jainkoa, gizakumeen sorkari; erlijioa, gizakumeen «alienatzaille», besterentzaille. Eliza berriz, kapitalisten lagun eta proletarien arerio: ezereztu bearra dan erakundea.

Ta... ori dana, demokraziaren izenean, demokraziaren onerako; eta, egiazko demokrazia munduan ezartzeko, naitaniezkoa dalako.

Ez al da ori, Aitasantuei, gotzaiei eta apaizei demokraziaganako bildurra sartzeko naikoa?

1848'ko iraultzakoan «la laïcité» jarri zuan liberalismuak modan. Arrezkerero, guzia, «laïque», ots, «erlijiorik gabea» izan beur zuan Laterriaren bizitzan. «Laicus» itza ezaguna zan leen ere Eliza-baitan; «Ordenik artu gabea» esan nai du, ots, Ordenetarako sarrera dan «tonsuraren» bidez Elizaren serbitzurako bereiziki jarria ez dagoan kristau oro. Oraingo beste zentzu berri oni Ernest Renan idazle erromantiku jainkogabeak eman zion mundua-zearko zabaltasuna'

Europa'ko liberal ezkertiarrei ez zitzaien egokia iduritzen Amerika'ko Laterri Alkartuaren «erlijiorik-eza»; Laterri bizkor aien bizia, naiz Laterri lez erlijio-mota bat Laterriaren erlijio bezala artu ez, erlijioan oifiarritua bait

zegoan. «In God we trust» «Jainkoagan gure uste guzia», idatzi zuten gaira amerikarrek dolarrean bertan.

Europa'ko liberal aientzat ordea, Lateria, batere erlijiorik gabea izan bear zuan. Erlijiotasunaren aurka ez zijoazen... itzez; bai ordea ekintzez. Gaur bertan Españi'n, jaurlaritza sozialistaren agintzapean ez al da ori bera gertatzen? Ba'.., orixe bera gertatu zan, baiña askoz nabarmenago, lotsagarriago, XIX'go Europa'n ere. Frantzi'n bereiziki. Ikus:

—Laikutasunak, ikastola ta ikastetxeak Elizari kendu ta Laterriari ematea esan nai zuan.

—Ikastola oietan, naiz erria ia-ia oso-osoa katolikoa izan, ez zan erlijiorik erakutsiko'

Ikastola oietan, —batez ere irakasleak nabarmenki jainkorik gabeak ziranen—, parregarri ipintzen zan erlijioa, edo beintzat Eliza; eta ateismua edo jainkorik gabetasuna ere maiz erakusten zan, eta aski agirian gaiñera. Gurasoen eskubideak Askatasunaren izenean, zanpatuak izan ziran!

—Laterriak ezkontza sakramentutzat artzen ez zualako, iare gelditzen ziran ezkonduak ezkontza nai zuten unean urratzeko. Geiago dana, gauza «progresista» edo aurrerakoa bezala aurkezten zan ezkontzaustea, dibortzioa. «Laiku» izan bear bait zuan sendiak!

—Aborto edo aurgaltzearentzat ere, azkenean, askatasuna ekarriko digu laizismoak. Ezkontza bera bezala, ekintza laikua da bâ gizon-emakumeen gorputzen alkartzea bera!

Aurrerago joango ziran oraindik ausartienak, batez ere marxisten demokraziaren altzoan' Oro laiku izan bear zuan ezkerro, gizon emakumeek ezkontzazko zirimoni bearrik ez zuten alkarrekin bizitzeko eta sendi bat edatzeko' Gora «mai tasun iarea»! «Vive l'amour libre»!

Ez ziran ortaraiño ausartu liberalek; baiña, bai, legezko egin zuten ezkontza zibilla.

Laizismuak, jakiña, Lateria Elizaren ondasun guztien jabe egitea ere eskatzen zuan. Ta, ori, Elizari ezer ordaintzeke, jakiña; ondasun aiek erriarenak zirala aitzaki lez artuaz' Baiña Elizari indarrez lapurtutako ondasun aiek, ez ziran iñon ere erriarengana joan' Lendik aski aberatsak ziran liberalarengana joan ziran. Edo, ordurako, liberaltasun ertzakoiaren pipiak jota zeuden adiskideengana.

Nola ez? Arras «demokrazialeak» ziran orrela jokatu zutenak danak, eta demokraziaren omenez egiña izan zan aiek egin ziguten guzia. Berenez ere ain erregezale zitzaizkigun gotzai eta Aitasantu aiek, ori guzia ikusi ondo-rean, nola nai duzu demokrazia gorensten, demokrazia onesten, eta kanonizatzen astea?

Politikaz eta soziologiaz landa ere, bazituan orduango Elizak demokratiari ikaraz begiratzeko arrazoi sendoak, jakintza berrien arloan ere aurka jeiki bait zitzaizkion orduan «profetarik» zaratatsuenak. Eta danak, bai orixe! demokrazia ikurrintzat eskuan artuaz!

«Arrazoi garbiak» Jainkoa badanik egiztatu ez dezakeala Kant'ek erakutsi zuanez gero, «positibismoa» zabaldu zuten Stuart Mill eta August Comte'k, ots, «zetzuen bitartez atxiki ez dezakegun gauzetaz ezer jakiterik ez dagoala» erakusten duan aburua'

—Era dotorean Jainkoa ukatzera etorri zan berriz, George Wilhelm Friedrich Hegel filosofilari panteista, Jainkoa Izadia dala eta Izadia Jainkoa zala esanaz. Jon Doneak bere ebangelioaren asieran idatzi zituan itzak eredutza, artzea zillegi ba'zait, au izan daitekeala, esango nuke nik Hegel'en «ebangelioaren» asiera, Jainkoari «Idea», «Gogapen», esaten diola kontuan artzen ba'duzu: «Asieran, Gogapena bazan; Gogapen ori, Jainkoa bera zan; Jainkoa izadi egin zan; arrezkero Izadia da Jainkoa; eta jainkoa, Izadia da, eta, izadiaz landa, beste Jainkorik ez da».

Ori ez gaineko erlijio guztiak gizakumeak asmatutako ameskeriak besterik ez dira Hegel'entzat; gizarte bat nolako, alakoa izaten omen da bâ gizarte orrek sortzen duan jainkoa, eta jainko orren inguruan eratzen duan erlijioa. Beretzat artuko du gero Marx'ek pentsakizun ori.

Hegel, demokrazizalea zan, eta aski demokrazi ertzakoiaren maitalea; esan ere, Frantzi'ko iraultzalariak izan zirala, —esaten bait zuan—, gizadia bere erpiñera jaso zutenak!

Demokrazizalea zan baita're Karlos Marx'eri materialismu orokorra erakutsi zion Ludwig Feuerbach; egiazko Jainkoa gizakumea bera dala oles egin zuana.

Beste batzuentzat, Durkheim'entzat adibidez, erlijioa lenen-gizakume baxi aien bildurrak, —izadiko gauza ta gertakizun izkutuei zieten bildurrak—, sortutako mito-sail bat besterik ez da.

Ta bide ortatik jo zuten orduan indar berria artu zuten izadi-jakintzek ere, antropologiak eta etnologiak batez ere; gai auetako jakintsu askoren iritiz, kristautasuna, bere aurreko erlijio zaarren kopurutik artutako gogabideen bilduma besterik ez bait da.

Jakintsu auek ere demokraziaren alde mintzatzan zirala esan bearrik ez dugu.

Ez zan adimen aundiko gizona, baiña bai lurra errez arin atsegiñekoa Ernst Haeckel transformista, eta jainkotasun-usai ooren etsai zakarra!, bere itzek adieraziko dizuten lez: «Teologiaren muiña antropologia da. Jainkoa berriz, edonork beretzako nai lituzkean doaiez, —ametszko doaiez—, jantzitako giza-irudimenkume bat baizik ezer ez da. Orregaitik, bere burua gurtzen du gizakumeak Jainkoa gurtzen duanean!» Ta, jainkoa gizakumearen

sorkari, gizakumearen irudi utsa dalako, gizakumea bezala, Jainkoa ere «animal vertebratum» zala idatzi zuan, ots, «bizkarrezurdun aberea»!

Ez zabiltz oker Haeckel ere demokraziaren aldezle izan zitzaigula pentsatzen ba'duzu.

Tamalez, demokraziaren izenean ekiten zioten orduango «demokrazi»zale aiek danak Elizari. Zergaitik? Demokraziari-buruzko bere dotriñaz era argi ta garbian mintzatzera Eliza beñere ausartu ez zalako'

Heine olerkaria izan zan «Jainkoaren eriotza», aurrena abestu zuana: «N'entendez vous pas les clochettes? A genous! On porte les sacrements à un Dieu qui est mort»: «Txintxarririk ez al duzute entzuten? Belauniko danok! Sakramentuak daramaizkiote illik datzan jainkoari»!

Mende-erdi bat geroago, Friedrich Nietzsche izanen da deadar bera eginen duana: «Il da Jainkoa! , jainkoa il da! Gu izan gera, gu, Jainkoaren erailleak»!

Gizakumea, ordea, ezin bait daiteke ezer gurtu barik bizi.'. , beste Jainko berri bat sortu zuten jainko-eraille aiek! : Gizakumea bera.

Feuerbach'ena dugu, Jainko berri onen dekalogoaren lenen-agindua: «Homo Homoni Deus»: «Gizona, gizonarentzat, jainko».

Paris'ko Komuna'ko iraultzalari aiek 1793'an Arrazoia gurtu zuten bezala, orain, izen aundiko jakintsu auek, gizakumea gurtzen dute. Jainko berri onen teologia, jakintza izanen da, eta, giza-gurtzailleek, beti, izen ori izkinaguziz idatziko dute: Jakintza. «La Science est une religion» idatzi zuan Renan'ek. Gizadiak ez zuan ori beste erlijiorik izan bear: «desegin ditzagun kristau-moralitatea ta moralitate orren estalki diran dogma guziak», oies zegian Bavet irakasleak' Txoroago mintzatu zan beste irakasle bat, Quinet, itz geldo auek jaurti zituanean: «Gure elburua, Aitasantua gezurtatzea da. Ez gezurtatzea bakarrik, ezereztea baizik! Eta..' ezta ezereztea bakarrik, aren izena bera mundu guztiaaren aurrean parregarri ipintzea baizik».

Noski! , gizon arranditsu oiek danak demokrazizaleak ziran!

Bi erakunde erabili zituzten Jainkoaren arerioek erlijioa ezabatzeko. Len ere aipatu duguna bat: Ikastola; ta leendik ere ezaguna duguna, bestea: Masoitza. Agintari ospetsuak izan ziran Viviani ta Clemeneau. Ona zer zion ikaskuntzari buruz Clemeneau'k: «Gure borroka ez dago karriketari eta enparantzetan; ikastetxeetan dago!» «Erljioari-buruz neutralitatea, gezur boro-billa besterik ez da», esan zuan berriz Viviani'k, ikastetxeetako borroka arek zer bide zaramakian uler dezagun.

Masoitza berriz, orduantxe, III Napoleon'en denboran batez ere, igo zan bere gaillurrera, iraultzakoan ez bait zan ain ondo ikusia izan. Orduantxe sortu zan gainera Elizari ainbat kalte egindako masoitzaren adar ezkertiar zipotz ura, ain zuzen, «Arkitektu Nagusiaren» sinespideari ere uko egiñaz, sinesmen oro ezereztera zetorrena. «Gure eginkizuna, jendea txorabiatzeko

apaizek erabiltzen duten erlijio oro descgitea da», zion «anai» batek. «Katolikotasuna? Orixe da, guk, masoiok birrindu bear dugun gauza», beste batek berriz, Esaldi oiek Paris'ko «Grand Orient»eren 1895'eko agiri hatetik artuak dituzu.

Eta, ez uste izan masoikeri biurria bakarrik zala Jainkoagandik ain urruti zebillena, Argikuntza ezkeru mundu guzira ari bait zan zabaltzen sinistun agertzeko Jotsaren gandua. 1899'an laureun milla ale saldu zituan Haeckel'ek argitaratutako liburu batek, «Izadiaren Izkutukiak» izeneko liburuak; eta ogei aldiz argitaratu zan berriz 1855'az gero ludwig Büdhner materialista nabarmenaren «Materia-baitako Indarra» zeritzana. Bi liburuak ziran Tainkoa ezereztu-zaleak'

XIX mendeko jakintsuen jokaera ortan badu Elizak berak erru galanta, oartzeke egindako utsa, baiña uts aundia alatagutziz, XIX mendeko teologia ez bait zan XIX mendeko arazoci erantzun bat emateko gai izan. Bere betiko bide-tik jarraitu zuan teologiak, munduari bizkarra emanda Jainkoari begira, munduak jainkoari-buruz zituan kezka ta zalantz :Aaz arduratu gabe!

Izadi-jakintzei ez zien Elizak garrantzirik eman. Ala, ez zituan bere apaizak eta bere laikuak jakintza aiek ikastera bultzatu. Ondorioz, apika izan zan jakintsu kristaurik. Ia jakintsu danak, sinismenik gabeak izan ziran; eta, jakiña, Elizak jakintzei uko egin izate orren erruz, Elizaren aurka jeiki zan, jakintsu sinisgabeen eskuetan, Jakintza ber-bera'

Demokraziari-buruz txit egokiak iduritzen zaizkit Vatikan-Urian argitaratutako «Enciclopedia Cattolica»ren gogoai auek:

—Demokrazia bera, ez duala sekulan Elizak gaitzetsi.

—Demokrazia gaitzesten zuala ematen duan guzietan, demokraziaren mota oker bat gaitzesten duala.

—Elizari, Jaurlaritza cratzeko modua baiña Jaurlaritza erabiltzekoa geiago axola izan zaiola beti.

Ona, Iztegi ortako itzak berak. Ez dut uste euskeratzea bearco duzunik:

«La Chiesa non è mai (iñoiz) statu ostile per principio a la demoeraeia. Punto fondamentale al gliale si è sempre attenuto il suo insegnamento, è he le forme di regimene politico nelle quali liberamente gli uomini possono organizzare la propria vita soeiale sonno in se stesse (berenez) legittime, pui-ché (baiñan) rispettino (errespetatzen ba'dituzte) le morale la religione e la giustizia. Alla Chiesa interess no piu (geiago) i buoni governanti ehe la forme di regimene. Se (baldin) in qualehe eicostanza è potuto sembrare (iruditu) che essa (bera) si zia sehierata (jarri dala) contra le istituzioni democratiche, çid (ori) è derivato del fatto ehe si è trovato dinanzi (aurrez-aurre) ad errori ideologiei ehe ne (ari) viziavano il conteneto e le rendevano (biurtzen) pe-ricolose».

Egia, dana. Baiña orrek ez du osoro Eliza bere errutik garbitzen. Len-dabizi, demokraziaren aroan, Elizak, demokrazia, bear bezala itzegin ez zua-



## XII LEON

(1823-1829)

Oraintxe aipatu dugun Austri'ko enbaxadariaren ustez, 1823'an ere ez zan gozoegia izan Giltzape-Batzarreko giroa, biziki agertu hait zan an griñen berotasuna, alderdien arteko ezin-ikusia, eta hengantza edo apcmtza-naia. Bai omen zirudian Consalvi baztertzea zala, kardenalck aitasantu-gaiei, aitasantu izendatuak izatearen truke eskatzen zieten saria: Consalvi lurperatzea, arek egindako lan guztia desegiteko. Bat bakarra hait zan kardenaI aien elburua: demokraziaren kimu guztiak moztuta, berriro, erlijioaren, gizartearen eta ekonomiaaren arlo guztietan oso-osoan «Antziñako Politik-era» cdo «L'Ancien Régime»ren birrezarketa!

Ez zan noski asmo oien arerio Metternich Austri'ko Kantziller edo Jaur-laritzako Lendakari yavoaa; baiña bai bera eta bai heste Jaunie ta Errege danak Consalvi'rekin ederki konpondu zirala-ta, Consalvi'ren bidetik jarrai ze-zakean Aitasantu zabal ba , nai zuten berriro, eta Europa'ko Laterri-Buruen haietsiarekin, berak, Metternich'ek, artu zuan Giltzape-Batzarreko kardenalei orrelako Aitasantu bat aukeratuazteko eginkizun gaitza.

Ori lortzeko , Austri, Frantzi, España, 7\_erdeña, eta Bi Sizilietako karde-nalekin talde ugari bat osotu zuan eta talde orren lendakaritza eta baita Austri'ko Inperatorearen ordezkaritza ere, adiskide zuan Albani Kardenalari eman zion. Metternich'ek uste baiño aundiagoa zan ordea kardenai «ze-iantien» gogorkeria, eta, baita, kardenai aiek, italiarrak ziralarik, Austri geic-gi indartzeari zioten bildurra ere'

Giro ortan, «zelante» bat, Severoli Kardenala izanen zan eskierki Aita-santu egiña, Alhani'k latañez «exclusiva» esaten dan «ezezko orokorra» Aus-tri'ko Inperatorearen izenean jaurti ez halio, Severoli ark goxotasun apañez eman zizkion Alhani'ri Inperatorearentzat eskerrak, «bizkarretik alako zama bildugarria kendu ziolako».

Asarretu zituan bizi-ro Inperatoreak jaurti tako «ezezko» arek kardenal zelanti guztiak. Eta asarre orren ondorio, Aitasantu izatera iritxi ez ba'zan ere, Severoli, Konklaheko nagusi gelditu zan, eta, azkenean, kardenalen es-kariari erantzunaz, berak aurkeztu zion konklabcari Aitasantu izan zitekean gizonaren izena, Anihal della Genga Kardenala. Ta au izan zan aukeratua.

Bai al dakizu zergaitik? Lendabizi, bera ere bete-betea «zelante» eskubitar integrista zalako, eta, gero, Giltzapc-Batzarreko kardenalak laister ilko zala uste zutelako, osasun aul-auleko gizona hait zan, eta ordurako azkeneko sakramentuak amalau aldiz artua.

Bi konklabeen arteko zobi laburra izango zalaten ustean aukeratutako Aitasantua dugu, beraz, Anihal della Genga, Leon XII'a.

Aitasantu izateko ez zuan merezimendu geiegirik bere bizitzan bildu. Bere eginkizunik garrantzitsuenak diplomaziaren arloan izan zituan, baiña ez zuan eginkizun oietan ere yayotasun aund.rik erakutsi. Napoleon jausitakoan Paris'en garailleak batzarrean bildu ziranean, Della Genga zan batzar artan Aulki Doncaren ordezkari, baiña ez zen batzarrera garaiez iritxi ere. Asaretu zan Consalvi, eta berak joan bear izan zuan laisterka Paris'era Aulki Doncaren eskubideak galzorian ikusten zitualako'

Izugarrizko naigabea artu zuan Della Genga enhaxadari doakebeak, eta es-an hait dugu lenago erc, osasun laburreko gizona zala, gaixo jausi zan eta gaixorik itzuli zan Itali'ra. Poz-apur baten bidez bizkortasuna itzuliko ziolako ustean izendatu zuan Pio VII'ak kardenel.

«La regola di ogni Papa é il rovescio di quella del suo predecessore», «Aitasantu ororen aran-jokoa, aurrekoaren kontrakoa», esan oi dote erro

Oraingoan beintzat ez zuan iñortxok ori gertatuko ez zalaren bildurrik, eskuhitar guztiek ain gogoko zuten emezortzigarren mendeko politika-eraren hirrezarketa azkarrago, sakonago, eta indartsuago egiña zedin autatu hait zuten konklabekideek XII Leon aitasantutzarako. Ta ori egiteko gerturik zegoala adierazi nai izan- zuan noski Leon XII'ak bere aurreneko erabakien bitartez:

—KirinaI Jauregian bizitu zan \III Pio. Orain ordea, XII Leon, Bati aldatu zan, Jauregi eder aberats ontan bizitu bait ziran aitasantu

—Norhait kargu batetik kentzen danean, oiturazkoa da kendutakoari, egindakoserbitzuengaitik eskerrak ematea. Eskerrik emateke kendu zuan XII Leon'ek gobernuko kargu guztietatik Consalvi Kardenala. Eta, aren orde; iñoiz ete baliorik izan ez zuan, — eua orain, larogei urtetan, askoz ere gutxiago balio zuan—, Somaglia Kardenal agurea izendatu zuan Iistadutzako Sekretario..

—Consalvi'ren «tiranikeria» jasan bear izen zuten guztiei egin zizkion XII Leon'ek obari, emaitza eia mesede gozo atsegingirriak.

Laister ordera artu zituan ikerak ostera Consalvi'ren etsaiak. Diplomazian ain adur Txarra izan zuan Della Genga, ez zan konklabetarrek uste izan zuten bezain aul eta makala. Iru illabete bakarrik zeramazkian aitasantutzan, hai ia oartu zan bere inguruko gauzak oso egoki ez zebiltzala. Gaiñera len ere gerta oi zitza on bezala, eriotza urbildu zitzaion ostera. Gauzak ongi egite-

Oker zebiltzan' Baiña oker zebillen «Alkarte Donea» eta oker ibilli ziran gero Errege autokratikoak ere. «Alkarte Doneak» indarrez ezarritako eskier-tasun edo sekuritate-itxuraren azpitik zabaltzen eta zabaltzen ari bait zan demokraziaganako zaletasuna, eta erne bait ziraun, illunpean, Iraultzak.

Erne zeuden erriak ere bazter guztietan, beren eskubideak eskatuaz, bear ba'zan indarrez, Jaurlaritzaren jabe egiteko. Erkalaren aroa bait zan ura!

Orixe bera gertatzen zan Eliz-Laterrien barruan ere, naiz kuriatarrak oartu ez. «Carbonarii» edo «ikazkiñei» botatzen zitzaien errua. Baiña ez ziran an «ikazkiñak» bakarrik, elizgizonek uste zuten lez, Aitasantuen erregetza ezereztuta Eliz-Laterriak demokrazizko Itali bat bakarrean urtu nai zituztenak.

Kuriatarrek, ikazkiñei errua jaurtitzearekin, bi gauza lortzen zituzten, agian berak oartzeke: *erriaren* aurka ez baiña, sailtxo biurri baten aurka zebiltzala borrokan, beren buruei sinistaaraztea; eta «ikazkin» aiek oso katolikoak ez bait ziran, aien aurka zerabilkiten borroka politikazko borroka ez baiña, Elizaren babeskunderako bearrezkoa zan ekintza santua zala uste izatea.

Obeto ikusi zuan Consalvi'k Eliz-Laterrien egoera, «erria gure aurka daukagu» aitortu zuanean. Altagutziz, ez dezagun aantzi, orduan, katoliko elizkoi guztientzat, Aitasantuen erregetza gauza sagaratu zala, politika-lege guztien gaindik zegoan gauza santua, «regnum spirituale», Elizaren askatasuna babesteko Jainkoak berak Aitasantuei emandako erregetza'

Orrela pentsatzen zuan XII Leon'ek ere, eta bere Laterriak —eta bere Laterri aietako jendea salbatzen zualakoan—, «ikazkin» biurri aiei gogor ekiteko asmoak artu zituan.

Boloni'ko lurraldea zan «ikazkiñer» txokorik urdurienetako bat. Ara bidali zuan Jaurle, Leon XII'ak, Ribarola Kardenala eskubide eta almen bereiziek. 508 gizakume sartu zituan onek giltzapean. Millerdi ortatik, 59 eraba, betirako espetxepera galduak izan ziran; 54, lan gogorretara beartuak; eta 7, urkamendian esegiak. (Laterri guztietako kontuak dirala auek? Bai baiña... O! zein dan ituna ta latza, Aitasantua, guztien aita, lur pusketa batzuen errege dalako, gizakumeak urkatzen ikusi bear izate au! Elizaren etsai guztiak laister asi ziran gertakizun auek aizatzen, —aizatzen eta neurri-gaiñetik anpatzen—, Aitasantuaren eta Kristautasun beraren izen ona lokatzez zikintzeko.

\* ★

Erregeek eta Jaunie guztiek justizikotzat artu oi dituzten epaiketa odoltsu oietaz landa, gizon ona zan Leon XII'a. Bear bada, estuegia eta txorrotxegia. Ez zegoan, bada, oraindik illik, —ez orixe! —. Saint Cyran baionatarraren legorkeri mingotza'

«Legorkeri» orrek eraman zuan, inolaiz ere, Leon XII'a, bere mendeko erromatar alaien zintzurak legortu nai izatera, iparramerikatarrek baiño eun urtez lenago, aurreneko «lege legorra» argitara jaurtiaz. Ona emen iskalntl parragarri aren aria.

Bere lendabiziko eskutitz entziklikan, Leon XII'ak Elizak bearrenik izpirituaren aldakuntza zuala, idatzi zuan. Eta Lrroma'tik bertatik asi bear omen zan aldakuntza ori. Gogo-aldaketa orren asiera, zedin «Santu» iragarri zuan 1825'garren urtea: jubileo-urtea' jubileo-urtetik zitu ugariak jasotzeko, garbai eta penitentzien bidez garbitu [ear zituan biotzak Erroma'ko erri guztiak. Ortarako, urte artan. ez zala inauteririk izango, erabaki zuan Aitasantu Erregeak. Inauterien orde, egunero ibilduenak karriketean, eta mixio-itzaldi luzeak enparantzetan, egiñarazi zituan.

Ez zion, lege onek batere atsegiñik egin erriari, eta asarre bizia sortuanazi zion, berriz, bigarren lege batek; bigarren au, gaiñera, el urte artarako bakarrik, betirako baizik, izan bait zan emana' «Cannelletti» edo «Leiatillen» legea deitu zitzaion. Ordikeria eragozi nai zuan Aitasantuak, baiña aurreraxamar juan zan bere asmoetan, ardan-gela-barruan edatea galazi bait zuan. Ardangelak ez zezaketen jenderik artu; Ieiatil txiki batetik ardoa botilletan saldu bakarrik egin zezaketen. Edan nai zuan guztiak, ardangelatik kanpora kalean zutik, edo bestela bere etxe-baztarrean, edan [car zuan naitanaiez'

Erroma'ko erri jostalariak ardoari dion laztankeria ezaguna ba'duzu, ez zaitu arrituko, ez ziola sekulan Aitasantuari legorkeri ura barkatu jakiteak. Ezta eriotzako orduan ere.

«Qui Della Genga glæce  
Per sua e nostra pace»  
(«Emen datza Della Genga  
Bere ta gure pakerako»)

zion, ardo-maitalaren batek aitasantuaren illobi gaiñerako asmatutako irribertso onek. •

Elizaren- Laterrietako jende guztia nai izan zuan Leon XII'ak indarrez-donetuarazi. Aia agindu zion Erroma'ko iaune kardenalari Pazkoazkorik era ten ez zuan guztia espetxera sartzeko, naiz pazku-igeska atzerritarra izan. Eta orrela espetxeraturik zegoan margolari gazte frantziar baten alde Frantzi'ko enbaxadariak berak erruki eskatu zuanean, giltzapetna lekaidctxe bateko bakartasunera eramana izatea besterik ez zuan lortu, eta an egon zan pekatari aundi ura «erakutsi onak artuaz», pazkoazkoa egi\*.era makurtu zan arte. Lz zegoan txantxetan ibiltzerik Leon XII'aren. denborako «zelantien» agintaritzapean.

Geiegikeri auetxek kendu ezker, asmo onez betetako gizona, eta Elizaren santutasunaren maitale beroa izan zan Della Genga Aitasantua. Ez zuan,

ziurki, neurritz gairidiko adimenik izan; ezta ere diplomazirako trebetasun aundirik edo politikarako begi zorrotzegirik. Gaiñera, beti gaixo egon zan; eriotzaren ertzean igaro zuan aitasantutza guzia. Ala ere, ez zan beste emertzigaren mendeko Aitasantuak baiño okerragoa izan; Eta beste batzuk baiño obea ere, izan zan agian!

Bearbada, bere ondorengoak baiño obeki oartu zan munduak zeramakian demokrazia zko aldakuntzaz, eta naiz askatasunaren alde, bera integrista zalako, ezer egin ez, ez zituan beintzat ekinaldi okerren bitartez gauzak okerrago ipiñi. Consalvi'k il aurrean eman zizkion oarpenen meritua? Baleike. Baina badu merezimendua, oarpen aiek ondo aditu eta gogo onez oroitu zituan Aitasantu «zelante» ark ere'

Langille porrokatua izan zan Leon XII'a' Bere-kasa, bakar-bakarrik, egiten zituan lan guztiak; agian, ezertarako balio ez zion Somaglia agurearen orde, beste bat izendatzeko iñorekin fiatzen ez zalako.

Iñor baiño lenago oartu zan bera, aitasantutzarako ez zuala balio. «Cavedaver vobis eligistis» «gorputz illa aukeratu duzute», oi u egin zien negarrez konklabekidei Aitasantu aukeratu zutenean. Ala ere, Leon XII'ari eskerrak eman bearrean aurkitzen gera aitasantutza artu zualako; berak baiño askoz gutxiago balio bai t zuten, bat edo bi kendu ezker, konklabe artako beste kardenalak. Eta ez gaitzoak ziralako, ez; demokraziari zioten bildurra eta gorrotoagaitik munduaren ibilkera berria aditzeko gai ez ziralako baizik.

Limosn'emale aundia, otoitz-zale benetakoa, penitentzi-egille ase-eziña, merezi zuan Leon XII'ak Consalvi bezalako laguntzaille bat' Artu eginen zuan arek, eta pozik artu ere, orrelako laguntzaille bat; bere ondorengo batek bañño geiagok egingo ez zutena! Izan zitzaiokean laguntzaille egoki ori Bernetti kardenala, baiña beranduegi aurkitu zuan au, berealaxe il bait zan orduan Aitasantua. Gaiñera, Bernetti ez zan Consalvi.

Wiseman kardenalak dioskunez, Leon XII'a, alderatzen zitzaion guztia- ren maitasuna eta eraspina berealaxe irabazten zizkion izkera goxoaren, eta begiratze sakonaren, jabe omen zan. Baiña era berean, aren betartea, «a la fois serene et triste», «batera bakana eta ituna zala», oroitzen digu orduan Erroma'n enbaxadari zan Chateaubriand'ek'

Ain zuzen Frantzi'ko enbaxadari onek egin digu Leon XII'aren goratarrerik bikaiñenetakoa; uste gabean gaiñera; berak Aitasantuekin izandako alkarrizketa bat lumaz oroitze utsaren bitartez! Ikus:

Enbaxadaria eta Aitasantua bakarrik ari dira izketan. Gaia, Frantzi'ko Eliza-eta-Latterria-arteko zailtasunak. Onela mintzaten zaio Chateaubriand: «Asiera-asieran, gaitza guztien sustraia, eliz-gizonen iraiña izan zan. Eliz-gizonek aldaketari izan zioten iraiña («de méprise du clergé»). Istituzio ta erakunde berriei lagundu bearrean, *edo* beintzat, ixil-ixilik gelditu bearrean, elizjende danek erakunde berrieri gaitzesnpen-eta-irrika-itzak («paroles de blame») bota-eta-bota besterik» ez omen zuten egin.

«Ori... elizjende aren aurka ezer gogorragorik ez esatekotan! («Pour ne rien dire de plus»). «Bereala, Frantzi'ko elizjendeen izkera baldar, ura, Elizaren aurkako izkillutzat artu zuten sinispen ororen etsaiek, katolikotasuna politikazko askatasun ororen aurkakoa dala erri xeari sinistraarazteko».

Chateaubriand, XVIII Koldobika'k Frantzi'ri emandako «Charte Constitutionnelle» edo «Oinarrilege-Gutun» artaz ari zan izketan. Aurrerago joan zitzaion Aitasantua:

«J'entre dans vos idées», «Zure gogabidetik noa' Monarkien altzoan aña azi bait zaigu katolikotasuna Errepubliken babesean. Bezaigu adigarri Ameriketako Laterri Alkartuetan Elizak egin duan aurrerapen arrigarria».

A! , gure Jainkoak aldetik Consalvi ain azkar kendu ez balio! Baiña, d nork lezaioke Ari konturik eskatu?

## VIII PIO

(1829-1830)

Luzea iduritu zitzaion, Erroma'ko erriari, XII Leon'en sei urteko aitasantutza; gaiñera, erria geiago erretxindu nai izan halu bezala, iñauteriak astera zijoazen unean il zan Aitasantu ura! Orrela, bigarren aldiz gelditu bear izan zuan Erroma'ko erriak iñaute-gabe Leon XII'aren erruz!

Bertso zorrotzak abestuaz ordaindu zion erri suminduak:

«Sartu'izkiguk Leon,  
iru ziri sakon:  
Aitasantutza artzea,  
ain luze bizitzea,  
iñauteriz iltzea».

Erria ez eze, aski asarre zeuden kuriako kardenalak ere, ez hait zitzaien XII Leon, sei urte leenago aiek uste izan zuten bezain integrista ta «birre-zartzaille» gogorra gertatu. Ta, «eskerrak, —pentsatzen zuten—, jainkoak zerura garaiz eraman digula, nor jakin hiî bestela, Bernetti laguntzaille zuala, noraiño sartuko zigun iraultza, Leon XII'ak, Elizaren barrura?»

Ez zitzaien arrazoirik falta, «Aitasantuaren erregetza eta Eliz-Laterrien izatea bera, erriaren matxinada baten zurrunbilloan betirako galdu nai ez ba'ziran, Elizaren politika guztia erabat aldatu bearra zala» esaten hait zebillen Bernetti.

Aitasantu integrista zorrotz bat aukeratzekotan zeuden beraz kardenalak XII Leon'i lur emanda konklabera bildu ziranean.

Kristaudiko Errege eta Jaurleek ordea, —ostera Metternieh buruzagi zutela—, ez zuten Aitasantu integristarik nai. Erroma'ko kardenalak baiño adimen zabalagokoak ziralako? Ez' Estukeri ta gogorkeri geiegiri bildur ziotelako baizik, eta bereiziki, Agintari aiek danak erregekeroi-zaleak ziralako, ta, orregaitik, Elizaren eskubideak Elizari itzultzeko eskatzen asi zitekean Aitasanturik konbeni ez zitzaielako.

Errege guztien artean, bat bakarrik, Españi'ko VII Fernando bakarrik, agertu zan Aitasantu integrista baten aldeko.

Bazan aldi aietan oitura parregarri bat. Giltzapeko Batzarrean aitasantu-egilleak bilduta ate guztiak isten ziranean, Kristaudiko enbaxadari guztiak joan oi ziran konklabea bildurik zegoan jauregiko ezkaratzera, ate nagusiak zuan txulotxo batetik atearen beste aldean itxirik zeuden kardenalei itzegitera. Txulo ura doi-doi omen zan arraultz bat andik sartu aal izateko aiña.

1829'ko konklabetarrei txalo artatik aurrena itzezin ziona, Riego'ren iraultza odolotan itota errege ahsolutistarik czerezena zan Fernando VII'aren enbaxadaria, Labrador'ko Kontea, izan zan; eta ona zer eskatu zien bere nagusiaren izenean, kardenal jaunai: «Naiz gogabide onuragarrien larruz esalita agertu, errege-aulkien pipi galgarria ziran dotriñen ugaldeari orma garaitu-ezin bat ezartzeko gai zitekean Aitasantua, arren, aukeratzeko, errege-aulkiekin batera errialde guztiak ere ugalde erioagarri ark ondamecko amildegira betirako galdu ez zitzan». Beste modu baiera itzezin zuan ordea Frantzi'ko Chateaubriand'ek Karlos X'aren ordezkari lez: Denbora eta era berriak ulertu eta gidatu zezazkean Aitasantu bat bear omen zuan Elizak; eta baita munduak ere!

Albani kardenalak *ere* adierazi zien bere lagunei aitasantugai «zelante» orok izanen zuala Austri'ren ukoa. Ulertu zuten kardenalek, «zclantientzat» bide guztiak itxirik zeudela, ta «politicante» baten billa asi ziran, ots, gogortasuna baiño geiago gozotasuna erahiltzearen maitale zitekean aitasantugai baten billa.

Albani'k eskeñi zien itxura ortako Kardenal bat: Frantzisko Xabier Castiglioni; danak pozik onartu zuten gizona. Zergaitik, ordea...? Au ere laister ilko zala, ziurki uste zutelako!

Edestiaren luzaroan egin oi diote jokaldi zipotzik ugari Giltzape-Batzarretako Kardenalak Gogo Deunari!

Aukeratutako gizonaren gaitasun bakarrari so egin ezkeru, autaketa obeagorik ezin zezaketen kardenalak egin, lenen mailleko gizona hait zan Xah'er Castiglioni, Consalvi'ren lagon eta adiskidea; baiña zearo gaitzak jorik zegoan-da, cz zuan Aitasantuaren zama larria bere-gain artzeko balio.

Eriotza urbil zuala argi ikusten zalako, ain errez onartu zuten aren autaketa Consalvi'ren arerioek. Gorputza bera gaitzaren zigorrez itxusitua zeukan Aitasantu berriak: okerturik burua, eta alde batera biurtua lepoa, zintzilik masail-larruak. Oñazeen garraztasunek itzali ere zioten lentigo beti ez-paiñetan izan oi zuan irriñoa, eta, gaiñera, kirioen auleriak maiz ipintzen zuan nun-nai eta edozer gauzagaitik zotinka eta negarrez. Auxe zan une zail aietan, Elizaren zuzendaritzarako Espiritu Santuari kardenal «zelanti» santu-usteko aiek eman zioten gizona: Pio VIII'a.

Albani Kardenalari zor hait zion aitasantutza, ura egin zuan Bernetti'ren ordezkari Idazkari. Ez zan eta bazan aldakuntza ura garrantziko aldakuntza. Consalvi'ren lagunartekoa bait zan Albani ere, «Jaun aundia, bizkorra, arraia, gozoa eta apaiña, dotorea beti» (Stendhal), naiz larogei urte



betetako agurea izan' Baiña, naiz Consalvi'ren lagunartekoa, ez zuan Bernetti'k aiñako adimenaren zabalatasunik. Orregaitik, aurka izan zituan Albani'k esku-bitarrak eta ezkertiarrek.

Egia esateko, artara ezkerro ez Albani'k ez Consalvi'k, eta ez beste iñork ere, ez zezakean Errialde ura gobernatu, laterkiderik geienak aitasantuen erregetzaren aurkako eta Itali'ren batasunaren aldeko bait ziran ordurako Elizaren Laterrietan' Eta, ori, ez zuten iñolaz ere Aitasantuek ikusi nai!

Aitasantu-lanean anitz eta anitz arrazoiez dogu benetan onuragarria Pio VIII'a; uste ez daitekean aiñakoa izan bait zan, eriotzaren magalean oñazez josiriko gizon bikain arek ogei illabete laburreko agintaroan egin zuan lanketa.

Elizarentzat artzai ona eta lege-emaille yayoa agertu zan.

Politika-arloan, zalantzan ibilli zitzaigun gienetan, nora jo ez zekiala. Ez zan, noski, erreza illabete aietan zer egin eta nola jokatu jakitea, orduantxe altxa bait zuan Europa'n ostera berriz iraultzak burua'

1830'garren urtea: kaleetara datorkigu atzera indartsu «Alkarte Doneko» Jaunek betirako zapaldua uste izan zuten Iraultza, Frantzi'n, Napoles'en, Belxika'n, Poloni'n, Armeni'n... Azkeneko au bakarrik ikusi zuan begi onez Aitasantuak' Armenitar kristauak, turkitarren uztarri latza gaiñetik jaurti naiean jeiki ziran bâ matxinadan'

Nai izan zuan Pio VIII'ak aien alde Europa'ko Laterri kristauen lagun-iza lortu, baiña Europa'ko jaun autokrazi-zaleentza, pakezko eta ordenazko Laterri bat zan Sultan iguingarrien Turkia. Ala, Europa'ko agitari kristauei ez zitzaiea armenitarrei laguntzea zillegi, adierazi zuan Metternieh'ek, armenitar auek legezko gobernu baten aurka jeikitako matxinoak ziralako. Ez zuan Aitasantuak ori entzuteaz asarretzeko eskubiderik, ez bait zan bera ere, askatasun-eske irten ziran belxikatarren alde jeiki. Bere ondorengo Gregorio XVI'ak, berriz, agerian gaitzetsi zituan polonitarrak entziklika baten bitartez. Orrela zeuden aldi aietan naasirik politikaren eta erlijioaren gauzak, bere tokian ikusiko dugunez.

Armenitarren altxakundea errez izan zan menperatua, eta Frantzi'ko enbaxadariaren ardurak salbatu zituan eriotzatik kristau doakabe aien biziak. Betidanik izan bait da maometarren menpeko lurralde aietan Frantzi'a, kristauen zaindari ta babesle, diplomaziaren bitartez.

Iru itzetan bildu zuan Erroma'ko erriak Aitasantu onen bizitza osoa: «jaio zan; naiko negar egin du; il da» («Naeque, pianse, mori»). Ala ere, erakutsi zion esker ona Aitasantuak egin zion mnesedetxo baten truke: «leia-tillatxo» lege naigabezko ura kendu izatearen truke. Ara zer abestu oi zan ardangeletan:

«Giunto Pio  
Innanzi a Dio  
Gli domando: «Cosa hai fatto»?  
Gli response: «Niente affato».  
Dissero gli angelletti:  
«Levô li cancelletti».

(«Pio Jainkoa'ren aurrera agurtzean, «zer egin dozu»? galdetu zitzaion. «Ez dut ezer egin», erantzun zuan. Baiña mintzatu ziran aingerutxoak: «Kendu ditu leiatillatxoak»).

Ez zion erriak maitasunik izan, naiz Aitasantutza labur onek maitasun ura ondo merezia izan.

Larri ta naasirik uzten zuan ludia Pio VIII'ak eriotzako orduan. Len aipatutako Laterrietako ixkamilletaz gaiñera, urduri zebillen Inghanderriaren aurka Irlanda, eta entzun zitekean ia, izkillu-otsa, Españi'n ere.

\* \* \*

Larri ta naasirik uzten zituan Elizaren Laterriak. So dagiogun astirotxoago Aitasantuen lurralde oni.

Gaurko Suiza'ren neurriko jaurerri bat osatzen zuten orduan Elizaren Laterriek. 41.288 km' ditu Suiza'k; 41.400 zituzten Elizaren Laterriek. Oso gaizki zebillen emeretzigarren mendean Elizaren Laterrietako ekonomia. Antziña ugaria, bizkorra eta emankorra izan zan, an, eskulangintza, baiña orain, Itali'ko iparraldeko ola aundietan egindako gauzak merkegoak ziralako, lur-jota zeuden eskulangleak urietan. Aitasantuen Jaurerrian agintari izaten ziran kardenal eta gotzaiek ez zuten industria sortarazteko kementasunik izan. Jende asko bizi zan beraz, lanbiderik gabe, Eli-Laterrietako urietan.

Ez zebiltzan gauzak obeki nekazaritzako alor eta landetan. Ez zan an jende asko bizi, Jaurreriko gizakumeen irurden bat bakarrik bait ziran nekazariak; baiña auek, ia danak, «braecianti» edo lur apurtxo bat berea ez zuten saripeko langilleak ziran' Lurra, jaun-txorta txiki batena zan; eta nagusi aundi auek, gero-ta-aberatsago ari ziran egiten. Erria ordea, gero ta txiroagoa zan. Baiñan gero ta txiroagoa zan erri gaixo onen sakeietik ateratzen zan Laterri-dirurik geiena; zergak, baitipat, jend ak egiten zituan gastuetatik jasotzen bait ziran!

Merkataritza, salerosketa, —eskulangintza bera bezala—, legedi zaar eta naasi batek itorik zeukan. Izan ere, frantziarrek iraultzakoan ekarritako era berri aiek deseginda, antziñako era zaarretara itxu-itxuan itzuli nai izate txoro eta burugabezko arek, gaitz aundia egin zion ekonomiari, iraultzalarien erak, alderaketarik gabe, askoz egokiagoak hait ziran.

Gauzak gero-ta-okerrago zijoazen; batez ere 1820'aren ingurua ezker; orduantxe asi bait zan, iparraldeko Piamonte'n eta Lombardi'n olagintza. Jendetzaren ugaritzeak ez zien Aitasantu Erregeci auzirik batere xamurtzen' 2.354.000 bizi-lagun zituzten 1816'ean Elizaren Laterriek. 3.000.000 izanen dituzte 1848'an: urietan lanik gabe bizi ziran jendeak, asko! A! , nolako ardagaia, Proudhon, Blanqui, edo Marx'en eskuetan, Iraultza berriaren, ekonomiazko iraultzaren, txinparta piztuarazteko!

Elizaren Laterrietako laterkideek ez zuten gaiñera beren Jaurerria maitate, ez bai, zitzaien orduetzker Aitasantuaren bakalduntza gustoko; ta bertako gobernukera, iguingarria bait zitzaien. Eta erriko jendea bezain aspertua zegoan jende ikasia, auentzat ez bait zan Laterri artan, —apaiz egiten ez ba'ziran—, aurrerapiderik billatzeko modurik, politikagintzaren barrutian.

Aitasantuen Jaurerria, apaizen jaurerria zan: «Klerikrazia»; «Apaizaala». Garrantzizko edozein kargu artu aal izateko, aurreneko baldintza, «monsignore» «nerejaun», izatea zan; orrela deitzen bait zitzaien beeko mailleko ez ziran elizgizon guztiei.' Ez zituan begi goxoegiez jendeak «monsignor» aiiek ikusten: «Come abati troppo laiei, corne laiei troppo abati», «Apaiz izateko sekularregiak, sekular izateko apaizegiak» (Farini)'

Gaillurreko eginkizun eta agintarigo guztiak gotzai edo kardenal zarren eskuetan zeuden: «Gerontokrazia»: «Agureaala»; ez, noski, era berrien bear-kizunei erantzuna emateko, jaurkerarik egokiena!

Almen eta eskubide guztiak, bere eskuetan zeuzkan Aitasantuak: «Absolutismoa»: «Ororako-aala», edo «guzialgintza» osoa zan, beraz, Aitasantuen erregetza' Jainkoagandik artuak zituan eskubide guztiak: «Teokrazia», Jainkotikoaala» ere, bazan, beraz, erregetza ura; eta baita «Autokrazia» ere; Aitasantuek «beren izenean» bakarrik agintzen zutelako. Erria ez zan deus. Kargu ororako, agintarien aalaren iturburu, Aitasantua zan. Ez da beraz arritzeko gauza, «erria, aginkera aren aurka» egotea, Consalvi'k adierazi zuan bezala.

Ala ere, esan dugunez, Consalvi bera ez zan Elizaren Laterrietan demokrazia ezartzearen aldeko, naiz bera demokrazi-zale izan, gizon argi arentzat ere, beste elizgizon guztientzat bezala, Elizaren Laterriak beste Laterrien antzekoak ez bait ziran. Auek, laterkideen serbitzu utserako ziran. Aiiek Eliza guztiaren serbitzurako, eta Eliza, batez ere izpirituzko alkarte zerutarra dalako, Elizaren Laterriak ere, Elizaren askatasunaren babes-izkillu ziralako, nolabait, izpirituzko gauza ziran, gauza zerukoia.

Aitasantuen Jaurerrian ekonomiazko Iraultza sortuarazteko giroa ain egokia ba'zan, nola ez ote zuten, an Proudhon, Blanqui edo Marx'en erakus-kintzek beiñere oiartzun aundiagorik aurkitu? Lendabizi, Jaurerri artako jendetzaren oso-osoan kristaua zalako; bigarren, aitasantutza, eta Aitasantua'ren beraren Nortasun Donea, erri arek maite zitualako; eta, irugarren, Itali guztian be-

zala jende oien leia, baita langilleena ere, proletaritzaren jasokundea ez baiña, Itali'ren birjeikitzea eta Itali'ren Batasuna zalako.

Ez bait zan gaiñera onaindik ola-langillerik an. Jende txiro beartsua, bai; bazan ugari; baiña jende aien artean ez zan oraindik proletari-zentzurik Itali'n sortu. Itali osoan, eta baita, noski, Eliz-Laterrietan, jendeak, geienik, abertzaleak ziran; Itali bat eta batuaren zaleak.

Orregaitik, Itali'ko «risorgimento» edo «birjeikitzearen» alderdiko guztiek, gorroto zuten Elizaren Laterrien izate utsa; Laterri aien askatasuna bait zan Itali'ren batasuna lortzeko eragozpenik aundiena. Batasun ori lortu arte ez dute anarkistek eta komunistek Itali'ra zer egiñik izango.

Ala ere oartu zan Mazzini Itali'ren Birjeikitzearen zuzendaria 1830'eko Iraultza, ez zala 1789'koa bezelakoa izan, eta Karlos Marx baiño leenago oartu ere' Marx'en ustez, 1789'ko iraultza eta 1830'ekoa, biak burgesitarren Iraultzak izan ziran. Burgesiak aristokraziaren aurka eratutako iraultzak. Mazzini'k ikusi zuan begi zorrotziz, azkenekoan, langilleak ez zirala burgesitarren esanera ibilli; ekonomiatik sorturiko arrazoiak igitu zutela langilledia; «Proletaritzza» eratzen asia zala'

Orregaitik idatzi zuan 1831'ean, iraultza baretu bezain laister, «soziologia eta ekonomiaren auzien mami-matira sartzen asteko garaia iritxia zala», eta Itali berriak, «askatasuna eta batasunaren alboan, soziologiaren arloko zuzentasuna ere lortu bear zuala». Baiña auek urrengo Aitasantuaren denborako kontuak dira. Urrengo Aitasantu orrek ordea ez zuan «denbora aietako siñal-leak» ulertzeko Mazzini'k bezain adimen zorrotzik izan.

## XVI GREGORIO

(1831-1846)

Iraultza-giro naasian bildu ziran Kardenalak «Giltzape-Batzarrera», Aitasantu baten au kera tzero; urduri hait zegoan oraindik Europa, cia tiroka bait zebiltzan Poloni'n, eta Turki'n kristauak, Elizaren Laterriak berak ere haziran naiko txorabio-sortzaille Kardenal ikaratu aientzat. Mundu guziak pentsa zezakean, giro artatik naitanaiez Aitasantu eskubitar gogor bat aterako zala izendatua, Albani Kardenala bera ere «zelantien» alderdira igaroa zilaririk. Alperrikakoa bait zan, gainera, ate nagusiko «arrantza baten neurriko txu-10» aipatu artatik, konklabetarrei Frantzi'ko enbaxadariak egin zien eskaria: «Gobernatu hear zituan Probintzici askatasuna emateko gai zitekean» Aitasantu bat! : «L'indépendance des Provinces qu'il serait appelé à gouverner» egin zezakean Aitasantu bat!

Bere nagusiaren izenean egin zien eskari ori. Berria zan Frantzi'ko Errege tira ere: Koldobika-Felipe, gillotinan bizia galdu zuan Printzipe iraultzalari izandako «Felipe Berrlintasun» aren semea.

Ez dago argi, enbaxadariak «indépendance» itzarekin zer eskatu nai izan zuan. **Batasunera alkartu zitezten**, Elizaren Laterrien iartetasuna? „Laterri aien altzoan demokrazia? „Aitasantuek errege izateari betirako agur egitea?

Demokrazia besterik ez zuan eskatzen noski enbaxadariak naiz erabilli zituan itzen zentzua argia izan ez. Baiña argi zegoan, cia oso argi gainera, konklabetarrek entzungor eginen ziot: 'la aren eskariari. Pio VIII'aren illetak ospatzen ari zirala izan zan oraindik, Erroma'n azkeneko matxinada ta...! iGozoak, kardenalak, une artan, «ndep:ndcnc»otan p,ntzatzen ibiltzeko!

Ala ere aski luzea izan zan giffa!)e-batza ura' Berrogeitanmar egunekoa, sailtxo bakoitzak aitasantutzara buruzagitxoa usa nai izan zualako. Giustiniani Kardenala aukeratzekotan jarri ziranean, Españi'k eragozi zien onen autaketa, Machid'en Nuntzio zalarik Kardenal onek karlistekin adiskidetasun beroegiak izan zitualako; naiz oraindik Fernando VII'a bizi, ari hait ban ordurako karlisten gudatea Españi'ko politika-giroaren sahelean erretzen'

Pacca izendatzea ere gogora zitzaien konklabeko aunalariei, baiña zaa-  
regia zala-ta, heste baten billa asi ziran; eta, azkenean, beste au, lekaide zu-  
rietako bat izan zan; kamaldulatarra, bere Anaidiaren Zuzendari Nagusi iza-  
nst, Mauro Aita, eta, Aitasantuen artean, Gregorio XVI'a.

Lekaide santua izan zan, eta lekaide bezala bizi izan zan, bere gelarcn  
barruan, Aitasantu zalarik ere: Lekaideak bezala jan, lekaideak hezala las-  
togaiñean lo-egin. Bai ña jendearen aurrean, goberntitzako agerkizunetan eta  
erlijiozko gertakizunetan, Errege bezala eta Aitasantu hezala, ez zan artean  
Erroma'n Gregorio XVI'a bezain gizon aunditsu, dotore, apaintasun-zale ta  
dizdiratsuagorik ikusi Ez, noski, bere buruari, haiña bai bere kargu altsuari,  
;oparotasun oro •zor zitzaiola uste bait zuan!

Naiz urrez eta pitxiz jantzi, itxusia zan amen itxura: batez ere sudurra  
zuan irrigarria: zapala; ta, gorria. Erromatar erri biurriak, ardoak gorritu  
ziola esan oi zuan, haiña jostaketa utsezko izkeran bakarrik, danek ezagutzen  
bait zuten ongi, aitasantu herriaren pekatutxo koxkor bakarra: tahako-autsa-  
ri hetidanik izan zion zaletasuna. Sudurrautsa artu ta artuz jarraitzeak geie-  
gizko zabaltasuna eta gorritasuna em ezik, minbiziaren antzeko zerbait ere  
sortu zion azkenean zoritxarreko sudur artan.

Teologilari ona omen zan. Tomista porrokatua. Amen oroitza txuritu  
nai duten edestilariak, teologiaren malloetan bizi zan gizona izan zala diote,  
gogapenen munduan, mundu ontara jetxi gahe. Baleike. Mundu ontara jeis-  
ten zanean em zituan, beintzat, gauzak egokiegi moldatzen. Bere teologiarekin  
politikaren eta soziologiaren nuadura sartu zan bakoitzean aski era halda-  
rrean ibilli zan hã. Bitez lekuko belxikar eta poloniar katolikoak, eta baita  
Frantzi'ko lamennaistarrak etc.

Gopapen utsezko zeru goienetan, dioten bezain teologilari ernea ba'zan  
erc, em dirudi adimen zorrotzegiko jakintsua iman zanik; ezta askoz gutxiago  
ere! Ona zer dion Gregorio XVI'az ari dalarik Wiseman Kardenalak:  
«"I(/onted those: (ire touches which suggest ideas of higher genius or delicate  
t aste), «Adimen gaRai baten, Lita leia eta gtlsto bitxien siñale iman oi diran  
ukittu apain oiek falta iman zitzaizkion» aurpegian. Ez zion beraz Kardenal  
ingladerniarrak, ez egiaren sakontasunik ikertzeko, em edertasunaren gozame-  
nik sentitzeko, galtsun, geiegirik aurkitu.

Ala etc ez litzake egia izango Aitasantu onek ma oz onik ez zuala egin  
esatea:

Eutsi zion Eilizaren Laterrien askatasunari, barrungo eta kanpoko  
etsaien aurka; asko bait ziran «sagar» gozo ari puskak kendu nai zizkiote-  
nak' Austri bera, aien artean bat.

Zaindu zituan Elizaren eskubideak gobernu erregekerizaleen aurka. Eta  
goberaut guztiak zeuzkan gaitz iguingarri onek zearo kutsutuak.

Zalantzarik gabe on-ezagutu zituan Ego-Ameriketako Laterri berriak, naiz  
ortarako España'ko agintarien zipozkeiari aurpegi eman hear izan. Ontan Con-

salvi'ren erakusketa jarraitu zuan; Elizak, erriak babesten zuan gobernu ura ezagutu hear zuala, erakusten bait zuan arek, naiz gobernu berri ori ordurarte bere agintari izandakoen aurka iraultza batetik sortua izan.

Bere almen osoz lagundu zien itxasoz aruntzko mixioei, eta ugaritu zuan gotzai berriekin mixio aietan lbzaren Agintaridi Donea: Jerarkia.

Asko ta asko saiatu zan «tomismoa», zabaltzen. Jakiña izango duzu noski zer dan «tomismoa». Mendeak-zear Elizaren Unibersitateetan, Akino'ko Tomas Doneak erakutsitakoa aztertuz, landuz, eia geituz osotitako Filoso-fizko eta Teologizko sistemari esaten zaio «tomismo» edo «tomaskera».

Gauza arrigarria auxe: l;liztar integrista, guztiak izan dira, onez edo gaitzez, tomismoa itxu-itxuan sendotu eta bizkortu, eta kristautasunaren tcologi bak ar Iurt 1 nai izatearen zale. Ez zaie sekulan bureratu, Donetomas emezortzigarren, cmeretziga.rren edo ogeigarren mendean hizi izan balitz, Aristoteles'ena ez baiña mende auetako jakintzak artuko zituala seguruaski bere teologiaren oiñarritzat. Eta, naiz bera erdiaroan bizi izan ere, demokraziaren maitale portitza agertu zitzaigula bere erakuskizuntan'

Beste Aitasantu guztiak bezala, txiroen maitale benetankoa izan zan XVI Gregorio. Une aietan iñon berdiñik ez zuan ekintza-onen-sare bat eratu zuan Eliz-Laterrietan, berak sortutako edo oheanotutako gaixotegi, arroztegi, eta beartsuentzako-bahestokien bitartez. Langabeentzat ogibide berriak sortzeko berriz, erri-lan ugariei eman zien asiera. Uriak edertuaz ta ibilbideak berritu ta egokituaz, mesede aundia egin zien bere Laterrieci. Baita laterri-diruen erabilketarako lege zuzenagoak emanaz ere.

Eliz-Laterrietan pakea gorde zuan. Garbitu zituan mendiak lapurrez; ugari hait ziran lapurrak mendi aietan frantziar ærek l' rroma artu zuten ezkeru.

Alatagutziz, ez zan XVI Gregorio bere erriaren maitasunik irabazteko gai izan.

Mundu guztian demokrazia garaille zijoalako, Bernetti izendatu zuan aurrena Estadutzako idazkari, Europa'ko eta Ameriketako Laterri berriekin alkarrizketa erreztearren; baiña laister baztertu bear izan zuan. liberalegia omen zan hii Idazkari ura Austri'ko Metternich'en eta Erroma'ko «zelantien» iritiziz. Lamhrusehini Kardenalari eman zion orduan Aitasantuen Jaurerrikn kargurik garaien ura.

Aitasantua bezain integrista zan, Paris'en Nuntzio izandako Koldobika Lamhrusehini barnabitarra, eta berekin izan zuan bere Aitasantu inte gristarren konfiantza ta..., bien artean, ia ia Laterri «fatxista» biurtu ziguten Aitasantuen Jaurerria.

Aitortu dezagun erriak berak ere ez ziola gobernutzarako erreztasun aundirik eman Aitasantu Errege berriari. 1831'ko otasaillaren 2'an artu zuan Gregorio XVI'ak aitasantutza. Andik bi egunera, -rean bertan, jeiki zan Boloni matxinadan. Aitasantua'k, Austri'ko Inperatoreari eskatu zion laguntza,

eta «Alkarte Donearen» gogoetua araura, Tnperatorearen godariak menderatu zutea Boloni, baiña austritarrcn etorrerak geiago asarretu zuan erria, aspalditik gorroto Hait zuan erriak Austri, Itali'ko iparraldeko lurraldeen zapal-zaille zalako.

Ez zitzaion frantzi'ri eru atsegin, Austri Elizaren Laterrietako uririk nagusienetakoa zan Boloni'n sarturik ikustea, eta Koldobika-Fulipe'ren gobenuak Laterri guztietako enhaxadarickin billera bat Erroma'n bertan egiteko agindua eman zion bure enbaxadariari, danen artuan Aitasantuari Errege bezala zer erabaki artu bear zituan jakinarazi zcza 'oten. Lotsagarria zan billera ori Aitasantuarrentzat. Are-ta-geiago, oni ezertxo cru esan gabe, asmatua eta agiña izan zalako. Billera artatik ;d;;zli batean Aulki Doncari eskeiñi zitzaizkion aoll.uctatik, batzuk bakarrik izan ziran onartuak. Ez van pakerik lortu. Urduri ta naasirik jarraituen zuan icndcak Pu il-tiaren egoaldako lurretan, eta berriro Aitasantua Austri'ko ,ridarozreari dei eoin bearrean aurkitu zan.

Orrela ,era latzean, amaitu zan Gregorio XVT'arentzat 1831'garren urtua. Ez zan xamurragoa izan l 832'garrena. Jeiki ziran ostera «legazioak»: iparraldeko Eliz-Laterriak' Sartu bear izan zuten, Aitasantuaren deiari erantzunaz, ugariago, austriar gudariak. Po ibaiaren muga iya rota Elizaren lurraldean, Azi ziran Frantzi'ren kezkek eru, eia Koldobika-Pelioe'ren Jaurlaritzako Lendakariak, Perrier'tar Kaximiro'k. Ankona artu 'ruan indarrez: Elizaren Laterrietako kairik aundiena. Aski lotsaz'arria zan ori ere Aitasantu Errenea-arentzat, baiña Frantzi'ko itxas-gudariak Ankona'n jarraitzea, protestal-x O bat egin ondorean onartzera bearturik aurkitu van. Itxurak gordetzeko hestetarako gai izan cz van ostek.eta edo protesta.

Eta oraindik Gregorio XV1'arenizat oiñazegarria'lo zana, Frantvi'k, eta baita Austri'k beral,,: cre, Elizaren Laterrietan erriari demokrazia emateko eskatu zioten. Aitasantuak, ori, ezin ze; akcan egin. B''ryca zuan, Jattrerri Donc artako Atgintaritzza. Bearrezkoa van Agintaritzza ori. Lkzarc'n Buruzagiak Eliza gobernatzcko askatasunik naiko izan zean. Ori zan orduango eliz-jende guztien pentsaera. T;liz,ni traizio egitea izanen zan, Gregorio XVT'arentzat, agintaritzza ori bere eskuetatik askatzea.

Noren eskuetara agintaritzza ori pasa ,ajolik ez yuan gauza van: Napoleon'en eskuetara edo erriaren eskuetara pasa, berdiña izanen zan traizioa; Pekatua , Agintaritzza ori Aitasantuaren eskuetan ez egotea hait zan. Eta Pin VTT';tl: a<sup>9</sup>int;nitza Ori Naiz leon'en l:utiz^t^l< « corde» zualako, oroitza esker-tsua merezi ba'du, oroitza kera merezi du Gregorio XVT'l< ere demokrazizaleen eskarietara maknrtñ ez zalako. Orduango gaitzak, orduan izan ziran bezelalcoak dira, eta ordu an«u nentsaerarek i'n epaitu hear dira, ez pattrkoarekin. Ri Aitasantuek gogapen berak zerabilzkiten.

Egia da oldozkera orrekin emeretzigarren mendeko Aitasantuak, igespi-derik gabe, ondamenra zijoazula, eta Eliza lotsagarri ipintzera. Baiña



Aitasantu eta beste eliz-gizon zintzo, zorrotz, buriu-zugur, agurgarri aiek...! ez zuten ori ikusten!

Ez zan bâ ori ez noski, ez zan, ikusteko, ain gauza zailla! Orduantxe sortu zuan Mazzini jenobatarrak «la Giovunne Italia» edo «Itali Gaztea» izeneko Alderdia, Itali batuta Errepublikak bat eratzeko. Zabaldu zan, Alpe-mendietatik asita Sizili'rcn azken-puntaraiño, bazter guztietan batasun ura lortzeko guraria; eta ez «ikazkin» izandako Mazzini errepublikazale ezker-tiarraren jarraille apaiz-etsaien artean bakarrik. Ain zuzen Itali'ren batasun ura lortzeko eratu zuten ekubitarrek «neo-gielfo» edo «gru:lfo berrien» ekintza. Gioberti'tar Bixente apaiz piemontetarra izan zan ekintza orren filosofia, 18'10'ean idatzitako liburu batean azaldu zuana. «Del Primato morale et civile degli Italiani», zan liburu aren izena.

Aitasantua «italiarrentzat politika-eta-moral-gaietan Aitzindari», •git'-n zuan liburu onen izenak, eta aski poliki saldu zan Europa guztian' Guelfo Berrien ekintza arek, Itali'ko Laterri guztiekin, Suizi'ren antzeko konfed-°ra- pen bat egin nai zuan, Aitasantua konfedcrapen orren Buru Nagusi zala. Alperrikako ekintza, ez bait ziran aldi aiek, eokrazi itxurako Jaurerri bat eratzeko, egokiak. Gaiñera Lambruschini Estadutzako Idazkariari ez zitzaiz- kion Bixente Gioberti'ren izkerak atsegin, askotan demokraziaren doñuan bil- durik zetozelako'

Orrela, «guelfo berri» eta «ikazkiñen» artean arturik, Gregorio XVI'ak eta bere idazkariak ez zuten, agintaritza gordetzeko, indarkeria beste biderik aurkitu: epai-mai bereziak, espetxea, gudariak karriketara ateratzea.

1843'an, millaka ziran politikagaitik ertzaindia atzetik zebilkiten laterki- deak; 400'dik gora espetxean sartuta zeundenak, eta 600 baiño geiago atze- rriara igesegifak. Zigorketa ortan erruaren zati aundi bat, b\_ tdaiteke Lambrus- chini idazkariarena izatea, baiña lekaide aitasantu biurtuak ere, ez zuan, gi- zagaixoak, bere jokaeran, politasun geiegirik agertzen. «Markaetara» joan zan bein, eta politikazko katiguak giltzapeturik zeuden gaztelu bateau igaro zuan gaua. Lot-tu zuten giltzapetuek, Aitasantua urbilizen zan unean, leio baiera «errukia» eskazen zuan idazki bat ccertzea. «Itxi ezazute leio ori», agindu zien morroiei Gregorio XVI'ak. Ori izan zan, erruki eskatzen zioten bere men- dekoei. Aitasantu Erregeak emandako erantzuna.

Mendeko aiek ere ez ziran aingeruak. Diktadura guztien amaiean, bein erriak indar artu ezkerre beti gerta oi dan bezala, ugariak izan ziran matxi- nadak, eta aitasantuaren ertzaiñen eta ertzain-kapitanen erailketak. Iraultza, berriz, ia eten gabe egon zan irakiten, Gregorio XVI'aren aitasantutza guz- tian: «Legazioetan», Romaia guztian, «Markaetan», eta Erroma'n bertan.

Ez zan, ez, ori, Elizaren Laterrietako kontua bakarrik. Zerdeña'ko Jau- rrerria-baitan 1933'an jeiki zan Jenoba, eta bereala ziran aren atzetik matxi- nadan, jaurerri bereail, Saboia eta Piemonte'

1844'ean Napoles zebillen naarisik, Kalabri'a batez euti, eta izan zuan naiko lan Fernando Erregeak errege-aulkian jarraitzeko.

Istilluak ziran Itali'tik kanpora ere. Larri zan Meternich, Ungari'ak, Boemi'ak Kroazi'ak eta Inperioko beste Errick askatasuna eskatzen zutelako..., eua Austri'n bertan liberaltasuna gero ta indar geiago artzen ari zitzaio-lako. L.donork ikusi zezakean Frantzi'n , an bertan Koldobika-Felipe'ren go-bernu burgesitar liberalaren azpitik ezkertiarak iraultza berri baten gertu-ketan ari zirala.

Baiña Gregorio XVI'arentzat iraultzarik mingarricnak Belxika'koa, Ir-landa'koa eta Poloni'koa izan ziran , iru Laterrietan iraultzalariak katolikoak ziralako, eta Laterri katoliko aien Errege zanpatzailleak berriz ereje edo zismatikoak. Noren alde atera? Korapillo latta Gregorio XVI'a bezelako Aitasantu integrista batentzat.

Azkenean, Agintarien aide atera tan! Agintari tismatiko ta erejeen alde eta erri-jende katolikoaren aurka! Zergaitik?

--Mamigabeko-gogapenen zeruan bizi dan mundutik-kanpoko teologilari tomista batentzat, «Autoritate» itza gurpen guzia merezi duan jainkotxiki bat dalako. Zori txarrez, eru batekoak izaten dira gauzak bizitzatik-gaindiko-gogapen-utsen gaillurrean , eua beste batekoak mundu-ontako-bizieraz-barren-go xeetasun, gorabera, eua alaka guztien artean.

—Katoliko iraultzalari aiek liberalekin bat eginda, edo bat egiteko prest ikusten zitualako. Orregaitik ien eTe, kardenaI eta «Propaganda Fide»ren Lendakari zala, belxikatarren aurka inten tan. lata orain polonitarren aurka irtengo da, ikusi ko dugun buala. Ikaragarria tan garai artako elizgizonek libe-raltasunari zioten bildurra. Geroxeago sozialismoari ziotena, edo gaur arte masoitzari izan diotena b.zain aundia. Gaur, badakigu komunismoak ale bel-tzak, 050 beltzak, badituala, baiña et ete gera leka guztia zimaurretzira jaur-titzen ari, dituan ale zaTiak ikusteke? Gaiñera, orduango liberaltasuna et tan gaurko komunismoa.

Iraultzalari katoliko aiek Itali'ren batasun-zaleen adiskide agertzen zi-ralako, eta batasun ori, Aitasantuen Erregetza Donearen amaia zalako.

Liberaltasunak aizatzen zuan Iraularen galda itzaltzeko, Agintari in-dartsuak bearrezkoak zirala uste zualako , nait agintari oietako bat Gillermo I'a Oranxe'tarra erregekiri-zale porrokatua eta kalbindarra izan, edo, beste bat Nikolas I'a autokrata, erdi-zoroa, Errusi guzTien Nagusi zismatikoa. «Erre-gea», beti izan da «Pertsona Santua» eliz-jendeentzat. Errez oroituko dute askok gure artean 1931'garren urtean, Errepublikaren izen utsari apaiz eta praille danek edo ia danek, zioten gorroto beltza'

Errege «Pertsona Santuaren» alboan, izan du «Gauza Santua» elizjendeak gaur-gaur arte «Erriaren Pakea», «Ordena», ene. Neronek entzun diot gotzai es-pañiar bati, «Franko'ren» agintaritza et tala, bearbada, errugabea izango,

baiña «Ordena» zaintzeko bearrezkoa zala». «Ordena» ori, laterkideen bizkarrak erruki gabe zigortuaz zaindu hear izateak ez zion gotzai españarrari burukomiñik ematen! Egingabea da oraindik edestiarentzat garrantzi aundikoa litzaken zenbaketa bat: politikazko arrazoiengaitik eraildakoen zenbaketa, nork jende geiago erail duan jakiteko: ezkertiarrek «Iraultzaren» izenean, edo eskubitarrek «Ordenaren» izenean.

Gregorio XVI'a, borondaterik onenarekin, «Ordenaren» aldekoa zan.

Orregaitik, bildur eman zion Poloni'ko iraultzak. Biena'ko Batzarrak Jaurerri bat osatu zuan Poloni'ren Bartsobi-inguruko lurraldeekin. Jaurerri txikarra, gaiñerako Poloni'ren puska zabalak, emezortzigarren mendearen azkeneko zatiketa aietan eratutako modura Austri, Prusi, eta Errusi'ren mendean laga bait zituan! Eta Erdialdeko Jaurerri txiki berri aren beraren erregetza ere Errusi'ko Inperatoreari eman zion! Aski gezurrezkoa zan beraz, Poloni'ko Jaurerri «iare» aren askatasuna!

Asarre gelditu ziran polonitarrak, eta errusitarren nagusikeri nabarmenak gero ta geiago asarretu zituan. Askatasuna eta nortasuna gordetzearren, bat egin zuten katolikoek, liberalekin eta Dombrowskv'ren masoiekin; eta 1830'eko azaroaren 29'an asi zuten errusitarren aurka gudua, Chlopiskv buruzagi zutela! Bazuan aspaldidanik Errusi'k altzakunde aren bildurra, eta indar aundiak zeuzkan ordurako Poloni'n bildurik: 150.000 gudari, eta bere zaldizko errejimenturik bizkorrenak aien artean, Napoleon'en aurka izena ospetsu egin zuten zaldun-saillak!

Diplomaziaren bidez ere saiatu zan Errusi Iraultza ura galerazten. Nikolas I'aren enbaxadariak, Gagarine printzipeak, zorrotz eskatu zion Gregorio XVI'ari «Poloni'ko apaizei beren eleiz-lanetatik ez ateratzea» agindu zezaiela.

Europa'ko liberal guztiak, —liberalak bakarrik—, naigabetu ziran Poloni'ren alde! Frantzi'koek eskatu zioten beren gobernuari erri gaixo ari laguntzeko, baiña Koldobika-Felipe'ren gobernuko agintariak, batez ere agintaritzartza artu zuten ezkerero, burgesitar goxoki-bizi-zaleak geiago ziran, liberal-askatasun-maitaleak baiño. Ala erantzun zuan Kaximir Périer Lenen Ministroak, «frantziarren odola Frantzi'rena bakarrik zala»: «Le sang des français appartient à la France».

Austri ta Prusi, Errusi'ren alde jarri ziran; biak, leendik, Poloni'ri ostutako zati mardulen jabe bait ziran! Eta, baita, aientzat, Errusi «ordenazko» Laterri zalako ere! Orretxegaitik esanen du Frantzi'ko Guda-Ministroak berak, Errusi'k poliniarrak zapaldu ondorean: «l'ordre régné à Varsovie»: «Ordena nagusi da berrero Bartsobi'n»: Illobitegietako «orden».

Ikus dezagun nolakoa izan zan XVI Gregorio'ren jokaera. Poloni'ko iraultzalariak, ia danak, katolikoak ziran. Bidali zuten Erroma'ra gotzai bat, Aitasantuari beren asmo ta arrazoiak agertzeko! Bitartean, ordea, aspalditik lanean ari zan setatsu Gagarine Printzipea, I Nikolas'en izenean: Poloni'n eta Itali'n, Europa guztian bezala, Iraultzaren buruzagiak, pertsona berak

zirala, esaten zion Aitasantuari: Eliz-Laterrietan ere Traultz.t erein eta aizazten zuten pertsona ber-berak!

Itz oiek zeinēn ederki pentsatuak ziran, eta Aitasantuagan aurki zezake-ten Oiartzuna ulertu nai izateko, so-egiogun une artan Gregorio XVI'ak bere 1aurretian ikusten !uan egoerari.

Esan dugunez, Aitasantu aren denboran ez zan Eliz-Laterrietan pakrik izan. Baiñan aztertu ditzagun orain astirotxoago, Gagarine mintzatzen zitzaion egunetako urduritasunaren xee tasunak:

Legazioak, i\larkak, eta Umbria, —jaurerriko lurren bostetik lau—, matxinada bizian zeuden. Bazter guztietan Aitasantuaren ikurriña beeratua izan tan, amen orde z gorri-zuri-orleoiu jasotzeko: Itali'ren ikurriña.

Poloni'n iraultzalariak, Gotzai, Jaurleriari «Batzorde» bat artuarazi zio-ten jaurtzarako, iraultzalariak; berak osotutako ISatzordea. Aitasantuaren gu-dariak, edo deus egin gabe gelditzen edo-ta iraultzalariengana igarotzen ziran. Ankona ere matxinoena zan, eta, auek, Erroma bera artzera etortzeko prest zeudela esaten asiak ziran. Gregorio XVI'ak kardenal bat bidali zuan, guda-rozte baten buruzagi, Ankona'ko urian «orden» ipintzera, baiña bukaera pa-rrregarria izan zuan saiaketa onek, kardenai huruzagia bera', iraultzalarien ka-figu erori bait zan!

Pakea lortzearren, askatu zituan Aitasantuak Erroma'ko espetxeetatik iraultzalari batzuk. Alperrik; liberalentzaz «Aska:asunaren Martiri» ziran ia-re-tu aiek danak berealaxe sartu bait ziran ostera borrokara! Andik illabetera, Poloni'n «Nazio-Batzar» batean bildu ziran Aitasantuaren Jaurerriko liberal eta «abertzale», ots, Itali'aren Batasunzale garrantzitsuenak. Batzar arun apaiz-zen «buon governo» edo «jaurketa onaren» amaia eskatu zuten.

Orduantxe iritxi zitzaion Gregorio XV.I',u i samin aundia sortu zion beste berri bat: Belxika'n, azkenean, iraultzalariak erabat garaille irten zirala! Katolikoak ziran aiek ere erdiak baiño geiago, baiña an ere liberalekin elkar-turik zeuden, eta alkartze ori nola egin zitekean ez zuan ulertzen Gregorio kamaldular teologilari tomistak. Eta, cita bere idazkari T.ambrusehini ba r-nabitar integristak ere. Gaiñera, okerragoa zana, Belxika'ko eta Poloni'ko iraultzalari aiek, Itali'ko «abertzale» edo batasunzaleen adiskide ez ziran ba agertzen...?

Zeruko miraria, eta mirari aundia izanēn man, Aitasantuak eta bere Tdaz-kariak egin zutena egin ez izatea: Poloni'ko gotzaiak eskutitz bat idatzi zieten eta eskutitz artan «katolikoan artean, Paul Donearen arana, erregenrengana-ko eraspēna eta menpetasuna erakusteko» agintzen zien Aitasantuak gotzaiak. Ez zitzaientz inoiz gotzai poloniarrei eskutitz ori iritxi, Aitasantuak Errusi'ko diplomaziaren bitartez bidali zielako, eta, errusitarrei, Aitasantuaren itzak aulegiak iduritu zitzaizkielako!

Ondo zekiten Aitasantuak eta bere Idazkariak iraultzalariak sutsuenak, Poloni'n, apaizak zirala, ta gotzaiak ere iraultzaren alde zeudela. Ori, bere

eskutitza elburura ez iristea, nai izan ote zuten ba Aitasantuak eta bere Idazkariak? Ez dirudi Gregorio XVI'a ortaraiñoko jokaera diplomazikoirik pentsatzeko gauza zanik. Ezta bere idazkaria ere.

Gaizki, oso gaizki, zijoazen gauzak Poloni'n errusiarrentzat. 150.000 zirala ango gudari errusiarrak iraultza asterakoan, esan degu; 45.000 bakarrik izan ziran Chlopisky'ren iraultzalari abertzaleak, baiña berrogeitabost milla auek banan-banan desegin zituzten errusiarren gudarozteko gudal-talde danak, eta gudari geiago-ta-geiago borrokara bidali-bearrean aurkitu zan Nikolas I'a. Bizkortu ta sendotu zuan, onek, Erroma'n, diplomazizko lana ere: «Europa'ko pakearen eta «Ordenaren» zutaberik bikaiñena ta iraunkorrena» Errusi'ko Inperatorea zala, esaten zion Gagarine Printzipeak Aitasantuari; «Europa'ko «Ordna» Itali'ko «Ordena» zala, eta Eliz-Laterrietako «Ordena». Gaiñera, «Errusi'ko Inperatoreak katolikotasunari kalte-egiteko asmorik ez zuala», jalki zion belarrietara.

Tsar Jarri tu aren gezurrezko eskeintzek, poloniar katolikoek oi u samin-dock baiño indar izan zuten Erroma'n. Metternieh ere sartu hait zan dantzan, Aitasantuari, I Nikolas'en aide agirian itzegin zezala, eskatuaz. Bai katolikotasunarentzat bai Eliz-Laterrien ziurtasunarentzat, balio aundikoa izango omen zitzaion, —Aitasantuari—, Errusi'ko Inperatorearen esker ona!

Ala, 183210 ekaiñaren 2'an idatzi zuan XVI Gregorio'k, iñoiz Aitasantu batek idatzi duan eskutitzik zoritxarretako bat: «Superiori Anno» edo «Igaz» izeneko «eskutitz laburra». Izkeria izugarria darabilki, Poloni'ko iraultzaren buruzagiak gaitzesteko. «Ondamen-sortzaille, gezur-asmatzaille» omen ziran buruzagi aiek; «Erlijoaren jantziz estalita, legezko Agintarien aurka borua al txatzera» ausartu ziran matxinoak; «Gizabideak aintzen duan menpetasun eta eraspenaren lokarri guztiak urratu nai» izan zituztenak; «Beren aberria eriotzaren ondamendira zeramatenak»...!

Santu izatea ez dala aski, Aitasantu ona izateko!!!

Errusitarrek izugarrizko astakeriak egiten ari ziranean iritxi zan eskutitz doakabe ura Poloni'ra. Zagaldurik zegoan ordurako iraultza, poloniar baten-tzat bai hait ziran, ordurako, errusiarrak sei, borroka-lekuetan. Zaratarik aundienarekin, pozaren pozez oleska, zabaldu zuten errusiarrek Poloni'n eta Europa'n Aitasantuaren eskutitz zorigaheia. Izugarria izan zan Elizaren aurka, mundu guztian, demokrazi-zaleen amorrua. Ala ere saia gaitezen Aitasantu doakabea al dugun guztian defenditzen:

—Ari, errusiarrek eta Metternieh'ek, Poloni'n, Itali'n, Elizaren Laterrietan, Europa guztian, iraultzaren buruzagitza bat bakarra zala sinistaarazi zioten. Orregaitik agintzen zien polonitarrei Aitasantuak, iraultzalarien «erakuspide galgarrietatik iges egiteko».

—Urte bete iraun zuan polonitarren iraultzak' Ekintza miragarriak egin zituzten unie ortan; neurri gabea izan zan aien adore eta trebetasuna. Baiña oso gutxi ziran Errusi tantaiarcn gudarozte amai-gabei aurpegi emateko. Asie-

ratik zuten polonitarrek jokua galdua; batez ere Europa'ko Laterriek laguntzarik ematen ez zieten ezkerero, edo, okerragoa zana, Prusi eta Austri bera, Errusi'ren alde ipintzen ziran ezkerero. Ta ori, ikusten zuan Gregorio XVI'ak. Aitasantuak Poloni'ren alde itzegiteak ez zezakean gudaren ibillerarik eta etorpiderik aldatu.

Zerbait lortzekotan, polonitarren, eta Errusi'ren mendeko beste lurraldeetako katoliko guztien ondamena bakarrik lortu zezakean, Errusi lotsatuak amorraturik danak ondatu hait zezazkean batzuk pilloka eriotzara galduaz, eta besteak Siberi'ko bakardadeetan sakabanatuaz. **ez zitekean iri-txi** Tsar zapuztuaren «kosako» mongolitar basatien odoltzalekeria? Gudari bildurgarri auek, bein-da-berriro izan ziran gudu artan menderatuak; kaskatoko aiek, lotsagarri ipiñi zuten Tsar autokrata bera, eta Errusi'ren izen ona. Zillegi al zitzaion Aitasantuari bere alperrikako izketarekin garailleen asarrea eta apentza-egarria aundiagoak egitea?

—Isilik egon zitekeaa? Bai, noski, Baiña Nikolas I'arekin alkarrizketa onartzen ba'zuan, aren alde itzegiten ba'zuan, poloniarrek ostera arenganutzen saiatzen ba'zan, eta aren biotzaren ontasuna mundu guztiaren aurrean goresten ba'zuan, pez al zezakean itxaron, aren adiskidetasuna irabaziaz, polonitarren etorkizuna, zerbait beintzat, gozatuko zuala? Ala eskatzen zien Poloni'ko iraultzalariei, «beren Inperatore altsuaren babesera itzultzeko, Inperatoreak aiekin bere burua on agertuko zualako».

—Gaiñera, polonitarrentzat idatzitako «Superiori Anno» arekin batera, bidali zion Gregorio XVI'ak Nikolas Pari beste eskutitz bat. Errusi guztian eta batez ere Poloni'n katolikotasunari egiten zitzaizkion okerkerien aurka oiu egiñaz. Oker aiek zuzentzeko, Aitasantuak Erromatik Errusi'ra ordezkari bereizi baten bidaltzea eskeintzen zion. Ez zuan munduak bigarren eskutitz onen berririk jakin, izkaturik izkutuenean gorde bai, zuan Inperatoreak.

Nazkagarria izan zan errusitarren jokaera Poloni menderatuan, bai politikaren arloan, bai erlijioarenean ere. Saiatu ziran al zuten guztia, Poloni errusitar egiten eta «uniaten» katolikotasuna ortodoxi zismatikora bultzatzen. Ortarako, egin zituan Inperatoreak gotzai salduen izendatzeak, bere tokian ikusiko dugun bezala; zismara igaro nai izan ez zuten uniata askori, semetxoak kendu zizkion; eta, gero, umetxo oiek, Siberi'ra boteak izan ziran. Eta Aulki Doneak kontuak eskatzen zituanean, Poloni'n gertatzen zan guztiaren errua apaizena zala erantzuten zuan Gagarine Printzipeak, apaiz aiek politikan sartzez gelditzen ez ziralako, eta, okerragoa zana, «Aita baten modura Poloni'ko Eliza obeagotu nai zuan Inperatorearekin» esker gaiztokoak ziralako.

Ortodoxoek agintzen duten lurraldeetan beti gertatu oi dan bezala, orduan ere «uniatak» eta basiliotar lekaide ta lekaimeak eraman bear izan zuten zigorrik aundiena. Eta Aitasantuari gauzak mingarriago egiteko-edo Poloni'n egiten zan guztia, «Superiori Anno»ren araura, Aulki Donearekin alkar arturik egiten zuala oiu zegion Errusi'k munduari.

Oartu zan, ala ere, noizbait, Gregorio XVI'a bere ixiltasunarekin ez zuala ezertxo lortzen, eta altxatu zuan azkenean abotsa Errusi'ren aurka, 1842'an, poloniarrek amar urteko zigor beltza jasan ondorean. Berak uste baiño indar geiago zuan oraindik Aitasantuaren itzak. Ernetu zan Europa guztian Poloni'ren oroitzza, eta ikaratu zan Nikolas I'a, ostera Poloni jeikiko zitzaiolaren bildurrez, eta asi zan Aitasantuarekin alkarrizketan.

Betiko lelo zarra erabili zuten Errusi'ko diplomazilariek: Tsar altsua-  
ren aurka ipintzearekin iraultzalarien alderdira igarotzen zala Aitasantua.  
Denbora irabazi nai zuten, aiek, Poloni'n zerabilkiten jardunketa iguingarria  
aurrera eramateko. Baiña gogor zegoan oraingoan Gregorio XVI'a, eta andik  
bi urtera, Nikolas I'a bera Erroma'ra etorri-bearrean aurkitu zan, ikusten  
bai<sub>t</sub> zuan Europa guztia aurka ipintzen ari zitzaiola. Sendo jokatu zuan Aita-  
santuak. Eta orduan asi ziran, Pio IX'arekin konkordato batera iritxiko ziran,  
Errusi eta Aulki Donearen arteko mintzaldiak.





# LAMENNAIS

(1782-1854)

Bi izan ziran Lamennais'tar ospetsuak; biak anaiak, eta biak apaizak. Bretañi'koak: Jon Mari, gizon santua, erlijioso-anaidi baten asmatzaillea, bata, Bestea, Zorion, frantzieraz Félieité, Aitasuntatzaren babeslerik sutsuena aurrena, eta azkenean, sinismenaren ukatzaillea. Bigarren onetaz dugu oraingoan izketa, Gregorio XVI'aren egiñetan garrantzikoenetako bat Zorion Lamennais'en gaitzespena izan bait zan. Ariñegi, itxuegi, eta bearrezkoak ziran zeaztasunik gabe, eta itzen eta gogapenen mugaketarik gabe, egindako gaitzespena; Elizari kalte aundia ekarri ziona.

Idazlari ona zan, eta, gai batzuetan, igarlea ere bai, Lamennais; aurretik iragarri bait zituan gero etorriko ziran onako gertakizun auek: Aitasantuaren utsezintasuna sinismenaren egi egiña izanen zala; aitasantuak Elizaren Laterrien jabetasuna eta erregetza galduko zituala; liberalen pentsaera Elizak bere-egingo zuala; azkenean Eliza demokraziaren aldeko, babesle, eta erakusle bihurtuko zala; katolikoek luzarora Elizaren eta Laterriaren bereizketa onartuko zutela; Idazti Doneak erriaren eskuetan ipiñiko zirala, eta Teologiak Bibliaren azterketari garrantzi geiago emango ziola; apostolutzarako era berriak sortuko zirala eta sekularrak apostolutza ortan, Elizaren izenean, lan-kide izanen zirala: auxe izanen da, eun urte geroago, Pio XI'ak sortuko duan Katoliko Ekintza'

Idazle yayoa ba'zan, ez zan irakasle motela Lamennais. Oroi ditzagun aren ikaslerik ospetsuenak: Gerperat, Gousset, Doney, iruak gotzai zintzo izanen diranak; Guéranger, Solesmes'eko Lekaidetxea birreraikiko duana; Rohrbacher edestalaria; Asuntziotarren sortzaille izango dan Aleçon'go Imanol; Guerin'dar Maurizio olerkaria...; eta Enrike Laeordaire, orduan mutil gazte adimentsua, gero, izlari erromantikoi domingotar entzutetsua'..; eta Karlos Montalembert, agian danen artean, argitsuena.

Ikasle-sail aren kabia Lamennais'ek bere Bretañi'ko landetan zuan bordatxo bat izan zan: «La Chênaie», «Arteta». An bildu oi ziran maiz, Frantzi'ko pentsaera katolikoaren buruzagi izango ziran gazte bikain aiek. Sinisteziña da Lamennais bretoiaren erakusketak Frantzi'ko eta ludi guziko katolikotasunean utzi zuan aztarrena, ondorena. Eta aundiagoa izanen zan orain-

dik, Aitasantuak zaplaztatu zuanean, maixu agurgarri arek burua makurtzeko lain apaltasun izan bala. Baiña Bretaini'k Elizari sorturiko emaitza mardul arek bazuan barruan arra. Ar ori, arrotasuna zan. Ala ere, laister ikusiko dugunez, ez daiteke erru guzia berea bakarra izan zanik esan.

Bere bordatxoaren inguruko arteak bezain gogorra zirudian Igarle arek ez zuan, bere-baitan, luzaroan batere eskiertasunik izan. Filosofilari sinisga-beak irakurri ondorean erdi-galdu zuan kristautasuna, gaz 'aroan, eta sinismena gir-lortu ondorean ere zalantzan ibilli zan, jaunartzera ausartzen ez zala. Ogei ta **hi** urte beteak zituan aurreneko aldiz Eukaristia artzerakoan, Itai orduan ere, bere anai Ton Mari'k eraginda ausartu zan artara' Gauza berbera gertatu zitzaion apaiz egin zanean, animeko zuzendariek bultzatuta bezela artu **hait** zuan sagaraketa «qu'on fasse de ce cadavre ce qu'on voudra» esanaz: «Egin ezazute, gorputz il onekin, nai duzuten».

Pozik eman zuan bere lenen-meza. Kristo'ren abotsa entzun omen zuan an! «Nere gurutzea eramatera deitu zaitut, gurutzea bakarrik; ezazula ori aztu»: («Je t'appelle a porter ma croix, rien que ma eroix, ne l'oublie pas!»), esan omen zion abots arek. Ez ote zan, Eliza gaizkatzeko, bereiziki «aukeratua» eta «deitua» izan zala uste izateraiño iritxi?

Ez da gozoegia edestilariak egiten duten, aren izakeraren, antz-irudia. Bai omen zuan «une vanité de femme et *de* pocte». «Emakumezkoen eta olerkariak aizekeria» (Bernanos)' «Arroa, amorekaitza, asarrekorra; au dana bazala, eta askotan, iñok eraman ez zezakean moduan zala ori dana, esan bear dan gauza da» (Rops). Berekin omen zuan «ía Luzifer'ek aiña arrotasun, egiaren jabe bera bakarrik zala uste izateko, eta egi ori munduari agertzeko bereiziki autatua izan zala sinisteko»: «l'orgueil presque luciférien de posséder seul la vérité, d'être investi *de* la mission de la livrer au monde» (Rops). Egia da Savanarola'ren antza geiago zuala emeretzigarren mende artako Donibane Boseo'rena edo Ars'eko Apaiz Donearena baiño. Ala ere, aurkitu lezaioke Lemenais'en azkeneko apostasiari azalpen sakonagoa eta kristau karitatez onkituagoa: Elizari zion zinistea; geiegizko sinistea; siniste okerra: Elizak ezertan, ezta fedezkoak ez ziran gauzetan ere, utsik ezin egin zezakeala uste izatera eraman zuan sinistea. Baiña au, geroxeago'ko gaia dugu.

Izan ere, auxe zan Lamennais'en pentsaera guztiaren aria: «Elizaren gaitasuna». «Oro, Elizak salbatu bear du, eta Elizak badu oro salbatzeko almena». «Il fait que les eatholiques refassent la société! La masse (i soulever est énorme, mais le levier es essez fort); («Katolikoek birreratu bear dute gizadia! Bada galanta, jeikiarazi bearra dan orepilla, baiña badu orrantzak ortarako indarririk naiko»)'

Liburu batek, lau tomoko liburu mardul batek, egin zuan ezaguna Lamennais'en izena. 1817'an argitaratu zuan aurreneko tomoa; 1823'an laugarrena. «Essai sur l'indifferenee», «Axolagabekeriari-buruz Saiaketa» izen eman zion idazkiari. Arrerarik on-onenetakoa egin zioten «Saiaketa» ari

munduan irakurleek' Zergaitik? Mundu guziak bere barruan kokaturik zera-  
makian galdera mingarri bati erantzuna ematera zetorrelako' «Zer izan da  
orrenbeste neke, naigabe, oiñaze, ondamen eta odolketaren iturburu»?, gal-  
detzen zuan munduak. «Erljio gauzetarako axolagabekeria», erantzuten zion  
Lameannais'ek. «Erljiorik gabe gizarte bat osatzerik ez bait dago!»

Baita sinisgabeek ere irakurri zuten liburua; erantzun baten billa zebi-  
lien munduarentzat, liburu arek zekarren albistea, atsegiña izan edo ez, eran-  
tzun bat beintzat bai hait zan. Elertiaren-zeruko illezkortasuna agindu zion  
egilleari Chateaubriand'ek' Paskal'en kide egin zuan Pieok zarrak; eta La-  
eordaire'k, Bossuet aiña bazala aldarrikatu zuan.

Teologiaren arloan ezer gutxi balio du Lamennais'en liburua. Aizuna  
da bere arrazoiketa, eta badu oker izugarri bat: Jaungoikoa giza-adimenaren  
irismenetik aruntz ipintzea.

Adimenak ez omen dezake Jaungoikoari-buruz deus argirik ezagutu; si-  
nisgarri izateko sendotasunik aski duan egi bat bakarra guri erakusteko ez  
omen da bâ gauza. Gure sinismenaren oiñarria ez onen da beraz arrazoia,  
«gizadiaren zentzua» baizik, «de sens commun», erri guztien iritzia, gizaldiz  
gizaldi, edestia-zear, gure denboretaraiño iritxitako «garai-guzietako-erri-  
-danen-sentimena»; haiña Sentimen ori ez daiteke arrazoiaren sorketa izan,  
arrazoia ez hait da Jainkoaz ezer argi eta garbi ezagutzeko *gai'* Orregaitik,  
Sentimen orrek, maintanaiez, Jainkoak berak gizakumeen adimen eta bio-  
tzetan ezarria bear du.

Tradizionalista mottel bat besterik ez da beraz Lamennais, Teologiaren  
arloan, Bonald'en antzera. Izan ere Lamennais'en ezpata ez zan teologia, ez  
bai, zuan sekulan ez filosofirik ez teologirik kixaz ikasi. Ala, aren liburua  
azkenean Liburu Debekatuen Zerrendan sartua izan zan.

Lamennais'en ezpata Elertia zan: Idazteko yayotasuna, Elizaren zerbi-  
tzura borondaterik onenarekin ipiñia. Eta ontan maixu zan Lamennais, ain  
modu zoragarrian agertzen bait zituan, Elizak gizadiari egindako mesedeak!

Atsegin izan zitzaion orregaitik liburu berria eliz-jendeari. Eta, gaiñera,  
«Gizadiaren Zentzuaz» gaindik Lamennais'ek Idazti Doneak, Elizaren Era-  
kutsiak, eta, utseziña zala aitortzen zuan, Aitasantuaren Gidaritza, agiri-agi-  
rian onartzen bait zituan «Sinismenaren oiñarritzat», Erroma'ko epailleek lais-  
ter atera zioten «zerrenda» artatik liburu ura.

Pozik zegoan Erroma, ain ederki bait zetorkion Chateaubriand'ek ertiaren  
aldetik Elizari egindako apologiaren ondorean, orain Lamennais'ek soziolo-  
giaren maldatik egiten ziona...! Jakintzaren argira, hi apologiak dira oso balio  
gutxikoak: baiña emeretzigarren mendeare-i asiera ez zan Jakintzaren aroa;  
Erromantikeraren aroa zan; elertiaren aldia. Eta literaturaren argira, biak dira  
ederrak. Obea arena onena baiño; bazuan ordea Erroma'rentzat onek, arek  
ez zuan merezirnendu bat: teokrazizale izatea.

Ez zan gaiñera oraindik Lamennais demokraziaren bideotatik sartu. De Maistre ta Bonald'en ikasle eta jarraile, Koldobika XVIII'aren alderd'+koa zan, eta bere bi maixu aiek bezala ziñez uste zuan Errege Borboi bakar-agintzallea, Kristoren Zaldun, eta, eskuetan czpata suzkna—, «jainkoaren zerbitzurako Borrokalari beti garaillea izanen zala».

Laister ikusi aal izan zuan oker pentsatzen zuala; eta, orduan, Eliza-rentzako askatasuna, iaretasun osoa, eskatzen asi zan. Erregeengandik berezi egin nai izan zuan Eliza! «Il y a longtemps qu'on abuse de ce vain prétexte de protection, et depuis Constantin jusqu'a Bonaparte, l'Eulise a cq plus <f se plaindre de ses protecteurs que de ses bourreaux»; Euskeraz: «Aspalditik, oso gaizki erabili ni da, Eliza-babestu-hear-dalako a:tz;tl;i astel ori; Kostantin'en garaietatik Bonaparte'ren denboraraiño zi gortzailleek haiño geiago samindu izan dote Eliza bere zaindareiek»).

Baiña ez zuan, Borboien bakarraginkeria lagata, demokrazia jo; iñoiz baiño beroago, teokrazia jo zuan: Errege-guzten-gaindiko Aitasantuaren Erregetzara; Aitasantuaren mundu-guzirako-erregetzara. «Aitasanturik gabe ez dago Elizarik; Elizarik gabe ez dago kristautasunik. Ez dago erlijiorik kristautasunik gabe ere; eta ezta gizarterik , erlijiorik nab\_»; («Sans Pape point d'Eglise; sans Eglise point *de* christianisme; sans christianisme point de religion, et point de société»)

Ain zuzen teokrazia da, Lamennais'ek Aitasantuaren utsezintasunean izan zuan fede bizkorren sorburua. Aitasantuak, —errege bakar-agintzaleen ankapean zapalduarik zeuden erri guztien askatasunaren babeslea, eta gizadi guztiaren itxaropen danen erantzuna zalako—, naitanaiez bear zuan utseziña izan. Baiña orain Errege bakarragintzaille aiek ipiñi zitzaizkion aurka Lamennais'eri, eta Karlos X'aren Jauralaritzak,; epai-gelara eraman zuan. An aitor-tu zuan ozenki, gero Aitasantuaren aurka jeikiko zan apaiz zori itabe arek, bere sinismenaren zutabe erorkaitza zer zan: «Demeurer inviolablement attaché à l'enseignement invariable du Chef de l'Eglise jusqu'a mon dernier soupir»; («Aulketarik gabe, nere azken-arnasa arte, Eleiz-Buruzagiaren erakuskintza aldaezinari loturik egotea»). Itz auek esan zituan gizona, azken arnasean bere illobi gañean gurutzerik ez ipintzeko agindu iz il zitzaigun.

Gogor eraso zien Lamennais asarretuak, epaiketa aren ondorean, Errege Karlos X Borboiari eta inguruko gotzai galikrizaleei. Ez zean mingainpekorik gotzai auetaz mintzatzen asten zanean: «Abbés ele cour, veterans de la frivolité et peut-être du vice»; («Errege-inguruko apaizak, txolintasunean, eta, agian oitura gaiztoetan zartual:»); «Laquais tonsurés»: («Apaiz-jantziriko morroiak»); «Ce sont des gens qui ne veulent pas marcher. Pan! , un coup de pied au c... cela vous les poussera *de* cent pas»: («Muittu nai ez duten jendeak dituzu. Emaiezu ipurdian ostiko bat, ta eun bat pauso beintzat aurreruntz bultzatuko êl dituzu!»).

Batez ere Quelen Gotzaia zeukan begitan-artua, «Arroxko parregarri

bat» («un vaniteux redicule») iruditzen zitzaiolako, Frayssinous, «zismati-koa» omen zan!

Ikusiko dugun bezala, ez zitzaion Lamennais'eri arrazoi-zatirik falta azkeneko Borboien gotzaiak orrela astintzeko, baiña zakarkeri oiek ei zioten berari on aundirik egin, batez ete Erregea berbera eta erregearen jaurlaritza era berdiñean jorratzen zitnalako. Begi zorrotzez igarri zuan, Errepublikalaister atzera Frantzi'ra etorriko zala, erregetza ordurako (1828) «agonisant» «iltzer» ikusten bait zuan. Azkenean Frantzi-'ko gotzaiak, batez ete len aipatutako Quelen'ek eta Frayssinaus'ek, Erroma'ra salatu zuten igarle oiulari ura.

Ez zan oraindik Lamennais liberalen adiskide, «auek agintzera iritxiko balira, berebiziko zuzengabekeri eta gogorkeriak egingo lituzketelako, eta Lliza ere zigortuko lutekelako». Aitortu bearra da, ontan ere igarle irten zala. Eta oraindik erkaltasunetik urruti ba'zebilen ere, bazan ordurako Lamennais Eliza soziologiazko okerrak zuzentzera sartuaraztearen zale. «Jusqu'ici eonfinée, en ce que tient aux dogmes, en une theologie pure, et en ce que tient auz préceptes, dans la vie domestique et les relations individuelles, elle n'a pas encore pénétré directement ni dans la science, ni dans les institutions sociales»: («Orain arte, mundutik kanpora dagoan teologi bat eraikitzeko bakarrik aztertu ditu Elizak sinismenaren ogiak; eta Jaungoikoaren aginduak, soilki etxe-barrungo bizitzari, eta gizakume bakartien arteko arremanei dagokion legedi bat osatzeko; jakintzen baitan, eta gizarte-bizitzaren erakundeetan, ez da oraindik zuzenki sartu».

Ez zan artean liberala, baiña irikia zegoan, betidanik, Lamennais'en teologian, demokraziara zerarnakian atea. Erriaren «zentzu ona» baldin ba'da Sinismenaren oiñarria eta oitura onen irakaslea, ez al da arrazoiezko gauza, «zentzu on» orren jabe dan erria legeen egille eta, orregaitik, autoritatearen iturburu ere izan bear duala aitortzea?

Gero-ta geiago, mundua Elizarengandik urruntzen ari zala ikusteak ere, demokrazi-aldera jaurti zuan Lamennais.

Gero-ta-askatasunaren-etsaiago ziran katolikoak. «Egunetik egunera argi-ago srrnantzen dut, tamalez, askatasunaren eta kristautasunaren artean adiskidetasunik egiterik ez dagoala ia», -z'on Delécluze'k, eta berak bezala pentsatzen zuten ia idazle katoliko danek. Ez, Lamennais'ek: «On tremble devant le liberalisme? Eh bien! catholicisez-Ie! ». ;«Liberaltasunak dardaraz ipintzen zaituzte? Libcraltasun on katoliko biurtzen saia zaitetzte!»

1824'garren urtean Erroma'n izan zan, eta aundikiro artu zuten aitasantuzaren almen guztien zaindari bizkor au Kardenalek, Anaidien Aita Nagusiek, Gotzaiak, eta Aitasantuak berak.

Aitasantuaren esker onez, Batikan Jauregiko gela batean bizitu zan.

Oro da Erroma'n pozgarri Lamennais'entzat. Luzaro eta goxoki entzun eta itzegin dio Leon XII'ak, eskuz-esku Lamennais'ekin izan dituan mintzal-

dietan. Ezagutu ere, azkar eta ederki ezagutu du Aitasantuak bere soLis-laguna: «Eskua biotzera eramazten dizun gizona da, bai ña buru beroegikoa. Badu adimenaren zorroztasuna (la asmo zuzenez beterik dauka biotza. Ala ere, mundu ontako gaula guztietarako mundu ontakoa elin daitekean zintzotasuna edo bikaintasuna eskatzen duten oietakoa dugu. Berak nai duan guzia egiteko eskuak iare uzten ba'dizkiogu, mundu a<sup>^</sup>izia laister, naspildurik utziko digu».

Egi borobilla Leon XI l'ak diona, baiña ain begi b o robilla zan beste gaula bat isilik gorde zuan Aitasantuak: gaula askotan, gaula geienetan, «mundu ontakoa elin leikean zuzentasun-zale» arek, arrazoi zuala.

Frantzi'ra itzulita, lengo bidetik jarraitu zuan Lamennais'ek gero-ta adoretuago, orain Erroma berekin zeukala ziur uste zualako. Eliza despotikerierekin alkartea ikusteak min aundia ematen zion. Bere adiskide zuan, Lambrusehini Paris'ko Nuntzio berria; eta onen aolkua jarraituz Aitasantuari idatzi lion bere barruko kezka agertuaz: «Serait-il prudent *de* lier ou de paraitre lier indissolublement la cause de L'Eglise à celle des gouvernements ennemis de l'Eglise, et eela, au momen<sub>t</sub> ou ees gouvernemets croulent de tous ceités »?:

;«Zillegi al da Elizaren zoria Elizaren etsai diran jaurlaritzen zoriari aska-ezinki lotzea, *edo* lot-zen dalaren ustea sortaraztea, batez ere jaurlaritza oiek alde guztietatik lur-joka asi diran unean?»'

Idazle batek ez omen du, naiz idazlerik ospetsuena izan, «Aulki Donea orrela estutzeko eskubiderik» (Rops) eta «Erroma'ren zugurtasuna», «La prudenece romaine», kanpotik orrela gobernatua izateko bezain aul eta ezereza ez omen da».

Badirudi, ala 're, edozein kristauak baduala Erroma'ko atcetari dei egiteko eskubidea; eta badirudi, baita're Rops edestilariak jakin bear zuan gaula dala, «Erroma'ren zugurtasun» orrek F,lizari maiz aski zenbat gaitz egin dion.

Oraingoz «Erroma'ko zugurtasunak» Lamennais'en eskutitzari deus ez erantzutea erabaki zuan. Erroma'ko diplomaziak ez bait nekian gizon onen biotzean kezka aiek sortzen zuten oiñale samiña zeinñen aundia zan. «On s' étonne du silenee de Rome» («arrigarri lait Lrroma'ren ixiltasuna»), tte,anaz Zebillen gizagaixoa'

\* \* \*

828 'garren urtean sortu zan Frantzi'n Elizaren eta Laterriaren artean erakuskintzari-buruzko auzia. Gotzaien jokeara, eta gotzaiek Erroma'ra auzi artaz bidali zuten «oarpen-idazkia», galikeriz betea zegoan. Lamennais zebillen egiazko bidetik baiña Erroma *ez* zan ausartzen gotzaiak ain gogorki zigortzen zituanari agirian arrazoia ematera. Lambruschini Nuntzioak ere, aren izkera *ez* zitziola bear bezain txukuna iruditzen, esaten zuan. Eta orrela,

Erroma'k, Lamennais'ek aspalditik idatzi zion eskutitz ari erantzun gabe jarraitzen zuan.

«Rome, Rome, on es-tu donc? Qu'est devenue cette voix qui soutenait les foules, reveillait les endormis, cette parole qui parcourait le monde pour donner a tous, dans les grandes dangers la *force* de combattre et celle de mourir»: («Erroma, Erroma! Non zaude zu? ; Non da erridiak bizkortu eta loak-arturiko jendetzak esnatzen zituan zure abots ura?, (non, galzori larrietan borroka egiteko eta alaiki iltzeko, danei adorea emanaz, mundu guztira zabaldu oi zenduan zure itz ura?»).

Esan dugu len, Lamennais'ek Elizagan zuan fedea, fede okerra zale' Errez ikusi dezakezu irakurri-herri dituzun itz auek ere ori bera adierazten dutela, arek bere buruaren barman ikusten zuan Eliz orren antzeko Elizarik, ez hait da sekulan munduan izan! ; eta ez hait daiteke izan ere, gainera. Bete-betea zuan arrazoi Leon Xi'ak Lamennais «mundutik kanpokoan dan zintzotasuna eta bikaintasuna eskatzen dituzten oietako» zala zionean.

Badakigu Lamennais ez zala teologilari: ez-eta filosofilari; ta... auxe zaigu benetan arrigarri: Elizaren edestirik ere ezagutzen ez ote zualaren susmoa. Ez zaio inoiz bururatu bere dotriñek Erroma'n zalantzarik sortu zezeketenik. «Ezin sinistu dut, dio, Aitasantuak gertakizunak zuzen ezagutzen dituanik»; «il est trompé, indignement trompé par les hommes qu'il emploie»: («ruzur dagiote, doillorki dagiote iruzur here serbitzura darabilz-Han gizonek»)

Izkera amilgarria, auxe; denhora guztietan Elizatik irten diran guztiek erabillia!

Azitzen eta azitzen dijoa Lamennais'en asarrea: «Le Sanetuaire est vide: il n'en sort plus rien!» : («Utsik dago . ainkoa'ren Jai\_iretxea; ez zaigu andik ezer aterako!»). Orrelako izkuntza entzutean, asi ziran ikaritzen aren adiskideak berak. Auetako bat, De Maistre zarra, oso gaixorik zegoan osasunaz. Ona zer idatzi zion ikasle izan zuan apaiz hretoi buru-go gor ari, eriotz-aurrean, ogetik: «Prenez garde, Monsieur l'abbé; allons doucement; T'ai peur, et e'est tout ee que je puis dire»: (Kontuz, apaiz jauna: gabiltzan astiro; bildur damaidazu: auxe da esan al dezaizukedan guztia»). Eta Paris'ko jende xarentza, liburuxkak egiten zituan idazlari ez-ezagun batek, «sinislearen doinu gozoaren azpitik fede-ukatzaillearen ziztua aditzen ziola» aurpegira hota lion; eua..., «Diderot katoliko» izen-eman.

Urruti zegoan oraindik alatagutziz, liberal sinisgabeetatik «Diderot katoliko» ura. «Catholiques; rompez pour toujours avec les hommes dont l'in-correctible aveuglement met en péril cette religion sainte», «Katolikoak: urra itzezute adiskidetasunak, erlijio done au galdu nai duten itxu makur rrekin» zegan oles 1830'eko iraultzaren ondorean Koldohika-Felipe'ren gobernu liberala Eliza zigortzen asi zala ikusi zuanean. Orduan pentsatu zuan Elizaren salbamena, Eliza Laterriaren zainpetik ateratzean zegoala; eta, be-

raz, Laterriaren zaintzapetik latera bear zala Eliza! «Bedi Eliza iare eta garaille izango da».

Oldozkera ori zabaltzeko sortu zuan 1830'eko Agorrillaren 16'can «L'Avenir», «Etorkizuna», izeneko izparringi ospetsua. «Dieu et la liberté», «Iaungoikoa eta Askatasuna» ipiñi zion izenaren azpitik izparringi berriari ikurriz. Prantzi'ko idazlerik onenak, naiz oso sinismen sendokoak ez izan, «L'Avenir»en orrietan idatziak ditugu: Lamartine, Biktor Ifugo, Alexander Dumas, Bigne, Balzae... baiña benetan izparringia aurrera atera zutenak, «La Chenaic»n bildu oi ziran apaiz era sel:ularrak izan ziran. Oso gazteak danak; bataz-beste, 32 urteko mutillak: Gerbert, Dagerre..., eta bereiziki, Montalbert eta Lacordaire, maixuaren hi idazlerik kuttunenak.

«L'Avenir»ren elburua, gizadiaren askatasuna zan; baiña ots!: teokrazizko mundu batean bakarrik piztu, jaio, azi, eta garatu zitekean askatasun-mota herri bat! Askatasun ori ez zezakean Elizak besterik antolatu, eta askatasun orrek bizirik jarrai aal zezan, Aitasantuak izan bear zuan gizadi askatiaren Buruzagi Nagusia. «Aitasantuaren eskuak barka tzeko, eta ezpainak be bakarrik irikitzen bait dira»,

Utopi utsa? Rai, et) galanta noski; ez hait du, gaiñera, Lamennais'ek politika ameskoi ori nola eratu litekean azaltzen. Baiña esaten dito, bai on-Ne, gauza laztangarriak, gizadiaren askakuntza ori egiteko Elizak bere burua nola prestatu hear Juan adierazten asten danean.

Lendabizi Elizak egin bear Juan gaula, Laterrien babespetik aldegitia omen da; oraiñarte, «erregeen zainketa orrela, erregeen palitkeriaren tresna eta aien grña txar guztien jostailu biurtu boit du Eliza»: («instrument de leur politique et le jouet de leurs caprices»). ;Lz geiago konkordatorik...! ; konkordato «doakabe» oiek gotzaien autaketa bera «errege ta agintari sinis eskuetan ipintzen hait dote,.

Laga dezagun, betirako, gohenuengandiko diru-laguntza, «apaizei jaur ogi-apur oiek apaizak bere morroi biurtzeko arra moitzat erabiltzen hait ditu gobernu orok». «Ez zituan hristo'k etc bere apostoloak inperatoreen pagatzailleentzako txartel batekin («avec un mandat sur les payeurs de César») mundura bidali!»

Orduan, Laterriengadik iare danean, orduan izango da Eliza munduari munduak ain gura Juan askatasun irukoitza eman aal izateko gai: Nazio-arteko askatasuna leenik, Errialde bat bakarrik beste baten mendeko iñoiz ere berriro izan ez dedin; errialde guztiak berdiñak baizik, danak iare, danak anai. Politikazko askatasuna gero, Laterri iarean Laterkide guztiak iare izan daitezen, danak eskubide berdiñekoak, Ekonomiazko askatasuna azkena, langille guztien askatasuna egiazko askatasuna izan dedin, «en mettant fin à l'exploitation des patrons» («nagusiek dagiten lapurkeriari lepo egiñaz») Orna Lamennais, Marx baiño askoz lenago Ekonodi-Iraultza baten eske!



Teokrazizko mundu orretan, naiz Aitasantua Lendakari Guren izan, erriak izanen du agintaritzaren jabetasuna; demokrazia izanen da legetasun orean sorburu. Demokrazi orren egokitasuna eta egitasuna eta zuzen tasuna ere, teokrazizko arrazoiekin sendotzen ditu Lamennais'ek. Ezagutzen dugu, lendik, arrazoi oietako bat: Sinismen beraren oiñarri dan arako erridi guztien «sens commun» ura. Ona, orain bigarren arrazoiā: Kristo-ta-erria-arteko batasuna' «Car la où est le peuple, là est le Christ et son combat est le combat de Crist». («Erria dagon tokian an bait dago Kristo, eta erriaren borroka Kristo'ren borroka bait da»). EZer esango ote lukete au entzutean gaur-egungo «teologia de la liberaciōn»en babesleek?

«L'Avenir»ek ez zituan iñoiz 1.200 arpidedun baiño geiago izan, baiña eruz zabaldu zan bere abotsaren oiartzuna, «L'Avenir», izparringi bat ez ezik, gogapen-iginkunde baten biotz bizi-emaille ere bai hait zan. Izparringiaren gogapen aiek zabaltzeko Europa'ko uri askotan osatu ziran irakurleen bazkunak. Laister sortu zuan «L'Avenir»ek, liberal katolikoentzat erlijio-gaietan gidari izan zedin, «Agence Général» bat; eta, berealaxe, Europa'ko liberal katoliko danen batasuna lortzeko, «Acte d'Union» edo «Batasun-Agiri» bat jaurti zuan argitara.

Zail izango zaio arrezkero apaiz urduri ari bere Igikundea soilki erlijio-esien barruan gordetzea, «Alkarte Orokor» edo «Agence Général» artan sartu bait zitzaizkion Belxika, Irlanda, ta Poloni'ko abertzale danak; baita liberal ez-katoliko ziran aiek ere. Era berean zail izango zaio Aulki Donearekin oztoporik egin gabe luzaro iraun aal izatea'. Itali'ren batasun-zaleak ere Alkarte artara bildu zitzaizkiolako.

Frantzi'n bertan etsai zituan Koldobika-Felipe'rekin gobernuan zeuden liberalak, «L'Avenir»elk gobernu arek egindako gotzai-autaketen aurka oiugiten zualako, eta erregetzaren amaia, ta errepublikaren berealaxeko itzulketa ozenki aldarrikatzen zitualako. Eta, baita, liberal aietatik asko, Enrique Reine eta Teofil Gautier bezala, jainko-gabeak ziralako.

Reine izan zan, ain zuzen, 1830'eko iraultzakoan erriak apaizen lepotik egindako izugarrikeriak ikustean, Elizaren amaitza iragarri zuana: «F, rlijio zarra zaiñciaraiño («radicalement») illik dago, eta usteltzen asia da. Frantziar geienak ez dute usaitzarra darion gorputz il au badanik ere jakin nai, eta sudurretara daramazkite zapiak, norbaitek aren izenik aipatzen ba' die»' Elizaren etsai izan diran beste igarle guztiena bezala, uts aundia irten zan Heine'ren igarketa.

Era berean izan zituan aurka, Lamennais'ek, Frantzi'ko gotzaiak, erdigalikerizale ziralarik aren teokrazia eta Erroma-zaletasuna geiegizkoa etsitzen zutelako; eta arek erakusten zuan Laterriaren eta Elizaren bereizketa ereji iruditzen zitzaielako' Tolosa'ko Goigotzaia, d'Artros, apaiz zala Napoleon'en Katekisma idatzi zuan ura bera, asi zan leenik «L'Avenir»ren aurka, eta eten gabe ari izan zan borrokan, Lamennais ondaturik ikusi zuan arte. Laister

alkartu Zitzaion ekintza ortan Rohan-Chabot Kardenala. Ikaratu ziran «L'Avenir»en idazleak eta jetxi zan arras arpidedunen taldea. Dirurik gabe gelditu zan izparringia, eta, orrela, txindi-faltak il zuan 1831'garren urtean.

Frantzi'ko Gotzaiek, salatu Zuten ordurako Lamennais Aitasantuaren aurrean, eta boita Prantzi'ko Jaurlearitzak eta Furopa' «o» beste Jaurlearitza batzuek ere, arek eraturako «Liberalen Alkartea» iraultza ta matxinaden azia iduritzen zitzaielako. Asarre Zebillen Metternieh, eta asarre zebiltzan Kol-dobika-Felipe erregetzara iristean Frantzi'tik aldegin bear izan Zuten borboi-tarrak ere.

Auen artean, Erroma'n bertan printzipe-modura aberatski bizi zan Rohan-Chabo, Kardenala, erromatarrek «Il 13ambino», «Ninia», deitu oi zio-ten kardenai apain polita zuan Lamennais'ek etsairik aundiena. Arriskuga-rriena, berriz, errege borboitarren ain lagon izandako josulagundia, bein bai-ño geiagotan jaurti bait zion Lamennais'ek aurpegira geiegizko Zaletasun ori. "Zirrara gaitza egiten Zien gaiñera josulagun autokrazizalci «L'Avenir»ek ater-gah demokraziaren aide zeramakian jarduketak.

Sulpizitarrak ere aurka zituan.

Ekaitzaren erdian, Aitasantuaren oana joatea gogoratu zitzaion Lacordai-re'ri. Ez zitzaiokeala oker aundiagorik gogoratu aitortuko zuan gero berak. Argi ikusi yuan urrats aren arriskua Montalembert'ek, haiña bere arrazoiari seguru zegoan Lamennais urduriak alaiki onartu zuan Lacordaire'n gogoeta, ez zekian bêt bere etsaiek artean Erroma'n egin Zioten azpi-lana.

Ordurako bildua muan Aitasantuak bazkun bat Lamennais'en erakuske-tak aztertzeke. [ru ziran bazkun ura osatzen zuten teologilariak: Ventura, teatitarren Zuzendari Nagusia eta Lamennais'en adiskidea; Banaldi apaiza, aski demokraziaren aldeko mon izparringi baten zuzendaria; Lambruschini Kardenala Paris'en Nuntzio zalarik Lamennais'en adiskide izana. Benetan ego-kia iman man iru teologilari auen epai-itza: Oker nabarmenak bazituala, gau-za eder askoren artean, Lamennais'en dotriñak, baiña oker aiek em zutela aren arerioak eskatzen zuten bezain gaitzespen gogorrik merezi.

Gauza auen ezaguerurik gobe etorri ziran Erroma'ra Lamennais, Monta-lembert, eta Lacordaire. Iman muten arrera maitekorrak aski bideko urietan; ez ordea, Erroma'n bertan. Lz man oraingo etorraldi ontan Batikano'ko Jau-regian aientzat gelarik izan. Ventura teatitarrak eman mien bere Anaidiko konbentu batean bizitokia.

Eskatu zuten Aitasantua ikusi aal izateko baimena, baiñan, Aitasantua ikusi haiño len heren pentsaera idazki batean argi ezartzeko agindu zintz Cien. Bete zuten agindua, baiña ez zitzaien erantzunik ematen. Luzatzen zijoa Erroma'ko egoera, eta gero-ta-asarreago zebillen Lamennais Aulki Doneko

eskribauekin, kardenalekin eta Aitasantuarekin berarekin, «Rome, ce grand tombeau» («Erroma, illobi galanta») oiu egiñaz.

Ez zituan Gregorio XVI'ak bere aurrean artu, Lambrusehini Kardenalak eman zien erantzuna eta ez nolanaiko erantzun gogorra: «Aukera ezazute zuek, zer nai duzuten: Aitasantuak berak gaitzetsiak izatea, edo auzia Inkisizioaren eskuetan ipintzea. Zipotza ibilli zan Lambrusehini benetan; asko biguiñagoa izan bait zan Gregorio XVI'ak berak Pacea Kardenalaren bitartez bidali zien albistea: «Aitasantuak aien naimen zuzena ezagutzen zuala, baiña auzi eta gai arriskugarriak jorratzen ibilli zirala ikusteak ez ziola batiere atsegiñik ematen; aien gogoetak astiroago aztertuak izanen zirala, haiña azterketa oiek luzeak izango ziralako, Frantzi'ra itzultzeko agintzen ziela, eta here garaiean Frantzi'ra bidaliko ziela azken-iritzia».

Bereala itzuli nai izan zuan Laeordaire'k Frantzi'ra Aitasantuari, «agintzen zuan guztia txintik ateragabe beteko zutela itz-eman ziotela» esanaz. Erroma'n gelditzea erabaki zuan Lamennais'ek «bere arrazoiak sendotu eta arierioen arrazoigabekeria ezerezteko».

Oker zebiltzan, ordea, munduko gertakizunak arentzat, Belxika'n garaliek irten ziran katolikoak liberalen laguntzarekin. Alkartasun aren aldeko izan zan «L'Avenir»; etsai, berriz, XVI Gregorio, kardenal zalarik. Poloni'n, Errusi'ren aurka zegiten katolikoek eta liberalak. Aien aldeko zan «L'Avenir»; aurkako, Aitasantua' Itali'n bertako Laterri guztiak deseginda, Laterri bakar bat eratu nai zuten liberalek. Aien ondoan zegoan «L'Avenir»; aien etsai heroa zan Gregorio XVI'a. Baiña Lamennais'ek ez zuan arriskurik ikusten. Ura baiño argiagoak izan ziran ontan aren bi ikasleak: Laeordaire eta Mon talembert.

Frantzi'an ere ernaarazi zituan Tolosa'ko d'Astros Goigotzaiak bere goztaikide danak, eta hilduarazi zien teologiariek batzar bat, Lamennais'en gogabidea epaitzeko. Sulpizitarrak izan ziran batzar artako teologilaririk geienak; Lamennais'en etsaiak, beraz; baiña herdin izanen zan adiskideak izan balira guztiak; argia bait zan ordurako danetzat aren gogoeta guztiaren azpian gorderik zegoan erru galanta: «sens commun» izenarekin estalitako «tradiziokeri» ustela.

Ala ere, akats ori errez garbitu zitekeana zalako, ez zuan, —Erroma'ko iru epailleen hazkun arek erabaki zuan bezala—, zigor aundirik merezi. Esan hearrik ez da Paris'ko teologilariek ez zirala akats ori garbitzen geiegi saiatu. Eta Gregorio XVI'a bezain tornista estua zan Aitasantu batentzat indar aundia zuten paristar tomista aien arrazoiketek, naiz andik iritxi zitzaion idazkia galikeriz betea egon!

Ez zuan Lamennais'ek Erroma'n gertakizun auen berririk, eta luzetsirik, bere etsairik aundienarengana jo zuan: Koldobika-Felipe'ren enbaxadariarengana, Aitasantuarekin ikustaldi bat prestatu zetzaiola eskatuaz. Ederki egin zuan lana enbaxadariak. Lortu zion ikusi aldia, baiña ikustaldi ura

Roban-Chabot Kardenai arerioaren aurrean izanen zalako baldintzarekin. Une batzuetako ikustaldia izan zan ara. L'ainenntis'elr, Moninlembnri'ek eta Lueurdaire'k ez zuten ezer esaterik izan. Aitasiintua baktu-r;rk mintzatu zan, etc ez zuan uskeria besterik cran: Montalembert'en ama ezagutzen zuala, eta emakume aren santutasunaren berri bazuala; Lamennais'en anaia, jon Mari, apaiz bikaiña zala, eta aren lanak ezagutzen zituala; l'rroma'ko uriak edertasun ugariak bazituala...; eia, --taxa eskeñiaz--, une egokia iduritzen zitzaiola une uraxe alkartasunean tabak'autsa-pittin bat artzeko.

Goxoki eta abegi onez mintzatu zan Gregorio XVI'a, ordu-laurden bat doz-doz iraun yuan bai irrizketa artan; baiña, bere iru ikusle aiek ain biziro ta saminki sentitzen zituzten auzi txit garrantzitsu aietan ez yuan tutik ere esan; eia ez zien aiei itzegiten utzi. "Txatxukeri aundia zan Lamennais, Montalembert eta Lacordaire bezelako gizonak eia artan, amonatxo batek muttikoak artzen dituan antzera, jostaketan artzea.

Gregorio XVI'ak merezi yuan baiño seine zintzoagoak ziran oraindik irurak. Lacordaire ta Montalembert berealaxe irten ziran Frroma'tik; ti ra, Frantzira: au, Napoles ikustera, Lamennais, tetu'tarren a'tuan «eldua zan, biotza urrattirik idazki berri bat idazten. Mazkiaren izena: «hlizako Gaitzak». Liburu ori idazten ari zala jakin zuan Prantzi'ko gotzaiek bere dotriñak gaitzetsi zituztela; etc an izan ;eran. Gregorio XVI a polonitarrak —Lamennais'ek ain maite zituan polonitar iraultzalari katolikoak cia liberalak-gaiuetsita, Lrrusi'ko 'l'sarraren aide jeiki zaIt uen berri. Anima miñez zuala irten zan teatitarren lekaidetxetik rMnnich'era joateko.

Garai artan Babiera'ko uri nagusi rira, teologiaren biratzik loretsuena van, eta pozik artu zuten ber tan Lamennais uri artako teologilar ospetsuek, Schelling, Giiirres, Diiiiinger, eta auen 1igunek. Laster zituan an bere Monlembert eta Lacordaire Icialak ere. Onek jakifnarazi zion, Frantzi'n ondo ezaguna zala ordurako, Urroma'n iruek iz.tn zuten zoritxarra.

1832'ko dagonillaren 15'ean idatzi zuan Gregorio XV Lak «Mirari vos», «Arritu zaitezte», Entziklika, Lamennais'en izenik aipatu o,abe, onen dotriñak. galerazteko. Munich'en jaso zuan Lamennais'ek gaitzesoen orren berri. Bazkari apain batean zegoan, eta ara bidali zion Atintzioak entziklikaren ule bat. Jate-gelatik irtenda, onela itzegin zion Licordaire'ri: «Nous venons de recevoir une eneyclique du Pape contre nous; nous n'avons plus qu'a nous soumettre, («Gure aurka idatzitako Aitasantuaren entziklika bar jaso dut oraintse bertan; burua makurizea da gure eginbearra»). «Ilskatasunaren ritzespena...! , Poloni'ren naziotasuna ukatzen»...! --zion geroxeago, <sup>negra</sup>1—nez--; «Dieu a parlé...! Fiai suintas tua. Son vicaire sur la terre m'interdit de servir les de ux eauses par la plume Il me reste la priere». («Min[zaiu da jainkoa... [gin bedi ardi naia. Aren lureko ordezkariak lumaz bi ikurrin oien aIde jardutea... eragotzi dit. Ipz zait otoitza beste biderik gelditzen»)\_ [ta au cran bezain laister, Aitasantuari idazten asi zan, bere adeita-

suna erakusteko. Arriturik begiratzan zioten Montalembert eta Lacordaire ikasle gazte biek. Ez arrazoirik gabe. Benetan bait zan une aietan arrigarria, katolikotasunak orduan zuan idazle dizdiratsuen ura, bere apaltasunean.

e Zerk eramán zuan orrelako gizon bikaiña, bere itzik ederren aiek jan-da, utsetziña aitortzen zuan Aitasantua, ain maite zuan Eliza, eta ain gartsuki defenditu zuan Jainkoa bera oso-osoa ukatzera? Arrazoi auek eman oi dira urrats ori adigarria egiteko.

—Frantzi'ko elizjendearen jokaera. Poz aundiarekin artu zuten ango gotzaiek, eta apaiz geienek, Lamennais'en gaitzespena, eta jai gozoa izan zan aientzat ain gorroto zuten etsai bildurgarri aren ondamana. Aitasantuak ez zuan Entziklikan gaitzetsiaren izenik aipatzen, baiña laister aizatu zuten aren izena gotzaiek. Batzuk, aurrerago ere joan ziran: apaizgaiei, apaizketa artzerakoan, «Lamennais Jaunaren» dotriñak okerrak etsitzen zituztelaren ziña eskatzeraiño! Gaizki ikusiak ziran L.amennais'en lagunak ere. Bere anai Jon Mari'k ia galdu zituan bere eginkizun guztiak, eta bene adiskide Ventura'k teatitarren lendakaritza laga bear izan zuan.

Bi urte iraun zuan Lamennais'en gurutz-bide onek, eta ez zuan agoni artan lagunik izan, Montalembert'ek eta Lacordaire'k ere aldegin bait zuten bure aldetik; azkeneko onek gainera, eskutitz gogor bat idatzi zion aldegin aurrean.

Frantzi'ko gotzaiek eta apaizek gozoago artu izan ba'zuten...! Baiña bai zera...! «L'Ami de la Religion» aldizkariak Lamennais'ek Aitasantuari idatzitako omenezko eskutitz apal ura gezurrezkoa zala oiuegin zuan. Eta gotzai batek, zintzotasun utsa zan gizon ari zer deituko-ta, «venal», «diruz saltzen zan gizona», deitu zion.

Odol-jario zegoan apaiz bretoi gogor gaixo aren biotza. Badirudi burua galtzen ari zala ere. Aurrena eliz-gizonen aurka ekin zuan: «Apaizen artean eta apaizen bitartez ezertxo egiterik ez dago. Eta Erroma'k eta gotzaiek dute orren kulpá». Laister Aulki Donearen aurka asi zan: «Erroma...! Sekulan gizadiak ikusi aal izan duan zimaurtegirik aundien»...!

Aitasantuak bazekian Lamennais'ek idazten zuan guzia eta baita onen «gezurrezkoa zalako» mendetasunari buruz Frantzi'n idazten zana ere' Argitasun egitearen zale, Tolosa'ko d'Astros Goigotzaiari —Lamennais'en etsairik gogorrenari— idatzi zion, Lamennais'i bure okerren ukapen bat egiñarazteko eskatuaz. Isillean zebillen, zugarri, Aitasantua. Laister urratu zuan isiltasun zintzo ori Tolosa'ko Goigotzaiak; eskutitz ura, artu bezain laister, «l'Ami de la Religion»en argitaratu hait zuan! Ura izan zan integriste danen poza...!

Makurtu zuan, osterá, burua Lamennais'ek. Idatzi zuan aitorpen ura... baifia, zerbait ausi zan aren buruaren barnean, andik laister itz auetxek idatzi hait zituan: «J'ai signé; j'aurais signé que la lune était tombée en Chine..., que le Papa est Dieu, *le* grand Dieu du ciel et de la terre et qu'il

doit être adoré lui seul», («Izenpetu dut bai —nere erruen aitorketa—, izenpetu dut; izenpetuko nuan, baita, illargia Txina'n jausi dala eru; edo Aitasantua Jainko dala, zeru-lurren Jainko aundia, eta berak bakarrik izan bear duala gurtua»). Ez al du izketa onek adierazten ainbeste nekeen oiñazepean auldurik, Lamennais'en adimena illuntzea eta naasten asia zala?

Lamennais'ek, ain zentzu-gabe egin zuala dion aitorketa ori Pacea Kardenalari bidali zion Erroma'ra, Quelen Paris'ko Goigotzaia bitarteko zala; oni eskatu hait zion Paeaa'k Lamennais'ekin itzegiteko. Quelen zan Lamennais'ek geien astindu zituan gotzaietako bat, baiña biak bretoiak ziralarik, polito alkar-artu aal izan zuten. Poz aundia sortu zuan kristaudi guziko eliz-gizon zугurretan aitorketa apal arek; eta Paris'ko nuntzioak, Lamennais bere maiora bazkalkide deitzena zijoala ere esan zuan. Zoritxarrez, otordu ori, ez zan egin: Zergaitik ez zuan Nuntzioak bere itza bete, ez dakigun gauza da.

Zeero gaixoturik zegoan Lamennais'en anima, eta agian, baita bere sikologia, bure arrazoa, ere. Andik egun batzuetara, uste gabean, apaizgoa uztea erabaki zuala jakiñarazi zion Quelen gotzaiari, 1834'eko Ilbeltza zan. Andik iru illabetera argitaratuko du «Paroles d'un croyant», («Sinisle baten itzak»), Eliza berari uko egiñaz.

Eman oi da beste arrazoi bat ere ukapen orren iturburutzat: Lamennais'en arrotasuna. Egiatzko arrazoa da au; batuz eru, Frantzi'ko elizgizonen isekak eta algara zoroak naitanaiez arrokeri ori erotasunezko amonru zororaiño anpatu bear izan zutela, kontuan artzen ba'dugu. On aundia eginen zuan Lamennais'ek, astiro ta ixillean, bure dotriñetan okerra zana egia zanatik bereisteko apaltasunik aski izan batu.

Ori egiteko «otzana ta apala izan balitz, edo-ta, begi zorrotzekoa beintzat, eta naiko ernea eta bizia..., bai orixe, Eskola Liberai Katolikoaren buruzagitzan ikusiko zuan laister bure burua; denbora aietako ekintzen lendakari izanen zan; iñoiz baiño aundiagoa, indartsuagoa, agurtuagoa... Ez da sekulan iñor orren alperrik akitu», dio Lacordaire'k. («S'il avait été humble et soumis, ou rame simplement habile et clairvoyant, il se fût retrouvé, en 1841, à la tête de l'Ecole Catholique Libérale, chef de la croisade de ce temps, plus grand, plus fort, plus veneré». «On n'a jamais péri plus gratuitement»). Tamalez ez zuan Gregorio XVI'ak une, Lamennais'en dotriñean Elizarentza<sub>t</sub> orduantxe ain bearrezkoa zan bercizketa ori egiten saiatzeko argimenik izan. Biak dira, beraz, oben berean errudun.

—Bada, guru ustez beste arrazoi bat eite, edestilariek bear-aiña aztertu ez dutena, eta erlijio-sikologian errotoa dagoana: Lamennais'en «geiegikeria», Gauza orotan zan bretoi sutsu ura «geiegizkoa», «neurririk eta mugarik gabea», Leon XII'ak zorrozki igarri zuan bezala. «Geiegikeri» onek egiten digu ulert'erreza, Lamennais'ek Aitasantua eta Eliza ez ezik Sinismena bera ere ukatu izatea.

Iru abe zituan aren erlijioak: jaungoikoa, Eliza, Aitasantua; irurak alkarri josiak. Naikoa zan iru oietako bat jaustea, Lamennais'en erlijio guztia ankaz gora lurrera jausteko. Jainkoa, Elizan zegoan; eta Eliza, Aitasantua-gan. Aitasantua zan beraz Lamennais'en erlijioaren Oiñarri nagusia' Baiña Aitasantuagan zuan fedea..., iokerra zan! , geiegizkoa, neurririk gabea, eta, bere teokrazizko usteetatilc sortua! Aitasantua utseziña zala tinko sinisten ba'zuan ere, ori Aitasantua gai orotan —erlijiozko eta politikazko gai orotan— munduko Buruzagi Nagusia zala Liste zualako sinisten hait zuan! Neurririk gabe zan Aitasantua utseziña! Erlijio-gaitan bezala politikaren gaitetan ere: utseziña! Ez, gaiñera, dogmako egi sinis-bearretaz eta utsezintasuna erabilliaz mintzatzen zanean bakarrik, ez. Beti zan utseziña Elizako eta Gizarteko gaitiaz mintzatzen zanean.

Ta..., Lamennais gizagaixoari uts egin zion bere erlijioaren Oiñarri Nagusiak! Uts egin zion Aitasantuak! , demokraziaren aurka ta errege despotikoen alde atera hait zitzaion XVI Gregorio! Eta, jarri zan ibilketan, Lamennais'en logika: Aitasantuaren utsezintasuna gezurra ba'da, gezurrezko gauza dugu Aitasantuagan oiñarriturik dagoan Eliza ere, gezurrezkoa Kristo bera; ta Eliza gezurrezkoa baldin ba'da, eta gezurrezkoa Kristo, gezurrezkoa da Kristo bidali digun Jainkoa, Kristautasun osoa da gezurrezkoa!!

Saiatu zan bera, kate itogarri au eten naiean: «Egia da *esaten* zion bere buruari, erlijio gaitetan kristau batek entzun eta obedittu besterik ez dezakela egin' Baiña Elizako Agintarien aurrean iare da oso-osoan kristaua politika-gauzetarako zuzen Liste duana pentsatzeko, esateko, eta egiteko». Baiña ez zuan bere bururik eskuratu, nasiegiak bait zeuden, iren teokrazizko gogabi-deetan, erlijioaren mundua eta politikaren mundua.

Argi agiri da anima aren barruko ekaitza len aipatutako «Sinisle baten Itzak» deritzaion liburuan. Elertiaren maldatik so egiñaz, au du bere idazkirik apaiñena. Millaka saldu zituan idazki onen aleak; 100.000, bi illabetetan! Eta dirurik ez zuan jendeak, errenkada luzeak egiten zituan liburutegien atarietan, orduko orrenbeste ordainduaz, liburu Lira irakurtzeko. Ez al da mingarria, orrelako gizona Elizarentzat ain zoroki galdu izatea?

Badute noski erantzukizun galanta, orduan, orain, eta beti, beren eginkizunetan, Aitasantuek eta Gotzaiek...!

A! Liburu ontan idatzi zuan aurreneko aldiz La Mennais'ek bere izena hi itzak bateara bilduaz: Lamennais. Orrela deituko dio aurrerantzean here buruari, agian, idazkera ori demokrazikoia goa iruditzen zitzaiolako; demokrazia hait zuan bere azkeneko liburu onen gaia. Bi «Uri» omen dira munduan. Bat, Jainkoa'rena. Erria omen da Uri ontan agintaria' Bestea, Satanas'ena, eta Uri ontan erregeek eta apaizek agintzen omen dote.

D'Astros Goigotzaiak eta Gregorio XVI Aitasantuak, erantzun zioten. Aitasantuak «Singulari nos», «Guk bere ziki», deritzaion Entziklikaren bitartez. Izker a gogorra erabili zuan Tolosa'ko Goi gotzaiak, «ereje» guztien kide, eta batez ere Luzifer beraren kide egiten hait zuan Lamennais. Ez zan xamurrago ibilli Aitasantua. Arrozoi du ala ere, Lamennais'en idazki ura «tamañuz txikia, baiña gaiztakeriz txit aundia» dala, dionean.

\* \* \*

Bakar-bakarrrik gelditu zan Lamennais. Uste zuan berak oraindik, Elizatik kanpo ere Kristo'ren ikasle jarraitu aal izango zuala; baiña, ikusi degun bezala, bere psikologi naasia el zan uste ariñctan kokaturik bizi aal izateko egiña. Orre-gaitik, bere teokraziaren logika latzak apostasi betera, ukamen osora, eraman zuan. Eta orrela il zan 20 urte geroago, bere illobi-gaiñean gurutzerik ez ipintzeko, testamentuan aginduaz. 11loba emakumezko batek zaindu zuan eriotz-aurreko egunetan; eta neskatil arek, apaiza ekarterik nai zuan, azkene-neko unean galde egin zionean, ezetz erantzun lion osabak.

Bigaramonean, Jon Mari anai apaizak bakardade otzean eman zuan meza «La Chênaie» zeritzan bordatxo artan. Negarrez irten zan bordatik baratzerara; ta «Feli, Full, ou es-tu»? «Non aiz I eu, Feu»? deadarka, lurrera jausi zan kordea galdurik.

Egoki eman zion «ou es-tu» orri erantzuna urrengo igandeko mezan Gratty apaiz izlari aipatuak: «Zillegi al zaigu, anitua gaixo onen salbakundeari-buruz, itxaropen oro galtzea? Ez. «Pour que ce grand exemple servit d'enseignement, Dieu a permis que eette fin fui dépourvue de toute espérance». «Gertakizun izugarri au ikasbide zaigun, leku-eman dEo Jainkoak itxaropen oroz erantzitako eriotz oni. Baiña, bai bat dakigu nolako lanak egin zituan antziña gizakume onek lurrean kristautasuna zuzpertzeko, uste dezakegu, gure begientzat izkutuan gelditu dan damu-une bat izan dala anima onen baitan, eta, damu jainkotiar orrek lortu izanen diola Jainkoaren barkapena».

\*

XVI GREGORIO'REN GAITZESPENA.—Lamennais'ek eta bere lagun-ek, —Laeordaire'k eta Montalembert'ek adibidez—, ez zuten «Mirari Vos» entziklika astiro irakurtzeko arnasik izan. Ain zapalduarik utzi zituan Erromatik gaitzespenak...! Eta ez da arritzekoa. Alako zakarra bait zan Aitasantuak zerabilkian izker! Baiñan astiro eta puntturik-puntu aztertuz itz-zaparrada latz, eriogarri eta zipotz aiek irakurri izan ba'zitezten, aurki aal izanen zuten



gizon buru-argi aiek beren pertsonak aski errez babesteko arrazoi-punttarik naiko. Zer gaitzesten zuan Aitasantu betillunak?

«Lamenetarrek» zer erakusten zuten badakigu! Ikus berriro aien oldozkera, «L'Avenir»en azkeneko zenbakian argitaratutako ataltxo auetan:

«La partie spirituelle dela societé doit être affranchie complètement du pouvoir politique' En conséquence:

«1. La liberté de conscience et de eulte doit être entière, de telle sorte que le pouvoir ne s'immisee en aucune manière et sous aucun prétexte dans l'enseignement, la discipline et les cérémonies du eulte.

«2. La liberté de la presse ne peut être entravée par aucune mesure preventive sous quelque forme que eette mesure se produise.

«3. La liberté d'éducation doit être aussi eomplété que la liberté des cultes, dont elle fait essentiellement partie, puisqu'elle est, comme eelle-ci, une forme de la liberté même de l'intelligence et de la manifestation des opinions'

«4. La liberté d'asoeiation intelleetuelle, morale, industrielle, repose sur les mêmes prinieipes et doit être sacrée aux mêmes titres». Euskeraz:

«Gizartean, animari dagokion guztia gobernuaren eskupetik osoro iaretua izan bear du. Orretxegaitik:

«1. Kontzientzien askatasunak eta Jainko-gurtzeko-eraren askatasunak, askatasun osoak bear dute izan, ez bait du jaurlaritzak, inñolaz ere, gurkeraren erakuskintzan, antolaketan, eta zirimoniak-egiteko-eran, eskurik sartu bear.

«2. Irarkolan askatasuna ez daiteke, artarako aurretik emandako agin-duen bidez, lotu. Ala edo ola egiña izan «dotze» ori, zillegi ez dan gauza da beti'

«3. Gurketarakoa bezain osoa izan bear du ezikuntzarako askatasunak, biak, izatez, askatasun ba t diralako: adimenaren askatasuna; norik bere aburak zabaltzeko askatasuna.

«4. Oiñarri berak ditu oldozketari-buruz, oiturei-buruz eta langintzari-buruz alkarteak egiteko askatasunak; eta, beste askatasunak bezala izan bear du babestua».

Gogapen oiei «Mirari pos» Entziklikaren bitartez erantzun zien Gregorio XVI'tak. Ez da erreza Entziklika orrek darabilkiana baiño izkera zitalagorik Elizaren beste idazki batean aurkitzea, naiz Elizaren edestian Aitasantuen gaitzespen-izkera, geienetan beintzat, gogorra eta minkatza izan. Agian inñor izenez aipatzen ez zualako mintzatu zan ain gogorki Gregorio XVI'a.

Ikus dezagun orain zer gaitzesten zuan, ain tximista ikaragarrien bidez, Entziklika garratz arek:

1. Erljio-arloan, arrazoa sinismenaren gaidik ipintzea, ots, teologi-libertaltasuna eta libertaltasun orren ondorio dan erljio-oro-berdin-dirala aitortzen duan aburua, teologiariek «indifferentismus religiosus» esan oi dutena!!!

Entzun Aitasantuaren itzak, euskeraz eta latinez' Auxe galerazten digu erljio-arlo ortan:

«Egintzak onak eta zuzenak izan ezkeru, edozein erljioaren bitartez berdin anima salbatu daitekela» uste izatea. («Qualibet fidei professione aeternam posse animae salutem comparari, si mores ad recti honestique normam exigantur»),

«Erljio-danak-berdiñak-diralako-aburu-ustel onek ixuri digu, edozeiñi kontzientziko-askatasuna eman eta babestu bear zaiolaren uste okerra, zentzugabekeria baiño geiago, erokeria dan aburua. («Atque ex hoc putridissimo indifferentismi fonte fini<sub>t</sub> absurda illa *ae* erronea sententia, potius deliramentum,, asserendan esse *ae* vindicandam euilibet libertatem conseintiae»).

«Okerkeri izurritsu ortarako bidea, aburuentzat eskatzen dan askatasun oso eta eragabeko ura izan da; erljioaren eta gizartearen kalterako, ainbat zabaltzen ari dan askatasuna». («Cui quidem pestilentissimo errori viam sternit plena illa atque inmoderata libertas opinionum quae in saerae et eivili labem late grassatur»).

2. Politika-arloan, anarkeria da Gregorio'k begien aurrean daukan gauza: «Agintarieri zor zaien begirunea eta rnenpetasuna makaldu nai da; eta, erregerailketarako, errekiñei su-eman, bazter guztietan». («Debita erga principes fides atque submissio labefaetatur, fasesque perduellionis ubique inciduntur»)'

«Lotsa-gaiztoko askatasunaren mugarik eta neurrik gabeko gurariak erre-mindurik dauzkan jende oiek ez dute auxe besterik nai: Agintarien eskubi-deak astindu ta sustraitik atera, askatasunaren aitzakiarekin erridiak morroitasunera jaurtitzeko». («Proiecta effrenataque proeacis libertatis cupiditate aestuantes, toti in eo sunt, ut iura quaeque princeipatuurn labefaetent atque convellant, servitutum sub libertatis speeie populis illaturi»).

Lamennais'ek eta «lamennaistarrek» orrelakorik ez zutela nai, eta ez zutela sekulan pentsatu ere, aipatu-bearrik ez cia. Bazuten baike, beren buruak nola zuritu, osoro izuturik gelditu ez ba'ziran.

Zaillagoa zuten zuriketa-lan ori beste bi punttuetan: Irarkolen askatasunaren eta Eliza Laterriarengandik bereizteko punttuetan, baiña bazuten gai oietan ere alkarrizketarako bidea, Lamennais apalagoa izan balitz. Izan ere, zuzen-zuzen arrapatzen zituan Aitasantuaren oiñaztarriak bi arlo oietan! Idaztien askatasunari, «gaizto-gaiztoa, sekulan naikoa gaitzetzi eta gorrotatu ez

daitekeana», esaten bait zion, «Erriarentzat edozein idazki sortu aal izatea, zillegi nai zuan askatasun ura oso-osoan galgarria omen zan.

Bai noski; baiña «edozein idazki» argitaratu aal izaterik ez zuten lamennaistarrek eskatzen! Onak ziran ha aiek moralitateari dagozkion oitura-arazoe-tan-da jostaketan ibiltzeko!

Ona berriz zer dion Elizaren-eta-Laterriaren alkartasunari buruz XVI Gregorio'k: «Ez dezakegu ez Erljioarcentzat ez Agintaritzarentzat zorion aundirik itxaron Eliza Erregearengindlk bere zita apaiztasuna-eta-inperiotza-arteko alkartasuna ebaki nai dutenen asmoetatik». («Neque laetiora et religioni et principatni ominari possemus ex eorum votis qui Eeclesiam a regno separari mutamque imperii eum sacerdotio coneordiam abrumpi diseupiunt»).

Eliza eta Leterriaren alkartasuna, «beti izan omen da mundu ontako eta heste munduko arazoentzat osasungarri eta pozgarria». («Quae semper rei et saerae et civili fausta extitit ae salutaris»).

Azkeneko atal ontan zan noski zailena Gregorio XVI'a eta Lamennais'en arteko alkarrizketa. Laterria, sinismenaren etsai edo ta beintzat sinismenik galia egin nai zuala Lamennais'ek, uste izan zuan Gregorio XVI'ak. Laterriak Elizaren seme izan bear zuala eta Elizaren esanera egon bear zuala, graziari eta pekatuari zegozkion gai guztietan beintzat, sinisten zuan Gregorio'k. Baiñan ori ez zion iñoiz ukatuko, Aitasantua munduko Errege egin nai zuan Lamennais teokrazizale eta «ultramontanista» sutsu arek!

Tamalez, ez zuten, ez Aitasantu integristak, ez apaiz liberalek, alkarrekin itzegiteko patxadarik izan. Ez zan Lamennais garai artan demokraziaren *aide* leenik itzegiten zuan eliz-gizona. Ezta ere Eliza Laterriarengandik bereizi nai izaten aurrenekoa. Lamennais bezain azkar asi zan hereizketa ortan pentsatzen Sterekx Belxikatarra, Ipar-Amcrika'ko gotzaiak aipatzeko. Ikus zer zion auetako hatek, John England Karolina'ko Gotzaiak, 1824'ean: «Ziur natio Elizarentzat bazter gnztietan egoerarik kixazkoena eta seguruena Laterrietako gobernuetatik osoro bereizia egotea dala, Jaurlaritza, Aitasantuen lurraldean bezala, guztiro elizgizonen eskuetan ez ba'dago beintzat». («T am convinced that a total separation from the temporal government is the most natural and safest state for the Church in anv plaece where it is not, as in papal territory, a complete government of ehurehmen»).

Horrelako «xakarkeri» oiek, (irriño goxoz Erroma'ko eliz-gizon hurutsuek esateko oitura zutenez), «munduaren ertzeko, ia mundutik kanpoko, Amerika urrun eta ulerkaitz artako gotzai buru-gazte aien ateraldi pinpiriñak» besterik ez zirala? Ez zan amerikarra, Frantzi'koa haizik, Pradt Gotzai agurgarria, eta batere «pinpirinkerietan» ibilli nai gabe, itz hakoitzari here men eta pixu guztia emanaz, idatzi zituan Frantzi'n hertan, Lamennais'ek haiño urteak leenago, onako gogapen garrantzitsu eta jator auek 1818'an, «Les Quatre Con-

cordants» izen-eman zion idazkian: «Eliza Laterriarengandik bereiztea, iru gauz aek egitea da: kristautasunari antziñako garbitasuna itzultzea; Frantzi'ko Elizari bere duintasuna birrematea; apaizei, zor zaien erri-maitasuna eta begirunea biurtzea»: («Separer l'Eglise de l'Etat, c'est rendre au ehristianisme sa pureté première; <i>à l'Eglise de France sa dignité; au clergé, le respect et l'amour des peuples»).

Bijoa, mende t'erdi geroago, gure omenik beroena gotzai begi-zorrotz onentzat. Len aipatutako John England gotzai karolinatarraren itzak berriz, 1824'ekoak dira, ain adiskide zuan O'Connell irlandar ahertzalcari egindako ezkutitz batean idatzia, eta gotzai baten iritzia ez ezik Iparramerika'k izan dituan gotzai guztien iritzia agertzen digute. 8 urte geroago, 1832'an argitaratu zuan XVI Gregorio'k «Mirari Vos» Lntziklika, itxuraz beintzat gotzai aien aburuak zearo gaitzetsiaz; baiña Entziklika ura berentzako idatzia izan ez balitz bezala jarraitu zuten aiek, eta ez noski Iparramerika'n katolikoak orduan oso gutxi ziralako bakarrik, Gregorio'k gaitzesten zuan Eliza-eta-Laterria-arteke bereizketa, eta aiek aldezten edo defenditzen zutena, bereizketa berdiñak ez ziralako baizik.

Europa'n ordea sakonki sartu zan elizgizon eta teologilarien biotz-adimenera Gregorio XVI'aren izkera, eta aren pentsabidetik jarraituko digute ondorengo Aitasantuek; eta Iiza-ta-Laterriaren-arteke bereizketaren auzia ez da II Batikan Kontziliora arte bear bezala argituko.

Laterri Alkartuetako gotzai aiek ez zuten Laterria Jainkorik gabea izan bear zuanik esaten; ezta Lamennais'ek eru! Ez zuten, Eliza ezarria zegoan lurraldeetan Laterriak Elizari lagundu bear zionik ukatzen; soilki Laterriak ez zuala Elizaren auzietan atzaparririk sartu bear, esan eta pentsatzen zuten. Eta oldozketa oien aurka ez zegoan, ez noski, pure Aitasantu latza; azalez mamiz baiño milla aldiz latzagoa' Txit egokia iduritzen zaigu «Encyclopaedia Britannica'k» egiten dion goratarrea:

«Historians used once to represent Gregory XVI as a typical example of a reactionary and narrow-minded pope; but this view is now disputed:

«Adimen estuko Aitasantu atzerakoien eredu lez aurkeztu oi izan dute len edestilariek XVI Gregorio; gaur-egun ordea, aurkezkerari zalantza ipiñia izan da». «Egia da ez ziola Gregorio'k, italiar abertzaaletasun berriari abegi onegiaz begiratu; eta, Eliz-Laterrien administraketa ber-eratzeko eskatzen zioten bere mendekoei ez ziola aiek nai zuten moduan erantzun»; «bis monastic austerity moreover made him seek to isolate himself while his rough manner made him seem even more intransigent than in fact he was»:

«Lekaide izanik, beti gorde zuan garratzasunak gizartetik bakartasunaruntz iges egitera bultzatzen zuan; eta bere izaera latzak, zan baiño amorekaitzagoa-

ren itxura ematen zion». «Illa taguztiz administraketaren eta politikaren barrutietan bere jardunkera ez zan «Risorgimento» edo Itali'ko «Birjeikitzaiko» edestilariek sinistaarazi nai izan diguten bezain beltz-illuna izan»: («But even so, his administrative and political record is less black than it has been painted by early historians of the risorgimento. And we must also recognize in the scholarly man an enlightened patron of the arts and archaeology. Moreover in religious matters his intelligent and carefully considered measures proved beneficial to the church in more than one respect»:

«Gaiñera, gizon jakintsua, adimen argiz jantzia, eta erdian ta arkeologiaren zaindaria izan zala aitortu-bearrean gera. Geiago oraindik: elizarentzat era askotara izan zirela onurgarriak zuzurki eta onde pentsatu ondorean eman zituan aginduak»'

«Apaiz ona bezain lekaide ona («a good priest and a good monk») asko egin zuan apaizdia sendotzeko ta erlijiosoen anaidiak zuzpertzeko, eta mixio-ekintzak indartu ta zabaltzeko. «Was a great missionary pope»: «Aitasantu missio-bultzaille aundia izan zan. Tokian-tokiko apaizak eta gotzaiak sagaratzeari ere pentsatu zuan, baiña erri egiten asteko betarik gabe jean zan mundu ontatik» .



## FRANTZI

Beste inon baiño gogorragoa eta zakarragoa izan hait zan Frantzi'n Iraultza, an izan zan naharmenena Birrezarketa ere. Bi errege Borboi, XVIII Koldobika ta X Karlos erabili zituzten despotikeri-zaleek Birrezarketa ura egiteko; libe-ralek berriz, Koldobika-Felipe Orleans'tarra, Iraultza-aroko Felipe «Berdin-tasun» aren semea. Orleans'ko Duke eta XVI Koldobika'ren lengusua zan gero iraultzalari biurtu eta azkenean gillotinan huma galdu zuan Felipe« Ber-dintasun» au.

Baiña aztertu dezagun aurretik Frantzi'ko kristautasunaren egoera.

Emen ere, errez ikusi aal izango dugu izenetik izatera dagoan tartea. 30.000.000 biztanle zituan 1815'eko Frantzi'ak, eta, bosteun milla protestalari eta irurogei milla judutar kendu ezkeru, beste milloi aiek danak, izenez, ka-tolikoak ziran, edo-ta beintzat, legez. .Izatez ordea...?

Ara zer dion 1826'ean Macchi Nuntzioak: «Nazioaren erdiak ez daki deus erlijio-gaietaz, eta axolagabekeria murgildurik bizi da. Paris'en, 10.000 doi-doi joanen dira mezara igandeetan; uriaren zortziurden bat».

Nuntzioak ez digu Paris'tik landako kristautasunik aipatzen, baiña prob-intzi guztietan kristau-bizitzaren garra, berdiña ez zala, badakigu. Bretañi eta Vendée bezelako lurraldeetan, lotsagarri aurkitzen zan mezara joaten ez zana; Paris'en inguruko zelaietan, berriz, joaten zana zan parregarri. Ikus az-keneko probintzi auetako eredu bat: Chartres'en ondoko urixka bat: Ga-'lardon. 1600 anima zituan 1816'ean. Lau gizon bakarrik *joan* ziran urte ortan pazkoazkoa egitera'

Gaur bezala, orduan ere, geiago ziran emakumezkoak baiño gizonezkoak, Elizatik urrundutakoen artean. Gizartearen maille' so-egiñezkeru, esan leike aundikiak, geienak, katolikoak zirala, baiña, baita, autokrazi-zalaek ere. «Ikusi bait dote, —aundiki oiek—, Frantzi'n gizakumeak egin duan askatasunaren Lenen erabilketa kristautasuna zanpatzeko izan dala..., bildur dicte askatasun-zaleei, eta izuturik aldegiten dute askatasunaren otra berberarengandik. Aska-tasunetik sortutako gauza berri bat dala uste dute sinismengabekeria; eta sinisgabekeria ainbat, berria daitekean gauza oro dote gorrotatzen». (Toc-queville).

Eliza ukatutakoetatik geienak, burg.:siaren maillean zeuden. Ona zer esaten digun auetaz Tocqueville'ko Alexis berak: «Badira auen artean kristautasuna lagata beste erlijiorik artu ez dutenak. Badira, ezertan sinisten ez dutela esanagatik biotzaren barruan zerbait-bai-ote-dalako-zalantza kokaturik daukatenak. Badira, baita, oraindik sinisten dutenak, naiz sinismen ori aiTortzeko adorerik izan ez. Badira, gutxi baiña badira kristau zintzoak ere, beren sinismenaren alde iseka danei eta arrisku guzTiei aurpegi emateko gerturilc daudenak».

Gaurko egunean Elizatik oso iu•ruti dabil langilledia. SEta garai aietan? Esan dezagun, leenik, garai aietan ez zahi oraindik Frantzi'n proletarizarik. Lanean asiak ziran aurreneko ola aundiak, baiña bertako langilleek ez zuten gizadtko mailla bereizi bat ziralaren asmorik; eta aien kristautasunaren neurria, bakoitzaren sorterritxoko kristautasunaren kide zan. Erritxoetan mezara leen joaten ziranak, joaten ziran orain cre urietan. Gaiñera, langillerik ugarienak etn gaillurrenak, kofradietako eskul,tngillcak ziran, eta «gremio» aiek danak biziro gorde oi zituzten oraindik antziñako kristau-oiturak,

1830'eko iraultzak buta zuan anka-z-gora katoliko2n Birrezarketa; urte orixe bera da langilleen artean, eta baita nekazarien artean ere, erlijio-sentimentuetan aldakuntza aundi bat agertzen asi zan urtea. Ona, ezaupidetzat, Eure'ko Chavignv 550 biztanleko errittoaren sakramentu-edestia: 1820'ean 39 izan ziran pazkoazkoa egin zutenak. 1826'ean, ere 43; arriskugarri hait zitekean orduan eliztar ez agertzea 9 i i 'ean, (1i) 33; eta 1945'ean, <sup>m</sup> 18. Arras kaltegarri izan zitzaion, beraz, katolikotasunari Karlos X'aren eta Gregorio XVI'aren antzeko agintari artxikatolikoei ain atsegin zitzaien Birrezarketa «katoliko».

I:z zuten Frantzi'ko gotzaiek orrelako arriskurik ikusi XVIII Koldobika'k buruntza jantzi zuanean. Pozik zeuden, ostera Laterria ta Eliza alkaturilc ikustean. Erregeak babestuko zuan JaungoIkoaren Eliza! Eta Elizak, Jaungoikoaren Errege! Iraultzaren politikak n xla tu yuan aien ustez, gizartearen sail aundietan, sinismena. Errepeva zaarraren politikaren birrezazketak zuzpertuko zuan ostera, gaixoturiko giza-sail oietan, sinismena. Ez da arritzeko; «Frantzi'ko elizjendea, mendeen luzaroan, Borboien itzalpe goxoan bizi izan bait zan; Borboiek ooratua, kottundua, lagundua, babestua; aiekin gillotinara igo ere hait zan, eta aiekin atzerrira erbestaturik iges egin. Biziera luze orren ondorio..., maite zuan eliz-jendeak Borboien Sendia! ».

(Lacordaire).

Onela zion «au nom de toutes les nations de la terre», (« ludiko errialde guztien izenean») Paris'ko Goigotzai Quélen Jaunak, «eguzki-pean ez zala ezer, aunditasunean Frantzi'ko Errege-Etxe Txit kristau uni irabazi zezaiokeanik», (« qui'I n'y a rien sous 1e soleil qui surpasse la grandeur de eette Très Chrétienne Maison de France»). Troyes'ko gotzai De Boulogne Jaunak, berriz,



bazala, idatzi zuan, «un contrat éternel entre le Trône e, l'Autel qui ne peuvent exister l'un sans l'autre»: («betidaniko itun bat bazala Erregeaulkiaren eta Aldarearen artean eta bata bestea gabe ez zitezkeela bizi»).

Ez zituzten goratzarre auek erregea zuritzeko bakarrik esaten; ziotena, egirik-egiena zala, bete-beteen uste zutelako baizik. Beren eginkizunik bereizienetako zala, sinistu izan zuten, Borboien erregetzari bizkortasun eta iraupen ematea; «des Pères étaient appelés par la Providence a remplacer la Monarchie sur des bases solides», («Bakalduntzari oiñarri sendoak ipintzera deitu bait gaitu, Eliz-Asabok, Jainkoaren Ardurak»), Estrasburg'eko gotzaiak idatzi zuanez.

Baiña Erregeak, edo aren Jaurleariek, Elizaren eskubideen aurkako zerbait egiten ba'zuten, jakin zuan Frantzi'ko gotzaidiak Erregeari, bildur gabe, aurpegi ematen.

Ez zan guztia okerra izan, Elizarentzat, politika aren giroan. Bizkortu eta ugaritu zan apaizdia. 1815'ean, 34.000 ziran apaizak, eta 6.000 bakarrik berrogei urtetik beerakoak; oso zarrak, besteak. Apaiz aien eziketa, gaiñera, aski laburra izan zan, Napoleon'en aroko seminarioetan ikaskuntzak oso moldakaitz eratuak izan hait ziran. Saiatu ziran gotzaiak, akats ori zuzentzen, eta baita, Jaurlearitzaren diru-laguntzarekin, apaizen taldea ugaritzeko seminario txikiak irikitzen ere.

Aski poliki lortu zuten beren guraria. 1815'ean, amabost milla apaiz falta ziran Frantzi'n. 1820'ean, beterik zegoan utsune ori, eta, bereala, Laterriak Eliza babesten eta ooratzen duan toki guztietan gerta oi dan bezala, apaiz-ordenaketak, bearrezkoak ziran baiño ugariagoak izan ziran; 2.289 geiago zortzi urteen epean (1820-1828), eta azkeneko urte ontan, 23.000 milla ziran gaiñera seminarioetako apaizgaiak.

\* \* \*

Berhizkunde berdiña izan zuten erlijiosoen Anaidi zarrek, eta baita oraindik sortu berriak ziran edo orduantxe eta geroxeago sortuko ziran Anaidi berriek ere.

1805'ean eratu zuan Kepa Jose Coudrin'ek, Paris'en izen artako kalean sortua izan zalako «Piepus» esan oi zaion «Jesus eta Mariaren Kongregazioa», VII Pio'k 181 Tan on-ezagutua. Lan aundia egin dute Anaidi ontakoek mixioetan, Ozeani'n bereiziki.

Gaztediaren eziketarako jaio ziran Salle'ko Donibane Batista'ren «Kristau-Ikastoletarako Anaiak», Jon Mari La Mennais'en «Kristau-Eziketarako Ana-

iak», Chaminade Kanonigo Bordeletarraren «Marianistak», eta Champagnat apaizaren «Anai Maristak».

Misioetarako sortuak ditugu, Mazonod'en «Mariari Eskeiñiak», eta Colin'en «Aita Maristak»; baiña joan ziran Mixio-lurretara len aipatu digun Anaidiak ere.

Emakumezkoen artean gogora ditzagun Santa M. Magdalena Sofia Barat'en «Biotz Deunaren esaneko Amak», Claudine Tcvet'en «Jesus Mariaren Erlijiosak», Santa Eufrasia Pelletier'en «Artzai Onaren Kongregazioa», neska galduak ezitzeko sortua, Emili Oultremont'en «Oben-Ordainleak», Jose Jugan eta Le Paileur'en «Txiroen Arrebatxoak.».

Eta, zenbat geiago? Aski bedi XIX mendeko Frantzi'an 400 erlijioso-erlijiosaen Erakunde sortu zitzaizkigula esatea. Aundiak, eta Aitasantuen onespina lortutakoak batzuk; txikiagoak eta gotzaien onspen utsarekin bilduak besteak, baiña iraultzatik irteerako Frantzi'aren kristautasun gartsuaren adigarriak danak. Edestia-zear beti gerra oi danez, bizkortu egin bait zuan Iraultzak Frantzi'ko Argikuntza-aroko Eliz motela!

Ezin utziko ditugu noski aipatu gabe, garai artan Garikoits'eko Donemikel euskaldunak sortu zitzaizkigun «Betarramitak»!

\* \* \*

Apaizak eta erlijiosoak bezain bizkorki piztu ziran berriro erri-mixioak ere, iru apaizen ardurari eskerrak. Legris-Duval, Liautard, eta batez ere Rauzan bordeletrarra, ziran apaiz aiek. Amabost egun irauten zuten mixioek• elizan, enparantzetan, karriketan, baztar guztietan itzegiten zuten mixiolariak, eta oso maiz esakera, tresna, eta zirimoni ikara-zortzailleak ere erabili oi zituzten; baiña alatagutziz, iritxi oi zan aien itza entzuleen Larnemuñetaraino; ez bait zan arrigarri mixio baten bukaeran berrogei milla pertsona jaunartzera joatea.

Laterrizko-katolikotasun guztien itsa eta zikinkeria da-ta, nasiegiak ibilli ziran mixio aietan ere politika eta erlijioa.

Ibildeun bat izan oi zan mixioaren asiera. Ibildeunaren aurretik, gudari-sail bat joan oi zan zaldiz; gero erriko Agintari guztiak, baita gudariak ere. Mixiotu-bearren abestiak, ezkillen otsa, eta kañoien durunda izan oi zan, uri aundietan ibildeun aren eresia, Agintari aiek bezain erregezale benetakoak ziralako, ia erlijioa aña goratzen zuten mixiolariak borboi-zaletasuna. «Frantzi'n, beti... Borboiak eta Fedea», zion maiz abestu oi zan bertso batek. Kolobika XVI'a, eta XVII'a, martiri izenarekin aipatzen ziran beti: «Errege Martiriak». Maiz egiten ziran omenketak iraultzalariak desegindako jauretxetan, eta irsultzakoan eraildako «martirien» illobien gainean,

Geiago oraindik; noiz edo noiz txarkeriak ere egin oi ziran, jendearen ustez bear aiña damuturik gabe jarraitzen zuten jakobindarrekin, *edo* «kosituziotar» izandako apaizekin.

Egunoroko bizitzan ere *hein* baiño geiagotan, neurriz gaindi erabilli zuten elizjendeek gobernuak eskeintzen zien laguntza' Erri-kargu bat artu nai zuan orok, kristau zintzo zalaren adigarri bat erakutsi bear zuan. Estrasburg'en, Gotzaiak eskatuta, bertako gudarozteen Nagusi Gurenak Jubileoa irabaztera joateko agindu zien bere mendeko buruzagi ta gudari danei. Ez zuten nun-bait aukeratsa geiegirik artzen-da, danak danborraren tanpatakoen pausora eta beren saillletan bildurik joateko agindu zien bigarren erabaki batean' Klermont-Ferrand'en, mezara joaten ez ba'ziran ertzainditik jaurtiak izanen zirala esan zitzaizen ertzainei, Ambois'en, bi ertzain espetxeratuak izan ziran, ibildeun bat agurtu ez zutelako..'

Gotzaiak ere egin zituzten, gaur parragarri iduritzen zaizkigun gauzak . Batek baiño geiagok agindu zuten mezara joaten ez ziranen izenak eliz-atarian idazteko, eta baita ezkon-ausele ezagunen zerrenda liburu batean jasotzeko ere.

Ikastetxeetan, bearrezkoa zan meza entzutea ikasle guztientzat; eta, Ikastola Nagusietatik, erlijioaren edo elizjendearen aurkako agertzen ziran irakasle guztiak kenduak izan ziran. Ala galdu zuten Guizot berak eta beste irakasle batzuek irakaskuntzako kargua.

Tamalez indarrezko erlijioa ez da beti egiazko erlijioa izaten, itxurazkoa baizik bein baiño geiagotan, eta ori gertatu zan Frantzi'n ere. Baziran an Iraultzaren nardakeriak ikusi ondorean benetan Elizara itzuli ziranak. Oroi ditzagun Clausel, Musset, Laeordaire, Chateaubriand...; benetako kristaua zan orduan Jaurilaritzan zegoan Montmorency ere.

Baiña kristau auen ondoan, zenbat komedi-egille! Erregea bera aurrenekoa, Luis XVIII'a, fede moteleko gizona; «Jakintzaren billa egindako ikaskuntza gerunak askatu omen zion, bâ, arima, aurtzaroan ikasitako siniskerietatik», esaten zuanez. Ala ere, santu-itxurean joan oi zan ibildeunetara. Guda-ministro zan Soult mariskala, Espâni'n eliz-ebasketan bizkor ibilli zana! Orain, bere ministeri-etxean, otoiztegi bat eratuarazi zuan, eta arâ bildu oi zan egunero, ospetsuki, otoitz egitera'

Orrelako ustelkeriak ez ziran bakanak giza-erakunde aietan' Len Jainko-gabe izandako, eta orain ater-gabe Jainkoaz mintzatzen jarduten zuten gizonak, asko ziran; batez ere Laterriaren serbitzura zeuden aien artean. Meza-liburu bat besapean zutela, maiz joan oi ziran elizara sendagille ta lege-gizonak; eta, askotan, liburu ark azal beltza bakarrik izaten zuan meza-liburukoa. Oparo ta kezkarik eta arazo gaitzik gabe bizitzen jarraitzeko, nork bene burua kristau agertzea eskatzen bait zuan orduan bir-kristaututako Frantzi'an giroak.

Itz utsak baiño zerbait•geiago, zigorra alegia erabilli oi zuten ikastole-  
tako irakasleek beren gaztelia.jaunartzera bultzatzeko; errezagoa izango bait  
zuten orrcla kategori geiagoko ikastoletarako bideat Umeak ere, jakiña, za-  
rrai oei ikusten zietena egiten zuten: itxurak gorde! Laeordeire'k diosku, bi-  
garren maillako ikastetxe batean 30 mutil joaten zirala egunero jaunartzera,  
gero, Osti ura, paperak alkarrekin batzen eraskai lez erabiltzeko!

Eliza ta Laterriaren batasuneko politika urten baziran borondate oneko  
gizonak. Era ontako gizonak osatzen zuten «La Congrégation» izeneko baz-  
kuna, 1801'ean Aita Delpuits'ek asmatutako «Congregation Mariale» arte-  
tik sortua. Aurreneko «Kongregazio» ura, 1801'koa, geroago Bertier'ko Fer-  
nando'k «masoikcritza zuri» hacen antzeko alkarte izkutua biurtu zuala-ta,  
Fouché'k galerazi zuen; baiña oran, 1814 'ean, erlijiozko eta politikazko al-  
karte egiñik berbiztu zen «Grande Congrégation» zeritzela. F,rlijio- aldetik  
Legris-Duval eta Ronsin apaizak izan zituan berbizkunde ontan zuztaertzaille;  
politika aldetik, Montmorenev'ko Mateo; eta bazkiderik bizkorrenak, Nauo-  
leon'en despotikcriaren aurka ainbat lan egindako «Chevaliers de la Foi»  
edo «Sinismenaren Zaldun» aiek.

Izugarrizko gorrotoa eia bildurra izan zioten Kongregazioari libera] guz-  
tiek, aren asmoa, \_\_betirako demokrazi oro zapalduta—, Frantzi erdi-arora  
cramatea zala- liste izan zutelako\_ Ori zen beintzat liberalek esaten zutena.  
Øri ta beste gauza asko geiago: Exillezko alkarte bat zala; siñale izkutuak  
bazivala, alkartekoek bata-besteaz ezagutu aal zezaten; 48.000 alkarte-kide  
bazituala...

Ez dira noski ogiak esamesa oiek, dirudianez ez hait zituan iñoiz 3.000  
kide baiño geiago bildu. Baiña egia de Koldobika XVII I'arcn erai Karlos  
X'aren gobernuetan esku aundia eta bortitza izan zuala, iru milla aien atean  
hai\_t zeuden Paris'ko katoliko borhoitzalerik ar\_tienak. Kongregaziokoak zi-  
tan Frantziko «Pairs» edo «Aundiki Garaienetaitik» amabi, Jaurlaritzako mi-  
nistro asko, eta Ertzaindiern Buruzagi Nagusia.

Lliza bizkortzeko erabilli nai izen zuten indar guztiai; baiña politika-eta-  
-erlijio-naaskera artatik on baiño kalte geiago etorri zitzaion Elizari . Etc ori  
bera esan daitekela uste dugu gotzaien jokaeraz etc.

Orain, antziñako Borboien denboran bezala, a uristokraziaren artetik auke-  
ratzen zituan Erregeak gotzaiak, eta oraingo auek, antziñako aiek bezala,  
galikerizaleak ziran. Frayssinous Gotzaia izan zen, bere liburu idatzi-berri  
baten bitartez\_, «ñiolaz ere Aitasantutzanen aunditasunik moztu nai cz zuan»  
galikeri berri aren irakasle, baiña bere ikasleak, naiz gotzai naiz politikaku-i,  
ez zuten hein baiño geiagotan maixuaren neurritasunik gorde:

Atzera berriz, 1682'an Bossuet'ek idatzitako galikeriaren «Lau Ataltxo» aiek, Seminarioetan eta Legizti-Ikastoletan naitanaiez erakutsi bearrak zirala, agindu zan.

—Berbiztu ziran antziñako txepelkeriak. Orrela, Pio VII'a iltzean Nuntzioak gotzaiei otoitza eskatu zienean, «gobernuaren bitartez izan ezik ez zitzaiela gotzaiei Aulki Donearekin arremanik izatea zillegi», jakiñarazi zien auei Jaurlaritzak.

—1826'ean «Agiri» bat idatzi zuten amalau goigotzai eta gotzaiek. «Agiri» ortan, «izpirituari-buruzko arrazoiengaitik politikazko arazoetan Aitasantuak esku baduala» uste izateari, «antziñako anarkiaren altzo naasitik sortutako aburua, gaur bazter guztietan aantzia», esaten zioten. («Opinion née autrefois au sein de l'anarchie et de la confusion et tombée dans un oubli presque universel»).

—Frayssinous berak «l'ultramontanisme», edo «Mendizarunzkotasuna», au da, «Aitasantuari al diatekean almenik aundiena ematearen alderdiko» izatea, «zaartasunez orbeldutako kontua zala, —zion—, eta mundu guztiari parregarri iduritzen zitzaiona».

—Aldizkari katolikoetan esakizun garratzagoak ere argitaratu ziran. Adibidez, Aitasantuak kontzilioaren onetsirik gabe Elizan ezer egiteko almenik ez duala. Frantzi'ko Elizaren «antziñatik eskubide, lege eta abantail eraspengarriak», «ukitueziñak» zirala, aldizkari aiek maiz aipatzen zuten gauza zan.

Alatagutziz, galikeria betirako illik zegoala, errez igarri zezakean edozeiñek; apaizdi gazte guztia Aitasantuaren aldeko hait zan. VI eta VII Pio Aitasantuek Frantzi'ren mendean katigu eraman zuten biziera bikaiñak omen eta diztira aundia eman zizkion bâ Aitasantuen Pertsonari• eta Aitasantutza berari! Serbitzu neurtu-eziña egin zuten De Maistre eta Lamennais'en idatziek ere, eta Gotzai berberen artean, galikeriaren aurka irten zan Tolosa'ko Clermont-Tonerre Goigotzaia, orrexegaitik Jaurlaritzak dabekatu zion pastoral baten bitartez. Seminarioan «Lau Ataltxo» erakusketa galeraziaz erantzun zuan Goigotzaiak.

Galikerizko giro ortan sortu zan «Erakuskintzaren Arazoa». Jakiña dugu Napoleon'ek erakuskintza Laterriaren monopolio biurtu zuala, Frantzi guztirako Unibersitate ba ezarriaz, eta Unibersitate orren lendakaritzan «Grand Maître» edo Maixu Nagusi bat ipiñiaz. Frantzi'ko «lycéés» edo bigarren mailako ikastola guztiak, baita seminario txikiak ere, eta irugarren mailako ikastolak, fakultateak eta seminario nagusiak, Unibersitate bakar orren gorputziak ziran, eta Laterriak izendatutako Maixu Nagusi aren mendean zuden. Irakasle guztiak Laterriaren serbitzariak ziran, Laterriaren ogipekoak'

Eta au izan zan Birrezarketa-aroko gotzaiei frantziarraren utsik eta zularik aundiena: Monopolio ori orain ez desegin izatea. Unibersitatearen «bakarkeria» puskatzeko, bai, pentsatu zuan XVIII Koldobika'ren Jaurlaritzak ama-

zazpi unibersitate berezietan Prantzi'ko Unibersitate bakar ura zatitzea, baiña ez zuan deus egin. Monopolioa ezerezteko berriz, au da, Laterriari erakuskintzaren jabe, jaun, eta nagusi bakarra izatea kentzeko, ez zuan iñork ezer pentsatu. Soilki seminario txikiak Laterriaren hegipetik landa iriki aal izateko baimena eman zitzaien gotzaiei. Zegoan bezala jarraitu zuan, beraz, Napoleon'ek asmatutako Unibersitateak. Monopolioko gizonen aldaketak baka- rrik egin ziran.

Frayssinous, galikerizaleen aitzindari ezagutu dugun Gotzai ura, izen- datu zuan Tauralaritzak Unibersitate Bakar aren Maixu Nagusi. Ipiñi ziran eliz-gizonak beste karguetan ere, baiña leu bezala, Frantzi guztian, egiaz eta benetan, Laterria zan gazte- eziketaren nagusi. «Laterkideak morroi eta jopu biurtzeko eskubidea eman diogu Laterriari, monopolioaren bitartez adimenen moldaketa bere gisara egiteko almena eman diogunean; ori da Laterri bateko tiranikeririk izugarriena, Napoleon etorri arte munduak iñoiz ezgutu ez zuana», oiu zegan Lamennais'ek.

Gotzaiek irikitako seminario txikietara sartu nai zituzten guraso askok beren mutikoak, Unibersitatearen hatxiller-ikastoletan oiturak ala-olakoak ziralako. Eta seminario aietako batzuk Tosulagundiaren eskuetan ipiñi bait zituzten gotzaiek..., ara non batera naasten diran «Fralmskintzaren auzia» eta «Josulagunen Arazoa».

Sortu hait zuan zurrunda berna Frantzi'n iñakitarraren itzultzeak, batez ere liberalen eta galikeri-zaleen artean. Esan zuten auek aien aurka gauza irri- garri borobillik...! Karlos X'a iñakitarra zala; isillean meza ematen zuala...; aien Montrougue'ko konbentua gaztelu bat zala, eta bertan 50.000 iñakitar ari zirala gudarako izkilluen erabilketa ikasten...; Konbentu artatik, Karlos X'a bizi zan Tuilleries'eko lurratzpiko bide bat bazutela...; «Kongregazioaren» bitartez Frantzi'ko gobernutza artu nai zutela askatasun oro hirrintzeko...; eta orrelako milla txatzukeri geiago.

Ez zuten Doniñakiren mutillek orrenbesteko jaramonik orduan Frantzi'n merezi. 108 apaiz eta 212 anai ziran guztira, eta 8 ikastola besterik ez zituzten beren ardurapean. Ta irakasle bezala ere, ez ziran orduantxe beste munduko gauza, osoro zuzpertz gabe bait zegoan oraindik Lagundia. Ala ere, ezin aztu zuan jendeak, iñakitarrek errege autokrazizalecn adiskide izan zirala.

Eriaren gorroto ortaz baliaturik bururatu zuan Tauralaritzak bere ontur- rarako, Erakuskintzaren Auzia 1828'ko bi «Ordonnances» edo Arauketen bi- tallez. Gogo txarrez izenpetu zituan X Karlos artxikatolikoak, Martinac lenen minitroak gertututako bi araudi aiek, baiña gogo onez edo txarrez,

—Josulagundiaren ikastolak Unibersitatera igaro bear zutela agindu zuan;

—Seminario txikietan eta Elizaren ikastoletan artu zitezkean ikasle-kopu- ruari muga ipiñi zion, eta,

—Bigarren maillako ikastola berri orok, iriki aal izateko, Laterriaren bai-  
mena bearrezkoa zuala erabaki zuan'

Lenen maillako erakuskintza, iare gelditu zan erlijiosoen eskuetan Na-  
poleon'en denboran bezala' Bigarren maillako ikastolak inporta zitzaizkion  
geienik Jaurlaritzari len Bonaparte'ri bezala, an ezitzen bait zan gero kargu  
garaietara igo zitekean gaztedia.

Gizonki jokatu zuan oraingoan Frantzi'ko gotzaidiak aipatu berri dugun  
Clermont-Tonnerre KardenaI Goigotzaia buruzagi zuala. Bildurtu zan Jaurla-  
ritza, eta ain galikeri-zale ziran ministro aiek, Aitasantuari eskatu bear izan  
zioten laguntza gotzai itxartu aiek eskuratzeko. Bakun artu zituan Leon XII'ak,  
eta, pakea birrezartzeko, Erregearen katolikotasunean itxaropen osoa izateko  
eskaria egin lien gotzaiei. Aitasantuaren esanera, makurtu ziran auker.

Iñakitarrek, naiz ikastolarik gabe, beren etxeetan jarraitu zuten apaiz-la-  
netara loturik, ez bait zuan Jaurlaritzak aiek erbesteratzeko kemenik; eta,  
ezta, agian, gogorik ere.

Asarrealditxo auker ez zuten Laterriaren eta Elizaren batasunik urratu.  
Baziran baiki, Elizako eskubitarrei atsegin ez zitzaizkien gauzak, Biena'ko  
Alkarte Donearen araura eratutako Frantzi artan. Ez bait zuan, aiek nai zuten  
bezela, XVIII Koldobika'k XIV'aren politik-era birrezarri...! Leenik, XVIII  
Koldobika'k zugarri nazioari eman zion «Charte Constitutionnelle» edo egiaz-  
ko Kostituzio bat zan «Eskutitz» ura, ez zitzaien eskubitarrei gustoko, «kos-  
tituzio» izenak berak erraietako miña sortzen zielako'..

Lz zan noski oso demokratikoa «Eskutitz» ura. Bi Batzar ipintzen zituan  
Laterriaren buruan. Rata, «Senatua», «Pairs» edo «Aundiki Gaillurrentzat»  
bakarrik zana, orrela aristokraziari politikan atzera berriz esku luze portitza  
emanaz. Bestea autarkiz aukeratutako «Ordezkarien Batzarra». Ots, ordea;  
Frantzi'ko 90.000 jauntxo aberatsenek bakarrik aukeratutako diputaduen Ba-  
tzarra! Burgesiarena zan soilki batzar au; Burgesirik aberatsenarena; Elizatik  
urrun zegoan burgesiarena, beraz'

Baziran an galikeri zaleak, baziran Konbentziokoan Elizaren ontasunak  
erosiz aberastu ziralako Elizatik urrutik bizi ziranak, edo Napoleon'en ser-  
bitzura sakelak bete zituztenak, eta, baita, aspalditik Voltaire edo Rousseau'-  
ren irakurketan kristau-sinismena galdutako jainkogabeak ere. Baiña giroak  
eskatzen zuan neurrira, ederki gorde zituzten danek itxurak. An jarraitzen  
zuan Fouche'k berak ere Jaurlaritzan, —zazpi larruko piztia —, Erregea na-  
poleondar izandakoen aurka axatuaz. Oner eraginda erbesteratu zituan Koldo-  
bika XVIII'ak 57 pertsona.

Egia da Elizak ez zuala galdutako ondasunik bereganatu; ezta, oraindik  
saldo gabe zeuden ondasun aietatik deus ere; egia da ez zitzaiola «l'état eivil»

edo, Laterriaren Batzar Nagusiak antziñ a zituan iru maila aietatik bat izate ura berriro on-ezagutu; egia da, erregearen «Cbarte» edo «Eskutitzak» sinispide guztiei askarasun osoa ematen ziela, eta orrela, Napolcon'en denboran baiño askoz obeki, iare ta pozik bizi eta lanean ari zirala protestalariak, judutarrak eta masoiak; egia da idazkiak argitaratzeko ete eskubide guztiak ematen zizkiola laterkide orori «Eskutitz» areE, eta aneika agertzen zirala elizgizonen aurkako idazkino ta aldizkariak, eta iñoiz baiño ugariago saltzen zirala Argikuntzako sinisgabeen liburuak; Igia da Napeleou'en Legedia, erregetza birrezarri onen Legeditzat artu zala orain ete berriro...

Baiña akats oiek ez zuten Erregetza-ta-Elizaren-arteko eztaien gozotasunik ozpindu. Izan ere, akats guzti oien gairdik, egia bait zan Erregearen Kortean eta Laterriko Batzarretan aulkiak ugari eman zitzaizkiela gotzaiei; Iplizarentzako diru-laguntza 12 milloitik 31 milloira jaso zala; erri-mixioei Jaurlaritzak oparo laguntzen ziela, (batez ere Decazes jausi ondorean lendakaritza Villéle'k artu zuan ezker); eta egia bait zan, bereiziki, Prantzi'ko Jaurlaritza arek «salbatu» zuala Lspaiii'ko «katoik k<itasuna», V11 Fernando'k eta Errege ustel onen itzalean bizi zan «kristtaukeri» integristak agintaritza galdu zutenean, Alkarte Deunaren eskariari erantzunaz bereala Espaiñ'ra bidali zuan gudarozte ioriaren bitartez. «Koldobika Donearen [un Milla Semeak] esan zitzaien gudarozte artako mutillei.

Bizi gozatu zituan garaitza «kristau» ark Frantzi'ko elizjendeen biotzak, eta katoliko askorentzat, kristaudi osoan, «erlijioaren ikurrin biurtu zuan Borboitarren ikurrin zuria», Lamennais'ek idatzi zigunez.

Lamennais berak ete, eta beste orduango frantziar jakintsu katoliko danek, Bonald'ek adibidez, eta De Maisu•c'k eta Chateaubriand'ek pozik babesten zizutzen «Laterri Jauna ta Eliza Andrea arteko» eztaizoriontsu aiek.

Naaspil antan Erregea bera zan bururik argieneko gizona: XVIII Koldobika, XVI Koldobika'ren anaia, Argikuntzako jakintzen maitalca, iñoiz neurriaren zentzu egokirik faltatn ez zitzaion agintaria; beiñere liberaltasunaren etsai berocgia izan ez zana. Baiña kristau..., bai; kristaua izan zan beti.

Kultur aundiko gizakumea zalarik, nai izan zuan despotikri-zaleen geiegi-kerial., baretasunez al zuan geienik gozatu, eia laister egin zien entzungor «erbestean ez deus aantzi cia ez deus ikasi ez zuten gotzai» integristei (Chateaubriand). Bere politikalaririk adiskideena, Deezes izan zan: «nere seme laztan Deezes»; maitasun orren adigarriz, berak Duke egin zuana. Deezes, masoia zan. (Oroi ordea garai artako masoitza ez zala Elizaren etsai).

Esan dugu baita're, Erregearen, erlijioari-buruzko-sentimentuak epelak zirala. Baiña Gotzaiek ez ziran epeltasun ortaz jabetu, Erregea bere sentimentuak nolanai argira ateratzeko zugurregia zalako, eta gaiñera ezkertiarrek Berry'ko Dukea erail zuten ezker, Erregea, gero-ta-geiago, eskubitar gogorren alderdira urbildu zalako. Azkenean, kristaudi amaitu zuan bizia.



XVIII Koldobika il zanean, bere anaiak, Karlos X'ak, artu zuan Frantzi'ko buruntza. Artois'ko korte zala, auxe izan zan frantziar integrista borboizateen buruzagia, bera ere buru gogorreko eta odol beroko integrista bait zan. Gizon onekin igo zan gaillurrera Laterri-ta-Eliza-arteko-batasuna.

Frantzi'ko liberalentzat, Eliza zan Despotikeriaren zutabea. Ez zitzairen asko kosta aburu ori izparringi eta liburuxka ugarien bitartez erriko jendearen buruetara eramaten' Batasun doakabe orrek berak eman zien lan ortarako laguntzarik egokiena, uric aietnn egindako g<sup>a</sup> legikerien kulpaz, Osti Sagaratuak iraintzea ez ezik, ontzi sagaratuen lapurtzea ere eriotzez zigortua izan bait zan lege baten bitartez.

Ortaz gaiñera, gotzaiek errege Borboiei egiten zizkieten goratzarre zoritarreko aiek gogoratzen ba'ditugu, ez gaitu arrituko, adin artan ostera matxinadara jeiki-bezperan zegoan Paris'ko erria Elizaren etsai zala jakiteak, ondoraño errotu bait zan erri aren buru-biotzetan Despotikeria ta Katolikotasuna, Bakalduntza ta Eliza, bat ziralaren, eta, batasun ortan ats-emaillea Eliza zalaren ustea. Orrela, ontzi berean goxoki jai alaiean alkarturik aurkitu zitualako, batera ondatuko zituan 1830'eko ekaitzak borboitarren despotikeria eta elizgizonen aala.

Grezi'n izan zuan egunsentia Europa guztia dardaraz ipiñi zuan Iraultzaren berbizkunde arek. An, Grezi'n, 1821'can altxa ziran abertzale kristau ortodoxoak turkitarren aurka, eta izan zuten, sei urte iraun zuan badute latz odoltsu artan, Europa'ko libera] guztien laguntza, gudate artan il ere bait zan, abertzalei laguntzera joanda, ludiak izan duan olerkaririk onenetako bat: Lord Byron eskozitarra. Gudarozteetako bizikeraren nekeak, griña makurren ondorio ziran gaitzek, eta gorputza lirain gordctzearren oiturazkoa zuan bazka laburrak sortutako auleriak eraman zuan beste mundura, Grezi'ko lurreen, 1824'garren urtean.

Asko sufrittu bear izan zuan Grezi'ko erri kementsuak' Gauza oker mar-dulak egin zituzten turkitarrek; Kio ugarteko jende errugabearen erailketa ikaragarria, adib;dez• baiña lortu zuten Europa'ko Laterrien laguntzarekin grezitarrek askatasuna, 1827'an Nabarino'ko itxas-borrokan Mahmoud II Sul-tanaren ontzidia ondatua izan ondorean. 1830'ean onartu zuan sultanak Grezi'ren askatasuna.

Grezi'ren gurendak zuzpertzitu zituan askatasuna birrezartzeari iñoiz agur egin ez zioten Europa'ko dcmokrazizaleen gogoak. «Alkarte Donetik» ernetako Jaurilaritza autokrazi-zaleengogorkeriek egin zuten gaiñerako' Frantzi'an, Karlos X'ak idazkiak argitaratzeko askatasuna kendu ondorean Diputaduen Batzarra barreiatu zuanean lertu zan erriaren asarrea. Ura izan zan, «Uztai-lako Iraultza», 1830'eko Uztaillean gertatu zalako.

An galdu zuten betirako Borboi'ek Frantzi'ko Erregeen Aulkia. An galdu zituan Elizak ere bere pribilejio guztiak. Baiña ez zan garaille erria irten, burgesdia baizik. Ez zan, erriak nai zuan bezala, Errepublikarik berbiztu.

Burgesdi liberal arek errege libera] bat ipiñi zuan: Koldobika-Felipe I'a Orleans'eko dukea, Iraultza Nagusiaren egun mingarri aietan lepoa, beste iraultzalari askok bezela, gillotinan galdu zuan «Felipe Berdintza» edo «Philippe Lgalité» aren semea, Karlos X'aren aidea.

Elizak galdu zuan geienik 1830'eko Iraultza artan, ez bakarrik erriko jende itxutuak elizekin eta apaizekin Paris'en basatikeri asko egin zitualako bakarrik, Elizak erri xcaren eraspena orduandik galdu zualako baizik.

Gotzaiek, eta katoliko geienek, ez zuten Koldobika-Felipe egiazko Erregetzat ezagutu; lengo Borboia'ren esanera jarraitu zuten. Erasaldi gogorra zertorkion noski ostera Elizari gotzaidi egoskor aren erruz, VIII Pio Aitasantuaren eta Koldobika-Felipe ber-beraren zugurtasunak gauzak konpondu ez balitu. Biak ziran bâ zentzu oneko eta adimen zorrotzeko gizonak.

Paris'en Nuntzio zegoan Lambrusehini integristaren aolkua entzuteke onezagutu zuan Aitasantuak Frantzi'ko Errege lez Koldobika-Felipe; eta Erregeak, egin zuan al zuan guztia, pakearen maitale zalarik, gotzaien naimen ona bereganatzeko. Ta... lortu aal izan zan pakea! Lamennais'ek ere, (kupidarik gabe, Erregea, Jaurlaritza, eta Gotzaidia, era berean astintzen zitualako), berak uste gabe ez zuan gutxi egin pake aren alde; bere erasoeri erantzuteko, batera bilduarazi hait zituan, alkarren artean etsaiak ziran Errege-Jaurlaritza ta Gotzaidia.

Gotzaiek, azkenean, Aitasantuaren eskaria onartuaz, eman zioten Koldobika-Felipe'ri Erregetzat artzen zutelaren ziñ-itza.

Aitasantu berriak, Gregorio XVI'ak, Erroma'ra eraman zuan, Lstadutzako Idazkari egiteko, Lambrusehini integrista eta Garibaldi izeneko Gotzai bat bidali aren ordeaz, Paris'era Nuntzio. Ta, diplomazilari yayoa ta aski oldozkera zabalekoa bait zan au, irabazi zuan laister Koldobika-Felipe'ren uste on osoa.

Ala, Nuntzio berri onen aburua jarraituaz egin zituan Erregeak gotzai-autaketak. Era berean izan ziran bakunak eta baretsuak Nuntzio berriak Jaur-laritzarekin izan zituan arremanak; baita Guizot kalbindarrarekin izan zituanak etc. Ain zuzen, ministro kalbindar onek eratu zuan, gotzaien atsegin osora, lenen maillako erakuskintza.

Benetakoa izan zitzaigun beraz Koldobika-Felipe'ren erregetzakoan Eliza-ta-Laterriaren artean eratutako pakea. Pake-giro arran, Frantzi'ko «Pair» eta Lamennais'en ikasle zan Montalembert ospetsuak, politikagintzarako «Alderdi Katoliko» bat moldatu nai izan zuan, Belxika'n sortu-berria zanaren araura. Gotzaiek, ordeaz, ez zioten batere lagundu; liberalegia bait zan Frantzi'ko gotzaiantzat Belxika'ko «Alderdi Katoliko» ura!

Pakea, bai; eratu zan Eliza-ta-Laterriaren arteko pakea, baiña ez zan Eliza-ta-Laterriaren arteko batasunik egin. Ta orixe izan zan, ain zuzen, Elizarentzat zorionik aundiena; orrela, Koldobika-Felipe'ren Jaurlaritzak gizarte-arazoetan

aurrerapenik egIn ez zualako, Iraultza berriro 1845'ean indartsu berbiztu zanean, Laterriarengandik zearo bereizirik aurkitu bait zuan Eliza!

Bereizirik... eta asarreturik! ; orduantxe bertan, Laterriaren Erakuskintzako Monopolioa desegitearren, Jaurlaritzari Palamentuan gogor eraso-berria bait zan Montalembert.

Orregaitik, 1845'ean ez ziran iraultzalariak 1830'ean bezala Elizaren aurka sartu. Eta badaiteke ori, erriak iraultzetan Eliza zigortzen duanean zigorketa orren errua Elizak ere badualaren siñale.



## BELXIKA

Esanik utzi dugu 1845'eko Iraultzak Frantzi'n en ziola Elizari gaitzik egin. Orixe hera gertatu zan Belxika'n ere, an liberal askatasun-zaleek ez hait zuten Elizarik ukitu. Areago oraindik: baiera ibilli ziran an katolikoak eta liberalak. Orretxegaitik ain zuzen ain atsegiña zaigu, —eta garrantzirik aundienekoa *gaiñera*— Belxika'n gertatutakoen edestia: bes e lurraldeetan ere gertatu izan zitekenaren eredu dalako! Eskierki Belxika'n bezala ibilli izango hait ziran gauzak, biotzetatiko gorroto-galda gutxiagorekin eta adimen-argi geiagorekin katolikoek eta libaralek alkar-artuta jokatu Mute. Alkarrenganako hildurra izan zuten, ori lortu aal izateko, eragozpenik mardulena.

Entzun nola mintzatzen zan egun aietan Belxika'ko Eliza:

«Ar dezagun danok alkar eskutik, —oiu zegian Belxika'n Van Bommel Gotzaiak—, «Serron-nous les mains, protestants, eatho li ques, libéraux' Embrassons avec une egale ardeur le svsteme de la liberté illimitée devenue notre unique planche de salut»: «Protestalari, katoliko edo libera], ar dezagun guztiok alkar, batak besteari esku emanaz. Ipiñi gaitezen danok adore berdiñaz elkartasun osoa dakarkigun antolapenaren alde, ori bait da gaur gure salbagailu bakarra».

*Itz* bikaiñak, bai noski, aldi aietako elizgizon batek esanak izateko. Iñork orduan itxaron ez zezazkean hezalakoak. Ikus dezagun bñ, ortaraiño Van Bommel Gotzaia iritxi-aurretik gertakizunak nola arildu ziran Belxika'n.

Oroi, Belxika'z eta Olanda'z Biena'ko Batzarkidcek 181 4'eko uztailean laurerri Berri bat osatu zutela eta laurerri onen erregetza, —naiz hertako biztanleak eundik ia-ia irurogeitamar katolikoak izan—, kalbindar bati eman ziotela: ordurako, —1813'a ezker— Olanda'ko Errege zan I Gillermo Oranxe'tarrari.

Belxikarrak ordea laister asarretu ziran beren Errege benni onekin, eta ez bera kalhindarra izanik katolikoek etsai ete izan zitekealako, ez; erregckerizale amorratua zalako baizik.

Erregekeri-zalea, ots, Elizan-eskua-sartu-zalea, katolikoekin; eta, baita, ta oraindik *geiago* gaiñera, kalbindarrekin.

I Gillermo'ren zalekeri oker ori izan cz balitz, gaur oraindik bat izanen ziran Olanda ta Belxika: «Lurralde Beekoetako Jaurerria», orduan esaten

zitzaionez' Izan ere aski gerturik hait zeuden an gauzak oro, batasun ortarako'

Olanda Frantzi'ren menpean egon zan 1795'az gero, urte ortan eratu bait zuten an frantzitarrek «Batabiar-Errepublika»; ortarako, jakiña, bertan ordurarte «Stimuler» edo Laterri-.Buru izan zan Oranxe-Nassau'tar V Gillcrmo'ri agintaritzza kenduaz.

Amaika une geroago, Napolcon'ek jaurerri biurtu zuan Errepublika ura, et' Koldobika bere anai gazteari eman zion Jaurerri artako buruntza' Eta andik lau urtera, Jaurerritza ura ere deseginda, Frantzi'ko probintzi uts biurtu zuan Napoleon'ek berak Olanda.

Erlijioaren aldetik beintzat aski errezturik zegoan bidea Frantzi'ko Iraultza Nagusiaz gero, Belxika eta Olanda edestia-zear andik aurrera bat egiñik ibiltzeko, Iraultza ark, Olanda'n katolikoen eta protestalarien arteko berdintasuna eta katolikoen eta liberalen arteko alkartasuna sortarazi bait zituan. Ondo gerturik zeuden beraz Olanda'ko protestalariak egoaldeko katoliko belxikatarrekin bat egiñik bizitzeko'

Egoalde artan, Olanda bezala, Belxika ere frantziar iraultzalarien ankapera jauzi zan 1795'ean, eta orduzkero Frantzi'aren probintzi bat izan zan beti, Napoleon'ek agintaritzza galdu zuan arte. Ez zan ordea urte latz aietan Belxika'ko erri bikaiñaren izpiriturik kukildu. Alderantziz, sendo piztu zan an abertzaletasuna! Eta askatasunaganako zaletasuna! Eta demokraziaganako maitasuna!

Zaletasun eta maitasun oiek berriz, ez-arian ez-arian, poliki eta era goxoan, Belxika'ko jendea prestatu zuten iparraldeko olandatarrekin batcratzeko!

Bestalde, Iraultza-aurretik ere, ongi gerturik zeuden bai Belxika'n eta bai Olanda'n eru. giroak, batasun artarako, bi lurralde aietan eragipen aundia izan hait zuan Argikuntzak. Ez dezagun aztu Belxika'ko Lieja izan zala ain zuzen, gure Euskalerriarekin batera, biztanleen kopuruari dagokionez, «argituen» idazkiak geiena irakurri zituzten urietako bat, naiz Lieja bere lurralde osoarekin orduan, bertako Gotzaiaren menpean, eliz-laterri bat izan. Ezta ez dezagun aztu, ezta ere, Olanda, Argikuntzakoan, beste Laterri guztietatik erbestera zitatako «argitu» danen babestoki izan zala.

Errege berriaren aldetik ere ez zan batasun artarako oztoporik, txit egokiak izan bat ziran I Gillermo'k eman zituan lenen-lege ta erabakiak: Aulki Donnearan aurrera Ordezkari bat bidaltzea, adibidez; edo Elizaren jai-egunetan lan egitea debekatzca; edota orduarte Elizari eman oi zitzaion diru-laguntza 1. 30'ean igotzea...

Baiñan Errege ark Elizako gauzetan muturra sartzeko agertu zuan zalekeriak ondatu zuan guzia, Eta, helxikatarrak asarretu zitzaizkionean, bere zalekeri ura aurrera ateratzeko olandarrez baliatzen asi zalako, belxikatar aien abertzaletasuna zauritu zuan, eta, —;o mirari! —, katolikoen eta liberalen alkrtasunari sortzea eman zion Belxika'n!

Belxika'ko Alderdi Liberal ori, —Europa'ko beste lurraldeetako bezala—' 1815'a ezkereratu zuten; askatasun oro zapalduta bazter guztietan «Sainte Alliance» edo «Alkarte Doneak» despotikeririk zakarrena nagusi ipiñi zuanean.

Orduan, alde guztietan, jende askatasunzalea, eta baita lengo iraultzalari zar aiek ere, Alderdi Liberaletara bildu zitzaizkigun.

Elizaren etsai izan *ziran* Belxika'n aurreneko liberal aiek! Zergaitik? Bâ, lendabizi, liberal aiek ia danak, —Frantzi'koak eta geroxeago España'koak bezala—, Elizari kendutako ondasunen diruz aberastutako jendeak ziralako; baiña, baita Liza zearo demokraziaren arerio zala ziñez uste izan zutelako ere, argi ta garbi ikusten bait zuten, Elizako Agintari danak, «Alkarte Doneko» Erregetzarrekin bat egiñik, autokraziaren aide agertzen zirala bazter guztietan.

Belxika'n ordea, I Gillermo Oranxe'tarraren aurka Belxika'ren eskubide ta nortasuna gorde nai izateak, laister aztuarazi zizkion katolikoek ta liberalak alkarren arteko gorroto, bekaizkeri ta bildurrak; eta errez alkar artu zuten azkenean bi alderdiek.

Zerbait erakusten digu noski Belxika'ko liberal-eta-katolikoek-alkartze orrek: Frantzi'n ere, Iraultzakoan, beste era batera ibiliko zirala gauzak mundu guztiko demokraziaren onerako, iraultzalariak an Elizari eraso ez baliote.

Badakigu Frantzi'ko Eliza, —itxu-itxuan gotzaidia, baiña baita apaizak eta kristau-jende xumea ere—, zearo borboizalea zala'

Baiñan, alatagutziz, iraultzalariek Frantzi'ko elizgizon eta kristauen borboizaletasunari bakarrik aurpegi eman ba'lie aien katolikotasunarik ukitu gabe, beste era batekoa izango zan baiki Frantzi'ko Iraultza Nagusia. Ez dezagun aztu erriaren maitale zintzoak zirala Frantzi'ko apaizak, eta beraiek, apaizak, izan zirala I.789'ko «Etats Generaux» edo «Laterrri-Maillen-Batzar-Orokorrean», Iraultzari atea iriki ziotenak.

Frantzi'ko katolikoak, batera, katoliko eta erregezale ziran. Eta, demokraziari, ta errepublikari, ez zioten aurka-egin katoliko ziralako, erregezale ziralako baizik. Iraultzalariek, zori txarrez, ez ziran ori ikusteko gai izan.

Egia da, era berean, iraultzalari aiek ere bi gauza zirala batera: iraultzalari eta galikerizale, eta, asieran beintzat, ez zirala eliz-arazoetara iraultzalariak ziralako sartu, batez ere galikerizaleak ziralako baizik. Eta, zori txarrez, ez zan, orduango Eliza *ere*, ori ikusteko gai izan.

Belxika'n bertan Aitasantuaren eta Aulki Doneko kuriatar guztien iritzia- ren aurka *egiña izan* zan katolikoek eta liberalen alkartzea. Erroma, I Gillermo Oranxe'tar kalbindar erregekerizale aren alde egon zan beti! Zergaitik? Liberalekingo alkar-artze antan katolikoek sinismena galduko ote zutelaren bildurrak artara bultzatzen zualako. Orixe diote, beintzat, edestilari geienek. Baiña gure ustez, ez da ori arrazoi bizkorra; ez beintzat arrazoi bakarra.

Belxika'ko apaizak danak, eia gotzaiak, alkar-artze aren alde zeuden, eia ez zuten an arriskurik ikusten. Baziran ba Belxika'ko elizgizonak Erroma'koak bezain argiak!

—Erroma'koei ordea min ematen zien lihcraltasunaren itza aipatze berak. Ta liberaltasunaren etsai ez ezik, demokraziaren etsai ete baziran; eta bakal-duntzaren, ots, autokraziaren edo erregeen bakar-agin,zcaren alderdikoak. Elizarentzat arriskua besterik ez zuten ikusten demokrazian, eia benetan liste izan zuten Alkarte Donc:, ta Alkartu onc!; babesten zuan I3irrezarkctako politik'era zirala katolikotasunarent-zat itror'k egokiena.

Bee-Lurraldeetako Jaurerria ere I3irrezarketa aren giroan Alkarte Donearen sorkari zalako, naitanaiez egon hear zuten I:-rroma'ko elizgizon aiek laurerri aren eia ango Lrrege zan T Gillcrmo Orauxc'tarraren aide

Baiña... I Guillermo aren aide egon zan Erroma'n Consalvi Kardenala bera, eia Consalvi ez zan autokrazizalea; are gutxiago ikusmen laburreko diploma-zilaria. Zerk eraginda, era ortan ipiñi ote zitzaigun?

—Consalvi'k ederki ikusten znan laurerri berri aren indarra; naiz lurrez txikia, Jaurerri una aundia hait zan jendez, abcrastasuncz, kulturez, eta ekonomiaz; Koloni oparoen jabe gaiñera, itxasotik siruntz. Ain zuzen orretxegaitik: laurerri bizkor indartsua izanen zalako, eia orrela frantzi urduri inperialistaren aurrean Iutropa'ren zaindari izanen zalako, izan zan Alkarte Donearen altzoan sortua!

—kgia, I Guillermo erregekerizale ,gogorra zala. Baiñan bazekian Consalvi'k erregekeri gogorraren eia galikerien aroa betirako igaroa zain. Demokrazia garaille irtengo zala bazter guztietan; altagutziz erre ,geiccritxoak bizirik jarraituko zuala —beti izango bait dute tigintariek Elizaren arazoetan eskua sartzeko kutizia—, baiña erregekenia Iraultza ezkeru ez zala sekulan Iraultza-aurreko ura bezalakoa izango; Demokrazin, eia demokraziak berekin zekarren Askatasuna, Elizari erregeen menpcctsunarekingo lokarriak urratzera zetoztcla.

—Elizarentzat ere txit onurakorra iduritzen zitzaion Consalvi'ri Relxika ta Olanda bateratuaz Alkarte Doncak argitara em.in zigun laurerri berria. Relxika, osoan katolikoa zan. eia baita Olanda'ren erdia ene. Bi erlijioetako jendeak ondo ezirik zeuden, Iraultzaz gero, alkarrekin pakean bizitzeko. Gaiñera, katolikoei bezain iguingarria zitzaien kalbindarrei I Guillermo Oranxe'tarraren erregekeria. Egia eia, laurden bat kalbindarra izateak eroapena, tolerantzia, eskatzen main, baiña Lurralde Beekoetan lege zan demokrazia, eta libera) asko hait zan gaiñera karolikoen artean eia kalbindarren artean, antxe sortu zitekean mundu guztiarentzat baztar guztietan ain bearrezkoa zan eroapenaren eredu bizi bizkor bat. Eta bear zuan Consalvi'k ere orrelako Laterri jator bat, demokrazia inpernukeri uts ez zala Elizako agintariei ikustarazteko.

Gillcrmo l'ak birrindu zituan Consalvi'k, --gure usiez—, buruan zerabilz-kian asmo guztiak.



«Kusi dugu nola jeiki ziran bixikarrak I I Jose Inperatorcaren aurka, Belxika Inperatoreen mendekoa zenean. Buki, I Ilose'ren oiñordeko zipotza irten zan, erregekeriari dagokionez, I Gillermo Oranxe'tarra. Naitanaiezkoa zan, beraz belxikarrak onen aurka ere jeikitzea.

Gaiñera, gauzak okerrago ipintzeko, Goubeau'ko Baroia izendatu zuan Gillermo'k Jaurlaritzan erlijio-guzietarako ministro! Jose II'aren denboran jusepekeriaren alderdikoa izan zan aristokrazitar ura bera!

Autaketa ori bezain makurrak izan ziran Gillermo I'ak eman zituan legeak eta artu zituan erabakiak. Adibidez:

—Lege egin zituan Bee-Lurraldeetako Jaurerriako, Napoleon'en «Ataltxo Organiku» aiek;

—Aitasuntuarekin katolikoek izan zezazketen ar-eman guztietarako, bearrezkoa ipiñi zuan Erregeen «Plaet» ura;

—Jaurerriaren Oiñarri-Legea ziñ-egiñaz ontzat artzeko agindu zien menpekoei. Bainan, Oiñarri-Lege ark Erregeari eliz-gauzatarako esku luzeegia ematen ziolako, ziñ-egite ura idebekatu! egin zuten Belxika'ko Gotzaiek, Laterri-Batzar-Nagusirako izendatutako ordezkari edo diputaduek ere debeku aren azpian ipiñiaz.

Belxikarren odola geiago berotzeko, bere adiskide kuttun bat izendatu zuan I Gillermo'k Malinas'ko Goigotzaigorako: Iraultza-aurrean Lieja'ko Gotzai Printzipea izandako Méan Jauna. Bera izan zan Lieja'ko eliz-laterri aren azken Printzipe Gotzaia. Orain, Lurralde Bcekoetako jaurerri herrian, Batzar Nagusiko batzarkide zan; eta, batere kezkarik gabe, egiña zuan ordurako, Batzar artan, beste gotzaiek galarazitako zinketa ara. Ta... asarretu ziran beste gotzai aiek.

Erroma'n Consalvi zan Aitasantuaren Jaurlaritzan Estadutzako Idazkari, eta ez zitzaion geiegi gustatzen Belxika'ko gotzaien jokaera. Ain berez zuan yayotasuna legunki erabilliaz, txuritu zuan, Erregeak agindutako zinketa aren zentzua, orrela Méan gotzaiaren izena garbituaz; eta artu aal izan zuan onek Malinas'ko Goigotzaiaren aulkia, bere burua Belxika'ko Elizaren «Primas» edo Lenen-Gotzai egiñaz (1817).

Garaille irten zan oraingoz Belxika'n Erregea, Erroma'ko Consalvi'ren laguntzarekin. Sumindurik gelditu ziran ordea belxikarrak, batez ere abertzaleen buruzagi zan Broglie, Gante'ko Gotzaia. Oni eraso zion Erregeak; eta, Gotzaiak, erbestera aldegin bear izan zuan. Argi zegoan arrezkero, Belxika txiki kementsuak—, —jose II'ri, Robespierre'ri eta Napoleon'i aurpegi emateko kemenik aski izan zuan Belxika arek—, ez zuala Gillermo Paren aurrean bururik makurtuko.

Ez zegoan Erregea ere berea makurtzeko ustetan. Ona Gillermo Taren ekiñaldiak:

1."—Erakuskintzan: Gero-ta-;geiago ari izen zan Elizaren ikastola danak gobernuaren mendera eramateko lanean; baiña azkeneko kolpea, beste guztiak bezala gaizki irten zitzaiona, 1825'ean eman zuan. Urte ortan seminario txiki guztiak, Laterriaren eskupera hasaarazi zituan. Gaiñera, Lobaina'n Filosofi-Ikastola bat eraiki zuan, Laterriarena au ere, tta ikastola artan ikasi beur zuten filosofia, naitanaiez, seminario txikietatik irtendako apaizgai guztiek, Seminario Nagusietara sartu baiño len.

Orain, Méan Goigotzaia bera ere aurka jeiki zitzaion. Aldakuntza au, nundik? Malinas'ko elizbarrutiko bi apaiz ospetsucn lanetik. Apaiz oiek, Cornelio van Bommel, erakuskintza katolikoaren aitzindaria eta Lngelberto Sterckx elizbarruti artako bikario orokorra, izan ziran; Bi apaiz bikain auek argitu zuten beren aolkuekin Goigotzaiaren buru-barrua!

Gotzaiek, danek, filosofi-Ikastola artatik igarotzen ziran guztiei Seminario Nagusiko atea itxia z erantzun zioten Erregeari; cia onek, erlijiosoen ikastetxeen aurka cia erri-mixiolaricn aurka erahakiak artuaz, „dei „Azitzen eru loditzen zijoan urduritasuna Belxika'n, apaizak igikunde aren buruzagi zirala. Bildurtu ziran Biena'ko Batzarrean bAdu ziran 1,aterriak, —Inglanderria butez ere—, Frantzi'tiko ugaldeak gelditzeko urina tinkoa izanen zala uste izan zuten laurerri bizkor ara zartatu zitekealako ikaraz, cia amore eman bear izan zuan Gillermo l'ak , bere filosofi-Ikastolarik, apaizgaiei, igaro bearra kenduaz.

2."—Frroma'rekingo arrcmanetan: Bear-bearrezkoa zuan Gillermo l'ak h:rroma'rekin alkarrizketan astea, bere laurerri berriaren hi zatiei kanon-legearen arloan izakera berdiña einateko. izan ere, cgoa, gaurko Belxika, Napoleon'en konkordatoaren araura bizi zan. Olanda, berriz , mixio-lur zan, Propaganda Fide'ren mendeko. Ez zan emen gotzairik; apostolutzarako bikarioak baizik. Baiña ez zan oraingoan konkordatorik osotu aal izan, Frregcak gorzai-zendaketarako eskubide osoa eskatzen zualako, eta hrroma'ri, eskubide uni kalbindar bati ematea, geiegizkoa iruditzen zitzaiolako.

Konkordato orde, "fratu bat, Itan bat, egin zan 1827'un, Leon XII'a Aitasantu zala. Itun antan Napoleon'en 1801'eko konkordatuaren kerizpean ipintzen zan Belxika bezala Olanda ere, cia gotzaien autaketa egin aal izatea kanonigoen kapituloei ematen zitzaien . Erregeak, «betoa», au da, «ezezkoa emateko eskubidea» izanen zuan.

Ez zan Gillermo pozik gelditu, cia dokumentuari bere izena ipiñi bezain laister asi zan aren aginduak ez betetzen, itxurak gordetzeko billatu hait zuan era polita: Kapituloetako kanonigoak bcrganatzea, aiek, berak nai zituan gotzaiak bakarrik aukeratu zezaizkioten.

Iguindu ziran katolikoak eta orduantxe pentsatu zuten liberalekin alkartzea. Egia da Lamennais'en idazkiek asmo orri indar aundia eman ziotela, baiña ez da egia aren idazkietatik sortua izan zala. 1829'an asi zan Lamennais Elizak

Laterriarengandik bereizi bear zuala erakusten. Bereizketa ori oiñarriztat artuta, liberalekin bat egite ura, 1820'ean gogoratu zitzairen belxikar katolikoei: bederatzi urte lenago.

Gerturik zegoan giroa, alkartze ura lortzeko; denbora artako beste errege europarren eredu jarraituaz, autokrazia okertu hait zan Gillermo I'a ere, liburu ta aldizkariak argitaratzeko askatasuna moztuaz, beste giza-eskubideak ere neurritz gaindik zapalduaz, eta ori egitean, jakiña, gero ta gogorrago Belxika'n katolikoak ez eze liberalek ber-berak ere aurka ipiñiaz'

Belxika'n agintari olandarrak ezartzen ere asi bait zan''', askatasuna, sinismena, eta aberriari-buruzko sentimentuak batera bildu zituan belxikarren artean; eta ordurarte, gurasoengandik erentzian artutako kezken erruz alkarren etsai izan ziran katolikoek eta liberalek, bat egin zuten Belxika'n: Aurreneko liberal eta katolikoek arteko alkartasuna Europa'ko lurretan'

Bildurtu zan Aulki Donea. Une artan Estadutzako Idazkari zan Albani Kardenalak «monstruosa conventio» esan zion alkar-artze ari. Eta, ori..!', orduango elizgizonetan Albani integristena ez zala! Beeko Lurraldeetako Taurrerian Capaccini Gotzaia zegoan «Internuntzio»! Saiatu zan apaiz belxikarrak politika-ekintzetatik atera naiean. Alperrik; ez bait zieten aiek ez Capaccini Internuntzioari ez Albari Estadutzako Idazkariari jaramonik egin.

Irakin-zorian zegoan Belxika osoa, eta apaizak ziran borroka artan buruzagi ta ats-emaille. Ez da beraz arritzekoa, Iraultzaren berhizkunde izan zan 1830'gn urtean, Paris'en Borboien despotikeria ezabatu zanean, Belxika ere iraultzan jeiki izatea. Dagonillaren 25'an terni zan matxinada Bruxeletan.

Alperrikakoa izan zan, orain, Gillermo I'ak atzera-egin nai izatea. 1830'-eko urte iraultzalari ura amaitu baiño len, Laterri iarea zan Belxika.

Ederki prestatu rik aurkitu zuan askatasunaren etorrerak alderdi katolikoa, eta, Kostitutzioa egiteko bildu zan Batzarrean, katolikoek eta liberalen alkar-teak, itxaron zitekean Oiñarri-Legerik egokiena eman zuan argitara. Ez zuan arteraiño Elizak ain erakunde onuragarri rik iñon ezagutu:

—Askatasun osoa Elizarentzat;

—Askatasun osoa Elizaren Ordena, Anaidi, eta Alkarte guztientzat. Le-kaide ta erlijiosoek itxaro-zuten ametsa, mami biurtua...!

—Askatasun osoa Elizarentzat, erakusketaren arloan ere;

—Gotzaien autaketa Aitasantuaren eskuetan ipiñia gelditzen zan, eta apaizena, gotzaienetan, orrela Laterriari, autaketa oietarako, eskubide eta eskubide ororen itzala bera ere kenduaz.

—Askatasun osoa Belxika'ko Elizari eta Aulki Doneari alkarren arteko arremantarako; eta azkenean,

—Belxika'ko Elizaren mantenua, ;Laterriaren kontura!

Bardirudi pozik gelditu bear zuala Aulki Doneak! Ez bâ'..! Laterriaren eta Elizaren batasunik egiten ez zualako, eta protestalariei ere iaretasun osoa ematen zielako, liberalergia iduri CLL zitzaion Kostituzio ura!

Gaiñera, Kostituzioak Laterriari Elizako gauzetan eskua sartzeko biderik ematen ez zion ezkerero, Belxika'rako Nuntzio baten bearrrik ez zuala ikusten, jakiñarazi zion lurralde artako Jaurlaritzak Aulki Doneari. Elizaren-eta-Laterria-ren-arteko bereizketa arek naitanaiez asarretu bear zuan XVI Gregorio bezain tomista zaar artxiintegrista bat!

Asi ziran Aulki Donean, Belxika'ko katolikoei Kostituzio ari ziri-egitea galerazi bear zitzaicela pentsatzen. Zorionean, tMalinas'ko Bikario Orokor zan Sterekx apaizari eskerrak, ez zan orrelako pauso okerrrik eran. Apaiz onuragarri au izan zan 1830'ean, Belxika'k bere askatasuna lortu baiña leenago ere, Eliz-Laterrien-arteko arremanetarako egiazko erdi-bidea aurkitu zigona: Alkar-Laguntza: Iare Laterria, eta iare Eliza; baiñan, bakoitzak bere nortasunik eta askatasunik galdu gabe bata besteari lagunduaz.

Jainkoari eskerrak, XVI Gregorio'ri ikustarazi zion Sterekx'ek, askatasuna lortzean bere buruari Belxika'k eman zion Kostituzio ura «erdiko bide» ortatik zijoala, eta, ez, Aitasantuaren ustea zan bezala, liberal gogorrenen bidetik, ots, antiklerikeriaren bidetik.

Gaiñera, Sterckx'ek berak sartu zuan Belxika egiazko irugarren bide ortatik, bera bait zan, Broglie Goigotzaia atzerrira juan zan ezkerero, belxikar abertzaleen gidaria. Ta, gero ere, gidaritzan ortan jarraituko zuan ogeitamar urteren )azaroan. Era berean, Elizaren barruan eru, goiko gaillurretaraiño igo zitzaigun. 1827'an Malivas'ko Bikario Orokor egiña izan zan, eta Bikario Kapitular gero, Méan Gotzaia il zanean; Malinas bertako Goigotzai 1832'an eta Belxika'ko Elizaren «Primatu» edo «Lenen Gotzai» Ta, berealaxe , Kardenal'

Esan dugun lez, I Gillermo Erregearen erruz desegiña izan zan «T,urralde Beckoaktako jaurlaritzan,>. Kalte aundia izan zan des:tite ori 1»uropa' kñ politika-bide berriarentzat, eta aundiagoa bearbada, Elizaren soziologiari-buruzko-aburuentzat. Baiña gure ustez, Consalvi bakarrik oartu zan orduan kalte tamalgarri ortaz.

Danadala, bide bereizitik jarraitu zuten Olanda'k eta Belxika'k. Olanda'k I Gillermo ber-bera Errege zuala. Bel: ika'k berriz, Saxoni-ta-Koburg'eko Leopold, --I Leopold—, aukeratu zuan Errege. Protestalaria zan Errege berri au, eta berarekin ere izan zituan eztabaidak Sterekx'ek. Ez ordea Errege berria protestalaria zalako, len Gillerro I't bezala erregekerira okertzen asi zalako

baizik; bere gustoko gotzaiak izendatzeko Kostituzioak erarik ematen ez zion ezkerero, artarako Nuntzioaz baliatzea pentsatu bait zuan.

Bizkor moztu zizkioten Belxika'ko gotzaiak, Sterckx buruzagi zutela, gu-rari trakets oiek; eta baita Nuntzio Jaunari, Erregearekin jostaketa makurre-tan asteko gogo guztiak ere!

Gizon bezala, pertsona argitua, zabala, ta gozoa, izan zan Leopold I'a. Bete-betean lagundu zien katolikoei; politika-modu ori, ain zuzen, naitanaiez-koa bait zuan gaiñera. Liberal errepublikazaleen aurka eta sortu-berriak ziran sozialisten aurka bere erregetza tinko mantentzeko ez zuan bâ katolikoan la-guntza baiño zutabe sendoagorik! Aski liberala bait zan gaiñera bera, go-gorik onenarekin saiatu zitzaigun, Belxika'rentzat ain onuragarria izan zan katolikoan-eta-liberalen-arte-ko alkartasuna sendotzen'

Askatasun giro artan iñoiz baiño indartsuagoa zan Eliza. Aldizka-aldizka, egun jakiñetan, gotzai guztiak bildu oi ziran Steckx Lenen-Gotzaiaren ingu-ruan; eta gotzai-batzar aiek zuzentzen zuten Elizaren ibillera; Ta auzi txit garrantzitsuetan, bitartekoen bidez baita Jaurerriarena ere! Batzar aiek ematen bai t zizkioten diputadu katolikoei Parlamenturako nora-ta-nola-bideak'

Uzta mardula jaso zuan Elizak. Konbentuetako jendea, —emakumezkoak eta gizonezkoak—, ez ziran 4.790 besterik 1830'ean; amasei urte geroago, 12.000 izanen ziran. Epe ortan, *bigarren* maillako 8 ikastetxe iriki zituzten iñakitarrei; eta antziñako Lekaidetxeak, ia danak, —6'tik 4 bai beintzat—, bir-eraiki zituzten premostretarrek.

Baiña Belxika'ko Elizaren aurrerapenik aundiena erakuskintzaren arloan <sup>8</sup>ertatu zan. Jaurerri guziko leen-maillako ikastolen erdiak, —5.189'tik 2.284—, Elizarenak ziran; etu gaiñera, bi urte geroago, erlijioaren erakus-keta bearrezkoa egin zan, legearen bidez, Laterriaren ikastoletarako ere, eta erakusketa orren zuzendaritza Elizaren eskuetan laga zan.

Ugari sortu ziran, askatasunaren babesera, bigarren maillako ikastola ka-tolikoak ere, apaizen eta erlijiosoen zuzendaritzapean; baiña lorketarik aun-diena, mundu guztian ospetsu izan bearra zan Unibersitate Katolikoa izan zan, 1834'ean Malinas'en birreraikia, eta urrengo urtean Lobaina'ra aldatua.

Ain zuzen, Unibersitate onek sortuarazi zuan katoliko eta liberalen ar-tean aurreneko asarrea 1840'ean, Fla asarraldi ortan liberalena zan errua. Ka-tolikoek, Sterckx buruzagi zala, Un .bersitate katolikoak ematen zituan titu-loen balioa nui zuten. Balio ori, jakiña, Jaurlaritzak eman bear zuan. Baiña 1aurlaritzan, parlamentuan, eta kalean, aurka ziran liberalak. Pakea nai zuan Leopoldo I'ak eta amore emateko eskatzen zien katolikoei, auen eta libera-len gustokoa izan zitekean konponketa bat billatuko zuala aginduaz.

Erregearen alde jarri ziran XVI Gregorio eta Lambruschini Idazkaria, Pornari Bruselas'ko Nontzioaren oarpenak oso gustora jarraituaz. Baiña, ala-tagutziz, Sterckx'ek eta katolikoek irabazi zuten berriro lema.

Fornari Nuntzioa, Bruselas'tik irten bearrean aurkitu zan belxikar katolikoan onespena galdu zualako. Jon Peeei izan zan aren ordez urrengo Nuntzioa: I Belxika'ko gotzaiekin obeto-baiño-obetoago konpondu zan gizona. Laister asarretu zitzaion ordea Lambrusehini Idazkaria. Estadutzako Idazkari integrista onen ustez Aulki Donearen onura ta eskubideentzako galgarria hait zan arek Belxika'n zerabilkian jokaera: «Attitude negativa» omen zan Nuntzio arena.

Edestilari batzuen ustez, liberaltasunari zion gorrotoak, eta ikarak, geiegi itxutzen omen zuten Gregorio XVI'aren adimena, Belxika'ko gertakizunak era egokian ikusi aal izateko' Bai omen zion gainera Belxiha'ri, bera oartzekere, kontzientzipeko gorrotto-ttanttaren bat. Zergaitik? Belxika'k munduari erakusketa portiz au ematen ziolako: Katolikoak libralekin alkartuagaitik Fli\_zarik ez zala galtzen; bizirik jarraitzen zuala Elizak; eta aurrera egin ere, beste iñon ez bezala aurrera egin zezakeala askatasunezko giro aren barnean Eliza Katolikoak!

Baleike ori diotenak oso-oso oker ez ibiltzea, aundia hait zan XVI Gregorio'k liberaltasunari zion bildurra, liberaltzaren baitan ez zuan hâ sekulan akatsa besterik ikusi, eta akats aiek, —ordurneo lib rall:eri latzaren akatsak—, bai hait ziran, bai, edozciñi bildurra sartzeko nirodukoak.

Akats aiek artu gabe liberaltasunetik gizadiak jaso zezazkean zitu bikaiñak ez zituan iñoiz Gregorio'k ikusi; eta ikusi ba'zinain ere, liberalkeriak munduari zekarzkion «gaitzak» ekarri zetzaiozkean «onak» baiño askoz aundiagoak zirala uste izan zuan beti.

Ori dana, egia da. 13aitia liberaltasunaren etsai aiña izan zitzaigun Gregorio XVI'a erregetzaren maitale, errietako barren-pake edo ordenaren eusle bakarrak erregeak bakarrik zirala sinistu bait zuan bure bizitza guzian. Orrela bâ, Unibersitatearen auzi artan, liberalekin alkartu tako katolikocn aurka baiño geiago irten zan gure ustez, Gregorio XVI'a, Belxika'ko Leopold Erregearen alde, urte batzuk leenago crc Aulki Donea beti G;illermo I'aren alde jeiki izan oi zan bezala.

Ez zuten asko pentsatzen Aitasantuak eta Lamhrusehini Idazkariak beraien ustez «Aulki Donearen eskubideak Belxika'n ain era baldarrean babesten zituan» Jon Peeei izeneko Nuntzio kezka-sortzaille uraxe bera, urte batzuk geroago Aulki Donean eseriko zanik; eta Aulki Donearen eskubideak babesten, ain zuzen, egingo zuala ospetsu, edestia-zear Leon bere izena. Nuntzio ura, Leon XIII'a izan bait zan gero!

## OLANDA

1830'eko iraultzakoan Belxika bereizi zitzaionez gero, bakarrik gelditu zan Olanda Gillermo Taren erregetzapean. Lengo bidetik jarraitu zuan Gillermo'k erregekeri-jokuan, Elizaren bizieran eskua sartuaz. Ez ordea katolikoekin orain, protestalariekin baizik, Zergaitik? Edo Belxika'ren bereizketak zerbait erakutsi ziolako, edo katolikoei esarre-bideak ematea txit arris-kugarri zitzaiola ikusten zualako. Asko bait ziran Olanda'n katolikoak; ia Jaurerriaren erdia: %-0. Eta, gaiñera, Olanda'ren egoaldean, Belxika'ren alboan, bizi ziran geienak. Bildur izatekoa zan egoaldeko probintzi katoliko aiek Belxika'rekin ez ote ziran alkartuko Olanda'tik aldeginde.

Danadala, askatasun osoan utzi zituan Gillermo Erregeak bere Jaurerriko katolikoak, eta begirune aundiz, eztiki, artu izan zituan beti. Eman oi zien diru-laguntza oparoa ere, jauretxe berrien eraiketarako-ta.

Sendoa zan Olanda'ko Eliza; katolikoak gutxiago diran lurralde protestalarietan gerta oi dan bezala ez hait zan aien artean eliz-bearkizun edo obligazio danak zintzo betetzen ez zituanik.

Politika-arloan, mendeko leialak izan zituan Erregeak bere katoliko auk, Imita Belxika katolikoa iraultzan jeiki zanean ere. Ederki azaldu zuten orrela beren olandartasuna'

Katolikoekin baiño gogorragoa izan zan Gillermo l'a protestalari-mota ororekin eta auengana irauli zuan bere erregekeria.

Olanda'ren % 50 baiño zerbait geiago ziran protestalariak, kalbindarrak geienak; «Eliz Eraberrituaren» artaldekoak; izen orrekin deitu hait zion Calvin'ek bure kristaudiari: «Eeclesia Reformata» latinez. «Eglise Réformée» frantzieraz. Olanda'ko kalbindarrak, «Reformeerde Kerk» esaten zioten beren Elizari'

Jolasetan ibilli gabe, argi eta garbi Laterri-Eliz biurtu zuan Gillermo l'ak olandar kalbindarran «Reformeerde Kerk» ura, eta elizaren bizitza guztia gobernuaren menpean ipiñi zuan' f;z ziran kalbindar guztiak ain errez artara jarri, eta naigabeturik gelditutako aien samiñak bi bidetik jo zuan: mistikaren bidetik, eta zismaren bidetik.

Mistikazaleak, Inghlanderrian sortutako «revivalism» edo «berbizte» izeneko igikundearen aurkitu zuten poz-iturria. «Revivalism» ark, elburu bikoi-tza izan zuan Olanda'n:

Calvin'ck elizaren eraberritzca egin zuan egun aietako «kristau eraber-  
rituen gogabide ta jardunbide zaar aiek» ostera eguneroko kristau bizitzara  
erakartzea'

— Bibliaren azterketari ardura geiago ematea. Azkeneko ekintza ontan  
arras ospetsua izan zuten Grominga'ko Eskola.

Zismara jo Zutenek berriz, «Fliz I:rabcrituaren» altzoan beste «erabe-  
rritze» bat egin nai izan zuten, onela beste Eliz berri bat sortnaz: «Christe-  
lijke Gereformeerde Kerk»: «13ir-I.raberritako baita Kristaua».

Kalbindarretaz gainera baziran Olanda'n beste protestalari-sail batzuk  
ere; lutertarrak eta menondarrak butez ere. Danci lagundu zien dituz Giller-  
mo'k, baiña danak jarri bear izan zituzten apal-apal beren buruak eliz-auzi  
guztietarako aren esanera.

\* \* \*

Gaitz aundia egin zion Belxika galtzeak I Gillernio'ren izen onari, ta  
amar urte geroago erregetza utzi bearrean aurkitu zan. II Gillermo'k artu  
zuan aren tokia, eta bederatzi urtez egon zan Olanda'ko erregeaulkian. Arras  
onuratsuk izan zitzaizkigun bederatzi urte aiek Eliza Katolikoarentzat.

Ordurarte, iru Bikario Orokor ziran an Llizaren buruzagiak. Orain, iru  
Bikario aiek eskubide beteko Gotzai egiñak izan ziran. Eratu zan beste lau-  
garren elizbarruti bat ere, birreraiki ziran 48 konbentu, ta lortu zuan Llizak  
ikastolak eraikitzeke eskubidea'

Bere erregetzaren asieran bertan, konkordato bat egin nai izan zuan II  
Gillermo'k. Obeto esateko, iru urte lenago egiña izan zan konkordatoa, Gi-  
llernio'k I'a cia Aulki Donea baiera etortzen ez ziralako lege izatera iritxi ga-  
be zegoan 1827'ko konkordato ura nai izan zuan orainlegetzatu.

Aurka irten zitzaizkion kalbindarrak eta katolikoak. Kalbindarrak, Olan-  
da, naiz izen utsez, «Laterri Kalbindarra» izatea nui zutelako. Katolikoak,  
orduan zeramakiten askatasun osozko biziera txit atsegin zitzaielako. Bazu-  
ten bû konkordatoak askatasun ura moztuko ote zielako kezka!

L,rljioarentzat, Gillernio'k I'a bere aita bera baiño obea izan zan II  
Gillermo. Aitak, askatasun osoan utzi zituan katolikoak. Askatasun berean  
utzi zituan semeak protestalariak ere, aita baiño liberalagoa zalarik, ez bait  
zan ura bezala aien eliz-auzietan tnuturrak sartzen ibilli,



## ESPAÑI ETA PORTUGAL

Aldakuntza portitzik gustetzen ba'zaizu , Amsterdam'etik Madrid'era edo Bruselas'tik Lisboa'ra egin ezazu jauzi.

Beste inon ez bezala, indartsu zan oraindik Eliza Iberi'ako lurraldeetan XIX mende aren asieran. Aundia zan, erriak elizgizonei zien begirunea. Ikusi dugun lez, esan ere esan bait daiteke apaizak izan zirala Napoleon'ek Iberi'an aurkitu zituan etsairik menderakaitzenak, eta Apaiz Jaunek garaitu zutela Napoleon; aiek izan ziran bâ erriaren katolikotasun españiarra Frantzi'ko «ere-jeen» aurka aitatu zutenak.

Ez dira asko orduango estadistikak; baiña danek garai artako Elizaren indarra erakusten digute. Ikus:

Ar dezagun eredutzat Españi'ko Elizaren «uri-buru» zan Toledo. Amabi milla biztanle besterik ez zituan. 13a<sup>1</sup> ñan 12.000 aientzat, bai al dakizu zenbat parroki zituan? Ogeitazazpi! Eta 27 parroki oietaz gaiñera, ogeita zortzi konbentu!

Toledo'ko Goigotzaia, Españietako Lenen Gotzaia van, (eta da), tituloz; Lita orduan, «Grande de España» etc bazan; ta, Frre, earen .Itzetik, «Españietako Lenen Pertsona»! «Bere errentak amabusi milla milloi franco ziran. Katedraleko kanonio bakoitzak ete bazuan, orduko dirutan, irurogei milla liberaku errenta» (Didier). Toledo'ko etxeak, erdiak, Elizarenak ziran,

Ori dena kontuan eukiaz aIa bear ere zan-da, Toledo'ko Goigotzaiari Kapitan Jeneralei egiten zitzaizkien omenkeiak egiten zItzaizkion'

Era berean, Erljiosoen Anaidietako Zuzendari Nagusiek, Aristokraziko Aundikien trata edo arrera bera izaten zuten F.aterri-mailletan.

Apaizak berriz, Apaiz Jaunak, erri txikietan eta hata aundietan ere jendearen biotz-adimenen jaun da jabe ziran; erriak ez bait yuan oraindik apaizak ez beste maixurik onartzen.

Ori zan beintzat sagarraren avala! Baiña ordurako harrundik bazituan arrak, ain itxura ederreko sagar onek.

—1789'ko iraultzaren aurretik ere aski sarturik zeuden Iberi'ako taldetxo batzuen buruetan Frantzi'ko Intziklopedi-zaleen gogabideak. Talde txikiak ziran aiek baike, baiña garrantzi aundikoak, lenen mailletako gizonez osotuak

ziralako: aristokrazitarrak, legedilariak, militarrek, idazleak, irakasleak, eta baita apaizen batzuk ere.

Talde «eterodoxiak» aietako gizonak ez ziran geienak Elizaren etsai. Soilki, demokraziaren maitale gartsuak ziran; askatasunaren maitaleak. Orretxegaitik ain zuzen, izan zuan Euskalerrian, —askatasunaren eta demokraziaren errian —, Argikuntzak artaraiñoko arrakasta bizkorra.

Egia da masoitzza ere aski sarturik zegoala, bai Españi'n, eta baita Portugal'en ere, eta masoitzza ura ezker-ezkerreko masoitzaren adar biurria izanen zala XIX mendearen bigarren erdiaz gero.

Napoleon'en gudariek ekarri zituzten Iheri'ko lurraldeetara Iraultzaren gogoetak, len Konbentzioaren beste gudari aiek Katalauni'n eta Euskalerrian bakarrik egon bait ziran eta oso denbora guthiz gaiñera, eta leenagoko entziklopeditarren idazkiak, — taldetxo batzuen artera izan ezik —, apika sartu ere egin bait ziran.

Beste Europa'ko lurraldeetan bezala, menderatuak izan ziran Españi'n ere Napoleon'en gudarozteak, haiña beste lurralde aietan bezala Españi'n ere ideologiari dagozkionetan frantziarrak irten ziran garaille. Ta garaitza aren ondorio, ugari sortu ziran Españi'n eta Portugal'en liberaltasunaren maitaleak. Oroi, izena hera ere, «Liberal» izena, Españi'n eman zitzaiola aurreneko aldiz pentsaera berrien maitale ziranei.

Oraindik Españi Napoleon'en aurka gudan zebillela agertu zan, Kadiz'ko Kostitutuzioan, liberaltasunaren aizea. Katolikoa zan, bai noski, 1812'ko Kostitutuzio Kadiztar ura, berak bencerak aitortzen duan lez: «La religión de la nación española es y sera perpetuamente la religión católica apostólica y romana, que es la única verdadera... La nación la protege..., y prohíbe la practica de cualquier otra».

Bere katolikotasun ortan, izan zuan Kostitutuzio ark erregekeri-usai apur bat ere, ots, Elizako gauzetan muturra sartzeko zaletasunaren apur bat, Inkisizioa debekatzeaz gaiñera, 12 praille baiño gutxiago zituzten konbentuak isteko agindu bait zuan. Ez zuten «Las Cortes de Cadiz», ori egiteko eskubiderik, baiña ez gaitu geiegi aien jokaerak arrituko, amaika milloi biztanle zituan Españi arek, apaiztalde ugari batez gaiñera, bi milla ta ogeitazortzi konbentuetan irurogei ta amazpi milla erlijioso bazituala oroitzen ha'dugu. Erljioso geiegi ziran Españi'rentzat ainbesteko konhentu-jende aiek danak. Ain geiegi ere...! , zer egin jakin ez nunbait-eta, alkar zirikatzen ibiltzen hait ziran maiz apaizak eta prailleak!

Politikaren barrutian, lege egin zuan Kadiz'ko Oiñarri-legeak irarkolen askatasuna: «la libertad de prensa», ta demokrazi biurtu zuan Laterria, agintaritzza erriaren izenean bildutako Batzar Nagusi Legegillean zegoala aldarrikatuaz.

Ez zan ariketa ori Espaiñi'ko elizgizonen gustokoa izan. Ala, Lerida, Tortosa, Bartzelona, Urxel, Teruel, Santander eta Iruña'ko Gotzaiek, idatzi zuten pastoral bana, Kostituzio aren aurka. Frantzi'ko zentralismoa ere sartu zan Kadiz'ko Batzarrera eta an eratutako Konstituzioa Euskalerriko Lege Zarra ezereztera zetorren. Orretxegaitik, ain zuzen, fusillatu zuan kostituzio aren ale bat Naparroa'n Espoz y Mina basagudari ospetsuak, «gora gure Lege Zarra» oiuegiñaz.

Ez zitzaion Espoz v tMina'ri arrazoirik falta. Kadiz'ko Kostituzioak, VII Fernando Erregearen menpeko lurralde guztietan «la Unidad Constitucional» ezarriaz, Euskalerriko Laterrien bereiztasuna eta askatasuna ezerezten bait zituan, len Frantzi'ko Iraultzak Laburdi, Benaparroa ta Zubero'ko hcreiztasuna ta askatasuna ezcrezetu zituan bezala.

San Jose egunean jaio zan Kadiz'ko Kostituzioa; 1812'ko Epaillaren 19'an izan hait zan lege egiña. Orregaitik, «la pepa» izen-eman zion erriak. .Eta eon urteren luzaroan, «viva la pcpa» deadar egitea, gora askatasuna dei egitea izan da Espaiñ'n beti.

1814'ean itzuli zan Frantzitik VII Fernando eta berealaxe desegin zuan Kadiz'ko Kostituzioa, eta lengo despotikeri zarra bir-ezarri. «Vivan las caehas» (sie) oiuka pozik artu zituan aldaketa zoro oiek Espaiñ'ko erri erdi-aberetuak. Itzuli zizkion Erregeak Elizari lengo abantail eta prihilejio guztiak ere, eta pozik gelditu ziran gotzaiak.

Era berean, birre'.arri zuan Inkisizioa, eta «man zien iñal<itarrei Espaiñ'ra itzultzeko baimena. Arrezkero, errege despotikoien adiskide jarraituko dute emen etc iñakitarrak mende osoaren denboran.

Kadiz'ko Batzarreko butuzagirik argienak (Argiuelles, Martinez de la Rosa, Melendez Valdes, Fernandez de Moratin, Conde, Lista...) espetxeratuak izan ziran, edo erbestera jaurtiak.

Kadiz'ko Batzar artan erabilli zan munduan lenengo aldiz «liberal» itza. Aipatu ditugun okerkeriak kendu ezker, atal eder asko eta asko zituan liberal aiek sortu ziguten Kostituzioak, baiña Espaiñ'ko katolikoek, eleizgizonek bereiziki, cz zuten «la k epa» artan okerkeria hesterik ikusi cita aren aurka jarri ziran asarre. Orrela, «liberal» itza jaio zan une beretik asi zan Espaiñ'n katolikoek eta liberalen arteko borroka. Borroka orren edestia izango da Espaiñ'n, cita baita Portugal'en ete, XIX mendearen edestia. Agintaritzza absolutisten mendean dagoanean lasai eta pozik biziko da Eliza; zigorturik ordea agintaritzara liberalak sartzen diran aldietan.

Espaiñ'n bezala gertatu ziran Portugal'en ere gauzak XIX mende artan.

Napoleondarrak urbiltzerakoan, iges egin zuan Brasill'era VI Jon Erregeak, eta Lisboa'n Bazkun edo «Junta» bat gelditu zan agintari, Frantzi'ren aurka

gudua aurrera eramateko. Gotzai bat izan zan Lisboa'ko Bazkun aren Len-  
dakaria,

Geroago, Wellington'en esanera Inghlanderriko eta Portugal'eko gudariek  
Laterria iaretu zutenean, Beresford inglandarrari eman zioten Erregeordetza.  
Ez zitzaion ordea erriari atsegin izan aren gogorkeria, eta asi ziran laister  
matxinadak, 1817'an izan zan matx.ño aietako bat fusillatua: Gomes Freire  
de Andrade jenerala.

Baiña iru urte geroago, 1820'ean, garaille tan iraultza.

Bildu zan Batzar bat; eta liberala izan zan Batzar artatik irtendako Kos-  
tituzioa, Ots: une artan apa 'zak, ia danak, iraultzalarien alde zeuden, eta naiz  
liera absolutista izan, Kostinizio ori ziñatti-bearrean aurkitu zan Jon VI'a,  
Brasil'dik \_\_\_an .Lrrgeordezko Pedro bere semea lagata--- ostera Portugal'era  
etorri zanean.

Aita aldendu zitzaion bezain laister eoin zuan Pedro'k bore burua Brasill'-  
eko Inperatore, Brasil Portugal'tik askatu nai zuan erri brasildarraren gogoari  
erantzunaz.

Ez zuten Portugal'en asko iraon liberalek agintaritzan; Erregearen bigarren  
seme Mikel'ek jauni bait zituan indarrez, 1823'an. «Gara erregeen bakarra-  
gintza»!, egin titan nin Mikel'ek gudarozteen aitzinean Lisboa'ra iritxi zanean.  
E<sub>t</sub> zuan Mikel Prim / goak ere, umgeord.'zko lez, luzaroan agintzeko astirik  
izan, Inghlanderriak eta Frantt:'k eskatzen zutelako, erbestera bidali bear  
izan hait zuan seme ura Jon VI'ak.

1826'ean il tan VI Jon; eta laister sortuko tan an, Iberi'an errege-gaien  
arteko lenen gudua izanen zana . Pedro zan Jon VI'aren seme zarrena, baiña  
Brasil iaretuta, bore burua ango Ioperatore egin zuan ezkerre, et zitekean  
Portugal'eko Errege izan, amat; garren mendetik zetorren loge batek atterri-  
tarrei erregetza debekatzen tielako, 1Desterruan zegoan Mikel'i zegokion, beraz  
buruntza, baiña aren aurka 'tendon liberal suzHak.

Pedro Brasill'ekoak ere ()ere sendirako nai zuan Portugal eta 7 urteko  
battu ~~bat~~ Maria da Gloria bidali tuan Lisboa'ra Erregin, eta gauzak goxatu  
naiean, Mikel bore anaia, ots Maria da Gloria neskatoaren osaha bera, VI  
Jon Erregeak erbesteraazitako Mikel ura ber-bora izendatu zuan Erregiñordez-  
ko eta neskato Erregin aren zaindari.

Mikel'en aurreneko gogoeta, bore illobarekin ezkontzea izan zan, ura orna-  
kume izatera iritxi bezain laister; baiña Jokine bore amak eta gaiñerako abso-  
lutistek burua berotu zioten-da, Mari P,rrregintxoia baztertuta bore eskuetan  
artu zuan agintaritzza osoa.

Itzuli ziran josulagunak; eta, Lisboa'ko Patriarka ta beste gotzairen bot  
kendu ezkerre, pozik zegoan eliz-jendea; baita, oraingoan apaizak ere, 1820'ko  
iraultzakoan liberalekin bat eginda ibilli ziran apaizak; liberalek, beren geie-  
gikerien erruz, ez bait zuten apaizen konfiantzarik gordetzen asmatu.

Sei urteren luzaroan, pentsa daitekean jaurlaritzarik Iatzena izan zitzaigun Mikel Printzipearen agintaritza. 40.000'raiño izan ziran erbestera boteak; beste asko, espetxeratuak; edo ta ugelezko zartailuz zigortuak. Frantziar bat orrelaxe zigortua eta heste bat erbesteratua izan ziralako, Franzi'ko guda-ontzidia etorri zan Lisboa'ra (1831), eta M kel'ek, erarik lotsagarrienean, barkapuen! eskatu bear izan zuan. Ala zigertutako bi frantziar aien errua? Sakrilejio-egilleak izatea!

Urte ortan etorri zan Pedro ere, eta erregetza eskatu zuan beretzako; orain, Brasill'eko buruntza galdu zuan ezker, ez omen zan bâ atzerritarra!

Lertu zan goda. Mikel'en aide zeuden Portugal eta Europa guztiko absolutistak, —Errusi, Austri, Zerdeña, Bi Siziliak—, eta, absolutistekin bat egiñaz, XVI Gregorio Aitasantua.

Liberalak, —eta Inghlanderria eta Frantzi—, Pedro'ren alde jarri ziran.

Pedro'k irabazi zuan goda 1834'ean. Mikel, errenta mardul baten truke buruntza lagata, erbestera joan zan. Erregeei zor zaizkien omenekin artu zuan XVI Gregorio'k Erroma'n.

Samiñak izan ziran Elizarentzat absolutistekin batera goda galdu izatearen ondorioak: Iñakitarrak, erbesteratuak; apaizak, karriketan arrika erabilliak; konbentuak, itxiak, eta baita ikastolak eta gaixotegiak berak ere; Mikel'ek egindako gotzai-autaketak, legezkotzat ez ezagutuak; nuntzioa, kanpora bidalia...

Alperrik oi u egin zuan Gregorio XVI'ak.

Portugal'en goda amaitzera zijoanean piztu zan Españi'koa. Baiña, aurretik, izan zan emen ere iraultza bat: 1820'ekoa, Riego'k asia, aren aurka bidalitako O'Donell'ek jarraitua, eta, erriak Bartzelona, Galizi, Zaragoza, eta Madrid'en bertan egindako matxinaden hitartez, garaille aterea. Erregea, ostera 1812'ko «Kadiz'ko Kostituzioa» Laterriaren lege egin bearrean aurkitu zan. Bi urte luzeetara doi-doi iritxi zan iraultza, baiña gogor ordaindu bear izan zituan Elizak urte aietan bakalduntzari josiegia egotearen orruak. Izan ere, lain ba, egiñak egon ziran aureko urteetan Erregeaulkia ta Aldarea...!

Ain zuzen, izen ori darama garai artako pentsaera katolikoaren eredu dai-teken liburu hatek: «Apologia del Altar y del Trono»; 1818'koa da; Jose Vidal agustindarrak idatzia; eta ez alperrik idatzia noski, bere egille laister izan hait zan Zeuta'ko Gotzai, eta, gero, Konpostela'ko Goigotzai egiña!

Neurririk gabea izan zitzaigun liberalen itxutasuna ere; Iñakitarren erbestertatzea; Inkisizioaren desegitea; 24 fraile ez zituzten konbentuen itxiaraztea, au da, Españi'ko konbentuen erdiaren ondamana! ; itxitako konbentuoietako ondasunen jabe Laterria egitea; gotzai batzuk atzerrira jaurtitzea...

Vich'eko Gotzaia, katigu arta ondorean, gudari batzuek il zuten. Eta izan ziran eraildako beste elizgizon batzuk ere. Bidali zuan Erroma'ra Jaurларitza liberalak enbaxadari bat, baiña ez zion Gregorio XVI'ak Elizako Laterrietan oiñik ipintzen cre laga. Madrid'ko jaurларitzak, orduan, Nuntzioa bota zuan kanpora.

Ez zuten pake aundirik izan liberalak, berealaxe osatu bait zan, aien aurka izkilluekin guda egiteko, «Junta Insurreccional» izeneko Bazkun bat, Tarragona'ko Goigotzaia lendakari zuala. Borroka-taldecetan beretan ere sartu zan eliz-jendea: Gaztelan, Merino Apaiz aipatua, «El Cura Merino», Napoleon'en aurka basa-gudari izandako apaiz ura bera, orain kanonigo zana; Andoni Marañon «el Trapense», Naparroa'n; eta Andoni Coll, Katalauni'n.

Baiñan basa-gudari aiek danak ez zuten ezer askorik lortuko, kanpotik laguntzarik ez ba'z»tzaien etorri. Izan zuten laguntza ori; Alkarte Donearen eskarira gudarozte mardul bat bidali bait zuan Frantzi'ko XVIII Koldohika'k Españi'ra: españiarrek «los eien mil Hijos de San Luis» izenarekin bataiatu zuten gudarozte indartsua. Ta, «Koldobika Deunaren eun milla seme» aien laguntzarekin bai, garaille irten zan ostera Españi'n autokrazia.

Eun milla gudari asko ziran, urte aietan Ameriketako lurretan zanpa-ta-zanpatua zebillen, Españi'ko gudarozte birrindu arentzat. Birrindua? Ez noski bere Laterri-mugen barruan; denbora aiek ezkerro jeiki ta jeiki, kolpetik kolpera, agintaritzaz indarrez arrapatzeagaitik, ez bait diote gudarozte orren jeneralek, eun urtean, beren aberriari pakerik emango.

Eun milla frantziar aiek Españi'n sartzen astean, Kadiz'era eraman zuan Jaurларitza liberalak Erregea; bai ña «Koldobika Deunaren Seme» aiek askatu zuten; eta bereala itzuli zan Madrid'eru. Entzun zituan Andaluzi eta Mantxa'ko errietan «viva las caenas» zioten erriaren oivak; baiña, oivak oiui, urietan Españi'ko erria askatasun-zale egiten asia zan; eta baita era berean Elizagandik alde egiten ere. Egun batzuk lentxeago ara zer abesten zuan oraindik erriak «Himno de Riego» edo «Riego'ren ereserkiaren» doiñura:

Si supieran los euras v franes  
la paliza que les varnos a dar  
bajarian del coro eantando  
libertad libertad libertad».

Al , zeñen urruti joan zitzaion Elizari Madrid'ko eta beste uri aundietako erri-jende gaixoa, oraindik amar-ogei bat urte leenago a 'n elizkoia zan jendea!

Erri gaixoaren erruz? Edo-ta, erri gaixo arek Eliza aundikiekin, aberatsekin. eta agintari gogor at-roekin naasiegia ikusten zualaren erruz?

Danadala, „skatasun-apur bat lortzen duan bakoitzean, itz oiek abestuko ditu Españi'ko erriak, eta apaizei, konbentuei eta elizei erasoko die; cta, jokaera ori, Franko'k Españi sutan eta odoletan ipintzen duanean eta

munduan ia-ia Eliz oso-osea aren alde ipintzen danean, eramango du —erriak— azken-mugetaraiño.

Errege zipotza, errege alua, ustela, izan zuan Españi'k VII Fernando' Aren denboran sortu zan, an, erri xume eta elizgizonen arteko asarrea laurerriko uri aundi guztietan, eta arrezkero ez zaigu Eliza jende xume ori bir-bereganatzeko gai agertu.

«Koldobika Deunaren Semeek» iaretuta, VII Fernando ark berriro agintaritzza artu bezain laister asi ziran absolutistek zigorra dantzatzen: Riego fusilatua izan zan; eta baita liberalen beste buruzagiak ere: Torrijos jenerala, adibidez. Eta Napoleon'en aurka borrokan ibilli zan «El Empeinado» izeneko basa-gudari ospetsu ura.

VII Fernando'k ez zuan, alare, oraingoan Inkisiziorik bir-ekarri. Bai ordea gotzai batzuek, heren kasa, ezarri zuten ostera Inkisizioa hakoitzak bere elizbarrutian! Eta ez noski Inkisizio arekin jostaketan ibiltzeko. Ikus, bestela:

1826'ean, Balentzi'ko Inkisizioak eriotzera galdu zuan, jendeak «El Maestro de Ruzafa» esaten zion Cayetano Ripoll izeneko irakasle bat. Biotz onekoa omen zan au, filantropoa, ots, gizamaitalea, eta Rousseau'ren jarraillea. Sinisten omen zuan Jainkoa, baiñan ez kristautasunaren misteriorik. Orixe besterik ez omen zan izan, gizagaixo ura eriotzera eraman zuan errua: Kristautasunaren misterioak ez sinistea.

\* \* \*

Oroi Borboien Españi'an emakume batek ez zezakeala erregetzarik artu, V Felipe'k Frantzi'ko «Salik-Legea» Españi'n ere ezarri zuenez gero. VII Fernando'k ez zuan berriz semerik. Erregetza, beraz, naitanaiez, aren anai zan Karlos Maria Isidro'regana joan bearra zan.

Ori orrela izanik, «apostolikoak» ain urduri zergaitik zebiltzan? Bà... liberalak ere, urduri, legeak aldatu ta erregetzan Isabel printzesa, VII Fernando'ren alaba, ipiñi naican zehiltzalako!

'Tadeo Calomarde absolutista, zan orduan Jaurlearitzan lendakari, eta badi-rudi arrazoirik aski bazutela «apostolikoek» arekin pozik egoteko. Ikus, adibidez, Calomarde aren jokaera hi punttu nabarmen auetan:

—Erri guztietan mixioak emateko agindu zuan, «españiarrek, hakoitzak bere etsaiari, barkatzen ikasi zezaten»!

—Ikasle guztiei, baita Ikastola Nagusietakoei ere, Mari Sortzez Garbiaren eta Fernando Donearen egunetan Sakramentuak artzeko agindu zien. Egun oietan jaunartu gabe gelditzen zan ikasleak, urtea galtzen zuan.

Alatagutziz asarre zebiltzan «apostolikoak». Baiña aien asarrearen jturborua ez zan Calomarde'ren lege aiek naitanaiez sakrilejio asko sortarazi hear zutela ikustea; ez zan, ezta're, Calomarde erregekeri-zalea izanik Erroma'ko

dokumentuak, Jaurlaritzaren «placet» edo «baiezko» ura lortzen ez zutelako, elizetan irakurriak izan gabe gelditzen zirala jakitea. Soilki, liberalak gero-ta-geiago ugaritzen zirala ezin ukatu izateak amorrazien zituan gizon «santu» eta apostoliko aiek.

Integristen eta liberalen artean ordurako sorturik zegoan zurrunhilloaz oartzten zan Erregea ere. Ala esan oi zuan, irakiten zegoan garagardo-kupel baten antzeko zala Espāñi. Eta bera, Erregea, omen zan kupel orri zuloa isten zion txorkoa.

Ez zebillen ain oker ori esatean eta ori uste izatean VII Fernando, blister il hait zan bera, eta bera il bezain laister, lertu bait zan zain artatik, txorkoa galtzean, kupelaren barrengo gorroto-aparra, eraso gaitzean. [‘a... piztu zan, ainbeste gaitz egin bear zuan karlista-euduen su-galda Ikiskalearra.

Legez argi zeuden gauzak, VII Fernando'ri legea aldatzea gogora etorri zitzaion arte. «Salik-Legearen» araura, Karlos Maria Isidro'k izan bear zuan Errege. Baiña VII Fernando'k lege ura ezerezuta, Isabel izendatu zuan erregetzarako eta Isabel azi Bitartean aren ama —eta bue emaztea—, Kristiñe, zuan erregiñordezko.

Ori egin ondorean ordea, gaixo jausi zan eta il zorian zegoala, alaba —isabel— baztertuta, anaia —Karlos Maria Isidro— izendatu zuan erregegai.

Baiña... , sendatu egin zan, eta ogetik jeikitzean, anaia izan zan baztertu zuana, eta ostera alabari eman zion erregegaitza, eta emazteari, len bezala, erregiñordezkotza.

¿Prege batek bai al du erri osoaren zorionarekin orrela jostatzeko eskubiderik? VII Fernando'k egin zuan bezala, errege batek aldatu al dezazke erriaren edo erriaren ordezkari dan Parlamentu baten naia gogoan artu gabe erriarentzat ain garrantzitsuak diran legeak?

Ona zer izan zan orduango espāñiarren erantzuna:

—Baietz; egin dezakela, erantzun zuten, beti eta baztar guztietan, ori ezin egin dezakeala oiuka ibilli diran liberalek.

—Ezetz; erantzun zuten berriz, parlamentucn bearrik ez Hala eta erregeak bere izenean eta bene almen utsez lege guztiak aldatu dezazkeala esan oi duten absolutistek-.

Auzia ez hait zan orduan Espāñi'n bi pertsonen artekoa; bi pentsaera ezberdiñen artekoa baizik.

Isabel'en alde jarri ziran liberalak; eta Inghlanderria; eta Frantzi'n. Karlos Maria Isidro «V Karlos»en aide jeiki ziran absolutistak; eta «V Karlos» arek fueroak gordeko zituala agindu zualako, baita fuerozale ziran lurraldeetako jende landerrak ete: Cuskalerrian bereiziki; baiña baita Katalauni'n, Balentzi'n, eta Aragoi'en ere!



Atzerritik, Errege absolutistak irten ziran «V Karlos»en aide: Zerdeña'koa, Iai Sizili'etakoa, Errusi'koa eta Austri'koa; eta, mola ez?, XVI Gregorio Aitasantua. Aia, "Lea Jermudcz, Kristiite Erregiñordezkoaren Jaurlaritzako lendakariak, Aulki Djonari Kristiñe'ren Jaurlaritza egiazkotzat onezagutzeko eskatu zionean, ez zezakeala orrelakorik egin, erantzun zion Gregorio XVI'ak. Ez omen zekian bai, «Sollicitudo» izeneko «Kostituzio» edo Arau Nagusiak eskatzen zuan eran Kristiñe'ren Jaurlaritza iraunkorra izango zan edo ez.

/\sarrc gelditu zitzaizkion liberalak, bai hait zekiten auek, Portugal'en XVI Gregorio berak erabilli zuan jokia.

Egia da, Españi'ko guda amaitu arte Aitasantuak ez zezakeala ez «V Karlos»ik ez Kristiñe'ren zaintzapcko II Isabel'ik Españi'ko Laterri-13urutzat artu; baina Portugal'en anaiarteko guduan, berealaxe artu zuan erregetzat Mikel absolutista, ori egiteko, orain  $\vdots$  Isabel ontzat  $\text{ei}$  artzeko aipatzen zuan «Sollicitudo» uraxe ber-bera arrazoi *tez ipiñiaz*, Orrela liberalismoaren etorrera eta Iberi osoa liberalen menpean gelditzea eragozi nai izan zuan.

Españi'ko karlistek ziur jakin zuten beti, beren alde zeukatela Aitasantua, naiz onek, diplotnaziak ori eskatzen ziolako, agirian ezer esan *ei*.

Ez zion, ez, on aundirik egin Elizari XVI Gregorio Aitasantuaren jardunkerak, liberal gogorrek ez ezc Kri<tiñe'ren aide jarri hait ziran Españi'n liberai «eratsuak» ere: «Los moderados» esaten zitzaien aiek, alegia. Era berean jarri zan Kristiñe'ren aide ia Españi'ko gudarozte osoa.

XVI Gregorio'ren jardunbideak, euskotarroi, Franko'k sortutako gudate iguingarrian XI  $\vdots$  Pioih erabilli zn,tna gogu, u-atzen dig... Aitasantu au ere, — $\times$ II Pio—, oso-osoan jarri hait zan itxuraz beintzat fatxisten aide, eta bere joku orrek ez bait zion Elizari, ez Euzkadi'n ez Españi'n, on aundiegirik ekarri.

Egiñalak egin zituan Kristiñe Erregiñordezkoak, liberalak oro eta gudaroztea ia osoan bereak zituan ezkerro, Españi'ko katolikoak ere bere alderdiruntz eramateko; eta, ori, ez agintzearen egarri zegoalako edo buruntza bere alahatxo Isabel II'arentzat nai zualako bakarrik, ez, baizik-eta bera ere, egi-egiaz, benetan katolikoa zalako.

Erru aundia izan zuten liberalek Españi'ko XIX mendeko guduen sorkuntzan. Frantzi'ko iraultzalari aiek Frantzi'n bezala, Españi'en ere liberalek, «askatasunaren izenean benciako askatasunak, —errien fueroak—, zapaldu bait zituzten.

Lege Zarraren araura, Euskalerriko Laterrietan ez zan lege Frantzi'tik etorritako «Salik-Lege» ura; eta, orregaitik, batere eragozpenik gabe izan zitekean Isabel Naparroa'ko Erregin, Bizkai'ko Andre, eta Gipuzkoa edo Araba'ko Laterri-Buru. Aia, euskaldunak ez ziran gudara sartu, erregin baten aurka eta errege baten alde, Kadiz'ko Kostituzioa ezkerro liberalek ukatzen zieten beren Askatasuna babesteko baizik. Liberalek, betidaniko Askatasun ori euskaldunei onezagutzeko zentzurik aski izan balute, ez zan eskierki Euzkadi'n guda•rik piztuko. Edo-ta, ez zuan, emen, izan zuan aiñako gogorkeri anker odoltsurik izango'

1833'ko urrillaren 3'an asi zan gudua. Onela zion Kristiñc'k bigaramoneko «manifesto» edo «azalpen» batean:

«Erljioa eta erregetza dira Españi'ren zutabeak. Emanen diet nik bioi, zor zaien begirunea; biak zainduko ditut; biak beren garbitasunean eta bizkortasunean gorde. Gure erljio aratz orrentzat, eta erljio orren dotrifarentzat, apaizdiarentzat, eta jauretxeutzat, izango dira nere Jaurlearitzaren jaramonik garrantzitsuenak eta, baita, atsegin-gozenak ere».

Baiñan Elizaren bee-zati aundi bat Karlos'en aidera okertu zan, batez ere iparraldeko, eta bereiziki Euskalerriko, apaiz eta prailleen artean.

Berealaxe asi ziran apaiz eta praille aukeratzeko gaztedia izkilluetara bultzatzen. Eun urte geroago, Franko'ren «gurutzadakoa», Nafarroa'ko apaiz eta praille karlistak asiko zitzaizkigun bezalaxe. Berdin berdin! Ala irten zitzaigun, inguingarria, 1936'ko «gurutze-guda» «santua»!

Ez zan bil 1833'ko ura *ere* askoz goxoagoa gertatu; piztikeri odoltsua bai-zik! Ez zan ura gizonen ibillera izan, eta askoz gutxiago kristauna. Alderantziz, abere basatien jardunkera izan zan; odolaren egarriak erotutako piztiena.

Ez zan Eliza bera zauririk gabe gelditu, Madrid'ko Jaurlearitzak, ikaraturik maiz deitu oi zituan gotzaiak, kontu-ematuta, karlistak ote ziralako bildurrez; Inakitarrek, atzerrira bidaliak izan ziran; konbentu danak itxiak; Inkisizioaren ondasunak, Laterriarentzat artuak. Eta, azkenean, Mendizabal ministroaren aginduz, Laterriaren kutxetara igaro ziran 900 lekaidetxe ta konbentuetako ondasunak danak, gero oso era baldarrea lau sosen truke zoroki salduak izateko! «Procedimiento cruel, antieconómico y antipolítico» (Duque de Rivas), inorenzat anurakorra izan ez zana. Ez beintzat Laterriarentzat, eta are gutxiago erriarentzat. Leendik aberatsak ziran lotsagabe batzuk geiago aberasteko bakarrik balio izan zuan zorakeria!

Mendizabal'ek Españi'n egin ziona egin zioten baztar guztietan liberalak Elizari, eta, orrekin, Elizari baiño gaitz geiago egin zioten demokraziari, demokraziaren izenean Elizari bere ondasunak ain era zikiñean indarra-bidez lapurtzerarekin, nazkagarri egin hait zuten katolikoen artean demokraziaren izena, Eta ez aztu, katolikoa zala Europa'ko sarkaldean jandea.

Ikusi aal izan dugu Eliza, demokraziarekin asarre. Lapurketa ori izan zan, ain zuzen, Elizaren eta demokraziaren artean, asarre-bideetako bat. Ez noski garbiena, baiña bait garrantzitsuenetakoa!

Oso aberatsa zan emen Eliza XIX mendearen asieran.

Aberats izate orrek ordea, gaitz aundia egin zion Elizari, edonon, Kostantin I'aren denbora zaar aietatik asita. «The position of the Church as a great proper y owner, increasingly anxious for endowment, made it an instrument of social conservatism rather than of change» (H. II. Lasky), «Ondasun as-

koren jabe izateak, eta ondasun oiek gero ta ziurrago gorde nai izateak, aldakuntzen etsai eta lengoan-jarraitzearen-zale, egin zuten Eliza»'

Naitanaiez egon bear zuan beraz Elizak, bere ondasunak ebasten zizkion demokrazi aren aurka! ez duala mundu ontako aberastasunetaz artaraiñoko zaletasunik izan bear? Ez noski. Baiña ukitzen duan guztia gaitzotzen du aberastasunak; baita Jaungoikoaren Eliza ere. Mundu ontan Jaungoikoaren Eliza mundu ontako gizakumez osotua bait dago!

\* \* \*

Itzuli gaitezen Españi'ko auzietara.

Egia da aberatsegia zale Españi'ko Eliza; baiña aberastasun aiek lapurrei emateko lapurtzea, ez zan, Elizaren aberastasunak Laterriaren onturrerako edo uriaren onerako erabiltzeko modua.

Alatagutziz, Jaurlaritzarena baiña samiñagoa zaigu, milla aldiz samiñagoa, erriaren jarduera, batez ere 1834'ko uztaillaren 17'koa: la eun praille izan ziran egun artan Madrid'en eraillak, ainbeste jende ordurako illobietara eramaten ari zan izurria, prailleek iturriak pozoitu izatearen ondorio zala norbaitek esan zualako. Urrengo urtean, Zaragoza'n, Balentzi'n, Murtzi'n, Reus'en, Bartzelona'n, Mallorca'n, eta baita erriska txikiagoetan ere, praille-erailketan genduan berriro erriko jende landerra.

Zerk aldatu ote zigun ain sakonki, Españi'ko erri-jendearen anima? Arrezkero beti, matxinada eta zalaparta guztietan, Eliza errabiz zigortzen ikusiko dugu Españi'n erriko jendearen zati galanta bat.

1834'ko urte odoltsu artan olerkari bat, Martinez de la Rosa, zan Kristiñiñ'ren Jaurlaritzan Lendakari. «Rosita la Pastelera» izen ipiñi zioten elertilariak, aren olerkiak ez titsuegiak etsitzen zituztelako. B3, Rosita la Pastelera ez tiko arek ez zion iñori praille-erailketa izugarri aren konturik eskatu'

Españi'ko masoitzari jaurti oi zaizkio beti Españi'ko okerkeri guztien erruak, baiña iñork ez daki, era garbian, masoitzaren besoa noraiño iristen zan urte naasi aietan. Martinez de la Rosa beintzat ez zan masoia. Masoiak omen ziran ordearen ondorean etorri ziran Mendizabal, Isturiz, Calatrava eta Espartero. Alare, «Masoi» gaitzizena Españi'ko eskubi zarrek beren etsai guztiei oso errez ipiñi izan dieten zintzarria dala, beti kontuan euki bear dugun gauza da'

Danadala, zentzuzko jendeen eskuetan zegoan Jaurlaritza 1837'an auteskunde batzuen ondorean, eta asi ziran bereala XVI Gregorio'rekin alkarrizketak, Españi'ko Elizaren egoera konpontzeko. Ta bazuan noski zer konpondurik orduango Elizak Españi'n: Gotzaiek, adibidez, apaiz berriak sagaratzea debekaturik zeukaten Jaurlaritzaren aginduz; ogeitabi elizbarruti, gotzairik gabe zeuden; eta ez askoz obeki beste batzuk berriz, beren gotzaiak edo erbesaturik edo Karlos errege-naiaren albora alde-egiñik bait zeuden.

Gaizki zebillen ordea Karlos borroka-tokietan, eta amaitzea zijoan analarteko gudu nazkagarri ura. [rroma'k ere ikusten zuan ori.

1835'ean galdu zuan bizia Zumalakarregi'k. Aski buruzagi vavoa zan Cabrera ere guda aurrera eraman aal izateko, baiña karlistak ez zuten arrezkero dirurik, ez zuten izkillurik.

Ezta bear aiñako gudari-talderik ere. Ori arrazoitzat artuta egin zituan Maroto'k Espartero'rekin pakeak 1839'an Bergara'ko Besarkadaren bitartez. Antze bertan jaurti zuan Espartero'k bere erronka ospetsua: «No tengais euidado, vaseongados; vuestros fueros seran respetados y conservador; y si alguna persona intentare moverse contra ellos, mi espada sera la primera que se descivaine para defenderlos». Oro gezurra!

Bazirudian España'rentzat pake-egunak iritxi zirala, baiña Espartero'k birrindu zuan pakea.

1840'ean, Kristiñe, erregeñordekotza lagata, atzerrira joan bearrean aurkitu zan. Liberal ezkertiarrek, Espartero'ri eman zioten orduan erregeñordekotza.

Iru urte egon zan kargu guren ortan, 1840'tik 1843'ra, ta iru urte aietan, —egiazko diktatoreen erara —, Erroma'rekingo arremen guztiak galerazi zituan, Elizari ostutako ondasunen salketari presa geiago eman zion, eraso zien elizgizon batzuei, eta iare utzi zien protestalariet beren siniskeraren zabalkundea. Protestalarien artean merezi du aipu bereizia, Gorka Borrow kuakertarrak, berak eman hait zien ijitoei «kalo» edo ijitoen izkuntzara itzulitako lenen Biblia.

Izuturik zegoan Gregorio XVI'a. Idatzi zuan entziklika bat ere, España'ren aide otoitz egiten zutenei barkapen bereiziak eskiciñiaz.

Laister jausi zan Espartero, eta Isabel II'a igo zan 13 urterekin Errege-aulkira España'ko Laterriaren buru. Eta egin ziran ostera lroma'rckin pakeak'

Baita Portugal'en ere'

Gauza latzak gertatu ziran Portugal'en Pedro IV'aren erregetzan; batez ere, Lisboa'ko Patriarkak, Patrizio da Silva'k, gobernuak izendatzen zituan gotzai guztiak Aitasantuaren baimenik gabe sagaritzen zitualako. Ba t baiño geiago izan ziran Erroma'ko baiezkorik gabe eliz-karguak artu zituzten apaizcia gotzaiak. Beste batzuk, alderantziz, Aitasantuari leialak ziralako, —eta gu datean Mikel'en *aide* jarri ziralako! —, zigortuak izan ziran; Lliza eraberritzeko berriz, «Cornisao» edo «Bazkun» bereizi bat ere osotu zan, erregekeririk niinkatzenaren araura.

Baiña 1834'ean il zan Pedro IV'a, eta bere alaba Mari II'ak artu zuan agintaritzatza. Kristau zintzoa zan Maria da Gloria au, eta saiatu zan bere Jaurerria Aitasantuarengana urbiltzen; baiña ez zitzaion urbilketa ori lan erreza atera. Sel urte luzeko nasketa ta iskamillen ostean lortu aal izan zuan Erroma'ra or-

(lez kari ba<sub>t</sub> bidaltzea! Saritzat, Gregorio XVI'ak Urrezko Arrosa bidali zion Erroma'tik, eta Portugal'en ark —Erregiñak— izendatzen zituan gotzai guztiak onartu zizkion.

Mari ii'ak eta Isabel II'ak, biak, nai izan zuten Konkordato bat Aulki Donearckin egin. Lspañi'koa Lambruschini'ren extukeriek eragozi zuten. Portugal'ekoa ango liberalen kezka, bildur, eta txatxukeriek; Portugal'en askoz geiago zabaldu bait zan jende eskolatuaren artean Elizari oker begiratzen zion liberaltasuna.

Baiña bi Jaurerrietan tinko ziraun oraindik katolikotasunak erria-baitan, nekazarien artean beintzat, —ikusit dugu urietako erri xumea elizatik aldentzen asia zala\_\_ ; baiña bai Portugal'en eta bai Españi'n nekazaria zan orduan ia jende guzia.

(VII Pernando'ren erregetzari-buruz, ona zer dion GER iztegiak: «El reinado de Pernando VII est<sub>a</sub> actualmente sometido a una profunda reelavoraen. Los historiadores (salvo muy raras excepciones) han sido extremados en los juicios acerca del reinado, bien sea por partidismo o por desconocimiento *de* la documentacion. La revision que actualmente se lleva a cabo sobre esta época muestra una imaeja menos deforme y negativa, aunque todavia no es posible afirmar sino que flae mejor de cuanto se ha asegurado»).

Atsegiña zaigu beti, gauzak uste izan bezain okerrak ez dirala jakitea,



## ITALI ETA SUIZI

Elizaren Laterrietaz landa Itali'n ez zan liberaltasuna apaiz eta prailleen etsai. Erriko jendea berriz sakonki katolikoa zan. Ez ordea era berdiñean. Egoaldean Bi-Sizilietako Jaurerriko katolikotasuna, atzeratua, aldatueza, erri-  
-oiturretan oiñarritua, eta ekintza berrietarako irudimenik gabekoa zan bitar-  
tean, bizkorra, ausarta eta adoretsua bait zan iparraldekoa. Eta ori ber-bera  
gertatzen zala, esan daiteke, ekonomiaren arloan ere'

Biena'ko Batzarrak, bakoitza bene agintarien eskuetara itzuli zituan, ostera, Napoleon'ek ainbeste nardaskatutako italiar Laterri txiki aiek. Lombardi eta Benezi gelditu ziran Austri'ren mendean.

Agintari aiek danak, bakarragintzaille ziran. Gerturik zeuden Elizari lagun-  
tzeko, bazekiten bâ beren euslerik sendoenak eliz-gizonak eta Eliza izango  
zirala! Alatagutziz aski zaillak gertatu ziran, Agintari aiek Aulki Donearekin  
Elizako gauzak antolatzeko izan zituzten alkarrizketak; arras erregekerizaleak  
bai<sub>t</sub> ziran agintari aiek danak! 1818'an burutu zan konkordato bat Bi-Sizilie-  
kin; 1834'ean ostera Jaurerri berarekin; 1841 'ean, Zerdeña'rekin eta Modena'-  
rekin. Beste Laterrietan, Bulden bidez eratu ziran Laterriaren eta Elizaren  
arteko arremanak.

Gotzai-autaketa, agintariei eman zitzaien. Saldurik ez zeuden Elizaren on-  
dasunak, itzuli zitzaizkion Elizari, eta ondasun oiek len baiño obeki banatu  
ziran gotzai eta apaizen artean. Esku aundia eman zitzaion Elizari gaztediaren  
eziketari, politika-auzietarako almena ere («Status civilis») birreman zitzaion.

Pake-toki bezala agertzen ziran Laterri italiarrak España'tik zijoa bidaz-  
tiarentzat, baiña, pakearen altzoan, ari zan gudaren oñaztarria mardultzen:  
«Il Risorgimento», «Bir-Pizkundea»: Itali guztia zutik ipiñi zuan igikundea.

\* \* \*

Naasiago zebillen Suizi, eta ez antziña bezala protestalari ta katolikoan  
arteko eztabaidetan.

XIX mendean % 60 ziran Suizi'ko Kantoietan protestalariak eta % 40  
bakarrik katolikoak. Zalaparta bizian zebiltzan auek Birrezarketaren aroan,  
baiñan ez protestalariaren aurka, liberal iraultzalari «askatasunzaleen» aurka

baizik, eta, iskanbil aietan, katolikoak ziran, Euskalerrian bezala, erri-askatasunaren babesleak, ots, Kantoiaren askatasunaren alde zeudenak. An ere, Euskalerrian bezala, Kantoiaren Lege Zarrak birrinduta Laterri zentralista bihurtu nai bait zuten Suizi guzia, liberal «demokrazizaleek».

Esan dugu len ere, zentralista, erdirakoia, egin zala Iraultza Amerika'tik Frantzi'ra etorri zanean.

Frantzi'n Borboien ibil-bidera sartu zan Iraultza, eta Borboiek sekulan pentsatu ere egin ez zuten mugetaraiño eraman zuan zentralismoa. Arrezkero, Laterri guztietan Jaurlaritza «unitaire» edo «baterakoi» bat ipintzea izan zan liberalen asmoa, baita artarako, Robespierre'ren erara, indarra erabilli-bearrean aurkitzen ba'ziran ere. Ez dezagun aztu Maximilian Robespierre izan zala Borboien zentralismoa edo erdirakoikeria erpiñera jaso zuana. Baiñan, jardunbide ori ez zitzaigun Robespierre'ren kutizi utsa izan, Iraultzalari frantziar liberalen erraietan erroturik zegoan joera baizik. Orregaitik, ain zuzen, Robespierre jaurlaritzara igo aurretik, Iraultza asi zan bezain laister galdu zuten Laburdi'k, Benaparroa'k eta Zubero'ak beren Laterri-iaetasuna.

Suizi'ko liberalak berriz, Frantzi'koak bezala, Frantzi'ko Iraultzaren seme izaki!, zentralista porrokatuak izan ziran! Origaitik, aiek eskatzen zuten «birrezarketa», Frantzi'ko Kostitutzio arrotz ura ostera lege-egitea zan; Suizi indarrez menpean artuta frantziar iraultzalariek an ezarri zuten Kostitutzio ura berbera, ain zuzen!

Baiña Kostitutzio anker ura begien aurrean ikusi nai ez zuten egiazko abertzaleak ere bai bait ziran Suizi'n... , sortu zitzaigun an laterkide-arteko gudu baten arrisku larria. Biena'ko Batzarrak eragozi zuan borroka aren pizketa, Suizi'rako antolatu zuan Kostitutzio berri baten bitartez.

Erljioaren aldetik ez zuan akatsik Biena'ko batzarkidcek eraturako Oinarrri.-Lege arek, Elizari, ematen zion ba pakean lan egiteko bearrezkoa zuan askatasun osoa; baita're onezagutzen zion Elizari ondasunen jabetasuna: oraindik bere eskuetan zeuzkanena; an ere, beste lurraldeetan bezala, aberastasun aundiak ostu bait zizkion Frantzi'tiko Iraultza geldoak. Oroi, Amerika'n sorturiko Iraultzari Frantzi'k erantsi ziola Elizaganako gorrotoa!

A!, ta Suizi'n Elizari ebatsitako ondasun aiek ere, ezerezkeri baten truke salduak izan ziran aberats kontzientzigabeen onturrerako. Ez zitzaion erri xumeari sosik ere iritxi.

Biena'ko Batzarrak antolatu zigun baretasun aren giroan egin zan Suizi'lo elizbarrutien mugaketa berria, ango lurralde guztiak Suizi bertako gotzaien zaintzapean gelditu zitezen; atzerriko gotzaien menpeko izan ziran ba orduarte, suiziarrak ziran erriak ugari.

Gotzaiak izendatzerakoan asi ziran eztabaidak; Kantoi bakoitzak beretzako nai zuan bit gotzai baten bizi-leku izatearen ospea. Orrela, ekin andik eta ekin



emendik, katolikoek berak luzatu zuten, bear baiño geiago, gotzai berrien izendaketaren auzia.

Berriro iraultz-urte izan zan Europa'n 1830'garren urtea, eta iritxi zan Suizi'ko Kantoiatar iraultza aren bitsa, zalaparta aietaz baliatuaz Biena'ko Batzarrak eratutako Kostitutuzio ura ezereztu nai izan hait zuten liberalak.

Kositutuzio ura, federalista zan. Suizi'ko liberalak berriz, Frantzi'ko Iraultzaren zentralismoz kirastuta, Europa'ko beste liberalak bezala zero zentralistak ziran, eta Kantoiaren askatasuna deseginda Laterri zentralista «bakar» bat eratu nai izan zuten. Alperrikakoak izan ziran aien saiaketa guztiak, garaille irten hait ziran, beti Kantoiatar askatasunaren alde egon oi ziran katolikoak (1832).

Pozik zeuden katolikoak; batez ere Luzerna'n biziko zan Nuntzio baten izendaketa Aitasantuarengandik lortu zuten ezkerero. Baiñan, laister izanen zuten gainean gudua.

Ona, Suizi'ko Kantoiak gudara eraman zituan urratsen saila:

1834: Liberalen eskuetan zeuden Kantoiak, billera bat egin zuten Baden'en, eta 14 ataltxoko Arau bat osotu: «Baden'go Billerako 14 Ataltxoaren Araua», Suizi'ko Eliza Laterri-Eliz biurtzen zuana; oso-osoa erregekeriz anpaturik bait zegoan liberalen Arau ura, Frantzi'ko liberal iraultzalariena galikeriz anpaturik egon zan bezala. Esan dugu bñ Frantzi'ko liberalen tximu izan zarala baztar guztietan Europa'ko beste liberalak.

1835' Baden'go Billerako 14 ataltxo aiek gaitzesten ditu XVI Gregorio'k.

Luzerna'ko Kantoiaren jabe izatera iritxi diran libralek Nuntzioa bidaltzen dute uri artatik kanpora.

—1836: Inakitarrak Schwitz'eko Kantoiaren asten dira bizitzen.

—1837: Inakitarrak, Freiburg'eko Kantoiaren.

—1841: Libralek, indarrez, Argubi'ko Kantoiaren kentzen dicte katolikoei. Au zala dirudi, liberalen asmoa: indar guztiak bilduta, izkilluz Kantoi katolikoei bakarka ekin, eta Suizi osoa beren mendera eraman.

—1841: Ez dira katolikoak bildurtzen Argubi galduagaitik. Urte ontan bertan, oster katolikoek Luzerna'ko Kantoiaren jabe dira austeskundeetan, eta irikitzen dizkiete inakitarrari Luzerna'ko ateak, uri artako seminarioan eta Teologi-Istitutoan irakasle izan daitezten. Lentxeago, libralek, Josukristoren jainkotasuna ukatzen zuan Strauss ekarri zuten Alemani'tik, Luzerna'n teologia irakatsi zezan.

—1842: Biena'ko Batzarrak Kostitutuzio berriarekin batera ezarritako «Batzar Nagusi Federal» ura, liberalen eskuetan aurkitzen da orain, eta Elizaren aurkako aginduak ematen asten da. Bereala gaitzesten ditu agindu aiek XVI

Gregorio'k eta eskari larri bat egiten die katolikoei: «gaizkilleen buruetatik sortuak diruditen agindu aien» aurka ekiteko prest egon daitezten, alegia.

—Orain arte, geienbat politikazkoa izan dugu Suizi'n katoliko ta liberalen arteko borroka: Suizi'ko Lege Zarraren alde katolikoak, Kantoien askatasunaren aide; Frantzi'tiko Lege Liberalaren alde, besteak; Kantoien askatasunaren aurka eta Laterri «erdirakoi» baten alde. Amerika'n jaiotako Iraultzari Frantzi'k itsatsi bait zion zentralismuaren zornea! , len ere esan dugunez.

Emendik aurrera, ordea, Suizi'n borroka aren mamia erlijiozkoa izanen da. Liberalek sartu zuten erlijioa politika utsezkoa zan eztabaida artara.

—1842'tik 1845'era, gero ta geiago, gauzak gogortzen jua ziran Suizi'n. Katolikoek bi buruzagiak, Leu eta Mayer, «Batzar Nagusi Federal»etik jaurtiak izan ziran liberalen zipozkeriz; Leu, gaiñera, espetxean baitua.

—1845. Urte gogorra. Federalista katolikoek zeukaten Vaud Kantoieko agintaritzan, baiña indarrezko matxinada baten bitartez liberalek kendu zieten agintea.

—Argobi'ko eta Berna'ko liberalek, eta baita protestalariak ere, alkar arturik, gudarozte txiki bat bota zuten Luzerna'ko Kantoiera. Odhsenbein liberalen lendakariak zeramakian gudarozte aren zuzendaritza. Baiñan borrokan katoliko luzernatarrak izan ziran garaille.

—Liheral baten apentza: Jose Leu, Luzerna'ko politikalaria yagoa, ogean zegoalarik erailtzea.

—Sei Kantoiek, —Luzerna, Uri Schwitz, Unterwalden, Zug, Friburg, eta Valais, seiak katolikoak—, beren eskubideak babesteko «Sonderbund» izeneko konfederapen bat egin zuten.

—1847: liberalen eskueetan zegoan «Batzar Nagusi Federala»k legetik kanpo ipiñi zuan «Sonderbund» jaiotze-berria, eta iñakitarrak erbestera jaurtitzeko agindu zien kantoiei. Bere aginduei indar emateko 50.000'ko gudarozte bat osatu zuan.

Ler-zori zegoan gudua, katolikoek Batzar Nagusi ari ezetz erantzun zioten ezkerero. Saiatu ziran Metternieh, kantziller austriarra, eta Guizot, Frantzi'ko lenen ministro protestalaria, izkillukeri ura eragozi naiean; baiña lord Palmerston'en txatxukerien erruz, asi zitzaigun borroka. Iru asteren epean, katolikoak menderatuak izan ziran; «Sonderbund» konfederapena, deuseztua; Kantoi katolikoetako erlijiosoak, eta Lausana-Ginebra'ko gotzaia, Merilley, erbesterratuak; apaiz asko, espetxerratuak...

Zigorraldi artan, ordea, bizkortu egin zan Suizi'n Eliza. 1889'an iriki zituan bere ateak Friburg'eko universitateak eta 1903'an bildu zan Luzerna'n Lenen Katoliko-Batzarra. Gaur, ia protestalariak aiña badina katolikoak.

## ALEMANI

Arginkuntzak mundua demokrazira eraman aurretik, autokrazira eraman zuan aurrena; eta autokraziaren ondorio besterik ez dan erregekeri nabarmenera. Orixe izan zan XVIII mendeko Despotikeri Argitua.

Baiña ez zan Argikuntza autokrazian gelditu. Berak erein bait zuan, autokraziaren erraietan Demokraziaren azia. Orrela argikuntzaren semeagoa dugu Iraultza, —eta Demokrazia—, Autokrazia baiño. Ori, izan ere, izan genduan Iraultzaren elburua Ingländerrian, eta, geiago oraindik, Ipar-Amerika'n: autokrazia desagitea.

Tamalez, ordea, ez zan Iraultza Europa'ra Ameriketatik zuzenki etorri, Frantzi'a-zear baizik, eta Frantzi'k Iraultzari Borboitarren aroko autokraziaren eta erregekeriaren legena erantsi zion, batez ere Iraultza Frantzi'n Robespierre'ren esku odoltsuetara aurrena, eta Napoleon'en ankape basatira azkenean, jausi zan ezkerero.

Frantzi'tik iritxi zan Alemani'ra Iraultza, eta an, Inperioko lurretan, autokraziaren maillan aurkitu zuan oraindik Argikuntza, ez bait zan iñon Frantzisko II Austri'koa edo Federik Gillermo II Prusi'koa baiño agintari bakarr-agintzailleagorik izan. Eta aien antzekoak ziran Alemani'ko beste Printzipe eta Printzipetxo guztiak Erregekeriari dagokionez. Josepekeria eta Febronikeria, inperio-barruan sorturiko pipiak zirala oroitzea naikoa dugu.

Napoleon'ek eraman zuan, batez ere, Iraultza Alemani'ra; eta Printzipe eta Printzipetxo aientzat eredu gurena Napoleon izan zala kontuan artzen ba'dugu, errez ulertu ere aal izanen dugu, zergaitik Iraultzak Alemani'n autokraziari eta, batez ere, erregekeriari ain indar aundia eman zien.

Dizdiratsua zan, itxurean, frantziar iraultzalariak inperioaren barruan aurkitu zuten Eliza Katolikoa; 30 gotzai, beren laterri txikien Printzipe ziran: aidak sendia bezala baiña autokraziaren araura beren jendea gobernatzan zuten Printzipe aberatsak. Ugariak ziran konbentuak eta lekaidetxeak, eta ez noski txiroak; Abata batzuk ere beren lur eta jendeen Printzipe ziran: erregetxoak.

Ez ziran okerrago bizi kanonigoak «kolejiata» edo Kanonigotegi oparoetan. Kanonigo, abata, gotzai, eta beste elizjende garaiak, ia danak, «odol garbiko» jendeak ziran, aundikien semeak, aundikiro bizi, eta, jendearen aurrera, aundikiro agertzen ziranak.

Ortaz gaiñera, bazituan Elizak 20 Unibersitate; eta ikastetxe-pillo eder bat.

Iraultzaren aurreneko zartakoa elizgizonen Laterrien desegitea izan zan; Napoleon'en aginduz; bat ez gaiñeko Laterri aiek danak. Sarkaldeko Alemani'n, «Rin'eko Konfederapena» osotuko zuten lurraldeetan, Gotzai eta Abaten eskuetatik Printzipe sekularren eskuetara igaro ziran Laterri aiek. (Alemani'n ikusten zuanaz baliaturik, pozik bereganatu zuan Frantzisko II Inperatore katolikoak ere, Salzburg'eko Gotzaiaren printziperri dotore galanta).

Alemani'ko uri iare geienei ere orduan kendu zitzairen askatasuna (1802-1803).

2.630.000 katolikoek Printzipe berrien menpean ikusi zituzten orrela beren buruak, eta Printzipe berri oiek, geienak, lutertarrak ziran' Alemani'n lege zan oraïndik «cuius regio eius et religio» zion agindu zaar ura; baiña indar txit aundia izan bait zuan an Argikuntzal; ez zan iñor, Printzipeen artean, bere mendekoak agindu zar aren araura gobernatzen artera ausartu zitekeanik. Orregaitik, bere sinispidean lasaiki jarraitzeko eskubidea, eman zitzairen katoliko aiei'

Parrokiren batenak ez ziran Eliz-ondasun guzti aiek ere, Printzipe sekularrei emanak izan ziran, eta Printzipe auen eskuetan gelditu zan elizkizunen, apaizen, —eta konbentuak galtzean janbidetrik gabe gelditu ziran prailleen—, mantenua; baiña Printzipeek beral: neurtuko zuten laguntza orrek zenbait aïñakoa izan bear zuan.

Konkordato-egiteko saiaketak ere asi ziran, baiña berealaxe sortu zan korapillo zailla: Konkordato arek Alemani r uztientzat bakarra izan bear al zuan?, edo Laterritxo bakoitzak Elizarekin bere konkordatoa egin bear zuan?

Bakarraren aldeko zan, Alemani'n Napoleon'ek izan zuan morroirik otxarena: Karl-Theodor von Dalberg, maltzurkeriz eta tituloz, —Napoleon'ek emandako tituloz— betetako gizontxo, Maienrza'ko Gotzai Printzipea, aurrena; Ratisbona'ko Gotzai Printzipea gero, Inperioko Artxi-Kantzil(crra eta Alemani'ko Lenen-Gotzaia, azkenean.

Esan hait dugu lentxeago, batek ez gaiñeko Gotzai guztiek galdu zituztela Alemani'ko Salkadean beren printzipadutzak..., bâ, auxe izan zan «bat» ura, Kantziller izatera iritxi zanean ere, Napoleon'i eskerrak, Ratisbona'ko Printzipe izaten jarraitu bait zuan. Ain zuzen, bere burua Alemani'ko Eliz osoaren zuzendari egin nai zualako zen Dalberg au konkordato bakarraren zale. Baiñan ikusi zuan aren asmoa Consalvi —Aulki Doneko Idazkari— Kardenalak, eta gotzai doixtar aundikeri-gose aren asmo oiek ez betetzearren, Napoleon jausi arteraïño luzatu zuan diplomazi-jokuaren bidez Alemani'ko konkordatoaren auzia.

Ain zuzen, konkordato bakar ura bear-bearrezkoa egiteagaitik burura sartu lion Dalberg'ek Napoleon'i, Alemani'ko Laterritxo guztiekin Laterri indartsu

bakar bat osatzeko gogapena. Ala egin ere zuan Napoleon'ek 1806'an, «Sarkaldeko Germaniar Inperio Done Erromatarra» betirako deseginda, «Rheinbund» edo «Rin'eko Konfederapena» eraiki zuanean.

Autokrazi lodi aren kerizpean, mardul azi ziran febronikeria eta josepekeria, Alemani'ren egoaldean batez ere.

Febronikeria, Alemani'ren ego-sarkaldera Konstantza uritik zabaldu zan, Konstantza'ko Bikario Orokorra Konstanz-Tgnaz von Vessenberg izan bait zan igikunde aren eragille «argitua».

Itzegin dugu lenago gizon ontaz. Eliza-en maitale zan, baiña baita Erroma'ri-buruz kezkatua ere, «erromakeria» hait zan arentzat Elizaren gaitzik okerrena. Bere guraririk aundiena katoliko eta protetsnllarien alkartasunerako bideak erreztea izan zan.

Ori begien aurrean eukita, aisa ulertzen dira bere ekiñaldiak: Taureetxeetatik santuen irudiak kentzea, erri-jende landerraren eraspentak eta otoiz-moduak dabekatzeta, barau-egunak ezereztea, Mezan eta liturgi guztian alemanera erabiltzea, apaizak ezkondu aal izatearen eskatzea, «breviarioa» errezatzeko obligazioa ezahatzea, maiz-maiz, protestalarien mo, jura, katolikoei sinodoak eginarazi nai izatea...

Berak bete zuan irakasle razionalistaz Meersburg'eko seminarioa. Eta an azitako apaiz «besenbergetarren» bitartez, urrutira iritxi zan aren itzala, batez ere Alemani'ko burgesde liberalaren artean.

\* \* \*

Tosepekeriak Babiera'n izan zuan bere kabia. Miximilian IV'a zan ango Errege, baiña bere lenen ministroak, Montgelas'ek, zeukan egiaz agintaritzaz; eta onek bultzatu zion aurrera, Babiera'n, josepekeriari. Masoia zan bera.

Asko zabaldu zan Babiera'ko erreñua Napoleon'en denboran, bere mugen barrura sartu bait zituan ordurarte in Perioaren barruan Laterri iare izandako 6 gotzai-laterri, 12 lekaidetxeen lurraldeak, eta 5 uri, orrela bere biztanleak ia milloi hatcan ugarituaz.

Ainbeste azitako Babiera'n, Elizaren ondasunetan erruki-gabe sartu zituan atzaparrak Montgelas autokrazi-zaleak. Orrela igaro ziran Laterriaren jabetzaperan 7 «kolegiata» edo «kanonigotegi», 71 lekaidetxe, 28 lekaimetxe, eta 80 prailleen konbentu. Uskeri baten truke saldu ziran Elizari ehatsitako ondasun guztiak, eta, an ere, neurrik gabeko balioa zuten erti-lanak ugari galdu ziran betirako; urrezkoak edo zillarrezkoak ziranak, batez ere. Asko eta asko, urtu egin hait ziran!

Indarrez sekular biurtutako lekaide-lekaimeak, bizi-sari txiki batekin beren gurasoen etxeetara bidaliak izan ziran geienak; eta, argitsuenak, Montgelas'ek berak zuzendu eta zaintzen zuan Irakaskintzako Ministerioaren ikastoletan ipiñiak. Apaizen cziketa, eta sagaraketa bera, Laterriaren eskuetara aldatu ziran; apaizgaiei, lutertarren teologia ere ikasteko eskatzen zitzairen. Eman zitzaion. Laterriari, Eliz-karguetarako eskubidea. Eta ba ta, jakiña, eman zitzaion Laterriari, Aitasantuagandiko dokumentu guztiei Babiera'n sarrera eragozi zezaien «Plaet Regium» izeneko aalmen trakets ura'

Napolcon'en «kodigo» edo «legedia» artu zan Babiera'n eredo. Ala izan ziran iare utziak ezkontza-austea, ta, batere baldintzarik gabe, sinispide ezberdiñeko senar-emaztegaiei arteko ezkontza' Tose II'aren antzera, parregarri egin zuan azkenean Montgelas'ek etc here burua, asi hait zan zer ordutan mezak eman zitezkean erabakitzen, ezkillak noiz jo eta noiz cz jo agintzen..., ibildeunak nola eta noiz egin zitezkean zezaten, pulpittutik mirarietaz itzegitea debekatzen...! Galerazi zuan eguberrictan jaiotza ipintzea bera..!

«Protestalarien Laterriak baiño okerrago dabil Babiera katolikoa» ots egin zion alperrik Pio VII'ak ango Errege Maximilian IV'ari.

¡Ez zebiltzan, bâ, goxoak agintari protestalariak ere beren Laterrietan...!

Prusi'n, Baden'en, Wuirtemberg'en batez ere, ondo loturik zeukaten agintariak Eliza. Len ere Napoleon berak atera bear izan zuan Baden'go Elizaren alde, «katolikoak ez zizkiola morroitzat eman» ango Duke Nagusiari aurpegiara botetaz.

Amar urte zeramazkian, egoera negargarri ortan, kristautasunak Alemani'n, Napoleon jausita «Biena'ko Batzarra» bildu zanean. Ez zan polita une artantxe Alemani'ko Elizaren itxura:

Ogei ziran Rheinbund izandako lurraldean elizbarrutiak, eta ogei aietatik seiak bakarrik zuten beren gotzaia, eta sei gotzai oietatik bost, 70 urtetik gorako agureak ziran; kanonigoen kapituloak jenderik gabe aurkitzen ziralako, gotzai berrien autaketak egiterik ez zegoan; apaizak oso urri ziran, eta, urri aietatik asko, teologi garbia erakusten ez zuten irakasleen artean eziak. Eta, ortaz gaiñera, lanerako eskuak lotuta zeuzkaten apaiz pittin aiek agintari protestalari, erregekeri-zale, edo sinisgaheen mendean; amar urte aietan igo hait zan Argikuntzako razionalisten eta sinisgabeen adarra bere erpiñera; Ez zan seminariorik apaizgai berriak prestatzeko; ez zan praillerik ere apaizei laguntzeko, konbentu guztiak izan bait ziran itxiak.

Orduan zegoala bere gaillurrean arrazoikeria, esan dugu. Eta orrela da. Baiña Arrazoi-Utsaren-Gurketa orren giroan, bizkorki sortu zan Alemani'ko kristaudi osoan teologi aratz bat berriro eraikitzeko guraria. Lutertarren artean egoki izan egin zuten arlo ortan «Eudemonitarrak» esan zitzairen «artzai» eta sekularren taldeek. Baiña katolikoien artean izan zan dizdiratsua, batez ere, Sailcr, Liebermann, Overberg —eta Biena'n I Iofbauer— zuzendari izan zituan birpizkundc bikain ura.

Gaiñera, aurrera zijoan edestiaren ibillera-ta, etsai gogorra jeiki zitzaion aurrean Alemani'ko argikuntza legorrari Erromantikera. Eta «era» berri garaille ori, berak nai gabe, katolikotasunari indar ematera zetorren'

Erdiaroaren maitale zan Erromantikera; gaiñera, erdiaroan ikusten zuan Alemani'ren aunditasuna. Germani'a izan bait zan erdiaro artan «Sarkaldeko Inperio Errornatarraren» enborra. Eta erdiaroko Germani aundi eta aintzagarri antan alemaniarren Irakasle eta Zuzendari nagusia ta bakarra Eliza Katolikoa izan bait zan, modako egin zan orain Alemani'n ka`olikotasunaz ondo itzegitea. Modari jaramonik egin gabe, uste osoan, eta gogotik zuzenenarekin, jeiki ziran Eliza Katolikoa goratzen, une artan Alemani'ak zituan idazlerik vaoeneta-ko batzuk: Stolberg Grn res, Sehlegel...

Biena'ko Batzarrak, «Alkarte» batean Alemani'ko Laterriak bildu zituan, «Germaniar Konfederapena» izeneko Alkartean, eta Austri'ko Frantzisko II'ari eman zion Alkarte orren Lendakaritza'

Bazekian Consalvi'k, Biena'ko Batzarrean «Sorkaldeko-Erromatar-eta-Germaniar-Inperio-Donearen» berbizkundera alperrik eskatzen zuala, Elizari ostutako ondasunen itzulpena ere alperrik eskatzen zuan bezala. Eliza legezko protesta edo osteketa bat egin bearrean aurkitzen zala usterik, egin zituan bi eskari aiek.

Laterri alemaniarretan, Prusi zan orain indartsuena; eta, bere nagusitasuna bestei ezarri naiean, Alemani'ko Laterri guztientzako konkordato bakar bat egitearen aldeko agertu zan Biena'ko Batzar artan' Konkordato bakar orren aldeko ziran baita Dalberg eta Wessemberg erdi-zismatikoak ere; eta Consalvi bera'

Baiña Alemani'ko katoliko zitzoek, Erroma'n gelditu zan Pacca Karde-nalak, eta Biena'ko Hofbauer Doneak, aisa ikusiarazi zizkioten Consalvi'ri Alemani'ko Eliza Prusi'ren atzaparretan, eta Prusi'k babesten eta indartzen zituan Dalberg eta Wessemberg bezalako gizon batzuen eskuetan ipintzeak eka-rriz zezazkean ondorio gaitzak. Gaiñera, Hanover'ko ta Babiera'ko Erregeek, Prusi'ganako kezka, konkordato bakarra ez bait zuten begi onez ikusten, errez baztertu aal izan zuan Consalvi'k diplomazirako zuan azkartasuna-bi-tartez konkordato bakarraren auzia. Gero, Austri'ren bildurrez, Prusi bera ere Konkordato bakarraren etsai agertu zan azkenean! Ez bait zan garai aie-tan iñor iñorekin fiatzen.

Gauza bat bakarrik egin zuan egoki erlijio-arloan Biena'ko Batzarrak: Or-durarte «Erljio-Bakarreko-Laterri» ziran Alemani'ko errialde aiek, «Erljio-Danentzako-Berdiñak» izanen ziran. Laterri bakoitza: «Paritatischer Staat» izanen zan. Izena, bai polita. Bestelako gerta zitzaigun, orde «izana»; aurrena, Agintari Protestalariek zentzurik gabe Eliza lardaskatzera sartu ziralako, eta gero, Agintari protestalari aietako bakoitzak, bere Laterriko biztanle danak erlijio batera eramai-) nai izan zitualako: lutertasunera; edo kalbintasunera.

Egia da Lliza lardaskatze ortan, erregekeriak artara eramanda, Agintari katolikoak ere ez zirala motelak izan; baiña Agintari protestaalarick bazuten ortarako beste arrazoi sakonago bat: Elizaren buru zirala uste izatea, Laierriko Elizaren Nagusi guren ezarri bait zuan Luter'ek Printzipe bakoitza. Ez noski izenez; bai ordea izatez, naiz berak agian orrela nai ez,

Eliza katolikoak, ordea, ez hait zien aiek nai bezala bururik makurtzen, poliki-poliki katolikotasuna protestalari egiten pentsatu zuten, aurretik protestalariak berak, —lutertar eta kalhindar oro—, indarraren hidez hatasunera eraman ondorean. Asmo orr; k'n osotu «Landerkirehe» izeneko «Laterri-Elizak».

Bazuan Prusi'k beste arrazoi bereizi portitza Erljio-Batasun ori gura izateko: Prusiar Taurerriaren Politika-Batasuna egin nai izatea.

Asko aunditu zuan Prusi Biena'ko Batzarrak; baiña, eman zion lurralde herriko jendea, katolikoa zan, Alemani'ko katolikoena: Rin-Araneko jendea.

Bazituan lendik ere katolikoak bere barruan Prusi'ko Jaurerri protestalariak. 1730'ean Austri'ko gudaren ondnrnan Si<sup>1</sup>esi artu zuan ezkerro, eta, jeroago, 1772, 1793, eta 1795'ean Poloni'ri puska g'lantik lapurtu zizk'on ezkerro; errialde aietako biztanleak oso katolikoak bait ziran. Baina orain hereganatu zuan lurralde zabalak, Renani'ak, arazo berrla sortzen zion. Renani izanen zan, emendik aurrera, Taurerriko zatirik abratsena, jakintsuena eta anrreratuena, haiña Prusi zarretik hereizita zegoan, tartean bi Laterri iare, 1 Tannober eta Hesse, zeudelako. (Tintez, Laterri irukoitza zan endun n'liesse).

Alkar ukitzen ez zuten Taurerriaren mati biak bateratzeko, Federik Giller-mo TII Erregeak, erlijioaren batasuna egiteari indar ematea pentsatu zuan; bestela, Prusi Alemani'ko errialdearil protestalariena izanik, eta Renani berri-z katolikoena, Jaurerriaren batasuna arriskuan ikusten hait zuan. Tzaeraz ere, iain hait ziran ezhediñak, bi pusketa aiek! Tsillak, estuak, aristokrazi-koiak, nekazaritzatik hizi ziranak, prusiarrak; Alaiak, irikiak, demokrazizaleak, burgesitarrak eta ola-gizonak, renatriarrak. 6.370.000 ziran Taurerriko protestalariak; Baiña 4.200.000, katolikoak. Geiegi, Erregearen iritziz.

Federik Giller-mo TII'a ere bazan naikoa bera bakarrik beste arrazoirik gahe, erlijio-asmaketara gustora sartzeko; Gizon garbia zan eta zintzoa, benetan Jaungoikoia, baina gogapen larri eta moralitate estukoa; bazuan mixtiko-ttantta bat ere, prusitarren siniskera zuzendu eta zaintzeko Jainkoak aukeratu zuala, benetan uste izan hait zuan. Ikusi dezakezunez, Errusi'ko Tsar Alexander Taren alboan «Alkarte Doneko» Errege egokia izateko bazizun gaitasunik aski.



ITermes izan zan denbora aietan Prusi'ko Erregeentzat teologilari kuttuna, batasuneko lan ortarako, Kant'en bideetatik jarraituaz, erlijioa sentipen Lits egiten bait zuan berak ere.

Sentipen uts, biotzaren igikunde. Ez zuan Hermes'ek arrazoia aintzat artzen, ez zuan Graziarik aipatzen, ez zan giza-naimenaren askatasuhaz mintzatzen. Katoliko eta protestalarien arteko eztabaidarik latzenak guztiro baztertzen zituan ezker, Hermes'en teologia zan Prusi'ko Erregeen ustez, lutertar, katoliko, kalbindar, ta beste elizatxo protestalariak, danak, batera erakarri zezazkean teologia. Ala biurtu zuten «ermestasuna», Laterriaren teologi Federik Gillermo II'ak eta VI'ak. Baiña ez zan azkeneko au teologiaren larre garaietan gelditu'

Protestalariekin asi zan aurrena: Kalbindarrei eta lutertarrei, berak asmatu zuan «Laterri-Eliz» batera biltzeko eskatu bait zien' Protestalariak ez diete beren Elizei katolikoek bereari dioten leia, eta guk baiño errezago aldatzen dute beren artan Elizaz. Orregaitik emeki makurtu zuten burua Prusi'ko aiek erregearen eskarira. Baiña ez danek. Izan hait ziran gizonki jokatu zutenak. «Laterri-Eliz» artan sartzeko, talde berri iare bat osatu zuten auek: «Lutertar Zarren» talde edo sekta.

Samiñagoa izan zan katolikoek Errege sasi-profeta ari eman zioten erantzuna. 1817'an asi zan ura katolikoak menderatu naiean, eta asi zitekean biderik okerrenetik gaiñera: gotzai katolikoak protestalarien «Kontsistorio» edo «Batzar Nagusiaren» mendean ipintzea gogoratu hait zitzaion.

Naiko lanarekin kendu zioten bururik asmo ori Errege beraren aide ta Ermland'eko Gotzai Printzipea zan Jose von Hohenzollern'ek eta Handenberg Prusi'ko Kantzillerrak. Azkeneko au Jainkoagaitik kezkatzen ez diranetakoa zan; emezortzigarren mendearen Argikuntzatik sortutako, «Jainkoaz deus jakiterik ez dagoala» aitortzen zuten eszeptiko patxadatsu aietako bat'

Baiña politikalarri ernea zalarik, ikusten zuan ia Laterriaren erdia —erdi-rik aberatsena eta azkarrena gaiñera— osotzen zuten katolikoekin kontuz ibilli bearrean zegoala. Aitasantuarekin ere izenpetu zuan Itun bat Eliza-ta-Aulki-Donoa-arteko auziak zuzentzeko.

Itun orrek zionez, kanonigoek aukeratuko zituzten beren elizbarrutieta-ko gotzaiak Prusi guztian, baiña Erregeak emanen zien aukeratuei azkeneko onetsia' Seminario, kanonigotegi, eta jauretkeen mantenua, Laterriaren kontura izanen zan.

Eman zion Erregeak bere baiezkua Itun oni eta egin zuan bera Jaurerri-ko lege (1821); baiña, ez, Jaurerriko lege egindako Itun artan agintzen zanik bete. Prusi'n Eliz guztiekin Eliz bat, —bere mendeko Eliz bat—, egitea garrantzi geiagoko gauza iduritu bait zitzaion nunbait, Itun bateko itza leialki betetzea baiño. Ikus Prusi'ko Elizaren gurutz-bide latza:

—Apaiz katolikoak, «Gurketa-Zuzendaritza» protestalariaren menpean ipiñiak izan ziran; eta egin zitzairen, menpetasun ortan, txarkeririk aski.

—Iñoren baimenik gabe ostu zizkion Laterriak Elizari Silesi'n parroki-eliz asko, protestalarien jauretze biurtzeko. Parroki-eliz edo jauretzeak ez eze «parrokiak» berak erakunde lez, au da, «Parrokitzak» ere ezereztu zituan.

—Ama katoliko eta aita protestalariagandik jaiotako aurrak, protestalariak izan bear zutela agindu zuan 1803'ko lege batek. Silesi'rako emana izan zan, batez ere, lege ori, lurralde ura len-bait-len lutertar egiteko. Jaurlaritzak ar-bidaltzen zituan gizonak, —gudarozteko jendeak eta laterriaren karguetako jendeak—, protestalariak izaten ziran. Gizon auk neskati silesiar katolikoekin eskontzen ziran. Ezkontza auen umeak protestalari egitea, Silesia protestalaritzara eramateko bide egokia zan.

Apaizak isilik makurtu ziran Erregearen agindura. Baiña 1825'ean Silesi-rako emandako agindu ori., Jaurerri guziko lege egiña izan zan, eta orduan asi zan «erlijio ezberdiñeko ezkontzen» gudu isilla, Renani'ko apaiz geienak aurpegi eman bai, zioten Erregeari. Uxtelagoak izan ziran gotzaiak, eta zer egin ez zekitela, Aitasantuari bota zioten nekea. Pio VIII'a genduan urte aietan Aitasantu, legedilari yavoa; eta, bai legizti aldetik, bai diplomazi aldetik, trebea izan zan 1830'ean eman zuan erantzuna.

«Zugurtasunaren mugaraiño eraman zuala bere ongi-naia Pio VI II'ak», esanera du onen ondorengo Gregorio XVI tomista txorrotzak, «mugaraiño iritxi zala, eta pausorik txikiena, bat bakarra, geiago aurreruntz eman halo, muga urratuko zuala».

Ona «Erantzun» aren mamia:

Elizak ezkontzetarako eman dituan legeak zuzenak dira, eta apaizak ez dezakete lege oien aurkakoa daitekean gauzarik egin: «EGIN». Baiña ezkontza batean zerbait «egitea», ta ezkontza ortan «ezer egin gabe» «EGOTEA», ez omen dira berdiñak. Eta gaitz aundi bat eragozteko, berez pekatu ez dan gaitz txikiago bat jasan bait daiteke, zillegi omen zaie apaizei, Erregearen aginduaren araura egindako ezkontza oietan «ezer egin gabe», «passive», EGOTEA, «aundiak izango omen bait lirake bestela, Elizari Erregearen asarreak ekarriko lizkioken gaitzak». «Passive»: zirimoniarik egin gabe, otoi-tzik esan gabe, senargaiei baiezkorik eskatu gabe, onespncnik eman gabe. Ezkongaiak berak egin bezate alkarren eskeintza, entzun beza apaizak eskeintza ori, idatzi beza bere aurrean egin d'ana Elizako liburuetan... eta kitto!

—Ezkontza «motza» iruditu zitzaion orrelako ezkontza Federik Gillermo III'ari, eta, asarre, ez zion Pio VIII'aren «brebeari» Alemani'ra sartzeko «plaeet» edo baimenik eman. Aitasantuarekin konponketa bat nai zuan. Baiña Gregorio XVI'a zan orain Aitasantu, eta Gregorio XVI'arekin ez zegoan konponketarik.

—Gotzaiak zirikatzen asi zan orduan Erregea' Ustelak izan ziran osteraren Renani'ko lau Gotziak, danek izenpetu bait zuten isillean, Erregeak asma-tutako «ezkontz-era» berri bat: Pio VIII'ak agindutako «ezer-egin-gabe-egote» uts ura baztertzen zuan «era» Koloni'ko Goigotzaia, Spiegel, izan zan gotzai aul aien aitzindari. Isilean ibilli ziran Gotzaiak eta Erregea, Aitasantuaren bildurraz, baiña jakin zuan Gregorio XVI'ak aien ibillera, ta".

Baiña, uste gabea, Spiegel il zan. Aren ordezkari Klemente Augustus von Droste zu Vischering izendatu zuan Goigotzai Koloni'ko Kapituloak Erregearen eskaria entzunaz. Eta Gotzai onek kendu zion Aitasantuari Kanon-legearen tximistak Alemani'ra jaurti bear izateko nekea. Jendearen ustez eta Erregea beraren ustez, izena luzea zuan bezain motza zuan Gotzai onek adorea, agure xaar bait zan gainera, baiña benetan irten zan adoretua. Gaitzetsi zuan, isillean izenpetutako «ezkontz-era» zoritxarreko ura, eta Pio VIII'aren agindua kosta-ala-kosta betetzeko agindu zien bere apaizei.

—Ez zan txikia izan Federik Gillermo III'aren asarrea. Koloni'ko goigotzaigoa uzteko agindu zion. Ezetz, izan zan Goitzaiaren erantzun laburra, eta kementsu joan zan espetxera Erregeak Minden'go gazteluan itxiarazi zuan. Damutu bear zitzaion Erregeari, egindako «napoleonkeri» zipotz ura...! Baita Koloni'ko kanonigo txatxuei ere, auek, Erregearen bildurrez bere Goigotzaiaren aurka irten bait ziran.

—Arriturik begiratu zion Alemani guztiak Gotzai bikain ari' Arriturik eta pozik katolikoek. Gurreres idazle apain txorrotza laister zan kalean «Athanasius» izeneko idaztiño dizdiratsu batekin. Izan ziran uri guztietan Gotzaiaren alde eta kanonigoen aurka jende-agerkunde edo manifestazioak. Jeiki zan Silesi'a ere; ta jeiki ziran Silesi'ko apaizak, eta itz eman zuten, apaiz euek, aurrerantzean ez zutela, ordurarte bezala Kanon-legearen aginduen aurkako ezkontzarik egingo. Altxa zan Poloni'ri kendutako lurretan zegoan Posen'go Dunin zeritzan Gotzai, eta agindu zien bere apaizei auzi orotan zalan-tzarik gabe Aitasantuaren aginduetara egoteko. Espetxera jaurti zuan Gotzai au ere Errege zapuztuak.

Baiña laister zuan mundu guztia zutik bere aurka, mundu guztiari aldarrikatu bait zion Gregorio XVI'ak Prusi'n zer gertatzen ari zan: «urraturik Elizaren askatasuna, iraindurik gotzaiaren aintza, Jainkoagandiko almen gurena Jainkoaren ordezkarietara ebatsia, Aulki Donearen eta Aitasantu berberaren eskubideak ezezagutuak eta ankapetuak» aurkitzen zirala Jaurerri artan, alegia.

Urrutira iritxi zan Gregorio XVI'aren otra 1840'ean' Kontzilioan bildurik zegoan Ipar Amerika'ko Elizak bidali bait zien Baltimore urrunetik, ia sei urte espetxean zeramazkiten bi Gotzai martirietara kristaudi gaztearen agur maitekorra. Baiña mundu guztiko protestak baiña ederragoa dana, Prusi'ko Gotzai danak jarri ziran Aitasantuaren alde. Bat ez gaineko danak, bat ori,

Erregearen adiskide miña **hait** zan; katolikotasunatik geroxeago protestalari-tzara igaro zana.

1840'ean il zan III Federik Gillermo. Zorionez, Errege berria, 1 V Federik Gillermo beste tankera bateko gizona zan: onbera eta liberala. Bereala askatu zituan espesxetik bi Gotzaiak, eta agertu zuan Aitasantuarekin pa-keak egiteko guraria. Gerturik zegoan ortarako Aitasantua ere, eta bere nai ona Erregeari agertzearren, espesxetik atera berria zan eta Alemani katoliko guztiaren onenak jasotzen ari zan Koloni'ko Goigotzaiari, berak **bene** boran-datez Koloni'ko eliz-barrutiaren agintaritzza uzteko eskatu zion. Errege berria, agian, protcstalrien asarretik gordetzeko? Diplomazianen izkutuak!

Kementsua eta onuragarria izan zan baiki Clements-August von Droste zu Veisehering, Erregearen aurrean. Kementsuago eta onuragariagoa izan zan orain Aitasantuaren aurrean, tutik esan gabe laga **hait** zuan bere kargua, Gregorio XVI'ak ipiñi zion gotzai laguntzaille baten eskuetan. Titulo utsa-rekin gelditu zan Gotzai zar onuragarria, eskubide guztiak Gotzai laguntzai-lleri eman bai, zizkion Aitasantuak. «Antziñako Moises ara bezala joango naiz bakardadera, eskuak zerura jasorik, nere err:aren alde otoiz egitera» zion berak, agur-egiteko, eliztarrei idatzi zien eskutitz pastoral batean.

Edestilari guztiek diotenez, Gotzai zarraren izaera aristokrazikoiarentzat samiñagoa izan omen zan askoz Aitasantuagandik etorri zitzaion illunperatubearra Erregeagandiko katepetubearra baiño,

Urrengo urtean (1841) itun baten bitartez osoro konpondu zuan Erre-geak Prusi'ko Elizaren egoera.

Ona konponketa orren atalik garaienak: Askatasun osoa gotzaiei, Erro-ma'rekingo artuemanetarako; Kanon-Legea, ezkontza guztietarako; Hermes'-en dotriñak, unibersitateetatik baztertuak.

Geroxeago, Erregeak, bere kasa, «Zuzendaritza» berri bat eraiki zuan gobernuan, katoliko utsez osotua, Eliza Katolikoaren auzietarako: «Katho-lisehe Abteilung».

Andik urte batera amaitu zan, —erdiaroan asita—, Koloni'ko Katedrala, eta an zan, pestan, IV Federik Gillermo, eta an zan, bere alboan, Biena'tik jaietara, Austri'ren omena Alemani'ko ezkeintzeko etorria, Metter-nieh Kantzillerra. Bide luzea Napoleon'en denborako doakabetasunetik, 1842'-ko gaillur dizdiratsu ontaraiño Alemani'ko Elizak egin diguna! Baiña Ale-mani'a ez zan Prusi'a bakarrik. Ikus ditzagun beste Laterrietan Elizak izan-dako neke, ta, egindako lanak.

Rin ibaiaren araneke egoaldean, katoliko asko zituzten Laterrietan Prin-tzipe protestalariak ipiñi zituan Biena'ko Batzarrak.

705.000 ziran Baden'en katolikoak 317.000 protestalarien aldean; 168.000 Ilesse-N'assau'n, 252.000'en aldean; 157.000 Hesse-Darmstadt'en, 499.000'ren alboan; 102.000 Ilesse'ko Autarierr;an, 476.000'ren alboan; 145.000 Würtcnlerg'en 988.000'ren alboan.

Febronikeriz beterik zeudelako, 5 Laterri auetako Printzipe protestalariak, ez ziran Consalvi'rekin konkordato bat egiteko konpondu. Lege bat eman zuten orduan bosten artean, Erroma'rik gabe Eliza Katolikoaren bizitza beren Laterrietan eratzeko: «Kirchenpragmatik»: «Eliz-Pragmatika» edo «Eliz-bizitz-Araua», AVessenberg'ek asmatua zirudian «Araua».

Bost Gotzai ipiñi-berriak zituan Pio VIII'ak bost Laterri aietan. Laterri bakoitzean, bat. Bat, gotzaiaren ;tuetaketa iPrintzipeari ematen zion Printzipeek asmatutako «Kirchenpragmatik» arek!

Pio VIII'ak zalantzarik gabe «Eliz-Araua» ura gaitsetsi zuanean, larritu zan Baden 'go Duke Nagusia; (protestalari baiño askoz katoliko geiago hait zituan berak Dukatterian), eta ekarri zituan Wiltemberg'eko Erregea, Hesse'ko Printzipe Autaria, eta beste bi Ilesse'etako Duke Nagusiak jarduera zuzurrago hatera• eia burutu aal izan zan, eztabaida askoren ondorean, goztaien autarketa kanonigoen kapituloen eskuetan ipin tzen zuan Itun bo<sub>t</sub> Erroma'rekin. Ala ere, ematen zitzaion Printzipe bakoitzari gotzai aukeratuei «betoa» edo «ezekoa» botatzeko eskubidea, aukeratu ura «asko konbeni» ez zana zala iduritzen ha'zitzaion.

Ez zituan, Pio VIII'ak bulda baten bidez lege egindako Itun arek gauzak i onpondu; bizirik jarraitzen bait zuan Printzipcen erregekeriak. Eta, «Kirchenpragmatik»a, lege izan zan ostera. «L.andesherrliche Verordnung» edo «Laterri-Buruek-A<sub>t</sub>ndutako-Frabidea» zeritzan erabaki baten birtartez (1830)'

Printzipe aiek protestalariak ziran. Ez da, beraz, arrigarria, Printzipe aiek Eliza Katolikoan eru, Eliza Protestalarietan agintzen zuten bezala agindu nai izatea. Agindu-nai orrek eraginda, iritxi ziran ondo gauza parregarrietara:

—W rtemberg'eko Erregeak, berak izendatu nai izan zituan parrokoak; Igande ez ziran jai guztiak kendu zituan; Santuen kutun eta erliki guztiak baztertzea erabaki zuan; eta aitorketako sakramentua ere nola egin bear zan erakutsi nai izan zien apaizei, pekatariet zer pekatu egin zituzten eta zenbat aldiz galdetzeke, bere buron pekatari aitortzen zuan guztiari, geiagoko xecetasunik gabe barkamena emateko aginduaz.

Baden 'go Duke Nagusiak, Jaurlaritzak aurretik irakurrigabeko legerik agitaratzea galazi zion Friburg'eko Goigotzaiari. Gaiñera Württemberg'eko Erregea bezala, bera asi zan parrokoak izendatzen.

Hesse-Nassau'ko Duke Nagusiak lutertarren seminariora eraman nai izan zituan apaizgai katolikoak...

Kalte aundia egin zioten febronikeri auek lur eder apain aietako Elizari; Baiña baita onik aski ere, esnatu bait zuan katoliko sekularren kontzientzia, Apaiz-jendeek Elizaren alde ekiterik ez zutelako, sekularrek artu zuten beren gain ekintza ori. Baden'en, Friburg'eko Unibersitateko Irakasle bat, Franzisko Jose Buss, izan zan «Katoliko Ekintza» aren aitzindari. Bildu zan Baden'en katoliko sekularren lagunarte bat Elizaren alde lan egiteko. Laister zabaldu zuan inguruko Laterrietara aurrena, eta Alemani osora gero, urduritasun osasungarri ura, Baden'go lagunarte arek argitaratzen zuan «Siiddeutsche Zeitung» edo «Ego-Alemani'ko Egunerokoak»

\* \* \*

Ikusi ditugu Babiera'ko Jaurerrian Montgelas'en josepekeriaren erruz gertatu ziran okerrak. Ministro au jausi zan bezain laister egin zan konkordato bat an: gotzaien izendatzea eta baita parrokoena ere Erregeari ematen zion konkordatoa (1817). Ordaintzat, Erregeak artzen zuan seminario, kanonigo, gotzai, eta, —erakuskintzarako bearrezkoak ziralako—, berriro Jaurerrira ekarriko ziran erlijioso batzuen mantenua.

Ez zitzaizkien azkeneko ataltxo auek razionalistei eta protestalarietsegiñak izan. Protestalariak berriz asko ziran Babiera'n une artan: 1.070.000: katolikoan erdia; 2.499.000 bait ziran auek, katolikoak—. Batez ere beste ataltxo onek kezkatzen zituan katoliko ez ziran babieratar guztiak: «Jaungoikoaren naiaz eta Kanon-legearen erabakiaz, Eliza Katoliko Erromatarrek berebereak aitortzen dituan eskubide eta abantail guztiak, ezagutuak eta babestuak izango zaizkio Babiera'n».

Katoliko integristen zigorrari zioten bildur katoliko ez ziranek.

Protestalari eta liberalen kezkek baretzeko, Napoleon'en «Ataltxo Organiko» aien antzera 1809'an asmatuiko «Religionsedik» edo «Erljio-Agindu» zarra, atera zuan, atzera berriz argira Jaurlaritzak; eta Konkordatoa ta josepekeriz loitutako «Religionsedik» berbiztu ura 1818'ko Kostituzio berriarren zati egin zituan' Baiña orduan, gotzaiek, ez zutela kostituzio amaitu-berri ura ziñatuko, jakiñarazi zuten'

Asarre zegoan Pio VII'a ere, berari ezertxo esan gabe egin bait zuan Babiera'ko Jaurlaritzak erregekerizko ataltxo aien eransketa.

Consalvi'k askatu zituan korapilloak iru urteko mintzaketa zailen ondo-rean, asmo onez beterik zegoan Maximilian IV'ari «Azalpen» bat argitaratzeko eskatuaz: «Tegernsee'ko Azalpena».

Kostituzioari ziñ egiteak ez zuala erlijiozko gauzetan kontzientzirik Jozten, jakiñarazten zion erri guziari «Azalpen» arek.

## INGLANDERRIA

Asko ikasi zuan Inghlanderriak, Iparramerika'ko Iraultzakoan, borroka eta, borrokarekin batera, Laterri Alkartu jaioberrietako lurraldearen nagusitza gal-tzearekin. Inghlanderriak koskorreko artatik jaso zituan ikaskizunak berriz, emari ederrak ekarri zizkion XVIII mendean bertan Elizari.

Lenen emaria, 1778'ko «Catholic Relief Act» edo «Katolikoan Iaregin-tzarako Erabakia», izan zan; eta bigarrena, 1791'ko «Public Worship Act» «Gurketa Nabariari buruzko Erabakia».

Bi erabaki oiek eskubide auker ematen zizkieten katolikoei:

—Tratuak egin eta izenpetu aal izateko eskubidea.

Erentzien bitartez ondasunen jabe izatera iristeko aala'

Lurren jabe, kondiziorik gabe, beren buruak egin aal izateko almena.

Abogadutzan lan egiteko baimena.

Ikastolak iriki aal izatea.

Kendu zitzairen gainera Erregea Elizaren burutzat artzen zutela, edozein gauzatarako zinegitera beartzen zituan legea.

Orrela, «anglikandar ez ziran protestalariak» bezala gelditzen ziran katolikoak; «dissidents» aiek bezala. Ez zuten oraindik iru toki auetarako sarre-rarik: Unibersitateetarako; La terriaren karguetarako; Parlamenturako.

Ez zuten, ezta're, apaiz katolikoek, Laterriaren legearentzat baliozkoak zitezkean bataio edo ezkontzak egiteko almenik izango. Apaiz katoliko batek ezkonduetako senar-emazteak, ez ziran legearentzat senar-emazte.

Emezortzigarren mendearan 60.000 bakarrik ziran katolikoak Inghlanderrian, lau Apostolutza-Bizkarioen menpean; 380 bakarrik apaizak. Meza, erdi-ixillean, enbaxadategietan, edo aristokrazitar katolikoan jauregietan, eman oi zan; Bildur geiagorekin eta urriago, katoliko landerren etxe-barruetan. «Ez ziran kristau bakar aiek Eliza katoliko bat, ez ziran komunitate katoliko bat ere; sinisle bakarti batzuk besterik ez ziran; ixillean eta bildurrez gorderik bizi zan erlijio zarraren apurrak; len izandako zerbaite aundi aren oroigailu»: «No more the Catholic Church in the country, was no longer, I may say, a catholic community, but a few adherents of the Old Religion, moving silently and sorrowfull about, as memorials of what has been» (Newman).

Ingländerriko katolikoak, baretsuak, otzanak, motelak, zabalkunderako asmorik eta kemenik gabekoak ziran, aristokrazikoak; baita Erregeari leialak ere. Arriturik ikusi zuten, 1800'etik 1840'era Irlanda'tik etorri ziran 300.000 katoliko ola-langille errikoi, kementsu, oiulari, ausarten katolikotasun borrokalaria.

Izan ere, zearo ezberdiñak bait ziran, alatagutziz arrezkero alkarrekin bizi bearko zuten hi katoliko-talde aiek: Ingländerrikoen taldea, eta Irlanda'koena. Katolikotasuna ia katolikoek jardueran ere arras izan bait ziran ezberdiñak ordurarte bi lurralde aietan. Irlanda'n katolikoak borrokalaria izan ziran beti, inglandar protestalarien atzaparretatik, kendu zitzairen guzia berriro lortu nai zutelako: Erljioaren askatasuna, bai noski, baiñan baita Aberriarena ere.

Ori-dala-ta piztu zan an berriro, XVIII mendearen azkenean (1797-1798), ingländerriar protestalarien aurka, aspaldidaniko borroka odoltsua. Eta durtu zan Ingländerria.

Irlanda'k bazuan, baiki, gezurrezko askatasunaren aztarna, bai bait zuan Dubliñ'en «Irlanda'ko Parlamentu» bat. Baiña Parlamentu artan Ingländerritik etorritako protestalariak bakarrik eseri zitezkean; irlandarrak ez zuten an esertokirik. Ez zezaketen izan ere, askoz geiago ziralarik, diputadu izateko eskubidea ematen bazitzairen, berena bakarrik izanen bait zan Parlamentu guttia. Ori, berriz, protestalarien eta Ingländerriaren nagusitasunaren ondame-na izaki...!

Giro ortan egin zuan Pitt aipatuak Irlanda eta Ingländerriaren batasuna 1800'garren urtean. Orrela jaio zan «Bretaña Aundiko ta Irlanda'ko Jaurre-ri Alkartua».

Batasun orren bitartez, Irlanda'ko katolikoak ez ziran ain bildurgarri, eta eman zitzairen erlijio-askatasun osoa, «Jaurerri Alkartuaren» altzoan minori txikia bait ziran; eskupean errez euki zitekean taldea; «Jaurerri Alkartuko» biztanle guztien laurdena. Ekiñaldi batez uste zuan Pitt'ek, bi sugeri lepoa moztutzea: Irlanda'ko inglandar protestalariak lurralde guztietara zuten bildurra-ri, eta irlandar katolikoan erlijio-askatasun-Iciari. Ala eskeiñi ere zizkien Irlandar katolikoci, Pitt'ek, erlijio-askatasun osoa eta beste laterkideen politika-eskubidea danak. Ikusi dugu nola III Gorka Erregeak asmo orri egalak moztu zizkion.

1809'a ezkerro gero ta abegi ohea ipintzen diote inglandarrek katolikotasunari, VII Pio Aitasantuaren kementasuna ezaguna zalako, eta Napoleon'en aurka borrokan zebiltzan artean Irlanda'ko jendea asarre eukitzea arriskugarri zitzaielako'

Sei milloi ziran irlandarrak. Geiegi, une artan Napoleon'en alde jeiki zitekean jende ura dana zirikatzeke. Zorionez ez zitzairen irlandarrei olako jeikitzerik burutik pasa, eta, orrela, ikusi aal izan zuten ingländerriarrek katolikotasuna ez zala Ingländerria noiz zapaldu-begira zegoan txerren bat.



Frantzi'ko Iraultzatik igesi joandako 10.000 apaiz eta 31 gotzaien bizitza garbiak ere, ederki lagundu zion katolikotasunaren aldeko giro orri. «Dudarik ez duan gauza da: Onik aundienetako egin diete gure erritarrei elizgizon erbesteratu gizagaixo auk beren esker ona ain egoki agertu digutelako; eta eraman duten bizieraren garbitasun arrigarriaren bitartez ere (« by their most exemplarv purity of manners») protestalarien biotzak ukitu dituztelako, auk orain ikusi dute gure Eliz au, ainbeste urteren luzaroan arras bildurgarri eta iguingarri izan zaien Eliz au («a Church oI terror and abhorrenee»), berak uste bezain etsaia ez zaiela», idatzi zioten Pio VII'ari inglanderriko katolikoek informe edo azalpen batean.

Literatura ere, erromantikeraren aldetik, erlijio zarraren miresle biurtzen ari zan, eta katolikotasuna begi berriekin ikustarazten. Shelley olerkari lillugarria, neskatz katoliko batekin ezkondu zan.

Lord Byron, erromantikoen erregeak, Rabena'ko leka'me batzuen ikastolan ipiñi zuan bere alaba.

Walter Scott'en eleberru guztiak erdiaroko Elizaren goratarre ziran, ordurarte Eliz artaz iguinkeria besterik entzun ez zuten inglanderriarren belarrientzat.

Aipa dezagun «Argituei» Inghlanderriak Irlanda'n zerabilkian politika ankerrak ematen zien lotsa ere. «Turkish despotism» izen-eman zion politika ari Ipar-Amerikatik Franklin'ek, eta min aundia eman zien izentxo orrek Inghlanderriko «argitu» demokrazizale danei. Baiña ezin ukatu zezaketen izena egoki ipiñia zala: «Turkitarrek oi zuten erri-zanpaketa». Ikus Inghlanderriak Irlanda'n zerabilkian zanpaketa orren adigarri batzuk.

—Apaiz katoliko bat salatzen zuan guztiarentzat, sari eder bat bazan.

—Umezurtz katolikoak protestalarien zaintzapean ipiñi bear ziran'

—Seme batek katolikotasunari uko egiten ba'zion, *ari* eman bear zitzaion sendiko erentzi guztia.

—Katolikoek, lurren jabe izatea, debekatua zeukaten. Ortaraiño iritxi bait zan anglitar protestalarien zipozkeria!

«Turkish despotism». Lotsak eraginda agian, lortu zuan protestalari batek, Enrique Grattan parlamentariak Dublin'go Parlamentuan, Inghlanderriaren aipua loitzen zuten agindu nardagarri oiek ezereztea. Baiña orduan ere, Grattan'en aurka atera zan Irlanda'ko erregeordezkoa.

\* \* \*

Gauzak orrela zeudela etorri zan 1813'an Castlereagh Estadutzako Sekretarioak Londres'ko Parlamentuari aurkeztu zion «Bill» edo lege-gai bereziki bat. Inghlanderriko katolikoek pozik artu zuten «Bill» ura, eta baita ango «Vicarii Apostolici» edo «Apestolutzarako Bikarioek» ere. Soilki Midlands'-etako Bikarioa, Jon Milner, irten zan «Bill» aren aurka.

Irlandarrak ere aurka irten zitzaizkion, lege-gai artan, gotzai-autaketarako, Erregeari «betoa» edo «ezetza ipintzeko eskua» ematen zitzaiolako, eta Gotzai eta Aitasantua arteko auziak Erregearen begirapean ipintzen zitualako. Midlands'etako Bikarioarentza <sup>t</sup> eta Irlanda'ko Gotzaiantzat «Bill» ura Eliza katolikoa Laterri protestalari baten mendeen ipintzera zetorren.

Poynter, Londres'ko Bikarioak, Erroma'ra galdetu zuan zer egin. Pio VII'a katigu zegoan orduan, eta Napoleon'en menpean aren laguntzailleak' «Propaganda Fide»ko bigarren mailleko gotzai batek, Quarantotti Jaunak, erantzun zion Poynter'i Inlanderriari arrazoia emanaz; baiña Irlanda'ko Gotzaiak ez zuten erantzun ura aintzat artu, eta geroxeago iare zegoan Pio VII'ari eraman zioten auzia. Erroma'n ez zekiten zer egin' Consalvi, dirudianez, Aitasantu-ta-Gotzaien-arteko gauzak ikertzeko Erregeari almen-ematen zion atal ura kendu ezker, lege-gaiaren alde zegoan; eta ala jarraitu zuan, Biena'ko Batzarrakoan, Castlereagh'ekin alkarrizketa goxoan'

Aurka zegoan ordea Pio VII'ak «Propaganda Fide»ren buru egin zuan Litta Kardenal integrista. Eta zer esanik ez, irlandarrak. O'Connell, katoliko zintzo, abertzale sutsu, eta gizakume bikaiñak zeukan orduan, ez noski izenez, bai ordea izatez, Irlanda'ren zuzendaritza. «Buruntza-gabeko Irlanda'ko Erregea» deitu ere deitu oi zitzaion.

Izlari zorrotza bait zan, mintzaera garratzez eraso zion Castlereagh'en lege-gaiari. Onen alde zegoan Inlanderriko apaizdiari «Casticelergy» izen-eman zion, eta, Aulki Donetik Inlanderriko agintari ari laguntzen ziotenei, «Erroma'ko morroiak». «Consalvi italiarrak ministro inglanderriarrari saldu digu Biena'n gure Eliza azpikeri beltzean. Salketa orren saria 1.100 «ginea» izan omen dira. Pozik legoke, zer saldu, Irlanda'ko erlijioa bezain gauza baliOSO bat aurkitu dualako» («Consalvi the italian either betrayed or sold our Church to the British Minister at Vienna; indeed the exact amount of his price is stated to be eleven hundred guineas.'. right glad, I presume, to have so good a thing to sell as the religion of Ireland»).

Azkeneko itz auekin, Consalvi, asmoak aurrera ateratzearren, edozer gauza saltzeko gerturik zegoan gizona zala, esan nai du O'Connell'ek, eta «ginea» aiek aipatzean berriz, Inlanderriko Gobernuia Eliza katolikoari emateko prest zegoan diru-laguntza dauka noski buruan.

1815'ean il zan Castlereagh'en asmo zuzena, ikusi bait zan Inlanderriko protestalari integristen gorrotoak alde batetik eta Irlanda'ko abertzaleen adonak bestetik, konponketa orori, oraindik, bidea isten ziotela! Asarre zeuden Inlanderriko katoliko liberal aristokrazikoak irlandarran gogorkeriarekin, baiña ala ta guttiz, irlandarrek ekarri zioten azkenean, Inlanderriko Elizari erlijio-askatasun osoa. Garaitza ori, gizon baten lana izan zan batez ere, Daniel O'Connell'en lana'

O'Connell (1775-1847), abogadua zan, Inghlanderriko legeak ederki ezagutzen zituana, epaitegietan modurik egokienean mintzatzeko yayotasun bereziaz jantzia. Esku zabaleko gizona, ez zuan arentzat diruak baliorik, eta bere ondasun guztiak jarri zituan Irlanda'rcn serbitzura, eta Irlanda'ko jenderik txiroenaren serbitzura. Ordainik gabe babesten zituan jende lanler auek epaitegietan, eta diruz laguntzen zien gero espetxeetan'

Errez maite izaten du erriak orrelako gizakume bat. Baiña bazuan, gainera O'Connell'ek erria irabazteko beste doai bat ere: sikologo argia zan, jende ezagutzaille zorrotza, eta ondo zekian giza-saillei nola mintza, eta jendetzak nola erabili. Irudimen bizi eta biotz gartsuko izlari iori, dotore, eta igi-korra..., politikolari ernea zan gainera, eta laister eta zuzenki ikusi zuan bere erria askatasunera eramane zezakean bide bakarra.

Sei milloitik gora, laister zazpi milloi, katoliko zituan Irlanda'k; deusezen jabe, ezertarako eskubiderik gabe' 850.000 besterik ez ziran protestalariak an; atzerritarrak danak odolez, baiña auek bakarrik ziran politikan eta ekonomian «Irlanda» osoa. Besteak, zazpi milloi katoliko aiek, utsa ziran, ezerez. Baiña protestalarien zatitxo apur aren atzetik Inghlanderriaren indar guztia zegoalako, igarri zuan, O'Connell'ek, matxinada, iraultza, eta gudua, ez zirala Irlanda'k gogoan zeukan elbururaino iritxi zitezkean bideak' Bide ori, odolkeririk gabeko ekintza zala. Berez ere, iez zan O'Connell gaitz egitearen maitale!

Aurreneko gauza, erdi illik zegoan «Katolikoek Alkarteari» bizi berria ematea egin zuan. Orduarte alkartekide gutxi izan zituan Alkarte arek; illeko 20 «shilling» ordaindu zezaketen katolikoak Irlanda'n oso gutxi ziralako, «Penny» batera jetxi zuan sariketa O'Connell'ek. Naiz asieran bildur edo kezka apur batekin ibilli, laister lagundu zion apaizdi osoak «Catholic Rent» edo Errenta Katoliko ori, erri guztira zabaltzen'

Nekazaririk landerrenak ere, egin ziran alkartekide; eta erririk izkutuene-tan aldiro-aldiro Alkarteak egiten zituan billerek esnatu zuten erri xearen artean katolikotasuna; eta abertzaletasuna!

Ikaratu ziran Irlanda'ko lur-nagusi inghlandarrak, Bazekiten arrazoiketen bitartez O'Connell'i aurka egiteko gauza ez zirala, eta beren Alderdiaren alde lan egiten zutelaren ustean, guztia berena zuten lur zabalaren zatiak maiztarrei saltzea pentsatu zuten, orrela aien naimen ona irabaziko zutelakoan. Ez zezaketan, zipotz aiek, uts aundiagorik egin. Orrela katoliko autarki-emailleen taldea arras ugaritu bait zuten! Irlanda'n autarki-emateko lur-puska baten jabe izen bear zan bā.

1793'ko lege batek, 40 «shilling» errenta zuten nagusi guztiei, eta aiei bakarrik, eman zien auteskundeetan parte artzeko eskubidea. Benetan zan etxejoaun txiroa ta arlotea, urteko errentatxo ori besterik ez zuana. Ala ere ia zazpimiloi animeko Irlanda'n, 60.000 bakarrik ziran errentatxo orren jabe. Orain, etxejoaun berriekin, 60.000 aiek 216.000'ra igo ziran.

ia zer alor naroa O'Connell'en ereintzaral; o! Laister asi zan au alor ura lantzen billera ta mitiñen bitartez. Ez zan sekulan inglanderriarrekin asarretzen, ez zuan sekulan otxantasunik ,galtzen.

Mitin bat galerazten ziotenean beste bat prestatzen zuan bereala . Taktika ori erabilli zuan bere politikazko hitza guztian: beñere txarkeririk ez, eta beñere a. tsedenik ere ez; beti baretsu, baiña beti lanean. Iiugarritzko jendetza bildu izan zuan, azkenean, mitin aietan: 750.000 Tara'n; 400.000 Mullaghmast'en.

1826'ean Londres'ko Parlamenturako auteskundetara presentatu zan. Di-inttadu izateko, Erregea Elizaren burutzat ezagutzen zualaren ziña egin bear zuan. «Ez dut sekulan orrelako zinketarik egingo; ez dut sekulan ocre Eliza Katolikorik ukatuko. Badakit, legeak , katoliko diraudan bitartean, diputadu izatea dabeicatzen didala. Baiña legal, ez dit auteskundetara presentatzea debekatzen; ez dizute zuei ere ni aukeratzetik debekatzen. Aukeratu nazazute. Gero ikusiko dugu zen egin».

Erantzunik ez zuan logika zan, O'Connell'ek katolikoan aurrean erriz-erri zerabilkian ori. Errez irabazi zuan diputadutza. Juan zan Parlamentura baiña ez zioten an aulkirik eman legeak a;gintzen zuan zinketa ura egin nai izan ez zualako.

Peel eta Wellington ziran gobernuaren jabe 1837'a ezkerre, bai. «tory» edo «kontserbatzailleak» aldaketen etsaiak. Bear zan ia guda baten arriskua, bi gizon aien buruak aldalcuntzaren aidera, batez eru zinketa arena bezalako oitura zar bat aldatzearen aldera, eramateko . Anglitar-Laterriaren muiña hait zan Erregea Elizaren Buru SInIstea cia aitortzea.

«Torien» burua bezain gogorra bazan, ordea, irlandarrena, eta «tory» aiena baiño azkarragoa O'Connell'en politikarako yavotasuna.

1828'ko ilbeltzaren 21'a igandca zan, [gon ortan 1.500 mitin eman ziran, baiera, Irlanda'n, eia 1.500.000 gizakume bildu ziran mitin aietan Inlanderriari Irlanda erne zegoala jakiñarazteko. Unie ortan bertan berriz diputadu ba t aukeratu bearra izan zan Irlanda'n , eta an presentatu zan O'Connell autaketara berriro. Eta berriro izan zituan katoliko guztien autarkiak.

Len bezala, ziñik egin ez zualako, ez zuan Parlamentura sartzerik izan; baiña bazekian berak, Inlanderriko Lenen Ministro zan Wellington ilcarratzeko, modo bikaiña hazuala. Iñoiz ez bezalako zentzutasuna erakutsi zuan Irlanda'ko erriak azkeneko auteskundetan. Gudaricic Agintari Nagusiari bezala obeditu zioten irlandarne1c O'Connell'i, eta argi zegoan Wellington'entzat O'Connell'ek irlandarrei diputadu «radikal» ezkerkoiak , aukeratzeko eskatzen ba'zion, zalantzarik gabe erantzungo ziotela aieI., eta, orrela, O'Connell'ek 60'renbat diputadu « radikal» sartuko zizkiola parlamentura.

Eta orixe zan Wellington'n eta «tory» guztiei iñork eman zezaieken zigonrik mingarriena. «Obe dizkiagu katolikoak radikal iraultzalariak baiño», pentsatu

zuten Wellington'ek eta ôñen lagun eta adiskide Pcei'ek.. Gorka TV'à zan Erregea. Kosta zitzaion, baiña ikusi zuan onek ere iraultzalari erdi-errepublikazale «radicals» sail bat baiño obe zuala Parlamentuan katolikoak artu.

Gaiñera, gaiñera... aspalditik zegoan mundu guztia Inghlanderriaren zipozkeriari begi okerrez begira. Aidean zebillen Ameriketatik iritxitako iraiñaren oiartzuna: «turkish despotism»; Ipar-Amerika'ren politika-gizonik ospétsuenareri epai latza, baiña zuzena.

Giro ortan argitaratu ziran, 1829'an katolikotasunari askatasun osoa ernaten zioten iru legeak. Askatasun osoa; katolikoak kargu guztietara iritxi hait zitezkean aurrerantzean, Erregetzara, Irlanda'ko Erregeordetzara, eta Kantzilleretzara izan ezik.

Bikaiña, borobilla, gurenetakoa, O'Connell'en garaitza, Irlanda'ko katolikoentza, bakarrrik ez baiña Inghlanderriko eta Koloni guztietako katoliko danontzat irabazia hait zan askatasun ura; gaiñera, gobernuari ezer ordaintzeko obligaziorik gabe lortutako askatasuna! Consalvi, gutxienez, gotzai-aukeratuei betoa ipiñi aal izateko eskubidea Erregeari emateko prest zegoan, 1814'ean! Erregeari deus eman bearrik gabe lortu zuan O'Connell'ek, orain, askatasun beteagoa!

«Political earthquake», «Politikazko lurrikara» deitu zion Lord Russell'ek 1829'ko aldakuntza ari. Izan ere, inglandar-inperio guztian biziera berri bat asi zan orduan katolikoentzat. Aurreneko aldiz, Pertsonak ziran, gizartean, politikako auzi guztietarako.

Politikaren arlotik, ain zuzen, kobratu zion Wellington'ek erlijioarenean eman bear izan zion askatasuna. Ini lege argitaratu ziran, ia batera, 1829 artan. Azkenekoak ematen zion Elizari askatasuna; aurreko bietatik lenengoak, Jaurriaren aurkakoa zitekeala iruditzen zitzaion bazkun oro galerazteko eskubidea ematen zion Irlanda'ko Erregeordezkoari; eta, bigarrenak, 40 shelling'etik 10 librara igotzen zuan, autarkia eman aal izateko errenta, orrela 26.000'ean autalari katolikoak gutxituaz. Anglikan protestalarien zipozkeri txatxua, berriro!

Elizaren askatasuna lorturik, Aherriarena lortzera zuzenduko du bere ekin-tza guztia O'Connell'ek. Irlanda'ko erritxoetako enparantzetan bezain izlari dotore eta egokia izanen da Londres'ko Parlamentuan. Emen lortuko du, oraindik, erlijiozko tiranikeriaren azkeneko ziria dsegitea. Ordurarte katolikoak apaiz angliarreci amarrenak ordaintzera bearturik zeuden. O'Connell'en itzaldi batek birrindu zuan bearkizun ori.

\* ★ ★

1829'ko okoneldar garaitzaren ondorean ere, bi bide bereziak eraman zituzten, beti bezala, Inghlanderriko eta Irlanda'ko Elizek: bakoitzak berea alegia.

Ingländerrian, ainbeste protestalarien artean galdurik, ixiltasunera biurtu ziran katolikoak' Bazituzten parlamentuan 5 diputadu, baiña «whig» edo liberalen pilloan gorderik zeudelako, ez zituan iñork katoliko bezala ikusten. Egiñalak egiten bait zituzten, gaiñera, beren buruak irlandar katoliko abertzaleengandik bereizten, eta Erregearenganako beren lcialtasuna adierazten!

Izaturik bezala zebiltzan oraindik katoliko aiek, O'Connell'ek irahazi zien askatasunera ezin oiturik. «Katakunheetatik irten herriak ziran. Askatu zitzaizkien kateak, baiña ez ziran oraindik kate aiek sortuarazitako kukiltasun eta zurruntasunetik iaretu»; «Thev had just emerged from the eataeombs, their shaekles had been removed but not the numbness and cramp which they had produued». (Wiseman kardenala).

Eliza, azitzen zijoan. 452.000 ziran katolikoak 1837'an. 679.000 izanen dira 1850'ean. Bada jauzi ederra amairu urtetan egiña izateko. 536'tik 713'ra igaro ziran apaizak, amairu urte oietan. Irasi ziran Apostolutzarako lau Bikarriotza berri ere; Irlanda'tik ola-tokietara zetozen katolikoei begiratzeko, batez ere. Baiña, 155 bakarrik izan ziran urte aietan irikitako jauretxe eta otoiztegi guztiak: inglandar katolikoak argira bildurrik gabe ateratzeko oraindik animaren txokoetan gordetzen zuten kezkaeren siñale.

Iru izan genituan, Birrezarketako aro ontan Ingländerriko katolikotasunaren gertakizunik aipagarrienak: Irlandarren etorrera mardula, \Wiseman'en ekintza, eta Newman'en katoliko-biurtzea.

Irlanda'tiko langillediak errotu zuan proletaritzan Ingländerriko Eliz aristokrazikoia; arek egin zuan «erritar» Ingländerriko katolikotasun zaarra. Landerra biurtu zan Eliz aristokrazikoia ura. Baiña landertasun ortatik, eta gizarte-anglitar-jakintsuaren-aurrean garrantzi-gabekoa agertzetik, Wiseman'en eta Newman'en lanek aterako zuten.

Nikolas Wiseman; Eliz izutu artan izu-bildurraren apurrik gabeko gizona, kultura aundikoa, Erroma'n «Ikastetxe Ingländerriaren» zuzendari izana; berak eramane zuan katolikotasuna Ingländerriko jende argituen batzarretara, ospe galanta irabazi zioten itzaldian bitartez. Izpiritu zabaleko gizakumea zalarik, bildurrik gabe alkartu zan ain adiskide zuan O'Connell irlandarrarekin, «Dublin Review» («Dublin'go Errebista»), Europa guztiko katolikotasunaren gorabera artertzearren argitaratzeko'

Ingländerriko katoliko aristokrazitarrek ez zioten, maiz, begi maitekorrez begiratu; «errikeri-zaleegia» omen zan, eta, gaiñera, Newman protestalariaren adiskidea. Ez zebiltzan oker azkeneko esames ontan. Ain zuzen adiskidetasun orrek iriki ta garbitu zion Newman oni katolikotasunerako bidea neurri galantean'

Laister, ikusiko dugu Newman'en lanketa' Aipa dezagun, orain, Wiseman'en denboran sortu zala Ingländerriko lenen izparringi katolikoa ere: oraindik bizi dan «The Tablet» zarra, kuakertarra izandako Federik Lukas katoliko berriak 1840'ean sortua.

Bide borrokalariagotik ibilli zan Irlanda'ko katolikotasuna.

Elizaren askatasuna lortu ondorean Aberriarena ardietsi nai zuten irlandarrek, eta, leiaketa ortan, apaizak ziran aitzindari' Inghlanderriko Jaurlaritzak, Aitasantuaren laguntzaz baliatzea pentsatu zuan abertzale katoliko aien galdak oztuarazteko.

Gregorio XVI'a, —Errege-Aulkiaren aldeko beti—, errez etorri zan Inghlanderriko Erregeak orain eskatzen zionera, baiña ez osoki, agian Irlanda'ko katolikoek gogortasunari bildur ziolako; orregaitik, gotzaiei politika arazoetan nabarmenegi ez sartzeko besterik eskatzen ez zien eskutitz soil baten bitartez erantzun zion Inghlanderriko Jaurlaritzaren deian. Esan bearrik ez da, eskutitz ari jaramonik emateke len bezala jarraitu zutela Irlanda'ko apaizak O'Connell buruzagiari laguntzen.

Ez zuan onek Parlamentuan bear aiña diputadurik, Inghlanderri zipotzak Irlanda'n zerabilzkian autaketa-legeen makurkeriaren erruz. Ikus: 1832'an, Inghlanderri, Eskozi, eta Gales protestalariek, 13.900.000 biztanlerentzat bazituzten 475 aulki Londres'ko Parlamentuan. Irlanda katolikoak, berriz, 7.800.000'ekin 105 besterik ez zituan; eta diputadu oiek ez ziran, gaiñera, danak katolikoak, Irlanda'ko protestalari-sailtxo koxkorrak, gobernuek autaketa-arloan egin oi dituzten «mirarien» bitartez, zor zitzaizkion baiño askoz diputadu geiago jasotzen bai, zituan' 850.000 baizik ez ziran bā protestalari aiek!

Biotzik galdu gabe, «whig» edo liberalekin alkartu zan O'Connell parlamentuan, eta lortu-eziña zala ikusten zuan «danaren» billa joateke, «dana» orren al zituan «zati» guztiak irabazteari ekin zion adoretzu. Eta baita lortu ere; zati ederrak lortu aal izan zituan' Oroi ditzagun bi edo iru: Irlanda'n amar gotzaigo protestalari deuseztea; apaiz protestalarien mantenua irlandar protestalarien zergetatik bakarrik atera izatea; eta politikolari «tory» anglikandarrei berberei politika erlijioarengandik berezi bearra dan gauza dala ulertaraztea!

Nor izango-ta, 1841'a ezkerro berriro jaurlaritzaren lendakari zan Peel «torytarra», izan zan bereizketa ori mami egin nai izan zuana, Maynooth'eko seminario katolikoari ezarri zitzaion urteroko diru-laguntza 9.000 liberatik 26'000'ra jasotzeko parlamentuari eskatu zionean'

Zurrunbillotu zan Inghlanderriko protestalaritzaren puskarik gogorrena; izan ziran Sir Robert Peel'en aurka mitiñak eta idazkiak ugari; Inghlanderri kristauari, «Baal'en jaupari lizunak gizentzeko», dirua kendu naiean zebillela bota zioten aurpegira; eta, seminario ura, «siniskeriaren, ankerkeriaren, eta liskarkeriaren kabi» besterik ez zala iñoiz izango esaten zioten; «A nursery of superstition, bigotry and discord».

Naiz diputadù «%orytarren» erdiak aurka altxa, atera zuan aurrera Peel'ek bere eskaria «whigtarrek» geienak baiezko autarkia eman ziotelako. Eta, bere alderdiko zati urrundu ura birrirabaztearren agian, Irlanda'n unibersitate-maillako iru ikastetxe berri irikitza bururatu zitzaion, Iru ikastetxe aiek, —Belfast, Kork, Galwais— «non confessionals» izanen ziran; ez noski erlijioaren aurkakoak, baiña bai «erlijio berezi bat aabekoak».

Erroma'ra crin` zuten galdera Trlaida'ko gotzaiek. Ezezkoa izan zan Pio IX'aren erantzuna. Sortu ziztin erantzun orreI; iskamillile naiko, «bigotry» edo «zaptizkeriaren» maitale ziran angiltarren artean. «Lraherritzea ezkeror lurralde artan Aitasantu batek egindako indarkeririk mardulena omen zan, Aitasantuak eta italiar apaiz-sail hatA. alako asmo egoki bat gaitzestert ausartzeko izan zuten aurpegia»; «The dclaration by which die Pope and a board of italian priets have presumed to condenui su laudable a design... is the boldest stretch of Papal power which bas been attempted in these Islands si nee the Reformation» (Tiughes).

\* \* \*

Inglannderriko proiestalaritza ez zan, iñolaz *ere*, aitasantu-ukatzte utsa, urte aietan; egiazko kristau-bizitza-berhizkortlta ere bazan, bai Laterriaren Fliz Angiltarraren altzoan, bai «dissenters» edo Eliz artatik «saiestuen» artean ere, batez ere Ton \X'eslev'ren «sui-let» meto-listen artean.

Gero ta garran tzutsuagoa zan baiki, In;nlannderrian, erdi-mailleko jendea. Bu, -erdi-tmail oñtan saiatu ziran rnetodistak batez ere lanean, eta ederki organizaturik zeuden, ortarako, Inire Katoliko Ekintzaren itxurako sail txiki kementsuetuui hanaturik. Sekular bat izaten zan geienetan apostolu sekular utsez osaturiko sail aien zuzendaria.

Erriz `erri atsedetik gabe «tza» ereiten jarduten zuten «izlariak» («predicants») u'ek izan ziran metodisten bigarren izkillua; gure erri-mixiolarien antzeki seimoiariu'k. Bide-bazterretako apostolu aien elb u rua, bat izan zan beti: bat, eta bera: «the conversion». Itzak esan nai duan bezala, «biurtzen»: gizakumearen bizitza Kristo'gana itzultzea.

Itzulketa ortan, Kristo aurkitzen omen zuan animak; Kristo aurkezten omen zitzaion arimari; eta, arimak, Kristo-barrena-sartze ori auznartu, sentittu eta gozatu ere egiten omen ztaan. Egiazko esperientzi bat zan, beraz, «konbertsio» ura. Ahestuaz adierazi oi zuten metodistek Kristo'ren urbiltasuna sumat e orren poza.-O regaitik, litttrgiaren zatirik garrantzitsuena Ereserkidia zuten: «The hymns».

«Mcfodistetan»-bezala- zuzpeltu zan gogo-bizitza «presbiteritarren», «baptisten», eta «kongregazionisten» artean *ere*. Sail auek danak, Olanda'ko kalbindin'ren eta Alemani'ko lutertarren antzera, «revivalism» edo era zarra «birbiz:araztera» jo zuten: Luter, Calvin eta beste berritzaileen biziera bera, oster,



bizitzara erakartzera, emeretzigarren mendeko sinisleek biziera ura. brenbizitzen eredo eta mami egin zezaten. Protestalaritzaren Asaben Kristaukera nai zuten' «berbiziarazi».

Izan zuan indar, igikunde onek, antziñako berritzaileen sinismen itxua bera kristau aien animetan atzera berriz piztutzeko, eta aien biotzetankristausentimentuei kemen berezia emateko. Karitate-ekintzetara ta mixioetara irauliko zan batez ere kementasun ura.

Ingländerrian bertan *ere* asko ugaritu ziran Anglitar-Elizatik-kanpoko protestalari auek; 1800'ean bostetik bat ziran inglanderritarren -artean. 1851.'ean, berriz, bitik bat: Inglanderriaren erdia.

Frantzi'ko «Ancien Régime», edo «Politika-Era Zarreko» Elizaren antzekoa zan Inglanderriko Anglikan-Eliza; Aristokrazikureak ziran gotzaiak eta apaizak; sendi abcratsetan gudarozterako edo itxas-ontzietarako griñarik. gabe bigarren edo irugarren jaiotako semeak; beren elizbarruti edo •parrokietatik urruti, aundikien artean oparo bizi ziran «chasseurs et buveurs iptrepide.s» (Bertier *de* Sauvigny), «eiztari eta edale bizkorral». Politikan, «tory»en alderdikoak, jakiña; eta, erlijioan, «filantropitarra»; edo «gizadimaitaleak», eta moralista utsak. Ez zan an tcologirik, *ez* aszetikarik; askoz gutxiago mistikarik,

Sekularrek asi zuten Anglitar Elizaren esnakundea. Aipa ditzagun, gogo oneko gizon aien artean, Wilberforee parlamentaria eta Watson ardosalzaillea. Sekular sail arek sortzea eman zIon «Ebangelio-Ekintza» bati, eta.«Haeknev'ko Falanjea» deitu zitzaion igikuntzari. Laister alkartu zitzaizkien apaizak ere: Ak, Jon Summer, gero Gotzai egiñik emeretzi urtetan 236 jauretze berri eraiki ondorean, Cantorbery'ko Goigotzai izatera iritxi zana.

Zirraratu *zuan* «Bizitza Berri» batek Anglitar Elizaren gorputz nagia. Sortu ziran teologi-ikastolak, liburuak, aldizkariak, karitate-ekintzak, igandeetako erri-ikastolak, biziera berri bereiziei egoki kidatutako aposlutzamodu mit-aga, rriak...

Yayoak izan ziran ontan inglanderriarrak, eta bazter guztietan artu -zitan jendeak apostolukera berri aiek eredutzat. Adimenaren garaitasunean Alcmari izan ba'zan maixu, Inglanderria izan zan sozio-ekintzaren maillan. Inglanderria, eta aren seine zan Amerika. Maixu..., ez protestalarietzat bakarrik; baita katolikoentzat ere. Newman eta Manning'én bitartez, baiña batez ere, Sailer eta beste teologilari alemaniarren bitartez, sartu bait zan poliki katolikotasunera, gure anai bereizian berbizkunde aren ontasuna.

Ez da arritzekoa Inglanderria sozio-apostoluzaren arloan ,aurrena esnatu izatea, an asi ere hait. zan beste lurraldeetan baiño lenago industriketa, olagintza.

Laister, Oxford'eko Unibersitate agurgarriak ipiñi zuan bere, burua Eliz-Zupertze. orren aitzinean. Apaiz-sail txiki bat - dugu un.ibersitate artan

kunde berriaren gidaritza artu zuana. Eta apaiz sail aren erdian, gidarien artean gidari, Enrike Newman, Unibersitate artako irakasle ospetsua eta Oxford bertan Santa Mari'ren parroko apaiza'

Ez zuan ala ere mobimentu ura berak sortu' Erri koxkor bateko apaiz bat izan zan sortzaillea: Jon Keble, unibersitatean ikasketak era dizdiratsuan egin ondorean, otoitzean jarduteko, penitentzi-egiteko, animen zaindari izateko, erritxo artara baztertu zana. Berak uste gaberik sortu zuan galda berria, eliz-abestien liburutxo baten bitartez. Olerkitto aiek sinismen bero apaiez igurtzitako neurtitzak ziran, batez ere lau gai erabilliaz idatziak: Kristautasunaren mirariak, Sakramentuengandiko grazia, Liturgiaren edertasuna, Elizaren aintza.

Gogoz irakurri ta abestu zituzten kristau-bizitza sendoago bat gura zuten angliar guztiek bertso bakun bixigarri aiek; Rikardo Huiler Froude apaizak batez ere. Keble'ren ikasle eta adiskide zan au, gizon maitagarria, biotz bero eta esku zabalekoa, eder daitekean oren maitalea, penitentzi-egitearen laguna, egiaz santutasunera iritxi nai zuana. Onek irabazi zuan igikuntza artarako Jon Enrike Newman bere adiskidea. Au berriz, bankalari baten semea zan; adimen argi eta sinismen bizkorreko gizasemea; egiazko irakasle eta benetako apaiza. Aundia zan, orregaitik, ikasleen artean izan zuan ospea.

Froude'k sartu zion biotzean kezka bikoitz au Newman irakasleari:

—«Tradizio» edo «Elizak asieratik bere baitan gorde duan sinispidearen» balioa.

—«Jerarki» edo «Eliza-baitako Agintaritza Donearen» garrantzia.

Garai artan, gure Newman au, benetako angliarra zalaren zalantzarik ez dago. 1829'an katolikoei askatasuna eman zitzaienean, biziro asarretu zuan erlijioari-buruzko axolagabekeritik sortua iduritzen zitzaion erabaki askatasun-emaille arek.

1833'an, bi lagunak, —Froude eta Newman—, Itali'ra joan ziran osasun billa. An ezagutu zuten Wiseman, Ikastetxe Inghlandarraren zuzendaria. Len bezain angliar jarraitu zuten ibillalli aren ondorean. Ezagutzen dute, Erroma'n «egiazko kristautasunaren azpi-ondo («substratum») bat nabari dala», baiña azpi-ondo aren gainetik «siniskeri» eta «sasi-jainkokeria» besterik ez zuten ikusi'

«Jainkoaren etsai aundia eta Apokalipsis'eko pizti madarikatua» deitzen dio Newman'ek Erroma'ri. «Gero ta iguingarriagoa omen zitzaion Erromakeria». Ez omen dezake iñork ezer, berak «Erromakeri» au gorroto oi zuan aiña gorrotatu. Laister izan zuan, politikaren aldetik, bere «anglitasuna» berotzeko aitzaki berria'

Orduantxe ezereztu zituan Inghlanderriko Jaurlaritzak Irlanda'ko eliz-barruti angliar batzuk, O'Connell'en ekiñei erantzunaz. Asarretu ziran Angli-

tar-Eliza zuzpertzua naiean zebiltzan guztiak: Keble, Wilberforce, Watson, Froude'.. eta Newman.

Ots: ez, ain zuzen, eliz-barruti aiek ezereztuak izan ziralako; Jaurlaritzak, eta ez Elizak berak, ezereztu zitualako baizik. Urte artan, (1833), egin zuan Jon Keble'k «Oxford'eko Mobimentuaren» asiera izan zan sermoi ospetsua, —irarkoletan argitaraturik ain irakurria izan zan itzaldia—, Elizak Larterriarengandik iare bear zuala erakutsiaz'

Ingländerriko Eliza Kristo'ren Eliz Bakarraren zati bat zala zion gainera itzaldi sonatu artan. Orregaitik, Apostoluek erakutsita Elizaren zati guztietan gorde dan Sinispidera jo bear omen zuan Ingländerrian Elizak' Lerins'eko Bixente Deunaren esaria artzen zuan Keble'k ikur-itx: «Quod ubique, quod semper, quod ab omnibus»: «Alde guztietakoa, danena, eta betikoa, dana»: Orixen izan bear zuala, alegia, Elizaren sinispidea: bazter guztietan, aldi guztietan, kristau-talde guztietan Kristo'ren dotrintzat eukia izan dana.

Gogapen oietatik gaia arturik billatu nai izan zion Newman'ek urrengo urteetan Ingländerriko Elizari, Katolikoen eta Protestalarien artako «via media» edo «erdiko bide» bat; batzuk ezkerrean eta besteak eskubira geiegi urrunduta omen ziran bâ, kristau anglitarrak, apostoluen denborako Eliz zaarretik' Ala sortu zitzaigun «Oxford'eko Mobimentua».

Newman'ek berak artu zuan igikunde berri orren zuzendaritza, eta arras ezaguna egin zuan bere izena Ingländerri guztian, 1833 artan argitaratzen asi zan idazki batzuen bitartez: «Tracts for the Times»: «Denborak eskatzen dizkigun pausoak», itzak ez baiña itz oiek esan nai dutena euskeratzen badugu. «Gogo Deunak eskuen ezarketaren bidez sagaratuta, Kristo'k Ingländerrian daukan Elizaren apaiz eta diakono anaiei», eskeini zizkien Newman'ek «Urrats» aiek; eta, Oxford'eko Unibersitate beraren azalpenak zirala uste izan zualako, ez zituan inoiz izenpetu.

Froude'k, gaixo zegoan-da, ez zion idazketa-lan ortan lagundu aal izan. Aren ordean, Edward Pusey apaiz benetan santua, izan zuan lagun egokia. Artikulo ederrak idatzi zituan onek sakramentuei buruz; eta, gainera, Sortaldeko Eliza bereizi aurretiko Sortaldeko Asaba Doneen liburuak ingländerazten asi zitzaigun.

Ain zuzen, ori zan, Asaba Doneen azterketa, une artan Newman'ek atsendenik gabe begi-aurrean zeukan lan-gaia. Azterketa, ortan oartu omen zan ereji berriak, axai utsez aldaturiko ereji zarrak berberak zirala; eta Erroma, beti bera zala, beti Erroma, katolikotasunaren zilbor eta burua.

Ikusi omen zuan, baita ere, «via media»rik ez zala; edo Erroma'rekin edo Erroma'rik gabe! ; **eu** Leen-Elizako dotriñak ondo gorde izatea edo Apostoluengandiko Almenik galdu ez izatea, naikoa ez zala. Ez zuan ala ere oraindik bere Eliza utzi-bearrik ikusten, eta, orregaitik, 90'garren

«tract»ean - (1841), «Englanderriko Eliza ez .zala Erroma'lkoarengandik jen-deak uste zuan aiña bereizi», agirian jarri nai izan zuan.

Asarretu zitzaizkion anglitarrak eta bildurtu ziran Eliz artako gotzaiak, eta geiago «Tract»ik ez, argitaratzeko agindu zioten, aundia bait zan ordu-rako Newtnan'en aipua, eta bildur aundia bait zioten arek idatzi zezakeanari gotzai aiek danek. «Zertan edo zer siñisten Juin zuk?», galdetu zioten bein Oxford'eko irakasle ospetsua zan Gillermo Gorka Ward'i. «Credo in Newma-num» erantzun zien onek: «Newman siñisten dub».

\* \* \*

Zirrara aundia egin Lion Newman'i beste toki batean aipatu dugun Jeru-salengo gotzai goaren eraiketak. Kantorbeti'ko Goigotzaiak eraiki zuan An-glikan Elizaren elizbarruti berri ura..Anglikandarrir izanen zan gotzaia, baiña «artzai arek protesta-laritzaren Eliz eta Sail guztietakoak izango zituan «ar-diak». Sinispide ez-berdin aiek danak egizkotzat artzearekin dez al zuan In-glandenderriko Elizak bere sinispidea ukatu eta galdu, edo ta beintzat al-datu?

Baiña Erroma'ko katolikotasunak ere ez zuan oraindik Newman'en egi-goserik asetzen, lenen mendeetako Eliza eta Erroma'ko Eliza sinismen-gaie-tan berdiñak ez zirala iruditzen bait zitzaion.

Albipu nasi orren ari-mutturra billatzeko otoitzera jo zuan, eta ortarako baserritxo batean igaro zituan iru urte. Ura izan omen zan bere «Torres Ve-dras», maiz esan oi zuanez; andik atera ere bait zan gudara, (Wellington Portugal'eko «Torres Vedras»eko arresi eta lur-ebaki aietatik bezala), ari-aren mutturra aurkitu zuan bezain laister. A>i ikusi omen zuan Erroma'ko katolikotasunaren sinispidea kristaudi zaarrekca bezelakoa ez ba'zan ere, Erro-ma'k sinispide ura, aldatu ez baiña, sakondu eta —sinispide arek barruan zeuzkan ondorioak argitara atereaz— zabaldu egin zualako bakarrik ez zala kristaudi ziirt—eko sinispide ura bezalakoa.

Idorokunde ori «Kristau Dotriñaren Azierari-buruz Jarduketa» (« Essay on the Developnient of Christian Doetrine») izeneko idazti batean azaldu zien. (1845). Andik urte batera argitaratu zuan Ward'ek bure «Anglikan Elizaren Eredua». Erromako'ko Eliza omen zan Eredu ori. AX'ard onek asi zuan Oxford'eko Mobimentuko teologilarien 1?rroma'runzko itzulketa, 1845'-ean -katoliko egin zanean. Berealaxe egin zan katoliko Newman ere; (Urri-llaren 8'an). Frederiek\_WilliandFaber etorri zan, ondorean, katolikotasunera; ez nolanaiko gogo-liburuen idazlea.

- Ala.ere. Newman'ek ez.zuan berekin, —\Y/iseman'ek itxaro zuan bezala —, Oxford'eko mobimentu osoa katolikotasunera ekarri. Katoliko egin ziran Wilberforee'ren bi seme, (Enrike (1a Roberto); baita Enrike Manning, eta bete-batzuk ere, baiña geienak, eta batez ere, une artan garrantzitsuenak

ziranak, Keble, Pusey, Mariot, —eta auen ikasiceek—, Inghlanderriko Eliz Anglitarraren altzoan jarraitu zuten.

Pusev'k artu zuan orduan Oxford'eko Mobimentuaren zuzendaritza. Otoizketan, penitentzi-egiten eta ikaskuntzan igaro zuan bizitza gizon jator onek, biotz osoz egiazko Eliza aurkitu naiean; eta Inghlanderrikoa zala uste izan zuan Eliz ori. Baba ere, uste izan zuan ez zala zailla iru Elizak, Erroma'koa, sortaldekoa eta Inghlanderrikoa batera erakartzea. Bera, eta «Oxfordar» guztiak, eten gabe saiatu ziran beren Elizari aurpegia eta biotza garbitzen. Aita-santuaren nagusitasunaz landa, osoro zan katolikoa aien kristautasuna; eta sartu zuten Anglikan-Elizan Erroma'ko liturgia ere'

Pusey maiz eseri oi zan aitorketak entzutera, eta Keble'rekin aitortzen zan bara. Lekaimen ordena bat ere sortu zuan: «Karitatezko Aizpen Ordena». Auek izan ziran aurreneko lekaime anglitarrak.

Inghlanderriko Eliza-baitan egin zuan aldakuntzagaitik kaltegarri irten zan azkenean Oxford'eko Mobimentua berealaxeko ekumenetasunaren arloan' Anglikandarrek, beren Eliza ain txukun eta bizkor ikustean, uste izan bait zuten, Erroma'tik landa egiazko katolikotasuna aurkitu zutela.

Kaltegarri irten zan beste arlo batean ere: soziologiaren arloan. Bi Elize-tako gizonik argicnak, Newman bera, Keble, Pusey, Manning, eta beste guztiak, Oxford'eko Mobimentu osoarekin kanon-legeko eztabaidetara, liturgiko puntu bitxietara ta edesti zarreko txoko izkutuetara murgildu bait ziran, bakoitzak bere jokaera argitu-naiean. Eta sare ortan naasirik, ez ziran, tamalez, gizon jakintsu aiek clsonomiaren aldaketak gizartean sortzen zituan auzi mardul larriak ikusteko gai izan.

Pusey, Erroma'ko Elizaren atarian il zan, baiña sartu gabe. Newman Erroma'ra joan zan, apaiz katoliko izateko bere burua prestatzearren, An, Neri'tar Felipe Deunaren «Otoitz-Batzen» adiskide egin bait zan, «otoiztegi» aietako bat eraiki zuan Birmingham'en Inghlanderrira iritxi zan bezain laister. Jakintza-gizon izan zitzaigun Newman batez ere, eta bere lanaren zituak ikusi aal izango ditugu mendearen bigarren erdian.



## KATOLIKO-JAKINTZAK

Alemaniz landa, XIX'garren mendearen aurreneko erdia, aski dugu jakintzen arloetan antzina. Alemani izan zitzaigun aldi artan, zalantzarik gabe, argiena eta vavoena, bai katolikoen artean bai protestalarien artean ere. Trantzak egindako gaitzari botatzen zaizkio Elizaren legortasun orren kulpak' Zillegi bezain ;aldera auxe: F,lizal. erdiaroko teologia gidari izan bala, egingo ote zion Traultzak, egin zion ainbat gaitza? Oroi T)onetomas'en eta Bitori'ko Frantzisko'ren as\*,intaritzari-buruzko dotriña.

Birrezarketak, lite zigor ela espetxeen bidez, gogapen iraultzalariei ibilketa galerazi aal izango ziela uste izan zuan, ta aburu ustel ortara jausi zuan Eliza ere. Baiñan Late, espetxe, gaitzespen, eta eskomika guztien artetik aurrera jarraitu zuan adimenaren ahiadak Filosofi-era berriak sortuaz, eta, batez ere izadi-jakintzetan idorokunde arrigarriak egiñaz. Aldi berean, parlamentari tzak politika, eta olagintzak ekonomia, egiazko Jakintza biurtu zituzten, eta soziologia berriaz, profeta berrien agerketarekin, ia-ia erlijio baten mailera igoko z\_m Lister, bere gorputz erdi-m'stikoa «prole':\_m-itza» zuala' Eta dana... iElizatik at izan zan egiña!

1793'a ezker, «Enquiry Concerning Political Justice»: «Politikako Zuzentasunaz Azterketa» izeneko liburuaren bidez, oiuka ari zan Gillermo Godwin anarkista; 1840'ean agertu zuan Pedro Proudhon'ek «Qu'est-ce que la Propriété?», «Zer da Jabetasuna»? Eta anarkistekin batera, naiz beste bide batetik, sozialistak ari ziran langilledi berriaren galdera eta bearkizunci, oker edo zuzen, erantzunak ematen. 1808'koa da Frantzisko Fourier'en «Théorie des Quatre Mouvements», «Lau Tgikundeen Teoria»; 1816'koa Robert() Owen'en «A New View of Society» , «Gizartearen Tkusgune Berri bat»; 1821'ekoa Saint Simon'en «Du Systeme Industriel», «Langintzaren Arauketa»; 1848'an argitaratu zuten Karlos Marx'ek eta Engels'ek «Komunist-Agiria», eta 1864'ean Londres bertatik eraiki Lenengo «International» *edo* «Nazio Guztietako Langilleen Alkartea».

Anarkistek eta sozialistek baiño askoz lenago, langilleak berak osatu zituzten XVIII mendeko Inghanderrian «Sindikatoak», «Lankide-Alkartek».

Bitartean..., itxu ta gor genduan Eliza' Protestalariak, aal zuten bezala saiatu ziran, Inghanderrian batez cru, esan dugunez , langille beartsuen oiña-

ze berriei sendagaia aldrazten. Egia da, izan ziran katolikoek artean etc, Chateaubriand elertilari eta Ampere jakintsuarengandik asita, problema kmea-ezagun aientzat sentimen bizia izan zutenak. Izan ziran apaizak eta gotzaiak ere, eta aipatuko ditugu gero aire izenak; gutxi; baiña izan ziran. Ala ere, Eliza, Elizaren Gorputz osoa, eta Elizaren Buruzagitza, bene-benetan auzi eta gertakizun oietatik kanpo gelditu airan.

Ona Elizaren itxutasun santin ori adigarri egiteko eman ai diran arrazoiak:

—Aitasantuak, ainbesteko iraultza ta gudatecn ondorean, Eliza birreraitzcn, gotzaiak izendatzen, apaiz eta erlijiosoen mailletan utsuneak betotzen, —ia apaizik gabe gelditu hait zan bâ Eliza—, eta iraultza-ondoko Eliz mottel eta gaitzetik osatu-berri ura aldi artako Laterri menderatzaillen artean babesten, sendotzen eta finkatzen ari izan airala burla-belarri. Egia, baiña garrantzi geiegi eman zioten Aitasante aiek politikari, Eedc geiago auten, erregeetan, errian baiño. Elizarentzat etorkizeneraka egi<'zko oiñarria, erregeengan ala erriagan, norengan egon aitekean ez zuten igarri; okcragoa dana, «kapitalkeriaren» obcnik ez amen ikusi. Gregnria XV T'ak berak, politikaren libcraltasuna ain zakarki gaitzesleko idatzi zuan «Mirari Vos» entziklika oroigarrian, ekonomi-arloko libcraltasunik ez du aipatu crc egiten.

—Lekaidetxeak Erlijio-Anaidi jakintsuak, ikastetxeak, eta unibersitateak zearo desegiñak izan zirala. Egia au ere. Baiña egia da, baita, Unibersitate eta Anadi eta gaiñerako «Istituzio» danek, Iraultza aurretik ere, ez zute?n gaitz berrientzako zentzumenik izan; ez du te izango orain, Birrezarketako:an berriro jeiki eta sendotzen diranean, eta eala geroago ere, Demokraziaren zabalkunde-aroon.

—Parrokietako apaizak osa gutxi zirala. Olaxe ela, zoritxarrez; izatekotan, apaizak izango bai ziran zezentasenak langintaaren arloan eskatzen zeana-z aurrena oartuko ziranak. Berak dira erri lander gaixoarcn urbillena bizi diranak. Berak, Apaiz Tannek, ulertu zuten Argikuntza egokienik, eta aren alderdi ana ikusi, praailleak, geienak baintzat, ezar legor biertutako teologi bat esaten eta birresaten ari izan ziran hitartean. Oroi Euskalerriko apaiz «argituak».

Orain, Iraultza ondorean, apaizak oso orri ziran, eta orregaitik, animen zainketak kentzen zien denbora guztia. Gaiñera oraingo apaizak ez ziran, buruz, argikuntzako aiek bczclakoak. T,atcrrietako gobernuak Elizari ondasun guztiak kendu zizkioten ezkerero. txiro gelditu ziran apaizak. Txirotasun orrek, izanen du bere alderdi ana, ;apaizak (antnaagoak egin dezazkcalako, baiña baita, beste alderdi txar bat ere; jakintza lancine aritzeko bear bait da ekonomialdetik alaka lasaitasen bat: txindi-lasaitasuna..., eta astia. Ta apaiz aiek ez zuten, ez txindirik, lander ziralako, ez astirik, oso gutxi ziralako.

Gaiñera, seminarioak ere bear gorrian bizi ai ziralako, ez zezaketen ki-zazko eziketarik eman. Ez zuten tajuzko irakaslerik, ainbeste urtetan Lii-



zaren ikastetxe danak itxirik egonik, apaiz berri jakintsurik irten ez zalako. Ta ori naikoa ez balitz bezala, denbora gutxi egoten ziran apaizgaiak ikasketan, gotzaiek ainbeste parroketako txaloak betetzeko len-bait-len apaizak, apaizak, eta apaizak, bear zituztelako. Ez da, beraz, miragarri, jakituriz urri jantzitako apaiz aiek, teologiaren bitartez ez baiña, izkilluen bitartez Eliza babestera gertuagoak egotea, eta, Euskalerriko apaiz karlatarren antzera, mendira borrokara jendea bultzatu izatea. Bedi lekuko Santa Kruz ospetsua.

Apaiza zan Lamennais... jakitez ondo prestaturiko apaiz geiago izan ba'genituan, agian kristau eginen zuten apaiz aiek liberaltasuna, eta era berean bear bada, «komunistasuna» ere. Orduango Aitasantuak ziranak ziralarik..., Lamennais pakeatzaille baten ordeaz, apaiz kristau-ukatzaille milla izango genituala? Nork daki? Apaiza zan Sterekx ere, eta Lamennais bezain liberala, baiña ez zan apostasira jausi. Alderantziz, Elizaren kardenalik ospetsuenetako izatera iritxi zan, eta Belxika'ko katolikotasunaren zuzendari egokia.

Eliza, aldien semea da, baiki, eta bere baitan izan oi ditu aldi bakoitzaren oben guztiak! Or, begien aurrean, daukagu gertatua: ia bi menderen luzaroan Elizak ez du langintza-arloko soziologi eta ekonomiaren okerbide ta obenarentzat bear bezalako sentimenik izan. Asieran ez zuan obenik ikusi ere, eta ikusiarazi ziotenean, bere erantzuna motelegia izan zan, ikaratia, eta motza. Elizaren kanpotik etorri zitzaion, proletaritzari, ulertua zalaren eskier-tasuna; ta errukia, adiskidetasuna, laguntza; eta bere eskubideen aldeko borrokarako kemena. Arras urrutira juan zaio orregaitik, proletaritzaz, gure Ebzari. Urrutira joan..., eta aurka jarri, Eliza bere etsairik gogorrena dualaren ustean.

Aurki daitezke, noski, Elizaren sentimen-eza orren argitasunerako arrazoiak. Baiña Eliza, Mistikazko «izakia» dalarik, sentimenik-ez orren egiazko arrazoiak, mistikaren arloan agian daukagu: jaungoikoa da munduko gertakizun guztien gidari eta eraille. Alare jaungoiko orren eskupetik urrun, Jainko-gabeko profetek esnaturik eta bultzaturik aurrera eramandu eta darama proletaritzak kapitalkeriaren okerbideen aurkako borroka! Mobimendu ori aurrera eramateko, Jainkoa, sinismenik gabeko anarkistez eta komunistez baliatu ba'da, . ex ote du, ori egitean, bere Eliza saminki apaldu nai izan?, eta, era berean, Eliz-Buruzagien nagitasuna, ikara, eta «Aldien Siñaleentzako» itxutasuna zigortu?

Eliza Gogo Deunak daramakialaren sinistea, errez daiteke siniskeri ustel biurtu: guk eginbearra dan azterketa-lana eta denuntzi-ekintza Gogo Deunak eginen duala uste izatea; uste ori litzake, batera, Zazpi Oben Nagusietan mardulena dan obena --animaren nagitasuna— eta teologiaren arloko obenik aundiena, —.Jainkoa tentatzea, ots: Gogo Denna tentatzea—. Ta..., Espiritu Santuaren aurkako pekatuak *ex* omen du barkapenik!

Naikoa izan ote da jainkoak Elizari jasanarazi dion lotsa gorri ori Kristo'-ren Gorputz Mistikoa zuzpertzeko? Oraindik munduan dauzkagun ekono-

miazko okerkeri larrictaz kristau soillen ez-oartzeari eta Elizaren Buruzagiek bein baiño geiagotan erabili oi dituzten zalatzei so-egiten ba'diegu, izan ge-nezakela derizkiot zertaz kezkaturik aski.

Alperrikakoa izango zaigu, beraz, Birrezarketa-aroan kristau-soziologi edo ekonomi baten billa saiatzea. Liberalena da ekonomia; sozialistena, anarkis-tena, edo komunistena, soziologia. Kristauen jakite-ekintza, bai protestala-rietan, bai katolikoetan, apologira eta aszetikara dijoa. Ala giroak ere eska-tzen bait zuan! Argikuntza-aroko arrazoiketa legorraren ostean, jendeak, kris-tautasuna «pentsatu» baiño naiago zuan kristautasuna «bizi»; eta, argikun-tzako «filosofi-zale» razionalistek Elizari bait zioten eraso, egokia iduritu zi-tzaien orain teologiariei Elizaren «apologia» edo defentsa egiteari beren al-men guztiak ematea.

\* ✱ \*

Arrazoiketa igarraren aurkako igikunde izan zan, butez ere, Trromanti-kerak dicitzaion, «sentimentuaren gurrketa». On eta gaitz *egin* zion erlijioari sentimentukeri onek. On, arrazoiak argitu ez dezazkean gauzak ere badirala oartzeko jendea gertutu zualako. Gaitz, arrazoiaren garrantzia ez-etsitu, senti-mentuei balio geiegi ematen zielako, Entzun leen-orduko bi erromantizaleen aitopen auk. Chateaubriand: «Ez da bizitzan gauza ederrik, gozorik edo aundirik, mirarizko gauzak izan ezik», («11 n'est rien de beau, de doux, de grand dans la vie, que les choses misterieuses»). Schleiermacher: «Nere erli-jioa, biotz-erlijioa da guztia; ez da nere baitan beste erako erlijio batentzat lekurik».

Igurats ortan sorturiko apologetika, polita dugu, atsegifia, txukuna, diz-diragarria baiña giartasunik gabea eta oso balio gutxikoa teologiaren baratzan. Dabil Federik Strauss doistarrak 1840'can argitara emandako «Josu'ren Bi-zitza» razionalistak, garbi ikusiarazi zuan apologi-era sentimenkoi aren ba-liorik-eza. Izan ere, arrazoikeriak bizirik bait ziraun oraindik, erromantita-sunaren azpian. Ain zuzen, bi alderditik zegion orain eraso arrazoikeriak erlijioari: Filosofiaren aldetik eta «exegesis» edo «Bibli-azalpenaren» alde-tik.

Eilosofian, Imanol Kant doistarraren oldozkera aurkituko dugu birrezar-ketako filosofilaricn oiñarri. Ezaguna da Kant'ek arrazoi-a-baitan egin zuan bercizketa bikoitza; arrazoiari, arrazoi-a gauzak ulertzeko bakarrik erabiltzen dugunean, «Ratio Pura», «Arrazoi Garbia», edo «Arrazoi Utsa» edo «Arra-zoi-Arrazoi-a», izen-ematen dio. Arrazoi-a, gure biziera zuzenki eratzeko da-rabilkigunean berriz, beste izen batekin jazten du: «Ratio Practica», «Arra-zoi Eratzailea», «Bizitzarako Arrazoi-a».

Aurrenekoak, egiazko arrazoiak, ez orner dezake Jainkorik ba'danik ja-kin; beste bigarren arrazoi orrek nabari aal omen dezake Jainkoa badala.

Zergaitik? Jainkorik gabe bizitza eratzetik ez dagoala argi ikusten dualako. Aztu ez ba'duzu, orixe zan Napoleon'en erlijioa ere: legerik gabe ez dagoala gizartea gobernatzerik, eta jainko Epaillerik gabe ez dagoala gizarteari legeak betearzterik. Egia da ori, bai noski, baiña ez da naikoa. Egiazko arrazoiak Jainkoa atzi ez ba'lezake, Jainkoa, gizartea eratu aal izateko guk asmaturiko gogapen bat besterik ez dala pentsatu bait genezake.

Kant'en bide ortatik jo zuan Gorka Gillermo Federik Hegel'ek, Jainkoa Gogapen bat, «Gogapena», beste gogapen oro heregan batzen dituan «Gogapen Bakarra», «Gogapen Orokorra», baiña Izadi biurtutako Gogapena, zala esan zuanean. Orrela, Hegel'entzat Jainkoa Izadiaren izen bat besterik ez da. Orixe duzu Hegel'en «panteismo» edo «orojainkotasuna»: Hegel'en ateismoa edo «jainkorik-eza» obeto esateko, arentzat azal-da-mamizko izadi ontaz kanpo, ez bait da beste jainkorik.

Laister Feuerbaeh'ek, Hegel'en «Gogapen» ori ukatuto du, izadia-baitan «Gogapen» izate-emailerik ez dala oies egiñaz; eta Izadia, dana, gorpuzkia dala esanaz; eta gogapenak berak gorputzaren emari gorpuzkoiak, ots, gorputzaren gai berekoak dirala; eta, beraz, Izpiriturik ez dala; eta Jaungoikoa, gizonaren sorketa dala, giza-adimenaren asmaketa utsa; eta gizonak Jainkoa asmatu zuanean, bere burua ukatu egin zuala, bere izatearen arrazoiak, jatorria ta elburua berak asmatutako jainko orretan ipiñi zitualako.

Eta ori egitean, latinez «alienatio» eta euskeraz «besterentze» esan dai-tekeana egin omen zuan: ots, bere buruaren jabetasuna bere buruari kendu ta Jainkoari eman, alegia; eta, orrela, alienaturik, «besterendurik», gelditu omen zan len bere-berea bakarrik zan gizona.

Gogai oietan oiñarrituko zigun Karlos Marx'ek komunismoaren filosofia, andik urte batzuetara.

Argikuntza'ko razionalisten pentsaera Auguste Comte «positibistak» jarraitu zuan Frantzi'n, erlijioa giza-edestiaren aro bateko pentsaera besterik es data aitortuaz. Eta, ari omen zaigu aro orren amaia iristen; eta, datorren aroan ez omen da erlijiorik izango.

\* ★ \*

Kristau-teologia ez zegoan gogo-sistema oiei aurpegi emateko bear bezala prestatua' Belxika'n eta Itali'n gatzik gabeko «tomismo» bat erakusten zan. Frantzi'n, Bonald'en «tradiziokeria» zan ikasgai.

Aleman'i'n bai. Izan ziran an gizon azkarrak pentsaera berriak kristautzen saiatu ziranak: Kant'en filosofitik artu zuan bide, erejira jausi zala ikusi dugun Hermes'ek. Schelling zeukaten begien aurrean Dobmaier eta Sailer'ek; Hegel eta Schleiermacher, Mbhler'ek. Esan dugu Alemani izan zala, orduan, teologi-jakintzan aitzindari; agertu ziran an gizon argi bikaiñak, baiña, tamatez, itzal aundi eta zabaleko teologilari guren bat ez zitzaigun agertu; ekonomista, soziologilari, eta filosofi-egille berrien oldozketaren «sintesia» edo

«aiek irakatsitakoaren mamia gorputz batean osoturik», kristauki eman zezaigukean gizonik ez zitzaigun sortu.

Aipatu dugu len arrazoikeriak Idazki Doneen ulerkeraren aldetik ere ekin ziola Elizari. Orduan, izan ere, asi ziran jakintsuak Sortalde Urbilleko erridi jentil 'Arren antziñako erlijioak azt\_rtzen; eta erlijio aietako siniskeri ipuin eta kondaira askok, Idazti Doneak dasaizkigun gertakizun batzuekin kidetasun aundia hait zuten..., ortik eraso zioten sinisgabe aiek Elizari, Biblia Jainkoaren Itza ez baiña gizonen sorkuntza baizik ez zala deadar egiñaz.

Orduangoa dugu, baita, Batista Lamarck'ek asmatutako «eboluziojeta»ren dotriña; alegia, izakiak bata bestearengandik etengabeko aldakuntzen bidez datoztela erakusten digun aborna: gizona, tximuagandik, tximua t-este abere lazkarago batetik, abereak landareetatik, eta auek bizIrik gabeko izakietatik. Erakuskizun auek, Idazti Doneak izadi ta gizadiaren sorketaz dionaren aurka zijoazen, itxuraz beintzat. Orrela, azken-deskubrimen edo idoroketa guztiek arrazoa sinismen-gabeei ematen zietela zirudian.

Teologilari ta elizgizonak ez zeuden jakintza berri auen lorketak patxadan artu eta aditzeko gerturik; askoz gutxiago lorketa oietaz baliatzeko ez katolikoak, ez protestal.u-iak. Batzuek eta besteek, Idazti Deuna itzez-itx artu ta ulertu bearra zala uste bait zuten. Inghlanderriko izlari protestalari ospetsu batek, antropologia gaitzetsi zizun, eta ara zergaitik: «arri hiurtutako ezurki edo fossilak, Ugalde Nagusian ilda, gaur innernuen dauden pekatarien ezur madarikuak diralako».

Izan zuan Karlos Darwin'ek ere konturik eta iskamillik naiko Inghlanderriko elizgizon protestalariekin.

Eliza katolikoak, Liburu Debekatuen Zerrendan sartu zituan berrikeri-zaIe ausarti auen liburu danak... ; Eta kitto!

Kosta zaio Elizaren buruzagitzari Bibliak Jainkoaren itza, eta ez gizonen jakintza, adierazi nai digula konturatzea. Oraindik atzo , Idazti Done osoa itzez itx artu eta sinistu hear zala erakutsi zigun guri Gazteiz'ko Apaiztegia Bibliaren irakasle batek: Julen Gantera Oribe'k.

Gaur edozeiñek dakian gauza da eboluzioa sin;smenaren aurka ez datorrela, eboluzioaren asieran sortzaille lez , eta eholuzioaren ibilleran gidari lez, Jainkoa dagola sinisten ba'da.

\* \* \*

Oituriziti-jakintzan Saint Cvran baionat-arraren gogorkeria zan oraindik nagusi Birrezarketa-aroan. Redentoristek asi ziran gogorkeri ura zerbait gozaten, Pio VII'ak Ligorio Donearen «aecluiprobabilismus», edo «hi abuructatik, biak egi izateko posibilitate berdiñak ba'dituzte, bictatik edozein jarraitu daitekeal» erakusten duan dotriña, ontzat artu zuan ezkeru.

Lasaiagoa egin zuten oraindik inakitarrak kontzientziaren bidea, Argikuntzakoan ainbat etsai sortu zizkion «probabilismoa» ostera, 1815'a ezkeru, kristaudian zabaltzen asi ziranean. («Probabilismus» ori, egi izateko benetako pro-

babilitatea duan aburu oro, beste aburuek lezaketetanari so egiten ari gabe, jarraitu daitekeala dion dotriña duzu).

Baiña 1844'a arte ez zan iñor Frantzi'n lasaitasun berrien alde idaztera ausartu. Urte ortan argitaratu zuan Gousset apaizak «Apaiz eta Aitorleentzat Moral-Teologia», 17 argitaraldi, eta beste izkuntzetara itzulpen asko izan zituan idazkia; aize berrien ezarri hait zegoan ordurako jendea' Ez'zazu, baiña, uste, «saintzirantasuna» betirako aantzia gelditu zanik. Bizi da oraindik gure artean, edo ta beintzat bizirik iraun du pur-gant- arte.

Zergaitik piztu ote zan Alemani'ko Laterrietan Teologi-Jakintzen garra beste lurraldeetan baiño indartsuago? Ona galdera orri eman oi zaizkion erantzunak:

—Febronikeriak Alemani'ko Errege eta Printzipeetan --Eliza nardaskatu nai izateaz landa— sortu zuan Teologia ezagutzeko kutizia ere. Zaletasun orrek eraginda, unibersitate guztietan ezarri zituzten teologi-erakusketak eta elizgizon izan nai zuten guztiek joan bear izaten zuten unibersitate aietara ikasketak egitera. Areago oraindik, Agintari protestalariak ere ipiñi zuten beren unibersitateetan teologi katolikoaren katedra bat. Unihersitateen ariketa ori begien aurrean zutela, naitanaiez esnatu, ernetu, eta lanean saiatu bear izan zuten Seminarioetako teologi-irakasleak. Itali'ko, Españi'ko edo Frantzi'koek, lo zorroa gelditu ziran:

—Beste iñon baiño ziñagoa izan hait zan Argikuntza Alemani'n, Birrezarketako pake-arokak prestatu rik aurkitu zituan orain, bai Printzipeak ikastolei laguntzeko, bai ikasleak ere benetako azterkunde eta ikasketa bat egiteari beren buruak leiaz lotzeko.

—Bizkor eta sendo piztu zan an Erromantitasuna ere, eta jakiña da Igi-kunde herri onek erlijioari, eta bereiziki erdiaroko erlijio eta teologiari eman zion garrantzia.

Teologi protestalariaren herbizkundeak zirraratu zituan teologilari katolikoak. Gureak baiño lenago asi ziran protestalariak, jakintzek eta fenomeno edo gertakizun berriek ekar zezaketen ontasunaren billa. Autoritatezko Maixutasun baten menpean egon-bearrik-ezak, eta protestalaritzak ain bere-duan «erlijio-aburuetako askatasunak» erreztasun geiago ematen zien gaiñera langintza ortarako. Danadala garaitasun aundira igo zan Birrezarketa-aro ontan aien Teologi-Jakintza, batez ere Federik Sebleiermaeher (169-1839) Berlin'go irakaslearen bitartez.

Onk idatzi zuan Jon Calvin'en «Institutio Christiana»ren ondorean protestalaritzaren «top book» edo «idazki gurena» izan omen dan «Der Christliche Glaube nach den Grundsätzen der Evangelischen Kirche im Zusammenhange dargestellt», edo «Ebangelioetako Elizaren Kristau Sinipidearen Azalpena». Liburu ontan dionez, erlijioaren muiña gizona Jainkoaren mendeko biurtzea omen da; gizonari jainkoaren eskuetan dagoala sentiaraztea. «Gefühl»

esaten dio «menpetasun-sentitze» orri. Ondorio larriak ateratzen ditu iturburu ortatik:

—Erljioaren elburu bakarra «Gefühl» ori dalarik, ez omen daiteke erlijioa eta filosofiaren artean borroka eta eztabaidarik izan.

omen du erlijioak arrazoiketazko adimen-sistemen bearrik, biotzaren sentimena naikoa omen du Jainkoaganako mendetasun ori gizonari sumaarazteko. «Burukeriak» ez omen dira seguruak; sentimena bakarrik omen da egiazkoa. Teologia baiño ajola geiagokoa dugu, beraz, «mistika». Sentimenean oiñarritutako mistika-moeta berezi bat.

Errez ikusi daiteke itz oien bitartez, Schleiermacher'ek aldi artako «rebalismctarrei» eta erromantikerari zut (lien guztia. Baiña on aundia egin zuan ala ere teologilarien artean, esnatu bait zituan aiek, teologia «jakitea» ez dala naikoa eta teologia «bizitzea» ajola geiagokoa dala ikusteko gai izan zitezen. Pozik entzunro diote Schleiermache'ri teologilari katolikoek «teologia bizitza biurtiarene lenentasun» ori.

—Erljioa «esperientzi» bat besterik ez ba'da, teologiaren zeregiña «esperientzi» oui jasotzea eta aztertzea besterik ez da, ondore-ateratzen du Schleiermacher'ek; eta baita beste onako au ere:

—Kristaudiak «esperientzi» ori, «dogmak» deritzaien egi sinishearren bitartez azaldu eta adierazten du. «Dogma» diralako oiek ez dute esperientzia beste mamitik. Kristau erriaren sorkari dira beraz dogma guztiak. Eta Kristau-Esperientzia aldakorra dalako, aldakorrak dira esperientzi orren azalpen besterik ez diran dogma oiek ete. Itzetara biurturik, agertu oi ditu kristaudiak bere dogmak. Itz oiek adimenaren araura egokiak diran edo ez jakiten aritzeak ez du batere garrantzirik. Iu oiek Jainko-Esperientzia kristauen animetan zuzpertzeko balio duten jakiteak bakarrik du egiazko garrantzia.

Errez oartu dezake edozein katolikok teologi onen auleria non dagoan, eta oldozkera orren azken-ondorioa teologi ororen erailketa dala.

«Pietists» edo «eraspen-zale» guztiak txalotu zuten gustora Schleiermacher «modernistcn» aita. Aren ikasle eta jarraitzaille izan van «Berlin'go Eskolan» Jon Aur,ust Neandcr (1789-1850) edestilaria. Onen ustez Elizaren Edestia, kristaudiak mendevlc-zear, (atzo, ala; eta gaur, ola) bere-baitan sumatu duan Bizitza-Jainkotiar baten ariketa dugu.

Elizaren Edesti baterako ez dute, beraz, ajola aundirik denbora bakoitzeko dotriñek, aldi bakoitzean Elizak egin dituan lanek, «eskola» hereizietako kultura-moduek, eta, ezta ere, dogmak antolatzeke egin oi diran saiocck. Mende eta aro ezberdiñetan kristaudiarcn Jainko-Esperientzi ori nolakoa izan dan aztertzea da, Flizaren Edestrentzat benetan ajolazko gauza.

«Perlirt'go Eskolak» dogma guztietatik aldegin nai uvale orrek, bazuan bere politikako alde. Prusi'ren Uri Nagusia van Berlin, eta Prusi'ko Jaurla-

ritza Kristau-Eliz guztien batasuna *egin* naiean zebillela badakIgu. Jaurlaritzaren elburu orri lagundu nai izan zien Berlin'go teologilariek. Egiatzko ekumene-zaletasuna?, ala..., soIlki, erregeari atsegin-eman nai izatea?

Sortu zuten Alemani'ko protestalariek beste «[skola]» bat ere: Erlangen'goa. Eta, Babiera'n, Prusi'ren mugetatik landa, bait zegoan Erlangen, beste bide bat eraman zuan «J'skola» onek; ain zuzen, kontrako bidea, lutertasunaren bereiztasuna agirian ipintzea izan bait zan bere leiarik aundiarena, ortarako «sinismen utsetiko salbamenaren» dot riña sakonduaz. Dotrin ortat'k, kristautasuna «bizitzearen» bearra atera zuan ondorio. Ortan ziran alkarren kide Berlin'go eta Erlangen'go hi «Eskolak»: eraspen-zaletasunean.

«Tubinga'ko Eskola» protestalaria, Idazti Doneen barrutian ari izan zan lanean. Fernando Kristian Bauer izan zuan zuzendari, eta ezaguna da ebangelioei-buruz onek asmatutako teoria. Hegel'en dia'ektika-eraz baliaturik, kristautasuna bi gizonen pentsaera ezberdiñetaz irugarren gizon batek egindako konponketa dala dio. Mateo'ren ebangelioan agertzen dan Pedro'ren dotriña omen da Hegel'ek «tesis» esan oi zuan leen-aburua. Lukas'ek erakusten digun Paul'ena berriz, aurreko orren aurka zetorren bigarren aburua «antitesis». Markos'ek egin omen zigun, bere ebangelioan, hi aburu oien «sintesis» edo konponketa.

Orrelako gauzak, esan errezago egiten dira egiztatu baiño. Ori gertatu zitzaion Bauer jaunari ere, baiña ez zan orregaitik kuzknrtu; batere lotsarik gabe, Paul Donearen idazkietan oztopotogari aurkitzen zituan esakizun guztiak Paul Donearenak ez dirala esanda, bere kasketarekin gelditzen zan beti. Onako au edo olako ori, ,t nere teoriaren aurka dijoala? Paul'ena ez dalaren siñale; besterenbatek sartu die ori, ondorengo mendeetan, Paul'en idazkiei. Kitto!

Ranke'ren arauak Bi Itunetako Idaztietan erabilliaz, geieniko arrazoikerira jausi zan Alemani guztian protestalarien bibli-azalpena, Strauss'en bidez izadiz-gaundiko guztia ukatzeraiño iritxi bait zan. Ez zan gaiñera lanketa berria, askoz txukunago egiña bait zuan, iñork baiño lenago, exegesis edo azalpen ori amazpigarren mendearen erdian Spinoza judutar orojainkotiarrek.

Teologiaren kabirik ospetsuenak bakarrik aipatu ditugu, eta ezin gaitezke aurrera igaro, iru kabi aundi oien itzalera, amaika kabi txikiagoak izan zirala Alemani'ko protestalarien artean, esan gabe. Eta baita katolikoaren artean ere. Modan zegoan Alemani'n teologi-jakintza. A! , ta katolikoaren Teologi-Eskola nagusiak protestalarien aiek bezain bikaiñak izan ziran!

Teologia «kristau bizitzaren muin» egiteko lei berbera nabari zaIgu teologilari katolikoetan ere. Argikuntza-aroan, teologia, jakite utsa zan; biotzera jetxi gabe adimenaren bazter antzuetan gelditzen zan, aburu ezberdiñak zer zioten jakitea. Orri zioten orain bildur, arrazoi aundiarekin, teologilari doixtarrek, erromantitasunak «bizi tzeari» ematen zion jaramonak eraginda.

Aipa ditzagun, agurpenik aundienarekin, telogilari katoliko bikain aien

izcnak. «Tubinga'ko Lskolakoak» aurrena. Protestalaricn «Eskola» hiblizalearen ondoan, —eta ura hezain ospetsua—, izan hait zan uri antan «Eskola» katoliko bat ere, patrologilaria, ots, Eliz-Asahen idazkiak aztertzeari emana. Dogma batek zer adierazi nai digun zeazki ulertzeko bearrezkoa omen da bit, Eskola onen sortzaille dan Jon S:hastian Drey'ek dion:z, Dogma bakoitzari «forma», «era», eman zitzaion garaieko Eliz-giroa egoki ezagutzea. Giro ori, berriz, garai artako Asaben idazkietan idoro omen dezakegu.

Jon Adan Miihler izan zan «tuhingatarren» artean teologilaririk garaiena 1a berak idatzitako I buruen artean bi dira batez ere ospetsuenak; hata, «katolikotasunaren izate beraren araura Elizak bakarra izan bear duala» erakusteko argitaratu zuan «Die Einbeit der Kirche oler das Principle des Katholizismus». Bestea, Eliz Bakar ortarako bidea-erreztu naiean protestal +ritzaren eta katolikotasunaren sinispideak azterizeko 1832'an atera zigun «Svmbolik».

Maler arrai maitagarriaren oldozketa-sareko ari nagusiak auctxek dituzu: «Filosofi» bat ez, baiña, «Animentzako Osasuna» da «batez etie» kristautasuna»; «Asaba Doneen aztarketak, Eliz bat hesterik ez dala, eta Eliz bakar ori Erroma'koa dala, erakusten digu».

Bi idazki auetatik aurrenekoa, febronikeria errukirik gabe zakartzen zualako, Austri'ko «Index» edo «Liburu Debekatuen Zerrendan» sart izan zan. Bigarrenak, izan zuan protestalari bat bai ño geiago katolikotasunera erakaritzeko indarrrik aski.

Tuhinga'koa dugu ITegel'en orojainkotasunaren utsuneak argira atera zituan Staudenmaier kritikalarri zorrotza ere, Berea da, «Knzylloppiidie der theologisehen Wissenschaften». (Azkeneko itz onek, «Jakintza» esan nai du doixkeraz't.

Io dezagun orain Babiera'ko Uri Nagusira. «Munich'eko Fiskolan», egiazko Eliz Bakarra billatu nai iz,ueko ardura b;ra naban: dezakegu.

Jose Gôrres, Napoleon'en aurka Alemani'ren askatasunaren alde geienan lan egin zuenetakoa izan zan, leenik. Birrezarkera-aroko Erregeen despotikeriaren aurka jeiki zan gero, eta 1830 --:.,n Prusi'ko laurlaritzaren zigorretik iges egiteko, atzerrira, Estrashurg'era, juan hearrean aurkitu zan. Ordurako ospetsu egiña zuan bere burua, Sarkalde Urbilleko erlijio zarren azterlari sakona agertu zalako. 1827'an Babiera'ko Koldob .ka l'ak Munich'era eraman zuanez gero, Gïrres izan genduan Unihersitate KaToliko aren eragillerik bikaiñenetakoa.

An ere, ez zuan bere horrokarako-zaletasunik galdu; beti bezala askatasunaren aldeko borroakalari, Elizaren askatasunari lot it zion orain bere leiaketa. Bide ortatik jarraitu zion Gido hue semeak. Batez eTe «Ilistorisch-Politische Bliitter» izeneko izparringiaren bitartez. Asko zabaldu ta irakurri oi zan Alemani osoan erregekeri-mota ororen aurka agertzen zan «Bliitter» edo «Orri» ura.

«Munichtarra» dugu Diillinger edestilaria ere, langille porrokatua, askatasunaren maitalea, eta Lamennais'en adiskidea. Zori txarrez, Lamennais bezain



gogorra izan zan etsaiekin tratatzeko. Gogortasun orrek itxututa, protestalariak epaitzerakoan punttu batzuetan zuzentasunaren neurritik, oartzeko noski, kanpora irtetzen dala esan ondorean, aitor dezagun txit aundiak dirala mailla gureneneko cdest:Iari uren merezimenduak' Tamalez, —;beti borrokalari!—, I Batikan-Kontziliokoan, Diillinger, naiz berak ori uste ez, Elizatik kanpora joan zitzaigun. Aantzi dezaigun, maiteki, bere azkeneko okats ori, eta atsegiñez oroitu eta gogo onez eskertu dezaigun Elizaren aide len egin zuan Ian ederra.

Bi «Eskola» nagusi auetaz landa, Birrezarketaren denborako katolikotasun beroak izan zuan Alemani'n su-laberik naiko. Maienza'ko Seminarioa bat; batez ere Bruno Liebermann «Den Katholik» aldizkaria seminario artan 1821'eau argitaratzen asi zanez gero. Münster'ko uria beste bat, Bernardo Overberg maixu ta zuzendari zuala. Onen alaba Gallitzine'ko Ameli printzesak ere, lan polita egin zuan kristau-kulturaren arloan: Ameli berak..', eta emakumezko onek bere inguruan bildu yuan aristokrazitarren taldeak'

Filosofi-era berri oro kristau biurtu nai izateko leia onuragarri ortan, bide zuzena galduta, erejira amildutako teologilariak ere izan genituan Alemani'n. Bonn'eko Unibersitateko Hermes, aipatuena. Sinistea ez da Hermes'entzat Graziaren ume, arrazoi utsarena baizik. Gizonak ez du sinisten Jainkoaren graziak barrendik eragiten diolako, arrazoiak, matematikeetako gaiak bezala sinispeneko atalak ere naitanaiez sinistubearrak dirala argi ikustarazten diolako baizik.

Graziaren misterio guztia kristautasunetik uxatzen zualako, Hermes'en erakusketek Prusi'ko jaurle Eliz-bateratu-zaleen artean nolako arrera maitekorra izan zuten esan dugu beste toki batean.

Garratzagoa izan zan Ilernies'entzat Erroma'ren epai-itza. Ala ta guztiz, katoliko il zan Hermes 1831'ean, 1835'a arte ez bait zituan Gregorio XVI'ak aren erakusketa oker oiek gaitzetsi'

Hermes bezala, eta bide beretik, joan zan Austri'n Biena'ko Günther, au ere Gregorio XVI'ak gaitzetsia (1837).

Naitanaiezkokoak dira oztopo auek, bide berriak billatu nai dituzten gizakumeen artean. Ez dute, orregaitik, garai artako Alemani Kristauaren aintza dizdiratsurik zikintzen, : rantzek ere ez bait dute arrosen edertasunik ezerezten.

\* \* \*

Arrosa gutxi bildu genezake orduango kristau-jakintzaren baratzen Alemani'tik landa.

Jaime Balmes apaiza, Katalauni'n, Ixriodista eta filosofilari, eta apologi-idazle bikaiña. Berea da 1842'an argitaratutako «FI Protestantismo comparado con el Catolicismo en sus relaciones con la Civilizaci6n Europea», liburu ederra ta egoki idatzia. idatzia izan zan denboran idatzia izateko. Garai artan gazte\_Ieraz idatzitako liburu guztietatik ia-ia au bakarra izan zan Añaamenditik kanpora Irten zana, Gudatik gudara, eta liberal ezkertiarren atzaparretatik Fer-

nando VII'aren Inkisizioaren eskuetara, ez zan noski Españi'ko Elizaren ibi-  
liera filosofietan aritzeko modukoa.

Itali'n, iparraldean bakarrik aurki dezazkegu bi jakintsu oroigarri, biak  
«ontologistak»: Andoni Rosmini-Serbati, Austri'ren azpian zegoan Lombardi-  
-Beneziar Taurerrian; Bixente Gioberti, Zerdcña'koan.

«Ontologikeri» dalako ori, gizakumeak, arrazoiketarik gabe, Jainkoa su-  
matzko almena berez baduala uste izatea da; uso mezulariak, itzul-bidea billa-  
tzeko, berezko sen bereizi bat baduan bezala, gizakumeak ere baduala, bere  
zertasunean bertan, jainkoa billatzeko eta ezagutzeko alako, sena baten an-  
tzeko, gaitasun bar. Ikus dezakegu, «ontologikeri» zeritzan aburu ontan ere,  
garai artan Europa osoan mistikarako erne zitzaigun zaletasuna:

IX Pio Aitasantu zala izan zan aburu ori gaitzetsia. 1861'garren urtean,  
«Itali'ko apaizik santuenekotzat» zeukan Rosmini adiskideari zion maitasuna-  
gaitik ez bait zuan XVI Gregorio'k «ontologikeriaz» erahakirik artu nui izan.

Egiaz izan zan Rosmini Itali'ko eta Kristaudi guziko apaiz santuenetako  
eta bikaiñenetako bat. Ortan zuzen zebillen Gregorio XVI'a.

Aitasantuen Laterrietan ez duzu denbora aietan teologilaririk aurkituko'  
Apologistaren bat edo beste geienaz; eta arkeologilariak. Mai'tar Gotzon izan  
zan auen artean ospetsuena; «palimpsestoak» irakurtzeko era asmatu zuana;  
au da, larruzko pergamin zaarretan «aurrena idatzirik zegoana eta gero, bi-  
garren aldiz larrukiño edo pergaminu ura erabiltzeko borrotua izan zana»,  
irakurri aal izateko era asmatu zuana. Gaiñera, Asaba Done eta klasikoen idazki  
asko idoro eta argitaratu zituan benetako gizon argi onek.

Filologia edo lzkuntziztian berriz ospetsuena Mezzofanti izan genduan.  
Bai omen zekizkian berrogei izkuntza.

Leon XIII'a, saiatu zan jakintzci laguntzen. Bost unibersitutu berri ere  
eraiki zituan. Gregorio XVI'ak Mai kardenaltzara jaso zuan...

Baiña, askotan parregarria ere bazan Aitasantuen inkisizioekriak, lepo egin  
zion teologi-jakintzari Erroma'n. Entzun: 1820'ean astronomi-liburu bati ez  
zitzaion an argitaratua izateko baimenik eman... lurra eguzkiaren biran zebi-  
llela esaten zualako!!

Norbai izatekotan, Perrini izan z:tekean teologilari trebea, baiña, gaiñera  
etorri zekizkioken zigorren bildurrez, arriskurik gabeko lanera jo zuan: Aulki  
Donearen apologia egitera.

Ala ere ez dugu uste teologirik-ezaren arrazoia askatasun-falta izan zanik.  
Olanda'n eta Belxika'n, askatasun betearen lurraldeetan ere, ez bait zan kixaz-  
ko teologi-lanik sortu. Lobaina'ko unibersitateak tradiziokeriaren «idées in-  
nées» edo «adimena-baitan berez sorturiko gogapenen» goratzarrea egiten galdu  
zuan denbora. «T'aiotzetik adimena] berekin azi-alegin modura dakarzkian go-  
gapenak» dira «idées innées» oiek; zentzuen bidez jasotako adi-gaictatik ate-  
reak ez diranak; Tainkoa'k berak adimenean erein dituanak.

Belxika'ko Eliz-Jakintzaen arloan gauzarik egokiena, eta ederrena, Arg-kuntzakoan «bolandista» inakitarrek asitako lanaren jarraipena izan genduan, ezpairik gabe.

Gure ustez, Teologiaren antzutasunaren azalpena garai artako giroak ematen digu. Giroak ez zuan «oldozketarik» gura; «Bizitzea» eta «sentitzea» nai zuan: ez zuan teologirik nai, mistika baizik; edo beintzat, aszetika: eraspenna, «debozioa».

Alatagutziz, Austri'n badu josepekeriak teologiaren antzutasun ortan zer ikusirik. Ango bos t Unibersitateek, (Biena, Praga, Graz, Insbruk, eta Lemberg'ek), bazituzten teologi-katedrak, baiña Jaurlaritzak aukeratzen zituan irakasleak, eta, irakasle auek, erregekeriz kutsatuak izaten ziran danak'

Errusi'pean zanpaturik zegoan Poloni'ri zer eskatu? Frantzi'n, berriz, aipatu dugun apaizen urritasunaz eta Elizaren txirotasunaz landa, gertatu zan itxaron ez dezakezun beste fenomeno bat ere: Ikasketari bildur izan ziotela Eliz-Buruzagiek! Napoleon I'ak berak 10 seminario nagusi eraikitzea erabakirik zeukan, baiña bat bakarra atera zuan aurrera: Lyon'goa, osaba Fech'ena. Beste bederatziak..., gotzaiek nai izan ez zutelako ez ziran jai!

Pentsatu zuan Feeh onek ikasketak oraindik apaizgaiei geiago sakonaraztea, baiña ezezko aolkua eman zion sulpizitarren lendakaria zan Emerv agurgarriak ber-berak' Geroxeago, Frantzi'ko apaiz jatorrenetako batek, Estrasburg'eko Koldobika Bautain'ek, Alemani'ko Unibersitateetara bidali nai izan zituan bere seminarioko apaizgaiak. Aurka egin zion gogotik Laeordaire izlari dominogotarrak: «Unibersitateak dira Alemani'n erlijioa ondatu dutenak. Badugu emen ere unibersitate bat, baiña naiago nuke nik esegia izan Sorbona'n teologia ikasi baiño», («j'aimerais mieux être pendu que de professer la theologie en Sorbonne»).

183 }'ean esan zuan ori Laeordaire'k. Lénago, 1826'ean, Karlos X'aren erregetzan Frayssinous gotzaia ministro zala, 300.000 franko eskeini zizkion Laterriak Elizari Teologi-Ikastolak sendotzeko. Songer egin zuten gotzai danek, eta Jaurlaritzak parlamentuari itzuli bear izan zion dirutza polit ura «non eta zertan erabillirik aurkitu aal izan ez zualako». Baziran ba gotzai aiek erregeza-leak, Karlos X'aren kutiziari arrera onik egiteko...!

Ain zuzen idatzi berria zuan Lamennais'ek galikeriaren aurkako liburu bat, galikeria «Elizaren altzoan demokrazia sartu nui izatea», era orrela Aitasan-tuaren besartetik indarkeriz ateratako Eliz demokrazizatu ori «Erregearen menpetasunera jaurtitzea» zala esanaz. Berealaxe bildu ziran 14 Kardenal, goi-gotzai eta gotzai Paris'en, «Bossuet'ek erakutsi zuanari beren eraspenna» eta «Erregeari danen maitasuna jakiñaraztearren». Frayssinous'ek eskatuta, lau ez gaineko gotzai guztiek onartu zuten Frantzi'n, 14 aien ekintza.

Erregearen epailariek, diru-pilotxo koxkor bat ordaintzera beartu zuten, zigorrez, Lamennais; eta sutara galdu aren liburu ausartia: «De la Religion

considérée dans ses rapport, avec l'ordre politique»; («Erljioa eta Politika arteko zer-ikusiak»).

Apaizdi jakintsuegi bat ezin menderatuko zutelaren bildurra aipatu oi dote batzuek, Frantzi'ko gotzaiak jakintzari izan zioten kezka orren azalpentzat. Lz gera iritzi ortakoak. Lmery eta Laeordaire ez ziran gotzaiak, eta gotzai zan, berriz, Frayssinous. Gure ustez, kezka orren sustraia askoz sakonagoa da. Adimen-lana sinismenaren galbide dalaren ustea. Argikuntza-aroaren azkenean, adimen-lanak eta jakite-goseak Entziklopediaren ateistasunera, jainkogabeke-rira, eraman zuan jende jakintsuaren sail mardula. Oстера ikasketan asi nai orrek, dez ote zituan oraingo ikasleak amildegi berera jaurtiko? «Non plus sapere quam quod oportet sapere» («Jakitez, bearrezkoa dana, eta ez geiago»). Apaizek..., parroki-lanetarako bearrezkoa danarekin naikoa zuten; beste ikas-keta aiek «geiegikeri» oztopogarriak zitezkean, Frantzi'ko gotzai bildurri aien ustez.

Orrelako geiegikeriren bildurrik ez zan Inghanderrian. Sortu zan an buru-ikasketazale argirik naiko baiña an ere, bai angliarre, bai katolikoek, Apologira (Wiseman, Newman) edo Aszetikara (Faber), edo Edestira jo zuten. Aipagarri da edestilarien artean Lingard apaiza, bi liburu ederren egillea: «Antiquities of the Anglo-Saxon Church» («Eliz Ang'•i-Saxonitarraren Antzi-ñate»); eta «History of England» («Inghanderriaren Edestia»), azkeneko au angliarren artean ere kezkarik gabe edertzat artua.

Kristaudiaren joera, urte aietan, eraspn-ekintzetara batez ere zuzendu zan ezkeru, ikus dezagun nolakoa izan zan kristauen eraspnketa ori,

## BIRREZARKETA-AROKO KRISTAU-BIZITZA

Bizitza ori Jainkoagandikoa izanik, Elizako agintari eta pentsalarien jo-kaeratik iare da, eta politika-bide okerrak edo kulturarik-ezak ezin dezakete erail, ezta auldu ere, Gogo Deunak ats eman nai ba'dio, Birrezarketa-arogan gertatu zan bezala' «Ostera crlijiora eta iots! , mistika-bizitza berberera dijoala jendea, iduritzen zait», zion aro aren asiera beeran, 1814'ean, Koldobika XVIII'aren Ertzaintza-Ministroak, Beugnot'edo Konteak, arriturik.

Ala gertatu ere zan. Emeretzigarren mendearen aurreneko erdia izan zan Elizaren arorik bikaiñenetako bat: Santutasunaren aroa. Gogo Deuna, ordea edestiko gertakizunetaz baliatzen bait da maizenik bere Elizari eragiteko, ikus ditzagun aldi artan Elizaren barruko-bizitza orren berbizkundea gertutu zeza-keten gizarteko gertakari -nabarienak:

—*Iraultzaren geiegikeri zakarrak.* Martiriak beti izan bait dira Kristaudia-ren bizitza berri bizkorrago baten azi-aleak.

—*Orain Gubernuek Kristautasunari ematen zioten garrantzia.* Berekoitasunak zerabilzkian aiek, eta ez zan guztiro garbia beren asmoa; kristautasuna, autokraziaren oinarririk sendoena izanen zala uste bait zuten. Baiña ez zitzaiz-kion gaizki etorri kristautasunari jaurlariengandik jasotako begirunea ta laguntza.

*Arrazoikeriaren aratzutasuna.* Oartu zan bâ jendea arrazoiak egiaren axala bakarrik ukitzen duala, ez, ordea, egiaren mamirik. Matematikek, eta mate-matiketari errotutako «yakintza zeatzek», izakien neurriak baizik ez dizkigutela zeazki ematen: izakien izatea eta izamena bera ezin dezaketela atziki; jakintza aiek ez dutela balio, adibidez, gizakume baten Zer-Izatea edo Nor-Izatea eza-guerazteko, eta, are ta gutxiago, Jainkoarena.

*Erromantitasunaren agerketa.* Askotan aipatu dugun bezala, kultura berri onek izkutuko gauzei eta sentiment-uei zien zaletasunak asko erreztu bait zion sinisteari bidea, naiz erromanti-bide xamur beratzegi au oso bide sendo-eta segurua izan ez'

—*Elizgizonak berak.* Birrezarketako gotzaiak eta apaizak, urriagoak eta landerragoak ziran, baiña baita garbiagoak eta langilleagoak ere. Aitasantuak berak ez ziran Arginkuntza arokoak bezelakoak. Naiz politikaren alorrean

yayocgiak atera ez, Gregorio XVI'aren antzeko gizon aiek izugarri langille porrokatuak eta sinismen sendoko kristau bizkorrak ziran. Eliza maite zutenak. Benetan Elizari serbitzu egin nai ziotenak.

\* \* \*

Errege ziran oraindik aitasantuak; ordurako pipiak jotzen asia zegoan erregetza baten jabeak. Jaurerri aren gobernu ere aski ta geiago zegoan pipiak joa; zaaturik gelditutako tresna tantai aundi bat besterik ez bait zan.

Ona tresna aren zatiak:

Estadutzako Idazkaritza, gobernu guztiaren burua; beste bost Idazkaritza gaiñera: gobernu artako ministeritzak; 25 Kongregazio edo Bazkun, ondorean; gobernuak baiño almen geiago zutela usterik zeuden kardenalen kongregazioak; 22 Epai-Batzar Nagusi, animeko, politikako, gizarteko eta diru-kontu guztietako auzietan esku luzea zutenak; 3 «Uffizzi» edo Bazkun bereizi, izen eder borobillekoak irurak: «Kantzilleritza», «Dataria», «Apostolutza-Karrera». Ortaz gaiñera, Aitasantuen Korteko serbitzariak, eta Enz-Laterrien administretak berekin zeramakian jendetza mardula.

Laburki esateko, zomorroz beterik genduan Erroma'ko gobernu: tantatzar aren mamitik bizi ziran xomorroak, danak; eta inñolaz ere politika-aldaketarik nai ez zutenak, jakiña, Aneika xomorro!

Ez da arritzekoa, gobernuko gauzak Erroma'n oker ibiltzea. Austri'ko enbaxadari batek zionez: «Emen mundu guztiak agintzen du, baiñan inñork ez obeditu; Danak ari zaizkizu legeak egiten, danak aginduak ematen: inñortxok ere aintzat artuko ez dituan *luge* ta aginduak; aginterik duten guztiak alkarren artean atsedenik gabeko guduan dabilzkizu. Gudu parregarria benetan auxe, ez bait du berekin ondamen aundirik inñorentzat ekartzen. Danak artzeko gerturik billatuko dituzu, inñor ez, ordea, emateko; gobernu orren baitan ez da deus saltzerik zillegi, baiña edozer gauza erosi dezakezu; lasai esango dizute gaur jende auek okerra dala, atzo bertan zuzena zala esan zizutena; Ebangehua iragartzen dote, baiña «Alkorana» gurtutzen. Oro duzu emen nasketa... baiña, ala ta guztiz, aurrera dijoakizu «tresna» zarrapatzatsu moldakaitz au, gelditzerik eta aldatzerik ez bain bezala» (Stern).

Geiegi luzatu zitzaion, zalantzarik gabe, austritarrari mingaña; badu, a1a-ber, arrazoi-puska galanta.

Lengoa zala gobernuaren erakuntza, ogia da; baiña beste gauza asko aida-tuarazi zituan Iraultzak, Argikuntza-aroan oraindik elizgizonentzat **haro** goxo zan Erroma artan. Erantzitarrek Aitasantuen kutxak utsik laga iituztelako, aide batetik, eta, Aitasantuak berak gauzak zuzendu naiean zintzo zebiltzalako, besterik, txiroago eta txukunago bizi ziran Birrezarketakoan Erroma'ko «montsegnori» ta kardenalak. «Ez cia izango, Jaun Aundirik Europa guztian jendearen aurrera Elizako Printzipe berri auek baiño landerrago agertuko danik:

Zalditxo bateko zalpurdi zar bat; bi morroi, biak lenen-margoa galduriko kapusaiez jantziak..., eta kitto!» (Stendhal).

Ez zan lengoa bezalakoa Aitasantutza bera. Iraultza-aurretik, Argikuntzakoan, Aitasantua Erregeen jostaillu zan; Iraultza-ostean, Birrezarketa-arogan, era arrigarrian igo zan Aitasantuen dizdira. Ez zan inoiz Erroma'n ainbeste enbaxadarik ikusi! Agintari guztiek nai zituzten Aitsantuarekin adiskidetasunak; baita katoliko ez ziran aiek ere. Danek nai zuten aitasantutza omendu. Napoleon'en aurrean Aitasantuek izan zuten sendotasuna ikusi zutelako? fflrain-go Aitasantu auek gizon jainko-zale zintzoak ziralako? Baleike; baiña, Iraultzaren birretorrera baten aurka babesik seguruena Eliza katolikoaren dotriña zala uste zutelako, batez ere!

Jakintzaren arloan *ere* iragarle gaillur danak, teokrazi-zale ziralarik, Aitasantuaren ospea goratzen aritu zitzaizkigun Eliza-baitan: Maistre, Haller, Lamennais, Bonald galikeriaren maitalea liera; eta baita Chateaubriand ere.

Erregeek buruntzaren babesa aitasantutza zala uste izan ba'zuten, erregetza zala Elizaren babesa, uste izan zuten Aitasantuek. Ortik jaió zan Errege-Aulkien eta Aitasantuen Aulkiaren arteko alkartasun estua! Gutxi ikusi zuten orduan alkartze urren arriskua, baiña bai batzuek. Ona auetako haler) izkera egokia: «politika batekin alkartzen ba'da Eliza, bereganatuko dito, obenean, politika orren aldekoak diran jendeak, baiña galduko ditu kontrakoak diran guztiak. Galduko du beste gaula bat ere: politika guztietako jendeen gidari izateko adontasuna, oportunitate». (Toequerville).

Neurriak gordetzeaz aztu gabe, esan genezake Aitasantuek baiño geiago irabazi zutela eskubideen maillan Iraultzarekin gotzaiek; oraingo auek, lengoak baiño almen geiago bait dote. Egiaz, bere elizbarrutiko errege da gotzai ba-koitza. Ez du orain bere «erreñu» orren barman bere aginpetik kanpo dagoan erlijioso-komunitaterik, Iraultzak desegin edo beintzat auldu bait zituan aien Anaidi eta Lagundi guztiak ainbat eta ainbat tokitan!

Ez dira erlijiosoak 1850'a arte Iraultza-aurrean ziran aiña izatera iritxiko.

Ez dute orain gotzaiek Laterri geienet a'n apaiz «henefiziaturik» ere; (jateko gotzaiaren laguntzaren bearrik ez zuten, eta gotzaiak aida *ez* zezazkean arauak beteaz «eginkizun» baten serbitzura bizi ziran apaizak ziran auek; gotzaiantzako morroi koxkorrak). Ez dezakete orain apaizek, *Ion* zezaketen bezala, gotzaiaren aurka erregearen atarian deitu. Ala're..., Aitasantuarengana jotzen dote orain; eta mail gainera; ez bait zan gotzaiaren eta apaizen artean iskamillik falta. Belxika'ko apaizek, gotzai-aukeratzeko eskubidea ere eskatu zuten Erroma'ra.

Kanon-legearen Kodigo edo Legedi berriak gotzaiaren almenei neurria zuzenean bakarrik amaitu ziran iskamilla aiek.

Ona nola, aberastasuna, parlamentuetan aulkia, eta printzipe-izatea gotzaiari kendu zitzaion Iraultzak gotzai oiei beraiei agintea aunditu lien. Beste gauza bat ere il bai, zuan Iraultzak: galikeria. Jarrantuko du erregekeriak.

Bedi Rosmini lekuko. Orduantxe idatzi zuan onek «Delle Cinque Piaghe della Santa Chiesa» («Eliz Donearen Bos t Zauriak»), izeneko liburua, eta zauri oietako bat gotzaien autaketa oraindik Laterri-Agintarien eskueran egotea dala, zion. Baiña kontziliokeriz betetako galikcri zar ura, illik atera zan Iraultzatik.

Aitasantuarengandik iñoiz baiño urbillago daude orain gotzaiak, eta Aitasantuagan babesten dira beren zalantza eta arrisku guztietan. Aitasantuagana alderatze onek ere asko aunditu zuan, Elizaren barruan, Aitasentutzaren itzala.

Protestalariak berak sentittu zuten Eliza Laterriarengandik iaretzeko bear-tasuna. Oxford'eko Mobimentu edo Igikundearen saiaketaz, mintzatu gera. Alemani'n, Eliz bereziak bateratzen Gobernuari laguntzeko prest zegoan Schleiermacher uraxe izan zan «Landeskireh::n» edo «Laterri-Elizak», «Volkskirehen», ots, «Erri-Eliz» biurtu nai izan zituana.

Ondo bearrezkoa zan orduantxe Eliza «Erriarena» egitea, erria, batez ere langiliediararen «erri» berria, Elizatik urruntzen ari hait zan. Ikusten zuten ori katoliko batzuek ere, Leu aipatutako Rosm`n'iren liburuko «Elizaren bost zurietako beste bat», auxe da: «Erriko jendea eta Elizako jendearen artean irikitzen, sakontzen eta zabaltzen ari dan zuloa, utsunea».

\* \* \*

Langiliedia galtze au izan bait zan Eliz aren obenik aundiena, saia gaitzen oben orren sustraiak argitaratzen.

Esan dezagun, aurrena, argi ta garbi, izan zirala, bai, kapitalkeriak sortzen zuan okerkeri beltza ikusi zuten katolikoak. Izan zirala. Ta bat baiño geiago gaiñera; eta ozen egin zutela katoliko auek oi. Baiña, arrezkero Eliz-edestia iraultzalari marxitarren bildurraren zama-pean idatzia izan zalako, ez zituan gizasendo aien izenak eta ekintzak bean bezela jaso, soziologilari aiei aintza ematea, komuniskeriari arrazoi eta indar ematea izan zitekealaren kezka.

Lotsagarria, baiña egia. Bizi dituzu oraindik langilileen eskubideak aizatze utsa arrixku aundiko gauza dala uste duten kristauak. Egia da gaur egunean oraindik, Cbateanbriand'cl: idatzitako onako au: «Eginkizun ederra dauka oraindik Elizak begien aurrean: politikaren eta ekonomiaren kristautzea. Orain arte, gizakume bakarraren bizitza eta famili bakarren bizitza kristautzen saiatu da. Lanik ederrena falta zai».

Aitor dezagun asko argitu duala, gerontzean, Elizak politikari buruzko dotriña; ez dugu uste ala're ekonomiaren arloan oraindik azkeneko itzik esan duanik, eta askoz gutxiago, arlo ortan kristaudi osoak egin dezakean eta egin bear duan guzia egin duanik.

Lenen-orduko apostolu aien artean aipa dezagun aurrena 1823'an itz auek idatzi zituan Lamennais: «Gaurko politikaren eta legeen argira langillea ma-



kina bat besterik ez da. .Jareak al dira, benetan, langille oiek? Esnatu gai-  
tezen. Gizagaixo oiek ez dute askatasunaren apurrik ere, goseak gure men-  
pera jaurti bait ditu, eta, bizi-bearrak, esklabutzara makurtu».

Tamalez, Eliza Laterriarengandik len-bait-len bereizi naiean ain sarturik  
egoteak, eta integristen aurka politikazko demokrazia defenditzen atsedetik  
gabe aritu izateak, ez zion Lamennais'eri beste ekonomiaren-demokrazi onen  
alde saiatzeko astirik laga.

Denbora berekoak dira kapitalkeria gogorki epaitu zuten lendabiziko gotzai  
frantziarrak; oroi ditzagun jaun agurgarri aien izenak: Belmas, Giraud, Fa-  
vet, Bonald, Affre. Badute meritua, Birrezarketa-aroko gotzai aiek aristokra-  
zitarrak hait ziran: orrelako problemenezako zentzumenik gabeko aristokra-  
ziaren umeak.

Lamennais'en ikasle, eta «l'Avenir»en zuzendari izana zan Karlos Coux,  
1830'ean oarkizun au egin zuana: «Orain gizartea moldaturik daukagun mo-  
duak, gero ta txiroago egiten ditu langilleak; eta gero ta aberatsago diran  
kapitalista batzuen sail txikitxo haten eskuetara daramazki munduko aheras-  
taeun guztiak». Orra or, Karlos Marx'ek baiño *lenâgo* iragarria, «buruz bera  
ipiñitako gizarte-piramidearen» teoria.

Lille'ko Jaunie izendatua izan zan Villeneuve-Bargenot'eko Bizkontea. Bere  
probintzira iristean, bertako ola farnatuak ikertzen egin zuan aurreneko lana;  
ikaraturik gelditu zan ola aietan langilleak zeramakiten bizimodu latza ikus-  
tean. Esperientzi aren igali izan zan 1834'ean idatzi zuan liburua: «Traité  
d'Economie Politique Chrétienne». Olagintzak ekarri duan, moralitatearen on-  
damena salatzen du idazki orretan. Ots, ordea: ekonomiari-buruzko moralita-  
tearen ondamana, batez ere: lagilleen txirotasunari lapurreta gorri egiñaz ari  
omen dira bâ ola-jaunak aberasten! Ez omen da, orregaitik, auzi au karita-  
tearen auzia, justiziarena baizik, zuzenbidearena.

Bide beretik aurrera d;joa «karbonaritzatik» Elizara etorritako Felipe Bu-  
chez, gizarteko modu edo estruktura oiek aldatzen ipiñi nai bait ditu kristauak!  
Ez ziran bere itzak alperrik galduak izan, apaizekin eta sekularrekin «sozio-  
logi-eskola» bat osatzeraiño iritxi bait zan.

Ederki ikusi zuan Federik Ozanan Sorbona'ko edesti-irakasle ospetsuak  
kapitalkeriaren sustraia liberaltasuna zala. «Ignominieuse doctrine», «Dotri-  
fia laidogarria» —deitu zion liberaltasunari— «bizitzaren elburu bakartzat diru-  
-egitea ipintzen dualako».

Gaurko munduan auzirik nagusia auxa omen dugu: «ezer ez dutenen  
eta geiegi dutenen arteko borroka», eta gaurgero ez omen dugu naikoa, zuzen-  
tasunak eskatzen diguna betetzeko, karitate egite utsa, karitateak ez omen  
du bâ zauriak gozatu besterik egiten»: («Elle soigne les plaies, elle ne pré-  
vient pas les coups qui les produisent»). «Ez du zauria sortarazten duan  
zigorkadarik eragozten». «Au lortzeko justizia erabili bear dugu»; («c'est à

la justice qu'il appartient d'intervenir»). «Lanaren azoka deritzaion ortan justizia ezartzeko, bear bearrezkoak dira, bai Langille-Alkarteen indarra, bai Laterriaren esku gogorra». ;Ez genduan nolanaiko gizona Federik Ozanan'-darra!

1845'eko Iraultzak ez zuan Elizarik ukitu. Badira iraultzalarien begirune ori sozio-katolikotasunaren leen-igarle aien ekintzaren zitu izan zala esaten dutenak. Egia ote? Danadala, ederki astindu zituan gotzaiak eta apaizak 1830'-ekoak, eta ura baiño askoz sozialistagoa izan zan 1848'ko au. Altaguxti, ez dezagun aantzi, Marx'en aurreko sozialtasuna, erromantikerizko erlijiotasunaz margotua zala oraindik.

Ain zuzen erromantikeri ori bera izan daiteke olagintzak zekarren justiziazko problema ez ikusteko eliztarren adimena lausotu zuten lainoetako bat, gure ustez. Aurrena, kristau vakintsuen begiak ertiari eua elertiari begira ipiñi zitualako eta danen biotzak olerkizko sentimentuz bote zitualako. Baiña baita, sentimenkeri orren kulpaz, erromantikeriak, kristau-aszetikan sartu zanean, oiñazeari, nekcari, «gurutzeari», eman zion «arrantz'agaitik ere. «Qu'une exaltation confuse de la douleur se soit glisée jusque chez les auteurs spirituels du XIX siècle et qu'elle ait faussé plusieurs de leurs idées, c'est indéniable» (Nedoncelie): «Ukatu ezin daitekean gauza da oiñazetiren goratzarre lilhuatzaille bat xurrn-xurru sartu zala animeko gauzetaz idatzi zutenen buruetan, eta lillura orrek aien gogapen bat baiño geiago aizundu zuala».

Bai noski; eta usteldutako gogapen aietako bat, au izan zan: «oiñazea eua nekea, beti, Jainkoagandiko maitasun bereizi baten zantzu seguru a dala uste izatea». Ala esaten zitzaien langille gaixoei «Jainkoaren kuttunak» zirala; aien oraino neke-oiñazeok, beste munduko zorion oso baten adigarri zirala. Eta eroanpena erakusten zitzaien, baretasuna, pazientzia. Ez diot, ez noski, «gurutzearen esan-nai» ori bein baiño geiagotan uria izan ez daitckeanik, baiña bai, «Jainkoaren maitasunaren siñaleekin» orrela c'z daitekela jokatu, eta, boita, langilleen gurutz-bide antan «lainloaren maitasunaz» landa, hosto «zerbait» ere bazegoala: Jainkoaren justiziaren auzia!, litchi») ondasunak obeki banatzeko eskatzen duan Jainkoaren justiziaren auzia! Eliz gizonik geienak ez ziran orduan auzi ortaz konturatu.

Ez-konturatze orren iturburutzat, (aitasantuak errege, eua gotzaiak osteria aundikikumeak izatearen ondorio), Eliz-Buruzagiak aundikiaren artean politika-auzietan sarturik egon-boarrak ekarri zezazkean kalteak, aipatu ditugu. Baita, iraultza orori gizon aiek zioten bildurra ere; Ekonomlaren aldaketa herriz-egiazko iraultza bat izaki...!

Aipa dezagun orain ain nabarmena eua ain ezaguna ez dan hosto arrazoi bat: Emeretzigarren mendeko apaizen mistika-era.

Esan dugu apaizak gutxi zirala; eta dotriña erakusteak, sakramentuak egiteak, gaixoak ikustatzeak, au da, parroko eginkizunak, kentzen zietela zuten eta ez zuten denbora guztia; apaiz aiek gaiñera ikaskuntza laburrak eta mol-

dakaitzak egindako gizonak zirala; ta oso txiroak ziralarik, naitanaiez parroki-lan utsetan ari bear izaten zutela bizi aal izateko, Jaurlaritzak beste apaiz-eginkizunik, adibidez ikasketa, ez bait zuan diruz saritzen. Egi-egia bait dio «*primum vivere deinde philosophare*» dion laterazko esakizun arek, edo, «sabel utsak dantza gutxi» dion euskerazko beste arek, zertaz-bizirik ez zuten, apaiz aiek, ez zeuden noski ikasketak eta aztarketak egiten asteko erarik egokie-nean. Esan dezagun orain apaiz jaun aiek jaiotzaz sendi landerretako semeak zirala, zerbaiten jabe ziran gurasoek ez bait zieten beren umei seminarioetara joaten uzten. Sendi aberatsetako guraso aukeratu zer egiten zuten? Beren umeak, aberaskumeak, orren sendi landerren seme ziran apaizgaiekin alkar-artu ez zezaketela uste zutelako, konbentuetara eraman eiztuzten; Josulagundiaren konbentuetara bereiziki, inakitarrak bait ziran berriro aundikiekin arremanik geiena zutenak'

Birresan dezagun baina ostera, ez zutela, tamalez, sozio-ikasketarako, apaiz jator baiña gizagaixo aiek, ez astirik, ez dirurik, ez gogorik, ez gaitasunik'

Izan zuten ala ere, ortaz gainera, izkutuagoa dan beste eragozpen bat: gogo-zuzendariak buruan sartu zieten mistika-era berria: apaizei mundutik alde-egitea erakusten zien mistika-era. Nola eta zergaitik sortu aal izan zan okerkeri galant ori Elizaren barnean?

Alde batetik, mendearen asieran beintzat, lekaidetzarako jaiok ziran guztiak apaiz egin ziralako. Izan ere, Iraultzak ainbeste lekutan lekaidetxe eta konbentu guztiak desegin eta Anaidi guztiak barreiatu zituan ezkerre, bizitza Jaungoikoari eskeini nai zionak apaiz egitea beste biderik ez bait zuan. Baiña gizon auen deia, bokazioa, ez zan apostoladutza, «mundutik bakartasunera igesegitea» baizik. [ta aien leia aterrik-gabeko otoizketa bait zan, aiek asi ziran aszetikako gaiak jorratzen, eta gai oietaz beren lagunentzat idazten eta itzegiten. Aiek biurtu ziran apaizen animeko-zuzendari.

Geroago, atzera Anaidiak zuzpertz ziranean, konbentuetara jotzen zuten, esan dugun bezala, Eliz-Ikaskizunetarako zaletasunik izan zezaketen guztiak. Piztutik egiten ziran. Laister asi ziran aukeratu ere apaizentzat idazten eta apaizen zuzendaritza beren eskuetan artzen.

Egiazko apaizek, apostoluzan buru belarri atsedenek gabe sarturik zeudena, ezin izan zuten apaiztasunaren mistika berak eratu. Eta prailleena artu zuten; apaizentzat balio ez zuana; inandutik urrutik bizitzea agintzen ziena.

Frantzi'n izan zuan okerketa onek asiera. Apaizaren zereginik aundiena eta garrantzitsuen, otoitza omen zan; bere pitxirik ederrena, bakardadea, gizartetik urrutik «entre ses fleurs et son ehien», «baratzako lore tartean eta zakurra lagon» (Lamartine), etxe-barruan bizitzea; jendearekin arremanik gabe. «Izkutuzko bizitza» onek agurgarriagoa egingo omen zuan apaiza bere eliztarrentzat.

«Jende-artetik aldegeteko» mistika orren ikurra, «sotana» dugu; orduantxe Frantzi'n agirian erabiltzen asia. Eliz-barruan erabili oi zuten Frantzi'ko

apaizek ordurarte sotana, edo geienaz, eliz-barruti batzuetan, jantsenikeriaran ondorio, apaiz bakoitzak bere erriaren mugen barruan.

Erroma'n ez zuten sekular apaizek orrelako bearkizunik izan, 1851'an sotanaren erabilketa lege egin zan arte. Ona nola aurkitu zituan jantziak, Newman'ek 1846'ean Erroma'ko apaiz jaunak: «belaun-pean lotutako galtza motzak, askoz luzeagoa ez zan kapa arriña, eta buruan «trikornioa», «aru adarreko kapela».

Bakartasunean eta otoizketan bizi bear zuan apaizarentzat, politikaren eta ekonomiaren iskamilletan sartzea dez al zan pekatu? Eta apaizak berak izan ba'ziran «zakurrarengana eta lore-arteke pakera» erriaren aldetik iges-egin zutenak, arritzekoa al da erria apaizengandik urrundu izatea? beta erriaren zatirik gaixoenak, langillediak, gidaritza-billa beste maixu batzuetara jo izatea?

Erriaren urruntze onentzako bada beste arrazoi bat ere: Laterriengandik apaizak jasotzen zuten dirua. Iraultza-arte apaizak aski «aberatsak» ziran, asko beintzat; baiña baita erritarrak eta erriarena] ere: errikoiak. Orain pobreak dira, baiña es dira erriarenak; ez ditu beintzat erriak beretartzat onartzen. Leenik, naiz pobreak izan, beste erriko pobreak bezalakoak ez diralako. Apaizak jana seguru daukate, eta segurantzi ori Laterriak ematen die. Erriarentza, Laterriaren serbitzari biurtzen ditu Laterriagandik jasotzen duten diruak: ertzaiñen kideko laterri-gizon.

Eta, naitanaiez gertatu bear zuan gauza: Bildur artu zion Elizak langillediari: gero ta urrunago eta bere aurka gero ta etsaiago ikusten zuan proletaritzari. Orregaitik, berandu, oso berandu, asi ziran Aitasantuek itzegiten, aulegi itzegin zuten gaiñera, eta orrela, zuzentasunaren kezak baiño geiago proiearitzaren bildurrak eraginda itzegin zutelaren itxura eman zuten...; eta, jakina ez zuten proiearitzarik Elizarentzako irabazi.

Baiña, alata guztiz, lan-egitearen aunditasuna, gizakumearen eskubideak, lanaren ordezeko sasiaren donetasuna, ludiko ontasunen izateko arrazoia, eta gizakume guztien berdintasuna erakusten jarraitu boit zuan Elizak, emanen du ereintza orrek bere zitua. Komunistasunak berak ez zuan sortzerik izango aurretik mundua sakonki kristautua egon ez balitz; eta, orregaitik, punttu batean baiño geiagotan, kristautasunaren erejitzat artua ere izan daiteke komunistasun ori. Bijoia bere bidetik Eliza, zuzentasuna aldarrikatuaz!

Birresan dezagun alaiki Cateaubriand'ekin, kristauok «oraindik lanik ederrena egiteko deukagula»'

\* \* \*

**A!** Inghlanderrian *rr.* zan erria Elizarengandik ainbeste alden du. Apaizak berak protestalarien artean ezkonduak diralarik, ez bait dute, erriarengandik iges-eginda, «zakurrarekin lore-arteak» bizitzeko apaiz katolikoek aiñako ego-kitasunik.

Pozik aitortzen dugu apaiz angiltarrak olategietako erri landerrari lagontzen ederki saiatu zirala.

Lz dugu uste ala ere, len aipatu ditugun soziolcgi-idazle katolikoak bezain pentsalari hikaiñik angiltarrek izan zutenik. Pentsalari aien atzetik proletaritzaren erdian sartuta lan egin zezaketen apaizak falta izan zitzaizkigun guri. Angiltarrek izan zituzten orrelako apaizak. Guk ez.

Konkordatoek Eliza Katolikoari gobernuan baimenik gabe parroki berriak irikitzea debekatzen ziotela ipiñi oi da aitzaki bezala. Aitzaki utsa da, orixe bera gertatzen bai , zitzaion Ingglanderriko Laterri-Elizari. Baiña onek asmatu zuan iges-bidea: «parrokiak» eraiki bearrean, «oratorv» edn «otoiztegiak» eraikitzen zituan langilleen auzoetan. Geiago dana, Londres'en inguruko auzo lancier guztiak «mixio-lur» izendatu zituan apalki 1835'ean, eta kristautasuna galdurik zeukaten auzo oietan lan egiteko «London Uriko Mixioa» «The London City Mission» sortu zuan 60 mixiolarirekin. Baziran mixiolari oien artean angiltarrak ez ziran protestalariak ere.

¶Orrelako ekintzei eskerrak ote?, Ingglanderriko sozjalistasuna ez da beintzat beñere Elizaren aurkakoa izan, eta Karlos Marx berak ez zion, berea baiño askoz zarragoa zan sozjaltasun ari , jainkogabekeririk erantsi aal izan. Sozjalista aiek geienak kristautzat euki dituzte beren buruak, eta ez du sekulan Eliza Katolikoak ere aien aurka deus esan bearrik izan.

Orain da, noski, erriarengandik ez aldcgiten saiatu ziran pure eliz-gizon batzuen izenak aipatzeko garaia: Sterekx, Belxika'n; Devie eta Rivert, Frantzi'n; Sailer, Alemani'n... eta ainbeste geiago. Ez asko, baiña bai kementsuak.

Ez du orrek esan nai gaiñerako eliz-gizonak zintzoak eta santuak izan ez ziranak. Aitasantuak zori txarrez 18t-Tetik 1831'era beti eriotzaren ertzean bizi izan ziran iru aitasantuak, eta aien ondorengo Gregorio XVI'a, ta kristaudi zabaleko gotzaiak berak, benetako artzaiak ziran eta beretarren egiazko aita onak, apaizgaiak eta kristau-gaztedi guztia gero ta obetoago ezitzeko batez ere, gogotik saiatu ziranak. Jasoko ditu laister Elizak saiaketa orren emariak,

Apaizen jainkotasunaz itzegin dugu. Ars'eko Jon Mari Vianev Deuna izan zan guztien eredu, baiña beste apaiz bikain asko ta asko izan zan Kristaudi guztian: Balmes bera Katalauni'n, apika orduango Europa'ko elizgizonik argienetakon; Rosmini, Gregorio XVI'aren ustez Itali guztian apaizik bikaiñena. Eta, Rosmini'rekin, Cottolengo eta Lenteri italiarrak; Thyssend eta Triest, Lurralde Beekoetan; eta, Austri'n, Hofbauer Donea.

Izan zituzten protestalariak ere gizon santuak, Babiera'ko Neuendettelsan'go «artzai» Jon Konrad Lohere'ntz antzekoak. Pillaka joaten zitzaizkion, Ars'eko Apaizari bezala, «artzai» lutertar oni jendetzak. Aipu ona zor zaie protestalariet dotriña erakusteko baztar guztietan iriki zituzten «lgandectako Ikastolei»; eta zer ikusirik izan zuten, noski, ikastola auek, katolikoek ere dotriña erakusteko eta erakusketa-erak obeagotzeko artu zituzten lanetan.

Protestalariak bezain or.a'i ibilli ziran katolikoak aszetika-ekintzaren arloan. Garai ontan asi ziran ain itzal aundia izan da zuten «Notre Dame»ko Konfrentziak. Lacordaire domingotarra izan zan 1835'ean lenengo izlaria. Tzkera zfrrotzeko «'zona. zorrotzegikoa askotan, bere maixu Lamennais'en antzera. Jakintsua benetan, baiña neurriz. ,gandiko erromantikoa eta scntimenkeri-zalea.

Garai ontakoa da sekularren Anaidi edo Kofradien berbizkundera ere; erri-mixio danak kofradi auetako bat zuzpertu edo berriro eraikiaz amaitzen hait ziran. Egia esateko ei ziran lecdiko kofradi zarrak osoko iraultzapean il. Asarre jAkin zuan Ardeche'ko Jaurlariak, I fi05'ean, Probintzi artako «Penitenti-Itiofradiak» 6.600 «anai» bazituztela. Ortan cire badute orduango katolikoan ariketek protestalarienkin kidctasuna: erriz-erriko «predikatzaile» protesta-iarick ere sozio-ckintzarako lagundi bat-edo eraikiaz amaitzen bait zuten jardukizun oro.

Antzekoa zaien, Huta, predikatzaile aiek eia mixiolari katolikoak jarduketan elburua: «Kristaiebizitza»; baiña , «oartuaz» , ia «sentittuaz» alaiki eraman bear dan kristau-bizitza bat. «Reveil», «esnatzea», deitzen zioten aiek elburu orri; «Konberlsioa», «itzulpena» , auek.

[ta, ondo bcarrezkoa zan uni-fun osoko «kristau-bizitza» batera «itzultze» on Kristaudi guztian. Entzun dugu 1 826'ean Paris'ko nuntzio Macchi'k esan diguna: Frantzi'ren erdiak ezer ez zekiala erlijio-gaietaz, eta Paris'en bartan zortzinrden bat bakarrik joaten zala mezara.

Ona zer dion Alemani'n beste nuntzio batek, --Capaccini'k—, bnrgesitarrak eta jonde ikasiak elizara urbiltzen ez zirala idatzi ondorean: «Doi-doi aurki daitezke oraindik egiazko erlijioaren artaznak , cta, erri landerraren al-zonn bakarrik».

Belxika'n. Malinas'ko Goigotzaiak zioner, «iñoiz haiño ugariagoak eta nabarmenau,oak omen ziran sinismenik-eza, axolagabekeria, (!'indiffercnce), biraoketa, ordckeria, eia lizunke ia». Tzurrite orren errua atzerritarrei boratzen die. auek ondatia omen zuten , bâ, helxikarren sinismena.

I:z zcbiltuan obcki gure anai here'ziak. Tnglanderrian 1851'an egindako estadistika baneal au-nura, eundik berrogei bakarrik joaten ziran an igandectan elizara. Alemani'ko estadistikarik ez dugu, baiña Berlin'go 500.000 biztanleetatik 30.000 bakarrik, cita auetatik in danak emakumeak, etortzen zirala igandectan otoiztegic ,ara dio predikatzaile hatek.

Ikusi daitekeanez, bet'ko gaitza da i .lizan kristauen nagitasuna, eta ez noski Fliza katolikoaren barruan bakarrik. Baiña, aala cre, emezortzigarren mendeko-n baino askoz bizkorragoa eta kementsuagoa dugu Birrezarketako Eliz au. Sinisgabckcritik zuiaN zitzaizkion «seme galduci» •or die Eliza Katolikoak bizkortasun on-en zati ban , balio aundiko jendeak bait ziran aiek: eta asko 'zan hai t ziran gaiñera.

Aristokrazikumeak izan genituan, aurrena, Elizara itzuliak, eta aien artean gaillurrena Artois'ko Kontea, geroko Karlos X Erregea, Iraultza-aurrean Bertsalles'ko Jauregian bere maitekerien kulpaz amaika esamesa sortarazia. Eta Monuorency, Rohan, Noailles, La Rohefoueauld...

Gero 1830'eko iraultza-ostean, burgesitarrak asi ziran Elizara itzultzen...; eta unibersitateetako ikasleak, Ozanan'en eta Lacordaire'n ekintzei eskerrak auek, eta agian, norbaitek dion bezala, «semeak gurasoen bideetatik ez ibilli nai izatea biologi-legea dalako».

Alemanian abertzaletasunak lagundu zien sinismena galdutako katolikoei, Elizarako bidea billatzen, Iraultzai triek aurrena eta napoiondarrek gero Alemanian indarrez sartu ziran ezkerreko, sinisgabea izatea frantziarren aldekoa izatea bezala bait zan an. Prantziako gudari zantar aiek egindako geiegikeri ignin-garriek ere, narda sortu zuten alemaniar landuen biotzetan, eta erlijiorik gabe g<sup>1</sup>zabiderik izan ez daitekealako sentimena'

Sinisgabeetaz-landa, asko izan ziran katolikotasunera etorritako protestalariak ere, eta lenen maillakoak gainera. Printzipeen sendietakoak, zaldunak, idazleak (Müller, G4res, Sehlegel), erlilariak (Overbeek, Elinkowstriin), eta mota guztietako jakintsuak. (Gizakume argitsu aien aldakuntzaren arrazoiak?)

—Batzuentzat Europa'n gertatu-berri ziran ondamen guztien erroa luteratasuna izan zain uste izatea. Qua zer esaten dien Iialler'ek bere gurasoei: «Katolikotasunera non, gaurko Iraultzaren azia Luter'en iraultza tira izan *zala* ikusi dudalako».

—Reste batzuk erdi-aroko Elizaren ezagutzera erromantitasunak eraman zituan, eta, ortik, Elizaren katolikotasunaren aunditasuna aditzera.

—Reste asko, protestalaritzetan sorturiko «rexcil» edo «esnarze» arek hultza-ta, katolikotasuneraino iritzi ziran, Newman eta onen lagunak bezala. 1840'aren inguruko urteetan, 2.000'tik 3.000'ra katoliko-biurtze izan ziran inglanderrian. igikera berdiña Ameriketara ere eroe zala badakigu, baiña ez dugu angostadistikarik. Katoliko biurtutako amerikar aietako bat da, gaur aldereetan daukagun Llisahete Seton xarmagarria.

Protestalaritzatik zetozen gizakume aiek, balio aundiko jendeak ziralako, Eliza ugaritu baiño zerbait geiago eta garrantzitsuago ere egin zuten: Apostolutza-kerak berriak ekarri. «Kera» berri auetako bat daiteke, gaur «Katoliko Ekintza» izendatuko genduken «sekularren ariketa», une artan ain indar aundia artu zuan mobimentua. Orduango «Katoliko-Ekintza» ura iru alorretan ari izan zan lanean: Ikaskintzan eta irakaskintzan, karitate-ekintzan, eta apostoladutzan. Ekintza oien zuzendari onuragarriak izan ziran Gtirres Munich'en, Galitzine printzesa Münster'en, Merode Belxika'n eta Azeglio Piamonte'n.

Jakiña da, protestalarien artean sekularrek esku geiago dutela gure artean baiño Elizako gatzetan. Ez da beraz arrigarria, Gtirres bezala, protestalaritzatik itzulitako gizakume bikain aiek ekintzarako leia berekin ekarri izatea. Ez

ala ere uste, -ato ico-se u ar-igiketa ura protestalarien antzera jokatzea bakarrik izan zanik; sortu bezala, Frantzi'n sortu hait zan Alemani'ko edo Inghlanderri'ko katolikoen artean baiña askoz leenago,

1801'ean, inñakitarra izandako batek eraiki zuan Paris'en, Andre Mari'ren () menez, «La Congregation». Lz Zan ura, oraindik, Katoliko-Ekiniza, baiña kongre;nazio artatik sortuko ziran izen ori, «Katolik-Ekintza», ondo merezi duten jarduketak.

Kongregazio ortako iru aristokrazirarek sekularren Anaidi bat osatu zuten Napoleon'en azkeneko urteetan, sinismena babesteko: «Les Chevaliers de la Foi», «Sinismen-aldeko Zaldunak».

Lz zan ura erie Katoliko Ekintza, politika-ekintza katoliko bat eratzarren eraikitako Lagunarte erdi-isillezko bat baizik. Napoleon jausita Luis XVIII'ak buruntza jantzi bezain laister bildu zuten ostera aristokrazikume aiek berak Andre Mari'ren omenezko Kongregazio zarra, otoitzaren eta itzaldien bitartez kongregaziotarren gogo-bizitza sendotzeko. Baiñan politikan asko sarturik hait zeuden kongregaziotarrak eta aietako bat, Polignae, bait zan Frantzi'ko Lenen ministro, laister artu zuan Kongregazio osoak, politika-usata, «Masoiiza ZUria» deitu ere zitzaion. Baiña politikaz gaiñera, *eg'n* zuten beste zerbait Kongregazio artako jendeek; egiaz Katoliko Ekintzaren aitzindaritzatartu dezazkegun Alkarteen eraiketa. Ona Alkarte aien izenak:

—«Société des Bonnes Etudes» («Ikasketa Onetarako Lagundi a»)  
gaixotegiak eia presondegiak ikertzeko.

«Société des Bonnes oeuvres» («Ikasketa Onetarako Lagundia»), gaur eguneko ikasle-billeren azia.

—«Société Catholique des Bons Livres» («Idazki Onen aldeko Lagundi Katoliko»), liburu onak zabaltzeko. Ori bera eginen du Azeglio'ko markesak Zerdeña-jarirerrian.

«Société pour l'Apprentissage des Orphelins», («Umezurtzei lan-bide bat erakusteko Lagundia»).

«Société de Secours aux Pauvres Honteux», («Limosna eskatzeaz lotsatzen diran txiroen aldeko Lagundia»).

—«Institution des jeunes Aveugles», itxu gazteei laguntzeko.

«Société de Saint François-Regis», sasi-ekontzak zuzentzeko «Regis'tar Frantzisko Deunaren Lagundia».

—«Association de Saint Joseph». 1822'an, osatu zuan Alkarte au Lyon'en Lowenbrück apaizak Kongregaziotarren laguntzarekin, langilleei serbitzeko. Ona zer eskeintzen zien langilleei serbitzu arek: Nagusi katolikoen lantegietan lana aurkitzea; lana aurkitu-arteke ostatua; opor-astietarako jolas-tokiak; langintzen erakusketa...

Milla laguntzailetik gora izan zituan Alkarte onek ola-jaun eta salerosleen artean, eta baita 7'000 langille ere Alkartean sartuak.



Beste Lagundi bat ere asmatu zuten Kongregazioko jenderik aundikienek 1828'an, goraxeago aipatutako «Sinismen-Aldeko Zaldun» aien asmoak aurrera ateratzeko: «l'Association pour la Défense de la Religion Catholique».

Ez zuan bizitza luzea izan; politikan geiegi sartu zalako, «Sinismen-Aldeko Zaldunen» ura bezala desegiña izan bai<sub>t</sub> zan. Baiñan ura izanen zan lenengo Istituto Sekularra, Erroma'k Elizaren Istitutotzat artu eta on-ezagutu balu.

Paris'en bezala sortu ziran Frantzi'ko beste urietan Paris'koen antzeko «Katoliko-Ekintzak». Lyon izan zan eginkizun ortan uririk langilleena, eta Lyon'en gizonik langilleena, Benito Coste, «la Propagation de la Foi» edo mixioei laguntzeko oraindik bizirik daukagun «Sinismenaren Zabalkunde» deritzaion ekintza eraikitzeko, aurreneko pausoak eman zituana. Pauline Tarnieot izanen da, ekintza orri 1822'an sortzea emanen diona.

Kongregaziotarrek asmatutako lagundi eta alkarte aiek 1830'eko iraultzak desegin zituan; Eliza Koldobika XVIII eta Karlos X Borboiekin ain batua egon zalako, Elizaren aurka ere egiña izan bait zan Iraultza ura. Baiña ez zan alperrik lagundi aietan kristau gaztedi sekularra apostoladutzan oitu, eta laister piztu ziran ostera ekintza aiek; eta bitartean, Armando Melun izan genuan katolikook sozio-ekintzetan txapeldun.

Onak berbiztu zuan langilleen aldeko «Donejosebaren Lagundia», orain «Xabierko Frantzisko'ren Lagundi» izenarekin; 1840'ean. Eta Melun'en atzetik, Ozanan etorri zitzaigun, garai guztietako apostolu sekularren eredu. Lyon'en jaioa, Sorbona'ko irakasle zan 30 urterekin. Lotsarik gabe itzegiten zuan bere kristau bizitzaz ikasleen aurrean, eta lotsarik gabe erlijioaren alde idatzi. Jendetza aundia bereganatu zuan, eta jendetza ura sail txikietan zatitu zuan, orrela, gizasendo gazte aiek alkarrekin bildurik kristautasuna obeto aztertu aal zezaten'

Sail bakoitzari «Conférence» deitu zion, azterketa itzaldi bat entzunaz asten zutelako: «Konferentzia»: «Itzaldia»! Baiña itzaldi bat entzutea, entzuna alkarriketan aztertzea, eta aztertuari-buruz alkarrekin otoitz egitea, gazte aiek naiko ez zutela laister oartu zan, eta «goazen beartsuetara», «allons aux pauvres» deadar egiñaz «Paul'eko Bixente Deunaren Lagundian» batu zituan bere «konferentzi» guztiak, 1833'an.

Arrezkero, gaur ere bizi diran «Konferentzien» lana, otoitzaz gaiñera txiroak beren etxeetan ikertzea izanen da. 1833'koak ziran aurreneko «Konferentziak». 1848'an baziran 262 Frantzi'n eta 106 atzerrian. Eta urte ortako Iraultzak ez zituan ukitu, urte ortako Iraultza, esan ditugun arrazoien ondorioz, Elizaren aurka ez bait zan sartu.

Federik Ozanan maitagarriaren itzalari eskerrak, eta baita «l'Avenir»ek egin zuan lanari eskerrak ere, 1830'ko iraultza ezkerro, burgesikumeak izan ziran aristokrazikumeen eskuetatik apostolutzaren zuzendariketa artu zutenak.

Ekintzazko kristaudi bikain omen zintzotasunak eta berotasun miragarriak naitanaiez ekarri bear zuan berekin brlij.oso-Anaidien berbizkunde loratsua. Eta ala gartatu ere zan. Ez du Llizak, ontan, Birrezarketaren aro au baino denbora emankorra. oarik izan: Iraultzatik irtendako (aizak berekin zekarren bizkortasunaren aztarna pozgarria.

Anaidi eta Istituto guztiak debekatu eta desegin zituan Iraultzak, Anaidi aiek «tizakumearen eskubideen aurkakoak ziralako...! Baiña Iraultzaren zigorkaden azpian bertan asi ziran ostera Anaidiak sortzen.

1797'an eraiki zuan Nikolas Paccanari'k frantziarren mendean zegoan li'ra «Sinismenaren Aldeko Josu-Lagundia», eta uric ortan bertan eraiki zuten T'ournely ara Broglie frantziar apaiz erbesteratuek beren «Josuren Biotz Txit Donearen Apaizen Lagundia». Ta auek baiño lenago, iñakitar izandako Picot de Clorivifre'k asmatu ota sortu zituan Frantzi'n h.:rtan neskatillentza, «Mari Sortzczgarbiaren Biotzaren Alaben Lagundia» ota apaizcntzat «Josu-Biotzaren Lagundia». Batzar Ko stituzioegilleak Erli!oso-Ana<sup>i</sup> diak debekatzen zituan une berean!

«Josu-Biotzaren Lagundiko» apaizak, iñakitar e,in ziran Loiola'koaren Lagundia berbiztua izan zan b 2zain laister. Lekaimen Lagundia, bizi da oraindik

Bizkurtu ziran, atzera, Anaidi zarrak. Arin haste toki bateau esan dugun bezala, iñakitarrak. Arin, ia illik zeuden ligoriotarrak: baita salletarrak are. 42 ikastetvetan 247 anai ziran salletar auek 181 1'ean; 469 ikastetxe zituzten 1845'ean eta 3.792 anai.

Astiroago, baiña indartu ziran baste Anaidi zarrak ora. Baneditarrca izan zan Iraultzakooan geienik endetta. Lamennais'en ikasle batek asi zuan, Solesmcs'ko lekaidetxea birreraikita, Anaidirik zarrena dugun onen zuzperketa: Prosper Guéranger liturgilariak.

«Lamenaistarra» dugu baita Domingotarrenari ats aman ziona: Enrike Lacordaire izlaria, cromantikerako izarrik dirdaitsuenetakoa.

Lacordaire'ren ikasle bat, Jandel, izan zan berriz, Anaidi domingotarraren Aita Maixu Orokorra izendatua, eta bi gizon sendo auengandik Frantzi'ko domingotarren Anaidira igarotako «liheraltasuna», nabaria izan da geroztik, menda t'erdiren luzaroan.

Anaidi herri guztien izenak aipatzerik ez daukagu, asko ta asko izan hait ziran, naiz batzuk beren elizharrutiko mugetatik atera ez. Mende terdian sortutako anaidictatik Andre Mari'ren izena damakitenak badira... 700! Auetatik, irurden bat, 235, mendearen aurreneko berrogeitamar urteetan jai oak. Aitor dezagun Andre Msi'ren o menez, Anaidi berri, denak daramakitcla aren izena, baita geroago sortutako aiek ore. Besteak. Josu-Biotzaronaz dira eza-gutuak, geienak beintzat.

Izen guztiak aipatzerik ez daukagun ezkerro, azaldu ditzagun Birrezarketa-  
-aroko Lat'undi arien zantzu bereizirik ezaugarrienak:

—Elizaren azpi-azpitik jaiok dituzu danak, liliak lurretik bezala. Gotzaiek ez dute, begien aurrean sortzen nizkien lore auei, onesmena, eta cienik, laguntza eman besterik egingo.

—Anarkirik aundienaren aizera sortuak dituzu, eta orregaitik, belardietako liliak danak alkarrekin berdiñak izaten diran modera, bata bestearen antzekoak dituzu Lagundi auek ere! Izena dute askok diferentzirik aundiena, eta ori ere ez ain aundia, ia danak edo losu'ren edo Mari'ren Biotzen izena daramakitelako; Elizaren lur marduletik berez jaiok izatearen ondorio dugu anarki-kutsu ori.

—Mundura gero zabalduko ziran Lagundiak ere, eliz-barrutien mugabarruan luzaro gotzaiaren menpean bizi izan ziran. Bildurra zieten gotzaiek zuzenki Aitasantuaren menpeko ziran Anaidiei; baita, Sterekz belxikarra edo Affre frantziarra bezalako gotzairik jatorrenek ere.

Anaidi aiek geienak, ekintzarako asmatuak izan genituan; oso gutxi otoizketa bakarti izkuterako, Ortarako Anaidi zarrekin naikoa zala uste izanda, Lagundi herri auek utsuneak betetzera zetozelako? Lz noski; giroa]; orduan ekintza eskatzen zualako haizik.

—Geienak ekintzarako asmatu zirala esan ba'dugu, auetatik ia danek erakuskintzara jo zutela erantsi deziokegu leu esanari. Ainbesteko gudu- borroka, iraultza, eta Eliza-zigortzeek erakusketaren arloan egindako kalteak zuzentzera eta utsuneak betetzera bait zetozen Lagundi berri auek, esan dugun lez.

—Arrazoi beragaitik izan zuten, kixazko neurri ta aunditasunera iritxi ziranak beintzat, mixioetarako ain zaletasun uundin.

—Anaidi ta Alkarte auetatik geienak Frantzi'n erne ta jaiok ziran, Iraultzak Elizaren bizkortasunik auldu ez zualaren adigarri egokia.

Olestu dezagun, ala ere, eta pozik gaiñera, konbentuko bizitzaren zaletasun-txinpartatxo bat piztu zala gure anai lutertarren artean ere. Lutertarrek sortutako «Diakoni-EmakumeenLagundien» eta «Anai Erakusleen» eredu daiteke Hamburg'en Enrike AX'ichern'ek osatu zuan Anaidia. Badu, puntu askotan gizon xalo onek Donibane Bosko'ren antza pozgarria. Zillegi bezai<gu «pozgarri» itza birrenabiltzea, galdera au egiteko: Ez al da pozgarria Iraultza-aurreko Elizaren antzutasunetik irten ondorean, Iraultza-osteko Elizaren ioritasun zoragarri au ikusi aal izatea? Orduan, askoren jabe zan Eliza, baiña ez zuan giartasunik; orain, ez da ezeren jabe, baiña, ia nolakoa dan bere ugalmena!

Anaidi ta Lagundien loratzen Elizaren azpi-azpitik sortua izate orrek zerbait adierazi nai digu: Bazala Elizaren azpi ortan kristau-bizitza gartsua; estadistikek ez dutela guzia esaten. Gauza bitxia, estadistiken mamia. XVIII mende-erdian egin ba'litz estadistika bat erri katolikoetan 100'ek legearekin zintzo

kunplitzen zutela esango zIgun estadistika arek. Ir aultz'ondoan egindakoak, berriz, oso gutxi zirala Iliz-legean jaramon egiten ziotenak adierazi digute. Baiña gutxi auek piztu zuten, zinezkoak ziralako, Llor. zarraren errañ beti-gaztcetan eun urte lenagoko kristauak amestu ere ez zezaketen ernalmena,

\* \* \*

Ala ere ez uste izan kristau bikain auen Elizaren santutasuna orhanik gabea danik; Elizak Jaungoikoagandik duan dunetasuna eliztar gizakumeek, bere-egiten dutenean, moztu, txikitu, lausotu ta orbadu egiten bait dute. Aztertu dezugun lendabizi Birrezarketa-aroko gogo-bizitzaren saiets itzalen au; guru, buste dirdaitsuago ari, atsedenez so-egin dezaiozun.

Urrundik zetorkion garai artako aszetikari bure akatsik nabariena: Saint Cvrn baionatarraren zorrozkeritik. Ars'eko Apaiz maitagarriak berberak a! nolako dardara sentitzen duan Jainkoaren Epaiketaz oroitzean; eta maIz, oso maiz darabilki oroipen uni hure barruan. Ortik, Santu aren, munduko pekatuen-gaitik, ainbetseko negar-egitea.

Bildurraren bide ortatik juan zan orduango eliztarren oiturizti *edo* morala, <sup>8</sup>orputza zigortzeari eta buste orrelako eginbearrei ain garrantzi aundia emafun zien morala. Dantzan ibilli ziranei ez zitzaien sakramentuetara alderatzen uzten... , sakramentuei moralista aiek zieten begirunea eru saintzirandarra bait zan. Oso gutxitan ausartzen ziran kristauak Guru Jauna artzera, eta ausartzen ziranean ere, prestaketa luxe baten ondorean izan oi <sup>zig-1;</sup> eta ikara aundiarekin orduan ere. Kezka berak aitorketaren sakramenturako. Ondoren txarra ekarri ziguten moralista eta gogo-gurasoen estukeri oiek, urrundu egin bait ziguten jendea Elizatik.

Egia da-ta, aitortu bear dugu baionatarraren edena sartu zala protestalarietara cru; Olanda-zear noski. Saint Cvrn'ena bait da aien «predikalariek» eten gabe pekatuaz eta inpernuaz oiuka aritzeko azaldu zuten Ieia.

Katolikoan artean laister jeiki zan aszetika illun arentzat erantzun egokia Itali'ko katolikotasun alaiean, Cottolengo, apaiz arrai , irriño goxoaren jabea, asi zitzaigun bure lekaimeci, aurrei, eta gaixoei rgunero latina ematen. Pozik artu zuan oitura ori gogo-bizitzaren zale aurkitzen zan Elirazen zatiak. Arri-turik gelditu zan Newman Milan'en 18446'eau astegunez ainbeste jende jaun-nartzen ikusi zuanean.

Geiago kosta zan Itali'az kanpo baionatarrak ereindako gaitzaren ezabatzea.

Ezagutu ditut nik Euzkad'i'n, baserrietan, etxejojaun kristau santuak, arratsaldero etxeko sukaldean sendiarekin arrosaioa esaten zutenak, baiñan egu-nero, edo igandero, jaunartzera ausartzen ez ziranak. Pazkoazkoan bakarrik! Eta orduan eru aurretik gertuketa aundi bat egin ondorean. Pazkoazkoaz-landa zergaitik ez ziran maizego jaunartzera urbiltzen, galdetzen ba'zenien, «gu ez gera iñor ortarako, Jauna», arri-turik erantzungo ziguten.

Cottolengo'ren eskutik, sartu gera orduango katolikotasun aren alderdi dizdirakorrera. Alderdi ortan bi eraspen dira aipagarrienak: Josu'ren Biotzarenaganako eraspenna; Mari'ren Biotzarenaganako eraspenna.

Erromantitasunak sentimentuei zien zaletasunak lagundu zion noski eraspen bikoitz uni, ainbeste, ain errez, eta ain azkar, zabaltzeko; baiña baita inakitarrek, Margarite Doneari josu'ren Biotzak egindako ikustaldi ta agin-duen ezaguera bazter guztietara eramateko, artu zituzten lanek ere.

Agindu aiek jende xeak oker ulertu zituala bein baiño geiagotan, kezkarik nabe aitortzen dugu. Siniskerira iristen dira noski bendeetarrak b.errokarakoan Josu-Biotzagan ipintzen zuten ustea; baita España'ko karlistek «detente» deitzen zioten eskapularioan jartzen zutena. Gure begiekin ikusi ditugu frankotar gudarien bular-gaiñetan zintzilik ikur oiek, idazki onekin: «detente bala; el Sagrado Corazc n està conmigo»; «geldi, bala; Biotz Donea nerekin zegok-eta». Aitorzen dugu, baita're, giroak eskatzen zuan erara Birrezarketako Josu-Biotz-Eraspen au, Donibane Eudes'ek irakatsi\_ zuan ara bezelakoa ez zala; baiña oker legoke kristau erriak Biotz Donea egiaz eta benetan moite ez zuala sinis-tea. Bitez Ickuko Josu-Biotzaren omenez orduan asmatutako ainbat eta ainbat Anaïdi ta Lagundi.

Ori bera esan leike Andre Mari'ganako jaierez. Biotz «Orbangabea» esan oi zitzaion beti aldi artan Mari'ren Biotzari; gaillurrera eldua bait zan aren «Sortze Garbiaganako» eraspenna. 1854'ean iragarri zuan egi sinisbearra Pio II'ak Miren Neskutsasen Orbcnik Gabeko Sorkundea.

Ordurako, 23 Lagundi jaio ziran 1805'a ezkeron mirari onen amenez. Se-meak ama bezala moite zuten kristau aiek Andre Mari. 1837'an asmatu zuan Paris'en Desgenettes apaizak «Mari-Biotz Orbangabearen Artxikofradia». Be-reala irabazi zituan 100.000 kofradikide monda guztian. Ats bizkorra eman zion Mari'aganako eraspenari Andre Mari bera Laboure'ko Katalin Deunari agertu zitzaïola jakiteak.

Diru ustela onaren artean bazter guztietan nasi ai da-ta, «agerkizunen» aria antan, izan zan arrisku aundia Birrczarketa-arDan; neurri-gabea hai t zan erromantizaleek izkutuki ta misteriozko gai orori zioten laztankeria. Umetxo bat bezala egon zan Erroma'n Newman berbera Poloni'tik erbesteratutako le-kainie baten igarkizunak jasotzen Ebangelioaren ogiak izan balira bezala.

Garai artako «espiritualitatearen» beste ikur bat dugu liturgiaren berbiz-kundea. Solesmes'ko Abata Guéranger izan genuan ontan txapeldun. Gaurko urruntasunetik so-egiten ba'diogti, errez nabari daitezke Abata aren eginkizunak izan zituan akatsak:

—Geiegizko antziña-zalea, eta, —erromantiar danak bezala—, batez ere geiegizko erdiaro-zaku izan zan Guéranger.

—Berak ziur-ziur antziñakotzat artu zituan oitura, otoiz eta zirinwni asko, ez dira uste izan zuan bezain zarrak. Ezta askoz gutxiago ere.

—Aren Liturgia lekaideentzako bakarrik egiña izan zan. Sekularrek Meza obeto jarraitzeko «kauon-otoitza» latiñetik frantzicrara itzultzeko baimenik ere ez zuan eman nai izan.

Erroma-zalegegia agertu zan, Gali'ako liturgi bereziak ez ezik, Sorkal-deko Elizen Liturgi agurgarriak cre oso zuzenak ez zirala uste izan bait zuan. 13(m-eala izan zituan aurka Frantzi'ko gotzaiek.

Bear baiño garrantzi geiago ematen zion Liturgiari, gaiñerako eraspen guztiak kaxkarregitzat etsiaz: «Luzaroan arin dute kristauek otoitzerako gaia gizakumeek idatzitako liburuetatik. Badira liburu oietan gogapen egokiak, eta baita santuak ere, baiña giza-gogapenak dira guztiak; jaki aula, Elizaren otoitza sartzan ez gaitulako; alkartu bearrean, ibereizi! egiten gaitu otoizketa orrek; «cette nourriture est vide, car elle n'initie pas a la prière de l'Église. elle isole au lieu d'unir»'

Alatagutziz, bure akats danekin bikaiña ta aintzagarria izan zan liturgiaren aldeko lan ura. «Alkartu-bearrean bereizi egiten duan» otoitz mota bat bazala zionean, bazuan Guéranger'ek agian, zerbait okerra gogo-bizitzaren altzoan gertatzen ari zalaren zentzua. Urte aietan zabaldu zitzaigun liberaltasuna Europa'ra. Liberaltasuna indibidualista da, bakoizkeritsua, eta bakoizkeri liberal ori geiegi sartu zan gure aszetikara.

Eta liturgiaz ari generalik naitanaiez aipatu bear dugu MLihler doistarra, teologilari onen Eliziztian errotu bait zan Alemani'n liturgiaren pizkundi; eta Guéranger arkeologi-zale eta elertilari erromantikoia zan bezela, Mühler teologilari sendo burutsua zalako, bide obetik joan zan Alemani'n liturgi-lana.

Kristau arruntei liturgiako otoitz eta zirimoni guztien agerpena al zutenik argien egiteko agintzen zien apaizei Sailer gotzaiak. «Tubinga'ko Eskolako» irakasle Ilirscher'ck, meza, eta liturgi osoa, erriaren izkuntzan egin aal izatea eskatu zuan; eta sekularrei [ukaristia ogi-ardoan itxnretan ematea. Orixe bera nai zuan Inghlanderrirako Berrington apaizak.

Alemani'n eru izan ziran geiegikeriak; Plirseher bera Meza Nagusi ez diran meza guztien aurka egon zan, eta baita meza-entzuleak Jaunik artzeke ematen diran mezen aurka cru. Beste atal bateau esanik utzi dugun bezala, Kostantza'ko Bikarioa, AX/essenberg, bure buruz asi zan aldakuntzak egiten.

Liturgilarien ekiñaldi guztiak ez zuten jauretxeetako abeskerarik aldaarazi, eta ez da miresgarri; Saint Cyran bera ez bait zan ori lortzeko gai izan. Karrika, dantzatcgi, eta ardangeletako abestiak berak zerabilzkian erriak elizkizunetan, itzak aldatu besterik egin gabe; baita opera nagusietako doñuak ere.

Beethoven, Listz, Schubert, Berlioz..., musikalaririk bikaiñenak ari izan ziran gogoz Elizarentzat asmaketan, — eta kristautasunak Iraultza-ondoko gizar-tean irabazitako ospe aundiaren adigarri dugu ori, baiña ereslarri aien eliz-abes

tiak, antzokietarako, edo kamaretarako, ereslari aiek berberak idazten zituztenak bezelakoak dira; ez dute eliz-kutsu bereizirik.

Alatagutziz, eresia dugu Birrezarketako Eliz-Erti lanetan alderaketarik gabe bikaiñena. Arkitektura, gotikeraren bir-erabiltze uts izan zan, baiña erdiaroko maixu zar aiek izan zuten txairotasunik gabekoa. Margolariek egin zigutenetik, Delacroix'en lanen bat baizik ezin genezake goratu, Overbeck ez bait da aren maillara iristen' Eliz-erti-ezaren arrazoitzat, gizartea Elizatik urrunduzate a ipiñi oi da. Ez gera gu iritzi ortakoak' Aurrena, Ertiaren gaitasun-falta ori Elizatik-a ere berdin nabari zaigulako; eta, gero, orduango ertilaririk bikaiñenak (ia-ia ertilarik bakarrak) musikoak izanik, musiko danak eta batez ere garaienak, eliz-eresian ain gozoro ari izan zirala aantzi ezin dugulako'





## MIXIOEN PIZKUNDEA

Beti izanen dira mixioak Elizaren osasuna neurtzeko termometrorik egokiena, aren eginkizuna orixe bait da ain zuzen: ebangelizatzea' «Euntes predicate»; «Zoazte, iragar'zazute».

Katolikoan «joate» ori anai bereziengana izan zan lendabizi Birrezarketa-koan' Sailer, Chateaubriand, Bonald..., saiatu ziran batasunaren alde, baiña Tabaraud izan zan arlo ortan lanik geiena artu zuana' Berea da Ekumenetasunaren edestian oroigarrienetakoia dan onako liburu au: «De la Reunion des Communions Chrétiennes». Auxe eskatzen du batasuna lortzeko: protestalariet sinispidearen punttu batzuetan amore ematea, eta katolikoak kanon-legearen arloan. Azkeneko au egitea Elizaren eskuetan omen dago, eta aurreneko ura maiz egin omen dute protestalariet jaramon gutxiagoko arrazoiengaitik.

Batez ere, apaizei ezkondu aal izatea iare uzteko eskatzen zion Elizari.

Birrezarketaren asieran, sorkaldetik ere batasun billa zetoze la zirudian Errusi'ko Paul I'a eta Alexander I'a'

Utsean gelditu zan dana. Birrezarketa-aro artan kristaudi osoan piztutako gogo-bizitzaren gosea, «revivalista» zan: zarra-berritzearen zalea. Orregaitik, bereiziki protestalarien artean ikusi dugun «Eliz bakoitzaren sorkuntza-egunetako biziera ostera bizi nai izate» orrek, Elizaren arteko ezberdintasunak begien aurrera erakarri, eta bizkortu ta gogortu, egin zituan. Orrela, alkartu bearrean, alkarrengandik geiago bereizi, egin ziran Elizak.

Errusi'n Nikolas I'a, itxuki eslabitar eta ortodoxi-zale agertu zitzaigun. Alemani'n Gillermo IV'ak, protestalarien arteko bateratzea bakarrik gura zuan. Elburu orrekin jaio zan Londres'en ere «Ebangelioaren Alkartea». Katolikoan aldetik, alkarriketarako gai ez zan Eliz bat utzi zigun geiegizko estukeriak; —eta bildurrak'

Ekumenetzaren arloan lortu ez zana, jentillen barruti zabalean lortu zan.

Protestalariet asi ziran mixio-lan ontan aurrena, eta Inghlanderritik ain zuzen, erakunde geiago bait zuten inghlandarrek ortarako. Izan ere, Europa gudan txikiturik zegoan bitartean, itxasoetatik aruntz munduaren jabe zan, pakean, Inghlanderria bere guda-mariñelen trebetasunari eskerrak.

Lendabiziko mixio-ekiñaldia baptistena izan zan; ortarako sortu zuten «the Baptist Missionary Society» 1792'an' Iru urte geroago eratu zuten «sekta»

edo sail bereizi batzuen artean, ortarako bat egiñik, «the London Missionary Society» (1795).

Laister asi ziran Laterri-Elizeko anglitarrak ere eginkizun ortan 1799'ko «Church Missionary Society» edo «Eliz-Mixiolagundiaren» bidez. Eta 1810'a ezkerer nixioetan genituan Ipar-Amerika'ko protestalariak.

Ego-Amerika, artean, protestalariarentzat itxia zegoalako, eta Afrika oraindik ezaguna ez zalako, Ozeani'ra eta Indostan'era jo zuten mixiolari aiek. Japon'en ez hait zezakean oraindik iñork oiñik ipiñi 7,ailki Txina'n ere.

Auetxek izanen dira, ziurki, mixio protestalari danen siñale bereizgarriak nabarienak:

Mixiolariak, ia danak, sekularrak ziran;

—Emakume asko joan zan misiotara;

—Mixiotza, batez ere Biblia irakastea eta Biblia zabaltzea izaten zan;

—«Sarkaldekeria»: hataiatuei Europa'ko oiturak eta jantziak artuaraztea;

—Kristau-beartsuei gorputzeko nekeetan ere al zitekean guztia laguntzea. Ala craiki zituzten ainbeste ikastola ta gaixotegi, eta ain gogorki jende nagi aien alperkeria eta mozkorkeria itzez eta idazkiz zigortu,

Berrogei urteren aurrea artu ziguten mixiogintzan katolikuoi protestalariak, XVIII mendearen erdia ezkerer illik bait zegoan, leenago ain hikaiña izandako gure mixiogintza. Gure mixiogintzaren kalterako, Laterri katolikoen koloni asko inglandar eta olandar protestalarien eskuetara erori ziran; eta oraindik Portugal'en eta Espaiñi'ren mendean jarraitzen zutenek gaitz izan zituzten Jaurerri auen «Patronato» eta «Padroao» ziralako aiek ere; orain Lisboa'n eta Madrid'en, ministro erregekeri-zaleak beti, eta, maiz, sinksmenik gabeko edo oso sinismen otzeko razionalistak hait zeuden agintaritzan.

Kalte aundiagoa egin zioten oraindik Malabar eta Txina'ko «Oituren» auziari eman zitzaion amaiera makurrak, eta Iosn-Lagundiaren desegiteak. Azkeneko zartakoa, mixio gaixoei, ia Europa guztia menderaturik zeukan Iraultzak Erljioso-Anaidi guztiak ezereztu ta galcrazta, izen zitzaien.

Gero... Napoleon agertu zan, eta Napoleon'ek Aitasantua espetxeratu zigun, eta «Propaganda Fide» barreiatu, eta baita, Elizaren beste «Kongregazio» guztiak ere. Aurrera eraman zuan, errepuhl<sup>1</sup> karen jaiotza ezkerer sutan zegoan gudua, eta burruka-lekuetara <sup>P</sup>ota zituan erridietako gaztediak, eta gosea ta txirotasuna ekarri errietara. Europa'ko gaztedi guztia gudarozteetan zebilelarik, mola itxasoz aruntzko lurraldeetarako mixiolariak bildu? Itxirik zeuzkan gaiñera Inlanderriak itxaso guztietako bideak.

Jausi zan Napoleon; baiña orduan Elizaren ardura guztia Europa zarreko kristautasun zapaldua len-bait-len bizkortzeko al zuan guztia egitea izan zan. Dana zan gutxi lankizun ortarako: gelditzen ziran apaizak, dirua!'

Orrela iritxi zan mixioen edestia bere maillil: beekoenera: I 820'ean, 500 mixiolari besterik ez zituan «Propaganda Fide»k bere mixio guztietan, eta ots! , arenak ziran orduan Europa'ko Laterri protestalari danak, eta Ipar-Amerika ere. Txina guztian, 116 europatar *eta* bertako 89 apaiz, ziran misiolariak; Afrika osoan, 40 apaiz bakarrik, eta auek, portugaldarrak danak; Portugal'eko kolonietan ari z' ranak. Australi'n eta Ozcani'ko ugarteetan..., iñor ez!, Filipinetan izan ezik.

Bat-batean, eta Elizaren azpitik, Anaidi herrien antzera sortu zan kristau-erri katolikoan mixioetarako zaletasuna. Sustraiak? T mezoztzigarren mendean argitaratua, bazuten iñakitarrak «Eskutitz Jakingarriak eta Eraspengarriak» izen eman-zioten idazki bat, mixioetako eginkizunak kontatzen zituana. Idazki *orren* mamia «La Génie du Christianisme»ren XVIII atalean sartu zuan Chateaubriand'ek, eta orrela arras zabalduarazi, Iñakitarren idazkia bera *erc* askotan izan zan Birrezarketakoan argitaratua. Orrek sortu izan amen zezakean mixiotarako leia'

Ez zaigu naiko arrazoa danik iruditzen. Protestalariak ez zuten, bear bada, Chateaubriand'en edo iñakitarren idazkirik irakurri baiña aurrea artu ziguten mixioetan. Zergaitik, eta zertik, jaio zan aicngan mixio-guraria? Lenda-bizi kristautasuna ziñez biz tzeko gogo sortu zitzaielako. Bâ, gogo uri hera sortu hait zan katolikoan hiotzetan ere, nai-ta-naiez etorri hear zuan atzetik mixioetarako leia, ez hait dago mixicrik gabeko egiazko kristautasunik.

1822'an osatu zan Ixon'en «L'Association *de* la Propagation de la Foi», «Sinismena Zahaltezko Bazkuna», eta 22.915 franko bildu zituan 1822'ko arte ortan; 3.233.486, herriz, 1846'ean. Pauline Jaricot andereñoa izan zan Bazkun onen aingern ta egiazko sortzaille, Benoît Coste'ren hidetik aurrera irraituz.

Laister, 1943'an, Forbin-Janson Gotzaia', «L'Oeuvre de la Sainte-Infanec», «Aurtzaro-Donearen Fkintza», sortu zigun mixioetako umezurtzei laguntzeko. Oso txikia hait zan Bazkun auek bazkideei eskatzen zieten diru-saria, arras zahaldu ziran, Frantzi'n aurrea, eta Frantzi'tik kanpoan gero, eta amis zabaldu zuten erriaren altzoan mixioetarako zaletasuna. Lan bera egin zuten mixioaldizkariel; baitipat 1824'can asitako «Annales de la Propagation *de la* Foi»k.

Austri'ko erria herealaxe, Babiera'koa ondorean, eta ILLropa guztikoa gero, Frantzi'ren atzetik ziran Iciaketa alaiagarri ontan.

Anaidi berriek, sortu bezain laister senti zuten mixiokuntzarako joera. 1827'an iritxi ziran «pikpustarrak» Ozeani'ra eta 1837'an maristak; ez dugu betarik arien atzetik joan ziran anaidi danen izenak aipatzeko, baiña bai aipatu hear dugula, eta pozik gaiñera, gizonetzkoak hczain treheak izan zirala eginkizun antan emakumezkoak, Ane Mari Javoubey'rcn alabetatik asita. «Un grand homme», « ;A nolako gizona! » oi u egin omen zuan Luis Felipe Errege liberalak Ane Mari Done bikain onen eginkizunak jakin zituanean.

Lerro bat hakarrik Loiola'koaren semeentzat: orain ere, antziña bezala,

beren gain artu zutela saiaketa aintzatsu ontan nekerik mardulena. 1819'an 100 inakitarretik 6 zeuden mixioetan, 1829'an, 19. Baiña 1833'an, Roothan, Lagundiaren zuzendari nagusiak, Gregorio XVI'ak eskatn ziona beteaz, mixio-tara norik joan nai zuan Lagundikoei itaundu zienean, Lagnindiaren erdiak erantzun zion eginkizun ortarako gerturik zegoala.

Gregorio XVI'aren izena Jamaren punttara etorri zaigu len ere majiña bat aldiz, eta ez geienetan aren goratzarrea egiteko. Abestu dezagun orain gozoro bere aintza, mixioen arloan Gregorio XVI'a izan hait da Aitasanturik bikaiñe-netako bat; yayoena eta trebecna bearbada.

Ondo prestatua zegoan ortarako, 1826'can Leon XII'ak, Consalvi il zanean, «Propaganda Fideren» zuzendari izendatu bait zuan, eta, ain zuzen beste Gregorio batek, XV'ak, eraikitako Kongregazio on-en zuzendaritzan ari izan hait zan eten gabe lanean ai(asantutzara igo zan arte. Begi zorrotza izan zuan mixioetarako «Propaganda Fide»ren sortzaillea ren omenez «Gregorio» izena artu zuan Aitasantu mixio-maitale onek.

—Berak bultzatu zituan mixioctara Anaidi berri asko.

—Bere taktika edo lankera mixio lurretan, kristaudia an bear aiña azitzearen zai egon galle elizbarruti berriak eraiki zea izan zan, eta elizbarruti berri oietako zuzendariak izendatua. 70 Gotzai, Bikario, eta Prefekto egin zituan mixioetan Beste orrenbeste eliz-barruti berrietzako bere a:atasantutzaren luzaroan. «Eraiki ditzagun «Artegiak»; izendatu ditzagun «Artzaiak»; billatuko ditu Artzai bakoitzak bere ardiak!» , izan zan aren gogabidea. Eta ez zala iruzurtu, aitortu bearra da.

—Berak bereizi zituan mixioal: Laterrien politikatik, ortarako Españi'ren «Patronatoa» eta Portu'gal'en «Padroa» deseaz naz, Oraindik «Propaganda Fide»ren Kardenal zuzendari zala, naiz Aitasantuaren Estadtttzako Sekretario Somaglia Kardenala asmo ausarti orren adiskide izan ez, Leon XII'ari Españi'ko Erregearen gaidik «proprio mon», «h. re Mratz», izendarazi ziZkIon iare-berri ziran Benezuela, Ekuator eta Kolonbi'n, Bogota eta Karakas'eko Goi-gotzaiak eta Kito, Kuenka (hkuator), Santa Marta, eta Antioki'ko Gotzaiak. (Azkeneko hi uni auek, orduan Granada Berria era ;gero Kolonhi esaten zitzaion Laterrikoak dituzu).

1827'an gertatu zan uri. Artu zuan Fernando VII'a asarre gorriak eta jaurti-zuan Madrid'tik Aitasantuaren Nttntzioa. Ego-Ameriketako Laterriak Españi'tik bereziak ziran ordurako. Baiña Españi'k bercezketara ori legezkoa ezagutzen ez zualako heretzat nai zituan Fernando'k Laterri aietangotzaiak izendatzen jarraitzeko almena eta «Paronatoaren» gaiñerako eskubide guztiak.

Lahrador'ko Markesa bidali zuan Erroma'ra, enbaxadari berezia, «Patronatoa» hahesteko. Gaitzak eta zallak izan ziran Somaglia, Labrador, eta gero Gregorio XVI'a izanen zan Capellari'ren urtean jardunaldiak. Ratera etortzen ez ziralako, eta ez Labrador'ek ez Capellari'k am)rerik eman nai ez zutelako, erdiko bidetik jo zuan Leon XII'ek: gotzaiak izendatu bearrean Apostolutza-

rako Bikarioak izendatzeko bidetik, ez hait zuan auetaz «Patronatoak» ezer esaten.

Bide ortatik jarraitu zuan Pio VIII'ak ere; baiña Capellari'k, Gregorio XVI'a biurtu zan bezain laister izendatu zituan, «motu proprio», egiazko gotzaiak, Mexiko'ko elizbarrutietatik asita, orrela betirako «patronatoari» azkeneko zartakoa emanaz.

Gogorragoa izan zan «Padroao» portugaldarrarekin sortu zan eztabaida. Meliapur, Kotxin eta Goa'ko elizbarrutiak aspaldetik gotzairik gabe egoteaz baliaturik, elizbarruti aien lur-pusketekin bost Bikariotza berri eraikia- asi zan Gregorio XVI'a 1832'an. Sei urte geroago, bost Bikariotza berri aiek Goa'ko Goigotzaiaren jurisdiziotik bereizi zituan, (1838). Egin zuan oiuzakarra Lisboa'tik Mari II'aren Tauralaritzak, et:1, okerrago dana, asarrctu ziran ia-ia zisma batera iristeraiño Goa'ko apaiz jaunak ere' Alperrik izan zan guzia. Tinko jarraitu zuan Gregorio XVI'ak; eta orrela amaitu zan «Padroao» zar ura.

—Aitasantu onen gauzik ederrenetakoa, noski, «Sollicitudo Ecclesiarum» izeneko Araua izan zan, 1831'an argitara emana. Egi galant'au ipintzen zuan Gregorio XVI'ak Arau aren oiñarritzat: Aitasantuaren aurreneko eginkizuna ELzaren interesak babestea dala, eta, ortarako, Aitasantua, «de facto»ko gobernu guztiekin jardun bearrean aurkitzen dala. Au da: Bear duala Laterri haten agintaritzan duan gobernuarekin alkarrizketan jarri, gobernu orrek agintaritzan arrazoiarekin edo arrazoirik gabe artu duan jakin aal izatearen zai egon gabe; eta alkarrizketan aste orrek ez duala gobernu ura Aitasantuak legekotzat artzen duanik esan nai.

Arau orren arisa. 1835'ean onezagutu zuan Gregorio XVI'ak Granada Berriaren askatasuna, 1836'ean Mexiko'rena, eta onen atzetik beste Ego-Ameriketako Laterri guztiena, Izan zituan an ere iskamillak, Laterri auetako Agintari batzuei: Españi'ko Erregeak izan zuan «Patronatoaren» eskubideak eskatzen hait zituzten, haiña ia-ia auzia konponduta utzirik izan zan Aitasantua.

Ezagutu bear zaio Gregorio XVI'ari meritu au: Ameriketako lurraldeetan Flizaren etorkizuneko zorionaren aizeak nondik jotzen zuan igarri aal izatearen meritua. Poloni'n, Belxika'n eta Europa'ko beste Laterrietan asmatu ez ba'zuan ere, asmatu zuan beintzat Ameriketean,

—1839'an, «In Supremo» izeneko «Apostoluzarako Lskutitza» idatzi zuan, giza-endak duintasunean ezberdiñak izan daitezkelaren ustea eta giza-kume beltzen salerosketa eta esklabutza gaitzersiaz. Elizarentzat gizakume danak berdiñak omen dira, eta herdintzat artu bear orrien dituzte mixiolariak. Ondoren ederra ekarriko yuan eskuTitze onek. ILus:

1843'koa da Mixioctako Buruzagi guztiei bidali zien «Irakaspena», mixioen edestian eman dan Araurik bikaiñenetakoa, eta mixioekuntzaren teologiaren oiñarri, Mixioaren elburua Eliz berriak sortu eta Eliz herri oiek «jaino-diran-

tokiko.egitea» omen ela: non egon, angoa izan. Lia ori i;liz bakoitza bertako gotzai eta apaizen eskuetara igarotzen danean bakarrik gertatuko omen da.

Misiolarien eginkizunik garrantzitsuena, beraz, bertan jaiotako gizasemeak apaiztasunera eramanean izatea da; eua apaiztasunetik, gotzaitzara. Ortarako, apaiz-gai billa asteko agintzen die mixiolarietara, eta lurralde aietan jaiotako apaiz oiek berdinlan e;rkitzeko, ez, laguntzailletzat bakarrik.

Sortaldeko kristauen artean lanean ari diran misioarietarako ere baditza aolka egokiak, aize batez ere: sortaldetarrak sarkaldetar b`ur;zen ez saiatzko.

I;ta aurreneko Mora itzultzen da osterara; alderdi guztietako mitiolarietara, gairako eginkizunak utzi gabe, batez ere I;liz aiek len-bait-len iare egiten saiatzeko arren eta arren eskatzera!

krakutsi jakintsu aien emariak ikusteko il zan iru urte geroago Gregorio XVI'a baiña berari zor diogu, neurri galantean, ondorean mixioak artu zuten bizkortasuna. Dezaiogun esker ona.

## SORTALDEKO KRISTAUTASUNA

Begirakizun bereizi maitekor baten duin dira, aro ontako mixiokuntzaren edestiaz ari galararik, Mediterran itxasoaren sortaldean dauden lurraldeetako mixioak; egin hait zuan an lan ederrik ebangelioa zabaltzeko leial:. Eta, garai berean ari izan bait ziran an katolikoak eta protestalariak, hatean aztertu bearko ditugu auen eta aien ariketak. Ots ordea; ez gaitzela, arren, lan ura saiets guztietatik aratza ta santua izan zala sinisteko umekerira jausi!

Ala, *ez* zan donetsuegia, Bonaparte'k buruan zebilkian txodea, 180-rean «Les Missions I trangeres» edo «Atzerri-Mixioak» ontzat artu zituanean, eta Turki'n izan zituan hi enbaxadarici mixioen babesa eta Lur Santuaren zainketa arretarik aundienarekin beren gain artzeko eskatu zienean; baiña enbaxadari auk eginkizun ori pozik eta ongi bete zutela, azturik la  $\tau$ a ezin daitekean gauza da.

Bai noski; hazuten auk ere, beren Nagusiak bezala, bigarren asmotxo bat buru-barrean; politikaren irabazpidea! Orixe adierazi ere argi-argi adierazten digu enbaxadari aietako batek Bonaparte'ri idatzi zion eskutitzak; «erri-di aietan Frantzi'ren ospea zabaldu ta eskua sendotzeko, erarik onena mixiokuntza izanen zala» jakinarazten hait zion (1811).

Ordurako, asko ziran an mixiolari katolikoak bat edo bi gutxienez bai uri aundixamar bakoitzean.

1808'a ezkeror Sortaldean zebiltzan mixiolari protestalariak ere, Malta zuten kabi, 1800'ean Tnglanderrial: Bonaparte'ri ugarte ura kendu ziontik.

Andik *zabaltzen* ziran mixio-lurretara; judutarrak kristautzera, batzuk; ortodoxitarrak «eraherritzera», beste batzuk. Tnglanderrikoak edo Tparamerikakoak ziran lenen mixiolari aiek, jendeen artean Biblia aldarrikatu ta banatuaz asten zuten lana. eta, gero, karitate-ekintzetara, batez ere gaixoen zaintzera, igaro oi ziran laister.

Luzaro gabe izan zuten gainean ortodoxitarren gaizkinaia; eta baita katolikoena ere. Auetako bat, maronita, protestalari egin zalako, 'leste errurik gabe izan zan elizkide katoliko maronites eskuetan itxuski erailla.

Ala ere, izan ziran toki batzuetan, laister ikusiko dugun bezala, ortodoxocn eta protestalarien artean adiskidetasunak.

Mixioketak protestalariei ekarri zien doa:rik ederrena, batasunaren bearra sentiaraztea izan zan. Orrela, mixiogintzaren nekeak eraginda erabaki zuten 1825'ean, Eliz ezberdiñek Ejito'ra eua Abisini'ra bat egiñ.k joatea.

Ejito'n, iru gelditu ziran. Ez noski alperrik; iru mixiolari protestalari oiei eman bait zien Koptiarren Patriarka zismatikoak Seminario Nagusiaren zuzendaritza (1842). Naiz ortaraiño iritxi ez, ondo artu zuten Armeni'n eta Kurdistan'en lurralde aietako kristau zismatikoak Iparramerikatik joan zitzaizen mixiolari taldea. Nestoritarren ierarkiarekin traru-egitera ere iritxi ziran mixiolari protestalari auek, gaixotegi bat ma irarkola bat craikitzeclko.

Argitaratu zuten Bihli ederrik eta liturgi-idazkr apaññik ugari, irarkola sortu henni artan! Sei urte geroaga Persi'n ziran mixiolari amerikatarrak, eta, ordurako, iriki zituzten ikastolak Siri'n, —neskatoenizako batez ere —; baiña emen ezin izan zuten gotzaidi sortaldetar katolikoarekin adiskidetasunik egin.

An zeuden 1832'a ezkeru, amabost urte lenago gotzaidi arek Pio VII'ari eskatutako iñakitarrak; batez ere jende ikasiaren artean ari ziran iñakitar auek lanean. An ari ziran orobat Donefrantzisko'ren eta Donehizente Pauldarraren semeak, Frantzi'tik joandako domingotar batzuen alboan.

Bi gotzaigoren eraiketa izan zan mixio-edesti ontako gertakizunik gaillurrena: Aurrena, Jerusalem'go gotzaigo protestalariaren sorketa, eta gero, Jerusalem'go Patriarkadutza Latindarraren birrezarketa.

Esan dugu beste toki batean, Prusi'ko Federik Gillermo III'ak protestalari guziak batera erakartzeko izan zuan lcia. Ba..., lei aren emari izan zan Terusalem'go Elizbarruti Protstalari Batua; ain zezen, Errege prusiarraren Londres'ko enbaxadari Bunsen'eh asmatua.

Bunsen au, leenago Erroma'n izan zan enbaxadari, Gregorio XV1'arengandik Prusi'ko ezkontza-legeen onespenu lortzera joana. Lege auek, katoliko ta protestalariaren semeak protestalaritzan azi bear zirala agintzen zuten. Ez zuan Bunsen'ek bere egitekoaren elbururik lortu, =:na zan bâ Gregorio XVI'a olako ;gauzetan amore emateko! —; eua Erregeak eman zion mezurik hete aal izan ez zualako, ozpinduxea gelditu omen z tzaion gogoa, aitasantutzari zegozkiokuan gauzatarako, prusiar diplomazi-gizon ari.

Berlin'era itzulirik, atsegin gozoz lagundu zion Erregeari Prusi'ko protestalariak batzeko saiaketan, eta gero Londres'era enbaxadari iritxi zanean, gogotik saiatu zan anglitarrak eta lutertarrak gorputz batera eraman naiean. Ta... , bateau ari bait ziran sortaldean an, litarrak eua lutertarrak mixio-lanean Iira iruditu zitzaion b, tasun-b'dcan lenen urratsa emateke tokirik egokiena; eia ala asi zan Jerusalem'en sortaldeko lutertar eta an; litar guztientzat elizbarruti baut bat eraikitzea pentsatzen.

Ez zitzaion ain batasun-zale zan Federik Gillermo IV'aren laguntasunik peitu. Inghlanderrian, berriz, Lord Ashley izan zuan laguntzaillerik beroena, ez ordea bakarra, Inghlanderriko politikariak laister ikusi hait zuten beren jau-



erriaren onturrearentza, ingland-alemaniar gotzaigo ura txit egokia izan zitekean gauza zala.

Ez zan ontan geratzen Bunsen enbaxadariaren asmoa, Jerusalem internazionalizatzea ere pentsatu bait zuan, an erlijio guztiei askatasun osoa emateko Jaurlaritza kristau liberalkoi bat ezarriaz.

Len ere agertu oi ziran urte aietan itxura ontako gogapenak, txorrotxa izan bait da, beti, Lur Santua jentillen ankapean egoteak kristaudi osoari sentiarazi dion oiñazea. Batzuek Lur Santu aietan erdiarokoaren antzeko Jaurerri kristau bat ezarri nai zuten. Beste batzuek, Laterri guztien artean gobernatutako Lurralde lare egin nai zuten ainbat odol *eta* iskamilla kostatako Palestina ura' Baziran Jauretze zaar berreraikiaren inguruan judutar guztiak an bildu nai zituztenak ere, orrela Judu-Erria, osoan eta batean, kristautasunera ekarri aal izateko asmo goxoz'

Azkenean, gogakizun oiek danak ametsen maillean gelditu ba'ziran ere, mamitu zan beintzat Bunsen enbaxadariak asmatutako Elizbarruti Jerusalem-darra 1841'ean, naiz Suizi'ko eta Prusi bertako mixiolari «non eonformist» edo «laterri-elizetatik kanpokoak» buruzpide aren aurka atera izan. Lenen Gotzaia Mikel Salomon Alexander izan zan, jatorriz judutarra, jaiotzez prosiarra, laterriz inglanderriarra, erlijioz angliarra' ¡A nolako gizona, orrenbeste ezberdintasun bere baitan zituana, ardi ezberdiñen artzai «berdintzaillea» izateko!

Elizbarruti artako bigarren gotzaia, Samuel Gobat, lutertarra zan erlijioz, eta naiz ordurako mixio angliarren serbitzura gogotik lan-egiña izan, ez zuan sekulan angliarren naimen onik bereganatu, Inglannderriko Elizaren guraria kontuan artzeko Prusi'ko Erregeak izendarazia izan zalako. Baiña gotzai bikaiña irten zan bere aurrekoaren antzera.

Jerusalem'go gotzai tzaren babesean, iritxi ziran 1848'rako, ausartiak eta zintzoak, sortaldeko bazter guztietara mixiolari protestalariak. Berrogei urte bakarrik zeramazkitelarik... ibaziran egiazko arrisku katolikoentzat eta ortodoxitarrentzat! Orduan puskatu zituzten aukerak, —ortodoxitarrek—, mixiolari aiekin bazterren batzuetan egindako adiskidetasun guztiak.

Jerusalem'dik oso urruti, eman zion uste gaberik fruitu eder bikaiña Eliza Katolikoari Jerusalem'go Gotzaigo Protestalari batu arek; angliarren eta lutertarren sinispide-nasketa ari so egiteak ikusiarazi bait zion Newman jakintsuari Inglannderriko Elizak ain ozenki aldarrikatzen zituan katolikotasuna eta Apostoluegandik artutako dotriñaren garbitasuna, zearo galdurik zitala'

Baiña, an, Sortaldean, bildurtu ziran katolikoak, gotzaigo berri aren indarra sumatzean. Bildurtu ziran ortodoxiarrak ere. Artximandrita bat bidali zuan Errusi'tik I Nikolas Inperatoreak... , Protestalarien arrisku artatik Ortodoxia babesteko? Napoleon'en ikasbidea jarraituaz, mixiolarietaz politikarako haliatu nai zualako? eErrusi'ko Elizaren jaun da jabe zan bezala, Sortaldeko Eliz aien nagusi ere izatera iritxi nai zualako? Bein nagusitasun au lortu ezkeru,

erreza izanen bait zitzaion, Turki'ren aurkako guda hatean, kristau aiek Sultan-en aurka altzaraztea...

✓ dezagun aantzi XIX mendeko I:rrusi'ren politika-bidearen atal bat, here mugak Turki zaar aulduari ozka egiñaz al zuan guztia zabaltzea izan zala. L<sub>1</sub>a Bosforo'ren eta Dardanelu'en jabe izatera iristen!

katolikuen aldetik, ederki artu zuan aizkora kirtenetik Esmirna'ko <sup>601</sup> Sortaldeko lurralde aietan Sarkaldeko Elizaren aala sendotzeko. Ortarako, erdi-aroko gurutze-gudarien denboran eraikitako «Jerusalem'go Latin-Patriarkadutza» orain berriro hurreraikitzea eskatu zion Aulki fliticari. Eta eskari orri baiezko erantzuna emateko aurkitu leikean Aitasanturik egokiena bait zan Pio I<sup>o</sup>:a --zentralista, katolikotasunaren etorkizunari-buruz kezkatua, izutt ta, «Erroma'ko» ez zan orotan konfiantza gutxi zuana...--, z flantzarik gabe eta Nozik berb'ztu zuan, Frantzi'ren laguntzaren jakiñean, Latinezko Patriarkadutza zaar ura 1547'an, eta Eurdistan'en lanean ari zan Jose Valerg\*a mixiolaria izendatu zitun lenen Patriarka Latindarra.

Frantzi'ren laguntzarik ez zitzaion faltatu-ta, Sortaldean protestalaritzari esi gogor ausikaitza ipintzeko ettitan egokia izan zan Ierusalen'gn Patriarkadntza Latindar hirpiztua.

Elizan latinez mintzatzen ziran katolikoek alboan bizi ziran lur aietan «Uniatak» edo Erroma'rekin «Alkartu tako» sortaldetar katolikoak, liturgi-era zaar agurgarricn jabeak. Turki'ko maometarren ankapean kristau auek zenbat sufrittu hear izan zuten ikusi dugu. Orain ere zigorraren azpian zebiltzan «Melkatarrak» eta «Armenitarrak» Istanbul'en, atz'rrit-arren adiskideegiak ziralaren aitznkiarekin: «Frank»oen lagunak! («Franks», erdiaroko gurutze-gudak ezkerok, sortaldetar guztiei esan ni zitzaion Sortaldean).

Bazuan aitzak: onek arrazoï punttatxo bat berekin. Sultanaren probintzi zan Ejito; baiña, an, Sultanaren aurka jeikita, Errege iare biurtua zan Mohamed Ali jaurlaria, eta Ejito'n, jaurlari matxino errege-hiurtu onen alde ipiñi ziran hi Eliz oien buruzagiak eta ari lagundu zion atzeritik Frantzi'k ere. Ortik sultanaren amorrua.

Zigorraren bildurrez, Ejito'ko apaiz melkar eta armeniar asko, «franks» edo «frankitarren» konbentuetan babestu ziran, eta nai hait zuan Frantzi'ko enbaxadariak, gizagaixo erruL, ahe aiei lagundu, Paris'era idatzi zuan laguntza-bidecn eske, baiña erantzun mearra jaso zuan Frantzi'ko Jaurlaritzatik: «Atzeritik Sortaldera joandako mixiolariak bakarrrik zeuzkala Frantzi'k bere babespean; ez, Sultana-en mendeko ziran, Sortalde bertako apaizak».

Bitartean, gero ta bizkorrago ari hait zan gudnan Ejito'ko Errege berria, eta Palestina ta Siri'a ere artu hait zituan indarrez beretzako, larritu zan

Mahmud II Sultana (1808-1839), eta kristau katolikoaren naimena irahaztearren, argitaratu zuan 1837'an katolikoentzat lendahiziko askatasun-leget, «raya» edo «uniata» guztiei beren jauretxeak izateko eskubidea emanaz.

Eman zien laterkidetza ere; eta «raya» aien laterri-bizitzari zegozkion auzi guztietarako, Chukurian izeneko apaiz armeniar bat ezarri zuan Eliz «Uniata» guztietako kristau danen buruzagi «zibilla» ' Laister Abdul-Medjid I'a zan Turki'ako Sultana (1839-1861), eta liheraltasunaren maitale egiazkoa zalarik, Sultan berri onek eman zien benetako askatasun osoa katolikoiei eta beste gurraketa-bide guztiei, 1839'ko «Berau» edo «erabaki» baten bitartez'

Pozik zeuden, ordurarte —non meza emanik ere ez zutelako— otoizketara konbentu latinezkoetan hildu-bearrean aurkitzen ziran T'stanbul'eko katoliko «raya» edo «alkartu» aiek; baiña ez zan osoa pakea, eztabaida asko izan bait zan Eliz «Uniata» bakoitzeko Patriarken eta Chukurian Buruzagiaren artean. Astiro-astiro, eman zuan onek amore, eta 184-bean «Kaldeatarren» Patriarka, 1845'ean «Siriatarrena», eta 1848'an «Melkatarrena», guztiro iare eta beren Elizen lendakari beteak ziran auzi «zibilletarako» ere. Eta ez ziurki alperrik, bereala asi bait ziran Eliz onuragarri aien sendoketan.

Ekintza ontan, protestalariak ez ezê, eragozpen izan zituzten Patriarka aiek, latinezko mixiolariak ere, ororen jahetzat jotzen hait zituzten maizegi beren buruak Sarkaldetik agertutako eraille latin-mintzazaille auek, Aitasan-tuaren liturgia erabiltzen zutelako.

Badirudi mixiolari auek, —frantziskotarrak, buruñurdunak, lazaristak, eta inakitarrak—, batez ere erromatartasunaren serbitzura joanak zirala lurralde aietara, eta ez da arritzekoa, ez bait ziran Sorkaldeko Eliz «Uniat b» aien sendotasunaz fiatzen' Aitortu-bearra da, arrazoiaren itxurazko zerbeit ez zitzaiola falta (eraille latindarrei). Eliz, «Uniata» aiek, altzoan maiz eta maiz izan oi zituzten iskamitla, asarre, eta borroken errez, ez bait ziran erromatarren begietara guztiro fidagarriak agertzen.

Egia noski; baiña egia da, era berean, Sarkaldeko eliztarrok beti izan dugula «egiazko Eliza» gu generalaren uste aitortunaieza, eta uste orrek beste liturgietako Eliz danak ezereztera bultzatuta gaituta batasun lizun baten izenean. «Ut Unam sint», Josu'ren «bat izan bitez» ura, guk, «Berdiñak izan bitez» ulertu oi dugu.

Bâ'. inoiz baiño aundiagoa zan, Birrezarketako aro artan, Erroma'ren oro zuzendu eta danean agindu naia, Poliki-goliki Sortaldeko Eliz «Uniatetan» Patriarkei autoritatea mozten eta mozten jardun yuan Aulki Doneak, eta azkenean Eliz aiek danak eta beren Patriarka agurgarriak «Propaganda Fide» Bazkunaren mendean ipiñi zituan.

Ondo benetan artu zuan Bazkun onek eginkizun herri au! Baiña Bazkuna bera baiño aurrerago jua ziran oraindik benetasun ontan Bazkunak Sorkalderako izendatu zituan «Legati Apostolici» edo «Apostoluzarako Ordezka-

riak», «Aitasantuaren tilde» Aitasantuak berberak baiño arduara geiagorekin jo bait zuten.

Lz zuan, gaiñera, «Propaganda Fide» Bazkunak Ordezkarri aiek aukeratzeko esku vavogirik izan. Lenengo Ordezkarria Gandolfi zerItzan lazaritar bat izan zan; ez, ziurki, bere lanerako gizon argiegia. Erroma'ren jabetasuna mardultzeko gurariak eramanda, bere burua egin hait zuan Eliz bakoitzaren zuzendari eta nagusi, benetako «patriarka», egiazko Patriarkak bure esanekoak hesterik izan ez ba'ziran hezala ikusten xitualako.

Makurragoa izan zan oraindik bigarren Ordezkarria: Losana. Aren eskua gogorregia eta aren erromakeria naharmenegia zala-ta «Propaganda Fide»k berak aditzera eman bear izan zion arreta geiagorekin ihiltzeko, Baiña ura, gero ere, lengo bideetatik zebillelako, Itali'ara ekarri bear izando zuan azkenean «Propaganda Fide»k berak, Itali'ko elizbarruti bateko gotzai.

Lengoen ezpalekoa irten bai t zitzaien —«Propaganda»ri— irugarrena, bigarrenarekin egin zuana berbera egin bearra izan zuan irugarren onekin ere: Sortaldetik ekarri ta Itali'ko gotzai-aulki batan ezarri.

«Propaganda Fide»ren Ordezkarri aiek ez luteke oroitzetik ere mereziko, bi gauza erakutsiko ez ba'lizkigut: eraille mixiolari latindunen mentalitatearen izatera; Patriarka «uniaten» neurririk gabeko ;ratite edo pazientzi hakuna.

Ez zan Patriarka aien artean gizon onuragarriarik faltatu, eta, bearbada, Maxima III Mazlum, «Melkatarren» Lendakaria, ir ,nen da onugarrenentakoa. Izazituan etsaiak bere Elizaren barruan, eta Erroma'ra salatu zuten aiek, Patriarkadutzara iritxi-aurretik Alepo'ko Gotzai izendatua izan zanean; izer eta... «bigarren Fozio» amen zan Maxima Mazlum!

Izengoiti minkatza izaki Erroma'n, edozeinentzat, Fozio izengoiti:[-ta, Erroma'ra deitu zuan Aulki Doneak Alepo'ko Gotzai berria. Erroma'ra joan zan Mazlum «Propaganda Fide»ko zuzendarien aurrean bere sinispidearen arrazoi-ematera, eta Erroma'n gelditu bear izan zuan luzaro, Aulki Donearen aginduz; ez bait zan txantxetako gauza «Fozio» bat Sortaldeko lurretan lare lagatzea, [z zuan Mazlum'ek alperrik galdu Erroma'ko egonaldia luzea; egin zan XVI Gregorio'ren adiskide; itzuli zituan Arabi'ko izkuntzara Sortaldeko Elizan sortu-berriak ziran espiritualitate-libururik bikaiñenak.

Eman zion azkenean «Propaganda Fide»k Sortaldera itzultzeko baimena, orixe eskatu hait zioten Eliz «Melkatarraren» gazai guztiek eta baita «Propaganda»ren Sortaldeko bigarren Ordezkarri Lusana berberak ere. 1831'an biurtu zan Maxima Mazlum Siri'ako lurretara, (la andik bi urtera «Melkatarren» Patriarka egiña dakusgu. Ez zan, Erroma'tik, bakarrik jua, berekin eramane bait zituan Josulagundi berbiztuaren inakitarrak.

25 urtetan izan zan Mazlum'dar Maximo III'a Eliz Melkatarraren Patriarka egiña eta bikainki berritu ta zuzpertzuan, Bertako Sortaldean, Europa'n eta Ameriketara zabaldurik zegoan Eliz zaar aldakaitz ura.

Izan zuan «Jakobitarren» Elizak etc Patriarka tajuzkoa, ain zuzen Maximo Mazlum'en adiskide zintzoa, ura bezala artzai on eta adoretua: Kepa Yarweh, 1 S20'ean Patriarkadutzara igoa izan zana. Baiña ez zuan orduan Patriarka-Aulkiari esertzerik izan. Zergaitik? Erroma'tik «Propaganda Fide»k une berean patriarkadutza artarako beste gizon bat, Bikario bat, izendatu zualako.

Oituraren legez, Eliz «Jakobitarrean», gotzaiek aukeratzen zuten Patriarka, eta ala egin zuten Yarweh'ekin ere; baiña sartu zien oraingoan «Propaganda»k, deus esan gabe, ziri minkorra. Azaldu zituan Erroma'n Yarweh'ek bere arrazoiak eta zuzenbideak; tinko jarraitu zuan, ordea, bere erabakian «Propaganda Fide»k. Zorionez, gizon zintzoa eta Elizaren maitalea zan Kepa Yarweh, eta ez zan zismarik gertatu.

Makurtu bait zuan apalki Yarweh'ek burua, eragozpenik gabe artu zuan «Propaganda»k izendatutako Bikarioak «Jakobitarren» lendakaritza.

Len Maximo Mazlum zisma-egilletzat bezala izan zan orain Kepa Yarweh protesta-lariari adiskidetzat salatua «Propaganda»ren aurrean. Gorrotorik gabe eta errez gaiñera ziritu aal izan zuan onek bere burua; eta, esker onez, Aulki Doneak zalantzarik gabe eman zion azkenean Patriarkadutza, lenago agintari ipiñi zuan bikarioa il zitzaionean.

Zatiturik aurkitu zuan Patriarka berriak «Jakobitarren» Eliza, zisman bait zeuden iru «otza!»: «Mons'eko Abdelmassih, Nabk'eko Matt Nakkar, eta Damasko'ko Ya'eoub Hilari. Maximo Mazlum Melkatarra bitarteko arturik, lortu zuan Yarweh'ek irurak Elizaren batasunera erakartzea.

Naitanaiezkua zan Erroma'n poza, baiña ez zan orrelako pozarik an gertutu; ta ona *zergaitik*: Iru gotzai aiek espe aundiko gizonak ziran Sortaldean-da, bildur ziran noski Erroma'ko agintariak, Reste asarraldi batean iruen artean zisma aundiago bat sortuko ote zuteiaren hildur!

Asko ta asko idatzi zuan «Jakobitarren» Patriarka bikain onek. Lurralde artan gizon aundi orok bezala, etsai asko eta beltzak izan zituan: «Propaganda»ko agintaritzoak, prailie latindunak, eta baita bere Elizako gotzairan bat ere, zisma baten hildurrak eramanak batzuk, bekaizkeriak besteak.

Sortaldeko Eliz «Uniata» guztietara zabaldu zan Kepa Yarweh'en dizdira; eta aren idazki, eskutitz, eta aolkuek, onik aundiena egin zuten, askatasuna Tortu ezkeru zuzpertzaren ari ziran Eliz maitagarri aien artean.

Nola zuzpertzuan ere zuzpertzuan ziran! Ikus dezagun «Kaldeatarren» Eliza; osatu aal izan hait zuan Eliz onek, 317 urteen luzaroan bere gorputzean zera-makian zauri erailgarria, Bi Patriarkadutzetan zatiturik zeuden «Kaldeatarrak», eta alkarren etsaiak ziran bi Patriarkadutza aiek: Mosul eta Diarkebir. Mosul'koa gaiñera Ilormez izeneko sendi baten menpean zegoan, eta sendi artako

semeak, Hormez'tarrak, izan ziran 317 urteko denbora luze artan Patriarka mosuldar guztiak'

Sortu zuan Jaunkoikoak «Birrezarketako» aro ontan «Kaldeatarren» artean gizon egoki bikain bat: Aita Dambo lekaidea; eta lekaide onen aolkuak jarraituaz, Pio VIII'ak sendatu zuan Eliz aren zauri zornetsua erarik bikaiñean: Bi Patriarkadutza aiek deseginda, beste berri bat, bakarra, Kaldeatar Eliza osoaren buru izanzen zana eraikiaz: Babiloni'ko Patriarkadutza (1830).

Ia-ia sortu zuan ordea «Propaganda Fide»k, orduantxe bertan iskamil berri bat. Ona nola:

Mosul'ko eta Diarkebir'eko bi Patriarkak Jon Iformez eta Agustin Hirdi ziran. Beti bezala biak nai izan zuten Eliz osoaren lendakaritza, eta Erroma'ra jo zuten beren eztabaidarekin, Aitasantuaren asmoen berri jakin zutenean. An, Agustiñ'eri eman zion arrazoia «Propaganda Fide»k. Osoro bazterturik geldito zan, beraz, Jon Mosul'koa. Baiña Aitasantuak, azkenean, Babiloni'ko Patriarkadutza berria sortu zuanean, illa zan Agustin Hirdi. «Propaganda»k aukeratu bear zuan orduan Babiloni'ko Aulki berri artarako gizona, eta, non ipiñiko-ta, len bazterrera jaurti zuan Jon Hormez ura berebera ipiñi zuan orain Babiloni'ko Patriarkadutzan.

Berealaxe asi zan Hormez'tarren sendi aundikia, Jon au iltzen zanerako, sendiko umeen artean Patriarka-gai ba<sub>t</sub> aukeratzeko prestaketak egiten. Zorionez, jakin zituan «Propaganda»k Mesopotami'ko nardakeri aiek, eta antxintxika ipiñi zion alboan Jon Hormez.'eri Laguntzalle bat, Nikolas Zeya, amen eriotz-ondorean Patriarka izateko eskubidearekin.

Alatagutziz oker ibilli zan «Propaganda» oraingoan cru., gizona izendatzerakoan.

Il zan Jon Hormez 1840'ean; artu zuan Patriarkadutza Nikola Zeya'k, baiña gizon baldarra hait zan an, eta adimen gutxikoa, Erroma'ra keja geiegi iritxi zalako, Gregorio XVI'ak kendu bear izan zuan kargutik. (1846).

Jose Audo izan zan «Propaganda»k urrena Patriarkadutzara jaso zuan gizona: bere kiltipaz baiño geiago «Propaganda»ren bildurren kulpaz eta Pio IX'aren itxutasunaren kulpaz istillu latzean aurkitu zan Patriarka!

Ez zeuden gauzak gozoagoak Ejito'ko «Koptiarren» artean. Oso gutxi ziran koptiar «uniatak»: 2.624 bakarrik, Ejito guztian sakabanatuak. Artaldetxo koxkor onen apaizak 14 ziran eta danen Artzai Nagusia, gotzai-sagaraketarik gabeko «Apostolutzarako Bikario» bat: Maximo Juwed.

Pakean bizi ziran Lliztto ontako katoliko urriak. Baiña ara nondik sortzen zaigun, pake guztiak desegitera, Sizili'ko mixiolari biurri bat, eskutitz faltsoen asmazaille trebea.

Esan dugu lenago Mohamet Ali orduantxe Errege iare biurtu-berria zala. <sup>B<sub>v</sub></sup> Errege onen izenarekin, eskutitz oker gezurrezko bat bidali zion Aitasantuari Ejito'tik mixiolari lotsagabe arek. Eskutitzean, Mohatned Ali zalakoak

bi gauz alaigarri agintzen zizkion Leon XII'ari: Koptiar uniatei askatasun osoa emanen ziola; Maximo Yuwed kristau aien Buruzagi zibilla izendaluko zuala. Baiña beste bi gauza eskatzen zizkion ortarako Aitasantuari: Maximo Yuwed ura Patriarka egitea; Erroma'n ikasketan ari zan Abraan Kachur koptiar gaztea gotzai sagaratzea.

Bene-benetan uste izan zuan Leon XII'ak eskutitz ura Mohamed Ali'rena zala, eta berealaxe, besterik gabe egin zuan gotzai, ikasle gaztea, eta bidali zuan Ljito'ra, —gazte au—, Maximo Juwed Patriarka izendatua gotzai sagara zezan,

hrantzi'ko enbaxadaria eragozi zuan okerkeri aren egintza, nasketarik sortu ez zedin, Erroma'ra bidaliarazi bait zuan, Ljito'ra iritxi zan bezain laister, mixiolari siziliarrak maltzurkeriz gotzai sagarârazitako ikasle ura.

Enbaxadaria tartean sartu zalari. eskerrak, ez zan Ejito'ko jaurlaritzarekin eztabaidarik izan; ezta etc asarrerik koptiarren artean, edozein gauza gertatu bait zitekean auek beren Patriarkaren tituloen oiñarria eskutitz faltso bat izan zala jakitera iritxi ba'ziran. Zorionez gaiñera, kendu zion Leon XII'ak Tuvv'ed'i uste okerrean eman zion tituloa, eta, zorionez, deus esan gabe utzi zuan onek, beiñere eskatu ez zuan patriarkadutza, eta pozik jarraitu zuan Bikario-izen soillarekin.

Koptiarrena baiño jendez ugariagoak ziralako, eztabaida aundiagoak izanen dituzte gaiñerako Zaiz «Uniatek», zoritxarrez bein baiño geiagotan Sarkalde'ko erromakeriaren erruz. Eta, zoritxarrez, alkar ezin ulertu orrek badirau oraindio, naiz azkeneko urte auetan giroa askoz ere garbiagoa izan.





## IPAR-AMERIKA'KO ELIZA

Ameriketan egin zan «gizon» Inlanderrikn «urne orren» jaio eta an beti errenka ibilli zan Iraultza. Ta berriro Europa'ra igaro zanean, frantziarrek errendu zuten ostera. Orregaitik du ortaraiñeko garrantzia Ipar-Amerika'ko Iraultzak: Iraultza gizarterako zer izan zitekean erakusten digulako, —frantziarrek odolkeriz zikindun ez ba'lute—; eta Elizarentzat aro eta era berri batzuk irikitzen zitualako: Askatasunaren aroa: katerik gabe mintza eta jardun aal izatea; askatasunaren era: Laterriaren aldetik ez gorroto ta ez laguntzarik gabe bere kasa bizi-bear izatea; beste giza-alkarte iare ta berdiñen artean, Eliza, giza-alkarte iare ta berdiña.

Inlanderriko Iraultzak, erlijio-guduaren zitu jaioa zalako eta erlijio-gorrotz anpatua beti-ere egon zalako, ez zuan egiazko askatasunik erditu. Ikusi dugu Elizak «askatasun» aren altzoan eraman bear izan zuan biziera beltza. Frantzi'ko Iraultza, 1789'ko «Etats Généraux» aietan apaizen eskutik itxaropenez beterik agertu zan Iraultza ura, bildur-ikara guztien iturri biurtu zuten berealaxe iraultzalari ezkerkoiek eta borboizale eskubitarrek, alkarri zioten gorrotoaren eta ikararen ondorioz. Bildurrak zimurtua ta legortua, ankerra egin zan Frantzi'n Iraultza, odoltzalea. Inlanderrikoaren antzera, ez zan askatasunik argitaratzeko gai izan. Diktaturarik nardagarriena biurtu zan'

Ameriketan bai. An eskeiñi zion Iraultzak katolikotasunari, beste erlijioei bezala, egiazko askatasuna. Eta egiaz merezi du, beraz, Ipar-Amerika'ko Elizaren edestiak azterketa zugur bat, Pio VII'ak 1797'an iragarritakoa egiztazten digulako: Demokrazia eta Eliza alkarrekin konpondu daitezkeela, alegia. Geiago oraindik: Inlanderriko jaurleen tiranikeritik igesedindako katoliko amerikatar aiek oiuzegiten bezala, Demokrazia zala, ain zuzen, Elizaren garakunderako gizarte-girorik egokiena, eta, gizarte berarentzat, politika-erarik kristauena.

Tamalez, agureen eskuetan zegoan aldi artan Aulki Doneko Jaurlaritzta, eta agure zar aiek ez zuten ori aditu aal izan; ez zuten ikusi ere, adiñak moztu bait zien ikusmena; eta adimena gogortu, adiñak berezkoa duan aldakuntza ooren bildurrak.

Gaiñera, Europa'ko Eliz-Buruzagiek ez zuten Inlanderrikoa eta Frantzi-koa beste «askatasunik» ezagutu, ondo zipotzak biak Elizarentzat. Baiña beste-

lakoa zan Laterri Alkartuetako askatasuna, eta ederki ikusten zuten ango gotzaiek askatasun ori gabe ez zuala Amerika protestalari artan Elizak bizi aal izaterik izango.

Geiago oraindik; askatasunetik itxaro zituzten, ain zuzen, Elizarenzatzat uztarik mardulenak. Baita ekumenitasunaren alorrean ere. Ikus zer zion 1764'can Baltimore'ko Ton Carrol Laterri Alkartuetako lenen-gotzaiak: «Askatasuna, bai; danentzako berdiña dan askatasun orokorra (general and equal toleration) dugu, kristau Eliz guztiak batasunera erakartzeko biderik egokiena, sinispide guztiei alkarrizketarako era egokia prestatzen diolako; («by giving a free circulation to fair argument»).

Askatasun orokor orrek Eliza Laterriarengandik berezirik egotea eskatzen du, eta «bereizketa» on-i zioten berriz Erroma'ko elizgizonek biribiziko ikara; ia Europa'ko lurralde guztietan Frantzi'ko iraultzalariek lege egin zuten «bereiztea», Eliza lotu ta zanpatzeko bakarrik izan bait zan.

Ameriketean Kostituzioak legunki ezarrirako Laterria-eta-Pliza-arteko-Bereizketa bestelakoa izan zitekeanik ez zuten usmatu ere egiten Erroma'ko agure aguregarriek. Altaguztiz bene-benetan zan «Bereizketa» ura bestelakoa, ez bait zuan Laterria Elizaren arerio egiten, eta, arrigarriagoa oraindik, ez Laterria «laiku» edo erlijio--gabea biurtzen ere. Erlijio guztiei begirune berdiña erakutsiaz, Jainkoaren gurtzaille zan Laterri Alkartuetako Tauralaritza. Erlijioan oiñarritua jaio zan Ipar Amerikaren askatasuna eta erlijioaren atsak meramakian Amerika.

Errez ulertu daiteke ango gotzaiak: askatasunari, eta, zuzenean, Laterria-eta-Eliza-arteko-Bereizketari zioten maitasuna. Barka bezain □ irakurleak Ton England gotzai karolinatarrak 1824'eanean O'Connell adiskideari idatzitako itzak birraipatzea: «I am convinced that a total separation from the temporal government is the most matira' and safest state for the Church»: («Bete-betean uste dut Laterriagandiko bereizketa osoa dala Elizarenzatzat girorik jatorrena eta seguruena»). Arrituko ote zaigu iñor, Irlanda'ko Eliza Inghlanderriko Tauralaritzaren tiranitik askatu naiean zebillen O'Connell ura Jon England Ameriketako bere adiskidearen abon ni ber-berekoa zala esaten ba'dugu?

O'Connell'ez gainera izan ziran Europa'n Ameriketako askatasunak Elizari eskeintzen zion adiontasuna ikusi zutenak. «Erljioa ez da an politikarekin nastutzen, baiña erlijioa da Ameriketako politikarentzat istituzioetan garniena». Orren ondorio, «mundu guzian Amerika dngu Elizak animen-baitan egiazko almena duan tokia», zion Toequeville'k.

Ez du orrek esan nai amerikal «guztiak» artizarrari bezala, egun-senti berri baten mai Eliza katolikoaz begira zeudenik; ez askoz gutxiagorik ere! Bazituan an Elizak arantzak eta nekeak.

—Bere sikologi-barrendik sortzen zitzaiona bat. Protestalarien aldean oso gutxi ziran katolikoak, eta « gutxiengo» edo «minorizko» kezka, taldeñotxo

bat baizik ez izatearen «konpleju» ori, ez de luzaroan Elizak beregandik an jan rtiko.

Protestalariak ziran gizarte ura osotzen zutenak ia (lanak, mota guztietako protestalariak, gauza guzietan ezberdiñak, baiña bai, nia ere, gauza batean berdiñak: aitasantutzari zioten, iertasuncan. Gaiñera, Europa'koak bezala Ameriketako protestalari aiek, «revivalism» edo «berbizitze» beroan zeuden, eta bere jatorrizko muiña oarpen geiagorekin bizitze orrek, bizkortu egin zuan, Eliz eta sail bakoitzaren altzoan, bere nortasunaren aundiustea, eta, batez ere, katolikotasunak sentiarazten zien kezka.

Orela, Eliz Katolikoa, gorputz artan, kanpotik indarrez bezala sartutako ziri baten antzekoa zan. Ezer gutxi egin zezakean beraz, Elizak amerikatarren artean bere sinispidea zabaltzeko: jende landerrak bait ziran gaiñera katolikoak, eta ia-ia atzerritarrak oraindik: 663.000 besterik ez 1840'ean, eta 663 milla aietatik, erdiak hañi geiago 370.000, azkeneko 30 urteetan Ameriketara iritxiak.

Bazuan, baita, Eliz arek beste akats bat protestalarien artean apostoladutza egiteko: Bera ere enda-elizetan ia protestalariak bezain zatiturik egotea. Bat zan, Ameriketaren kolonizatzearen asieratik emeznrtzigarrcn mendearen bukaera arte iritxitako katolikoan Eliza: «jatorrizko amerikatar Eliza», eta beste batzuek ziran emeretzigarrenean iritxitako imigrazioko irlandarrak aurrena, alemaniarrek gero, polonitarrek ondorean, eta italiarrak azkena, ameriketara irixtean osatu zituzten Elizak; endak, oiturak, eta izkuntzak, batzuk bestegandik luzaroan bereizirik euki zituzten Eliz bakartiak.

Lurrez ere txikia zan an katolikotasuna; itxas-ertzekoa, eta itxas-ertzean, urietakoa bakarrik, ola eta lanbide guztiak an zeudelako; eta baita apaizek bere jendea urruntzerik nai ez zutelako ere, sinismena galduko zutelaren biddurrez. Itxasotik barrurako lurralde zabal guztia protestalaria zan; protestalaria urietan goiko eta erdiko mailletako jendea; protestalaria Egoaldea, ia guztia, an ekonomia bestelakoa zalako, eta orregaitik ola-langilleak ez baiña an jopu beltzak bear ziralako.

Europa'n, Eliza, aristokraziarekin alkartua egon oi zan; Amerika'n Eliza zearo errikoi-errikioia da: proletaritarra; demokrazia ez zaio arriskuko; onurako zaio.

Jende txiro ta landerrena izanagaitik ez uste Eliz una isilla ta bakuna zanik. Katoliko aiek tiranikeritik igesiak hañt ziran geienak, Amerika'ko askatasunaren aizeak txorabiatu edo moxkortu bezala egiten zitualako, eta izkuntza bakoitzekoak beren apaiz eta guzti artegi itxietan bizi ziralarik beren enda ta oituretara lotuegiak zeudelako, edo-ta dirua errezago irabazteak lasaipen geiago jendeari ematen diolakq... Eliz urduria eta iskamiltsua izan zan emeretzigarren mendearen aurreneko erdian lpar-Ameriketa'ko Eliz gaztea.

Danak zebiltzan an artega: sekularrak apaizekin, apaizak gotzaiekin, eta gotzaiak Enroma'nekin, Amerika zen zan ere ulertzen ez zuan Erroma'rekin.

Ikusi Erroma'ren pinpirinkeri bat: 1810'ean «Propaganda Fide»k Birjini'n eliz-barruti berri ba<sub>r</sub> eraiki zuanean, «Propaganda»ko Kardenal zuzendariak Connecticut'en dagoan Flartfort uria izendatu zuan elizbarruti aren uri buru. Erroma'n bat ziran noski Connecticut eta Birjini'a. Amerika'n ordea ia 800 kilometroko tartea dago Conncetieut'ik Birjini'ra, eta bi Laterri arras ezberdiñak dira biak.

Garai artako .Erroma'ri oso pizti nolabaitekoak iruditzen zitzaizkion Ameriketako katoliko arrigarri aiek, eta ezi-eziñak zirala usterik zegoalako-edo, eskutik utzirik bezala zeuzkan «Propaganda Fide»ron menpean.

Egia da bazala an «Propaganda»ren a,gintetik landa, gotzaigo bat , Orleans Berri'koa, haiña españarra zan uni ura, gotzai-erri egiña izan zanean, 1793'ean.

Kaliforni'n eta Mexiko'renak izandako beste lurraldeetan ez zan gizakume zuri askorik bizi mixiolariak kendu ezkeru; ori bora gertatzen zan Aintzira Aundien egoaldera Luisiana'raiño frantziarrek mixiotu zituzten lurraldeetan ere. Españi'tiko edo Frantzi'tiko katolikotasun onek ez zuan aztarnarik laga, Iparraldean sorturiko katolikotasun demokraziale e\*a liberal arek irentsi bait zuan, indarrrik naiko artu zuan bezain laister; ota ez zuan denbora geiegi galdu indar-arte ortan.

Ameriketan gizartearen maillel: aberastasuna zuten nourri, erri protestalari batean legezkoa dan bezala; protestalarienzat, kalbindarrentzat batez ere, aberastasuna Jainkoaren onespena hait da. Katoliko iritxi-berriak ez ziran alpe-rrak; eta alperra ez zana maiz aberasten zan Ameriketan . Laister izan genituan orrela katolikoak goiko mailletan, eta ugari, erdikoetan.

Eliz txiki urduri bizkor aren aingerua Jon Carroll izan zan. Lcn ete aipatu dugu bore izena beste orrialde batean; egin dezaiozun omen ostera, ondo merezia du-ta. Marilanda'ko sendi zarrenetako eta ospetsucnetako baten semea, iñakitarra, Klemente XIV'ak Lagundia descgitean Ameriketara Europa'tik itzulia..., berealaxe asi zan apaiz bezala lanean. Iñakitarrak ziran ia Iparramerikako beste apaiz guztiak ere orduan , eta beti izan zuten iñakitar aiek alako tankera bereizi bat.

Iñakitarrak Europa'n, Iraultza-aurretik eta Traultza-ondorean, aristokrazia-ren adiskideak izan ziran, errege bakarragintzaillen lagunak' Ameriketako aiek, herriz, liberalak ziran , demokraz'z.deak. Ameriketan Traultza piztu zanean danak izan ziran iraultzalarien aldekoak, Jan Carroll bera hatez ere.

Askatasuna arte Iparramerikako Eliza Londres'ko Bikarioaren menpean zegoan. 1784'ean Jon Carroll izendatu zuan «Propaganda Fide»k «Ipar Ameriketako mrxioen Zuzendar».

Baiña Gotzai bat bear zan an, eta asi ziran gotzaigo ori eraikitzeko Benjamin Franklin eta Paris'ko Nuntzioa, Paris'en bertan, alkarrizketan. Eta en-

tzun'zazu orain, sekulan entzun izan duzun gauzarik bitxiena; ;Ain zegoan Erroma erregekerira oitua-ta...! ;Ain, gotzai-izendaketa erregeen eskuetan uztera egiña-ta...! ;Ain, Aitasantuak gotzaiak izendatzeko eskubidea bazualaz aztua-ta...! Laterri Alkartuetako Kongresoari eskatu zion orduan gotzai-gaia aukeratzeko! Egokia izan zan benetan Batzar Nagusi aren erantzuna: gotzai-aukeratze ori ez zala bere egitekoa.

Ai, Erroma, Erroma!!

Badirudi Erroma'k ez zuala orrelako erantzunik itxaron, eta erantzun orrek bene-benetan arriturik laga zuala, beste nun-nai zisma-arriskutzat artuko zuan bidetik jo bait zuan orduan: Ameriketako apaizen eskuetan utzi zuan Gotzaiaren autaketa; eta Ameriketako apaizek, ia ago batez, Ton Carroll aukeratu zuten Baltimore'ko Gotzai; lenengo Gotzai Laterri Alkartuetan.

Batasuna zan orduan Eliza Katolikoaren bearrik aundiena Ameriketan, eta ori izanen zala bere eginkizunik kuttunena aurreratu zien elizkideei Gotzai berriak aurreneko itzaldian: «to strive to form not Irish, not English, not French congregations but Catholie Ameriean Congregations and Churehes»: «Irlandar, Inghlanderriar edo Frantziar alkarreak ezbaiña Amerikar Alkarrea eta Amerikar Eliza Katolikoa eratzen saiatzea».

Beste iñor ez bezala zegoan Ton Carroll elburu ori lortzeko gaitasunez doaitua, begirune aundia bait zioten enda guztietako katolikoek, balio aundiko gizona zalako, bai noski, baiña baita aren sendi osoak Ameriketako Iraultzan eta Ameriketako politikan izan zuan eta zuan itzal eta garrantziagaitik ere: Carlos Carroll, gotzaiaren lengusua, «Askatasun-Agiria» izenpetu zue-netako bat izan zan, eta Daniel Carroll gotzaiaren anaia, Marilanda'ren Ordezkarri, Amerika'ko Kostitutzioa sortu zuan 1787'ko Batzarrean eta Laterri Alkartuetako lenen-Senatuan batzarkide.

Jon Carroll bera, iritxi izan zitekean politikako maillarik gurenetaraiño, bere bizitza osoa Elizari eskeiñi ez ba'lio, onespelik aund enarekin so-egin bait zioten beti Amerika'ko agintari eta gidari guztiek.

Jakituri aundiko gizona izan *zan*; gizakumeak ezagutzeko begi zorrotzekoa, otoiz-zale aundia, xaloe, alaia, umore onekoa, giza-aulerikin biotz-bera, baiña agintzen ere bazekiana, neurriak urratzeke ausartia, Elizaren maitale sendoa... Orrelakoa izan genduan Ameriketako Elizaren lenen Asaba.

Laister zan Erroma'rekin asarre Gotzai berri batzuen izendaketaren kulpaz. Asko ta asko eskatu ondorean, lortn zuan Iparrameriketako Terarkia ugaria-gotzea, 1808'an lau elizbarruti berri eraiki bait zituan an «Propoganda Fide»k: Boston, Yorke Berria, Filadelfi, eta Kentuki'ko Bardstown. Carroll, Goi-gotzai izendatua izan zan, eta bere mendean ipiñi zuan «Propaganda»k Orleans Berri'ko Gotzai ere.

Eliz-barruti berrietako gotzaien izenak Carroll'ek aurreratu zizkion «Propaganda Fide»ri, eta lan izen aietatik, iru onartu zituan onek' Baiña laugarren

gotzaigoa, Yorke Berrikoa, irlandarria, Erroman, sekular Europa'tik irten gabe, bizi izan zan domingotar bateri eman zion.

[ta Ameriketara iritzi; ahi il hait zan Ameriketara inork ezagutzen ez zuan domingotar au, arin esku artu zuan auzian osterara Carroll'ek Amerika'ko gotzai-gaien izenak Amerika'ko Gotzaiak aukeratzen zuten to Irlanda'ra idatziaz. Gañezka zuan Carroll'ek arrazoia, Irlanda'k lurralde urria nia nolakoa zan ere ez bait zekian, baiña ez zion «Propaganda Pide»k jaramonik egin, eta beste domingotar bat izendatu zuan, ildakoaren ordez York'eko Ikerri'rako; irlandarra au ere, Ingalderriko Irrezearen menpekoa beraz, eta ori... i Ingalderria eta Latzerri Alkartuak, «bigarre]] gudnan» (1812-1815) alkarren aurka tiroka zebiltzanean!

Mixiolari guztiak inakitarreI: ziran lurralde baterako..., i domingotarra!, eta bere aurreko ilberriaren antzera inoiz iizasoan anmtra joan gabea.

Amerika'ko gotzaien oarkizunak kontuan artugabe izendatu zuan «Propaganda»k bigarren Gotzaiak ere, eta ori bera egin zuan 1830'can Richmond eta Charleston'go elizbarruti berrietako Gotzaiekin.

Mauro Cappelari, laisterko Gregorio XVI'a, zan «Propaganda»ren zuzendari; mixio-auzietan bikain jokatu zala badakigu, baiña Amerika'ko gotzai li heral aien aolkuetaz ez zan nonbait fiatzen.

Laister jakiñarazi zizkion gartsuki Ameriketatik, Baltimore'ko irugarren Goigotzaia. Marechal'ek ameriketarren naieza ta asarrea.

1833'an bildu ziran Latzerri Alkartuak Gotzai danak Probintzi-Kontzilio baterako, eta gotzai-izendaketan aurrerantzean aien iritzia kontuan artzeko eskatu zioten Irlanda'ri; ez zion Irlanda'k entzungor egin. Aulki Doneak izendatuko zituan, ordurarte bezala, gotzaiak, baiña aukeratuen izenak jakiñaraziko zizkion aurretik Latzerri Alkartuak gotzaidiari.

laretasun aundian jarraitu zuten pastoral-gaietan Ipar-Ameriketako gotzai bikain aiek.

«GaUZak egiteko tinea]] (in plain practice), oraingoan, not%alga bakoitza aiasantutza bat da, (at present ecenv amerikan dincse is a popedom)», idatzi zuan Jon Ingalderri Karolina'ko gotzaiak.

«Aitasantu» bakunak cia xnineak ziran aurrenelo Botza aiek, a paizen artean t apaiz bezala lan egiten zutenak.

Razituan i r-oblemak ala ere iliz gazte bizkor arek, eia problema oietan aundienak, — katolikoan abenda cdo etnia ezht-rdiñetaz-landa--, apaizen urritasun:t eta lli;ako ondasunen jabetza, izan ziran.

24.700 Ziran katoliko guztiak 1785'c-]]], Carroll'ek Irlanda'raa idatzi zuan, (16.00) iMaarilaandaa'n, 7.00) Pentsilhanian, 1.500 Yorke Berri'an, 200

Birjini'n). Orrelako lurralde zabalean banatutako ogeitalau millatik gorako katoliko aientzat danontzat; ez zituan Elizak 24, iogeita lau!—, apaiz besterik.

Gainera, apaiz auen lana zaillagoa egiteko, 1785'ko urte ori ezkeroko pilloka asi ziran katolikoak l :uropa'tik lan-billa etortzen; ota katoliko iritxi-berri aietako asko, norik zaindurik aurkitzen ez zutelako, protestalaritzara erortzen ziran. 225.000 baziran, annela Ameriketara beren l ;lizatik ateratako katolikoa, 1820'ko estadistika hatek dioskunez. Bear bearrezkoak genituan beraz an apaiz berri ugariak.

Emezortzigarren mendearen amaiean Carroll Gotzaiari Fr, rntzi'tik I:nierv'k eskeini zion Baltimore'n Seminario baten eraikitzea. kiner•,'k berak artuko zituan bere kargura seminario areen gastuak, Karitate miragarria? Bai ta oz. Emery, sulpizitarra zan, sulpizitarren "Zuzendari Nagusia. Fra:itzi'ko Iraultzarun unerik larriena]: eta zaillena]: ziran aieI:, eta Emert" k bore 1.an; trndiaren iraun-pena salbatu nai zuan. Frantzi'n iltzen ba'Zan ere, bizi zcdila beintzat lurralde berri aietan. Orrela iritxi ziran Baltimore'ra 1791'an sulpizitarrak: 4 apaiz eta 5 apaizgai.

Ez zuten, ordea, Ameriketara apaiz izan nui zuan gazterik idoro, eta apaiz-gegia Akademi edo ikastetxe uts biurtu bearrean aurkitu ziran.

Baiña orduan, inñakitarrak muturtu zitzaizkigun, ordurarte aiena izan batu zan an gaztediaren eziketa, eta, sulpizitarren ikastetxetik hertan, bai hait zuten aiek beste bat: Georgetown'go Ikastetxea, Carroll'ek eraikia.

Amar urteren huruan, apaizgairik sortzen ez zala eta inñakitarren asarrerik ero. arintzen ez zala ikusi-ta, Paris'era delta zituan Emery'k Baltin ore'ko heretar aiek. Napoleon zegoan orain Frantzi'n agintzen eta sulpizitarren lagundiak ez zuan onezkero izatea galtzeko arriskurik. Gaiñera, egiaz ziran bearrezkoa]: orduan Frantzi'n serninarioetarako irakasleak.

Ala ere kezketan laga bait zuten [mery Carroll'ok zuzendu zizkion eskari-ek eta arrenek. Pio Vi1'a Paris'era Napoleon koroiatzeru etorri zanean. Aitasantuari galdetu zion zer egin. «Gorde'za-ru an Ameriketara bizirik apaiz-gegiaitegi ori, erantzun zion crack, emanen du zitua bore garaiean-da». Igarlc osoa irten zan VII Pio 1804'ean itz oiei( esan zituanean, 1810'erako bai bait zituan seminario arek 50 apaizgai, eta ikasle auetatik ia erdiak, 23, iritxi bait ziran apaiztasuneraiaño.

Ez ziran naikoa]: 23 aiek, eta pozik artu ai zituzten gotzaiak, Europatik inmigratzaillekin baiera iristen zitzaizkien apaiz guztial:. Europa'ko Laterri danetatik zetozen aueI(, baiña batez ere Irlanda'tik. Laister irlandarra zan Amerika'ko Elizaren eta apaizdiaren zatirik aundiena.

Arras moldakitzak ziran ordea inmigratziotiko apaiz auek hein baiño geiagotan: hurutik nâsixamarrak, oitura kaxkarretakoak, besteren esanera egoteko adiskide makurrak, urduriak, artoa]; un ñegiak... Bazegoan mota oroko jenderik aien arteun! Ondo pozik eman zieten European gotzaiel: Ameriketarako baimena! kz, alare, ez!, ez ziran geienak, Jainkoari eskerrak, orrelakoak!

Zalantzarik gabe, Ameri'ka'ko apaizen artean Frantzi'ko Iraultzak jaurti-takoak ziran onenak: jakituriz ondo landuak, birtutez ongi jantziak, animen-ganako maitasunez beteak. Auetatik aukeratzen zituan Lrroma'k gotzaiak; eta, ala, Carroll iltzean, Amerika'ko 6 elizharrutietako gotzaietatik 5 frantziarrak ziran.

Beste abendako apaizek, batez ere irlandarrek, ezin ikusi zituzten frantziar auek, eta asarre kexatu ziran Erroma'ra gotzai irlandarrak eskatuaz, geienbat irlandar zan Eliz arentzako. Eta, eskari oiek nazio-zaletasunez egoki igurtzi bait zituzten, aide ipiñi zitzaizkien, [Europa'n, Irlanda'ko gotzaidia, eta Erroma'n bizi ziran elizgizon irlandarrak. Orrela sortarazi zioten kezkarik «Propaganda Fide»ri hein baino geiagotan!

Elizaren ondasunen jabetza aipatu dugu, Iparramerika'ko katolikotasunaren bigarren korapillo. «Trusteism» deitzen diote amerikarrek korapillo oni. «Trustee», ola bateko edo salerosketa-lagundi bateko diru-jabeak lagundia zuzendu eta jaurtzeko aukeratzen zituzten gizonen izena da, gizon auei ematen bait zieten danek «trust» edo «konfiantza». Gizon auek ziran besteen izenean lagundiaren jabe Amerika'ko legearentzat.

Ona nola sortu zan Eliza-baitan ainbeste nasketa ernarazi zuan «Trusteen» iskamilla:

Laterri Alkartuetako legeak, ez zuan Kanon-Legeak «Persona Moralis» esan oi duanik ezagutzen' Ez zion baintzat «komunitate» bat besterik ez dan «persona moralis» orri ezeren jabe izateko gaitasunik ematen. «Persona Physica» bakarrik, au da, ezur eta mamizko gizakumea bakarrik, zitekean an zerbaiten jabe ta nagusi izan.

Orra or Elizarentzako korapillo askagaitza: 1 Nor egin, adi-bidez, jauretxe baten jabe? earrokoa? Ikusi dugu, ordea, Anuneriketako apaiz, aietatik bat eta bi nolako pitxiak ziran; eta jauretxe baten jabe egindako orrelako apaiz bati, —gertatutako gauza—, jauretxea saltzea gogoratzen ba'zitzaion, ez, zegoan legearen aurrean deus egiterik. eman elizbarrutiko ondasunen jabetza? "Testamentuan legezko akastxo ttipi bat naikoa zan orduan gotzaiaren illobak edo lengusuak jauretxe baten edo ikastetxe baten jabe izatera irixteko, eta gertatutako gauza zan au ere. Industri-Lagundi fidagarri bat aukeratu? Bai, baiña... lagundi arek lur-jotzen ba'zuan, galduak ziran aren izenera ipiñi-tako ondasun guztiak. Baita au ere, gertatutako gauza zan.

Orrela, gotzaiak, parroki bakoitza «trustee» sekular batzuen izenera ipintzea pentsatu zuten, baiña laister oartu ziran au ere ez zala bidea, «konfiantzaren-jabe» aiek parrokiak beren gisara gobernatzen asi hait ziran, eta gotzaiaren aurka jeikitako apaizei laguntzen, apaizak izendatzen, gotzaiari dirua ukatzen, gotzaiak izendaturiko apaizik ez artzen... lita gauzak oraindik okerrago jartzeko, sartu zan «trusteen» artean etniaren pipia.

Carroll bera jauretxe batetik kanpora jaurti zuten hein sekulan «jauretxearen jabe» auek, Okerragoa oraindik: Birjini'ko Norfolk Uriko «trusteek»,



1817'an, Eliz iare ba<sub>t</sub> osatu naiean, Utrech't'cko Eliza zismatikora bidali zuten apaiz ba<sub>t</sub> Eliz artako gotzai batek gotzai sagara zezan. Pio VII'ak gaitzetsi zuan ain ondagarri izateko almena berekin zeraman saiaketa ikaragarri ura.

«Trusteen» kulpaz galdu zuan Aulkia, Conwell Filadelf'ko Gotzai giza-gaixoak, 1826'ean, Leon XII'a Aitasantu zala, «trusteer» apaizen diru-sarietan eta parrokoen izendaketan esku eman zielako.

Karolina'ko England Gotzaiak aurkitu zuan «Elizaren Ondasunen» iska-milla au konpontzeko aski itxurazkoa zirudian erakundea: Elizbarrutiko ondasun guztien jabetasuna 19 «trusteen» Batzar baten eskuetan ipintzen zuan. 19 pertsona oiek auexek izanen ziran: Eliz-barrutiko Gotzaia, onen b:kariorokorra, 5 apaiz *eta* 12 sekular. Baiña 19 oietatik norbaitek Elizari zor zaion mendetasuna urratzen ba'zuan, norbait orrek une berean galduko zuan «Trustetasuna»' Ontza<sub>t</sub> artu zion erakunde ori Karolina'ko Laterriak.

England'en asmakizunatik mamia artuaz, Yorke Berri'ko Laterriak burutu zuan, mendearen erdia betea zanean, beinbetirako erakuntza 1863'ko «Religious Corporations Law» edo «Erljio-Lagundien-Legearen» bitartez, parroki bakoitzari, «Corporations» izeneko alkarteen izaera legez ezagutu zionean. Parrokiaren «trusteeitza» gotzaiak, onen ordezkari orokorrak, parrokoak eta bi sekularrek osatuko zuten, baiña ondasunen erabiltzeari-buruzko gai guztietan, bearrezkoa izanen zuten gotzaiaren baimena. Orrela, Elizaren ondasun guztiak gotzaiaren eskuetan gelditu ziran azkenean Iparramerika guztian, banaka-banaka laterri danek egin bait zuten lege, Yorke Berri'koaren erakuntza'

Protestalarien aldetik ere izan zituan naigabeak Laterri Alkartuetako Eliz kementsuak, butez ere 1820'a ezkeror. Ez Laterrien aldetik, urte bete lenago baztertu bait zuten, azkenean Massachusetts eta Yorke Berriak, laterri-serbitzariak katolikotasunaren aurkako zinketa bat egitera beartzen zituan legea.

Naitanaiez gertatu beur zuan gauza zan katolikotasunaren aurkako lege eta oituren desegite au, guztientzako-askatasun-bardiñaren gogapena Ameriketako Erkalaren muiña bera zalarik, eta katolikoak Erkala aren babesle zintzoak izan ziralarik, «Badut uste, —zion Washington Lendakariak katoliko sail baten aurrean—, zuen laterkideek ez dutela aantziko zuek aien Iraultzaren bururaketan, abertzale bezala, artu duzuten parte; («And I presume that your fellow citizens will not forget the patriotie part which you took in the accomplishment of their Revolution»). Era berean eskatzen zien katolikoie ere, Erkalaren aldetik irabazi zutenik ez aztutzeko: «'The important assistence which the roman catholic religion is professed»): («Erljio katoliko erromatarrari eman oi zaion laguntza»).

Orrela, Laterri Aikartuen jaiotza-ondorengo urteak, «alkar-onginaiaren-urteak» izan ziran: «era of good feelings»; «sentimentu onen aroa». Carroll gotzaiaren nortasun gaillena, Inghanderriaren aurkako bigarren gudateko katolikoek jokaera aberkoia, eta Amerika'n ordurako azi eta azi ari zan olagin-

tzak ruan beso berrien bearra, ederki alkartu ziran Laterri Alakurtuen kostituzio beraren eman /an «sentiinentu-onezko-aro» ari giro egokia prestatzeko.

Baiña, baiña... I :uropa'tik iristen ari ziran langille katolikoak, batez eue irlandar horrokalariak, ainbeste ziran-da... , katolikotasuna Amerika'ren jabe egintza ote zalaren bildurra sartu zitzairen protestalarietara.

Ala sortu ziran 1837'an, katolikoaren aurka egiteko, 20 izparringi, «baptistenak» geienak, eta, 1830'ean, Yorke Berriko «The Protestant Association», «Ostelarien Bazkuna», «Errorna'tiko ustelkerietatik-garbi, Ebangelioaren doctriña zabaltzeko», (to inculcate Gospel doctrines against Rorish corruptions) eta «Lekaideen oituratzarren aurka, Idazki Doneen garbitasuna eta «askitasuna» babesteko, (to maintain the purity and sufficiency of the Holy Scriptures against Monkish traditions)). Errez ikus dezakegu katolikotasunaren aurkako gorrotoaren berbizkunde ontan bizkor rri zala Kristaudi guztiko Eliz protestalarietan sortu-berria 'Lan «revivalism» edo «zarra-berri'l'ztean».

Saminez, baiña naitanaiez, adierazi bearke dugu «Ostelarien Bazkunaren» jokaera, auras izan zala zikiña; apaizak, maiz, gaizki baliatzen zirala beraien-gana aitortzera urbiltzen ziran neskeetat, lekaime eta apaizen arteko adiskidetasunak lizunak izan oi zirala, praille Lita monjen konbentuek igarohide izkutuak bazituztela, lekaimetxeetako baratzetan ume jaio-berririk asko bazegoala obiratua..., eta beste orrelako esamesa eta kontu zar ustelak argitara ateratzeko ei bait zuan lotsaren apurrik eue gorde.

Laister igaro ziran ostelari biurrienak itzetatik egiteetara, 183-Pean izan bait zan Boston'go ursuletarren lekaimetzea izkilluen bitartez panez zapaldua.

Eta jauretxean arrapaketak ugaritzen ari ziralako, katolikoek izkillnz orniturik jauretxeak zaintzera bearturik aurkitu ziran.

Protestalari zipotzak ez ziran danak jakinduri gutxiko jende arruntak. Aski jakintsua zan Samuel Morse teiegrafoaren asmatzaillea. Baiña egin zuan Morse'k, lenago, urrutidazkiñarena baiño asmakunde azkarrago bat: Laterri Alkanmen aurka sortu-berria zan azpi-joku erailtzaille ikaragarri baten idoroketa; Aitasantua eta Alkarte Doneko Lrregeak alkar-arturik omen zeuden L. 1834'ean argitara Tu zuan idazti batean zionez, Amerika'ko Erkala desegimeko, mundutik Askatasunaren izena bem Li re betirako osatzeko asmoz. Ortarako bialven omen zituzten Ameriketara katoliko-mordo aiek danak.

Aneika izan ziran kontu parregarri au aizatuaz Morse'renaren atzetik, protestalari berritxuek argitaratu zituzten liburuxkak, gorago aipatu ditugun beste nardakerizko esamesa lizun aiek idazki berrietan noizbeinka kalera jaurtitzea aantzi gabe. Azkeneko idazti auen artean arrierik aundienetakoa izan zuan «Awful Disclosures of Hlotel Dieu of Montreal» («iMonural'ko Hlotel Dieu'ko lkaragarrikerien Azalpena») izenarekin, Mari Monk zalako neskatil bati l kaidet.xe batean gertatutako zikinkerik sinisteziñak lardaskatzeko irarkolatik orduantxe irten zan liburu gezurtiak,

Ez da arritzeko gauza ostelariak katolikoan etorrerari zioten kezka, gertatu zitekean gauza bait zan urre batzuen buruz Amerika'n katolikoak protestalariak baiño ugariagoak izatea. Bildur orrek eraginda sortu zan 1837'an «The Amerikan Republic Party». Zabalkunde aundia izan zu'n Alderdi onek bai Laterri bakoitzen maillan, bai Laterri guztien Federapenaren maillan ere, eta *em* da arritzekoa, Alderdi F.rrerepublikazalearen egitarau edo programako atal bat auxe bait zan: «Apaiz erro matarregandiko eragozpenik gabe, eta Inliziatio infernukoiaeren bildurrik gabe..., gure asaben laungoikoa gurtu aal izatea», («Worship the God of ou, fathers... without the restraints of a romish priest or the threats *of a* hellish Inquisition»)

Ernarazi zituzten iskamilla bat baiño geiago «Nativist»ek, au da, «Native Amerikan Association» artako protestalari matraka-zaleek.

1844'ean, Iria nda'tiko langilledia bizi zan auzo haten erdian egin nai izan zuten mitin aundi bat Filadelfi'n. ;Ez mitan toki txarrera sartu borrokaren billa! Eraso zieten irlandarrek eta izan ziran «Nativist» illak ere, protestalariak, —borroketa berak sortu zutelako—, arrazoirik gabe «*new* Saint-Barthelémy» izendatzera ausartu ziran egun artan. Eta «San Bartolome Berri» tira zitortzarren biribizikoak egin zituzten bigaramonean eta ondorengo egunetan, irlandarren etxeak, scminarioa, eta bi jauretxe sutan ipiñiaz. Ires egin bear izan zuan Filadelfi'ko Gotzaiak berak eta pakea bir-ertzatzeko, Pensilbani'ko Laterria bere «militiamen» edo «izkillu-gizonak» zutik ipiñi ta protestalarien aurka karriketara atera-bearrean aurkitu zan.

Baita Yorke Berri'an ere, asi miran «nativistarik» gogorrenak urduritzen. baiña, aurrea artu zien emen Gotzaiak, bere irlanda rrak izl.illuz doitu, orrela prestatutako irlandar oien sail ugariekin jauretxe, ikastola eta Elizaren bestelako etxe guztiak babestu., eta protestalari biurriak cIic oietako bat ukitzera ausartzen ba'ziran «Yorke Berria Mosku benni bai biurturik lagako zamia» erronka egiñaz. Napolcon'en aurrean kixkaldurik gelditu zain Mosku oro;azi nai zuan Gotzaiak; eta, naiz argian aren jokaera oso changelioaren kixazkoa izan ez, aitortu bearra da bere ausardiak, etsai biurriak ikaratu zitualako cIta Yorke Berri'ko agintariak iramarri zitualako, uria pakean gordetzea lortu zuala.

Ezin isilik laga dezakegu protestalari okerkeri-zale auek cz zirala iñoiz sail arras aundia iman; eta Laterrietako agintariak beti garbi jokatu zutela. Orrela, eragozpen guztiak garaituaz, pozgarri ami zitzaigun Amerikan gure Eliza. 1815'ean il man Ton Carroll. Baziran orduan 150.000, lentxeago 24.000 besterik ez mitan katolikoak, eta bazituzten 92 apaiz. Berealaxe, 1852'an, 1.700.000 izanen dira katoliko aueI., eta 1 .421 , apaizak; 3 1 , berriz, gotza'ak. Bamituan gaiñera Elizak 30 ikastetxe mu tillentzat , eta 74 ncskatillentzat; 160 lekaimetxe, eta 50 praille-konbentu.

Bazuan bait'ere bertan jaiotako Monja-Lagundi bat: Elisabete Seion orain-txe aldareetara igo-berriak sorturiko Jose Donearen Karitatezko Aizpen l.agundia.

Eliz bizkor au, beste erlijicetako laterkideetat ik urrutixocgi bizi zan. Prj-  
testalari ta katolikoek ez zuten alkar ulertzen, demokraziaren maitasunaz-landa  
beste edozer oro, bereizgarri biurtzen bait z tzairen: politikaren arloan, ba-  
tzuek, besteen nagusitzari zioten bildurra; erlijioaren arloan berriz, ia-ia bizie-  
ra guztia zuten bereizgarri. Ta, baita kristau guztien oiñarri dan Idazki  
Donea ere.

jakiña da protestalariet Biblia erabiltzeko betidanik izan duten geiegizko  
lasaikeria; haita're arlo ortan gaur-gaur arte IPlita Katolikoak gorde oi duan  
estukeria; au ere geiegizkoa. Katolikoek ez zuten protestalarien Bibliarik ontzat  
artzen; etsaiak ziran, orregaitik, protestalarietkat katolikoak. Laterrien ikas-  
toletan protestalarien Biblia erabiltzen zan. Ikastola bereziak craikitzea bea-  
rrezkoa zala uste izan zuten gotzai katolikoek. Orrela , alkarren ondoan, baiña  
alkar ezagutu gabe bizi izan dira an, beti ere, bi komunitateak.

Jendez, talderik aundiena, protestalariena izan da beti Komunitate oietan,  
baña protestalaritzaren minbizia, bazter guztietan, —eta batez ere Amerike-  
tan—, milla apurretan bere burua zatitu bearra izan bait da beti, Eliza Kato-  
likoak garrantzi eta indar aundia, bere elizkideen zenbakiengaitik Jegokiona  
baiño aundiagoa, izan oi du lurralde aietan.

Badiegu, ala ere, zor ederrik kristau guztiok Laterri Alkartuetako protes-  
ralariet. aiek salbatu hait zuten aurreneko denborcau lurralde muga- dabe aietan  
kristautasuna.

Askatasuna lortu aurreko urteetan asko ziran an deistak eta arrazoi-zale  
utsak, ots, razionalistak; batez ere aristokrazitarren artean. «Nere adimena da  
nere Eliza», zion Tomas Paine'k: «My own mind is my own Church». Aska-  
tasuna lortu-ostean, protestalaritzan «revivalism» errikoiak, zearo garbitu zi-  
tuan deismoa eta razionalismoa, eta bizitzaren eginkizun danak erlijiotasunaz  
jantzi.

Amairik gabeko «West» edo Sarkaldea, — zineak ain ezaguna egin duan  
«Far West» artako lurraldeetan—, «artzai» protestalariet gorde zuten bizirik,  
beizai. pistolari, eta legeagandik igesi joandako gaizkilleen artean sinispenaren  
ondarra eta moralitatearen azkeneko zentzu-apurra. Filmeetan, ain nola-  
baiteko, ain arlote, eta askotan ain parregarri, ikusi ditugun «Preacher»  
edo «Predikatzaille» aiek, ez dira irudimenaren sorkari, egiaz «Far West»  
edo «Urrutiko Sarkalde» artan bizitako gizonak baizik. Lan aundia, lan ederra,  
lan neketsua egin zuten an, ludiko jenderik basatienaren altzoan.

## KANADA'KO ELIZA

1763'an Kanada Inghlanderriaren eskuetara igaro zanean 65.000 ziran katolikoak an. Ezer gutxi, Iparramerikako Koloni guztietan aldi artan bizi ziran 2.000.000 protestalari inglandarren artean, eta ez zegoan eskierki Inghlanderria, katoliko gaiso aiekin kuttunkerietan ibiltzeko asmoz.; baiña egoaldeko Koloniek salbatu zuten Kanada'ko Elizaren eta katolikoek pakea; egoaldeko Koloni aiek askatasun geiagoren eske urduritzen berealaxe asi ziralako, menderatu-berri zituan Kanatla'ko katolikoekin arretaz ibiltzera bearturik aurkitu hait zan Inghlanderria, auek ere egoaldekoen bidetik jo ez zezaten. Erlijioa agerlzeko askatasun osoa eman zitzairen 1774'eanean «Quebek Aet» edo «Kebek'eko Erabakiaren» bitartez.

1776'etik 1783'rako gudatea amaituta Egoaldeko 13 Koloniek askatasuna lortu zutenean, izan zuan estnalditxo baten arriskua Kanada'ko Elizak, 13 Kolonietatik igesi etorri bait ziran Oniario'ra 40.000 Inghlanderri-zale «leial» Laterri. Alkartu jaioberrien askatasuna baiño gorrotoago zuten, berriz, «leial» aiek, «papism» edo «aitasantukeri» esaten zioten katolikotasuna.

Baiña katoliko ta protestalarien artean guda piztutzen ba'zan, Kanada edo Kanada'reu zatiren bat, beste 13 Koloni-izandakoen laguntzarekin, Laterri iare biurto zitekелaren kezka, zugar jarraitu zuan Inghlanderriak:

— 1791'an, bi Probintzi osoro bereizietan zatitu zuan Kanada. Bi Probintziak, bi Koloni bezala ziran: Kanada Goikoa, protestalaria, eta Kanada Beekoa, katoliko; eta endan frantziarra, Goikoa inghlanderriarra zan bezela.

Aurrerantzean inmigratzaille katolikoei, erregeari leial izatea besterik ez eskatzeko, agindu zuan.

—Eman zuan Kebek'eko eta Montreal'ko seminarioak irikitzeko baimena.

—Iriki zien Frantzi'ko Iraultzatik igesi zetozen 34 apaizei Kanada'ko atea. l'z zan gutxi; Frantzi'ri Kanada kendu zionean apaiz frantzitarrei sarrera gaterazi bait zien; konhentuei, ondasun danak kendu-ondorean, nobizio guztiak bidalarazi zizkion.

Alatagutziz ez zan Elizaren bizitza an ere arantzik gabea izan, protestalarien zipozkeriaren kulpaz.

Kebek'eko Gotzai anglitarrak, bere burua zeukan Kebek'eko gotzai bakarizat eta arrazoia-edo eman zion Jaurlaritzak; Gotzai katolikoari «Superinten-

dent of the Romish Church», «Erromatar Eliza'ren Arduradun Nagusia» izen-ematen hait zion andik aurrera' Eta ori baiño okerragoa dana, lotsarik gabe sartzen zan Jaurlaritza apaizen izendaketan eta amarrenen administraketan.

Atzera berriz egoaldeko Laterri protestalariak izan ziran, uste gabean, Kanada'ko ka tolikotasunaren laguntzaille. Laterri Alkarturk 1812'an Inghlanderriarekin «Bigarren Guduan» nâsi ziranean, ordurako 265.000 baziran kanadatar katolikoan ongingaia irabazi bearrean aurkitu bait zan oster Inghlanderria, batez ere Laterri Alkarturk Kanada artzeco prestatzen ari zinnia jakin zuan ezkeru' Ezagutu zuan egiazko gotzaitzat Kebek'eko Gotzai katolikoa, eta apaizen izendaketan atzaparrik ez sartzeko itza ere eman zuan.

Baiña amairu zan guda 1814'ean eta atzera, Inghlanderria, Kanada'ko katolikoak protestante edo ostelari biurtu naiean asi zan laister. Orduan, ordea, matxinada bizian jeiki zitzaion gaztedi katolikoa Luis Papinau buruzagi zuala (1837-1830), eta ikaratu zan honetan 1n<ghlanderria. Matxinada au izan zan Kanada Laterri Iarearen jaiotza, 1841'eko «Union Aet» deritzaion legea er-nârazi zualako. Katolikoei zor die beraz Kanada'k bere askatasun eta Laterri-tasunaren sorkuntza'

Lege orrek bi probintziak Kanada bateau biltzen zituan; Kanada batu orri autonomi edo hurujahetza osoa ematen zion. Inghlanderriko Erregeea izango zan Laterri-Buru Kanada'n, baiña izanen zuan onek, Kanada'k, bere Jaur-laritza. Jaurlaritza ontako jaunie geienak protestalariak izan ziran orduan eta odolez inghlanderrak, ala bait ziran kanadatar geienak ere.

Onuragarria izan zan Elizarentzat gertakizun au, Beeko Probintzian zuan askatasuna orain Kanada guztirako irabazi zualako, eta Laterri Berriko Erregearen ordezeko lenen Jaurleri Orokorra, Lord Elgin, gizon egoki baino egokiagoa atera zitzaiolako.

Aurreneko momentuan, izan zan larri-alditxo bat, jaurlaritzak erakusketa bere eskuetan artu nai zualako; baiña katolikoekin batean aurka irten bait ziran metodistak, presbiteritarrak baptistak, eta anglitar ez ziran beste kristau guztiak, askatasun osoa eman bearrean aurkitu zan erakuskintzarako jaur-laritza.

Laterri Alkartutan bezala, izan zituan Elizak Kanada'n katolikoan abendakeriak sorturiko iskamillak, batez ere irlandarrak itxasertzeko lurraldeetara iritxi ziranez gero, ez bait zuten apaiz irlandarrak Kebek'eko Gotzai frantzi-tarraren mendean bizi nai. Lia lortu ere lortu zuten, 1818'an, F.skozi Beria, Erroma berberaren mendeko Bikariotza biurtzea.

Asko ziran irlandarrak an, Inghlanderriko Jaurlaritzak begi onez ikusten hait zuan Irlanda'tiko intrnigrazioa, irlandarrak inghlanderaz mintzatzen ziralako. Bildur van bâ Kanada'n sendi frantziarrak unie geiagokoak ziralako, frantziarrek eta frantzera, angu nagusi ez ote ziran egingo.

Kanada iarenn bizkor azi. van Eliza Katolikoa. Bazituan, 1850'erako 700.000 elizkide, 6 gotzai, 600 apaiz, 50 konbentu eta 11 ikastetxe.

## IBER-AMERIKA'KO ELIZA

Iparrean askatasuna Elizarentzat arras onuragarria izan zan bezala, esan daiteke Egoan kaltegarri izan zala, Eliza, apaiz gabe, gobernu erregekeri-zaleen mendean, eta, —laterri batzuetan beintzat—, oso erlijiotasun gutxiko agintarien eskuetan utzi zualako.

Oregon'etik beerako lurralde neurri-gabe ontaz ari gulararik, aurreratu dezagun, izenari buruz oarkizun bat: Pio VII'a, Leon XII'a, Pio VIII'a eta Gregorio XVI'a Aitasantu zirala, «Amerika», Españi'ren mendekoak izandako Laterriei bakarrik esaten zitzairen Aulki Donearen idazkietan. Kanada, Laterri Alkartuak eta Brasil, beren izen berezietz dira beti deituak. Pio IX'aren denboran asi zan izendaketaren aldakuntza. Orduzkerok, «Amerika» Laterri Alkartuei deituko zaie baitipat, eta Españi'renak eta Portugal'enak izandako erri-dientzat izen berri bat asmatuko da: «America Latina», edestian sustrairik ez duan izena, naiz, arrazoirik gabe, italiarrentzat eta frantziarrentzat atsegiña Izan.

Arrazoirik gabe: ez bait zuten auek an ezer oroigarririk egin. Egia da Prantzi'k Guayana'ren zati bat, Santo Domingo ugartearen sarkalde.i, eta beste ugantetxo batzuk I;spañi'ri kendu zizkioia, eta Itali'k langille asko bidali duala lurralde aietara, Arjentina'ra batez ere, baiña ez du orrek deus balio an Españi'k eta Portugal'ek egin zutenari alderatzeko. Frantzi'k, Kebek eta Luisiana'n egiña bera ezer gutxi hait da Portugal'en eta Españi'ren ekintzekin kidatzeko.

Orregaitik, «Amerika Latina» ori Iberi'ako bi Laterrietako seme ausartien merezimenduen kontrakoa iruditzen zaigulako, guk Iber-Amerika deituko diogu lurralde zabal ari eta batean arteztuko dugu ango Elizak aro ontan izan zuan jardunketa, berdiñat hait dira Laterri aietan danetan izan zituan problemak, naiz askatasunera iristeko modua Brasill'en pakezkoa izan.

Napoleon Iberi'n sartu izanak sortu zuan erridi aietan askatasunaren txinparta.

Napoleon Portugal'era eldu zanean Maria I'a zan an erregin, baiña emakume onek burua galdu zualako, bene seme jon'ek zeukan agintaritza, etc Brasill'era juan zan frantziarrendandik igesi. Brasill'era juan ziran guda-roztearen buruzagi asko eta Jaurerriko aundikien zati eder bat ene. Esan daiteke Portugal'eko kortea Brasill'era aldatu zala, eta aldi aietan «nun Erregea an Laterria» izaten bait zan, esan ere daiteke Portugal lurrez aldatu zala. Orrela

1816'ean Mari I gaixoa il zanean, Jon VI'ak Brasill'en jarraitu zuan lasai, Portugal'eko Errege bezala, eta ez zuten ortan portugaldarrek deus arrigarririk ikusi.

1820'ean, ordea, Europa'ko Portugal'ek, Espaiñi'ko liberalen antzera, Kadiz'ko Kostitutzioaren antzeko Oinarrri-lege bat eratu bait zuan, Lisboa'ra itzuli zan Jon VI'a agintaritza orokorra erabat galdu zezakealaren bildurrez, eta Brasill'en Kepa bure semea laga zuan erregeordezko, 25 urteko gazte urduria.

Lz zuan onek denborarik galdu, urrengo urtean Brasill'eko Inperatore egin bait zuan bure burua, «Ipirainga'ko Deiaren» bitartez. «Askatasuna, ala eriotza», zion Brasil Laterri iare biurtu zuan «Dei» ospetsu arek.

Bi Laterri ezberdin sortu zitzaizkigun orrela: Brasil eta Portugal. Eta bi Errege bereizi, bakoitza bure Laterrian: Jon VI'a Portugal'en, Pedro I'a Brasill'en.

Alatagutziz ordea, bietako bakoitzak berea bezala begirutzen bait zion bestearen Laterriari, VI Jon il zanean, Brasil'ko Pedro I onek bere burua egin zuan Portugal'eko Errege. Izan cru, bera bait zan, Jon VI'aren semea lez, Portugal'eko erregegaia. Orrela, Portugal'eko Pedro IV'a biurtu zan.

Pedro onek ordea, Portugal'eko IV Pedro'k, Maria bure albatxoaren eskuetan, utzi zuan Portugal, eta Brasill'en jarraitu zuan berak, ango Inperatore: I Pedro Brasill'eko Inperatorea, (1826). I Pedro'k inperiotza II Pedro bere semeari utzi zionean, betirako bereizirik gelditu ziran Brasil eta Portugal'

Latzagoa izan zan Espaiñ'rena zan Ameriketean askatasunerako-sorketa.

Portugal'en Amerika Koloni bat bakarra zan bezala, Koloni askotan zatitua zegoan Espaiñ'rena, eta Koloni aietako bakoitza Laterri iare biurtu zan. Koloni bera oartzeke, askatasunaren kurpilla igiduran; IV Karlos Espaiñ'ko Erregeak Baiona'n bure kirguztiak Napoleon'en eskuetan utzi zituanean, Ameriketako Kolonietan «Batzorde» batzuk sortu bait ziran Fernando VII Karlos IV'aren semearen— esku-bidea bere aitak egindakoaren aurka babesteko.

Asiera artan, askatasun txiki baten zale, autonomiaren zale bakarrik ziran «Batzar» aiek. Burujabetza nui zuan Koloni bakoituat bere barren-auzien jaurketarako, baiña danek, Espaiñ'ko Erregea Laterri-Burutzat gordez. Gero, Espaiñ'ko Jaurlaritzak inñolaz eru autonomiaren apurrik txikienik ere eman nai ez ziela ikusi zutenean biurtu ziran iaretasunzale.

Izugarri aberatsa zan Eliza lurralde aietan Askatasun-aurrean. Bereak ziztuan Mexikon nekazaritzako lurren erdiak ia. Ala ere ez zan Egoamerika'n Iraultza Elizaren aurka egin. Mexiko artan bertan apaiz bat izan zan askatasunaren irrintzia lendabizi jaurti zuana: Mikel Hidalgo (1810), eta Guadalupe'ko Ama Birjiñaren irudia zeramakian margozturik bere ikurriñak nial zurian. Lta Hidalgo fusillatua jausi zanean, beste apaiz batek, Jose Mari Morelus'ek artu zuan eskuetan aren ikurriña. Fusillaturik amaitu zuan onek ere bizia.



Españi'ren Amerika aietako gotzaiak, danak erregezaleak eta aski jantse-  
nikeri-zaleak izatea ez da arritzeko gauza, ala bait ziran orduan Españi berta-  
koak ere, aiek eta auek, danak, Erregearen adiskide zintzoak ziralako Erre-  
geak beral: gotzaitzara jasoak. Ameriketako gotzai aiek, Askatasunakoan, Erre-  
gearen alde eta Españi'ren aide jarri ziran eta askatasun-zaleen aurka.

Ez, *ordea*, guzti-guztiak.

Askatasunaren billa Tupac Amant printzipe inkatarrak bere odolez igurtzi  
berria zuan Alto Peru'ko lurraldean askatasunaren aldeko izan ziran orain Be-  
nito Mari Mox6, orduan Chuquisaea eta gaur Sucre deritzan uriko Goigotzaia,  
eta Remijio *de* la Santa Ortega, La Paz'eko Gotzaia.

Gizon egokia, teologilari azkarra, eta naturalista jakintsua eta ospe aun-  
diko gizona zan aurrenekoa baiña bai ameslaria ere! Jokine Karlote printze-  
sa borboittarrari eman nai hait zion, laister Bolibia deituko zitzaion Alto Peru  
artako buruntza. La Paz'ko Gotzaia berriz, Ameriketako apaiz asko bezala,  
errepublika ezartzearen aldekoa zan. Askatasunaren aldekoak izan ziran baita'-  
re Narziso Colt y Prat (Karakas'eko Goigotzaia), eta Jose Cuero Caicedo  
(Kito'ko Gotzaia).

Iber-Amerika'ko Iraultza, mendearen aurreneko urteetan asi zan: 1806'koa  
da Frantzisko Miranda'k Benezuela'ko Okumare'n egindako saioa; 1809'an  
sortu zan Ekuator'ko aurreneko «Junta», Peru'tik Erregeordezkoak bidalitako  
«Batallon de Pardos» edo «beltz eta erdi-beltzen batallo» batek menderatu  
zuana; 1810'ean, Buenos Aires'en, Mexiko'n, Karakas'en, ia Amerika guztian,  
zutirik zegoan Iraultza, 1821'ean Ayaeucho'ko borrokarekin amaituko zan  
iraultza.

Gudate luxe ortan, esan dugun bezala, amerikatarren aurka ziran gotzaiak  
eta baita Aulki Donea ere. Ez zan erreza Aitasantuarentzat nr̄spilla antan zer  
egin asmatzea. Askatasun-zaleen alde jartzen ba'zan, asarretuko zitzaion Es-  
pañi'a. Erregearen patronatoaren araura gotzaiak aukeratzen ba'zitian, ez ziz-  
kioten gotzai oiek Simon Bolibar eta Ameriketako beste buruzagiek artuko..'  
Zorabio ortan, aizerik gogorrenak nondik jo, andik jo zuten Aitasantuek ere.

1816'ean bazirudian Españi'k iraultza menderatuko zuala. Orduan, Pio  
VII'ak, «erregearenganako eraspina amerikatarren artean erakusteko» idatzi  
zien ango gotzaiak, «gure seme maite Fernando'ren» zintzotasuna eta birtu-  
teak zeruetaraiño jasoaz. Ez ote zioten Madrid'ko nuntzioek Fernando VII'a  
zer klaseko egazti zikiña zan esaten? «Jn crapuleux»: «lotsa galdu bat», omen  
zan bâ! (Pierre de Luz). Fernando VII'ak Erroma'n zeukan enbaxadariak lor-  
tu zuan Errege «crapuleux» aren gorazarrea zegian entziklika ura. Enbaxa-  
daria, Vargas Laguna, Aitasantuaren lagun zârra zan, eta absolutista beroa.

Ameriketako gotzaiak ere absolutistak ziralarik, eta, beti, Erroma'ra ango  
gauzen berri Madrid'ko gobernuaren bitartez ematen zutelarik, ez zezakean  
Aulki Doneak Ameriketako gertakizunetaz argitasun zuzenik aixa jaso.

1820'ean garaille zan San Martin Peru'ko Ande-Mendietan eta Bolibar Kolonbi Aundi'koetan. Españi'n, berriz, Iraultzalari Liberal ezkertiarrek agintzen zuten. Ikaratu zan Aitasantua, eta urrengo urtean pentsatu zuan, Fernando VII'ari kasorik egin gabe, Amerika aietarako, bera, bere kontuz, «Apostolutzarako Bikarioak» izendatzen astea.

Orduantxe iritxi zitzaion Erroma'ra gobernu arjentindarrak adiskidetasun-billa bidali zion Frantzisko Pacheco ordezkaria eta, Ameriketako jendeen naimen ona ikusita, ausartuko da azkenean Aitasantu tza Bikario aiek izendatzera; naimen ura Arjent-ina'koa bakarrik ez zala ikusi bait zuan, Benezuela'ko gotzai batek bidalita, Benezuela-aldeko albisteak ere jaso zituanean.

Frantzisko Paebeco'ren etorrerak eman zion ats Bikarioen «erdiko bide» artatik jotzeko; eta, baita mola ez?, aipatu dugun gotzai arek Benezuela'tik jakiñarazi zionak ere. Laso de la Vega izan zan gotzai ura, Benezuela'n dagoan Merida'ko Gotzaia, kolonbiarra jaiotzez, Errege eta F,spañi-zalea gaiñerako lire itotzaikideak bezala.

Baiña Simon Bolibai'en diplomaziak, eta butez ere, Españi'n Jaurlaritza liberalak zegizkian geiegikeriek, zearo irabazi zuten azkenean, askatasun-zaleen alderdira.

Gotzai onek Bolibar'en izenean idatzitako eskutitzak, argi ipintzen zion Aitasantuari begien aurrean Amerika'ren egoera beltza, elizbarrutiak gotzairik gabe eta parrokiak apaizik gabe zeudelako. Gotzai asko, gudatekoan il omen ziran; beste batzuek atzerrira alde *egin* omen zieten; eta beste asko, Erregearen gndarozteetan omen zeuden gorderik. Ederki giten zuan Ameriketako askatasun-zaleen defentsa ere, Fernando VII'ak, (1820'eko Kostitutuzioa ziñegin zuanean) agintaritza «erriari» itzuli ziola, arrazoitza *ipini*az:

«*Jurada* la Constitueidn por el Rey Catdlico, la soberania volvid a la frioete *de* que salió, a saber: el consentimiento y disposieian de los ciudadanos. Volvic a los españoles. APor qué no a nosotros?». «Errege katolikoak Kostitutuzioa ziñatzen, iturburura itzuli zan aginpidea: laterkideen iritzira cta etsipenera. Españiarrengana joan zan! Eta, gugana cre pez ote zan etorri?».

Eskierki Bolibar'en eskuak zerabilkian Gotzaiaren luma. Ez bait zan bâ Simon Bolibar, Españi'ko liberalkeriak naitanaiez Erroma'n sortarazi hear zuan pupua sumatzeko, mutiko makurra! Ain zuzen, Elizak orduan Españi'n sufrittu bear zituan okerkeri eru gaiztakeri aiek Ameriketari sekulan jasango ez zituaren itza emanaz, irabazi zuan Gotzaiaren naimena.

Bernardo O'Higgins Txile'ko Diktatoreak ete gotzai baten izendatzea eskatzen zualako, Ordezkari bereizi bat bidali zuan Aulki Doneak 1823'an Ameriketara, an Apostolutzako Bikarioak aukeratu eta Gotzai sagaratzeko. Ton Muzi izan zan Ordezkari ura, baiña beri yayotasun murrizteko gizona zalako, eta Txile'ko Agintari berria, Ramon Freire, Elizaren lagun kaxkarra zalako, deus Lortu gabe itzuli zan Erroma'ra 1824'ean. Azkartxoegi!, ez bait zuan Bolibar'ek Montebideo'ra bidali zion eskutitza jasotzeko denborarik izan. Kolon-

bi'ra igotzeko, eskatzen zion maiteki «Liberatzaileak» eskutitz artan Aitasantuaren ordezkariari.

XII Leon aitasantutzara igo-berria zan Muzi Ameriketara irtetzera zijoan eta Leon XII' ak berak agindu zion aurrera jarraitzeko. Fernando VII'a baztertuta, Ameriketako Buruzagiekin bitartekorik gabe eta zuzenki alkarrizketan asi nai zuan Leon XII'ak.

Baiña... to! , bi urte baiño lenago, Leon XII'ak berak Erroma'tik atereanazi zuan Bolibar'ek bidali zion ordezkaria, Iñaki Tejada; eta Leon XII'ak berak idatzi zien Ameriketako gotzaiei «etsi iam diu» «eskutitz laburra», «brebea» (1824): Izugarrizko gaitzak ekarri omen zizkien Laterriari eta Elizari «matxinada aren zalgeak» (la cizaña de la rebelión); orregaitik, erria pakeratzen saiatzeko agintzen zien gotzaiei, eta ortarako , «nada mejor que esclarecer ante vuestra grey las augustas y distinguidas cualidades que caracterizan a nuestro amado hijo Fernando, Rey Católico ele las Españas», («deus ez egokiagorik gure seme maite Fernando, Españietako Errege Katolikoaren birtute guren dizdiratsuak zuen artaldean aurrean gorestea baiño»). Ori... Sucre'k Ayaeueho'n España erabat zapaldu zuan urtean!

EZER gerta zitzaiokean Aitasantuari gogabidez orrela aldatzeko? España'ko giroa aldatu zitzaiola! Aspalditik ari ziran Erroma'n «Alkarte Doneko» Erregeak Ameriketako askatasun-zaleen aurka azpi-lanean. Orain, liberalen eskutetan España Errepublikari biurtu zitezkelako bildurrak larritu zituan , eta Fernando VII'ari «bakarragintea» itzultzea pentsatu zuten. Ortarako sartu ziran España'n «Koldobika Donearen Fun Milla Semeak».

Gudari frantziar auek birreman zioten España'ko Borboiari, arek bere aal utsez sekulan lortuko ez zuan mugarik-gabeko-aginte-orokorra. España'ko guda-indar urrien alboan neurri guztien gairikoa zan gudarozte ura, barruan ikusi zutenean, zuzpertz ziran ordurarte bildurrez makurturik zeuden absolutista españa'arrak; eta arranditsu jeiki!

Aitasantuak... demokraziaren etsai aiek ipintzen zizkien eredutzat iraultzalari amerikatarrei bere eskutitz doakabcan. «Los ilustres e inaccesibles méritos de aquellos españoles residentes en Europa, que han acreditado su lealtad siempre constante, con el sacrificio de sus bienes y de sus vidas, en obsequio y defensa de la religion y de la potestad legítima», («Europa'n bizi diran españa'arren merezimendu argitsu eta urbilgaitzak; beren betiko leialtasuna, agertu hait dute españa'ar oiek, ondasunak eta bizitza bera erlijioaren eta legezko au toritatearen alde eskeñiaz»).

Oñaztarria bezela jausi zan orduan Ameriketara eskutitz ori eta, gero ere, min bizia eman die, luzaroan, edestilari katolikoei. Auetako batzuek, Aitasantuak idatzia izan zala ere, ukatu oi dute. Tamalez, Leon XII'ak idatzia da, eta ez gaitezen arritu, diplomazi-gaietan aitasantuak beste edozein printzipek aiñako oztopoak egin bait dezazke, Gogo Deunaren atsa gai oietara jeisten ez dalarik.

Borobilla zan, gaiñera benetan, Leon XII'aren utsegite au, ordurako Ameriketari San Martin eta Bolibar garaitza osora irixteko une-uncan hait zebiltzan. Laister oartu zan Aitasantua ere; eta ikusi zuan, zearo okerturik ibilli zala: eta zabal-zabalik aurkitu zuan andik urte betera Erroma'ko atea Bolibar'eo Ordezkarari Tejada'tar Iñaki'k.

Arrezkero, irabazirik zeukaten amerilcarrek Aulki Donea. Baziran Ameriketari batere gotzairik gabe zcuclen Laterriak, Izendatuko ditti Erroma'k gotzai oiek' Zaillagoa izango da apaizen tirritasuna betetzea, --apaizen iratik hata galdu<sup>y</sup> uan Mexiko'k gudatean- , ci t askoz zaillagoa oraindik apaiz eta gotzai egokiak aurkitzea. 'Ia... len-bait-len bear ziran artzai oiek! Anu:riketako gobernuck ez zuten Bikariorik nai; Salhador'ko jaurlaritzak gotzai zismatiko bat ezarri zuan San Salvador'en, I;liz-zatiketa baten arriskua sortuaz. Arin asi zan Aulki Donea artaldeei Artzaiak ipintzen.

Ameriketako Gotzai auk ez ziran gizon gaiztoak izan ez; I.^aiña ez zuten aginta riegi aurpegi emateko kelnemk naiko, eIa ala ;etxi ziran askotan Diktatoren aurrean, «biotza ler-zorian ipintzen diguten morroikerietara»: «servilismes qui soulèvent le coeur» (Bullier de Sauvigny).

Apaizak, berriz, jaungoikoak dakin bezclakoak ziran, asko beintzat, Askatasunaren lenen-garai aietan: gotzairik gabeko eliz-harrutietako seminario erdi-dcsegifietan, kixazko irakaslerik gabe antxintxika moldakaitz eziak, eta ezer-gutxi-ikasiak.

Apaiz aien oiturak oso-oso garbiak ez izateak ez dezake iñor arritu. Brasill'el:io Inperioko lenen Rulainentuan Diego Ec'joo kanonigo Diputaduak, apaizei, ezkondu aal izateko eskubidea Inperio-lege haren bidez emateko, eskatu yuan ozenki. Orixe berbera eskatu yuan I83-Pean Sao Paulo'ko Kontzilioalr, baina, —kanonigo Diputaduak egin ez zuana—, arrazOi dotoreak emanaz: 1: Apaizei ezl:onduak izateko baimena ematcak, ez zuCla tiens aldatuko, ordurako apaizak emakumeekin bizi ziralako. 2: Laterriaren zahaltasunak, lurralde tira dana bear bezala lantzeko, jende geiago eskatzen nialarik, ongi-etorriak iz,incn ziralapaizen semeak!

Eragozpen oien artean aurrera zijoan Eliza, sentimentuz beintzat ziara katolikoa zan Amerika galanta artan. An ez zegoan Elizaren aurka Iraultzarik egiteko modurik, eta ikusi zuten ori iraultzalariek erc. Mexiko'n okertuko dira laister gauzak.

Betidanik jendearen bepietait elizjendeak itzal cuti aginte aundia izan zualako, eta Aulki Doneagandiko ezagupena eta onespenea gura zituztelako, Elizarekin txit eraspenkoiak izan ziran lenen iraultza-egilleak. Ez ziran gaiñera auk, batez ere Boltbar'ck Miranda menderatu yuan ezkerro, Elizaren etsaiak. Bat baiñon geiago bene-benetako katolikoak ziralara ere esan dezakegu. Aipu berezia merezi du auen artean Sucre buruzagiak; «el Mariscal de Ayaeucho» esan oi zaio, Avakutxo'n españiarren aurka garaille irten-da Amerikaren Askatasunari azkeneko gurenda eman ziolako (1824).

Ama Birjiñari! eskeiñi zizkioten Arjentina'n Belgrano'k eta San Martiñ'ek beren gudaroztcak! Eskeintza ori egitean, b:raoketa galerazi zuten; eta iganderoko meza, eta baita arrosarioa erreztatzea ere, bearrezkoa egin zuten gudarrien artean. Ande-Mendiak-gora Peru askatzera irtetzeko uanean, atzera berriz, San Martin berak, «Ama Birjiñari eta ikurrin zuri-urdiñari leialtasuna» ziñ-egiteko agindu zion gudarozteari. Bnriñaren margoak daramazkian ikurrin ori Tukuman'eko 1N'az.o-Batzarrak egin zuan le ezko,

Batzar artan, 29 batzarkidetik, 16 apaizak ziran. Apaiza zan Uruguay'en ere Damaso Larrañaga, Artigas buruzagiaren alderdiko'.t, Uruguay'ko gizonik «argituena», batez ere izadiztietan vayoa, eta apaiz bikain-bikaiña, 1830'ean Aulki Doneak Montebideo'ko Apostolutza-Bikario izendatua. Apaiza zan, alaber, Uruguay'en bertan, Artigas'ek baiño lenago askatasuna eskatu zuana: Silberio Martinez, Pavsandu'ko parrokoa. Benezuela'n ere, legearen bitartez askatasunari bide iriki ziona, kanonigo bat izan zan, Cortes Madariaga, onek eman hait zien Karakas'ko agintariei, «Kadiz'ko Juntari» uko egin-da Karakas'en bertan beste «Junta» bat osatzeko aolkua.

Sucre aipatu dugu lentxeago buruzagi katolikoan eredutzat. Era berean aipatu bearoko genduke Jon Paul Duarte, Santo Domingo'ko lenengo Lendarakaria; bere almen guztiarekin lagundu hait zion Elizari.

Reste Agintari batzuek ez zuten ain asmo garbirik. Edo asmoa egiazkoa ba'zan ere ez zan beintzat zuzena «Eliza babesteko» zerabilkiten jokaera.

Ondo ezaguna da diktatorerik zipotzenen artean Jose Gaspar Rodriguez de Francia'ren izena. Apaizgaia izana, Kanon-Legediaren ikasketan doktordutzaraiño iritxia.

Ez zuan, ala're, apaiz-sagaraketarik artu; ta ahogadu egin zan gero. Berak esan oi zuanez, «katolikotasuna babestearren bakarrik» ezarri omen zion diktadura Paraguay bere aberriari: izan diran diktaturcrik gogorrenetako eta zoroenetako bat! Ez zitekean bâ iñor ez Paraguav'en sartu, ez Paraguay'tik atera. Eta «Laterriaren pakea zaintze-arren», etsai guztien salaketara, eta aitortzako sakramentuan entzuna ere esatera beartu nai izan zituan apaizak. Ondo merezi du Frantzia'k «Paraguav'ko (alvin) izengoitia. (1818-1840).

Rodriguez de Francia'ren aldean zapelaitzaren aldean saia bezala dager Jon Imanol Rosas, Arjentina'ko diktatorea, Ez hait zan motela izan au ere: eta badira «bera izan zala Ameriketako diktatorerik ankerrena eta pistikoiena» diotenak: «establecic en Arjentina la mis cruel y salvaje dictadura que ha conocido América» (Montalhan). Bâ... Rosas'en irudia, aldareetan zegoan Ama Birjiñaren eta Kristo beraren irudien alboan.

Beste ezpalez tajututako gizona dugu Simon Bolibar, lurralde aietako politikalaririk erneena, gaztaroan sinisgabe biurtua, baiñan kristauki illa. «Este genial estadista, gran soldado, de palabra fascinadora y de intuiciones proféticas, el mas grande de los liberradores de Amériea... Si su conducta moral no fue siempre la de un buen cristiano, no hay duda que su espiritu se fue

impregnado mais e mais de catolicismo; comprendid la misidn salvadora de la Iglesia y se persuadid que, sin ponerse de acuerdo con ella, los nuevos Estados arncricanos no podrian subsistir. De abi al empeño en entaillai- relaciones con la Santa Sede. Murio du tesis v melaneolia, confortado *con* los sacramentos ik la Iglesia». (Nlontalbtinl:

Laterri-gizon onen, gudari ;tundia, izkera lilluragarriaren jabea, igarleen ikusmen luzez doaitua. Ameriketako askatasun-ekarleen artean aundiena... Bere hiziera , kristau zintZo batena beti izan ez ba'zan eru, guru ta geiago joan zan bure gogoia, katolikotasune • ornitzen; ulertu zuen Elizari zegokion iaregin-tza, eta nabaitu zuan Laterri berri aieI: ez zutela, Elizarekin bat egoteke au rrera jarraitzerik izango. Ortik taren Iria Aulki Donearekin arremanetan as-teko. hiri-miñaz cta goiheltasunaz il zan Elizaren sakramentuak artu-ondorean».

Gudaren zuzendaritza eskuetan artu bezain laister asi zan liol.har Elizari eskua luzatzen, gotzaiak España-zaleak izateari arretarik eman gabe. Ondo askatasunaren arcario eta erregearen alderdiko zan Popavan'goa, atzerrira bil-durrez iges-egia. Laister idatzi pion Bolihar'ek, itzultzeko eskatuaz: «Ez di-tzazula, arren, aantz, emen laga dituzun ardiak , ardi danak, eta bereiziki, konfirmazioaren zai daukazun umetxocn gogo garbiak. ;Zenbat apaizgaiek gelditu bearko dute losukristo'ren ordezkarien sakramentu gurena artu gabe, zu, aien aldatea-serbitzeko gurariari eta egi santua zahaltzeko le;ari, atea irikitsera etortzen ez ba'zera! 'I'a ederki dakizu zuk Kolonbi'ko jendeak duan apaiz-hear larria... Ameriketari Elizari lurrera jausten ba'da , Eliz ori zutik gor-detzeko eginkizuna duzutenona izanen da errua».

Frljijotik urrutik zegoan oraindik Bolibar au idatzi zuanean, baiña eskuti-tzean zion guztia egia zan, cta atertu gahc egin zuan lan parrokiak eIa eliz-barrutiak apaizez eta gotzai cz ornitzeko, cta baita Aulki Donearekin alkarriz-ketari asreko ere. Diplomazi goxo ta arraicko gizona hait zan, irabazi zituan azkenean bere alderdirako eta Ameriketaren askatasun-alderditako gotzai aien gogoak.

Bolibar lurralde aietan ospe cta itzal aundiko gizona zalako, eta beste buruzagiek eru arek bezala pentsatzen zutelako, ez zuan Ameriketari Elizari Askatasunakoan zigorketarik izan. la Laterri guztietako OIñarri Legeek egiten zuten katolikotastina Laterriaren erlijio, eta batzuek beste erlijio guztiak de-hcl.atu cre debekatzcn zituzten.

Jon Egaña , txiletari legiztilariaren liburu baten oldozkera zegoan kostitu-zio areen azpian: «Memoria Politica sobre si conviene en Chile la libertad de (ultais) ». 181 Taren aurretik idatzita izanik gero argitalpen asko izan zituan li buru ornan I:gaña'1< z'unez, erlijio-askatasunak, erlijioa galtzera eramaten omen du erria; eta erlijio--galtzeak , anai-gabt'ko matxinada era borroketara. Erriaren pakea eia erritarreck alkar-nai-izatea, katolikotasunean omen daude oiñarrituak.

Liberalakoiagoak izan zirean Arjentina'ko eta Brasill'eko Kostinizioak, b-aiña ederki izan liteke lenen-ordu artako OIñarri Legeen eredu Kolonbi'ren lenda-

biziko Kostitutuzioa: Laterriak katolikotasuna-beste erlijiorik onartuko ez duala aitortu ondorean, beste onako auxe dio: «A fin de evitar el cisma y sus funestas consecuencias, con preferencia a cualquier otra negociacion, se estableerlin relaciones con la Santa Sede para negociar un coneorat() y la conti-nuacion del patronato que el Gobierno tiene sobre la Iglesia en estas dominios». «Zisma eta bere ondorio galgarriak eragozteko len-hait-len asiko dira, beste arreman guztien aurretik, Aulki Doncarekin alkarrizketak konkordato bat lortzeko, eta lurralde auetan Gobernuak Elizaren gainean duan eskubide edo «patronatoaren» jarraipena ere lortzeko».

«El Patronato! ». «Zaindaritza! ». Ederki ipintzen digu Kolonbi'ko Oinarrri Legeak begien aurrean lenen orduko amerikar agintari geienen akatsik nabar-menena, ia danak izan bait ziran erregekeri-zale porrokatuak; baita egiaz beren buruak kristautzat zeuzkaten aiek ere.

Ala sartu zan eliz-gobernaketan Arjentina'ko Bernardino Rivadavia, agindu berritxuak emanaz. Altagutziz txit gizon kristaua izan zan beti. Orregaitik dio edestilari batek, aren txepelkeri aiek ikustean: «Todos estos esperpentos los hizo un hombre devoto que coneurria a las procesiones eirio en mano y muric cristianamente» (Alvarez Mejia). Euskeraz: «txatxukeri auek danak, ibildeunetara argizaria eskuetan zuala joaten zan, eta kristauki il zan, gizon eraspentsu batek eglñak izan ziran».

Ez zan noski ibildeun-zalea, Frantzi'n iraultzalari «xirondatar» izandako Frantzisko Miranda; bai ordea erregekeri-zale bizkorra, bere antzera, aurren-aurreneko «Junta» aiek izan ziran bezela. Ori ikasi bai, zuten erregeen den-boretan!

Orregaitik ez gaitu Buruzagien erregekeriak geiegi arritu beur, ordurarte, Aitasantuek ontzat artuta, lege izan zun «Patronatoaren» jarraipena besterik ez bait zuten eskatzen. Ondo bizirik ikusi zezaketen, gainera, «Patronatoa», oraindik Españi'rena zan Kuba'ko ugartean. Gotzaia zan Jaurleri baten eskue-tan gainera!

Juan Jose Diaz de Espada Landu, La Ilabana'ko Gotzaia, zan an Jaurle, eta cmezortzigarren mendeko jantsenikeri eta erregekeririk zipotzenaren araura gobernatu zuan ugartea 30 urteen luzaroan, (1802-1832), Erroma'tik zetoz-kion oarkizunei jaramonik egin gabe. La T-fabana'ko seminoria bere oldozke-taren eraz tajutu zualako, erregekeri-zalea izan zan andik irtendako apaizdia. Gero, 1868'an askatasunaren aldeko borroka Kuba'n ere piztu zanean, Es-pañi'ren alde jarri ziran zalantzarik gabe apaiz aiek danak,

Ameriketan Españi'ko Erregeek agintzen zuten bitartean ain erregekeri-zale izandako gotzai aiek, ez ziran, ez noski, inolaz ere erregekeriaren alde-koak «Patronatoaren» eskubideak Españi'ko Erregearengandik Amerika'ko Agintari berriengana igaro ziran ezkerro, baiña ez zuten Agintari aiei aurpegi emateko gaitasunik izan. Bai al zezakean, izan ere, orrelakorik egin, ordurarte erregearen esanera apalkiro bizi izan zan gotzaidi arek? Mczezi dote ulula-gutziz, bi gizonak aipamen bereizia, azaldu zuten kementasunaren ordainez:

Lima'ko kanonigoa ean Xabier Luna Pizarro, teologilari jakintsua, apaiz erru-gabea, despotikeri ororen etsai ezaguna. izan zuan Bolibar beraren aurrean jeikitze adorerik aski, buruzagi au Peru'ko diktadore zala, (1823-1827).

Andik urte batzuetara Lima'ko Goigotzai ekin zuan Aulki Doneak kanonigo onuragarri ura (1845).

Karakas'ko Gotzai zan, berriz, Narziso Colt y Prat eliz-artzai sotil otzana, Frantzisko Miranda'ren diktatoretzakoan. Agintaritzar onek erbestera jaurti zuan, eskuak Elizako gauzetan sartzea inñori zillegi ez zitzaiola oi u egiten ziolako. Gero Bolibar'ck Miranda jaurti zuanean itzuli zan Colt y Prat bere artaldera, baiña orduan Españi'ko buruzagiak, Paul Morillo'k, bidali zuan katigu Madrid'era, Amerketako iraultzalariekin ondoegi konpontzen zala-ta Fernando VII'aren gobernuari kontuak ematera, (1816). Madridentan il zan benezuelatarrek ainbat maitatu zuten artzai bikain au, bere biotza, arren, Benezuela'n obiratu zezatela eskatuaz.

1830'ean il zan Simon Bolibar «Liberatzailea». Ordurako, iare ziran askatasunik galtzeko batere arriskurik gabe, Iber-Amerika'ko Laterri gazteak. Ez zan erreza lizak aurrean zekusan bidea. Oztopo-zori galantak zituan, agintarien erregekeria, eliz-barruti bakoitzaren zabaltasun izugarria, zabaltasun aietako jendearen urritasuna eta apaizen falta, —larre zabalegietau ardi gutxi, a artzairik ez--, eta apaiz oietatik asko bear bezalako artzaiak ez izatea, apaiz berriak ezitzeko seminarioak lur-jota egotea...

Baiña aurrera irten zan Lliza, Ez zan erriaren kristautasunik auldu. Bearbada axalekoegia izanen da Amerika aietako kristautasuna, baiña Españi'ko eta Portugal'eko mixiolariek naiz axaleko, kristautasun ori ameriketarrei sendo ta tinko ezarri zietela ukatzerik ez dago. Bete-betean eskertu bear zaie Españi'ri ta Portugal'i lurralde antan egiñik utzi ziguten lan eder galant'ori.



## I X PIO

Erriaren maitasuna zearo galduta il zan XVI Gregorio gizagaixoa: «au comble de l'impopularité» (Aubert).

Italiar abertzaleek, Milan'dik eta Benezi'tik Austri uxatzeko ekintzetan ez sartu nai izatea botatzen zioten aurpegira; Eliz-Laterrietako jendeek, 1x)litika-arazoetarako erabilli zuan era garratza; Ta, Kristaudiko jende «argituak», gizarteko aburuen arloan beti ain integrista agertu izatea.

Illeten ondorean 60 kardenal bildu ziran giltzape-batzarrera; italiarrak, ia danak. Batzarrera zekarkiten kezkarik aundiena, Eliz-Laterrien askatasuna izan zan.

Beti bezala, bi zatitan bereziak zeuden kardenal aiek. Batzuek, politik'era goxoago baten bidez, Eliz-Laterrietako jendearen naimen-ona gura zuten irabazi; Besteei, Eliz-Laterrien askatasunean pentsatzen bait zuten batez ere, ta gogorkeriari ez **hait** zioten muziñik egiten, Laterri aien askatasuna salbatzeko, onen-onena Austri'ren adiskidetasuna billatzea zala, iduritzen zitzairen. Eta, orregaitik, Austri'ko Inperatorearen adiskide aundia zan I\_,ambrusehini nai zuten Aitasantu; XVI Gregorio'ren aitasantutzakoan Estadutzako Idazkari izandako Kardenal uraxe bera, ain zuzen.

Geiago ziran ordea beste taldeko kardenalak-eta, azkenean, Ton Mari Mastai izan zan aukeratua. Pio artu zuan izen: IX Pio.

Guraso aundikien semea, —Markesa zuan ama, kargu garaieko gizona berriz aita—, ez zan Mastai konklabe artako kardenalik liberalena, baiñan bazuan gizon «zabal» eta «irikiaren» aipua. Gotzai zalarik ederki etorri zan beti «argituekin» eta demokrazizaleekin. Ala, poz aundiz artu zuten auek aren garaitza.

Taurketarako oiturik gabeko gizona zan. Egia da, bein Ameriketari izan zala, politika-arazoetarako bidalia, baiña Aitasantuaren Ordezkarieren laguntzaille bezala, len aipatutako Muzi aren laguntzaille bezala; eta, gai oietarako Muzi irakaslerik onena ez zualako, eta saiaketa ura d'ana ezerezean gelditu zalako, ez zuan noski ibillaldi artan ezer askorik ikasi aal izan..., tamalez! Bolibar'ekin itzegitea lortu bala, jaso aal izango **hait** zituan, politikari-buruz, ikuspide berri on egokiak; bere akats eta guzti, borondate oneko gizona zan bâ Bolibar; izkera atsegiñekoa, jendeen biotzak irabazteko berdiñik gabea, eta begi zorrotzeko politikalaria. Baiña Bolibar'en deia Montebideo'ra iristerako,

aldegiñak ziran andik Muxi ta Mastai, aren lagtmztzaillea, bere tokian ikusi dugunez.

Giton ona, eraspenkoia, animen osasunaren maitale zintzoa, Elizaren serbitzari leiala, txiroen lagun biguñia, biotz zabaleko apaiza, arraia, atsegiña... ez zan nolanaikoa, Aitasantu berria.

Izan zituan miresle sutsuak bere aitasantutzaren denbora luzean; baita gaitzesle gotorrak eme. Aientzat, santu berdín gabea izan tan IX Pio; errege bakaldun adimen-estukoa herriz, Neste auentzat.

Ez bina ta ez beste, onbide ederrez ornitua izan genduan, baiki, IX Pio. Izan zituan alare, Elizaren Buru batena] izateko txikiegiak ez diran akatsak.

54 urtekoa zan Kepa l) onaren gi tzak artu zituanean. 32 urte iraun zion Elizaren edesti osoan luzeena izan dan Aitasantutzak. Aztarren sakona utzi zioten Elizari aitasantutza hue ortako ekintzek, II Batikan Kontzilioaraiño iraun duten aztarrenak, eta, ez, noski, guztiro onuragarriak Elizarentzako. Alatagutziz, et du iñortxok ere IX Pio'ren asmo zuzenik eta naimen onik zalantzan ipintzen.

Bere izakeraren akatsik aundiena sentimentsuegia izatea izan zuan, eta hardirudi sentimenkeri orrek eraginda ari izan zala bein haiño geiagotan. Orme-gaitik esan ere dute bere etsaiek, Aitasantu au atliskide-sa itxo eskubitar batzuek errezegei erabilli oi zuten arroxko bat iman zala. Idazkietan eta itzaldietan ipintzen zuan berotasunak irabazi zion, noski, arroxkoegia zalaren susmur ori,

Ibeste akatsa, egindako ikasketatik zetorkion, bere orduango elizgizon erromatar geienarena bezala, amen ikaskuntza ariñegia izan bait zan; sakontasunik gahea, Pic IX'ak, ja torrizkoak zituan zentzu argiarekin ata dotoretasun apaiñarekin estan zuan adimen-ezikera u'en naikotasunarik-eza.

Irugarren akatsa, jaurlaritzarako artu zuan eratik zetorkion; munduaten ibilleraatik arras urruti zeuden laguntzaille integristez bakarrik bere burua inguratu izatetik, alegia.

Baiñan, akats auen gaiñetik, bazan Pio IX'a, zer txalotuaren jabe! Arrigarría da zoritxar gorrienetan beti gorde zuan sendotasuna; eta haita egia zala uste zuanari eusteko, utsunik gabe agertu zigun trehetasuna; izlari v'avo atsegiña ere bazan. 'I'a, naiz erriagandiko losintxen zala, errege izateari ez zion batere eraspenik. Apaiza zan, ez errege, eta erregetza italiarren aurka ain gartsuki begiratu bazuan, aitasantutzaren askatasunaren onerako Erregetza Dune ura iare gordetzea bere eginkizunik garaiena zala uste izan zualako izan zan.

Ain zuzen, bere amets bakarra, Elizaren askatasuna izan hait zan! Ortik zetorkion bere agintaritzakoan nabari zaigun zentralkeria; hildur bait zan, gotzaiak bere eskura sendo lotzen ez ba'zitan, gotzai aiek jaurlari liberalen mendera errezegei makurtuko zirala. Ortik zetorkion baitare liheraltasunari, pake-unerik gabe, erakutsi zion aurpegi beltza: liherltasuna naitanaiez Elizaren askatasunaren aurkakoa izan bear zuala iruditzen zitzaiolako. Eta liberaltasunari zion hildur onek, aski itxutu zuan kultura geiegikoa ez zan gizon bikain ura'

Autokrazian oiñarritu nai izan zuan Elizaren askatasuna. Ipz zuan ikus: edestiaren legetan argian-argiena auxe da!a: Autokrazia eta Flizaren Askatasuna, alkarrekin batean bizi ez daitezkean gauzak dirala.

Ez ordea uste izan, aren aitasantutza emaitzarik gabekoa izan zanik. Egia da, bere entziklika garratz eta autokrazi-zaleen bitartez, gobernu guztiek bere aurka ipiñi zituala, eta autokrazi-itxura orren erruz, iñoiz baiño geiago urrundu tala Elizarengandik kulturaz jantzitako jendea; baiña Pin IX'aren bakar-agintze indartsuaren zituak izan genituan, kristau erriaren barren-bizitzaren zuzperketa; apaiz-jendeen gogo-sasoiaeren sendokuntza; mixioen indartzea; eta, Alemanian, «kulturkampf» zalakoaren ekintza maltzur guztien gaindik, Eliza bizkorrago irten izatea.

Ez tan sekulan mundu zabaleko Eliza Aitasantuari ain estuki lotua egon; eta bere gogoz lotua gaiñera!

Ludiko gotzaidi eta Luit osoak Erroma'runtz ain gustora so-egite orren arrazoiak bi ditugu: bata, nuntzioek eta iñakitarreI. Aulki Donearen aide bazter gutzietan zegiten lana, IX Pio bera baiño askoz autokrazi-zalegoa hait tan garai aietako josulagundia; bestea, Pin IX'ak berak kristau erri xean izan zuan ospe arrigarria. Aitasantu gutxi izan dira ain eraspenki begiratuak eta maitatuak. Agoz-ago zebiltzan aren birtuteak eta doaiak; urrutitasunak neurritz gaindi anpatzen zituan doaiak.

Maitasun ori, butez ere, Pin IX'aren orduTik latzenetan izan tan ikus-garriena, italiarrak tiroka erregetza kendu ziotenean. Santu gurutzeratu baten itxura artu zuan orduan Aitasantuak erri kristauaren begietan eta martiriaren modura izan tan kristau bakoitzaren biotzean maiteki gurtua.

Pozaldi ederrak ere izan zituan Pin IX'ak bere agintaritzakoan: Kanada'n eta Laterri Alkartuetan Katolikotasunak artu zuan indarra; ludiaren bitan eraiki aal izan zituan 208 eliz-barruti berriak; I Ratikandar-Kontzilioaren billera, eta kontzilio arek sinist-egi aldarrikatu zuan Aitasantuen Utsezintasuna; Amabirjiñaren Sortze Orbangabea, Kristaudi osoak uste zuan bezala Sinispidearen egietako ba, tala, munduari aldarrikatzea...

Azkeneko gertakizun onek bereiziki, bete zuan gozotasunaz Aitasantu saminduaren biotz; dogma bat iragartzea aitasantutzaren egiterik garaiena eta oso aitasantu gutxik egin aal izan duten gauza dalako, bai noski; baiña baita Pio IX'ak, Andra Mari'ri zion eraspen maitekorra, orduan ez tiro ase aal izan zualako ere.

Kristaudi osoaren iritzia eskatu zuan leenik, eia pozik jasa zuan gotzaiek, anaidiek, erregeek, kristau xumeek, iKristaudi osoak! alaiki bidali zion baiezko orokorra. Izan ere, aspalditik, —Birjaiotzako aroa ezkerro haitipat--, Eliz osoa gertakizun aren zai hait zegoan.

185-raren Abenduko 5'can egin zuan Pin IX'ak dogma Amabirjiñaren Sortze Orbangabea.

Iru ondorio izan zituan clogma-e,ite onek: Andr t Mari'ganako eraspenaren azitzen; erriak Pio IX'ari zion maitasunaren aunditzea; Aitasantuaren autoritatearen sendotzea.

Aitasandu onek mixioen aide eta liberaltasunaren aurka egin zituan lanak beren tokietan aztertuko ditugu, gero. Ikus dezagun orain, arinki Frantzi'ko gertakizunak aztertu ondorean, bere agintaritzak izan zuan arantzik mingarriena: aitasantuen erregetzaren amaia.

## PARIS'KO «KOMUNA» FRANTZI'KO III ERREPUBLIKA

Napoleon III'aven agintaritzakoan ederki alkartu ziran Frantzi'n Fliza ta Laterria. Bi halera erakartzeko, bieic arerio bat bera izatea baiño deus oberik ez bait da. [Iziendeek eta bonapartetarrek etsai bat bera izaki berriz Frantzi'n orduan! Etsai ori, Errepublika zuten bide.

Alatagutziz, etorri zan ostera azkenean Errepublika Frantzi'ra, Moltke prusiar gudaiburu yayoak Frantzi'ko gudarozte arroa Sedan'en porrokatu zuanean. bertan laga hait zuan TII Napolcon'ck inperiotza, 1870'garren Urteko I1':1Jllaren 2'an.

Trendittu zan Inperatorea' Ez ordea Frantzi' Bi egun geroago, irailaren 'ean, Inperatorea errenditu zala jakin zutenean, Errepublika, «Irugarren Errepublika» , eratu zuten Paris'en Favrc'k eta Gambetta'k. Ez bata ez bestea, ez ziran ci zjncieen adiskideegiak, baiñan bi liberalrzar ezkertiar aiek eta beren adiskideek salbatu zuten frantziar-eliza; oraingoan ete liberal ezker-tiarrek eta clizienc'ck arerio bat bera izateak akkartuarazi hait zirean liberalak elizjendeekin eta auelc aiekin, len baste arerio batek clizjendca bonapartetarrek in alkartu zuan bezala. Orain, arerioa, «Paris'ko Komuna» izan zan; eta Komuna tira ezarri zuten Blanyui'ren jarraille anarkista iraultzalarien taldea.

Ikus nola sortu zan Paris'en «Komunaren Iraultza»;

Aurrera zeramakian 1871'yen asieran gudua III Nrerepublikak prusiarren aurka. Auek ere ordea, Seda'en TTE NapoTeen garatu ondorean, aurrera jo /men sarkalderuntz 'Czanpaña'l: o zelaiak-zar, eta sakon sartu ziran Frantzi ren barrura.

TIT Errepublikaren Taurlaritzak Bertsalles'era iges egin zuan; eta zearo alde guztietatik prusiarrez inguraturik gelditu zan Paris. Ez zituan Moltke'k bere <sup>gudariak</sup> uriauren aurka jaurti; Baiñan alperrikaknak izan bait ziran III F.rrenublikaren eudarozteak uria raizkatzela) egin zituan saiaketa guztiak, il beh..ren 28'e;un crenditu ziran Paris'ko 'ttintari guztiak, eta prusiarren katigu gelditu ziran. Orduan ure ei zituan i11Moltke'k Lire indarrak urira sartu, Lita uriko gaztelu ta hab,sgailluak urtze utsa aski zuala iruditu zitzaion. Arriskugarricgia ikustrn zuan nunbait ur'-barnera Lire indarrak zabaltzea. tit'i aundi t zan b'i Paris ordurako, cta jende arriskugarriz betea gaiñera. Bestalde,

bearrezkoak zituan Molke'k bere indar aiek danak TTT Errepublikaren aurka gudan jarraitzeko.

Gaiñera, Alsazi ta Lorena izan ezik, Prusi'k ez zuan Prantzi'ko beste lurralderik hereganatzeko asmorik; askoz gutxiago Paris'ko Uria ber-bera prusiar biurtzeko guraririk. Ala, ez zuan, ezta're, batere ajolarik ez zitzaion uri aren barruan, kale-arteke borrokan prusiar odolttantto bat ixurtzeko gogorik.

Ondorioz, batere autoritaterik gabe geratu zan Paris. Bere agintariak eta, aginterickin baiera, leu urian zeuden gudarozteko gudariak, prusiarren katigu; 1ertsalles'ko I11 Errepublikaren agintariak, urruti, eta aien eta uriko arresien artean, prusiarren gudaroztea... Orrela: prusiarrez ingurutua, baiña prusiar auek kaleetara urbildu ere egiten ez zirala, autoritatezko utsunik aundiencan aurkitu zan Paris; gose gorriaren mendean, agortu hait ziran ia ango janari guztiak. Goseak, eta au toritaterik gabe..., eta prusiarrengandik Prantzi'k jasotzen zituan jipoiek amorraturik eia lotsaturik..., gorroto-apentza-gosez beterik!

Egoera ortaz, bereiziki autoritatearen falta orretaz, baliatu ziran langille auzoetan aski zabaldurik zeuden blanquitar anarkistek Paris'ko erria iraultzara bultzatzeko.

Paris'en zeuden gudarozte-taldeak, beren agintariekin batera, prusiarren katigutzara menperatu ziranean, ez zan Paris osoro ertzaintzarik gabe gelditu; barruan jarraitu hait zuan «Garde Nationale» edo «Nazio-Ertzaindiak». Ertzaindi ontako ertzainek ordea batere konfiantzarik merezi ez zuten gizasemeak ziran; milizi-mutillak, gudateetan eta arrisku aundiko uneetan Agintariak «garde nationale» ura altxatzea erabakitzen zutenean sariaren truke, eta soilki sari aren billa, urbiltzen ziran langabetuak, eskale erdi-lapurrak, eta mota oroko alprojak eta alperrak, maiz aski.

Ala, blanguitarrek iraultza sutu zuten unean bertan, blanquitarren aide jarri zan ertzaindi ura, bere buruzagiak espetxe-zuloan itxita. Garrantzi aundikoa izan zan «nazio-ertzaincn» jardunkera, aiek iraultzalarien aldera igarotzean, iraultzalarien eskuetara etorri bait ziran beraiek zaintzen zituzten iz guztiak. Eta, egun aiek gudu-aro ziralarik oparo bonbaz, fusillez, kañoiez, eta batez ere ametrailadorez orniturik bait zeuden egun aietan Paris'ko izkillutegiak!

Orrela, iraultzaren luzaera guztian ez zitzairen iraultzalariei izkillu ugaririk geitu. Bereiziki ametrailadorak izan zitzaizkien balio aundikoak: orduan sortu berriak ziran tresnak, eta, borroka artan, ain zuzen, lendabiziko aldiz su-egin zuten ogeitabost fusil-kañoiezko txortaz bakoitza osatutako izkillu bildurgarriak.

Orrela armaturik, errez menderatu zituzten iraultzalariek urian gelditu ziran gudarozteko gudari banakak. Epaillean, garaille ziran Paris'ko Udal edo «Com-mune» guzian, eta, il orren 18'an, aizeetara zabaldurik zegoan udaletzeko leio nagusian ikurrin gorria, denbora aietan anarkisten adigarria.

Aurreneko gauza, III Errepublikaren Lendakari izendatu berria zan Thiers'eri zezaioketen menpetasuna ukatzea egin zuten, eta Laterri iare biurtu Paris'ko Udal edo «Communa», eta Laterri iare artan beren buruak agintaritzan ipiñi, anarkisteez ari galarik agintaritzaz itzegitea zillegi ba'zaigu.

Uraxe izan zan «1871'ko Iraultza»: «Paris'ko Komuna»; gero ainbat aldiz munduan aipatua, Marx'ek «Der Bürgerkrieg in Frankreich» edo «Frantzi'ko Laterkide-arteko-gudua» eta «Kritik des Gothaer Programs», «Gota'ko Egitamuetaz Irizpena» izeneko liburuetan «Proletarien Diktaturtzaren» eredu bezala ipiñi ziguna.

Baiña Komuna ura ez zan marxitarrek asmatutako erakundea izan' Anarkizaleen lana izan zan ura' Blanqui'ren izpiritua ibilli zan an gidari; ez Marx'ena. Blanqui'ren izpiritua, diot, ez Blanqui bera; Blanqui bera, Paris'tik urruti, giltzapean bait zegoan.

Marx'en izpiritua ordea, Blanqui'ren izpiritutik milla leguaz urrun zebillen ordurako, Zergaitik orduan Marx'ek, Paris'ko Komuna blanquitar anarkista, bere Proletaritzaren Diktaturaren eredutzat artu zuan?

Bi arrazoiek artara bultzatuta:

Lenengoa: naitanaiez Paris'ko Komuna aitatu bearrean aurkitu zalako; bestela langilledi guztia anarkismora joango zitzaiolaren bildur bait zan; proletari iraultzalari guztiak Paris'ko Komuna anarkista gurtzen asiak zirala ikusten bait zuan. Proletarien aurrera iraultzalari lez agertzerik ez zuan beñere Marx'ek izango, orduan Paris'ko Komunaren alde mintzatu ez balitz.

Bigarrena: «Proletarien Diktaturtzaz» zer esan sekulan jakin ez zualako. Ala, ederki etorri zitzaion Paris'ko Komuna bere komunist-teoriaren eraketan utsune ura betetzeko. Proletarien Diktaturtza zer izango dan? Paris'ko Komuna izango da Proletarien Diktaturtza!»! Eta, orri labur urri batzuetan Paris'ko Komuna nolakoa izan zan agertzen asi zitzaigun. Baiñan orduan ere idealizatu egin zuan Marx'ek Paris'ko Komuna: ametsezko oial ederrez jantzi eta ametsezko liii politez ornitu. Ez dut uste iñork esan zionik Paris'ko Komuna ez zala, berak margozten diguna bezalakoa izan. Baiñan norbaitek ori esan ba'lio, badakit arek zer erantzungo zion, —arroa bait zan zearo—: «Paris'ko Komuna ez zala nik diodana bezalakoa izan? Orregaitik izan zan ezereztua; nik esan bezalakoa izan ez zalako. Nik esaten dudana bezalakoa izan ba'litz, bera izango zan etsai guztiak garaituko zitua».

Proletarien Diktaturtzaren ondorean etortzekoa dan «Komunismoa» nolakoa izan bear duan jakinarazteko, ez zuan Marx'ek bere denboran eredu bat bakarrik aurkitu aal izan' Orregaitik, ez du Proletarien Diktaturtzaren ondorengo Komunismoaz ezer iñun esaten. Orregaitik, beterik gabe utzi zuan utsune ori bene kumunist-teoriaren eraketan, naiz punttu ori bere teori osoaren puntturik garrantzitsuena izan. Ori da Marx'en utsunik ikaragarriena. Utsune orrek urratzen du, eta ankaiz gora botatzen du, Marx'en teori guzia.

Gainera Marx'ek, Paris'ko Komuna goraiatzean, eta Komuna ura bere teori osoaren barnean Proletarien Diktaturtzaren eredutzat ipintzean, 10^<sup>11</sup>.aren aurka izugarriko oben astun bat egiten zuan. Komuna ura ez zan Marx'ek aldarrikatzen zuan iraultza; ez zun «gizarte-piramida azpikoaz gora irauli zalako», gizarteko klaseen edo mailen arteko borrokatik sortua; em zan ekonomia-legeen araura ekonomia-eraren aldetik jaio t. Iraultza militarra izan zan ura, autoritate-faltaz baliaturik blanquitarrek. «Garde Nationaleko» ertzain biurriak erabilliaz, tiroka sortarazia.

Ori dalata, ez dut uste Marx'ek bere-baitan Paris'ko Komuna geiegi maite izan zuanik. Oroi bere alaba gazteenari ez ziola komunista aietako batekin ezkontzen utzi.

Esan dezadan gainera, Paris'ko Komunaren berri jaso zuanean, iraultza-aren aurka irten zala Marx aurreneko denboretan.

Oroitu bearra dut, baita're, Marx anarkizalea izan zala eta bere komunismoa anarki utsean amaitzen dala, anarki utsa bait da Proletarien Diktaturaren atzetik etortzekoa dan Giz. lre Komunista. «Zergaitik irten zan, leduhizi, Paris'ko iraultzalari anarkista aien aurka? Bekaizkeriz agian. Anarkista aiek em hait ziran marxitar-ak\_ . blanquitarrak baizik. Bekaizkeria, norberekoi-keriaren ondorioa da. IV Marx'ek berriz luzea ta mardula izaki berekoi-keriaren adarra!

Txukuna ta dotorea aurkezten zigun Marx'ek Paris'ko Komuna, aren alde itzegitera jarri zanean, baiña Paris'ko honu utl: ez znan txukuntasunik eta dotoretasunik izan. Km zuan kixazko buruzagirik eru. izan. Blanqui falta izan zitzaizen Paris'ko komunistei. Orregaitik, agian, egin zituzten, egin zituzten okerkeriak. Ez ordea 111 Errepublikako gud. u;iek Komuna zapalzerakoan eginen zituzten bezain ugariak eta aundiak.

Danadala gogor ibilli ziran komunistak ere Paris doakabe artan. Aberatsen etxeak lapurtuak izan ziran; uriko jauregi eta jauretzerik ederrenak, (Louvre, Tuillieriak, Udaletxea, Notre Dame, Frregeen Jauregia"), sutan jarriak, eta doi-doi iritxi ziran Errepublikaren gudariak edertasun aiek ondamen osotik gaizkatzera; jende asko izan min erailla; apaizen artean Paris'ko Goigotzaia, Darboy, aski-aski galikeri-zale izana. G:zoni eta kristauki il zan, orain, besoa jasota bere fusillatzaileak bedekatuaz. «C'est cause de notre caractère religieux qu'on va nous inoler; notre mort est donc un martyre», esan zion aurretik, berekin jausi zan apaiz bati. «Apaiz generalako iltzen gaituzte; egiazko odol-aitortza da beraz gure er:otza». Atzipeturik zegoan. Gero ikusiko dugun bezala, e-r. zuten orregaitik iltzen. Baiña martiriaren modura il zan bera.

Erroma'ra eramana da, aspalditik, Darboy'ren donetasun-auzia, baiña bere ta bere lagunaren eriotzaren ziñopatasunari-buruzko beste auzi au, ez da berak uste bezain epait'erreza'

Beste arazo guztietan bezala, zentzurik gabe jokatu zuan «Komunak» er-



lijioaren arloan. Jauretxe asko lapurtuak izan ziran, baiña beste batzuetan iare jarraitu zuan elizkizun guztien ospaketak' Notre Dame'n eragozpenik gabe egin ziran garizumako itzaldi danak. Baiña era berean, ezkertiarren batzokietan, eta karriketan, lotsarik gabe egiten zan oi, Konbentzioakoan lez, kristautasunaren aurka. Jorraiaren 29'an, Carrusel Enparantzian, 10'000 masoi bildu ziran, bakoitzak gerrikoan zeramakian danborra joaz, Komunlarien goratarrea egiteko, eta, auei Elizaren ezereztea eskatzeko, Voltaire'ren «Txunditu ezazute urdanga!» «érasez l'infâme» karraixika oiukatuz.

Masoiak ori zegiten artean ordea, —oroi Frantzi'ko masoiak Masoitzaren adar biurrikoak zirala—, txintzarria joaz eraman oi zizkieten apaizek gaixoei azkeneko sakramentuak, eta Gure Jauna igarotzean apalki belaunikatzen ziran lurrean jendeak'

Komunak Epailaren 18'tik Loreillaren 28'raiño iraun zuan, eta azkeneko egunetan izan zan batez ere gogorra komunisten jarduera; ots, Thiers'ek prusiarrekin pakeak egin ondorean Errepublikaren gudarozteari Komuna eta anarkismua bein betirako deusezteko agindu ziola, Paris'en jakin zanean.

Baiñan orduan ere ez zan aien gogortasuna ankerkeri utsak sortua izan; beren eta beretarren bizia zalbatzeko zerbait egin naiak eraman zituan artara, bazekiten bâ, Errepublikaren gudariek arrapatzen zituzten komunista guztiak bereala fusillatuak izaten zirala.

Kinka artan, Jaurlaritzak fusillatzen zuan komunista bakoitzaren truke iru eskubitar izango zirala Paris'en fusillatuak, jakiñarazi zion komunak Thiers Lendakariari; eta zemai ori betetzeko gerturik zegoala adieraztearren, eskubitarrak espetxeraten asi zan' Altagutziz, ez pentsa espetxeratu aiek ainbeste izan ziranik: 120, eun da ogei, guztiak; eta 120 aietatik, 54, berrogei ta amalau, fusillatuak; Komunak ez bait zuan, zorionez, komunista fusillatu bakoitzaren truke iru eskubitar fusillatuko zitalako itz ura bete.

Eta ona, orain, galdea: 54 fusillatu aiek zer dira? Egiazko ziñopak? edo alde bateko eta besteko jokaera okerraren politikak eraildako gizaseme zorigabeak? Gz ziran beintzat kristautasunarenganako gorrotoak eraginda apaiz ziralako eriotzara galduak izan. Apaizen aldean gaiñera, askoz geiago izan ziran apaiz ez ziranak, fusillatuen artean: aristokrazikumeak, militarrek, burgestarrak, politikalaria...

Altagutziz, azaldu zan orduan ere kaleetara apaizen aurka deadarka Paris'ko jendez osatutako multzo galantarik. Ez dezagun ordea ain errez jende lander aren bizkarrera gaitzespenik jaurti. Entzun zer idatzi zuan Paris'ko Nuntzio izandako Kardenal ospetsu batek: «Eliza, politikagintzarako tresna, aristokraziaren izkillu, erregezale eskubitarren kabi besterik ez zala, eta orixe bakar-bakarrik zala uste izan zuan erriko jende gaixo arek. Agertu ere, ala agertzen bait zan Eliza erriko jende landerraren begien aurrean» (Ferrata).

Ona berriz edestilari zugur baten iritzia: «Deux erreurs se payaient: l'aeoord trop étroit entre l'Empire et le elergé et l'indifférence de la majori-

té des eatholiques au douloureux problème soeial» (Paul Favre). «Bi erru ordaintzen zituan Elizak larrutik: Inperioaren eta apaizdiaren arteko geiegizko adiskide<sub>t</sub>asuna, eta , gizarte-arazoetarako, katoliko geienen azolagabekeria». Era berean mintzatzen zaigu Daniel-Rops ere.

Ala hait dute anarkistak oitura, gogor aritu ziran borrokan Paris'ko aiek ere. Mae Mahon zan III Errepublikaren gudagizonik ospetsuena eta trebee-na. Bâ..., gaizki ikusi zuan Mae Mahon'ek bere buron 150.000'eko gudarozte indartsu batekin jorraillaren 3'an komunistei Bertsalles'ko bidea eragozteko. Orduan Frantzi'ren uri-buru zan Bertsalles ura arrapatzea erabaki hait zuan Paris'ko Komunak!

Eta Bertsailles'ko bidean bezain hipil dantzatu zituzten komunistak izki-lluak Paris bertako karriketan ere. Zortzi egun bear izan zituan loreillaren azkenean Frantzi'ko gudarozteak Galiffet gndalhuruaren esanera Paris'ko Ko-muna menderatzeko.

Eta orduan..., «les forees de l'ordre» edo «zuzentasunaren ezarleek» egin-dako sarraskia , alderakuntzarik gabe, komunistek egindakoa baiño askoz aundi-agoa izan zan, emakumeei eta umeei ere ez bait zitzaien bizirik barkatu.

III Errepublikaren guda-mutil aien jokaera gogorra ulertzeko, oroi deza-Gun, Komunaren aurkako borrokan prusiarren aurkako guduan baiño lagon il geiago izan zutelako, eroak bezala sartu zirala Paris'en . Baiña era berdiñean aurkitzen ziran komunistak. Len ere esan dugu, azkeneko astean, borroka karriketan ari zanean, izan zirala egiñak aien okerkeririk geienak: beren au-zoak kañoi en erasopean zeuzkatenean. Orduan, gudari «zuzentasun-ezarleen» jarduera ankerra ikusi zutenean , erotu egin hait ziran amorruez. Emakumeek ere karriketara jetxi ziran, izkilluak eskuetan, Jaurlaritzaren gudarien aurka borroka-egille. Darbov Paris'ko Goigotzaia bera aste artan izan zan fusillatua.

Badira Thiers Lendakariak Paris astiro artzeko, asmo izkutu baten eragi-ñaz agindu zuala diotenak. Komunistak amorrarazi nai omen zituan: oker-kerira bultzatu; gero aiek errukirik gabe zearo ezereztu aal izateko, arrazoi baten huila omen zebillen! Leen ere, orrelako zerbait jaurti omen zion bâ he-larrira Koldobika Felipe Erregeari 1848'ko iraultzakoan.

Oiek ba'ziran Thiers'en asmoak, eta asmo oien bitartez Frantzi'n liberal-tasuna bizkortu ta sendotu nai bazuan, asmo-zuanik ez zuala lortu , esan bea-rrean aurkitzen gera; Paris'en gertatutakoak ikaratuta eskubira joan hait zi-tzaion Frantzi osoan jendea.

Beti gertatu oi dana gertatu zan orduan ere. Komunismoa marxitarra biur-tu zitzaigun arte, Paris'koa bezalako istripuetan eskuhitarrek egin oi dituz-ten gaiztakeriak ezkertiarrenak baiño aundiagoak izaten dira. Baiña eskubita-rranak «ordena», «erri-barruko pakea», aitzakitizat artuta egiñak izaten dira-lako, ez ditu iñork kontuan artzen; ezkertiarrenak bakarrik ikusten ditu jen-deak, eta izaturik , eskubiko artzera jotzen du babes ziurraren billa.

Orrela Paris'en ere' Komunista anarkizale aien Itxerkeriak jakitean, ikaraturik, urte artan bertan, auteskundeetan, eskubitarrei eman zion erriak Jaur-larritza. Ala, arras eskubitarra izan zan 1871'an autatutako «Assemblée Nationale» edo «Nazio-Legebatzarra». Galtzaillerik aundiena, auteskunde aietan, Thiers bera' Lendakaritza utzi bearrean aurkitu hait zan! Liberalegia zan bâ Thiers, ots, ezkertiegia, «Assemblée» artako diputaduentzat!

Lendakaritzatik jaurti aurretik, ori bai, onezagutu zizkioten diputadu aiek zaldunki, prusiarren aurkako gudian eta Paris'ko komunisten aurkako borrokan irabazi zituan merezimenduak... naiz, gure ustez, prusiarrengandik lortu zuan pakea, aski pake lotsagarria izan.

Thiers'en ordez, Mae Mahon izan zan Lendakari *izendatua*.

«Dukeen Errepublika» esan ni zain III Errepublikaren aurreneko aldi oneri, jaurketa, gobernu, aristokraten eta gudarozteko aundikien eskuetan egon zalako. Eta, baita, Legebatzarrean di putadurik geienak erregezaleak ziralako, «Errepublikazalerik gabeko Errepublika» ere: «La République sans Républicains» esan zitzaion.

«Dukeen Errepublika» aren lenen-lenengo leia, Frantzi-barruan «l'ordre», «erriko-pakea» eskierki zaintzea ta gordetzea izan zan. Ortik jendeak ipiñi zion izengoitia: «Le Gouvernement de l'Ordre Morale»: «Barren-Pake Zintzoaren Jaurlaritza».

Esan bearrik ez da, orrelako gizonekin errez etorri zala batera Frantzi'ko gotzaidia. Egia esateko, 1789'ko Iraultza Nagusiaz gero, ez zuan Frantzi'n Elizak artaraiñoko itzal omentsurik iñoiz izan; batez ere, 1875'eane Dupanloup Orleans'ko Gotzai ospetsuak Elizarentzat Unibersitateak iriki aal izateko almena lortu zuan ezker. Berealaxe iriki ziran unibersitate aiek.

Bazuan Elizak, bere apaizgaientzat bereiziki, ikastola Nagusi aien bearra Frantzi-n! Oso motza zuan bâ seminarioetako irakaskintza. «Bertan irakasten zan teologia doi-doi bait zan, latinez idatzia izateaz landa, igande-parroki-ikas-toletako katekesia baiño zerbait geiago» (Laffon).

Seminario aien ardura guztia, apaizgaiei otoizketa, garbitasuna, eta gaiñerako kristau-onbideak erakusten ipiñia egon oi zan. Alakoak genituan apaizgaitegi aietatik ateratako apaizak ere: gizon onak, bete-betean onak, baiñan gizadiaren kezka berriei erantzuteko balio ez zutenak; prestatuak ere, artarako ez baiña, soilki kristau apalen izpirituzko barren-bizitza zuzenduaz mundutik urruti bizitzeko bait zeuden prestatuak!

\* \* \*

Eta, hein bitartean Elizatik urrundu eta urrundu ari zan jendea urietan, errietan, baserrietan eta bereiziki, ota, ikastetxe ta unibersitateetan.

Nekazarien artean gero ta geiago, bataio-ezkuntza-eta-illeta-utsezko kristautasuna ari zaigu zabaltzen, Paris'en inguruko probintzietan eta egoaldeko

Probentza'en batez ere. Mendea amaitz\_an Frantzi'ren zati aundi bat ez da kristaua izango, Arrazoi osoarck:n olcs egin aal izango du Calipe apaizak, —urte batzuk lenago Naudet'ek usina b:re-egñaz— «Frantzi mimo-lur biurzen» uri dalaz; «La Francee devient un pays de mission».

Bizimodu guzia doakigu Frantzian aldatzen, Urictan, olak aurkitzen eta ugaritzen ari dira. ]Mendearen erdiaz gero aski ugaria eta bcnctan garrantzitsua da Frantzi'n proletaritzaz. Baina prolet,ritza orrek, Elizatik at bait da sortua, Elizatik at jarrailn eru egingo du; era Elizatik at indartuko da. Oke-rragoa dana: Elizaren aurka'

Eskolatuen artean, illa da as palditik, naiz sentimenu-ario, aski erlijio-zale izan zitzaigun 1:romant.kcra. Artu crdez, Positibitza da orain adimen «argituen» munduan errege, ots, matematikaren ]emeen bitartez neurtu eta mugain cz daitekean orori «egi» izena ukatu bear zaiola erakusten duan oldozkera, pentsaera,

Gizakume «Jakintsu» arien artean urduri zebillen, Komunakoan Paris'en danborra-joka ikusi dugun ina oitzarck adar hiurri t. l a bitartcan... ^Llizak zen? lkusten zuan Elizak zamia. z.gian ordea maori ura sendatzeko? Ezer ez beri-rik. Leengo karitate-ekintzak-eta..., leengo erri-mixioah-eta..., leengo era zarrak, Napoleon I jausiz gero Birrezarkctakoan erabilli zituan era aiek beral. bir-erabilli. Gauza bat bakarraz egin zuan berria: Paris'ko «Sacré Coeur» edo Biotz Donearen ]auretca; orain, lasaitasun-aroan, Komunaren denborako estatusunetan egindako boto edo eskc.ntza bat hetctzeko, eraikia.

Ortaz gainera, Frantzi'ko ]liza cz zan deus berririk asmâtzeko gai izan. Izan eru, eru berriak bat-batera sortaraztea, ez. hait da gauza erreza. Ori modu egokian ikusteko etorri gaitezen etorri gure egunotara.

Oraintxe bertan, 1978'an udaletako cia sindikatuetakoa auteskundeetan langilleck ez dute Españi'n konliantzakoa izan daitekean pentsaera krstauezko Alderdirik, cita sindikatorik ere. I;ta, izen dagi Elizak Españi'n? Elizak ez duala alderdi ta sindikato;gintian asi bear? I:z, noski, apaizek cta gotzaiek. Baiñan, Llizako ez-apaizek? ;. Ez al da ain zuzen, ori, beraien cginkizunetik garrantzitsucnetako bat? Eta, Elizako Ierarkiak ez al du eginkizun ori kristauci gogoraazteko bearrizunik? h,lizarck gizarte-dotrifia aurrera eramateko Alderdi ta sindikato egokiak falta dira' Fm diot «Alderdi ta sindikato kristauak»; Alderdi ta sindikato «ego k iak» baizik.

Orregaitik, langille-modura jokatzckotan Alderdi cia sindikato marxitarretara, —edo erdi-marxitarretara—, bultzatuak bezala aurkitzen dira langilleak Ispañi'n. Ldozein oartu diteke egoera orren arriskuaz. Zer dagi ordea Españi'ko Elizak? [ta Españi'tik landa ere, mer dagi\_gu guk emen, Euskalerrian, sindikatoen arloan?

Frantzi'n gainera, Gotzaiak etu katoliko garrantzitsu danak bakalduntzarren alde zeuden oraindik garai antan. Alperrikakoa izan zan Dupanloup ctu Montalembert, erkalaganako zeietasun pixka bat aien gogetan erein naian,

goxOk ari izatea. Gotziak, eta katolikcak, erregearen alde gertututako kolpeak ondo-ikusi zituzten, eta ez ziran gutxi izan «Dukeen Errepublikakoan» usmo orrekin presta tu tako kolpeak.

Zentzurik gabeko jokaera zan ori, Frantzi'a egiaz mixio luz ba'zan, «Dukeen Errepublika» arek asko irauterik ez zuala izango, agirian zegoan gauza hait zan. Ala gertatu ere gertatu zan: 1877'an, ezkertiarak Jaurlaritzaren jabe ziran ostera, eta, «krrepublikil:azalerik gabeko Errepublikari» lepo eginda, «Errepublikazaleen Errepublika» sortu zuten: 1914'ean Lenen-Ludi-Guda asi arte. Elizaren aurka ibilliko zana.

«Errepublikazale» aientzat Elizjendea zan lenen-lenengo arerioa: agerian, edo azpilanean beti erregearen aide ari izan zan elizjende ikusmen motzeko ura. Eta gotzai-ta-apaiz-jendea ez ezc, arerio zan 1877'ko errerepublikazale aientzat kristautsuna bera ere; batzuentzat, kristautasuna eta erkala alkarrekin konpongariak ez zirala uste zutelako, eta beste hazuentzat, bete-betean positi bistak ziralarik, erlijio oro ameskeri uts epaitzen zutelako. Bear-bearrezkoa etsitzen ziaten beraz elizjendearen aala ezereztea.

Orrela eman zioten sortzea edestiak ezagutu duan «antikleriketarik» gogorrenari' «Le clericalisme; voila l'ennemi» oiu zegoan Gambetta'k, eta ori esatean, berak dioskunez, ez omen zuan «Frantzi'ko erriaren sentipena azaldu besterik egiten». Eta ez zebillen noski, garai artako apaizek uste bezain oker.

1877'an asita, 1914'araiño, batzuek zakarki eta besteek era goxoagoan, Frantzi'ko jaurlaritza guztiak ari izan zitzaizkigun buru-belarri eta atsedenek artu gabe elizjendearen aala birrintzeko lanketa ortan gartsuki. Ekintza ortan ordea beren buruak geien nabaritu zituzten jaurleek, auker izan genituan: Ferry, Waldek-Rousseau, Combes, et, Cle:nenceau «*le l'igre*», «Katamotza».

Aurrenekoa, Ferry, dugu, Frantzi'n irakasketa guzia laiku biurtu zigun gizona. 1880'a>: i,ero, sei urteren epean galdu zituan Elizak bere ikastola ta ikastetxe guztiak; eta Laterriarenetan ere ez da arrezkero erlijiorik erakutsiko.

Aurreneko sei urte aietan, egin ziran apaizen eta jauretxean aurka zakarkeriren batzuk an edo emen; ez ordea, eskubitarrak oiukatzen asi ziran bezala «persecution» itza erabilli aal izateko aiña. Praille batzuk, asuntziotarrak ain zuzen, izan genituan beren izparringi en bidez oiuketa ortan geien nabarmendu ziranak, baitipat ain ezaguna egin bearra zan eta oraindik ere bizi dan «La Croix» edo «Gurutzea» derizan eguaerok a 1882'an surin zutenez gero.

Waldek-Rousseau izan genduan erlijiosoen kopurua moztutzen asi zitzaiguna. Asuntziotarrek jaso zuten aurrerik aren zigorra. Ez da arritzekoa, Asuntziotar auker, errepublikaren aurka ela erregetzaren alde, beti ibilli bait zitzaizkigun oso-osoan sarturik.

Combes'ek eraman zuan aurrera praillejendearen aurkako gudu ori. Bere eragiñaren ondorioz, 1903'garren urtea iritxi zanerako, haziran 30.000, ordu-rako, barreiatuak izandako erlijiosoak.

Urrengo urtean, 1904'ean, «Ikastola Kristauekako Anaiei» jausi zitzairen eraso.

Ez zan ordea Combes bere aurrekoen jarraille uts bakarrik, Frantzi'ko antikleritarrik biurriena baizik; «malveillante»: «naimen okerrekoa» (Aubert). Orregaitik, merezi luke atal bereizi bat sinismenik gabeko gizaseme onek antiklerikeriaren edestian, bere izenez «bataiatu» ere bait zan III Errepublikaren garai minkatz ura. «Le Combisme».

Garai artakoa dugu ain zuzen, Eliza ta Errepublikaren artean adiskidetasuna sortarazteko XIII Leon'ek asmatu zigun «Le Ralliement» ura. Ez da beraz arritzekoa Frantzi'ko katolikoek, giro zipotz artan, Aitasantuaren saiaketa arri muzin egin izatea. Alatagutziz, zuzen zebillen Leon XIII'a, ikusten bait zuan antikleriketa gogor artan, erru guztia ez zala antiklerizaleena; katolikoek ere bazutela, ibilli ziran bezala ibilli ziralako, erru aren puska galanta.

1880'ean Lavigerie Kardenal baionatarra izan zan «le ralliement a la République» Aitasantuaren aolkuz asi zuana. Alperrik. Bi urte geroago, 1892'an, idatzi zuan Aitasantuak «I rrepublikarengana alderatze» arri ats emateko, «Au Milieu des Sollicitudes» entziklika. Alperrik. Frantzi'ko Eliz astuna ez zan Aitasantuaren asmorik ulertzeko ere gai izan'

Bitartean, Laterriaren eta Elizaren bereizketa dugu Combes'en egin-kizunik ezagutuena, Aitasantuaren asmoak zapalduaz katolikoek Errepublikari ain begi okerreaz begiratzen ba'zioten, naitanaiez begiratu hear zioten begi okerren errepublikazaleek ere Frantzi'ko Elizari.

Aundiak izan bait ziran ordea bereizketa aren ondorioak, ikus dezagun atalez-atal nola izan zan burutua:

1904: Pio X'a zan Aitasantu, eta Erroma'ra deitu zituan Frantzi'ko gotzai bi; Dijon'go Le Nordez eta Lavai'ko Geay. Egia da hi gotzai aiek aski errepublikazale ala-olakoak zirala, baiña egia da baitare neurasteni-gaitzak jota, buruz naasi-samarrak zeudela eta beren elizbarrutietako jendeekin iskamilletan sartuta ibilli oi zirala. Bein Erroma'n, apalki makurtu ziran biak Aitasantuaren esanera.

«Au duk nere», esan-<sup>P</sup>ide zuan, Laterria Elizarengandik nola bereizi asmatu naiean zebillen Combes'ek. Eta laister ikusi zuan nola. Ikus zuk ere:

—Frantzi'n, lege zan Pio A<sup>2</sup>J<sup>1</sup>'ak eta Napolcon'ek izenpetu zuten Konkordatoa;

—Konkordato ark, ematen zion Frantzi'ko Jaurlaritzari, Aitasanturekingo auzietarako, «Placet» zeritzan eskubide ura.

--X Pio'k, oraingoan. Frantzi'ko Jaurlaritzari deus esan gabe dei egin zien hi gotzai aiei, eta Jaurlaritzari deus esan gabe joan ziran bi gotzai aiek eia Erroma'ra.

—Ori, «placet» izeneko eskubidearen aurka zijoala oiur egin zuan Combes'ek; eta ori egitean «Aitasantuak ausi zituala Aulki Donearen eta Frantzi'ko Errepublikaren arteko adiskidetasunak».

—Paris'tik bidalia izan zan Nuntzioa eta Paris'era deitua Frantzi'k Aulki Donearen alboan zeukan Ordezkaría'

—Jaurlaritzaren aldaketa bat izan zan orduan Frantzi'n. Baiña dana gerturik utzi zuan jausi haiño len, Combes zitalak, ain gogoko zuan Bereizketa aurrera irten zedin.

—1905. Rouvier da Jaurlaritza berrian buru; ez Combes bezain antikle-ritarra. Ta, bere izena zikindu nai ezik-edo, Legebatzarreko diputaduei utzi zien bereizketaren auzia. Diputadu aiek danak ordea ezkertiar zimurrak ziran-da, laister egin zuten lege Elizaren eta Laterriaren arteko hereizketa.

Diputadu aien eztabaidetan egin zuan ezaugarri bere izena, auzi zikin ontan esku-sartu zuten gizonetatik bikaiñenak. Sozialista zan gizon au, ezkertiarra, izparringilari ospetsua, epai-geletan anarkista eta iraultzalari guztiak babesten zituan abogadua; Aristides Briand, (1862-1932)' Bereizketaren legea al zan xamurrena egiten, ibai orixe! , bere kemen guztiakin saiatu zan Batzar arren altzoan, bera hait zan, auzi ura aurrera eramateko, diputaduek eratu zuten buruzagia'

«Une loi franche, loyale, honnête», «lege tolesgabe, leial, zintzo bab» gura zuala, zion Legebatzarrean Briand'ek, eta ez «Elizaren aurka zuzendutako pistol bab»: «un pistolet braqué eontre l'Église». Ipar Amerika zeukan dirudianez, bere buruan, eredutzat. Aurka irten zitzaizkion zakarkeri garratzean katolikoak eta liberalak. «Socialiste papalin» deitu zion Batzar Nagusian amurruz Clemeneau'k: «Sozialista aitasantu-zulo».

—Aitasantuekin ere itzegin nai izan zuan Briand'ek, bereizketa ura nola egokienik antolatu jakiteko' Alperrik ordea' Aurka bait zuan Pio X'a'

—Ez zuan ain aurka izan Frantzi'ko gotzaidia bera; errege haten etorreran pentsatzen jarraitzea ameskeri utsa besterik ez zala, oartzen asiak hait ziran, —noizbait—, Frantzi'n gotzaiak. Gotzai auen artean bat zan bereiziki Briand'en aolkulari: lendik adiskide zuan Fuzet, Rouan'go Goitzaia. Gotzai onekin batera, arras egoki jardun zuan Méjean protestalarien ordezkariak ere, eta bi gizon bikain auen laguntzarekin, goratu aal izan zuan zerbaít Aristides Briand sozialistak Bereizketaren lege zipotza'

—Alatagutziz, azkenean, bere burua erkalzaletzat zeukan Jaurlaritza batek askatasunaren izenean egindako despotikeri zakar bat besterik ez zan lege anker eta lapurra, irten zan Bereizketaren lege doakabe ura' Ikus:

—Zuan guztia galtzen zuan Elizak lege aren bidez, eta Laterria egiten zan ondasun aien jabe.

—Laterri «liberal», «biotz-biguin», «eraspentsu» ark ordea, «gratuite-ment», «doan», kristauek erri bakoitzean aukeratutako «Gurketa-Bazkun»

—Ez eserutan ipinizcn ;uan jaurtxe.n erabilkcta: «L.es édifices de culte seront confiés gratuitement i des Associations Cultuelles élues par les fidèles».

—Saiatu zan Briand «Assoeiations Cultuelles» aietako bazkideen aukeraketan Elizari al zan eskurik lu/cella eman naiean; ikusten zuan hri Alkarte aiek Llizarentzat, eta baita Jaurlaritzarentzat ere, iskamil-iturri izan zitezkeala, Alkarte aietara gizon zalaparta-z.alerik sartzen ba'zan, hz zitzaion arrazoirik peitzen; gertatu ere ala gertatu bait zan mai/ aski.

—Protestalarietk eta judutarrek, —aientzat ere herdiña bait tan legea—, bcrealaxe eman zioten baiezkena In ur/aritta i.

—Baiezkoa eman zioten azkenean gotzai katolikoek ere; erregetza Frantzi'n izamcnik edo izateko posibilit\_,terik gabeko gauza tala ikusten zutelako, alde bateti; eta, besterik, XIII Leon'ek «ralliement» izeneko politika-eraren bitartez, liberalekin izketan asteko aski gertutu zitualako . «Zerbait ezer-cz baiño geiago» zala-ta, Briand'ekin alkarrizketan astearen aldeko ziran Akademi'ko idazle katoliko ospetsuak ere. Begirune aundiz entzuten zuten gotzaietk akademilari auen aolkua arazo larrietan. Oridalata esaten zien erriak «les cardinaux verts» akademilari aiei, orleg:a da hâ Frantzi'ko akademikideen jantzia.

—Lihemalekin izketan aste ororen aurka jeiki ziran gotor, len «Ralliement» aren aurka egondako eskuhitar guztiak; batez ere, Aetion Française'ko aiek. Iñoiz haiño eroago, «la politique du pire» jarraitzea eskatzen zioten orain ere Frantzi'ko kristaudiari. «La politique du pire»: «Gauzak okarragotzca», «gauzak al zan gutzia okerrago ipintzen saiatzea! ».

Oroi, ori izan zala Iraultza Nagusiaren asieran Mari Luise erregeiñaren jardunbidea, Frantzi ondamenra iristen zancan Europa'ko errege danak . Frantzi'n hakaldnntza salbatzeko, here eta XVI Koldobika here senarraren aide etorriko ziralaren ustean. Orixe bera itxaro ote zuten eskubitar odol-zaleek? Zenbat eta egoera okerragora Frantzi'ko Eliza am;ldu, orduan da azkarrago lagunduko zietela mundu guztiko katolikoek errepublika hirrinduta errege bat eza.rriaz Frantzi'ko Flita salbatzen? Naiz ortaraiño iristen et , «politique du pire»n ondorioz, Jaurlaritzak lo , satuta azkenean amore emango zuala uste zuten.

—Eskubitar aien alde jarri tan X Pio Aitasantua etc. Lz dugu zertaz arritu. Giton ona tan benetan X San Pio, baiña politikagintzarako ez zuan begi zorrotzik izan. Gaiñera, —oldozkeraz oso eskuhitarra izaki-ta—, Paris'tik Action Française'ko integristek eta gaiñerako eskuhitarrek bidaltzen zizkioten txostenei arrera goxoezia egiten tien. Ortaz gaiñera, Frantzi'tik jaurtiak izandako Erljioso-Anaidien Zuzendariak [t ronrt'n bizi bait ziran orain, «n'ayant rien à perdre», «arrezkero zer geiago galdurik et zutelako» (Daniel Rops), liberalei amorerik ezertan ez emateko, helarrira eten gabe maxiatzcn ari ziztaizkion.

—Egia da, «Assoeiations Cultuelles» aiek ez zerala gotzaien gustokoak izan- egia bait da, era berean, gotzaien almena asko moztutzen zutela. Baiñan, txarkeri arek, izan zezakean senda-bide bat. Ez tan zarra, Elizaren edestian,



Iparramerika'ko «Trustee» aien o'Toitza. Eta, a ontzat, aurkitu bait zan irten-bide egokia, aurkitu zitekean irtuera ori bera, Frantzi'ko Associations Culturelles aucntzat etc. 'Fa, ala gertatu une gertatu zitzaigun.

—Besançon'go Gotzaia, Fulbert-Petit, izan zan irteera orren billatzaillea, berak asmatutako «Associations Canonique-Légales» batzuen bitartez: «Alkarte» auek Iliz-Legearen altzoan bizi hait zitezkean, aide batetik; eta bes-tetik, jaurlaritzak agindutakoaren aurka ez hait zeuden eramai:.

Briand'en aldetik ez zan batere eragozpenik izango, beri hait zan gainera orain Jaurlaritzan P.rlijio-Auzietarako Ministro.

—f.i-roma'n *cre*, kardenal askoren artean, txit ondo artuak izan ziran Alkarte berri auek; eta Rampolla berak, Besançon'go Gotzaiaren asmakizuna ontzat artu bearra zala, oles egin zuan Aulki Donean bertan.

—Bazirudian beraz askatua genduala Frantzi'ko korapilloa. Eta orrela *izanen zan XIII* Leon bizirik egon ba'litz. Baiña X Pio ez zan Leon XIII'a, eta X Pio'k ezetz erantzun zuan. Aurrena, 1906'eko o:s.illaren 1] 'ean Laterriata-Flizai-en Bereizketa gaitzestera zetorren «Vehementer Nos» entziklikaren bitartez, eta, gero, dagonillaren 6'can, «Gravissimo Officii» entziklikaren bidez.

Azkeneko ontan, Alkarte edo Associations danak gaitzesten zituan: Jaur-laritzaren, «Associations Culturelles» aiek, eta Besançon'go Gotzaiak asmatu-tako «Associations Canonique-Legales» auek. Danak.

—Dotrii ari dagokionez, azkeneko entziklika ontan, Aitasantuak eta Go-tzaiak Elizaren ondasunetan eta aberastasunetan «au tori tatea» badutela diosku Aitasantuak. «Autoritate» oni, Pio X'arentzat, «jabetasuna» da, baiña jabetasun orren ncurrietaz eta jabetasun ori erabiltzeko eractaz ez digu ezer esaten. Ondasun oieI: Aitasantuarenak eta Gotvaienak bakarrik diran, ondasun oien era-bilketan kristau ez-epaizek eskubiderik ba'duten; erabilketa orri so-egiteko, erabilketa ori ikertzeko eta epaitzcko, Elizaren gorputz osoak almenik izan dezakean edo ez, X Pio'k ukitu gabe uzten dituan atalak dira; oraindik Eliza-baitan argitu gabe dauden atalak.

Txirotasun gorrian gelditu zan Frantzi'ko Eliza. Esan omen zioten X Pio'ri cntziklika bi aielç argitaratu aurretik, agian laizaren zuria Frantzi'n ez zala ain gogorra izanen berak zerbaitean amorerik ematen ba'zuan. Portitza, Aita-santuaren erantzuna: Nere eginkizuna ez da Elizaren ondasunak (abona Ecele-siae») salbatzea; nere eginkizuna Flizaren ondasuna («bonum Ecclesiae») salbatzea da». Polita benetan esaera, baiña orduango arazoa zuzentzeko balio ez zuana.

Beste norbaitek, Frantzi'ko Elizaren txirotasun orokorraz ari ziralarik, ea nola Paris'ko Goigotzaiak lan-gelik ere gabe ain elizbarruti jendetsua gobernatu zezakean, galde egin omen zion, eta Aitasantuak erantzun: «Paris'ko Goigo-tzaia, ori egiteko gauza ez ba'da, praille prantziskotar bat ezarriko dut aren

ordez Paris'ko Elizaren buru; praillea beintzat txirotasun-eskeintza egindako g-Zona izango hait da».

Iritzi onean zeuzkan, dirudianez, Pio X'ak praille frantziskotarrak eta praille frantziskotarren txirotasuna!

Politikaren arloan zalaparta gogorak sortu ziran Frantzi'n. Agian Aristides 13riand'ek izan ezik, iñork, —et Aitasantuak, et gotzaiek et Jaurlaritzak—, aurre-ikusi ez zituan zalapartak'

Izugarrizko aberastasunen jabe egin zan Frantzi'ko Jaurlaritza; Elizari kentzen zizkion ondasunek balio bait zituzten 411 milloi urrezko franko. Egia da, 35 milla ematen zizkiola Elizari, baiña ter ziran 35.000 auek 411.000.000 aien aldean?

«Cette immense richesse», «neurri-gabeko aberastasun au» (Calloux), zati batez beintza, astiro-astiro, Napoleon T'aren konkordatoaz gero, mende baten luzaroan bildua zuan Elizak. Et zaitez ordea, elizkide, ture Elizaz lotsatu: milloi aien barruan sarturik hait zeuden jauretxeen balioa, baita baselizatxorik txikie\_narena ere, konbentuen, apaizgaitegien era apaizetxeen balioa; jauretxeetako oial eta jantziena, aulkiena, irudiena, eta argizariena; karitate-ekintzetan erabilli oi ziran diru eta gauzen balioa; eta baita mezak emateko criotzako orduan kristauak tsetamentuetan utzitako dirua ere.

Askatasunaren izenean, I11 Errepublikako Jaurlaritza liberalaren eskuetara igaro zan aberastasun ura guztia. Baiñan aberastasun ori, mola erabilli? Jaurretxe, konbentu, baseliz, lekaidetxe, apaizgaitegi eta gaiñerako etxe ta etxetxoekin ter egin? Dirutan jasotako aberastasuna zertan txautu? Ondasun aiek danak nori kendu zitzaizkion?» Elizari, noski! Baiñan zer tan Frantzi'an Eliza, Frantzi'ko erri kristaua izan ezik? Ta... Frantzi'an kristauak ies al ziran oraindik Frantzi'ko erriaren zatirik aundiena? Nola orduan kristau auen baimenik gabe artu zituan beretzat Jaurlaritza liberalak kristau beraien ondasunak?

r. Zeñen eta zeren izenean erabilli zezazkean Jaurlaritzak ondasun aiek? Laterriaren izenean? Baiña Frantzi'ko Laterriaren zatirik oraindik aundiena Kristaua ba'zan, ez al ziran ain zuten kristau aiek Frantzi'ko Laterria? Edo, beintzat, Laterriaren zatirik aundien( aurka zualarik, ^esan al zezakean jaur-laritzak Laterriaren izenean ari zanik? Zeren eta zeñen izenean orduan?

r. Askatasunaren izenean? Baiñan, ez al zuten kristauak beren gauzen jabe izateko askatasunik? Are geiago, Frantzi'ko geiengo a ziralarik?

«Egalité» edo «berdintasunaren» izenean? Baiñan jiberen gauzen jabe izateko, ez al ziran kristauak Frantzi'n beste laterkideen bardiñak?

«Fraternité» edo «senidatasunaren» izenean orduan? Baiñan inolako seni-detasuna tan ura, batzuek besteei –liberalek kristauci — gauzen jabe izateko

eskubidea ukatzen ba'zieten? Are geiago, senideak senideari gauzak ostutzen ba'zizkion?

SEz al zan III Errepublikako jaurlaritzza liberala, «liberté, égalité, fraternité» oles zegian ikur-itx ura, mundu guztiaren aurrean gezurtizat uzten ari? SEz al zuan arrazoi, «liberté, égalité, fraternité»: ai iru gezur oiek egia ba'lite» abesten zuan euskaldun bertsolariak?

SEz al zan gaiñera parregarria jaurlaritzza aren jardunbidea?

Izan ere, ezertxo gabe gelditu zan Frantzi'an Eliza: meza esateko ermitatxo bat ere gabe. Meza emateko liburuak berak, kasullak, aldereko argizariak, danak, jaurlaritzarenak bait ziran. Turkitarren mendean ere ez zeuden kristauak ain ezer-gabe, ain txiro, ain miseri gorrian! Mundu guztiak bazekian ori. § Ez al zan III Errepublika mundu guztiaren aurrean lotsagarri ta parregarri gelditzen ari?

Legea, gaiñera, legea zan, baiña gauzak, orduan ere, legeetaz landa, gauzak ziran, eta Frantzi'ko erri kristua ez zegoan gauzak lege zipotzen araura aldatzen asteko gerturik.

Legeak, bai; Jaurlaritzari eman zizkion legeak Frantzi'ko Elizaren gauzak. Baiña gauzak ez zeuden oraindik jaurlaritzaren eskuetan; gauza aiek lengo jabearen eskuetan zeuden: kristau-erriaren eskuetan; gauza aiek kendu egin bear zitzaizkion aurrena kristau-erriari, eta Frantzi'ko kristau-erria ez zegoan bere gauzak iñori ematekotan; askoz gutxiago, areriotzat zeukan Jaurlaritzza bateri.

Bretañi'n eskopetak eskuetan zituztela irten ziran jendeak kalera beren jauretxeak, eta gauza ta toki santuak, babestera; Auñamendian, zakurren ordez artzak ipiñi zituzten zaindari jauretxean ateetan. Ildako bat ere izan zan, erztzain bat jauretxe bateko ondasunak zenbatzen asi zalako, sortu zan istillu batean. Zalaparta gogorak ernaarazi zezazkean lege arek Frantzi zabalean, eta baita, agian, Iraultza Nagusiaren aroko «bendeetarren gudaren» antzeko borroka garratz bat edo beste!

Agirian zegoan beintzat Jaurlaritzak ez zuala indarkeri ta odol-ixurketarik gabe lege ura aurrera eramaterik izango. Eta Jaurlaritzarentzat okerragoa zana, odolkeri artan, ez zezakean Frantzi'ko liberalik geienen laguntzarik itxaron; liberal aiek, antiklerizaleak bai, baiña eliza zigortzcaren zale ez bait ziran. Ez zuten, iñolaz ere, Frantzi'a Neron'en denborako zigorketara edo Robespierre-ren egunetako «terreuren» menpera jaurtirik ikusi nai.

Clemeneau «Katamotza» zegoan orain Jaurlaritzan Laterri-Barneko Auzietarako Ministeriozan; diputadu zala, Legebatzarrean, Bereizketa-Legearen alde, Briand'en aurka ain gogorki jardun zan Clemeneau ura bera, eta ari zegokion orain Frantzi'ko erri kristauak bere Elizaren ondasunak kentzea, eta «Associations Culturelles» aiek eratzea.

Clemeneau'k ordea ez zuan ezer egin eta gauzak zeuden bezala utzi zituan, alako zalapartak sortarazteko ez bait zan giroa, adimen argi zorrotzeko gizona

haizil: «[?z litzake biclazko, argi-ontzi batzuk dirala-ta, jandeak iltzen astea», esan zuan bare burua zuritzeko, ata zearo aztu zituan «Assoc'ations Cultuallas» ziralako aiek, eta baita leizaren ondasunak aro, era gutxi gora bera ordurarte bezala jarraitu zuan, Lita jarraituko zuan gero ara, Frantzi'n i^l.liz.ih.

Jauretxeak, apaizjendcaren eskuetan iraungo zuten. 1',z ziran apaizenak izango, Latarriarenak ba<sup>i</sup>zik: haiñan. naiz legezko titulorik gaba, al,<sup>i</sup>zak erabiliko zituzten jauretxe ta eliz-etxa danak arri kristauaren scribitzurako. Ori aiicrazi nai zuan apaizai Jaurilaritzak aman oi zien legezko izenak berak: «occupants sans titre juridique».

Azkenean onuragarri irten zitzaion Frantzi'ko [lizari X Pio'ren jarduera:

—Galikeriaren azkeneko ondarren amaiera ekarri zualako. Baiña arantz.ik gabeko arrosarik ez hait da, galikeriaren bukaeraz landa, Pin X'aren bi entziklika aiek «Action Française» (axistaran bizkortzea are ekarri zutan. «Action Françaisctarrak» izan ziran, hetidanik, gobernu libaralckin traturik ez izatearen aldekorik bortitzenak. Orain, Aitasantuak bete-betea arrazoi aman ziola, uste izan zuan Frantzi'ko kristaudiak.

—Askatasuna, gobernuengandik hcreizteak aide guztietan bzti Elizari ekarri dion zitua, Frantzi'ko Elizari ekarri zio[ako. Ala izendatu aal izan zituan Pio X'ak bereala, iñungo eragozpcnik gabc, eta iñori kontuak aman bearrik gabe, 1 { gotzai. Frantzi'n Elizak iareki izendatzen zituan aurreneko gotz'tiak.

Baiña'.., ona aman are arrosean arantza! Gotzai aiek. «Action Française-tarrengandik» eta gaiñerako integristancandik iritxitako irtizici jaramon gaie-ni egiñaz aukeratu bait zituan Pin X'ak, gizon go,,orregiak ziran, alkarrenandik urrundutako biotzak «alkareanaraztako b Liño i'.liz tren eskubideen aida borroka egiteko» geiano balio zutenak: «hommes de combat plutôt yue de reconeiliation» (Lattaille). Bestalde, Gotzai apal eta bakunak ziran aiek. Apalcegiak. Txintik ateraçahc Frroma'tiko aginduak baie zitzaten, bereiziki aukeratuak. Ori hait zegokion Pin X'aren zentralkariari.

—Eliz-jendearen garbitasuna. Xoxik gabe gelditu zan Frantzi'ko Eliza: iñundiko laguntzarik gabe. Gotzai-Ap.tizck ez zuten bizitzeko beren kristauek ematen ziotena baizik. Eta orrelakoetan gerta oi dan bezala asko gutxitu ziran apaizak eta prailleak. Baiña gutxi aiek askoz obeak ziran. Gaiñera, apaizen urritasunak, kristau sekularrak apostoluarako arnaraztera eraman zuan Eliza. Eta ederki erantzun zuten kristauek; eskolatuck, bainpal.

[derki erantzun zuan kristau erriak ekonomiaren aldetik are Iaizari laguntzcko, lkus naimen on aran ikur bat: 8 urtetan, 1006'atik 1914'araiño jauretze geiago egin ziran Frantzi'n emeratzigarren mande osoan baiño. Ez da gutxi lain zearo txiro hatck agiria izateko. Kontuz ordea: zenbaki eder olatan ere, ona amen arantza: lauretze oiek aberatsen diruarekin agio ziran batez Lire, eta aberatsen cmaitzctatik bizi ziran Eliza-haitan apaizak eta karitatc-akintzak ata ikastolak eta ekintza on guztiak; orren ondorioz aberatsei eta kapitallistei lotuegia gelditu zitzaigun an are Eliza. «Si I'1`\_glise est appauvrie, clie

n'en devient pas pour autant l'Église des pauvres; bien au contraire» (Aubert): «Eliza txirotu ba'zitzaigun ere, ez zitzaigun txiroen Eliza biurtu; ez orixe» aberatsei, burgesitarrei, geiegi menderaturik laga bait zigun gabetasun arek Eliza.

Ez da beraz arritzekoa jende landerrak, eta baitipat proletari-jendeak urrunduaz jarraitzea. Egia da ala ere, jende jakintsuak gero ta abegi obeagoarekin begiratzan ziola Eliz txiro bizkor ari; batez eru, Huysmans, Bourget, eta bereiziki Bergson materialismoaren akatsak argitaratzen asi ziran ezkerero. Izan bait zan, ain zuzen XX mendearen asieran espiritualitatearen berbizkunde bat Europa guztian.

Gobernuaren menpetasunetik eta gobernuari-buruzko zalantzetatik Eliza libratzean, ederki prestatu zuan Pio X'ak Frantzi'ko kristaudia berbztzkunde artan erdikide izateko. «Extraordinaire ferment *de* renouveau» (J. M. Mayeur), «Berrikuntzarako orrantza gartsua» izan omen zan Pio X'aren jokaera. A! t aurre-ikusten ote zituan Aitasantuak bure jokaera aren zitu eder auek? Baietz uste du Daniel Rops'ek. Baietz dio Aristides Briand sozialistak cru. Ikus aren iritzia:

«Bete-beteen (sur tous les tableaux) irabazi du Pio X'ak. Arrigarria izan da Aitasantua! (Il a été merveilleux, *le* pape). [z naiz ortaz ain errez oartu. Denborak ematen duan urrun tasuna (recul) falta zitzaidan gauzak egoki ikusi aal izateko; eta denborak ematen duan baretasuna; Berak bakarrik, (Aitasantuak), arazi ontan argi ikusi du (C'est le seul qui y ait vu clair). Zenbat aldiz, Batzar Nagusian bi aldetatik, eskubitik etc ezkerretik jotzen nindutenean, onako auxe oiuka asteko gogoia etorri oi zitzaidan: «gizagaixo batzuk (de pauvres types) besterik ez zerate guztiok; gizon batek bakarrik dakus argi; Aitasantuak; berak bakarrik darabil zentzuzko politika-era bat, bera bakarrik ari da etorkizunerako zurgurki lanean (qu'il ny avait qu'un homme qui voyait clair, qui avait la politique eoherénte et qui travaillait pour l'avenir, le pape! »).

Ez degu uste egia danik. Pio X'ak ez zuan orren begi luzerik. «Associations Cultuelles» ziralakoak \*aitzestean goti aien cala eta, gotzaien gaindik, Aitasantuaren almen orokorra nai zuan babestu. Reste, etortzekoak ziran, zitu oietaz ez zan sekulan mintzatu. Zitu oiek, gaiñera Eliza Laterriarengandik bereiztetik etorri ziran, eta Pio X'a bereizte orren arerio izan zan beti' Ain zuzen, orain ere, aurreneko entziklikan zionez, bereizketa Jainkoari irain egitea omen zan, eta «zuzenbide ororen aurka Eliza zanpatzea». Ez; Pio X'ak, Bereiztasuna-bitartez zetorkian emaitza onik ez zezakean aurre-ikusi; eta askoz gutxiago jardetsi gura'

Ala ere pozik aipatu dupa Aristides Briand'en iritzia. Aski berandu, 1920'a ezkerero, eta apaiz adiskide bateri esan zizkion itzak dira; badaitezke beraz txurikeri-ttanttaren batekin esanak izatea. Alaber, ez hait zan Aristides Briand nolanaiko politika-gizona, bere itz oiek ondotoxo merezi dute arretaz kontuan artuak izatea.



ITALI XIX MENDEAN

*Eta bere erdi-aldean Aitasantuen Lateralriak*

## AITASANTUEN ERREGETZAREN AMAIA

Itzuli gaitezen IX Pio'ren denboretara.

Ez zuan bi egun besterik iraun IX Pio Aitasantu egin zuan giltzapeko bazarrak. Urduri zebiltzan bâ kardenalak. Ondo hait zekiten iraultza ler-zorian zegoala Erroma'ko karriketan.

İnoiz Aitasantuek erriari galderik egin ez ziotelako, edo beintzat, enkuestaren antzeko zerbait edatzerik ere sekulan pentsatu ez zutelako, Eliz-Laterrietako jendeen artean ez dakigu zenbat zeuden Laterri aien askatasunaren eta Aitasantuen erregetzaren alde. Baiñan, VII Pio Napoleon'en espetxeetatik Erroma'ra itzuli zanean, Eliz-Laterrietako jenderik geiena aurka zegoala uste izan zuan Consalvi Kardenal diplomazilariak.

Agian, ez zegoan oraindik jendea lurralde aren askatasunaren aurka, baiña bai Aitasantuek Laterri aietako jaurketa edo gobernaketa ia oso-osoa elizgizonen eskuetan ipintzearen aurka'

Aurkatasun ori, azitzen joan zan; eta laister, jendea, batera Aitasantuen erregetzaren eta Laterri aien askatasunaren etsaia zan: Itali aundi bat bakkarik eraikitzearen aldeko.

Arrazoiak? Ona batzuk:

—Aitasantuen erregetza autokratikoa izatea; bakalduntza orokorra. Laterri aietan ez zitzaion beñere erriari bere naimenaren berririk eskatzen'

Aitasantu Errege Bakaldunaren *izenean*, kardenalak eta gotzaiak ziran, «Monsignori»en laguntzarekin, Laterri aietako jaurleak. Politikarako ez zan an laikuentzat toki geiegirik'

jaurketaren jardunkera baldarra. Izan ere askoz ohea izan bait zan iraultzalariek ezarri zutena. Ta ori ez zeukan ango jendeak azturik.

—Italiar-abertzaletasuna. XIX mendean ain zuzen, bizkor ernetu zan Alpe-Mendietatik Sizili'ko ego-muturrera, orduan oraindik bizirik zeuden Itali'ko Laterri koxkor aiek denak ezabutu Itali bateratu aundi eta iare bat osotzeko guraria' Laterri berri orren Uri Burua Erroma izatea nai zuten gaiñera italiar guztiek'

Iru edo lau alderdi ziran Itali'aren batasunaren billa zebiltzanak; Bat katolikoena, Itali'ko Laterri guztiekin konfederapen bat eginda, alkarte orren

buruzagi tzat Aitasantua ipiñi nai zuana. «Neo-guelfi», «Guelfo berriak», esaten zien jendeak Gioberti apaiza zuzendari zuten katoliko abertzale auei.

Bigarren alderdia, liberala zan, baiña kontserbatzaillea. Inghlanderriaren antzeko Jaurerri bat biurtu nai zuten auek Itali. Zerdeña'ko Erregea izanen zan Jaurerri berri ortako Erregea. Erregezale liberal auen gidari Kamilo Benso —Cavour'eko Kontea— zan.

Irugarren alderdia, Errepublika bat egitearen aldekoa zan eta Jose Mazzini legedilari jenobatarra, «carbonari» en anaidikoa izana, eta errepublikazale sutua, zuan buruzagi.

Laugarren batek berriz, Jose Garibaldi nizatarra izan zuan zuzendari, baiña au, alderdi bat baiño geiago zan gudari-talde bat, politikan mazzinitarrekin bait zegoan, aiek bezala ezkertiarra eta errepublikaren maitalea zalarik.

Alderdi danotako jende guztiak artu zuten bizi-ro pozik Pio IX'aren autaketa, aundia bait zan arek zuan ospe ona: gizon irikia zalaren ospea. Integrista eskubitarrek, «Aitasantu liberala» izen-ipiñi ere ipiñi zioten!

uE viva el papa Pio nono», Itali guztian gelditzeko entzun zitekean oiva zan.

Ez ziran nolanaikoak Erroma'ko erriak Aitasantu berriari egin zizkion pestak, uste izan bait zuten *italiar geienek*, austritarrak Lombardi-Benezi'tik bidalita, Itali'a batzeko ibilketan gidari ipiñiko zitzaien Aitasantu bat iritxi zitzaiola: *Italiar gEienek!*, «ikazkifietatik «guelfo berrietara», apaiz-jenderik baztertu gabe.

Iparraldean, gotzaiak berak Batasuna egiteko igikundearen alderdikoak ziran. Erdi-aldeko erridictan eru ala zan eiizjenderik geiena; eta Bi Sizilietan bertan, naiz gotzaiak errege Borboiaren aldekoak izan, batasunaren aide zegoan apaizdiaren eta frailediaren erdia beintzat.

Ikusi dugun bezala, ez ziran italiarrak gogabide berekoak Batasuna nola osatu pentsatzeko garaiean, baiña danak ziran asmo batekoak, baita Pio IX'a ere, atzerriatarrak Itali'tik irten bearrari zegokion auzian'

Aitasantu berriaren aurreneko ekintzak, naiz berenez oso garrantzi motxe-koak, izan zuten abertzale italiarren itxaropenak bizkortzeko gaitasuna. Gero, oker zebiltzala oartu ziranean..', Pio IX'a, uste izan zuten aitasantua ez zala ikusi zutenean..., izugarria izan zan aien barruko samintasuna.

Baiña aztertu dezagun nola txikordatu ziran gertakizunak:

—1846. —Garagarrillaren 16'ean izan zan Jon Mari Mastai Aitasantu egiña' Aurreneko gauza, «el odiado Lambruschini» (Montalban) Estaduko Idazkaritzatik kenduta, aren ordezkari Paskual Gizzi ipintzea izan zan'

Andik illabetera eman zuan, uztaillaren 17'an, Gregorio XVI'aren denboran espetxeratuentzat amnisti bat, eta naiz barkapen ura urria izan, alaitu zituan erromatarrak, politika-era berri zabalago baten asieraren aztarna zala uste izan zutelako. Europa'ko izparringi guztiek goersten zuten Aitasantua.



«E viva Pio Nono», Alpeetatik Sizili'ra, italiar guztien oiva zan. Erroma ere alaitsu bizi zan. Eta sarritan prestatzen zizkion jai dotoreak Aitasantu maiteari: oni txit atsegin zitzaizkion jaiak, erriagandiko maitasunaren zalea bait zan.

Jai auen artean ospetsuak izan ziran abenduaren 8'koa eta urrengo urteko jorrraillaren 19'koa. Aitasantua-ospatzailleen artean adoretsuenetakoa, erriari txit kutun zitzaion izlari trebe bat izan zan: Cieervaechio, ardosaltzen aberastua, kultur aundirik gabekoa, baiña adimen argiaren eta mingain errezaren jabea; erkala benetan maite zuana. Sortu oi ditu Itali'k noizean bein, erriaren erraietatik, orrelako buruzagiak. Garrantzi aundia izanen du Cieervaechio'k aldi ontako edestian'

Geiegiko pestak ziran aiek eta, Gizzi Kardenal'ak, karriketako barbuilla eta zalaparta alaitsu aiei amaia ipintzearren, agindu bat eman zion erriari, xamurki idatzitako agindua; baiña ezkertiarren aurka sortuarazitako agindua zala ura, zabaldu zuten auk erriaren artean. Bete zuten gaiñera Erroma guztia, ixilpean argitaratutako orri-sail ugariz.

Orri aiek «autokrazi-zale traizioegilleen» aurka idatziak zeuden. Ezkertiarrek bata bestearen atzetik egiten zituzren mitifiak eta billerak, Pio IX'a goratzeko; eta askatasunaren alde, Austri'ren aurka gogoak berotzeko. Ez dezagun aantzi Lombardi'a eta Benezialdea Austri'ren menpean zeudela.

Elburu berdiñarekin, sortu ziran, iori, batzoki abertzaleak; Bereiziki ospetsua eta indartsua izan zan Cieervaechio'ren «Cireolo Romano» edo «Erromatar Batzokia», Erroma'ko aristokrazikumerik geienak ango bazkide izan bait ziran, Aldobrandini printzipea zuzendari zutela.

Batzoki aietako jenderik urdurienek, Aitasantua arriskuan zegoala-ta, ura autokrazi-zaleen maltzurkeritik-edo gordetzeko, erriko jendearekin, izkilluz ornitutako zaintzaille-talde bat osotu zuten.

Benetan, Jaurerriaren jabe ziran abertzaleak; Aitasantuaren gudaroztea bera ere aiengana alderatu bait zan. Gizzi'k, ez zuan Estadutzako Idazkaritza laga beste aterabiderik izan. Bere ordeez, Ferreti izan zan izendatua, gizon egokia, Aitasantuaren beraren illoba'

Ori jakitean, Aldobrandini printzipeak, bazkari oparo bat eman zuan «Cireolo Romano» apañean Cieervaechio gorestekoa, auxe bait zan une aietan Erroma'n txapeldun'

Bitartean, an urruti, Turiñ-en, Cavour'eko Konteak «II Risorgimento», «Birjeikitzea», izeneko izparringi bat argiratu zuan Itali'ren batasunaren zaltetasuna erriaren artean zabaltzeko.

Azkenean, Cavour izanen da Batasun ori mamituko duana, eta bere izparringi aren izena emango zaio Batasunaren aldeko borroka osoari: «II Risorgimento»' Gizon bizkorra turindar au: apaizjendeari begi okerrez begiratzten ziona, baiña gutxi bezalako politikolari trebea, Europa-zear asko ibillia.

Ain zuzen egiazko demokrazira iritxi, berria zan Inghlanderriko parlamen-  
tua, Cavour ara joan zanean, Aurrerantzean Inghlanderriko Jaurerria artuko  
du Cavour'ek, eraiki naiean dabillen Itali'ren eredutzat. Masoia izan zala Ca-  
vour esan oi da; ala omen zan Garibaldi errepublika-zalea ere; baiña, garai  
artan nor masoi zan eta nor ez, ziuurki jakiterik ez dagoan gauza da.

Azaroan, «Itali'ren Batasunaren aldeko « gurutzadan» Aitasantua bera aitzin-  
dari irtetzea», eskatu zion Mazzini'k Pio IX'ari. Ezezkoa izan zan Aitasantua-  
ren erantzuna. Bazuan adimenik aski Pio IX'ak, Aitasantuak orrelako politika-  
-ixkamilla batean ez zuala sartu bear ikusteko. Orregaitik, «guelfo berrien»  
pentsabidea ere, zentzugabekeria iruditu zitzaon beti. Ori aitortu bear da,  
Pio IX'aren aide. Agian beste Aitasantu bati, axkure gazon eginen zion ha-  
li'ako Konfederaketaren Lendakari izateak. Zorionez, Pio IX'a ez zan agin-  
tzalekeriaren jostaillu.

Baiña erriko jendearen barnean, «Aitasantu Liberalaren» irudia desegit-  
ten eta lun-intzen ari zan egunetik egunera.

Atzipeturik zeuden jende aiek; Pio IX'ak, ez jatorriz, ez ezikeraz, ez sen-  
timenez, ez hait zuan liheraltasunaren izpirik ere.

Itali'ren maitale sutsua zan, ori bai, eta Itali atzerritarrez garbitzearen  
guratzaille. Errikoia ere bazan; txit errikoia; eta jende arruntaren adiskidea.  
Politikan ere erria zuan begien aurrean, baiña, Argikuntza-aroko errege «ar-  
gitu» aien antzera. «Dana erriarentzat, ez ordea erriarekin». Ederki izan zi-  
tekean ori «despotikeri argituaren» denboran bezala, Pio IX'aren aitasan-  
tutzako ikurritza.

\* \* \*

Paternalista borondate onekoa zalarik ez zuan sekulan Pio IX'ak, libe-  
ralak uste zuten bezala, erriari kostituzio demokraziko bat ematerik pentsatu  
ere. Ez zezakean, gaiñera, orrelakorik pentsatu, Aitasantu aientzat, beren agin-  
taritza donearen pusketak erriari kostituzio batean lagatzea, Elizari iruzur  
egitea hait zan: iare izateko Elizak bearrezkoak zituan Laterri aiek, Elizari  
kendu ta beste bati ematea. Noiz-naï etsai izan zitekean beste bati !!

Ala ere 1848'a —Iraultzaren urtea— asi zanean, Cieervaechio'k, Aita-  
santuaaren amenez jendetza aundi bat bildu zuan. Ez zan noski asarre gelditu  
Pio IX'a. Bene Estadutzako Idazkariak —Ferreti Kardenalak— idatzi zion  
beintzat Cieervaechio'ri eskerrak emanaz.

Omenaldi artan, Aitasantuaren zalpurdira igo-ta, iragarki aundi bat era-  
kutsi zion Cicervaechio'k IX Pio'ri. Itz auek zeuden iragarkian idatziaik:  
«Aita zure erriaz fia zaitez». Baiezko kiñua egin zuan buruz, irriño batekin,  
Pio IX'ak, jende danaren aurrean.

Otsaillan jaurlaritzarako, ministro sekularrak bakarrik izendatzeko, es-

katu zioten Aitasantuari. «Non posso, non voglio»: «Ezin dut; ez dut nai», erantzun zuan arek. Goibel gelditu ziran demokrazi-zaleak.

Berealaxe, Sizili'n, Iraultza galdetan zan. Eta arin baiño ariñago zabaldu zan Europa guztira. ; 1848'ko iraultza Sozialista! ; Paris'en Luis Felipe, eta Biena'n Metternieh ankar gora botako zituan Iraultza!

Toki guztietan ongarrri izan zan 1848'ko Iraultza tira Elizarentzat: Frantzi'n, Alemani'n... Ez ordea Erroma'n, Aitasantuaren erregetzari zegozkion gaitan. Itali ere astindu zan Iraultza aren galdetan. Toskani'lco Leopoldo II'a, Zerdeña'ko Karlos Alberto, eta baita Pio IX'a ere, kostituzio bat eman bearean aurkitu ziran.

Kostituzio aietan kixazkoena, Zerdeña'koa izan zan; «monarkikoa», Mazzini'k eta Garibaldi'k Itali'rentzat asmotan zeukaten Errepublikari aurka egiteko; «kontserhatzaillea», aien geiegizko ezkerkeriari esiak ezartzeko.

Urardoa bezain motela izan zan IX Pio'k Erroma'n emandakoa. Bi mailla zituan Parlamentu bat antolatzen zien Eliz-Laterkideei. Mailla gureneko bazkideak, Aitasantuak berak izendatuko zituan; Beeko Bazkunekoak, erriak, baiña... bi kamera aien gaiñetik... iKardenalen Kongregazioa! ipintzen zuan bien zaindari nagusi'

Ez zuten liberalek Aitasantua kritikatz\_eko astirik izan, iraultza Anstri'ra iritxi zanean Metternich jausi bezain laister jeiki bait ziran inperatorearen aurka Milan eta Benezi.

Zerdeña'ko Karlos Alherto'k ere laister ekin zion Austri'n Lonhardi'a eta Benezialdea gaizkatzeko ordua iritxi zitz niolako ustean. Gaizki neurtu zituan bere indarrak. Zearo izan zan garaitua. Urrengo urtean, Gipuzkoa'ko Tolosa'n, bertako eskribau baten aurrean utzi zion Zerdeña'ko buruntza bere seme Biktore Imanol II'ari; gero Italia'ko Errege izanen zaigun arixo berari, ain zuzen.

Aitasantua, jakiña, ez zan gudate artan mubittu. Izan ziran borrokara bultzatu nai izan ziotenak, baiña arek, egoki, gizakume guztien aita ezin zitekeala erri baten aurka, askoz gutxiago erri kristaua zan baten aurka odol ixurketan asi, erantzun zuan. Liberal ezkertiarrek, ordea, ez zuten orrelakorik aditzen.

Alatagutziz, aldaketa batzuk egin zituan IX Pio'lc Eliz-Laterrietako jaur-laritzan; izparringieki eta irarkolei-buruzko lege gogorrak arinduaz, adibidez. Ta, aiek zirala, —esan zien konsistorio betean kerdendalei—, Europa'ko Laterriek eskatzen zizkieten eraberrizketak.

Bail Baiña 1831'an eskatu zizkieten aldaketa aiek, XVI Gregorio'ri, Frantzi'k, Austri'k, Prusi'k, Errusi'k eta Inghlanderriak, eta, orain, oso berandu zetozen; eta iraultza gorriko urte artan ez zuten erria bzzrtzeko deus balio, demokraziari txit erantsia bait zegoan ordurako, Aitasantuen Jaureriko jendea.

Pio IX larrituak ez zekian zer egin. Estadutzako Idazkariak, bata bestea-  
ren atzetik jausten ziran. Perreti'ren ondorean, Bofondi etorri zan. Illabete  
geroaga, Antonelli. Andik iru illahetera, Ciachi. Ogeitazazpi egun balcarrera-  
ko azkeneko au. Aitasantuak ez zuan asmatzen kargu garai artarako nor au-  
keratu'

Orain, Itali'ren batasun-zaleak, agiri-agirian bure aurka zituan, amorratu-  
rik gaiñera. Erroma'ko Parlamentuan, aundiak ziran iskamillak Zerdcña  
Austri'aren aurka gudan zebillen artean, bazkide eskubitarrek eta ezkertia-  
rrek alkarri gogor crasotzen ziotelako, eia... Aitasantuak, parlamentuan pres-  
tatutako legeei, baiezkorik ematen ez zielako!

Karriketan ere, ez zebillen leguna ezkertiarren alderdia. «E viva la re-  
pública», noiz-nai entzun zitekean deadarra zan. Txororen batzuek, «Gora  
Barrabas, Bera Kristo» zioten iragarkiak ere ezarri zituzten ormetan. Izan  
zan Austri'ko Ordezkararen aurka matxInada bat; eta baita Josulagundiaren  
aurka ere. Pio IX'ak, I rroma'tik irtetzeko eskatu hear izan zien auei.

Aitasantu beraren aurka ere, matxinada lcr-zori zegoan urian; eskierki  
uste izan hait zuan jendeak ordurarte, Pio IX'a Austri'ren aurka gudan sar-  
tuko zala. atzipetua genuan erria? Usl:eri batzuek: Pio IX'ak Gregorio  
XVI'ari egindako kritika batek, eta erriaren aurrean hein «Itali'ren aide»  
Jainkoaren onspena eskatu izateak' Arriskugarri hait zan, orduan eta an,  
Itali'ren izena aipatze utsa.

Austritarrek borroka-zelaietan Zerdcña garaitu zutenean, uste izan zuan  
Aitasantuak erria pakearazteko zerbait egIteko garaia irItZia zala. Ontarako  
erromatarren artean aigü aundia zuan gIZon bat aukeratu zuan kantziller:  
Pellegrino Rossi legitzilaria, gizon ona, kontsebatzailleetakoa, baiña aski pen-  
tsaeraz irikia.

Ez zan kantziller berria luzaro jaurlaritzan egon. illabete baiño lenago,  
aiztoz zauriturik il zan, Kantzillertegiaren arri-mailetan. Koldobika Brunetti,  
Cieervaechio'ren semea, izan zan aizto koldar ura erabilli zuana. Lotsarik gabe,  
«bigarren bruto» izendatuaz, aintzatu ta gorctsi zuten liberal ezkertiarrek  
eraille maltzurra.

Izugarrizko kolpea izan zan Pio IX'aren biotzarentzat ain maite zuan gizon  
aren eriotza. Alperrikako eriotza gaiñera Pio'ren ustez; ez hait zuan odol  
ixurtze arek iraultzaren garrrik moteldu, zu"rpertu baizik.

Egun batzuk geroago, uriko karrika guztien jabe zan matxinada. Izkilluak  
eskuetan, inguratu zuan erri asarretuak Aitasantuaren Kirinal jauregia; ezarri  
zituan, —erriak—, Aitasantuaren gudarozteari kendutako kañoiak berak jau-  
regiaren aurrean; entzun ziran, oiuen artean, fusillcn dunbadak; eta izan ziran  
jauregiari su eman nai izan zioten matxinaak ere'

Aitasantuaren bahcsik seguruena, Suizitar-Ertzaindia, menderatua izan zan  
eta izkillurik gabe utzia. Pio IX'a erriaren eskuetan zegoan' Beste irten-biderik

ez zuan-da, demokrazi-zale bati deitu zion orduan eta aren eskuetan laga zuan jaurlaritza' Beranduegi zan. Jose Galeti zeritzan jaurlari berri onek ezin izan zuan erririk baretu; eta, Aitasantua'k, Erroma'tik iges egitea erabaki zuan; ez noski bere onerako, igesari-emate ura, erriaren begietan koldarkeri bat besterik ez bait zan.

\* \* \*

Napoles'ko II Fernando'ren babespera, Jaurerri artan zegoan Gaeta'ra, joan zan IX Pio. Ez ordea bildurrak jota zegoalako. Are gutxiago autoritateari uko egiten ziolaren itxura emanaz. Bere inguruko integristak artara bultzatu zutelako egin hait zuan urrats oker ura! Bildur bait ziran aiek, Aitasantuak, pakea lortzarren ez ote zien liberalai amore emango.

Erroma'n, Errepublika bat ezarri zan, plebiseito baten bidez; eta Mazzini izan zan Laterri berriaren zuzendari.

Mazzini'ren asmoetan, Erroma'ko Errepublika orrek iritxi bear zuan azkenean Itali'ko Errepublika izatera.

Baiña beste bide batetik zebillen Cavour Turiñ'en. Eta baita Pio IX'a ere Gaeta'n. Laister eskatu zien onek laguntza Frantzi'ri, Napoles'i, Españi'ri, eta Austri'ri —ez ordea Zerdeña,ri «batasunaren» aldekoa bait zan an Gioberti apaiza, orduan Jaurlaritzan ministro zana—.

Eta Aitasantua bere jaurerrian birrezartzea erabaki zuten Laterri aiek.

Luis Napoleon'ek bidalitako gudarozteak artu zuan tiroka, ez odol-ixurterik aski gabe, Erroma'ko uria, eta itzuli aal izan zan IX Pio Gaeta'tik Erroma'ra Frantzi'ko Bigarren Errepublikaren kañoiaren babespean. Baiña galdu zuan Elizaren Jaurerriko laterkide geienen naimena. Eta Erroma'n gelditu hear izan zuan Frantzi'ko Bigarren Errepublikaren gudarozteak, Aitasantuari erregetzan irauten laguntzeko.

Luis Napoleon Bonaparte'k, —demokrazizalea bait zan oraindik—, Eliz-Laterrietan ere Jaurlaritza demokraziko bat ezartzeko, eskatu zion IX Pio'ri.

Ez zuan Frantzi'ko Errepublikaren Lendakari ark Erroma'ko Aitasantua eza gutzen; berak bakarrik Jaurerrian agintzen ez ba'zuan, Elizan ere ez zuala berak bakarrik iareki agintzerilc izango, iduritzen hait zitzaion Pio IX'ari' «He considered that bis spiritual power could be *protected* onlv by bis continued exereice of temporal authority. Onee these two aspects of bis dominion had become indissolubly linked, it is easy to sea why Pius considered himself obliged to oppose any alteration of bis position as a temporal ruler» (Woodruff). Euskeraz:

«Izpirituen auzietarako zuan almena, etenketarik gabe bere eskuz erabil litako errege-agintaritzan baten bitartez bakarrik gorde zezakeala pentsatzen zuan. Bere Almenaren bi aurpegi auek, alkarrengadik-bereizi-ezin-zitezkeala batean korapillaturik ikusten zituala ulertzen ba'dugu, errez ulertuko dugu

Pio'k bere burua, errege izatearen moduan aldaketarik ez egitera bearturik ikusten zuala ere». Ederki esana; aldaketa bat egitea, Erroma'ko erregeari Autoritatearen puska bat utziaraztea bait zan; eta Elizaren Aitasantuari Askatasunaren puska bat galduaraztea'

Gaiñera, Pio IX'aren barrunhea osoro aldatu zan Gacta'ko urte luze artan: (1848'ko azaroaren 24'tik 1850'ko jorrraillaren 12'ra arte). Berekin aldegin zuten kardenal integristek, ez zuten denborik galdu Erroma'ko iraultzak egin-dako txarkeriak, batez ere Rossi adiskidearen eriotza, Aitasantuari gogorazten, bai hait zekiten sentimenkoia, biotz-bera, zala Pio IX'a'

Etsi zuan arek liberaltasunatik okerra besterik ez zitekeala sortu. Etsipen orren aurreneko aztarnak, Gioberti, Rosmini, eta Ventura'ren idazkiak liburu debekatuen zerrendan sartuaraztea eta inñakitar integrista batzuek sortutako «Civiltà Cattolica» aldizkariari emandako Laguntza sutua, izan ziran. Aldizkari orrek zabalduko du mundura integrismo katolikoa.

Esan dugun bezala, ez zitzairen Luis Napoleon Lendakariaren frantzitarrei erreza gertatu Erroma'n sartzeara, kementsu eman bait ziren erriak aurpegi Garibaldi'ren gidaritzapean.

Orrela, frantziarrak urian sartzetako izan zuten astirik naiko-ta, uxatu ziran andik iraultzalari naharrnenenak, aien artean Cieervaechio eta aren seme Koldobika, Rossi'ren eraillea; baiña bi auek austriarren eskuetara jausi ziran; eta fusillatuak izan ziran.

Pio IX'ak Gaeta'tik emandako amnistia oso motza izan zan; egin zituan politika-aldakuntzatxoak, baiña ura bezain txikerrak. AIA ere aundiegia iruditu zitzaizkien kardenal integristei ta Napoles'ko Borboiari; eta lortu zuten, guzia ezertan gelduaraztea. Gogorregia izan zan iraultzalariei egindako zigorketa, eta griña geiegirekin egiña gaiñera. Pio IX'aren hirrezarketa au «reactionaria et infortunata», «atzerakoia eta doakabea» izan hait zan. (Mons. Coholi-Bussi). Ez da arritzekoa, frantziarrak Erroma'n bezala, Aitasantuari errege-buruntza buruan tinko eramaten laguntzeko, austriarrak «Legazioak» esaten zitzairen Eliz-Laterrietan gelditu hear izatea.

Ez dira noski izkilluak, errege batentzat, euskarri sendoegiak, eta are gutxiago atzerritarren izkilluak; baiña ez dezaiozun arinki Pio IX'ari errurik egotzi, agintaritzari-huruz eta liberaltasunari-buruz aren iritziak nolakoak ziran bai hait dakigu. Badirudi, gaiñera, gertakizunek arrazoi-ematen ziotela.

1852'an artu zuan Cavour'eko Konteak Turin'en Zerdeña'ko Jaurlaritzaren lendakaritza, eta laister ekin zion zipozkeriz Elizari, lendik ere bai hait ziran Elizarekin iskamillak Zerdeña'n, Maximo Azeglio'k Elizaren epaiketarako-eskuhidei-buruz (1a lekaidetxean ontasurei-buruz 1850'eko legeak eman zituan ezkerro).

Lege aiek ez ziran gogorak eta aien aide zegoan katolikoen zati aundi bat, naiz Erroma aurka atera izan. Baiña lege aien auziak goibeldu zuan giroa,

Turiñ'eko Goigotzai Fransoni'ren zoritxarreko gogorkeriaren erruz; eta Zer-deña'ko Jaurlaritzaren oztopoen erruz.

Izan zuten giro-ondatze ontan parte, edestiaren bidea ez ikusteko Aulki Doneko kanonlariak erabili zuten itxukeriak, eta Estadutzako Idazkari Antonelli Kardenalaren makiabelkeriak. Gizon onen eskuetan laga zuan Gaeta'tik etortzean Pio IX'k, osoro, Aulki Donearen politikaren zuzendaritza, oartu bait zan berak diplomazirako yayotasunik ez zuala.

Antonelli, apaiza baiño geiago zan mundu-gizona, eta gustora ari izan zan, erlijio auzietatik landa, jaurlaritzaren arazoetan, Frantzi'ko eta Austri'ko gudarozteen babesean.

Politikarako jaioa zirudian gizon onek ere ez zuan ikusi, gogapenei aurka egiteko, baionetak naikoak ez dirala. Eta Itali Batuaren gogapena, berriz, italiar guztien buruetan pizturik zegoan' Noiztik? Napoleon'ek Itali'ko Errepublikak sortu zuan ezkeroztik, diote batzuek.

\* >◀ >◀

Napoleondarrak Itali'tik irten hear izan zutenean, Napoles'eko Fernando IV'ak artu zuan Erroma, eta berak eratu nai izan zuan orduan Itali'ren batasuna, bere burua Jaurerri berriaren Errege egiñaz, (1798). Laister ziran ostera Bonaparte'ren izkilluak Itali guztiaren nagusi eta Napoles'eko lurraldea lagata, Sizili'ko ugartera ald'egin bearrean aurkitu zan Fernando Borboia' Murat ipiñi zuan Napoleon'ek Napoles'en Errege, eta Napoleon jausi zanean Murat onek berak jantzi nai izan zuan Itali Batuaren buruntza'

Ez dugu uste, ala ere, geiegi maitatuak ez ziran agintari auen arrokeriak sorturiko batasunerako-saiaketa auek, italiarren biotzetan ig'kunde aundiegirik izan zutenik; Pellegrino Rossi'k zionez, 1815'ean Itali'ko batasun-zale guztiak iraultzalari mordotxo bat besterik ez hait ziran; eta danak idazle edo filosofilariak.

Gure ustez, «Itali» aintzat artua izatea denboraren zitua izan zan. Erromantitasunak sortu zuan an, beste tokietan bezala, nazio-zaletasuna. Euskaldunoi gertatzen zitzaiguna gertatzen zitzaien italiarrei. Danak erri bat zirala baze-kiten orduan euskaldunak ere; baiña bakoitza bere Lege Zarren babesean bereizirik bizi ziran Eusko-Laterriak, eta danak Laterri bat batean alkartzetik ez zuten pentsatzen.

Abertzaletasuna ere, gaur itz orri ematen diogun zentzuan, ez zan iñon Erromantik-Aroa arte sortu. Izan ere, Erromantitasunaren alaba hait da aber-tzaletasun-mota ori. Karlisten guduetan bai, erromanti-guduak izan hait ziran aiek, nabari zan aietan, naiz oraindik estalia, gero, emen, Sabin Arana'k argitara emanen zuan sentipen berriaren sustraia.

Era berean sortu zan Itali'n ere, erromanti-zaleek piztuta, nazio-sentipen ori. Erromantitasuna erridien edesti zarra goratzera etorri bait zan; eta edesti.

ori mamitu zuten errien zertasuna adieraztera eta nortasuna maitaaraztera. Orrela, Paris'en 1830'ko Iraultza piztu zanean, asko ziran batasun zaleak Itali guztian; eta urrengo urtean, 1831'e'an, Itali'n zan Iraultza, Elizaren Laterrietan batez ere; eta Austri'ko gudariek eragozi zuten orduan ere Batasunaren garaitza. Baiña ez zuten Batasun orren leiarik agortu, bizkortu baizik, latzegia izan bait zan orduan austritarren eskua'

1848'ko Iraultzakoan, ostera berriz, zutik zan Itali Lombardi'n, Eliz-Laterrietan, Sizili'n..., Laterri guztietan, Pio IX'ak Erroma'tik bezala, aldegin bear izan zuan Toskani'ko Leopoldo II'ak Florentzi'tik. Austri'k eta Frantzi'k zapaldu zuten Itali'n Iraultza. Frantzi'k Erroma'n; Austri'k, Eliz-Laterrien iparraldean, Toskani'n, Parma'n, Modena'n, Lombardi'n eta Benezi'n. Ez noski odol-isurketarik gabe.

Bi Sizilietan, moldatu zan Fernando II Borboia, austritarren laguntzarekin, bere Jaurerria indarkeri beltzaren bidez menderatzen; eta gogorkeriaren bidez gorde aal izan zuan buruntza, baiña gogorkeri ura neurritik irtetzen zalako, kendu zizkioten Frantzi'k eta Inghlanderriak an zituzten enbaxadariak. Erriak, «Re Bomba», «Bomba Erregea» ipiñi zion gaitzizen, matxinada-aldi batean Napoles'ko uria kañoika zigortzeko agindua eman zualako. Europa'ko demokrazi-zale guztientzat, eta batez ere italiarrentzat, nardagarri egin zan «il Re Bomba'ren» irudia. So-egiegun Itali'ko beste Laterriei'

—Erdi-frantziarra erdi-italiarra, Zerdeña'ko Jaurerria zan orduan Itali'ko Laterriarik aundiena aberatsena ta bizkorrena. Turin zuan uriburu, eta bere lurraldeetatik batzuk, —Saboia ta Niza—, Frantzi'n daude gaur, eta besteak. —Piamonte, Zerdeña bera, eta Liguri, ots, azkeneko au antziñako Jenoba-Errepublika ta bere lurra—, Itali'n.

—Zerdeña'ko Jaurerriak ordurako bazuan Inghlanderrikoaren antzeko Oiñarri-Lege denaokratikoi bat; 1848'an aldarrikatua. Garrantzi aundiko me-rezimendua zuan ori; danak demokrazizaleak bait ziran, Itali batu naiean zebiltzanak. Itali'ko beste Laterriek ez zuten alako Oiñarri-Legerik! Errege bakarragintzailleen mendeko ziran guztiak.

—Gaiñera, II Biktor Imanol'en aita, Karlos Alberto, Austri'ren aurka gudan sartu bait zan, orain ere, 1858'an, Austri beraren aurka jeiki ziran Benezi'ko ta Milan'go abertzaleei laguntzeko, Zerdeña'ko Jaurerriari, begira jarri ziran Itali'ko abertzale guztien begiak, arrezkero bazekiten bâ Itali'ko batasunaren aide borroka egiterakoan Laterriaren laguntzarik ez zitzaiea peituko.

Errez menderatu zuan len, Novara'n, Zerdeña'ko Errege Radetzky mariskal austriatarrak 1849'an, baiña altagutziz italiarren itxaropenak ez ziran urtu, eta Biktor Imanol II Zerdeña'ko Errege gazte barri arengan ipiñi zituzten bere uste-on guztiak. Mazzinitar asko ere Biktor Imanol'en alderdiko egin ziran orain eta baita Gioberti apaiza eta onen «guelfo berrien» talde eder bat ere.

—1852'az gero Cavour dugu Zerdeña'ko gobernuaren Lendakari, agian une artan Europa'ko politikalaririk bizkorrena; Bismarek'ek aiña kañoi ez



zualako gaiñera, bere yayotasun utsez baliatu bear izan hait zuan lortu zuana lortzeko: gaurko Itali'ren Batasuna. Baiña elizjendeen adiskide koxkorra ere bai bait zan, lendakaritza artu zuan bezain laister eraso zien, erakuskintzan, edo sermoiketean, edo gaixoen zainketan ari ez ziran praille guztiei. Konbentu asko desegin ziran orduan Zerdeña'ko Jaurrerian.

Laterri aundien artean bere abotsa entzunarazteko, eta Itali'a buruan zuala sartu zan Cavour Krimea'ko guduuan, Errusi'ren aurka; ta, garaille, beste garailleekin pakea eratzeraoan, lortu zuan, bere asmoetarako, Frantzi'ren eta In-glanderriaren onespena, (1856). Ala ere, Napoleon III'ak Erroma beintzat Aitasantuaren eskuetan nai zuan; baiña Inperatore herri au ez zan gai Itali'ko erriaren nai geldiarazteko; ezta Cavour'en yayotasunari kixazko erantzunik emateko ere'

Orrela, 1859'an, Napoleon III'a eta Zerdeña, Austri'ren aurka gudan ziran Itali'n; baiña, Austri geiegi aultzen ba'zuan, Prusi'k indar aundiegia artuko zualaren bildurrez, Benezi artu gabe egin zituan pakeak Napoleon'ek. Asarretuta, Cavour'ek, gobernuaren lendakaritza laga zuan. Ala ere, Zerdeña'ko jau-rerrira igaro ziran Austri'ri kendutako Lonbardi'a eta Aitasantuari artutako Romaña, —austriar gudaroztea lurralde ontan bait zegoan aitasantuaren agin-taritzari babes emateko.

Ostera, —Itali'ako Laterriak konfederaketa batean bildu eta konfedera-keta orren lendakaritza Aitasantuari emateko—, izan ziran alkarrizketak 1859 ontan, baiña Pio IX'a ez zegoan inñolaz ere bere agintaritzaren apurrik galtzeko prest. Itali'ko Laterrien Konfederapen ura berriz, naitanaiez izanen zan demokrazikoa, eta Aitasantuak, naiz Laterri berri aundi aren Buruzagitza bere-tzako jaso, naitanaiez laga bearko zuan bere agintaritzaren zati mardul bat erriaren eskuetan' Ta ori, Erroma'n beintzat, IX Pio bezalako Aitasantu batek egin ez zezakean gauza zan.

—1860. Itali'ren batasunaren urtea. Pio IX'aren pentsaera jakitean, Cavour ostera Zerdeña'ko gobernuaren lendakaritzara deitua izan zan. Laister ibilli bearra zuan onek, Itali errepublika ezkertiarra biurtzerik ez ba'zuan nai, aundiak bait ziran egoaldea Jose Garibaldi'k lortutako garaitzak. Sizili'ko ugartean aurrena, Napoles'en bertan gero, II Frantzisko bertako Errege berriaren indarren aurka'

Napoleon III'aren baiezkoa lortzeko, Cavour'ek Saboia eta Niza eman zizkion Frantzi'ri. Ez zan txikia izan Garibaldi'ren amorrua, Niza, bere jai-terria, Itali'tik landa geldituko zala jakin zuanean; baiña Cavour'en gudaroz-teek Itali'ko Laterri guztiak menderatu zituztela ikustean, berak ere Bitor Imanol erregeztat ezagutzea erabaki zigun.

—1861'ean, referendum batek, Itali'ko buruntza Biktor Imanol H'aren buruan ipiñi zuan. Benezialdea gelditu zan oraindik austriarren mendean.

Erroma'ko uriak eta inguruko lurrak —«Patrimonium Sancti Petri», «Pedro Deunaren Lurraldea»k— Aitasantuaren eskuetan jarraitu zuten; an, IX Pio'ren

gudarozteka Castelfidardo'n eavourtarek garaitu zutenez gero, III Napoleon'en gudariak bait zeuden zaindari! Aitor dezagun, txikiagoa zalako izan zala Aitasantuaren gudarozteka Castelfidardo'n menderatua.

Cavour'ek orduan, Pio IX'ri Eliz-Laterrien Nagusitza eskeiñi zion, errege-tituloa, baiña erregetza orren erabilketa Bitor Imanol'en eskuetan lagatzeko baldintzarekin' Alkarrizketak asi ziran, baiña laister moztu zituan Pio'k.

Andik egun gutxira Cavour gorputz zegoan.

Urrengo urtean, nai izan zuan Garibaldi'k Erroma artu; eta prestatu zituan ortarako, Bi Sizilietan garaille izandako bere gudariak. Baiña Bitor Imanol'ek menderatu zituan Aspromonte'ko burrukaldian; arriskugarri izanen bait zan orduan, Itali'ko Errege berriarentzat, Napoleon III'arekin asarretzea.

Ikusi bear zuan naitanaiez Pio IX'ak frantziarren ezpaten bebesean bakarrik ipiñi zezazkeala bere uste guztiak, eta ezpata oien laguntza ezin zitekeala seguruegia izan, baiña ala ere ez zegoan asmoz aldatzekotan.

Laister, 1854'ean, lortu zuan Bitor Imanol II'ak Napoleon'engandik, gudari aiek Frantzi.'ratuko zitualaren itza. Aitasantua, Itali'ko Erregearen zaintzapean geldituko zan. Eta eginkizun ori obeto betetzearren, Bitor Imanol II'ak Turin lagata Florentzi'n ipiñi zuan laterri-burutza. Ori izan zan beintzat aldakuntza ura egiteko erabili zuan aitzakia.

Bi urte geroago Prusi eta Austri gudan ziran. A! nolako adiontasuna Benezi'z jabetzeko! Sartu zan borrokan Austri'ren aurka Bitor Imanol, baiña, lurren Custozza'n eta itxasoz Lissa'n, menderatua izan zan.

Prusiarrak, orde, garaille irten bait ziran Sadowa'n, Itali'rentzat izan zan pake-egiterakoan Benezialdea! «L'Italia e (atta, ma non compiuta): «Itali'a egiñik dago, baiña ez osoturik».

Frantziarrak Erroma'tik irten bezain laister, ekin zion atzera berriz Garibaldi'k Erroma'ri, baiña, Europa'ko katoliko guztien asarrea ikustean, Bitor Imanol ez zan ari laguntzera ausartu.

Alatagutziz, III Napoleon osterera bere gudariak Erroma'ra bidali bearrean aurkitu zan, eta Garibaldi Mentana'n borrokatu ondorean, Erroma'n gelditu bear izan zuten berriro Frantzi'ko gudari aiek. 1867'an gertatu zan ori; iru urtez, izanen du pakea Pio IX'ak bere Laterritxo apurrean, III Napoleon'en kañoiei eskerrak. Ez zegoan ala're Aitasantua amore emateko asmotan, are ta gutxiago Zerdeña'ko Jaurerrian emana izandako legedi Eliz-zigortzaillea Bitor Imanol'en gobernuak Itali osora zabaldu zuala ikusi zuan ezkerero.

Baziran italiarren aldetik liberal zentzudunak, Aitasantuarekin konponketa billatu nai zutenak; baiña, besteak, ezkertiarrek, gero ta geiago bait ziran Elizaren etsai, utsean gelditu ziran saiaketa guztiak. Apaiz asko jausi zan espetxera, Batasun aren etsai agertzen ziralako; eta gotzai asko bota zituan gobernuak elizbarrutietatik.

225 ziran garai artan Itali'ko elizbarrutiak; 108 gotzairik gabe zeuden 1864'ean.

Cavour-ondorengo lenen ministroak ura baiño gogorragoak *izan* ziran oraindik, Ricasoli eta Ratazzi batez ere' «Il Risorgimento» zalakoaren fisologia positibitza zan, Cavour'en ondorengo en urte aietan; eta lotsarik gabe salatu oi ziran nun nai Eliza, eta katolikotasuna bera, gizadi-aurrerapenaren etsaitzat. 1867'an Ratazzi'k emandako legeek Frantzi'ko «jakobitar» aien edena zera-makiten mamian, eta eden orrek pozoituko zuan mend'erdie batean Itali'ren eta Elizaren alkar-bizitza.

Ez da beraz arritzekoa Pio IX'a bezalako Aitasantu batek amorerik eman nai ez izatea; baiña alperrik zebillen bere Jurerriaren azkeneko ondartxoak gorde naiean, ez bait zuan Napoleon III'ak bidalitako gudari-sail ura beste euskarririk' Gudari-sail ura, berriz, Frantzi'ra deitua izan zan 1870'ean Napoleon'ek Prusi'rekin guda asi zualako.

Aurretik Aitasantuaren eta Erroma'ren askatasunari lotsa gordeko zuela aginduarazi zion Napoleon'ek Itali'ri, baiña zearo porrokatua izan bait zan Frantzi'a Sedan'en.', eta ez ikusiarena eginen zuala jakiñarazi bait zuan Florentzi'ra Prusi'ak..., 1870 orren agorrillaren 20'ean, Itali berriaren gudaroztea borrokarik gabe sartu zan Erroma'ko urian'

Orrela amaitu zan erdiaro zârretik zetorren aitasantuen erregetza. Tiro batzuek bakarrik jaurtitzeko agindu zuan Pio IX'ak, erregetza indarrez kendua izan zitzaioala mundu guziak jakin zezan' Illabete geroago, referendum batean, ia erromatar danak, batasunaren alde agertu ziran' «El gobierno apañ6 un plebiscito de anexion», «Batasunerako autaketa bat sasi-moldatu zuan gobernuak» (Montalban)'

Bai; ori esan oi dute gaur arte Elizaren edestilari baiño apologilari geiago izan diran idazle katoliko geienek. Baiña ez dirudi egia danik. Bear bada'', izanen ziran anpatuak autapen aren zenbakiak, baiña, zalantzarik gabe, eliz-laterkide geienak, ordurako, zentzurik ez zuan Jaurerri paternalista moldakaitzaren aurka zeudela esan daiteke.

Ez zan Aitasantuen erregetzaren auzia besterik gabe amaitu; ez zan luzaroan amaituko ere' Lendabizi, Pio IX'ak Bitor Imanol II'a eskomikatu zuan. Ez dirudi, itxuraz, eskomiketa onek, oso legezko-jokaera. Eskomika, «aitasantuaren» izkillua da. Pio IX'ari, ordea, ez zion iñork aitasantu-eskubiderik ukatzen; errege-eskubideak ukatzen zitzaizkion, eta eskomika ez da erregeen izkillua' Tiroz eraso zion Biktore Imanol erregeak Pio erregeari, —ez Pio «aitasantuari»—, eta Pio «erregeak» erantzun bearrean, —eta tiroz erantzun gaiñera, erantzun gura ba'zion—, Pio «aitasantuak» erantzun zion... eskomikaz! , espirituen auziei, ez mundu ontako erregetzen auziei, dagokien erantzunaz'

Pio IX'aren buruan ez zan orrelako legiztikeririk piztu. Aren buruan bere erregetza gauza espiritukoia zan, eta donea, bere aitasantutzaren askatasunaren Oiñarri bear-bearrezkoa. ; Eskomika, beraz, oiñarri ori ostutzera indarrez zertorkion etsaiari!

Ez zeuden oso lasai Erregea eta bere laguntzailleak, oraindik, Frantzi ta Parsi arteko gudua amaitzean, Laterri katolikoek Aitasantuari bere erregetza biurtzeko eskatuko zutelako bildurrez. Ala, azaroan, Itali'ko Parlamentuak, Aitasantuari erregetza onezagutzen zion, baiña izen utsezko erregetza. Urrengo urtean, maiatzean, «guarantie pontificie» edo «aitasantuen babespenari»-buruzko legea eman zuan. Lege onen araura,

Aitasantuaren pertsona sagaratutzat artzen zuan Itali'ko Jaurerriak.

Aitasantuari egindako iraiñak oro, Itali'ko erregeari egindakoak bezela zigortuko ziran.

—3.225.000 lira emango zitzaizkion urteko Aitasantuari; eta Batikano, Letran eta Kastelgandolfo jauregiak bereak izenen zituan.

—Kristaudi guziko gotzaiekingo artuemanetarako iaretasun osoa izango zuan. Ez zion ortan italiar-jaurlaritzak batere eragozpenik sortuko.

Laterrietara nuntzioak bidaltzeko eta Laterriengandik enbaxadariak artzeko eskubidea onezagutzen zitzaion.

Itali'ko gotzaiak iareki aukeratzeko eskubidea ere onezagutzen zitzaion. Itali'ko Erregeak, bere aldetik, «placeb» edo «exequatur» esaten zitzaien eskubideei, uko egiten zien betirako. Orrela, aitasantuen agindu batek, lege izateko, ez zuan aurrerantzean Erregearen baiezkorik bearke.

Pio IX'ak ez zion Parlamentuaren lege oni jaramonik egin. Arentzat, Elizaren Laterrien arrapaketa lapurreta bizia izan zan; beraz, lapurketa ura ontzat artzen zualaren itxur'emate utsik ere ez zitzaion zillegi. Bere Jaurerri artako laterkideak batasunaren alde irten ziralak? Auteskunde bateko autarkiek ez zuten Pio IX'aren mentalitatearentzat baliorik Elizaren Laterrietan:

Eliz-Laterriak ez ziran Laterkideenak! Kristaudi osoarenak, au da, kristau guztienak ziran. Geiago oraindik: Eliza berarenak, «Eliza» izen ematen diogun mizteriozko Izaki zerutar orrenak. Ez ziran Laterri aiek beste Laterriak bezalakoak; aientzat, gizarte sagaratuak ez ziralako, balio zezakean demokraziak, baiña Elizaren Laterrientzat ez zuan balio. Elizaren Laterriak gauza sagaratuak ziralako ain zuzen, eta gauza sagaratuentzat, adibidez Elizarentzat eta sendiarentzat, demokraziak balio ez dualako. Laterri aietan ez zuan demo-kraziak balio, Laterri aiek «demos» edo «erria»renak ez ziralako! Jainkoaren Eliza Donearenak baizik!

Bere osteketa edo protesta mundu guztiari adierazteko, IX Pio'k katigu itxi zuan bere burua Batikan jauregian, eta ez zan sekulan ezertarako, jauregi artatik atera' Itali batuaren Jaurlaritzari, eta Erregeari, bere asarrea agertzeko berriz, esan dugun bezala italiar katolikoei politikan parte artzea debekatu zien, orrela Jaurerri berriaren politika oso-osoan antikleristen eskuetan utziaz.

Katolikoa izango zan berez beti Itali'ko Jaurlaritza, baiña, Pio IX'aren aginduz (1874) katolikoek Itali'n auteskundeetan parte artzea galerazia zeukaten. Ez autalc ez autagai izan zitezkean: «ne eletti ne elettori».

"Zentzurik gabeko politika-jokua! Baiñan joku ortan jarraitu zuten IX Pio'ren ondorengoek ere.

Baziran Itali'n borondate oneko liberalak; Aitasantuak uste zuan baiño geiago gaiñera. Elizak Laterri liberaletan, (Olanda'n-eta, Iparramerikan-eta...), bizitza bizkorra zeramakiala ikusten zuten katolikoak ere baziran' Baiña liberal aiek eta katoliko auk Aitasantuari auteskunde-buruzko lege zentzugabeko ura kentzeko eskatzen ziotenean, «non expedit», «cz da egoki», erantzuten zien arek. Eta erregetza lagatzeko norbaitek eskatzen ba'zion, «non possumus», «ez zaigu zilleg>» oiu eginen zuan.

Guri, gaur, Aitasantua errege izate orrek, edestiaren luzaroan on baiño kalte geiago egin ziola Elizari iduritzen zaigu, baiña ez zuten ori ala ikusten orduango katoliko gienek. «Gora Aitasantu Erregea» izan zan Kristaudi guztia-riaren deadarra.

Europa'ko Laterriek ez zuten Aitasantuaren erregetzaren alde deus egin, eta aiek deus ez *egite* orrek berak geiago urbildu zituan katolikoak, indarra-medio erregetzaz erantzitako Aitasantuarengana. Neurri guztien gaindi igo zan katoliko saminduen biotzetan «Batikanoan baiturik bizi zan Aitasantu Erregearenganako» maitasuna.

Pio IX'ak berak ere, esan dugun bezala katibutzat zeukan bere burua. Eta, orrela, amore-pixka bat emateko eskatzen zioten guztiei «non expedit», gaur, «non possumus», biar, erantzunaz, gero ta geiago ari zan aunditzen Jaurlaritzaren eta Elizaren-arteko zuloa, Jaurlaritza eskomikatua izan zan ezkerero, apaizak eta gotzaiak danak Jaurlaritzaren aurka eta Aitasantu ERREGAAREN aide jarri bait ziran.

Zergaitik, ain zuzen, gotzaiak? Bâ, eskomika artaz *gero*, Aitasantuak, errege ta agintarien bultzaketarik gabe, Itali'ko gotzaiak berak bakarrik eta nai zuan erara aukeratzen zitualako. Eta gotzai izatera iristeko, jakiña, bear-bearrezkoak zituan edozein elizgizonek, —butez ere IX eta X Pio'en denboretan onako bi doai bereizi auk:

Animenganako maitasuna eta otoitzerako zaletasuna, baiiki; baiña baita «une intransigence rigide à l'égard des idées modernes» («oldozkera berrienganako jasan-ezin zurruna») eta «une docilité inconditionnelle aux consignes romaines» («Erroma'tiko oarpideentzako eskumendetasun muga-gabea»). Jopukeri geiegizko au, maiz izan zan «gogo orok bearrezkoa duan askatasunarentzat, eta kulturarentzat, kaltegarria» («souvent au détriment de la culture et de l'indépendance d'esprit»), Roger Aubert edestilariaren iritzi zuzenez.

Ez dugu aurrerantzean ordurarteko gotzai asko bezelako gotzai demokrazialerik Itali'n izango' Ezta alako apaizik ere; gotzai berri auen itzalpean ezi-

tako apaizak apaiz onak, bai, baiña zearo integristak izanen bait dira, eta jakituri murriztekoak, seminarioetako kultur-txirotasunaren erruz. Apaiz auek ederki konponduko dira erri xearekin, baiña ez dira jende ikasiarekin eta burgesitarrekin alkarrizketan sartzeko gai izango.

Ogeigarren mendea ondo sartu arte ez dira itali'ko seminarioak jakintza-mailletan igotzen asiko. Ondorioak? Itali'n bertan Eliza «gbeto» edo «arrotz-bilduma» biurtu izatea, aurrenekoa. Eta bigarrena, Gobernuaren partetik Elizaren aurkako politikaren gogortzea, ezkertiarrek Pio IX'aren jokaerari artu zioten gorrotoaren erruz.', eta Pio IX'aren jokaera berberorren erruz.

Eta,, iez dakizu zenbat kosta zitzaaien aitasantuei politika-era orren zentzugabekeriak oartzen! Itali'ko autarki geienak katolikoen eskuetan zeuden; katolikoa izanen zan, beraz, Itali'ko Jaurlaritza, katolikoei «elleti» eta «elletori» izatea galerazi ez ha'zitzaien. Uste ote zuan Pio IX'ak, uste ote zuten bere ondorengock, zeruko mirari baten bichez Laterri galduen erregetza birrirabaziko zutela? Geiegitxo murgildu zan beintzat IX Pio bure azkeneko urteetan mixtika-usaieko sentimentu lainotsuetan.

Leon XIII'ak lasaitu zuan zerbait eskua, laga hait zien katolikoei udal-tako eta probintzietako karguetarako auteskudeetan parte-artzen, baiña katolikoek kargu auetara sartu izateak katolikotasunari ekarri zizkion onura eta irabaziak ez ziran naiko-izan, Aitasantua eskua geiago zabaltzera eramateko. Debekatua jarraitu zitzaien italiar katolikoei parlamentuko aukietara aukeratuak edo aukeratzailleak izatea.

Asarre-giro ortan ez da arritzekoa Jaurlaritzaren politika Elizarentzat legunegia ez izatea. Cavour'ek bazuan, oraindik, amorerik aski emateko gogoa, naiz bera ziurki «antieierical» italiarren saillekoa izan. «Eliz iarea Laterri iarrean», erabilli oi zuan ikurriz; eta Batikandar Jauretze Jauregiak, inguruko Jur zati batekin, Laterri iare biurtu nai zituan Aitasantuarentzat; gero Pio XI'ak Mussolini'rengandik lortuko zuana bai ño geiago. Baiña IX Pio'ren zailtasunak, gogortu zituan Cavour'en oiñordekoen gogoak. Ikus:

— 1879'an 3.037 lekaidetxe eta 1.907 Iekaimetxe bereganatu zituan Itali'ko Laterri berriak, aien ondasun guztiekin. Beste Iekeide-lakaimetxe askoren ondasunak Laterriarcn «errenta-paperez» trukatzekotan gelditu ziran.

—1881 'eau «Propaganda Pide»ren ondasunak bereganatu nai izan zituan'

— 1888'an egindako Italiar-Legendiarene lenengo atalak onako auxe zion: «Bizitza osorako lan gogorretara beartua izanen da Laterria gobernu arrotz baten mendean ipintzeko, edo Itali'ren batasuna zatitzeko zerbait dagiana». Zuzen-zuzen, Aitasantuari bere Laterriak itzultzearen aldeko ziran katolikoen aurka zijoan ori.

—Urte bereail, udalei, bakoitzak, —udal bakoitzak—, bere erriko ikastoletan dotriñaren erakusketa galarazteko eskubidea eman zitzaien.

—1889'an gaixotegi guztien jabe egin zan Laterria. Elizarenak ziran aiek,

eta gaixotegietaz gaiñera bazuan Elizak, dirutan, ekintza onetarako mendeen luzaroan kristauen esku zabaletatik artutako ondasun polita. Bâ, ondasun oietaz ere noiznai jabetuko zitzaiola jakiñarazi zion Laterriak. i«Gaur-egunean egokiagoak diran eginkizunetan» erabiltzeko nai omen zituan ondasun aiek!

—1888'an 4.000 katoliko-alkarte izan ziran dabekatuak.

Pentsatu zuan bi aldiz Leon XIII'ak Erroma'tik iges-egitea ere. Aurrenekoa, 1881'ean, Pio IX izanaren gorputza tokiz aldatzerakoan. Gaeuz eta ixillean egitekoa zan aldaketa ori, baiña zabaldu zan, nolabait, asmoen berria, eta Donekeparen enparantzak artu ezin aiña jende bildu zan, argizagi piztuak eskuetan, katolikoek ain maite izan zuten Aitasantuaren gorpuzkiei laguntzeko.

Baiña ez bait ziran danak «Aitasantu Errege»-zale Erroma'n, Beste jendetza batek, Santangelo'ko gaztelu-aurrean bildurik, gorpuzki aiek Tiber ibaiera jaurtiko zituala jakiñarazi zuan; eta andik egun batzuetara Aitasantuaren aurka deadarka zebillen jende-multzo ura karrketan.

Ikaraturik, Leon XIII'ak Austri'ri laguntza eskatu zion, eta asi zan era berean, Malta'ko ugartera, edo Españi'ra, edo Austri'renak ziran Trento edo Salzburg urietara aldegitia pentsatzen.

Frantzisko Jose Inperatoreak kendu zizkion asmo oiek burutik'

Bigarren iges-asmoa 1889'koa da, Giordano Bruni, 1600'ean Inkisizioaren sukarretan bizia galdu zuan orojaikotiarrari omenaldi zaratatsu bat Jaurlaritzak egin zionekoa'

Crispi zan Jaurlaritzaren lendakaria. Omenaldi artan egin ziran itzaldien gogorkeri ta garraztasunak izutu zuten Aitasantua, baiña Crispi lendakariak «bein Erroma'tik irten ezkeru ez zala geiago Erroma'ra itzuliko» jakiñarazi bait zion Hohenlohe Kardenalaren bitartez..., eta Kardenal onek ere gauzak zeuden bezala uzteko eskatu bait zion..., Erroma'tik ez ateratzea erabaki zuan Leon XIII'ak azkenean.

Kalean bertan maiz jaurti oi ziran irain garratzak Aitasantuaren pertsonaren aurka' 1888'an, 3.000 marrulari trakets ibilli ziran Erroma'ko karrketan, «bera aitasantutza» (il papaccio), «Leon Aitasantua urkamendira», «Batikano guzia sutara» deadarka' 1910'ean Erroma'ko alkatea bera, —Nathan judutarra—, izan zan itzaldi batean Pio X'ari eraso ziona.

\* \* \*

Ez ordea uste Eliza, «Risorgimento»ko Itali'n, Neron'en inperiotzan bezala bizi zanik' Ikus, bizimodu aren adigarritzat, onako aletxo auk:

—Eguneroko arremanetan, (basarrietan, erri azietan, urietan), gotzaiak eta apaizak ez ziran ain gaizki konpontzen jaurleri eta alkateekin, Itali bezain katolikoa dan gizarte batean, edestilari batek egoki dionez «parece que le type de rapports qui sera illustré plus tard par Don Camillo et Pepone correspond

a une vieille tradition»; euskerara biurturik, «geroago Don Kamilo eta Pepone'-ren arteko alkar--konponketek agertuko diguten jokaera, oiturez oso zârra dalako» (Aubert). Pio X'a bera, oraindik Beneziko Patriarka zala, txit ondo ikusia izan zan, abertzaleen artean ere, Beneziko autoritate sekularrekin goxoki konpondu zalako.

Galduak galdu, —% 25'etan gutxitu bait ziran 30 urteren barruan Itali'ko apaizak—, ugaria zan oraindik an apaizdia; bazuan bâ Itali'k apaiz bat 270 pertsonarentzat. Tamalez, len esan dugun bezala, jakinduri kaxkarrekoak ziran apaiz aiek, eta gotzaien artean ere apika, oroitzea merezi duan bat aurkitu daitekean. Txit gustora aipatuko ditugu gero aipagarriak izan ziran apaiz jaun bakarrak.

—Ekonomi-arloan bertan, —naiz, emen ere, galduak galdu,— ez zan gaizki gelditu Eliza, dirutan ondasun naikoren jabe jarraitu zuan bâ; eta orain kristauek esku zabalagoarekin laguntzen bait zioten.

Gobernuak elizjendearcn aurka emandako legeak, maiz paper soillean gelditzen ziran. Ala, —1890'ean agindu bait zuan Crispi'k gaixotegi guztien sekulartzea'. —, bâ, agindua agindu, Elizaren gaixotegiak elizjendeen eskue-tan laga zituan, naiz izenez Laterriaren zaintzapean ipiñi. Orixe gertatzen zan katoliko-alkarte eta bazkunen aurka emandako legeekin ere. Iñoiz alkarte oietatik bateren batzuk egiaz desegiten ba'ziran, berealaxe sortzen ziran, aien ordez, berriak.

Asko-ta-asko izan ziran Itali artan alkarte katolikoak; eta baita izparringiak ere. Alatagutziz lege zipotz aiek, batez ere lekaidetxe ta konbentuei-buruz emandekoek, Elizari kalte aundiak egin zizkioten. Kaputxin edo buruñurdunen artean, adibidez, 680 konbentu itxi bear izan ziran 7.000 praille bizi ziran konbentu aietan.

Kaputxindar italiarren eriotza? Ez, ala ere; Itxitako ia zazpireun konbentu aietatik, laister iriki bait ziran 307. Ain kazkarra dirudin giro ortan eragozpen geiegirik gabe azi ziran Boseo Donearen salestarrak bezala, erakus-kintzarako Lagundi asmâtu-berriak.

«Don-Kamilo-ta-Pepone»ren politika-sistema!

Gaiñera, liberalen eta abertzaleen artean, Elizarekin konponketa bat bene-benetan gura zutenak asko ziran, edo beren buruak kristau etsitzen ziztutelako, edo oituraz beti Elizaren itzalean bizitzera jarriak zeudelako, edo erlijioa, errietan ordena babesteko, bearrezkoa zala uste zutelako.

Era berean ziran asko, katolikoan artean, gobernuarekin pakea nai zutenak, edo gertakizunek itzulpenik ez zutela ikusten zutelako, edo italiar geienak katolikoak izanik, demokraziaren bitartez gobernu katoliko erre biurtu zitekeala ikusten zutelako, edo, agian, aitasantuen erregetza Elizarentzat «kuriatarrek» uste zuten bezain onuragarria ez zala ikusten zutelako. Pake-zale auei, «Conciliatorist», «Antolapengilleak» esan zitzaian lendabizi, eta gero, «Transigenti», «Amoremailleak».



Giro ortan eman zien Leon XIII'ak katolikoei udaletan sartu aal izateko baimena, eta geroago Pio X'ak, naiz baldintza geiegirekin, parlamentuan ere parte artu aal izatekoa. Politikan sartu ziran katolikoek, izan zuten Aulki Donearekin ixkamil bat baiño geiago; eta ez beti politikalarien kulpaz, politikaren eta soziologiaren arloan Aulki Donea paternalistegia izan zalako eta iñoiz sekularrei bear aiña eskubide eta askatasun eman nai izan ez zielako baizik.

Konponduko zuan zalantzarik gabe Benedikto XV'ak «*la QUESTIONE ROMANA*» zeritzaion auzia, europar-guduak astirik, eta eriotzak denborik, eman baliote' Aren ondorean Pio XI'ak eman zion amaia auzi negargarri oni, artean lagun zuan Benito Mussolini'rekin, 1929'aren otsailleko 11'ean, «Letran'go Itunaren»bitartez. Une berean izenpetu zuan Itali'rekin konkordato berri bat'

Itun aren bidez, Itali'k Aulki Doneari 750 milloi ematen zizkion' Ezer gutxi, kendu zizkion Laterrien balioaren alde; are gutxiago, diru ura %S'eko korrittuan Laterriaren zor biurtzen zala kontuan artzen ba'dugu. Baiña diruak baiño ajola aundiagoa zuan politikaren arloan lortutako erakundeak: «*La Città Vaticana*», Laterri iare izanzen zan, *eta* bertan soberani osoaren jabe Aitasantua: Errege. Pio XI'ak, bere aldetik, ezagutzen zuan legezkoztat Itali'-ko Jaurerria; eta baita «*la questione romana*» betirako amaitutzat eman ere.

Erregetza galtzearekin asko irabazi du aitasantuaren ospe onak eta askatasunak' Pio IX'ak eta bere bi ondorengoek, bete-betean *uste* izan zuten, Aitasantuak erregetza galtzen ba'zuan Eliza zuzentzeko bearrezkoa zuan askatasuna ere galduko zuala' Oker zebiltzan; baiña Itali Berriaren jaurlari anti-klerikalen zipozkeriak oroitzen ba'ditugu, arrazoiaren zati mardulik falta ez zitzauela aitortzera bearturik aurkituko gera.

Orain, Aitasantuak, Laterri baten egiazko Errege dalarik, badu, azkeneko ludi-guduak erakutsi digun bezala, bere eginkizunetarako segurantzirik aski eta Laterri ori ain apurra dalako, ez du, Eliza zuzentzerakoan, lêngo Aitasantuak bezala bere Jaurerriaren politikazko interesei begi batekin so-egiñaz egon bearrik.

Mussolini'k emandakoa, eta geixago ere, eskeiñi zion Cavour'ek Pio IX'ari, baiña ez dezagun Aitasantu ura epaitzean anakroniarik, ots, denborak-aldatzerik egin. Gaurko pentsaera ez da orduangoa. Pio IX'ak, Eliz-Laterriak bereak ez zituala, Elizarenak zirala ikusten zuan soilki; eta Elizarena zanik beste-erentzea, alienatzea, ez zitzaioila zillegi, uste izan zuan ziurki.

Pio XI'ak ordea, berrogeita emeretzi urte geroago, ez zituan ez bereak ez Elizarenak Laterri aiek, Itali'ko Jaurerri berriarenak baizik, eta bazekusan gaiñera, berrogei ta emeretzi urte leenago galdutako Laterri aiek ez zirala sekulan ostera Elizarenak izatera etorriko.

Kinka berri ortan, Itali'ko Jaurlaritzarekin asarre jarraitzeak ez zuan zentzurik; eta, orregaitik, Jaurlaritza arekin pakeak egitea erabaki zuan. Ortaz

gaiñera —edestilari bait zan Pio XI'a—, Laterri aiek Aitasantuari on baiño kalte geiago egin ziotela ere euki zuan kontuan, bearbada; —eta demokrati- zale ere bai bait zan—, gogoan euki zuan seguruaski, len Eliz-Laterri izandako lurralde aietako biztanleek Itali'ren barruan jarraitu naiko zutela ia danek.

Edestiko gertakizunak epaitzen asterakoan, oroi, irakurle, erdiaroko oitu- ritzilarien aolkua: «Distingue tempora et concordabis Tura». Euskeraz:

«Bereizi eitzezu denborak,  
ulertu'itzezun oiturak».

## IX PIO TA DEMOKRAZIA

Liberala izan zan XIX mendeko demokrazi ura. Liberaltasuna, edonork dakin bezala, askatasuna goosten duan pentsaera da: Askatasuna, ekonomian; askatasuna, politikan; askatasuna erlijioari ere' Baiña askatasuna era askotan eta neurri ezberdinean ulertu, onartu, eta erabili *leikean gauza* hait da, era berean dira asko, eta ezberdiñak, liberaltasuna aditzeko moduak ere.

Emeretzigarren mendeko Elizaren buruzagi geienak ez zuten ikusi, Europa'ren egoan baitipat, liberaltasunak, «anitza», «plurala», izateko berekin duan gaitasuna, —ausaz, ori bera gertatzen zaigu gaur komunismoari-buruz ere—. XIX'ean beintzat ez ziran oartu, liberaltasunak bere okerkeriekin batera zekarzian ontasunetaz. Gaitza aundia egin zion Elizari eta aundiagoa oraindik gizarteko politikari elizgizon nagusi aien zentzumen-ezak.

Gregorio XVI'ak, Liberaltasuna, oso-osoan, bereizketarik egiteke gaitzetsi ba'zuan, liberaltasunak goosten zuan «askatasuna erlijioa bera ukatu aal izateko askatasuna ere izan zitekeala uste zualako» gaitzetsi zuan. «Because he saw that freedom might mean freedom to deny religion altogether» (IVOR Flower Burton). Uste ortatik sortua dugu «Mirari Vos» entziklika.

Baiña Aitasantuak egin ez zuan bereizketa egiten bait zuten kristau jakintsu eta gotzai askok, entziklika arek ez zuan Eliza-baitan liberaltasunaren auzirik amaitu. Inlanderrian, Olanda'n, Laterri Alkartutan... , politika-arloan liberaltasunaren aldeko jarraitu zuan Elizak, Ikusi etc argi ikusten hait zuten katoliko ez ziran Laterrietako elizkideek, liberaltasunak ekarri zien onura: demokrazia, lendarbizi, demokraziarekin Eliza debekatu zanpatu eta atxilotzen zuten legeen ezereztea: iaskatasuna! ; eta askatasunarekin gizartean *iare* bizi aal izatea; katolikotasuna kalera agertu aal izatea: Elizaren jeikitzea.

Laterri katolikoetan ere asko ziran, Frantzi'n eta Belxika'n baitipat, liberaltasunak, demokraziaren bidez Eliza errege autokraten menpetik askatutzean, apostolutzari giro osasungarriagoa opaldu ziola pentsatzen zutenak.

Frantzi'ko Koldobika Felipe, liberala izan zan, baiña edonork ikusi zeza-kean aren erregetzan bizkorrago ibilli zala Eliza Koldobika XVIII edo Karlos X Borboi bakarragintzaleen urteetan baiño.

Montalembert kontea eta Dupanloup Orleans'eko gotzaia ziran Frantzi'ko liberaltasun katolikoaren buruzagi.

Belxika'n, auteskundeen bidez diputadu asko oi zituzten beti katolikoek parlamentuan; eta iñoiz baiño aundiagoa zan diputadu aien agoz, Elizak , gizar-te-auzi guztietarako zuan almena. Orregaitik , liberalak ziran an ia elizkide guztiak.

Indar berria ekarri zion katolikoek liberaltasunari 1848'ko Iraultzak. Sartu bait zuan Austri'ra, Meternich'en despotikeria zapaldurik, demokrazia... Askatu zuan, ori egitean Lliza, josepekeriaren katepetik, eta txertatu zion katolikotasunari bizitz-indar berria. Orrela, laister, an ere liberalak ziran katoliko geienak. Inakitarrek jarraitu zuten inperatorearen autokraziari lotuenak.

Aundiagoa izan zan oarindik, Prusi'ko errege lutertarren despotikeria ezeztean, Aletnani'n 1848'ko Iraultzak Elizari egindako doaia.

Berlin'en eta Renani guztian piztu zan Iraultza, urte orren epaillean, eta, beste tokietan bezala, Elizaren askatasuna izan zuan ondorio. Ez da beraz arritzekoa, Alemani'ko Laterrietako ordezkariak Frankfurt'en Oñarri-lege baten antolaketarako bildu ziranean diputadn katoliko danek askatasunaren alde eta demokraziaren aide oles egin izatea. Babiera'koek bakarrik jarraitu zuten «erregeak Eliza zaintzearen» aide.

Urte orren abenduan ziñatu zuan Federik Gillermo IV'ak Prusi'rako, Elizari askatasun osoa ematen zion Kostitutzioa. i i iAizu! ! ! iPrusi protestalarian katolikotasunari askatasun betea ematen zion kostitutzioa! ; jota Laterriaren ikastoletan dotriña erakusteko almena! ; ieta, —«Plaeet» etu «Exequatur» zital aiek desegiñik—, Lrroma'rekingo artueman guztietarako lasaitasun osoa! , igotzai ta kargu guztien izendaketa , gobernuaren partetiko eragozpenik gabe egin aal izatea! ... Arrazoi osoarekin deitu zion Koloni'ko Goigotzai Ton Geissel Kardenalak kostitutzio uni «neurte ezin daitekean garrantziko gertakizun zoriontsua».

Laister Babiera katolikoan baiño obeto zegoan Eliza Prusi Lutertarrean. An, Erregea bera ere katolikoa zan, baiña autokrazi-zalea; emen biztanleen irurdena bakarrik zan katolikoa, baiña liberaltasuna zegoan politikan nagusi: askatasuna. INor arritu Alemani'ko elizkidek, ugari, liberaltasunari begi gozoz begiratzen asi izateaz?

Frantzi'n..., ostera errepublika ezarri zanean, bildur biziak jo zituan katoliko geienak, oroi bait zituzten Lenengo Errepublikak egin zituan geiegikeriak, baiña an ere laister oartu ziran askatasunak zekarzkien bentaja guztietaz' Baita ere ikusi zuten Bigarren Errepublika Lenegoa bezalakoa ez zala izango, Iraultza bora ere, 1848'an, 1789'an izan zana bera ez zalako'

Sozialista zan Frantzi'n orain Iraultza; erdi-anarkista, obeto esateko; eta, batez ere, burgesiaren aurka zijoana; burgesi au katoliko izan edo liberal izan, ez zitzaion oraingo iraultzari ajolik; propietatearen aurka zijoan, eta baita propietate-modu lotsagarri tira sortarazi zuan eta babesten zuan Autoritatearen aurka ere. Bildurrak alkartu zituan, orrela, katolikoak etu liberalak; «La Peur Rouge», edo «Iraultza Gorriaren» bildurrak.

Sinist-egia bezain donea zan katolikoentzat bakoitza-bere-gauzen-jabe-orokor-izateko-almena: «le dogme sacré de la propriété». Alaxe zan aientzat gauza donea karriketako pakea ere: «l'ordre»: jendearen baretasuna, urietako karriketetan eta landetako bideetan iskamillik ez izatea. Baretasun ori eta jabegoa zaintzearen eginen dira zori txarrez katolikoak, ineurritik-gain! , burgesiaren babesle. Gaiñera, azkenean, anarkismoa ez baiña liberaltasuna irten bait zan 1848'ko Iraultzan garaille, txastatu aal izan zituan frantziar-elizak, demokrazi-erak lanerako eta batez ere urne ta gaztediaren eziketarako eskeintzen zizkion egokitasun gozoak.

Egia esateko, ez zan asko zabaldu Frantzi'ko Elizaren barnean liberaltasuna. Errege-zale eta autokrazi zarraren aldeko jarraitu zuan an kristaudi geienak eta gotzaidi ia danak; eta apaizdiak. Orrela, Koldobika Bonaparte, Bigarren Errepublikaren lendakaria, gero ta geiago diktaturtzara okertzen ari zan neurrian ari zan okertzen, aren alde, katolikoan naimen ona.

Ta, arek, Irugarren Napoleon izen-artuta, bere burua Inperatore biurtu zuanean, osoro bereganatu zituan eliztarren biotzak. Ez zan peitu, auen artean, «Karloman Berri» esan zionik ere. Altaguztiz, katoliko ikasien artean sakon erroturik zegoan ordurako erkaltasuna-ta, naiz ugaria ez, bizkorra ta garrantzi aundikoa izan zan an ere, liberal-katolikoan Alderdia.

Ugaritzen joan zan gaiñera Alderdi katoliko-liberal ori , eta bizkortzen, denborarekin; batez ere III Napoleon ain era lotsagarrian jausirik, berriro Errepublika, Irugarren Errepublika, jaio ondorean, Frantzi bakalduntzara, errege baten menpera, eramaterik ez zegoala adimen-izpi bat zuten guztientzat argi gelditu zan ezkeru.

Demokrazia zan orduan Frantzi'n Elizarentzat bide bakarra, Belxika'n bezala, auteskundeen bitartez antikleritasunaz jotako Irugarren Errepublika aren parlamentuan eta gobernuan katolikoak sartzeko' Montalembert kontea eta Dupanloup, Orleans'eko Gotzaia, ziran Frantzi'ko katoliko liberalen buruzagiak; gizon argiak eta katoliko zintzo-zintzoak biak.

Baiña ez zuten Pio IX'aren konfiantzarik irabazi aal izan eta Erroma'tiko aizeak zimeldu zuan liberaltasun katolikoaren bizkortasuna.

Agian, Pio IX'a Errege izan ez balitz'..! Aitasantua Errege izateke, onuragarria izanen bait zan Erroma'n ere Elizarentzat, beste bazter guztietan bezela, 1848'ko Iraultza."! Baiña Errege zan Pio IX'a. Eta Iraultzak..., erregetza kendu nai zion: Pio'ren ustez Elizaren askatasunaren estalkia zan erregetza santu ura!

Gaiñera, oraindik Frantzi'n eta Españi'n, Portugal'en eta Itali'n, katoliko geienak errege autokraten zale ta liberaltasunaren etsai beroak ziran. Frantzi'n Dom Guéranger beneditarra eta Pio Poitiers'ko Gotzaia, aipatu oi dira katoliko integristen buruzagi; eta baita Luis Veuillot periodista ere; apaizjendearen gustorako, idazlerik atsegiñena, azkeneko au.

Baiña ez zan frantziarra izan, Españi'koa baizik, garai artako antiliberal-tasunaren filosoforik argitsuena eta bikaiñena: Juan Donoso Cortés, (1809-1853)' Bere idazkirik garrantzitsuena, «Ensayo sobre el catolicismo, el liberalismo y el socialismo» deritzaiona da, 1851'an argitaratua, eta bereala Frantzi'ko izkuntzara, eta gero Alemani'kora, itzulia. Politika-gaietan, Donoso Cortés, Maistre eta Bonald tradizionalisten ikasle dugu, eta punttu askotan, baita aien jarraile ere.

Izugarria zan katoliko integrista, edo, —beraiek beren buruei deitzen zieten moduz, «katoliko uts», «eatholiques tout court»— aiek liberaltasunari zioten gorrotoa. Gorroto ori izan zan Lspañi'n iru karlisten guduak piztu zituan txinparta, naiz Katalauni'n eta Euskalerrian Ama Lurraren askatasunak naspil aietan parte txit aundia artu.

Orobat gertatu zan Portugal'en ere. Eta beste lurraldeetan jendea izkillu-tara iritxi ez ba'zan, ez zan noski integristak artarako gogorik ez zutelako izan; indarrrik aski ez zeukatelako baizik.

Bazuan mamirik, «katoliko uts» aien arrazoiketak: Ikusten zuten, len jende jakintsua joan zan bezala, orain erriko jende xea ere Elizatik kanpora zijoala; eta liberaltasuna zala uste zuten gertakizun orren sustraia, liberaltasunak ikastolak laiku biurtzean ikastoletatik erlijioa baztertu zualako, eta askatasun orokorraren bidez liburu eta izparringi gaiztoei ateari iriki zizkielako. Gaiñera, gutxitzat jotzen omen zuan erriko jendeak Eliza, Laterriak, —Laterri liberal erlijio gabeak—, Eliz ori ezertarako aintzat artzen ez zuala ikusten zualako. Bearrezko omen zan beraz, erriaren sinismena babesteko, «askatasun galgarri» ura desegitea: bearrezkoa Laterria Elizaren zaindari hiurtzea; bearrezkoa, errege eta agintari oro, —Jainkoaren izeneko eta Aren ordezkariz ziran errege sagaratu aiek—, Aitasantuaren esanera ta serbitzura atzera berriz erakartzea.

Erdiaroko politik'era zuten pentsalari «katoliko uts» aiek eredu. Teokrazi zaarra zegoan aien oldozketaren muiñean; ain zuzen orduantxe, erromantikerak sentimenkeriz eta ametsezko lurriñez oker-edertutako Erdiaro mireagarri artako teokrazi ustela!

Gutxi-gora-bera, ez zebillen Pio IX'a ere pentsaera ortatik urrutit, batez ere, Gaeta'tik itzuli zan ezkeror, eta are geiago I 870'az gero Traultzak betirako erregetza kendu zion ezkeror.

Inguruko gertakizun aietan, Taungoikoa'ren eta T.nzifer'en arteko gudua-ren jarraipena ikusten zuan, artara bere idnrimen erromantikoiak eraginda. Fz zan liberaltasunaren auzi ura. —Estadutzako Idazkariak, Antonelli'k, uste ziran bezala—, diplomaziaren bidez zuzendu zitekean auzia, otoitzaren bitartez konnontzekoa baizik. Alde batetik Tainkoa zebillen borroka artan; bestetik, «la Revoluzione», Elizaren eskubideak, eta lurrak, zapalduaz. Baiña Tainkoa izanen zan azkenean garaille. Tainkoagan zeukan Pio IX'ak itxaropena, eta bera eta bere ingurukoak mirari baten zai bezala-edo bizi izan zirala dirudi Batikano'an katigu.

Bitartean, Aitasantuaren eginkizuna iraultzari eua iraultzaren arma liberaltasunari guda egitea zan, oso-osoan deabrukeria bait zan libraltasuna, deus onik eta zuzenik sortu ez zezakean landarea. Oker zeuden liheraltasunean zerbait onik aurkitzea uste zuten katolikoek, itxurazko ontasunak besterik ez bait ziran niek; arras ondorio txarreko ondasunak.

Bildurrez zekusan Aitasantuak liberaltasuna teologi katolikoaren ikaskuntzan ere sartzen asi zala, ordurako artega ari hait ziran Doellinger Alemani'n eta Acton Inghlanderrian jakintsu katolikoentzat kultur-azterketarako askatasuna eskatzen. Pio TX'a berriz ez zegoan, ziurki, orrelako askatasun-printzik ere emateko asmotan, IEz zan bâ bera, ori egiteko, zentralista motela!!

«Malum Saeculi», «Mende ontako Gaitza», esaten zion liberaltasunari, eta uste izan zuan «erensuge» ari lepo-egiteko garaia iritxia zala. Asmo orrekin argitaratu zigun 1864'ean «Quanta Cura» edo «Nolako Aduraz» izen-eman zaion entziklika, eta, entziklikarekin batean, «Sallabus Errorum» neko 80 «Okerren Zerrenda».

Oñaztarria lez jausi zan idazki bikoitz ura Elizaren erdian; samiñez eta kontzientziko kezka-oiñazez beterik laga zituan katoliko liberalak; arrokeriz anpaturik, eskubitar integristak.

Pio IX'aren utsa, katolikuen liberaltasuna eua razionalistena ezberdiñak zirala ikusi ez izatea izan zala esan oi dute edestilariek. Baiña, gure ustez, uts ori beste aurreragoko uts baten ondorio besterik ez zan. Pin IX'aren okerrrik aundierna, margo bakar bateko jendez bere burua inguratzea izan zan. Jende eskubitar integrista bakarrik bildu zuan, jaurlaritzarako, bere ingurura, eta integrista aiekin bakarrik izan oi zituan kontsulta guztiak.

Orrela, zearo mundutik baztertua gelditu zan, Bere aurreko Gregorio XVI'ak Lamennais patxadaz artu ez zuan bezala, Pio TX'ak ez zituan bere denborako liberal katolikoak artu' Eta Pio'ren okerra aundiagoa da, Lamennais'en aldean bestelako gizonak hait ziran Orleans'eko Dupanloup, Koloni'ko Gessel, Mayentza'ko Ketteler, Westminster'ko Wiseman, eta beste ainbeste elizgizon onuragarri, eta Montalembert bezalako sekularrak'

Geldi ta poliki aztertu ezkerro, Aitasantuaren idazki bikoitz arek ez zekarkian deus berririk. Eta zerbait herririk bazekark'an, ori, Pin TX'aren onorez, Hegel'ek sorturiko Lateral-Gurketa totalistaren gaitzespena zan.

Jakiña da Hegel'ek bere «orojainkotasuna», panteisrnoa, politika-arloan amaitzen duala, Jainkoaren azalpenik sendoena Lateralria dala oles egiñaz. Oro da Hegel'entzat Jainko, Jainkoa izadi biurtu zalako, Baiña Jainkoa ez da izaki guztian era berean mamitu; bizirik-gabeko izakietan aulago, eta bizi-dunetan sendoago, baizik. Eta bizi-dunetan ere ez danetan berdin, bizidunen saillean ez hait dira izaki guztiak bikaintasun berekoak'

Bâ, bikañagoak diranei bikaintasunaren «geiagoketa» ori jainkoaren azalpen mardulagoak izatetik daterkie. Ain zuzen, Gizaldia izadi ooren buru ba'du-

gu, Gizadia Jainkoaren mamitzerik beteena dalako dugu. Ots! Gizadia; ez gizakume bakoitza, Hegel'entzat Kolektibitatea lenago bait da gizakume Soilla baiño; lénagoa, eta garrantzitsuagoa; bikaiñaagoa. Kolektibitate ori Izpiritu bakar batek igituriko Gorputza «organizatu» bat dalarik, gizakume bakoitza ez da Gorputz aundi orren gorpuzkia besterik: «Organismus» baten «cellula» edo gorpuzkiño txiki bat!

Orra or Franko'k, alako zalapartaz gorestu oi zuan «demokrazi organikuaren» oiñarria! Soin bateko zelula guztiek Buruaren bitartez itzegiten dute, eta Buruak, soin osoaren izenean itzegiten du... eta agintzen du. Soin guztiaren aurkezle da Burua; Soin guziko zelula guztiak daude Buruan aurkeztuak, errepresentatuak. Buruak ez du soiñeko zeluiei ezer galdetu-bearrik, zelula oiek ez hait dezakete Buruak nai duana bsterik gura. Ta, oietako batek Buruak nai ez duan zerbait naiko balu, zelula ura soiñ osoarentzat kaltegarria izango litzake; len-bait-len ezereztu bearra! Ori duzu «demokrazi organikoaren» barne-muiña.

Jarrai'zagun Hegel'en oldozkerarekin: Komunitatea Jainkoa Komunitate-biurtua besterik ez dalako, Jainkoa ber-bera da Kornunitatearen izpiritua. Baiñan, —Jainkoa Komunitate danetan berdin mamitu ez dalaren siñale—, munduko Komunitate edo ABENDA guztiak ez dira berdiñak hatzuk besteak baiño duintasun geiagokoak baizik. Orrela, margo beltzeko gizakumeen Komunitatea, margo zurikoena baiño duintasun kazkarragokoa da. Ta, enda zurien artean, «arioen» enda da bikaiñena; eta germaniarra, aritarren artean; eta, germanitarretan, Alemani! . Alemani Jainkoaren mamitzerik bikaiñera dalaren siñale!

Baiñan izadian oro hait dago «eratu» «organizatu», «eraturik» «organizaturik» egon bear du Komunitate batek ere, bikainki Jainkoaren mamitze egokia izan dedin. Giza-Komunitateetan, ordea, zalantzarik gabe, Lateralria dugu erakunderik bikaiñena. Lateralrian mamitu zaigu beraz osoenik eta mardulenik Jainkoa. Ta... giza-enda guztietan alemaniarrena bait da garaiena, Alemani'ko Lateralria, —«Deutsche Reich»—, dugu Jainkoaren azalpenik nagusia.

Orixe bera esango digute, gure denboran Hitler'en Nazional-Sozialistek: Alemani beste erri guztien gaiñetik dagoala: ori dala bere «bokazioa». Ta Alemani'ren bokazio ori betetzeko emango diote su mundu osoan «Deutschland, Deutschland tiller alles», «Alemani, Alemani guztien gaindik» abestuz.

Pio IX'ak Syllabus idatzi zuanean ez zan oraindik «totalismorik», —«Lateralria Jainkotzat gurtzerik»—, munduan agertu. Ez bait zituen oraindik Hegel'en filosofiak bere ernani guztiak argitara jaurti, baiña ikusi zuan aurretik Aintasantuak ainbeste odol ixurtzekoa zan «Lateralri-Gurketaren» etorrena, eta etorri aurretik gaitzetsi zuan. Pio IX'aren meritua da ori.

Ortaz landa, ez du merezimendu bereizirik, ez du ere indar aundirik «Syllabus» zaratatsu arek. Geiago dana, Pin IX'ak uste zuan baiño mottelagoa irten zitzaiola, esatera ere ausartu gindezkela iduritzen zaigu. «Se revolvie-



ron los gabinetes europeos y ciertos sabios, parte por entender mal el verdadero sentido, parte por sectarismo»: «Bai gaitzespenaren egiazko zentzua gaitzki ulertu zutelako, bai Elizaren gorrotatzaille ziralako, naasi ziran Europa'ko jaurgioak eta mota bereizi bateko jakintsuak». «(Llorca-Villoslada).

Ortik: era ezberdiñetan ulertua izan aal izatetik, zetorkion Idazki ari bere indar-falta' Baiña laister erantsi eta anpatu zioten, Aitasantuak eman ez zion indar ori, Frantzi'ko izparringi «ultramontanistek» ,uek ere beren modura irakurri eta ulertu bait zuten ain atsegin zitzaizen dokumentu ura.

Pio IX'ak ez zuan inoiz orrulari zakar aiek baretzeko deus egin. Gogo onez aditu zituan, entziklikari garra bizia ematen ziotelako. Orregaitik esan dugu, agian berak nai baiño mottelagoa irten zitzaiola idazti ospetsu ura'

Gaur, urrutitik so egiten diogularik, idazki arek on baiño gaitza geiago egin zuala esan genezake'

Eliza gorroto zuten liberalek ozenki erabilli zituzten Aitasantuaren esakera garratzak, Eliza demokraziaren arerio eta despotikeriaren adiskide zala oiu egiteko.

Apaizjendeari okerki begiratzen zioten liberal guztiak ordea, ez ziran sinisgabeak, eta askoz gutxiago kristautasunaren etsaiak: apaizjendearen geiegikerien etsaiak bakarrik ziran. Tamalez, liberal uek ere, «Syllabus» irakurtzean, kixazko politika baterako Elizarekin arremantetan asterik ez zegoala uste izan zuten. Eta ori izan zan idazti aren aurreneko gaitza: asmo oneko demokrazi-zaleak Elizatik urrunaraztea.

Integristak, «katoliko utsak», zorionaren gaillurrean zeuden. Neurririk gabe erabilli zituzten mingaiñak eta lumak liberal katolikoek zigorketan. Orra or Syllabus'en bigarren kaltea: Eliza-baitan karitatearen urratzea.

«Quanta Cura» entziklikaren zati bezala izan zan argitaratua «Syllabus» doakabe ura 1864'eko Abenduaren 8'an. Zanpaturik eta txunditurik utzi zituan liberal katolikoak; Aitasantuak Elizaren altzotik botatzen zituala uste izan bait zuten. Ain era zakar baldarrean zetorren idatzia! Baiña, gero, astiroago, bigarren irakurpen baten ondorean, errez ikusi zuten Aitasantuaren gaitzespenak ez zituala arrapatzen.

Azala zan Idazti aietan gogorra, ez mamia.

Politikaren eraketari-buruz, bi gauza debekatzen eta gaitzesten zituan Aitasantuak:

—Anarki utsa besterik ez dan demokrazia' Ta'.., ori, ez zan, ziur, liberal katolikoek babesten zuten demokrazia!

—Auteskundeetako zenbakien kopurua moralitatearen iturri guren biur-tzen zuan demokrazia. Ori ordea, Rousseau'ren demokrazia zan; ez liberal katolikoena'

Ala batere kezkarik gabe jarraitu zuan demokrazia agintzen Laterri Alkartuetan, Belxika'n, Olanda'n'.. eta, —ez noski arrezkero denbora luzera-

ko—, gure Eusko-Laterrietan! Ilz zuan Laterri auetako demokraziak zertaz kezkaturik. Ez bait zan ura Aitasantuak galera zuten demokrazia.

Laterri-barruan gizarteko antolaketari zegokionez, auek dituzu Aitasantuak gaitzesten zituan atalak:

—Lekaidetxe ta konbentuei bizitzeko eskubidea kentzea;

—Erakusketa osoa Laterriaren eskuetan bakarrik ipintzea. Elizari bere ikastetxeak eratzeke eskubidea ukatzea.

Betenez erlijio guztiak balio berdiñekoak dirala erakustea, eta Laterriak erlijioaz zertaz ajolatu-bearrik ez duala, *lege* egin nai izatea.

Atal oietan danetan, bat zetozten IX Pio eta mundu guztiko liberal katoliko danak.

Baziran ala're beste iru atal beren muñetan eztabaida mingarriaren azia zekartenak:

—Laterri- ta-Elizaren-arteko-bereizketa.

—Laterriaren «laizizatzea»; ois, Laterriak Erlijio bat ez izatea.

—Irarkolen askatasuna; berdin dana, edonork bora gogoetak aldarrikatu aal izareko askatasuna.

II Batikan-Kontzilioa ezkerro, argi daude gaur iru atal oiek ere kristau ororentzat. Orduan, Dupanloup Gotzaia izan zan iru atal oiei agiazko zentzua eman ziona: eunen bat urte geroago XXIII Jon'ek emanen ziena bera'

«Dupanloup'ek Pio'ren bi idazti aiei «gaur-eguneko izkerara itzulpen berria» «la traduction en langue moderne» egin ziola, diosku Deschamps edes-tilariak.

Txit arrera maitetsua egin zitzaion Dupanloup'en idazlanari, Europa'n eta Amerika'n.

Ez guztien partetik, asarre gelditu bait ziran eskubi-ezkerreko gogorkeri-zaleak: esclubiko integristak, idazki ura liberaltasunari bizia birrematera zertorrelako; eta, ezkerreko antikerikalak, idazki arek Eliza ta demokrazia etsaiak ez zirala argi ipintzen zualako.

Gogorkerian eta zipozkerian berdiñak ziran bi ertzetako jendeak: alkarizketa ororen etsaiak konponketa paketsurik gura ez zutenak, beren pentsaera beste guztiei indarrez artuaraztearen maitaleak, 'Lori txarrez, ertzera-ko'i *edo* «estremista» auek gelditu ziran politikaren jabe Eurapo'ko Laterri askotan.

KatoLikoak, katoliko «irikiak», Aitasantu zarrari bildurrez, baztertu egin ziran Erri-arazo ta Laterri-auzi guztietatik; ikusten bait zuten Pio IX'a, gero

ta geiago, integristen besoetan babesten zala eta liberaltasunaren etsairik itxue-  
nak gero ta gozoago artzen zituala.

Ta ori izan zan entziklikak ekarri zigun irugarren kaltea: liberal katoli-  
koak bazterreraztean, urte batzuen luzaroan Kristaudiko politikaren ugela  
ertzerakoien, ots, estremisten, eskuetan ipiñi izatea'

Egun-sentiaren izpi alaigarriaren antzekoa izan zan liberal katolikoentzat  
Leon XIII'aren aitasantu-sagaratzea, era berri baten asiera izanen zala ziur  
ikusten bait zuten'



## AITASANTUTZAREN ALMENA SENDOTZEN

Laterri baten «erdia», «gunea», Laterri orren Uriburua da. Beraz, «zentralismua» edo «erdirakuntza» Laterriko aalmen guztiak, «erdira», Laterriaren Uriburura biltzea dugu, Uri buru antan hizitzen dan Agintari Nagusiak Uriburu artatik Laterri osoan berak bakarrik agindu dezan.

Berdin de Agintari ori pertsona soil bat, Erregea adibidez, edo Prantzi'ko Errepublikan bezala Jaurlaritzza oso ba t izatea, era berean izango hait da «zentzalista», «erdirunzko'.a», Laterriko politilc'ra, Laterri ortan, bertako errialdeen nortasuna zapalduta, Urinanusiko Agintaritzza orrek bakarrik agintzen ba'du.

Agintari guztiak izan dira beti «erdirakuntzaren» zaleak, eta danen artean Borboiak bereiziki Europa'ko lurraldeetan. Cern, Argikuntzek eman zion erdiraketa orri indar berria eta Prantzi'ko iraultzak jaso zuan bere erpiñera; Maximilien Robespierre eta Napoleon Bonaparte'ren denboretan batez ere.

Espeñi'ra, Borboitarrek ekarri zuten g'zarteko gaitz ori, ta XIX mendean liberalek eraman zuten bere azkeneko mugaraiño. Orregaitik serin zan ain sutsu, bere eskubideen *aide* borrokara, karlisten guduetan gure Euskalerrria; eta baita Katalauni'a ere.

Españi'n bezala Furone guztian ipiñi zuan modan liberaltasunak «erdiruntzkeria» emeretzigarren mendearen luzaroan, eta Eliza ez hait daiteke bere denborako oituretatik lande bizi, sartu zan, Pin IX'eren denboran batez ere, Eliza, «erdirunztasunaren» bidetik.

Pio IX'a bera oso-osoan erdiruntz-zale —eta aundia gaiñera— izan zanik, erin dezake iñork ukatu. Zaletasun bero ori ordea, ez zion agintaritzza-naiak sortzen.

Pio IX'ak ez zuan agintzeko Jeierik. Baiña maite zuan Eliza. Eliza arrisku aundian ikusten zuan: liheraltasunaz, berak «malum saeculi» edo «mende ontako gaitz bereizia» esan oi zion izurriz kutsutua izateko arriskuan'

Ez zuan Kristaudiko gotzaidieten federik, gotzaidi aiek agintarien aurrean, edestia-zear, hein baiño geiagotan eulegiek izan zira ta ondo zekialeko' Bildur zan, orain ere auleri arek agintari liheralen oiñetara bear baiño geiago makurtuko ez ote zituan. Orrexegaitik nai izan zuan Elizaren agintaritzza guztia bere eskuetara bildu: ain maire zuan Eliza arrisku guztietatik gordetzeko'

Ala ere, Elizaren baitan, «erdirunzkeria» ez zan «erditik» sortu, «ertzetatik» baizik. Ez zan Aitasantua izan eskubide geiago eskatu zuana. Ez zuan Aulki Donearen serbitzuko jendeak, ez zuan Erroma'ko erriak ere Aitasantuarentzat lendik onek bazuana baiño geiagorik deus eskatu.

Are geiago, «zentralismoa» Eliza-baitan ernetzen ari izan zan urte aietan, .Aitasantuak, —Pio IX'a, Leon XIII'a, Pio X'a—, arreta aundiarekin ibilli ziran beti, naiz berak «erdiratze» orren maitale izan, Laterrietako gobernuan asarrearen bildurra zutelako'

IX Pio'ren denboran ere, «erdirakeria» ez zan Erroma'ko Elizan sortu. Beste Elizak izan ziran Erroma'runtz so-egiten asi ziranak, Aitasantua-  
ren babesaren billa.

Bi izan ziran, Europa'ko gotzaidiek Erroma'runtz jotze orren arrazoiak: Politikaren aldaketa, eta Aitasantuen ospea.

1."—Politikaren aldaketa. Ordurarte Laterrietako Agintariak Elizaren zaindari ziran. Erregeak aukeratzen zuan nor gotzai izan; Erregea eta gotzaiak adiskide kutunak ziran, eta, Laterria ta Eliza, izaki baten gorputz-eta-  
-anima bezala. Gotzaiak ez zioten Aitasantuari maitetsuegi begiratzen. Najago ba'duzu, usan dezagun Aulki Donea, ots, Elizaren Jaurgoa zala begi xamurrez ikusten ez zutena, Aulki Doneko kuriatarrek gotzaien eskubideak moztutzen zituztelako. Gaur-egun baino aundiagoak etsitzen zituzten orduan gotzaiak beren buruak, beren aintza, beren almena.

Otoi dezagun, gaiñera, nola zegoan gotor erroma gotzaidietan, errialde bakoitzeko Elizaren eskubideai-buruzko begirunea, adi bidez «Eliz Galitarraren eskuhideci-buruzkoa» Prantzi'ko gotzaidiaren baitan. Ez dezagun aantzi buste puntu garrantzitsu bat ere: aski zabaldurik zegoala gotzaien artean Aitasantuak bure almenak «gotzaidiarckin batean» eta «oitura zarren araura» bakarrik erabilli zezazkeala uste zuan aburua.

Eta gotzaiak bezala erregeek ere Aitasantuaren almena azitzeari bildur bait zioten, erregeak izaten ziran beti-ere gotzaien «nortasunaren» babesle'

Baiña 1789, 1830, eta 1848'garren urteetako iraultzen ondorean zearo aldatu ziran gauzak. Arrezkero erregeak ez baiña Jaurlaritzetako Agintariak ziran agintzen zutenak, eta agintari aiek ez zitezkean inolaz ere gotzaien babes izan, arerio baizik, ia danak antiklerikalak ziranez gero. Aiengandik ez zezakean Elizak diru-laguntzarik itxaro. Alderantziz, bere ondasun guztiak kendu zizkioten agintari aiek Elizari. Girorik atsegiñeneko Laterrietan ere, laikua zan Jaurlaritza, ots Elizagandik osoro berezia.

Elizak, egoera ortan, Aitasantuan bakarrik aurki zezakean bere babesa; izan eru, aundia bait zan oraindik munduan Aitasantutzaren itzala. Orregaitik, Erroma'runtz, Elizaren erdiruntz, jo zuten Kristaudi osoko gotzaiak.

Libertaltasunaren saiets-ondorio eder bat dugu beraz, gotzaien eta aitasantuen arteko alkartasunaren sendoketa'

2"—Demokrazi-aroko Aitasantuen ospea. Iñoiz baiño maitatuagoak izan ziran aro ontan Aitasantuak, eta maitasun orrek eraman zuan «erdiruntz» kristau jende arruntaren gogo. Apaizak, Kristaudiko Apaiz Jaun agurgarriak, erromazaleak genituan danak Irultza'ren sorkundea ezker. Ikusiko dugu gero Apaiz Jaunek Erromazale izateko beste arrazoi bat ere bazutela.

Erriaren biotza, Pio VI'aren eta VII'aren guruzbide neketsua ikustean irauli zan Aitasantuaren aidera maitetsu. Maitasun ori berriz Pio IX'aren denboran igo zan gaillurrera, orduan egin bait zan, erri learen ustez, Aitasantu bati egin zezaiokean iraiñik audiena: erregetza kendu!

Egia da Napoleon I'ak ere Pio VII'ari erregetza kendu ziola. Baiña, edo Napoleon basapisti arroputz bat zalako, edo Bitor Imanol II'aren izenean egindako bigarren arrapaketa au era ustelagoan egina izanik Kristaudiari nardagarriagoa gerta zitzaiolako, edo Pio IX'ak jendearen maitasuna bereganatzeko karisma edo doai bereizi bait izan zualako, iñoiz baiño geiago sentittu zuan kristau-jende arruntaren biotzak Aitasantuaren oraingo naigabe au' Pio IX'aren izena hein da berriro aipatzen zan Kristaudiko sukalde-bazter guztietan jende apalaren artean.

Erroma'runtz, «erdiruntz», iraulia zegoan beraz Kristaudi arruntaren biotz osoa, eta arrazoi naikoa zan au, oraindik zalantzan ibilli zitezkean gotzaien biotzak ere «erdiruntz» eramateko.

Baiña Pio IX'ari erregetza kentzea liberaltasunaren errua bait da, ara nola, erri learen «erdiruntze» ori ere, liberaltasunaren saiets-ondorio dugun; ondorio bikaiña!

Aurreneko «erdiruntz-zaleak» idazle «ultramontanistak» izan ziran, eta aien artean, leenena, Jose Maistre saboiatarra. Oroi, ultramontanistetaz lenago esan dugun au:

«Ultramontanisme», Frantzi'n sortutako esakizuna dugu, eta, itzez-itzez, «mendiz-aruntza-tasuna» esan nai digu; edo «mendiz-aruntza-keria», «ultramontanismua» maizenik geiegikeriz lausotutako aburua izan zala kontuan artu nai ba'dugu. Esakizun orrek aipatzen dizkigun «Mendiak», Alpeetako Mailloak dira, eta mendi aietatiko «Aruntza», Erroma'ko uria, eta batez ere, zuzen-zuzenean, Erroma'ko Aitasantua dogu; Frantzi'tik so-egiñezker «Alpemandietatik aruntza» hait daude Erroma, eta Erroma'ko Aitasantua. «Ultramontanismua», beraz, Aitasantuaren agintea goratzen zuan aburua izan zan; erlijioaren arloan, bai noski, bai; baiña, baita, askotan, politikarenean ere.

\* \* \*

«Mendiz-aruntzatasuna», katoliko zintzo Eliz-maitaleek galikeriari eta josepekeriari emandako erantzuna izan zan. Erregekeri-zaleen atzaparretatik Eliza askatzeko era bakarra, Eliz ori Aitasantuari al zan geiena zuzenean Jotzea zala uste izan bait zuten!

Maistre'ren atzetik bere ikasle Lamennais'ek jarraitu zuan ultramontanismoaren alde lanean. Apaiz bretoi biotz-bero onura aburu danak bezala, bere ultramontanismoa olerki-joku ba , geiago zan teologi-sistema bat baiño: ainetsezko duaiez sasi-edertutako teokrazi bat, Aitasantua egiten bait zuan gizarte osoaren auzi guztien epaille Nagusi eta Zuzendari Garaia. Une aicantxe erromantikeriak ainbeste jasotzen zuan erdi-aro artako teokraziaren berbizkundera zan, puntu askotan, ultramontanismo ura. Gero, —apaiz bretoi gizagaixo ark aitasantua, Eliza eta sinismena bera ukatu zituanean—, aren ikasleek artu zuten, irakaslearen teokrazikria lagata, I za Aitasantuen eskuetara eramateko borroka.

Esan dezagun, «mendizarunrza-zaleen» aintzaz , on aundia egin ziotela Llizari, aitasantutzaren garrantzia kristau g.iztien begien aurrean argi ipiñi zutelako. Baiña aiek izan ziran, orrela , Gregorio XVI'aren azkeneko urteetan asi zan «erdiruntzketari» bidea prestatu ziotenak.

Ez dezagun ala ere uste, Eliza-baitan danak «zentra'izatz» orren aldeko ziranik. Kezka aundiarekin begiratzen zioten lenen-mendeetako kristautasun zarraren maitale ziran teologilari eta arkeologilariak; aurreneko denboretan izandakoa baiño autoritate geiagorik ez zuala Aitasantuak izan bear uste bait zuten. Beste batzuek, gotzaiak aitasantuaren morroi izatera iritxiko ote ziralaren bildurra zeukaten. Baziran, Kristaudiaren zati bakoitzak —bere nontasuna eta bere kristaukera bereizia naitanaiez bazterrera botata\_\_\_, Erroma'ko oiturak, ots, italiarren eraspentak eta italiarren kristautasuna-bizitzeko-erak, artu bearko zituala bildur zutenak. Aurkitu z tekean, gaiñera , oraindik, Austri'n eta baita Frantzi'n ere, erregekeri zarraren araura moldatua zegoan gotzai bat baiño geiago.

Itz batean esateko, asko ziran italiarren nacusitasunari eta aitasantuen diktaturari bildur aundia zioten elizkide bikaiñak, era danok dakian aiek zerabilkiten bildurra ez dala arrazoirik aski gabekoa. Baiña , alatagutziz. Pio IX'ren denboran Kristaudia , ia dana, Aitasantuaren aldekoa zan.

Jakintsuen idoroketa berriek, bestalde, eskiirakoiagoa egin zuten mundua. Ala, lurriñaren indarra itxasontzietan eta bultzietan erabiltzeak, bertago ipiñi zituan bata laestearengandik munduko bazter guztiak , eta orrek bultzaketa aundia eman zion, aurreruntz, «erdirakoitasunari» , bai Laterrietan bai Elizaren altzoan, orain nun-naitik Erregearengana edo Aitasantuarengana joatea, len baiño askoz errezagoa bait zan.

Esan dugu, apaizak aitasantuzaleak izan zirala beti. Frantzi'koek, izan zuten gaiñera arrazoi bitxi bat ortarako, VII Pio'k Napolcon'ekin egin zuan konkordatoaz gero.

Konkordato ark, gotzaien eskuetan uzten zituan Frantzi'ko Elizaren g o-bernua ta administraketa, orrela gotzai aietako bakoitza bere elizbarrutian «aitasantu txiki» biurtuaz. Apaizak nora jorik gabe gelditu ziran'



Ez zuten Aitasantuarengana jotzerik. Frantzi'tik Erroma'ra joateko naita-  
naiez Napoleon'engandik pasa bear bait zuan mundu guztiak Frantzi'n. Baiñan  
ez zitezkean Napoleon'engana ere urbildu, Napoleon'ek bere Eliza bere  
gudaroztea bezala tajutu zualako. Gudarozte batean maillaz-mailla jaso bear  
ditu edonork agintariarengana bere keja guztiak. Ala, apaizek ere gotzaien  
bidez igo bear zuten Napoleon'engana... gotzai aien berberen geiegikerien  
aurka!

Baiki, babesik gabe gelditu ziran Frantzi'n apaizak; eta luzarorako gai-  
ñera, Napoleon jausi-ondorean ere, bizirik jarraitu bait zuan konkordato arek,  
Irugarren Errepublikak ezabatu zuan arte.

Apaizak, berriz, asperturik zeuden gotzaien gurarietara egon bearrez. Etsai  
ariñagoa izaten bait da urrundiko zakurra bertako txakurra baiño.

Eta onekin ez dugu esan nai Frantzi'ko apaiz aiek Aitasantua benetan  
maite ez zutenik, maitasun orren adibide ugari eman bait zuten konkordato  
ura jaio baiño lenago ere VI Pio'ren denboran.

Yavotasun hereziarekin eraman zuan Pin IX'ak Eliza-zentralizatze-  
koa, eta era berean jarraitu zuten Leon XIII'ak eta Pin X'ak, Tresna egokia  
zuten lan ortarako Josu-Lagundia. Beti izan bait da, azkeneko urteotan aldatu  
dan arte, Iñaki'ren Lagundia autokrazi-zale, Iñaki bera inperatore-zale izan  
zan bezala.

Iñakitarrenak ziran «Civiltà Cattolica» aldizkaria eta Gregoriana deritzaion  
Ikastola Nagusia.

Aldizkariaren bidez zabaldu zuten mundu guzira, integrismorik sendoen-  
arekin oretuta, Elizako agintaritzaz osoki Aitasantuaren eskuetara biltzea be-  
arrezkoa zalako ustea. Arras influentzi aundia zuan «Civiltà Cattolica»k. Aulki  
Donearen ahotsa bezala izaten bait zan artua. Ondo ezguna zan gainera al-  
dizkari ari IX Pio'k zion maitasuna.

Kristaudi guziko apaiz gazteak berriz, ugari ezitzen ziran Gregoriana Uni-  
bersitatean, Aitasantuaganako zaletasunik bizkorrean; gero gotzai izanen  
ziran apaizak, edota beintzat, bazter guztietako seminario eta ikastetxeetako  
irakasleak. Laister zabaldu zan Gregoriana'ko erakuspidea beste Erroma'ko  
Unibersitateetara.

Ortaz gainera bazuten Iñakitarrek eskurik naiko mundu guztiko Kristau-  
dian; atzera berriz Eliz Amaren anadirik dizdiratsuen Loiola'koaren Lagun-  
dia hait zan. Baiñan, orregaitik, beraiena dala dirudi neurri aundian, Pio  
IX'aren akats guztien errua!

\* \* \*

Iñakitarrekin batera, Nuntzioak ere tresna bikaiñak izan ziran Aitasan-  
tuaren eskuetan, Aitasantutzaren agintea Eliz osoan sendotzeko. Gero ta aun-  
diagoa zan nuntzioen almena Pio IX'aren aitasantutza asi zan une beretik.

Ordurarte Erroma'ko Erregeak Kristaudiko erregei bidaltzen zizkien enbaxadariak ziran batez ere nuntzioak. Emendik marrera Aitasantuaren begi, belarri eta esku izanen dira, elizbarruti bakoitzaren kontu eramateko seminarioen ariketa zaintzeko eta konbentuetako bizimodua ikertzeko bearbizunarekin, orotaz Aulki Donen jakiñaren gainean ipintzeko. Pio IX'ak ere, argi esan zuen nuntzioia «[liz osoaren Gotzai dan Aitasantuaren ordezkaria» zala.

Bcin bateau Madrid'ko Nuntzioak bizpairu itz esan zizkion gotzai bati, gotzai au karlisten alde sartuegia zebillelako. «Gozzai bat, edozein nuntzio baiño gorago dagoala Elizan», —idatzi zuan, bereala, integristen buru zan Kandiko Nosedal izparringilariak—. Eta, ori, «nuntzioa enbaxadari utsa besterik ez zalako».

Laister argitarazzi zuan Leon XIII'ak erantzuna: Nuntzioa enbaxadariz gainera, elizbarruti-bakoitzeko-Artzai-dan Artzai Nagusi orokorraren ordezkaria ere bazala, eta Eliza-ta-Laterria-arteko arremanci zegozkien auziak ez zirala gotzaien eginkizunak, Aitasantuarcnak baizik, eta, onen izenean, nuntzioarenak.

Gozzai guztiek Aitasantuari egitera bearturik dauden ikustaldiaz ere ederki baliatu zan Pio IX'a. Ikustaldi orri «visita ad limina» deitu oi zain latinez: «visita ad limina Apostolorum»: «Bidalicn atarici bisita». Au da: «Erroma'ri bisita, Erroma'n hait daude esakizun orrek aipatzen dituan Bidaliak —Kepa et Paul— obiraturik.

Zuzentasun osoan egiñarazi zien Aitasantu onek mundu guztiko gotzaietia, ordurarte axolagabekeri geiegirekin egin oi zan ikustaldi ura. Xeeetasun geiago eskatu zuan, ikustaldi aietan gotzaietia Aitasantuari eman hear zizkioten kontuetan, eta era berean beartu zituan Anaidietako Zuzendari Nagusiak ere kontu oiek ematera.

Zentralizatze aren arerioei egalak moztutzeko, Liburu Debekatuen Zerrendara sartuarazi ztivan Pio IX'ak febronikeri edo galikeri-kutsa nabarmcnegia zuten idazkiak; eta «erdiruntzko» igikundeia sendotzeko, arretarik aundiena ipiñi zuan gotzaien izendaketan. Al zuan toki guzt'etan berak aukeratu ni zituan gotzaiak; Laterri bakoitzeko gotzaidiari kasorik egin gabe, askotan. Eta Pin IX'ak aukeratutako gotzaiak, danak ziran aitasantuzale sutuak.

Geroago, Pio IX'ak, Anaidietako Zuzendari Nagusien autaketan ere kezkarik gabe sartu zuan bere besoa.

\* \* \*

«Erdirakoitza» orren bidean urrats garrantzitsuak izan ziran Andre Mariren Sortze Orbangabea dogma aldarrikatzea eta T Batikan Kontzilioaren ospakizuna, Kontzilio ontan eta dogma-aldarrikatze artan lausorik gabe azaldu hait zuan IX Pio'k Aitasantuaren utsezintasuna.

Aurreneko eginkizunak, Sorkunde Orbangabearen iragartzeak, argi baiño argiago laga zuan Elizan, Aitasantua, bera bakarrik, Jaungoikoagandiko Egien iragarle utseziña dala; Pio IX'ak, bakarrean, gotzaidiaz inguraturik egon gobe, bere almen utsez, iragarri bait zuan, Mari Birjiña orbangabe sortua zala uste izatea bene-benetako «dogmo» edo «egi sinist-bearra» dala.

Ots, ordea; Eliz osoak Pio IX'aren ekintza ori jakitean sentittu zuan poza bera dugu, Eliz osoak utsezintasun ori, eta Aitasantuek Kristaudiaren zuzenketarako almen guztiak beren eskuetan badituztela ziurki sinisten zualaren siñale ukatu-eziña, aitasantuek Elizaren zuzendaritzan gotzaidiaren on-iritzia bearrezko dutela pentsatzen zuten elizkide bakar aieI: ere ez bait ziran deus esatera iñon ausartu!

Bigarren urratsa, I Batikandar Kontzilioa, ez zan aitasantuen utsezintasuna aldarrikatzeko bildu, ez bait zan aldarrikatze orren bearrik. Utsezintasun osoa aitasantuek bazutela, argi laga zuan bâ IX Pio'k Sorkunde Orbangabea, iñoren eragozpenik gabe eta Eliz osoaren onespenearekin dogma egiterakoan.

Orregaitik, «utsezintasuna» ez zegoan Kontzilorako gertatu ziran gaietan. Pio IX'ak berak sartu zuan gero, ta aurrera aterarazi; eta, egia esateko, ez oso era pollitean. «Era» orrek ipini zituan «Erroma'ra agintaritza biltzearen» aurka, lèn «erdiratze-zaleak» izandako gotzai asko; diktatura baten bildurra sartu zitzaielako ezurretaraiño. Izan ere, izparringi «ultramontanisten» izkerak, eta batez *ere* «Civiltà Cattoliea» iñakitarraren izkerak, bildur ura sentitzeko gaiirik naiko ematen ziela aitortu bearra dugu.

Alatagutziz, bazuan Elizak Kontzilio baten bearra, denborak asko aldatu bait ziran Trento'ko Kontzilioaz gero: Politika arloan liberaltasuna nagusi zan; soziologiarenean bizkor zebillen komunismoa; elertia-baitan, razionalista biurtu zitzaigun «erromantikeria» 1863'an Ernesto Renan'ek «Vie de Jesus» edo «Josu'ren Bizitza» izeneko idaztia argitaratu zuan ezkerro; jakintzetan, posibitibismoa zan ia irakasle danen araua, au do, «cspirnentuen bitartez egiztatu daitezkean egiak bakarrik dirala fidagarri» erakusten duan aburua; aurkipen, asmakunde eta inbento berriek zearo aldatu zuten kultur-giroa, eta aldaketa orrek ondorio izugarriak zekarzkian teologiaren, Idazki Doneen, eta Eliz-Edestiaren azalpenera; ekonomia berriz, gizarte-era berri bat erenaarzten ari zan...

iBazuan Kontzilio batek zertan saiatu!

Alaber, ez zan Kontzilio bat egiteko asmoa Pio IX'aren buruan sortu; bestek eskeiñi zion, 1849'an aurrena, gogaeta zoriontsu ori, eta ez zion Pio'k jaramonik egin, emeretzigarren mendean Kontzilio baten egiteak Laterri<sup>8</sup> uztietako gobernuak asarretuko zitualaren bildur zalako.

Amabost urte geroago, 1864'ean asi zan Kontzilioari-huruz, Aulki Doneko kardenal adiskideekin kontsultak egiten, eta andik iru urtera jakiñarazi zion munduari Kontzilio aren billera egiteko asmoa sendo arturik zeukala, (1867).

Beste bi urte, eta 1869'ko abenduaren 8'an, asirik genduan I Batikandar Kontzilioa. Abenduaren 8'al iSortzez Garbiaren eguna!

Amabost urte lenago, egun artan bertan egin zuan egi sinesbearra, misterio ura, Pio IX'ak; eta baita bute utsezintasuna ere, era berean egin zuan dogma, urrats ura berak bakarrik persona',ki emanaz, eta iñork eragozpenik ipintzeke gaiñera emanaz, argi adierazi bait zuan lan esan dugun bezala, Aitasantuak dogmagintzarako almen beteada baduala.

Orregaitik, geiegizkacak iduritzen zaizkigu Kontzilioa gertutzerakoan IX Pio'k erabili zuan arreta bildurtia eta artu zituan neurri kezakatsuak, alperrik ikaratu hait zuan orrela jendea. Askok liste izan zuten bā, Aitasantuak Kontzilioa bere naikerien doiñura dantArazi nai zuala.

Kontzilioa prestatu bear rutan tekniku guztiak, Aitasantuaren beatez ankeratuak izan ziran, eta, —esan bearrik ez da—, zentralisterik zindoenen artetik artuak, jakiña. Erdiak, kurian bertan lan egiten zutenak ziran gaiñera: 60'tik, 36!

Tekniku artel: Aitasantuarekin bakarrik, iñillean gertutu zituzten Kontzilioaren arau, eskema, eta zertasan guztiak.

Tekniku-jende a□ dana gaiñera, «syllabnstarra» bait zan, Kontzilioaren bidez «Syllabus» erdi-aztu ura sagartzeko asmotan zebillela Aitasantua, sinistu zuten liberal katoliko batzuek, T)ocllinger'ek Alemani'an era Aeton'ek Inghlanderrian batez ere; eta eraso zioten Kontzilioari.

Tntegristek, berriz, batez ere Frantzi'ko apaiz, gotzai eta politikolari esku-bitar intenristek, ain zuzen «Syllabus» osoa sin'isiu Beko egi binrtzca gara intelako, Kontzilioaren alde sartu ziran bero-bertan\_ Luis Veuillot buruzagi zutela. Agian, integrista frantziar aiek, seguruaski, galikcri-zaleak izanen ziran eta Aulki Donearen nagusitasnaren etsai, Frantzi'n errege Borboi bat egon balitz. Baiña Bonaparte bat, Napoleon TTT'a, hait zan an Tnneratore, ultramontanismo rik nonorrenera jo zu ten danek.

Ori, —Kontzilioa osotu integristen eskuetan -zegoala ikustean—, atzeruntz egin zuten ordurarte Frantzi'n ain erromazalc izandako lihcral katolikoek. Integristen nagusikeriaren jausi zitczl:cala trai ikasten zut. nez landa, dogmari zczsolion beste arrisku bati ero baziotcn h,i bMurra: Kontzilio artan gotzaien almena itzalpean azturik geldituko zalaren bildurra: eta ala gertatu ere zan. Cure egunotan TT Batikandar Kontzilioal: bete bear izan du Taren utsunea, Gotzaien almena, Aitasantuaren» ukatu gabe, bore tokian jarriaz,

Izan ere, ondo adikaitza da Kristo'k, agintaritzaren arloan, Eliza eratzeko erahilli zuan modua. Bi agintari dira Elizan: Aitasantua cia Gotzaia. Gotzaia ez da Aitasantuaren morroi, eita ordezkari ere. Bere-berez da agintaritzadnn. Ez du agintaritzza Aitasantuarengandik artzen. zuzenean Tainkoagandik baizik. Ez du Aitasantuaren izenean agintzen, bere izenean baizik. Ez da Aitasantuaren ago. Berez da Agintari, Epaille, Irakasle. Egia da, —bestela ez litzake

Eliz-Gorputzaren gorpuzki izango-ta—, Gotzaiak bere ariketa osoan beste Gotzaiekin eta batez ere Aitasantuarekin alkartasun betean ari bear duala, baiñan alatagutziz, ez dezaioke iñork Gotzaiari berea duanik ukatu: Kristo'rengandik zuzenean artutako agintaritzaren bItartez, Kristo'ren ordezkari izatea, alegia.

Arrigarria Kristo'k Elizari eman zion erakundea: Aitasantua, sinispenaren oiñarri izateaz gainera, Elizaren elizbarruti bakoitzean bertako Gotzai bezain Gotzai ere bai hait da. Bi Gotzai ditu elizbarruti bakoitzak: bertakoa eta Aitasantua; bi Agintari, eta Jainkoagandik artutako agiotaritzarekin biak. Ziurki, estadista batek ez luke Laterri bat orrela antolatuko; baiña Eliza Laterri bat ez izaki misteriozko Yainkoaren-Erria naiz ik. Ez duen Kredoan, «Eliza sinisten dugula», alperrik esaten, Eliza, «ulertu» ez baiña «sinistu» egin bear dan mirari bat hait da.

Urruti zeuden orduan izkutuki auek, teologiaren ikasketa gaztaroan geiegi sakondu ez zuan Pin IX'aren burutik. Eliza salbatzeko, aitasantutzaren almena nai zuan bizkortu. Bildurra zien gotzai, aulegiak zirala uste zualako. Eta, edestiaren erakusketak, eta denbora aietako gertakizunek berberck, Aitasantuari arrazoi ematen ziotela ukatzerik ez dago. Neurri geiagorekin ibilli izan zitekela? Bai; baiña Pin IX'a ez zan neurri-gizona.

Gauzak ola «Civilti Cattolic»k sartu zuan anka, Aitasantuaren utsezintasuna Kontzilioan dogma egin beur zutela, gotzai mezue eman zitzaielako zuzmurrua zabalduaz. iEderra egin zuan! Une artaiixe, utsezintasuna (gin zan Kristaudiko eztabada guztien mintza-gaia.

—Sortaldeko ortodoxitarrak eta protestalari-mota guztiak, «papolatria» edo «aitasantu-gurketa» marruka asi ziran.

Elizaren etsaiak, apaiz-jendearen arerio danak, eta baita liberal zentzuzkoak ere, «utsezintasuna» teokrazirako bidea izango zalakotan zeuden, eta uitramontanisten izkerak, ematen zien noski artarako bidea.

Katolikoan artean, batzuk utsezintasunaren aurka zeuden. Gogor idatzi zuan Aitasantu bakarraren utsezintasuna ukatuaz Doellinger ospetsuak «Allgemeine Zeitung» izparringian. Teologilari onengaz gainera, esan ni dan baiño geiago ziran, «Aitasantua Elizarekin batean», au da, gotzaien baietsia berekin zuala itzegiten zuanean bakarrik, utseziña zala sinisten zutenak.

—Beste batzuek, eta auen artean katoliko liberalek Aitasantuaren utsezintasuna sinisten zuten; baiña ez zitzairen iruditzen egi ori munduaren aurrean une artan ozenki azaltzea egokia zanik! Zergaitik?

—Protestalariekin eta ortodoxitarrekin alkarrizketa orori «hideak istea izango zalako»

—Integristek utsezintasuna politikazko arazoetaraiño zabaltzen zutelarik Eliza-baitan iskamilia beltzak sortu zitezkealako;

—Iskamilla oiek Doellinger'en alderdiko unibersitate-jendea zismara

jaurti, eta Eliza mundutik, hatez ere jakintsuen mundutik, oraindik geiago urrunduko ote zualako'

Ez zan aundia utsezintasuna dogma-otsegitearen aurkako alderdi au, baiña bai ospetsua: jende azkarrez osotua. Aburu ontakoak ziran Rauscher Biena'ko Go:gotzai Kardenala eta Austri'ko Gotzai geienak; haita Frantzi'ko geienak ere Paris'ko eta Lyon'go Goigotzaiekin; Iparrameriketakoak, ia danak; Milan'go Goigotzaia; eta Sortaldeko iru Patriarkak.

Gaiñera Kontzilioa eratzeko Pio IX'ak zerabilkian modua ez zitzaien jende auei modu garbia iruditzen, eta ortan ez zitzaien arrazoirik falta. Baiña Jarregia zan zerahilkiten kezka, aien uztez Kontzilioan gotzaiak ez omen zuten hi) itzegiteko askatasunik izango; eta gotzaien agoz Aitasantuak bakarrik itzegin bear ba'zuan, ez omen zan Kontzilioa hiltzearen bearrik;

Erroma'k nai zuana, gotzaiak Aitasantuaren morroi eta Kontzilioa Pio IX'aren ahots-anpatzaille biurtzea omen zan.

Ez omen zan, gaiñera, orain utsezintasuna csamesetara atera bearrik, egi ori Eliz osoak sinisten zuala jakiña zalako. Azkeneko puntu ontan ez zuten arrazoirik. Egia van, aiek zioten au, urte-pare bat lenago, baiña Doellinger'ek «Janus» izenarekin «Aitasantua ta Kontzilioa» zeritzaion idazki bat eta utsezintasuna ukatuaz «Allgemeine Zeitung» izparringian bost artikulua argitaratu zituan ezkeru (1869), eta kristau-sail bat aren atzetik joan zan ezkeru, hear-bearrezkoa yuan Pio IX'ak Aitasantuen utsezintasunaren dogmatasuna argi ta garbi munduaren aurrean agertu.

Danadala, dogma-egite oni oportunitatea, adiontasuna, ukatzen zioten gotzaien buruzagirik ezagunena Dupanloup izan zan. «Le Français» eta «Le Correspondant» izparringietan azaldu zuan bere pentsaera.

Esan dezagun herriro, iñor atzipetu ez dedin, alderdi ontako jendeek ez zutela Aitasantuen «infalihilitate» edo utsezintasunik ukatzen, ezta utsezintason ori dogma zanik ere. Soilki une antan dogma ori aldarrikatzearen egokitasuna eztahaidatzen zuten.

—Aipa ditzagun orain utsezintasuna len-bait-len dogma iragartzearen aldeko ziran gotzaiak: Elizako gotzairik geienak, baiki. Deschamps, Malinas'ko Gotzai redentorista, adibidez; Inghlanderriko Manning; Antoni Maria Claret, Españi'ko Llisabcte'ren aitorlea... Ta, gotzaiekin, integrista guztiak: Guéranger abata beneditarra, «De la Monarchie Pontificale» deritzan idaztiaren egillea; Poiiers'ko Pie, laisier Kardenal izanen zana, eta Kontzilioan parte aundia artu zuana; Louis Veuillot, «L'Univers» izparringian argitaratutako amaika idazlan t;anor Aako.n egillea, izparringilari katolikoen artean.

Kontzilioa asi aurretik, deitu zien Aitasantuak protestalariei eta ortodoxitarrei entzule eta ikusle bezala Eliz-Batzar Nagusi artara etortzeko. Ez ziran etorri.

Inperatore, Errege eta gainherako Agintariei berriz, ez zien deitu; Au izan zan, orrela, Printzipeen begipetik iare bilclu zan lenengo Kontzilioa.

Zazpi illabete eta amaika egun irauñ zuan, Garibaldi'ren baionetek, amaitzeke moztu zuten Kontzilio onek. Zaratatsua izan zan; itz gogorrek esan zituzten, kontziliokideek, bata bestearen aurka; Utsezintasuna dogma iragartzearen aurkalcoei itzegiten ez azteko, iskamilla beltza sortu zuten iragarketa orren aldekoek txaloka, oiuka, marruka, lurrean ostikoka... Gizonak izaki Elizaren Asabak ere; soin ustelekoak; beste edozein gizakume bezala, abereak ber-berak bezala emearengandik oiñaze, odol, eta k<sup>i</sup> rats-artean jaiok'

Begira'zazu Billera Donc aren edesti laburra:

2.100 ziran gutxi gora bera, kristaudi osoan kontzilia joateko eskubidea zuten gotzaiak; oietatik, irurden bat, 700, bildu ziran Erroma'n; ia danak etu'oparrak; mixioetatik etorriak ere, —41 Asi'atik, 9 Afrika'tik— Europa'koak bait ziran jaiotzez; amerikarrak 121 izan ziran, oietatik 49, Laterri Aikartuetakoak; 18, Kanada'koak; 10, Mexiko'koak; 9, Brasil'koak..., Sortaldeko Eliz Katolikoek 60 bidali zituzten.

Kontziliotarren 035 italiarrak genituan eta baita teologilari laguntzailleen 2/3 ere; eta idazkari guztiak, Fesler austriarra izan ezik; eta 5 lendakariak. Benetan, italiarren kontzilioa izan zan I Batikandar Kontzilioa.

Teologilari, idazkari eta lendakari auek danak, gainhera, Pio IX'ak berak aukeratu zituan eta, —nola ez?—, danak-danak ziran ultramontanista portitzak. Ez zan orrenhesteren bearrik, utsezintasuna dogma iragartzearen aurka zeuden kontziliokideak menderatzeko, 136 baiño askoz geiago ez bait ziran aiek. 700 gotzaien artean, 136 bakarrik.

Baiña Pin IX'a Kontzilioa unetik-unera bere eskuetan tinko eukitzekotan zegoan, Billera Done ura egitea erabaki zuan ezkeroztik. Ona zer esan zien hein laguntzaille batzuei, Kontziliorako deiak Europa'ko izparringietan sortaarazitako iskamillaz ari ziralarik: «Iru aldi izan oi dituzte Kontzilio guztiek: Deabruaren aldia, gizakumeen aldia eta Jainkoaren aldia. Orain deabruarenean gaude; ez gaitezzen h3 eragozpen eta zarata oietaz arritu».

Deabruaren aldia Kontzilio-aurretiko izparringien zarata ba'zan, eta gizona, Kontzilio-barruko gotzaien eztabaida, Jaungoikoarena Aitasantuaren ekintza izanen zan: Pio IX'aren berberaren ekintza, erantzunik izan ez zeza-kean autoritatezko ekintza.

Eseraldietarako araudia, erreglamentua, Pio IX'ak berak ezarri zuan autoritatezko agindu baten bitartez. Araudi ortan agintzen zanez, kontziliokideen asmo, aburu, eta gogaeta guztiak, Batzarrean agertu baiño len, ultramontanistez osotutako komisio eta batzordeetara aurrena, eta gero, Aitasantu berberaren lan-maiera aurreratuak izan bear zuten, Pio IX'aren eskuetan tinko zeuden orrela Kontzilioaren ugelak, zalpurdi bateko zaldienak gurtzaiñaren eskuetan lez.

Gotzai askok uste izan zuten Aitasantuak ez zituala aiek merezi zuten

omen eta konfiantzaz artzen, eta, aien izenean, Dupanloup'ek Pessler'i, Kontzilioan italiarra ez zan idazkari bakarrari, idatzi zion saminki; baña kontzibokide geienek, eskutitz ura «Aitasantuaren eskubideen aurkakoa zala» erabaki zuten; «Aitasantua, orotarako Elizaren Zuzendari Nagusia» omen zan b.ñ! Bazekian ori ondo Aitasantuak eru, eta berak prestatutako araudi ura onartzera bearta zituan kontrailiotarrak.

Ala ere, askatu zuan pixka bat eskua, —ugelak lagatzek, noski!—, eta izan zuten gotzaiek, aitasantuaren aldetik, Kontzilioaren aurrean iareki itzegiteko eskubidea; ez, ordea, kontzillokidcen, tldctih! ultramontanistek ez Hait zIeten kontrakoci, nirl: gura zutena pa vadEz e,aten utzi. Batzuetan parregarria ere bada «m endizarumz,azale» auen jokabidetxoa.

Batzarra, «De fide catholica» edo «Sinismen Katolikoari-buruz» zeritzan eskemaren azierketatik asi zan. Fskemak izkera zipotza zerabilkian protestalaritza aipatzen zuan bakoitzean: «opinionum monstra», («abururik zatarrena»), «impiissinia doctrina», (« g aiztoa baiño gaiztoa\*oa dan dotriña») «mysterium iniquitatis» («okerkeriaren aunditasunez miragarria»)...

«Karitatez» betetako ederkeri oieI: entzutean, Strossmayer, Diakovar'ko Gotzaia eta Serbi'a guztiko Rikarioa, je.ki zan asarre. Protestalari bat edo beste gaiztoak izan daitezkeala ez dut ukatuko, --zion—, «ego aubin agnoseo non nnum alterumve sed turmam hominuni qui adhuc Christum amant»: «Baiña, —p roteztalarietaz jardunean—, nik ez diot gizakume oni edo arri hegiratzen, aien artean oraindik Kristo maite duan eiza-pillo guztiari baizik».

Asarretu ziran kontziliokide geienak, bai Hait zekiten Sortaldeko gotzaitira utsezintasuna dogma iragartzearen aurkakoa zala; bazekiten, latinez errez, dotore, eta atseginki mintzatzen zala ere. Bildurgarria zan itza artzen zuanean. Orregaitik, aurrera jarrai ez zezan marmariz zurrtimurru ozena sortzen asi zitzazkion, mu tikoak bezala, Kontzilio Doncko Asaba Agurgarriak,

¿Bai ote zuten bâ jerrai arritu? bzpaiñetan irriñoa zuala jakiñarazi zien Strossmayer vavoak, Renan'ek iditzitako «Yosu'ren Bizitza»ri ez ziola iñork Guizot protestalariak bezain egoki erantzun, naiz Guizot protestalaria izan, eta onen liharu arek Kontzilioko «Asaba guztien mai-gaiñean egon hear lukeala». Bazekian Diakovar'ko Sirossmayer'ek nondik zebillen. Renan'engandik sortutako okerbideak, Kontzilioko goco<sup>o</sup>aiak zenbat kezkatzen zitalaren jabe Hait zan.

iGozoak jarri ziran gotzaiak! iA nolakoa, an sortu zuten burrunbal «Zuen jokaera auxe bera da kartzuet zuen aurka lekuko», oiuz zegen Strossmayer'ek. «Renan'en eta Guizot'en liburock emen ez dure zer ikusirik» deadar egin zion lendakariak. «Bedi onartua lendakariaren iritzia», erantzun zion arek, eta aurrea jarraitu zuan, baiña aren abots ozen bikaiñik ez zezakean iñortxok entzun etc. Alakoa zan Asaba Agurgarriek zerabilkiten zalaparta.

«I go protestor contra banc interruptionem», oles egin zuan Strossmayer'ek. «Protestamur nos contra te», erantzun zioten gotzaiak. («Bijoa nere protesta



itzaldian egiñarazten didazuten etenketaren aurka». «Bijoa gure protesta zure aurka», esan nai dute izlariaren eta gotzaien latinezko esakizun oiek).

Txintzarria jo ta jo ari *zan* gelditu gabe lendakaria. Alperrik. Ez zan inon ixiltzen. Gotzaiak, gotzai integristak, zuti zeuden «jetxi dedilla ortik», «ixildu dedilla», marruka.

Bertan egoteke ezin daitekela sinistu zurrunbillo ura zenbaterainokoa izan zan, diote an egon ziranek.

«Protestor» esanaz jetxi zan patxadatsu, aundikiro, garaille moduan, Serbi'ako Bikarioa. Asarre ta erretxindurik, berriz irten ziran Batzarretik gotzai integristak, alkarri esaka: « ;Au duk Aitasantuari utsezintasuna ukatzen diona! Bere burua ote zeukak utsezintzat? ».

Lotsagarria? Bai, Eliza gizakumez osotua dala aztutzen ba'duzu' A! , baiña tortu zuan Strossmayer'ek protestalaricn aurkako esaera aiek gotzatzea.

\* \* \*

Utsezintasuna, *ez* zegoan, —esan dugunez—, Kontzilioak aztertu bear zituena gaien artean sartua. Baiña gotzai geienak, eta Aitasantua, utsezintasuna dogma oiukatu naiean zeuden. Ori lortzearen, gotzaiak firma billa asi ziran, Kontzilioan gai orren azterketa egiten asteko eskumena IX Pio'ri eskatuaz. 450 izan ziran eskariak izenpetu zutenak. 136, aurka irten ziranak. Aitasantuak, geiengo berekin -eukala-ta, utsezintasunaren arazoa, Elizari-buruz presaturik zegoan eskeman sartzeko agindu zuan, eskema aren atal bat bezala.

Baiña, eskema ori azkenean aztertzekoa bait zan, larri ziran Kontzilioko gotzai geienak, «azkenean» utsezintasunaren atala baztertua izango ez ote zan. Laterrietako agintarien bildur ziran batez ere Napoleon III'ak egin zezakeanaren bildur, onen gudariak bait ziran Pio IX'a Erroma'ko erregetzan eusten zutenak.

Ez zitzaie gotzaiari arrazoirik falta, utsezintasuna aldarrikatzearen aurka zeuden kontziliokideak asiak hait ziran agintariak beren alderdira eramateko saiaketan, eta, eskema beraren irakurtz. utsak ere, agintariak aski urduritu bait zituan.

Inon ez daki nola eskuratuta, «Augsburg'eko Gazeta»k argiratu zuan «De Ecclesia» eskema, eta naitanaiez aitortu bear da eskematxo arek teokrazikiaren usai nabarmena zuala.

Une auetan Kontzilioko minori edo gutxiengoaren «izpiritu gidaria», Kontzilio-gelatik at zegoan; teologiarik sekular bat zan: Inghlanderriko Lord Aeton. Bai bait zizun parlamentuko era *eta* moduen oitura, onek ekartzen zituan iritzi batera gotzai aiek, onek erakusten zien Batzarrem nola jokatu eta nola itzegin, eta edestilari ernea ere bazalako, onek ematen zizkion itzaldietarako, edestiko gertakizunetatik bildutako argumentuak.

Bazan bildur izatekoa-ta, Kontzilioko geiengoak, beste auzi ta arazo guztiak utzirik, bereala utsezintasunaren azterketa asteko baimena Aitasantuari

eskatzea erabaki zuan. Kontzilioaren 5 lendarrietatik 3'k, eskari ura gutxiengoaren aurka indarra irabiltzea zala iritzi zuten, eta ez zioten pasorik eman nai izan.

Asarretu zan IX Pio lendarri auen jokaera jakitean, eta berealaxe eman zion pozik baiezkoa geiengoaren eskariari.

Garratzak izan ziran Kontzilio-barruan eseraldiak, eta hein eta berriro santu zuan Pio IX'ak eskua integristen alde.

Bi ertzetako gotzaien artean, erdialdeko gotzai paketsuak, italiarrak batez ere, danei atsegin zezaiekan formula baten halla zebiltzan; baiña aldakuntza danak botatzen zituan beera Pio IX'ak. Altaguztiz, itzaldi ta eztabaida minkatz aiek ez ziran alperrikakoak irten, polilti poliki aurrena presentatutako formula landu, gozatu, eta egokiagotu bait zuten.

Batez ere «ex cathedra» esakizunaren idoroketa izan zan zoriotsua. Aitasantua utseziña da baiki, baiña «Ex Cathedra» mintzatzen danean bakarrik. Au da: «sinismen edo nioralitate gaietaz, Eliz osoaren Artzai bezala, eta utsezintasuna erabilli nai duala adieraziaz» mintzatzen danean bakarrik'

601 gotzai zeuden Batzarrean orrela mugatutako formula Aitasantuaren iritzira eraman edo ez eraman jakiteko autaketa egin zanean, 88'k bakarrik ezetz, «non placet», earntzun zuten; 451'ek berriz, baietz, «placet». Beste 62'en erantzuna «placet iuxta modum» izan zan. Auxe esan nai zuten erantzun onekin: aide zeudela; baiña formula ura zerbaitxo aldatu bearra iruditzen zitzaiea.

Orrela, «ex cathedra»ren mugaketa ura aitasantuaren utsezintasunari ipintzen zion formula au izan zan azkeneko auteskunderako aukeratu zana, eman hait zion Pio IX'ak ere bere baietsia.

Gaiñera, Gasser'ek formula oni gotzai guztien aurrean eman zion azalpenak utsezintasunari-buruzko dogma-gaia oraindik askoz geiago [eon du eta argitu zualako, «non placet» edo «placet iuxta modum» esan zuten gotzai aietatik asko, formula onen aidera igaro ziran azkenean'

Beste batzuek, Aitasantuaren aurka ezezko autarkirik ez ematearren, Erroma'rik irten egin ziran, baiña ez igesi, era egokian baizik. Ona nola:

Aurrena, gutxiengoko 55 gotzai, zer egin erabakitzeke, beren artean bildu ziran eta «non placet» erantzutea erabaki zuten. Orduantxe iritxi zan billera artara Orleans'eko Dupanloup, «non placet esate ori ez zait neri zillegi danik iruditzen» esanaz, «kristau erria arritu eta naasi egingen duala bai hait dakit».

«Placet» esatea ere ez omen zitzaion gauza zuzena iruditzen, bera dogma-oiukatze aren adiontasunaren aurka zegoalako. Orregaitik gauzik egokiena, Aitasantuari eskutitz apal bat idatzita, auteskunde-egunaren aurretik Erroma'tik isillean alde-egitea erabaki omen zuan.

Danek onartu zuten Dupanloup'en asmoa, eta danek izenpetutako eskutitz bat idatzi zioten Pio IX'ari, «eoram Patre *non placet* dicere» edo «Aita-

ren aurrean Aitari ezetz erantzutea» gogor zitzaielako Grrroma'tik irtetzea erabaki zutela esanaz.

60 izan ziran orrela irtendako gotzaiak'

1870. Uztaillaren 18'a, Aitasantuen utsezintasuna dogma aldarrikatu bear zan eguna. 535 Asam bildu ziran eseraldirako, *eta* oñaztarri, ortzots, tzimist, eta trumoioren artean egin bear izan zuten autaketa, une artan bertan izugarritzko ekaitza Erroma'ren gaiñera lertu zalako'

Seguruaski, pentsatu zuan Pio IX'ak, «gizonen aldiaren» ostean atzera berriz, «deabruaren aldiak» mutur beltza agertu nai *izan* zuala; baiña laister argituko zan «Jainkoaren aldia»; autarkiak agoz ozenki ematean, «placet» esan zuten bâ Kontziliokide danek; bi gotzaiak bakarrik «non placet» oiu egin zuten: Cajazzo'ko Roxi'k eta Little-Roek'eko Fitzgerald'ek.

Eta orain, oleri ameskoiaaren baratzatik artutako kondairazko lilitxo bat:

Esan dugu, autaketa, erasotzar baten azpian egaña izan zala. Bâ, «diotenez»..., autaketa bukatu ber-berean agertu omen zan eguzkia, eta Batikan-Jauretxeko leio batetik sarturiko eguzki-izpi dirdaitsu batek Aitasantuaren kopeta argitu omen zuan! Orrela apaindu, goxatu, atsegindu, eta gexurra edesti biurtu oi da, «on dit», «it is said», «raeontanno», «dieitur», «se diee», «diotenez», aurretik txukunki erantsita, eta, orrela, bizitzako gertakizun latzak kondaira edo «leyenda» maitagarri biurtuaz'

Eta, kristau erriak Pio IX'ari izan zion zaletasun miragarria, zatitxo batean, orrelako kondaira lirain goxoetan errotua egon zan; zatitxo batean bakarrik, Pio IX'a bera ere, bere doaiengaitik bakarrik, egiaz hait zan maitagarria. Gizon xaloa, biotz-bera, santua, jendea bereganatzeko karisma bereiziarren jabea, kultura ederrekoa. Tamalez..., nez zan teologilaria! Bere asmo guztietan borondaterik onenarekin ibilli zala beti, ez du inortxok ere zalantzan ipiñi; ez Kontzilioan, ez gero.

Agian orregaitik, —eta aurka izan zituan kontziliokide geienak utsezintasun beraren aurka ez baiña utsezintasuna une artan dogma aldarrikatzearen aurka bakarrik zeudelako—, eta baita, gaiñera, Europa'ko politika-giroaren aldetik adurrik onena izan zualako, ez zitzaion Kontzilio-ostean zisma aundiegirik sortu. A! ; eta Elizako jende xumea, dana, utsezintasunaren aldekoa zalako!

«E viva il Papa infalibile» oiu zegian Erroma'ko erri-jendeak Pio IX'a ikusten zuan bakoitzean, Kontzilioko Asabek gai ori ikertzen asiak zirala jakin zuan ez bero. Ta, ondo zekiten kontziliokideek Kristaudi guziko jendeek errornatarren oles orri «e viva» pozik erantzuten ziotela.

Bestalde, aldarriketa utsaren aurka zeudenen artean, asko ziran, gizon onak izateaz gaiñera, apalak eta bakunak ziranak ere. Montalambert adibidez, Fran-

tzi'ko liberal katolikoan ats-emaillea' Kontzilioa amaitu-aurretik il zan. Argi utzi zuan idatzita, sinist-egitatzat pozik artzen zuala berak, Kontzilioak ala erabakitzen zuan guzia.

Ona berriz zer idatzi zion Dupanloup adiskideari, Biena'ko Rauseher Goigotzaiak: «Ni onuntza nentorrela alkarri agur egiterakoan esan nizuan lez beti izan nauzu Jainkoaren bide arrigarrien miresle eta orain ere bate-re samintasunik gabe onartu dut Jainkoak iriki nai izan digun bide berri au», Kontzilioak utsezintasuna sinispideko dogma iragarri zuan egun berean tzi zuan ori, iragarketa aren etsai izan zan Rauseher'ek.

Ordurako idatzia zan «Le Correspondent» izparringian Dupanloup bera ere Pio'ren pertsona ta jokaera goratuaz eta Kontzilioak utsezintasunari-buruz erabakitako guzia ontzat artzen zuala adieraziaz. Zorrotz debekatzen zien gaiñera, bere mendekoei, sinist-egi aren aurka idaztea eta itzegitea.

Doellinger ere, adiskideak zismara zijoazkiola ikusi zuanean, saiatu zan zisma ura eragozten, naiz berak sekulan Aitasantuaren utsezintasuna egitatzat artu ez. Altagutziz, beti uste izan zuan Elizaren altzoan jarraitzen zuala. Kontzientziaren mis terioak!

\* \* \*

Goraxeago esan dugun lez, asko lagundu zion IX Pio'ri gertakizunen ibillerak:

—18'an izan zan utsezintasuna dogma iragartzea. Iru egunez aurretik Frantzi eta Prusi alkarren aurka gudan ziran. Guda izugarria bait zan ura, kontziliokideen gogoak *eta* mundu guztiaren pentsamentuak zearo bereganatu zituan, eta, orrela, illunpean eta baztarrean utzi zituan Kontzilioko eutabaidek eta dogma «egin-herriak» sortu zezazketen zurrunbilloak.

—Berealaxe artu zuten italiarrak Erroma; eta ezereztu hait zuten aitasantuen erregetza, Pio IX'ak denbora egokiagorako laga zuan Kontzilioaren jarraipena. Txit egokia izan zan gelditze ura; une artatik aurrera Kontzilioaren ibillera latzegia izan hait zitekean, eta lazkeri orrek utsezintasunaren aurka egon zirenen biotzak, eta buruak, arras gogortu hait zetzazkean.

—Kontzilioa «amaitu» ez baiña «J·este aldi baterako Iagatze» orrek ere, ondoren onak ekarri zituan. Kontzilioa «amaitu» izan balitz, gotzai danek, Kontzilioaren erabakia aitortzera eta aldarrikatzeraz beartuak egonen ziran. Baiña ez hait zan amaitua gelditu, orrelako bearkizunetik iare ziran, eta izan zuten gauzak pentsatzeko astirik naiko; eta, baita, une herean biotzetako be-rotasunak moteltzeko ere'

Zorionez, Kontzilioan egondako gotzai danek argitaratu zituzten beren elizbarrutietan Kontzilioko erabakiak. Batzuek lenago, besteek geroago. Strossmaver'ek azkena; Kontzilioa geldituta bi urte geroago!

Agian, erri xeak mundu guztian dogma ura pozik artu zuala jakiteak, eta gotzai bat bakarrik ez zala aurka jeikintzen ikusteak, eta Alemani'n Bismarck'-ek eta ango agintari protestalari guztiek zismara jausitako teologilarien sailtxoari al zuten guztia laguntzen zietela begien aurrean eukitzeak, asko lagundu zien, zentzuki jokatzeko, gotzairik egosgorrenei.

Al, ta iñork uste baiño geiago gaiñera, Kontzilioan bertan Gasser'ek egin zien utsezintasunaren iragarketako formularen azalpenak, batez ere «ex cathedra» esakizunari eman zion zentzu egokiak, ori dana patxadaz ausnartzeko izan bait zuten, gero, nai aiña denbora.

\* >< ><

Itxaron ez ziran ondorioak ekarri zituan Frantzi ta Prusi'ren arteko guaduak. Indartsu gelditu zan Prusi; eta aren bildurrez Austri. Prusi'n Bismarck zan egiazko agintaria, katolikotasunaren etsai beltza, eta aren ikaraz bizi ziran Alemani'ko Laterri guztietako katolikoak; baita Austri'koak ere.

Aitasantua beste babeslerik ez zuten lurralde aietako katolikoek eta gotzaiak. Konbeni zitzaien Aitasantua al zitekean indartsuena izatea. Eta utsezintasunak Aitasantua indartzen ba'zuan..., mola aiek utsezintasunaren aurka jeiki?

Bismarck Kantzillerrak asmatutako «Kulturkampf» maltzurari zor diogu neurri ederrean katolikuok, gotzaiak Aitasantuagana urbildu izatearen mesede au'

Doellinger zorigabeak ematen digu pena. Elizaren alde ainbeste lan egin zuan gizona Elizatik kanpora gelditu zan, naiz berak ala uste ez. Ez zuan Kontzilioaren agindura bururik makurtu. Eta bere ikasleek, Utrecht'eko Elizaren laguntzarekin, Eliz zismatiko bat sortu zuten: «Veteres Catholici» edo «Katoliko Zârren» Eliza, oraindik ere bizi zaiguna. Alperrik irten zan Doellinger irakaslea bere ikasleen aurka. Ez zuan zismarik eragotzi. Eta, ez «katoliko zâr», ez «katoliko berri», bakarrik gelditu zan Doellinger gizagaixoa.

Utrecht'eko Gotzai zismatikoak sagaratu zien «Katoliko Zârrei» beren lendabiziko gotzaia. Izan zuten agintari protestalarien laguntza, baiña ez zuten jenderik berenganatu. Ez dira iñoiz 20 edo 30 milla baiño geiago izatera iritxi.



# OAR BAT

## IX PIO AITASANTUAREN JARDUNKERA ULERTZEKO

Berealaxe, XIII Leon'ekin, era berri bat atera dijoakigu Elizarentzat' Era berri ori aztertzen asi aurretik, bearrezkoa dugula iduritzen zait oartxo bat egitea. Auxe: Oartzeke, erru aundiko oker ba<sub>t</sub> errez egiten dugula guk, XVI Gregorio'k, IX Pio'k, eta baita X'ak ere, demokraziari-buruz erabilli zituzten erak epaitzerakoan: Aien orduango ariketa gure gaurko begiekin ikustatzea, alegia.

Sar gaitezen, adibidez IX Pio'ren buru-barnera, —Aitasantu aien arazoak zuzenki ulertzeko, arazo aiek Aitasantu aien begiekin eta mentalitatearekin ikusiaz.

—IX Pio'k aurrean ikusten zuan demokrazia, demokrazi liberala zan: ez Jainkoaren legerik ez izadi-legerik politikarako aitzat artzen ez zuan demokrazia. Ori, ez zezakean IX Pio'k ontza<sub>t</sub> artu.

Demokrazi aren Arau Nagusia, Arau Bakarra, laterkideek emandako boto edo autarkien kopurua zan. Geiengoak ona zala epaitzen zuana, ona zan besterik gabe, naiz Jainkoaren Legearen araura gaiztakeririk aundiena izan. Ori, naitanaiez gaitzetsi bear zuan IX Pio'k'

Demokrazi ark zekarren moralitate trakets ortan, gaiztakeririk aundiena ontzat artua izan zitekean. Baita, —geroak ekarri digun lez—, urne jaiogabeak amaren sabelean iltzea ere: abortoa! . Demokraziaren ondorio oiek ikusten zituan IX Pio'k. Orrelako ondorioak ekarri zezazkean demokrazi baten aurka sendo deadar egitea, dez al zuan bear-bearrezko gauza?

Demokraziaren beste ondorio batzuk ere ikusten zituzten Aitasantu aiek. Gaurko mundua ez da orduango mundua. Orduango mundu artan, erria osoki kristaua zan Europa guzian. Demokraziak inprenta edo irarkolen askatasuna zekarren. Edozein liburu argitaratzeko askatasuna: erejia erakusten zuten liburuak adibidez; eta pekatuta ta pornografi edo aragikeri zikiñera gaztedia bultzatzen zuten liburuak. Liburu oiek erri xee apalaren altzoan egin zezaketen gaitza, batez ere, berez arakikerira okertua dan gaztediaren altzoan sortu zezaketen ondarena ikusten zuten Aitasantuek. ZEgon al zitezkean isilik?

—Demokraziak, ezkontzaustea zekarren: dibortzioa. Elizarentzat sakramentu donea da ezkontza. Sakramentu ori urratzera zetorren demokrazi aren aurka, nola ez Aitasantuak oiuka jeiki?

—Demokraziak erlijio-askatasuna ere bazekarren. Edozein erlijioeko jendeek egin zezaketen batere eragozpenik gabe beren erlijioaren zabalkundea baserriz-baserrri eta etxez-etxe gaztar guztietan. Arrisku aundia zekusaten Aitasantuek askatasun ortan kristau-erri lander xearentzat. Gaur bertan, mugarik gabeko askatasun osoaren denboran, Jaurlari sozialistak ber-berak ari dira «sektak» edo «erlijio-talde» batzuk galeraetzen, eta, orrela, *errien onerako*, erlijio-askatasuna moztutzen. Arritzekoa al da, askatasun osoaren denbora ez ziran garai aietan, Aitasantuak, orrelako ondorioak sortzen zituan demokraziaren etsaiak izatea? Aitasantu aiek ere bai bait zuten beren kristau-erriaren ardura. Bai beintzat gaur-egungo Jaurlari sozialistek izan dezaketena bezain aundia!

Ekarri ezazu gogora, gure Euzkadi ontako kristau erri garbi bat: Berastegi, adibidez. Erri ortan mota guztietako «eliz» eta «sektak» etxez-etxe zabalkunde-egiten, —eta gizartebide okerreko beste talde batzuk gaztediari pornografia erakusten asiko balira—, ez al litzake Berastegi'ko apaiza kezkatuko? Orixe bera gertatzen zitzaien bâ orduan XVI Gregorio ta IX eta X Pio Aitasantuei.

Gauza berak eta gertakizun berak aldi ezberdiñetan ez bai, dute balio berdiña, gaur eta atzo ez du demokraziak ere balio berdiña. Gaur, mundua arras laiku bihurturik dago, eta askatasunean bizitzera oiturik jendea; atzo, bete-betean kristaua zan oraindik erriko jende landerra, eta askatasunean bizitzeko oiturik gabea.



## XIII LEON

«Argi» eta «illun» izan zan IX Pio'ren aitasantutza. Bere denborako elizkide geienek ez zuten argia besterik ikusi. Ala maitatu ere maitatu zuten; apika, Elizaren edestian kristauak beste Aitasantu bat iñoiz maitatu ez duten bezala. Gaur, agian, argi baiño illun geiago dagerkigu aren aitasantutzan; bai beintzat argi ainbat illun.

Aitasantutza artako illunbeak?

Libertetasunaren arazoa ez zuan IX Pio'k bere guzitasun osoan aditu, eta, orregaitik, oker epaitu zuan.

Ain kutun izan zitzaion zentralkeriak eraginda, Sortaldeko Elizaren auziak gaizki erabilli zituan.

—Lenen Batikan-Kontzilioaren eraketan eta gidaritzan ez zuan asmâtu'

Itali'ko batasungintzakoan ez zuan Itali'ko jaurlaritza berriarekin era egokian jokatu.

Argiuneak?

Ats onuragarri bizkorra eman zion barne-bizitz kristauari elizkideen biotz-buruetan' Ederki egin zuan Maria'ren Orbangabeko Sorkuntza dogma aldarrikatu zuanean.

—Ondo sendoturik utzi zizkigun aitasantutzaren maixutasuna, aitzindaritzza eta gurentasuna. Ontan egon zan I Batikan-Kontzilioaren alderdirik onena'

Bikainki lagundu zion mixioketari, ontan ere XVI Gregorio'ren bide-tik jarraituaz. Inghlanderrian, Olanda'n, Laterri Alkartuetan, eta Australi'n, berak burutu ta ezarri zuan Jerarkia. Ortaz gaiñera, 33 Bikariotza eta 10 Prefekturitzza eratu zituan mixio-lur gazteetan.

—17 konkordato egin zituan beste 17 Laterrirekin: Errusi, Toskani, Españi (bi aldiz), Kosta Rika, Guatemala, Austri, Portugal, Napoles, Wurtemberg, Baden, Haiti, Honduras, Ekuador, Benezuela, Nikaragua, eta San Salvatore, izan ziran Laterri aiek.

Elizari izan zion maitasuna izan zan Pio IX'aren baitan, argiune auen eta illunbe aien sustraia, geiegikeri aietara ere Eliza arrisku larrian ikusteak eramane bait zuan.

Il zanean, batasunean sendo eta osasunaz indartsu itzi zigun Eliza; baiña mundutik urruti, gizadiaren arazoei bizkar-emanaz, edestiak zeraman ibil-bidetik-at; lcgorturik bezala; «in stangnation» Manning Kardenalaren itzetan: «bidean geldi». «L'Eglise parassait vieillie, incapable de tout effort, terriblement dépassée par les événements, comme son chef»: «Zaartua zirudian Elizak, ezertxori ekiteko arnasik gabea, munduaren ibillerak atzean utzia, orobat bere buruzagiaren antzekoa» (Daniel Rops).

Eta, edestilari berak dioskunez, Elizaren Buruzagi ark, —Pio IX'ak—, «mundo guztiko elizkideen losintza maitetsuen artean» «entre les marques touchantes qui lui prodigaient les fidèles du monde entiere» aztutzen omen zituan bere nekeak; eta orrela, ameskeriz bere burua goxatuaz («se berçant d'illusions») gertakizunei aurpegi emateko ezertxo ere egin gabe igaro omen zituan azkeneko urteak: «sans qu'aucun effort fût accompli».

Ederki oartzen zan ortaz IX Pio bera. Entzun zer esan zion bein Perrata Kardenalari, onek berak idatzirik laga zigunez: «Jaso bitza nigandik nere atzetik etorriko danak, nik Elizari izan diodan maitasuna eta gauzak al nituan ondoen egiteko izan dudan ardura. Gaiñerakoa..., nere jardunbide ta jokararak..., zaarturik gelditu dirala derizkiot, ikusten bait dut oro aldatu dala ludian. Ni ordea aguregia naiz orain aldaketak egiten asteko. Ori, aldaketa-gintza, nere ondorengoak egin bearko duan lana izango da».

Gauzak ain argi ikusten ba'zitian, nola ei zuan Pio IX'nak aitasantutzarik utzi, len-hait-len bere ondorengo ori, aldakuntzak egiten asteko, Aulki Donera igo zedin?

Argi-ta-garbi, ori, agintaritza uzte ori, aitasantuen artean oiturazkoa ez dalako. Baiña baita, noski, agureen sikologiari dagokion izaeraren erruz ere. Agureen sikologiako mami beraren aldetxo bat duzu, «norbera falta ezkeru mundua oro jausiko dalako ustea». Eta bearbada, ustetxo ortara beste agureak baiño okertuxeagoak dituzu aitasantu agureak, Gogo Deunarengandik duten laguntza zerutiarra errez neurri egokietatik atera hait dezakete, eta, beraiek deus egiteke, Arek oro eginen duala uste.

Aitasantuen utsezintasunari I Batikan Kontzilioak neurriak ipiñi zizkion bezala ez ote lezaiozke beste Kontzilio batean Elizak aitasantuaren agin-menari neurri batzuk ipiñi? Elizak..., Aitasantuarekin batera, jakiña; baiña, ez ote daude aitasantuak Elizaren onerako ori egin daitekean eta egin bearko ote litzakean pentsatzen astera beartuak?

\* \* \*

Pio IX'a il zanean, Jokin Peeei Kardenala zan «Kamarlengoa», au da, aitasantu batetik besterako denboran Eliza jaurtzen duan gizona. Berak bildu ta zuzendu zuan Konklabe edo Giltzapeko Batzarra. Eta, iñork itxarotzeke, bera irten zan konklabe artatik Aitasantu.

Aspaldian besteak ez bezalakoia izan zan konklabe ura, an aukeratutako Aitasantua ez bait zan aitasantuz gainera errege izango. Orregaitik, konklabe artan, Eliz-Laterrien onturreari-buruzko politikeriak ez zituan kardenal autalariak kezkatu' Ma, iru egun bakarrik iraun zuan autaketak. IX Pio zanak ere aginduta utzi bait zien kardenalei lanean arin ibiltzeko.

Irurogei izan ziran kardenal aiek; 37, italiarrak, eta 23 atzerritarrak. IX Pio'ren adiskide min, aolkulari, eta adiskide leial izandako Bonneehose Kardenala izan nai zuten aitasantutzara jaso, baiña iskamillarik sortarazi nai ez zualako, Aitasantutzarik ez zuala artuko, jakiñarazi zien onek bere konklabekideei. Izan ere, orregaitik ain zuzen, Bonneehose Kardenal ura Pio IX'aren oldozkera ber-berekoa omen zalako, «beto» edo «ezczkoa» ipintzen bait zion Frantzi'k' Igarotako, politika-giro zarraren aztarnak!

Urte artan Frantzi'n, III Napoleon jausi ondorean, Errepublika zegoan berriz agintari: III Errepublika: Thiers, Gambetta eta Mae Mahon'en Errepublika, ez noski elizgizonen maitaleegia' Badugu, ortaz, alako jaurlego laiku arek konklabe-barnean eskua sartu nai izate ori, aitasantutzak, erregetza galtezarekin, aunditasunik galdu ez zualaren adigarri bikaiña.

Frantzi'ri ez baiñan Itali'ri zitzaion Kristaudian, konklabea asi-aurretik, bildurra. Egin ere, konklabe ura, mende askoz gero aurreneko aldiz, iare ez zan lurrean, Itali'rena zan lurrean egitera bai t zijoan! Sartuko ote zan Itali'ko Erregea Aitasantu berriaren autaketan?

Laterri guztiek sentittu zuten bildur ori. Eta egin zioten Itali'ko Erregeari galdera; ta onek bere Jaurlaritza autaketa artan iñolaz ere sartuko ez zalako itza eman zienean bakarrik lasaitu ziran.

Bazuten Laterriak zertaz kezkatu: IX Pio il zanean, iñoiz baiño indar aundiagoa zuan Aitasantuak, ifloiz baiño garaiagoa bait zan katolikoentzat lurralde guztietan aren pertsona, eta sekulan ez bezalako gogo onez entzunak aren itz eta aginduak' Nola ez b' kezkarik sentitu ez, Aitasantu berria izango zanaren pertsonari-buruz, batez ere biztanle geienak katoliko zituzten Laterri aiek?

\* \* \*

Aitasantu berriak, XIII Leon artu zuan izen' Aitasantuen gudarozteko koronel baten semea zan, diruz eta aristokraziz erdi mailleko sendi baten altzoan sortua. Iñakitarren ikasle izana; jakituri aundiko gizona, latinista bikaiña, izkuntza ontan klasikuen tajuzko olerkari apaiña, teologian doktradutza irabazia, eta, diplomazirako, Erroma'n Elizaren diplomazilari izanbe. irrak ezitzen dituan «Aide Nagusikumeen Ikastetxe»an zugarri prestatua. Ain zuzen, ordurarte, diplomazilari ernezat zan batez ere ezagutua.

Ikasketak bukatuta, apaiz egiñik, bere aurreneko karguak Elizaren Laterrietan izan zituan, Laterri aietako irutan izan bait zan Jaurleri. Aurrena,

Benebento'ko «Delegatus», eta gero, Espoleto'ko eta Perusa'ko «Legatus». Gregorio XVI'ak bidali zuan 18 }3'an Belxika'ra nuntzio, Goigotzai egiñik. Ez zan an iru urte besterik egon, Erroma'ko eskubitarrentzat aren jokabidea liberalegia bait zan. Ala, IX Pio aitasantutzara igo bezain laister Itali'ra deitua izan zan eta Itali'n Perusa'ko Goigotzai izendatua.

Jokin Peeei'k baztartze samintsu ura nola artu zuan ez dakigu, baiña, bai, Perusa'ko erriak atsegin aundiz artu zuala bera, len ere jaurlari lez gizon bikaiña agertu zitzaiola ez bait zuten perusatarrek aantzi.

Eman zitzaion kardenaltza. Altagutziz, ia Pio IX'aren agintaritzza osoan ez zuan, bere elizabarrutitik landa, ezertan jarduteko egokitasunik izan, egiazko bazterreratzea bait zan Perusa'a botatzearekin egin zitzaiona.

Atera zan azkenean andik, baiña IX Pio'ri iltzeko illabete batzuk falta zitzaizkionean bakarrik. Orduan egin bait zuan Aitasantu zaarrak «kamarlengo». Zergaitik eta zertarako? Batzuen iritziz, ordurarte ain baztarturik euki zuan Kardenal erne ura aitasantutzarako bidean ipintzeko; beste batzuen aburuz ordea, Kardenal urduri ari erabat aitasantutzarako bidea eragozteko, ustea bait zan kuriatarren artean, konklabera kamarlengo sartzen zana, ez zala beinere konklabetik aitasantu ateratzen.

Badira, Peeei ain denbora luzez baztertua euki izatearen errua Jakoba Antonelli estadutzako idazkariari ezarri nai diotenak. Peeei'ren «ezkerkeriari» omen zion Antonelli'k bildur, edo estadutzako idazkaritzza galdu aal izateari, ezagutzen bai, zituana Peeei aren doai bereziak. Danadala, Takoba Antonelli —erriaren izkeran «Jaebus Magnus»— il zanean egin zuan Peeei kamarlengo IX Pio'k.

Ez zuan Peeei'k Perusa'n egon zan denbora luzea alperrik galdu. Irakurtzale ase-ezifia, izan zuan an astirik naiko munduaren ibilleraz jabetzeko.

Ez zan, ez orixe, liberala; eta are gutxiago ezkertiarra. Bere oldozkera, politikako arazoei-buruz, IX Pio'k erabilli zuanaren antzekoa zan. Ez zebillen ez oker Pie Kardenal frantziarra, Peeei'ri-buruz esaten ziranengaitik ikaratuta zebiltzan eskubitar integristei onako itz auk esan zizkienean: «Leon XIII n'est pas animé d'un autre esprit que Pie IX»: «Bat bera dira Leon XIII'aren eta Pin IX'aren izpirituak».

Bazekian noski Kardenal arek zer zion, bera bait zan Frantzi'n eskubitarren buruzagietako bat. Bai ote zekian Perusa'ko Goigotzai zalarik Peeei izan zala elizbarruti artako apaizen sinodoari, okerkeri berri guztien zerrenda bat osotzeko agindu, eta gero, apaiz aiei, okerkeri oiek gaitzesteko eskatuaz IX Pio'ri idatziaz ziena? eeeei'k egindako eskariaren erantzuna ote dugu Pio IX'aren «Syllabus» ura? Danadala, ez zuan IX Pio'k, «Syllabus»en antzeko gauzak egiteko, bultzaketa aundiren bearririk!

Baiña bi Aitasantuek, IX Pio'k eta XIII Leon'ek, naiz biak burua berdiña izan, ez zuten eskua berdiña; bazuan Leon'ek diplomazirako Pio'k sekulan

izan ez zuan ezkerreko esku yayo bereizi bat; eta seigarren zentzu zorrotz bat. Ala, errez oroitu zuan orduan jendeak, Aitasantu ura, Perusa'ko Goigotzai zala Itali'ko Jaurlaritzarekin zeinien ederki konpondu zan, eta gero, Kamarlengo zala, Jaurlaritzaren aurrean azaldu zuan eta, Konklabca aurrera istillurik gabe ateratzeko, erabili zuan trebetasuna. Oroikizun oiek eraman zuten eskerki Frantzi'ko Gambetta onako iritzi pinpirin au ematera: «Leon XIII? Plus diplomât que prêtre»: «apaiz baiño geiago diplomazilaris»

Oker zebillen Frantzi'ko Irugarren Errepublikaren aita. Leon XIII'a, beste gauza guztien gainetik, apaiza zan. Mutiko zalarik, Eliz-Laterrietako gobernutzaren kargu ugari aietakoren baterako euki zuten destinatua bere gurasoek. Elizjendeen eskuetan *egon oi* ziran kargu aiek, baiña elizjendeol: ez ziran geienean subdiakonuen mailletik gora pasatzen. Mutiko arc\*, ordea, apaiz izan nai zuala jakiñarazi zuan. Eta bete-betea izan zan apaiz, apaizkuntzaren maitale sutsua. Otoizketa sendoko gizona. Jose Donearen eraspena eta Sendi donearena, Andre Mari'ren errosarioarena, eta Josu Biotz Donearena, izan ziran geienik goretsi zituan jaiarak'

Baiña diplomazilaritzat hai<sub>t</sub> da geienbat Leon XIII'a aintzaldua, aztertu dezagun nolako izan zan aren jokabidea' Bazituan lanketa ortarako, esan dugunez, doai egokiak:

—Kultura zabala; jakituri aundia. Asko ikasia zan, asko irakurria, gauzak buruan asko pentsatu ta sakonki aztertzen oitna. Ontan aurrerapen aundia zion IX Pio'ri'

—Bere buruaren nagusitasuna. Beti jakin zuan, une orotan bere sentimenduaren nagusitasunik galtzeice, bere buruaren jabe izaten. IX Pio biotz aundiko gizona izan zan bezala, buru zугurreko gizona izan zan XIII Leon. «Une certaine sécheresse de coeur sans quoi il est sans doute impossible de bien gouverner l'espèce humaine», «gizaldia zuzen jaurtzeko bearrezkoa oi dan alako biotzaren legortaxun bat» bai omen zuan. (Daniel Rops).

—Gertakizunen eta gogapenen aiala eta mamia bereizteko begi zorrotza; munduaren ibillera berri artan, zer zan garrantzizkoa eta zer ajola gutxikoa usmatzeko zentzumen bizkorra; arantza artean liial: ikusteko baretasuna, naz arantzak eta liliak enbor beretik erneak izan.

—Laguntzailleak aukeratzen asmatzeko esku onik izan zuanik esatera, ez gera ausartuko; ikusi hait dugu nola egin zioten azpi-lana, bera oartzeko, Sortaldeko auzietarako karguetan ipiñirik zeuzkan gizonak. Ez zan noski erreza kixazko aukeraketarik Erroma'ko elizjendeen artean egitea, integristez beterik hai<sub>t</sub> zegoan aspalditik Aulki Donea. Aurkitu zuan, ala ere, azkenean, Estadutzako Idazkaritzarako gizon bikain egoki bat: Mariano Rampolla, Leon XIII'a bezalaxe inñakitarren ikasle, aurrena; «Aide Nagusikumeen Ikastetxean» diplomazilari-gai, gero; eta, azkenean, nuntzio izana. Apaiz zintzo errugabea, jakituri ederreko gizon ikasia, adimen zabaleko pentsalaria, Mariano Rampolla

del Tindaro Kardenal siziliarra izan zan 16 urte luzeetan Aitasantuaren lagunik Halena. Leon XIII'aren aitasantutzako erakuskizunetan eta aginduetan ez da erreza zer dan Leon'ena eta zer dan Rampolla'rena bereiztea.

—Jaurleri l:heralekingo arremanetan «tesis-maillatik» «ipotesis-maillara» kezkarik gabe jeisteko azkartasuna. Oroï dezagun «Tesis» eta «Ipotesis» itzek legiztiaren arloan zer esan nai duten:

Tesis itzak, gauzak, berenez, baldintza orotik iare nola eratu bear diran. Ipotesis itzak berriz, gauzak gaur eta emen denbora bakoitzeko eta toki bakoitzeko baldintzen altzoan, nola onenik eratu daitezkean. Orrela, naiz Tesis-maillan ama hatek bere umerik laga ezin, Ipotesis-maillan baleike ama ori bere umea besteren eskuetan uztca bearturik egotea, emen ta gaur ama ori ertsitzen duten baldintzak, ori egitea, umearentzat askoz obea dala adierazten ha'dute.

Politikaren arloan argia dugu XIII Leon'en gogapen gidaria: ez noski gogapen berria, arras antziñakoa baizik; ain zuzen V mendean Gelasio Aitasantuak Anastasio inperatorc bizanziotarrari eskutitz batean azaldu ziona bera: «Bi agintaritzza-mota dira mundua gobernatzen dutenak: Aitasantuen almen donea eta Printzipeen al nen mundukoia. Aurreneko ura higarren onen gaiñetik dago. Zergaitik? B:tartekotasunik gabe zuzen-zuzenean Jainkoagandik datorrelako».

Ots! Ez zaigu zillegi Gelasio Donearen itzetan teokraziaren edo demokraziaren kutsurik billatu nai izatea; ez bait zan orduan. barharitarrek Euro-na astintzen zuten unam, orrelako arazorik ezagutzen, baiña an zeuden, eskierki bataren eta bestearen sustraiak. Demokraziarenak, Gelasio'k erregei agintaritzza zuzenean Jainkoagandik ez zetorkiela esaten zielako, eta, teokraziarenak, Aitasantua erregeen gaindik dagoala esateak, Aitasantua erregeen errege dala sinistra eraman lezakealako.

Elizaren betiko crakuscintza ortan oiña kokaturik aitortuko du Leon XIII'-ak «Immortale Dei» entziklikan: «Ta>>ngo 'koak munduaren zuzendaritzza bi a<sup>t</sup> la,ta du: Bi almen oiek Elizaren Agintaritzza donea eta Laterriaren Agintaritzza zihdlla dira. Aurreneko ura, Jainkoari dagozkion gauzetarako da, bigarren au, gizoni dagozkienetarako»... «Bakoitza, bere gaietan, nagusi da. Baiña, Elizaren elhurua askoz garaiagoa bait da, beste almen guztien gaindik dago bere almena cre, eta cz daiteke, orregaitik, Laterrien aime-Imam azpira menderatu».

Laterria eta Eliza ez dira hy:raz hyita bestearen kideko. Eliza gñragokoa da: «potestas suprema»: «Almenik Garaiena». Elizari laguntzera eta serhitzera hartua dago beraz Laterria. Laterriari ez zaio Ekzagand k hereizterik zillegi. Eia da Laterria here gaietan iare eta nagusi data, haiña gai oiek ere gizadiaren betikotasunari laguntzeko bait dira, eta hetikotasuna gizoni antolatzea Elizaren egitekoa hait da, alde ortatik ere badu Laterriak Elizaren laguntzaille izateko bearkizuna.

Baiña ori dana, tesisen maillan itzegitea da; gogapen «garbi» utsen munduan ibiltzea' Gure ludi ontan ordea gogapenak ez hait dira «garbi» ibiltzen, ezurrez eta aragiz jantzirik eta griña on edo txarrez koipeturik baizik, ezin daitekean gauza izen oi da askotan, orrela eraturako gure ludi naasi au «gogapen garbien» munduaren irudira tajutu nai izatea'

Pio IX'aren denboran ere ikusi zan ori' Pio IX'ak ikusten zuan Eskandinabi'n, Inghlanderrian, Prusi'n, eta beste katoliko-ez-ziran-Laterrietan tesis uts eta garbia ezarri nai izatea, itxurik gabeko gauza zala' Adibidez, ainbeste Eliz eta erlijio-mota baziran Laterri Alkartuetan Laterriari Eliza Katolikoaren serbitzura egoteko eskatzea, parregarria ere bazala'

Orrela, lurralde aietarako, —«tesia» ukatu gabe—, Pio IX'ak «ipotesia» erabili zuan. Au da: Laterri aien xetasunak kontuan arturik egokitasun oso-ko erakundea lortu-eziña zalako, aal izan zan erakunderik *egokiena* lortzen saiatu zitzaigun. Onako au esango balu bezala: «berez, (tesia), Laterriak Eliza Katolikoarekin alkarturik egon hear du, baiña «gaur eta emen», (ipotesia). Laterri auetan eta gaurko kondizioetan, ori lortzerik ez dagoan ezkerro, zillegi zaigu katolikuoi lurralde auetan Laterriaren eta Elizaren bereizketa ontzat artzea, eta bereizketa ortan Elizarentzat al ditugun abantailik geienak billatzen saiatzea».

Baiña Pio IX'ak ipotesia al zuan gutxiena erabili zuan bezala, Leon XIII'ak al duan geiena erabiliko du. Ez asko, oraindik, gure denboraren gaillurretik so-eginczkero, bai ordea naikoa, munduari P:o IX'aren denhoratik begiratzen ba'diogu.

IX Pio'k eta XIII Leon'ek, jokaera ezberdiñ orrekin ez zuten, biek, Elizaren onturra besterik billatzen. Leon'en ustez ordea, ori lortzeko, garrantzi aundiegirik gabeko gauzetan amore ematea, bide egokiagoa zan.

Ez zeukan ortarako, alboan lagun txarra, bere estadutzako idazkara aipatu-berri dugun Rampolla Kardenala, onek ere Iraultzaren ondorio guztiak ez zirala gaiztoak, pentsatzen hait zuan. Eta, berak esan oi zuanez, «okerrak ez ziran Iraultzaren ondorio aiek danak Elizak ontzat-artzen zituala len-bait len munduari argi ta garbi adieraztea bear-bearrezko gauza» omen zuan.

Ez zebillen Rampolla Leon XIII'aren iritzi nagusitik urruti, onek ere onako auxe ikusten hait zuan aurren-aurreneko arazo: Laterrien uste ona irabaztea.

Ortarako, bi gauza egingo dizkigu: Laterri hakoitzcan ezarrita dagoan Jaurlaritza, Elizak ontzat artzen duala aldarrikatu, naiz Jaurlaritza ura katoliko izan ez. Eta, bigarren gauza, anarkiaren aurka babesik sendoena Eliza dala, agintariei jakiñarazi. «Jaurlaritzak badu berari dagozkion gauzetan iareki jarduteko eskubidea; eskubide ori ez dio inñolaz ere Elizak ukatuko; are geiago, babestu egingo du Elizak Jaurlaritzen eskubide ori», esan zien agintariei «Immortale Dei» entziklikan,

Lortu zuan Leon XIII'ak Laterriengandiko konfiantza. Iru ikustaldi egin zizkion Alemani'ko II Gillermo Kaisar protestalariak, Ain zuzen, II Gillermo oneI: egindako doaia zan XIII Leon'ek jubileoan erabili zuan mitra. Eta «(quod Apostolici Nluneris» entzikikaren bidez Leon'ek sozialismoa, komunismoa eta nihilismoa gaitzetsi zituanean, Bismarck ber-berak ere ikusi aal izan zuan, iraultzalari berri arriskutsu aien aurka Elizak Laterriei eman zezaiokean laguntza sarigabea, ta asi zan, Elizaren kalterako berak edatutako «kultur-kampf» zipotz aren geiegikeririk nabarmenak laguntzen.

Arrazoi beragaitik egin zan Aulki Donearen adiskide Frusi'ko 'Tsar auto-krazizaloea. Jaurlari danontzat bait zan bildurgarria anarkismoaren ondorio ziran gogoeta biurricin ugaldea!

Laterri batean ez zuan, Leon XIII'ak, bere asmoak aurrera atcratzerik izan: Frantzi'n ain zuzen; eta ori, errialde bat Leon XIII'ak bereiziki maite ba'zuan, errialde ori Frantzi zala! !! 'Ta, an ere, ez ziran agintari liberalak izan oztopo jarri ziotenak, eskubitar katoliko integristak baizik.

Frantzi'an, katolikoentzat Eliza eta Erregetza gauza berbera ziran, Leon XIII'a Aulki Donera igo zanean. Katoliko izatea, erre zezale izatea zan an. Frantziar katoliko batentzat, errepublika eta kristautasuna alkarrekin batu ez zitezkean itzak ziran. 'Ta... ierrepublika, irugarren errepublika, zegoan berriz, agintzen Frantzi'an 1871'a ezkeror! 'Ta... , errepublika ura, itxura danek adierazten zuten, betirako zegoan ezarria! Argi ikusten zuten ori Rampolla idazkariak eta Leon Aitasantuak. Gauzak ola, Leon XIII'ak errepublikaren aidera ekarri nai izan zituan katolikoak, ,oro Pio XI'ak Espaini'ko katolikoe-kin egin nai izango zuan bezala.

Ortarako, ordea, bai Frantzi'n eta bai Nspaini'n, clizjendearen biotzen aldakuntza agin bear zan aurrena: «a change of heart among the French clergy» (I. F. I3nrton); ba03a, bai Frantzi'n bai Espaini'n, polo egin zien elizjendek bi Aitasantuei. Poto, katoliko-jendeak ere.

Frantzi'n, Veuillot -integristan buruzagiak— idatzi man Iez, « Elizaren eskubideaI: zanpatu z:tuau Jaurlaritzan losintxatii nai omen zuan Leon XIII'ak»: «menaater le gouvernement violateur des droits de l'Eglise».

13azuan itxuraz arrazoi-puskatxo bat Veuillot ausartiak, irugarren errepublikaren egintzak bai ziran, irakaskintza laikii egitea, diburriziorako ordurarte baiño erreztasan aundiagoak ematea, eta ezkontza zibilla, berriro, obligaziozkoa danontzat ipintzea, [I] zaren aurkako hasta erabaki batzuen artean.

Gauza larriak ziran oiek katolikoentzat. Altagutziz, Errepublikaren esacra es\*,oteko rskatu mien Leon XIII'ak katolikoci: «de Ralliement a la République», Garnier ,tp,tizak asmatuta. edestira igaro dan izkeran. Katoliko geienak obeditu zioten Aitasantuari; baiña oso gogo txarrez. Beste batzuek ez zuten bururik makurtu nai izan; eta auen artean, f ondo katoliko ospetsuak ziranai, bat baiño geiago!



Eskubitarren elizartasuna maiz amaitu oi bait da, beren politikazko senti-  
mentuak asten diran lerroan bertan!

Aitasantuzako saminiñik minkatzena izan zuan Leon XIII'ak frantzitarren  
jarduketa moldakaitz ori. Alperrikakoak egin bait zizkion, gaiñera , Frantzi'ko  
Errepublikaren gogo *ona* irabazteko pentsatzen zituan saiaketa guztiak. Alde-  
rantziz, len baiño gogorragoa biurtu zitzaion Prantzi'ko Jaurlaritza, katolikoen  
asmo ta jokabideak ikustean.

Leon XIII'aren politikabideei-buruzko aria moztu baiño len, zillegi be-  
zaigu au aldarrikatzea: IX Pio'k bezala izan zuala Leon XIII'ak ere Laterriaren  
Almena laterkideentzat arrisku aundia izan zitekealaren susmo bereizia. Badi-  
rudi bi Aitasantu auek, aurretik ikusi zutela, oraindik orduan beste inork na-  
baritzen ez zuan totalismoaren sorkuntza. Benetan dira, orregaitik, txalogarriak.

—Leon XIII'ak bazuan bere denborako gobernuekin adiskidetasunak egin  
nai izateko arrazoi bereizi bat: Laterri aien laguntzarekin ostera Erroma'ko  
Erregetza bereganatuko zualaren ustea.

Aitasantuen erregetzaren gai ontan Pio IX'aren bidetik jarraitu zuan Leon  
XIII'ak; arek bezala uste bait zuan erregetza aitasantuen askatasunarentzako  
bear-bearrezkoa zala. Batikan-jauregian bere go«oz espetxeraturik igaro zuan  
Aitasantu izan zan denbora guztia, eta atertu gabe uni izan zan [itali'ko libe-  
ralek «Elizari egindako lapurkeriaren» aurka deadar egiten, sinisturik bait  
zegoan, bein Austri'ko enbaxadariari esan zion bezala, isiltzen ba'zan «il  
mondo cattolico se sarebe a sua Volta abituato a considerare normale e dure-  
vole una situazione essenzialmente anormale e passeggera». Au da: «katoliko-  
-jendeak uste izan zezakela egokia zala, berez legez-kanpokoa ta laister-  
-amaitzekoa zan egoera oker ura». Egia da, zerbaitetan Itali'n etc amore  
eman zuala, utzi bait zien katolikoei udaletarako auteskundeetan parte artzen.  
Udaletarakoetan bakarrik orde; ez, parlamenturakoetan!

Alatagutziz, iaretasun-apur arek eraginda Itali'ko katolikoak Jaurlaritzare-  
kin, «Jaurlaritza ebasle» arekin lankidetzeko gertuegiak biurtu zinnia iruditu  
zitzaionean, berealaxe oroitu zien , gotzaiei 1902'an idatzi zien eskutitz baten  
bidez, zearo dabekaturik jarraitzen zuala legebatzarrerako auteskundeetan edo-  
zein moduz parterik artzea.

Larri-aldi latzak sortu zizkion Leon XIII'ak bere buruari Itali'ko Jaurla-  
ritzarekin erabilli zuan jokaeraren erruz. IX Pio Gaeta'ra bezala, bera ere  
Erroma'tik iges-egiteko gerturik egon bait zan 1881'ean! Erroma'ko erri zir-  
tzillaren matxinada batek, eta matxinada tira eragozteko Itali'ko jaurlaritzak  
deus egin ez zuala ikusteak, ikaratu zuten. An ibilli Hait ziran Erroma'ko lotsa-  
-galdu guztiak «bera aitasantutza», «Aitasantua, urkamendira», eta «sutara  
Batikanoa» deadarka.

Austri'ko Inperatoreari eskatu zion laguntza Aitasantu bildurtuak, eta asi  
zan nora iges-egin pentsatzen. Trento , Saltzburgo, Malta , eta España izan ziran

buruan erabili zituan babes-tokiak. Austriako Frantzisko Jose I Inperatoreak kendu zizkion zorionez asmo oiek burutik. Zorionez! , bestela IX Pio Gaetatik bezala, Leon XIII ere, pentsamoduz aldaturik itzuliko bait zitzaigun, agian, erbestetik! Esan dezagun, bure orneriez, Eliz-Laterrien arazo ortan, era berean pentsatzen zutela orduan munduko katoliko guztiek; eta, bestalde, vavoa, zuzena, ta onuragarria izan zala, mundu osoan, Leon XIII'aren politik'era.

### XIII LEON, LANGILLEEN AITASANTUA

Jokin Peeei'ren aintzarik aundiena, aitasantutzatik Elizari soziologiaren bidea irikitzea izan zan. Lo zegoan ordurarte Eliza; Leon XIII'ak iratzarri zuan. Egia da askoz lenagotik katoliko askok sumatu zutela, proletarien aide zerbait egitera bearturik zegoala Eliza. Bait'ere, igarri zuten langilleen arazoa ez zala karitate-arazo utsa, justizia, zuzentasuna, zebillela arazo artan naasia. Baiña Eliza, Eliz bezala lozorroan egon zan.

Ez da arritzekoa. Oso gutxitan izan hait da Aulki Donea kristaudiaren igitzaillie, Geienetan, ia beti, kristaudia-baitako gogapen argimailleak eta ekin-tza onuragarriak ez dira Flizaren «Burutik» sortu, Liii orren beste gorpuzki apalagoetatik baizik. **Li** da ori ere arritzekoa, beste toki batean esan dugun bezala, gutxitan egon hait da Eliza bere semerik santuenek, jakintsuenek eta trebeenek gobernatua. ;Ez izaki Gogo Deuna , aitasantuak zuzenean autatzen dituana!

Edestia, ordea, gertatutako gauzen azterketa dugu. Orregaitik , baliorik gabeko ariketa izanen litzake, adibidez, Federik Ozanan aitasantu izan balitz Elizaren edestia nolakoa izan zitekean pentsatzen astea, Ozanan ez hait zan aitasantu izan, eta aitasantu izan ziranak ez bait ziran ekonomiaren injustiziaz oartu.

Ala ere aundia litzake gure poza, naiz aitasantuek igitu ez, arazo ortaz leenik oartutakoak katolikoak izan balira. Baiña ez zan ala gertatu. Aintza ori ez zaigu katolikoei zor: Inghanderrian asita langilleei herairi zor zaie leenik, eta gero, anarkistei. Eta geroago sozialistei. Ez dugu ortan ere zertaz arriturik. Gogo Deunak ez zion Elizari, beste iñor baiño lénago munduko arazoetaz jabetzeko zerutiko doai bereizirik eman; ori, Elizak, bere lanaren bitartez egin beur du.

Era berean, ez gera beste gauza mingarri batez ere arritu bear: langillediak fedea galdu izateaz alegia. Naitanaiezko gauza zan , langilledia Elizatik urrun-tze ori, Elizagandik argirik eta languntzarik luzaroan aurkitu ez zuan ezkerero. Une artaz gero, etsai bezala ikusi izan du langillediak Eliza, eta bildur aundia izan dio Elizak langillediari. Baiña hildurak ez gaitu elizkideok arazo ontatik gaizkatuko.

XVIII mendetik onuntz indar-arten etorri zaigu langilledia , proletaritza, eta ez dirudi ontara ezkerero indar ori galduko duanik. Ez du gaiñera galdu

bear! Mixto-tur berria bezala aurkezten zaigu gaur-egun mundua-zear lang=ileedi,t. Baiña bildurrak ez digu langilledi ori elizaratuko!

Ingländerrian sortu zan proletaritzea, 1760'tik 1820'ra bitartean, olagintzan gertaturiko iraultzaren ondorio, orduan bildu hait ziran ola berri galanten inguruan, abereak lez, langille-talde aundi ugariak, Karlos Marx'ek zabaldu zuan langille lander aiei «proletari» izenez deitzeko oitura. «Proie» itzak «utne» esan nai du. «Proletari» itza erabiltzean, langille aiek beren-umeak-beste-aberastasunik ez zutela adierazi nai zuan, eta ederki zegoan, baiki, itz ori erabillia. Ola-jaunek naiago zituzten, lanerako, umeak, —auek merkagoak ziralako—, ritzakutne aziak baiño. Ala, gurasoak maiz lanik gobe egon oi ziran bitartean, umeak billatzen zuten beti zer egiña eta zertatik irabazia. Orrela, urne ugari izaten zituzten sendi prolerariet ume aien irabazia hait zuten bizimodurik seguruena. Umeak ziran, zuten aberastasun bakarra.

Cure mundu oparo ou, parte aundian, umeen lanak aurrera aterea da. Urne langille billa jotzen zuten zoko; uztiatar kapitalistek umezurtztegi danak iker-tuaz. Ala ere ez ziran auek erabe ustutzen, proietariet utne ugari sortuaz jarraitzen zutelako, eta, langille auzoetan erregin zan eriotzak, gurasoak eramanaz, bereiziki erditzcrakoan edo erditze-ostean proietaritegiatoko emakume gaixo aiek eramanaz, umeak ugari zurtz uzten zitualako'

Bazan ordea aur-mota bat, lanerako balio ez zuala-ta, beti umezurtztegiatan gelditzen zona: buruz edo gorputzez elbarritutako umeena alegia. Baiña urne doakabe auengandik ete libratzeko, aurkitu zuten etxe aietako zuzendariek era txit egokia: iAmarretik bat, urne aietakoak artzera beartzen zituzten zuzendari aiek, ume-eske etortzen ziran kapitalistak.

Ez do gure loua, emen langilledi gaixo aren egoera tamala agertzen astea. Altagutziz oroi ditzagun egoera artako xeetasun batzuk:

Lou urteko nexkatoak etu muttikoak, olaetan zebiltzan langille. «Ez du bizitzerik merezi, lau urteko adiñean b.re bizia irabazteko gai ez dan umeak», utzi zigun idatzirik Edgar Poe'k.

—Urne aiek olaetan bizi ziran; an jan eta an lo. Egunez cta gaeuz, txandaka ion egiten zuten; 6 edo 8 oldu, adiñaren neurrira, ta kontramaixuen zigorraren azpian beti; izan ere, esacra bai, zan olagizonen artean, ikastoletan irakurtzea bezala, olaetan ion-egitea odolarekin ikasten zala. Urne bat, lanerako, ogetik jeikitzen zanean, antxe sartzen zan, ope beroan, lanetik zetorren beste ume bot.

—Langille zarragoek, 12 edo 14 ordu egiten zituzten lanean. Sindikatoen aurreneko eskaria, 10 orduko lona izan zan; eta umeen ariketa lege zuzenabitartez goxatzea. Ta... ori..., uAmerika'n, bakarrik! ; XVIII mendea amaitzera zijoanean. Europa'n..., askoz eta askoz geroago asi bait ziran oien antzeko eskariak!, Ingländerrian izan ezik.

—Lan-saria, langilleak bizitzeko hear-bearrezkoa zuana besterik ez zan. Eta maiz, ez zan ortaraiño iristen ere. Ez zegoan ortan korapillo gogorregerik

orduango ekonomilariantzat, ekonomiaren legeak ber-berak askatzen zuala koparillo ori, esaten bait zuten: Lan-sariak bizitzarako lain ez izatean, ugari iltzen ziran bâ langilleak! Aien tokiak betetzeko langille berrien bearrean aurkitzen ziran orduan kapitalistak, eta jasotzen zuten gora lanaren saria' Baiña orduan nekazaritzatik-eta, langilleak, sari aren usaiera, pilloka etortzen ziralako, beerrazten zuten ostera —langille berri auk— sariaren balioa lengo neurrirra: Langillearen bizitzaren kostoaren azpira. Ori duzu Lasalle sozialistak «lan-sarien tupikizko legea» izenarekin munduari jakiñarazi ziona: lanaren saria, langilleak bizitzeko bear duanaren inguruan ibilli oi dala beti, gutxi-gora-bera.

Manchester eta beste olagintzako uri nagusien inguruan, auzo aundietan bildurik, abereak bezalaxe bizi oi ziran millaka eta millaka pillaturik langille proletariak. Txabolak izatera iristen es ziran zulo ta aterpe baldarretan naasian multzoturik. An zan gosea, an ziran ezbear guztiak, an zan eriotza, eta an moralitaterik-eza! Eta ankerkeri ura dana gaitzesteko ez zan abots bat ere jeiki!

Entzun ordea! Zaindu dezagun gure adimenean patxada, aro artako mundua oker epaitu nai ez ba'dugu. Gaur baiño askoz okerrago bizi oi zan orduan bazter guztietan jende arrunta. Orregaitik, proletaritzaren egoerak ez zuan jenderik geiegi arritzen. Eriotzera ere gaur baiño askozaz jarriagoa zegoan jendea: gudatea zala, gosetea edo izurratea, gaitzak zirala, edo justiziaren ariketa zala, maiz ikusten bait zuan nor-naik nun-nai begien aurean eriotza.

Ala esan oi zuten liberalek ain kezkarik gabe, ekonomiak, izadi-jakintzetako bat zalako, berak bakarrik zuzentzen zituala bere legeen bitartez, berak egin zezazkean oker guztiak. Konponketa ori gizakumerik gaixoenak illaz egiten zuala? Ez zituan orrek gure liberal aiek kezkatzen. Eta ez zitzairen arrazoirik peitzen ekonomia izadi-jakintza uts besterik ez dala ontzat artzen ba'dugu, bai landare bai abere bai gizakume-artean eriotzaren bidez konpontzen bait ditu izadiak azken-arazo guztiak! Ekonomia ordea, ez izaki izadi-jakintza uts! Eta gizakumeak —gizakume orok— bereak izaki iñork ukatu ez dezaiozken esku-bide batzuk...!

Langilleak ola-urietan gutxi-gora-bera len nekazaritzan bizi izan ziran bezala jarraitzen zuten; beti gaizki, eta beti mixerian, aien biziera ez bait zan aldatu. Olagintzaren bidez ugazaben bizimodua ere aldatu ez balitz, aiek ere len bezain aberats jarraitu ba'zuten, ez zan agian munduan soziologiari-buruzko arazorik ain gogorki sortuko. Baiña ez bait zan ori gertatu! Ugazabak len baiño askoz aberatsago bizi bait ziran; egunetik egunera aberatsago..., eta langilleak ikusten bait zuten ori... eta oartzen bait ziran aberastasun ura ez zala olaetan sartutako diruaren emaitza bakarrik... , olaetan egindako lanaren emaitza ere bazala", sortu zan langilleengan esarrea eta, ala-edo-ola, egoera ari iraultza bat emateko guraria. «Artzai» protestalari izandako bat, anarkismoaren sortzaillea ain zuzen, Eduard Godwin izan zan arazo ura zuzentasunari, ots, justiziari zegokion arazoa zala lendabizi ozen oiukatu zuana, (1793).

XVIII mendearen azkeneko irurdenean bildu ziran Inghlanderriko eta Larterri Alkartuetako langilleak « trade unions » edo « lan-alkarte » izeneko erakundeetan, Jaurlaritza guztiak liberalen eskuetan, edo , ekonomiari-buruz aien aburu berekoak ziran kontserbatz, aillen eskuetan zeudelarik , esan bearrik ez da Alkarte aiek lapur-taldeak bezala izan zirala zigortuak, liberaltasunak lette egin zuan «ekonomiaren askatasunari» eragozpen-ipintzera zetozelako.

1775'ekoak ditugu Inghlanderrian langillean alkartean aurka emandako lenen legeak. Alperrik guzia, lege zipotz aren azpitik , isillik eta illunbean, azitzen eta ugaritzen juan hait ziran alkarte aiek. Gogortu-bearra izan yuau kapitalistez osotutako Jaurlaritza ark zigorra. 1799'an eta 1800'ean onartu y uau Parlamentuak «Combination Acts» edo «Alkartec; i-buruzko Erabakia»: «all Combinations to be conspiracies against the public interest» , «Alkarte guztia]. , —langille-alkartecuk erriaren aurkako azpi-lan-tegiak» zirala erabakitzen yuau legea.

Dakusazunez, ez diote langilleak beren azarkeia iñun; ro filosofilauei zor; Berak izan ziran beren onturrearen aldeko borroka asi zutenak. Oso urruti zeuden oraindik Karlos Marx eta aren oiñordeko «mundu-salbatzailleak».

Baiña, alatagutziz, aitor dezagun 1n rlan lerrin eIa l i landerritik-at laister zinnia langillediaren aide pentsalari batzuk: katoliko-azal, , geienak , baiña baita katolikoak ere.

Esan dugunez, 1793'a n argitaratu zuan Godwin kalbindar izanak bere lenengo liburua: «Enyairv Concerning Justice» edo «Politikaren Zuzentasunari-buruzko Ikerketa». Rousseau'ren matatsatik aria artuta, gizartea dala dio, gizakumeen gaitz guztien iturburua; Ez ordea gizartea bera , giza-kumeek alkarrekin gizartean bizitzeko asmatu dituzten erakundeak baizik; gaun-eguneko erakunde oiek danek, Larterriak butez ere, ez omen dute b7 gizadi osoa indartsu batzuen mendean zanpatuta jartzeko besterik balio: erri gaixoa aberatsen eta aundikien mendean jartzeko!

Apurtu dezagun bñ Larterria, a ta besterik gabe berez desegingo dira giza-kumea-zanpatzeko asmatu diran buste erakunde guztiak, Larterria bai da danei bizirik eusten diona.

Bai ña giza-kumeei gauzen jabe izaten uzten ba'diei ii nai-ta-naiez sortuko zaigu ostera Larterria , rauzarik geienen jabe egiten danak, jabetasun ori ba-besteko, berealaxe egingo hait du bene huma guztien nagusi, guztien agintari, guztien errege! Ezereztu deza, (tun 1-) t jabe-izateko aala, eta ez dugu geiago Larterrik munduan izango, ta berriro giza-kume guztiak berdiñak, eta iareak, izango dira, sortu ere ala sortzen bait ditu Tzadiak amen sabeictatik.

Izadiak ez dio iñori beste-agintzeko-eskubiderik jaiotzakoan ematen. Tzadiaren aurkako gauza da beraz agintaritza , autoritatea. «Autoritaterik gabea»,

«akrata», bear du gizadiak izan zoriontsu izan nai ba'du' Ezabatu dezagun bâ autoritatea, desegin dezagun autoritate ororen oiñarri dan Laterria!

Zer ipiñi Laterriaren orde? Gizakume guztien erkidetasun edo komunitate senidekoia. Eta legeen orde? —anarkian ez bait da legerik izango—. Bâ, erkidetasun orren altzoan, gizakume batetik bestera, iareki, askatasun osoan, egingo eta edatuko diran itunbeak, tratuak. Intun iareak, komunitateen eta komunitatekide soillen artean ere!

Eta... persona soillen jabetasuna ezerezten ba'dugu norenak izango dira gauzak? Komunitate osoarenak, edo, berdin dana, komunitate artako gizakume guztienak. Eta ez al da ortik iskamillik sortuko? Ez. Ezeren jabe izan ez daitekelarik, ez bait du iñork danen gauza aietatik gaur-gaurko bearrezkoa duana besterik artuko. Gaiñera, ordurako ondo azirik egongo bait da jabe-ezinezitateak on eta zintzoa biurtutako gizakume oro..., bakoitzak bere lanaren bitartez al duan geiena emango dio komunitateari eta al duan gutxiena komunitatetik artuko.

Ortik, irakurle, errez igarri dezakezu aingerukeri utsa dala anarkismoa.

Arrazoi osoz euki oi da Godwin aingerukeri orren sortzailletzat, bere gogapen guztiak, bete-betea igaro bait ziran geroagoko Proudhon, Blanqui, Bakunin, Marx, eta gaiñerako anarkizale guztien gogabideetara. Ez zaitez arritu anarkisen artean Marx ikusteaz, Marx, oso-osoan anarkista izan bait zan, geroxeago ikusiko dugunez.

Godwin bezain laister asi ziran pentsalari kristauak ere langillediaren egoeraz kezkatzen, baiña tamalez kopuruz gutxiegi izan ziran kristau auek, katolikoak batez ere. Ez zuten gaiñera Eliza esnaarazteko almenik izan; eta, gaiñera-gainera... ez ziran arazoaren muin ber-beraraiño iritxi!

Godwin'ek Inghlanderrian bururatutako pentsakizun aiek, Frantzi'n Graecheus Bebeuf'ek nai izan zituan mamitu iraultza baten bidez, Frantzi'ko Traultza Nagusiaren denbora ber-berean. Ortarako, «Berdiñen Lagundia» edo «la Société des Égaux» eratu zuan.

\* \* \*

Direktoriao zeguan orduan agintzen' Direktoriao, ordea, —eta Frantzi'ko Iraultza osoa—, Frantzi'ko burgesiaren serbitzura zeuden gauzak ziran, eta Iraultza-aurrean bezain gaizki aurkitzen ziran Iraultza-ostean langilleak eta erriko jende xumeak. Egia da legearen-aurreko-bardintasuna, eta iaretasuna, lortu zituztela, baiñan ondo zekusan Babeuf erdi-komunistak, irabazketa oiek ezer ez zirala ekonomiazko askatasunik eta berdintasunik gabe, eta berdintasun au lortzeko Paris'ko karriketara irten zan matxinadan, (1796). Errez zapaldu zizun Direktorioaren gudarozteak babeuftarren zalaparta ura. Babeuf bera, gillotinapean izan zan crailla; baiñan laister ikusiko dugu berbiztua 1976'ko bere iraultza ura 1848'ko eta 1871'eko iraultzetan,

Godwin'ek aurrena eta BabeuE'ek gero sua piztu zuten ezkerero, kkonorniazko ezberditasun lotsagarriak laguntzeko gurari zuzena, eta elburu cri lortzeko era gogor okerrak erabili nai izatea, bat egiñik ikusiko ditugu gure egunok arte. Ta, ekintzetan asmo zuzenekin odolkeria bezala naasiko zaigu, gogapenen maillan, egiarckin gezurra etc. Neurrigabckria egin zan iraultzalari guztien lege. Agian orregaitik, igikunde artatik kanpo gelditu ziran katolikoak. Obeki esateko, aurka jarriko zaizkio bazter guztietan kristauak orokorki eta katolikoak bereiziki. Edo-ta, ez ote zan igikunde artako jabe neurrigabekeria egin, kristauak asieratik aree aurka ipiñi ziralako?

Danadala, bai ekinizen bai oldozkeren maillan aundiak izan ziran geigikeriak.

Godwin bera, erlijioaren aurka itzuli zan kalbitasuna ukatu ondorean. Marx jaio baiño leenago oi u egin zan E.uropai'n «erlijioa gizadiarentzat edan erioarria» dala. Gauza ororen jabetasun oro ukatuaz, «jabetza lapurreta da», oles zegian Proudhon'ek. «Ni Dieu ni maître! Ma liberté, ou ce que revient à; meme, nia dignité d'lonie consiste a ne obeir à aucun autre home et à ne determiner nies actes que conformement à nies convictions propres». (Prantziko ana'kisten itzulpen ofizialean, Bakunin'cn itzak dira).

Euskeraz:

«Ez Jainkoril., ez jaberik! Tñoren mendeko ez izalca; nere iritzi misera nere arlketa guzia zuzentzea; Ortantxe daLla nere gIza-dulmasunaren zertasun OSO».

«Au tori tarea diozu:" Itza bera era naiko zentzugabckeria duzu!» , —idatzi zuan berriz [diseo Reclus'el:—, zentzugabckeri uts besterik ez bait dira autoritatearen izamena oiñarritzeko aipatu oi diran arrazoi guztiak».

Era berean, Kaspar Schmidt (Max Stirner) doixtarak «scndia», «dateria», eta baita «gizartea» bera ere, itz utsak besterik ez dirala esango digu. Gizakumea dala, soilki, errealitate bakarra, egiazko izate-dun gauza bakarra. Itz uts aiek gizakumeek sortu zituztela, eta orain gizakumeen askatasuna moztu ta ezerezen dutelako iguingarri biurtu dirala eta ezabatuak izan bear dutela. Atsegiña amen da gizakumearen elbatru bakarra, eta atsetiñik aundiena lortzera gizakume oro daraman indarra onen da gizakumeen lege bakarra. Ta nor-beraren almena ta indarra omen dira lege orren mugak.

Max Stirner ori izan zain Anarkitasun Indibidualistaren sortzaillea; eta aren irakaskizunak jarraituz idatzi zuan Jon Most'ek «L-aultzarako Gudaiztia» deritzan liburua.

Idazle oiek danak, anarkistak ziran, eta ala, anarkistak izan ziran Inghanderriaz landa langille iraultzalari ia danak P,uropa'n, emen Inghanderrian ez bezala, pentsalari anarkista aiek izan bait ziran langilleen igikundeari ats eman ziotenak; ez, an bezala, langilleak berak.

Marx bere komunismoa aldarrikatzen asi zanean ez ziran gauzak ezer askorik aldatu, bere aurrekoen gogapenak jaso eta gogapen aiek alkarrekin cra-



kunde mardulago eta igikorrigo batean bildu besterik ez bait zuan egin. Borroka ta iraultza dira gaiñera Marx'en pentsaera guztiaren ardatza, eta anarki utsa, borroka eta iraultza aien azken elburua.

Iraultzalari auek danek langillearen eskubideetaz itzegiten zioten langillediari, Elizako gizonek, Prantzi'ko iraultzalari aien geiegikerien ondorioz aide batetik eta errege agintari eta aberatsekin alkartuegiak egotearen ondorioz bestetik, ez zituzten langilleen eskubide oiek ikusi.

"Zer gertatu zan esan bearrik ez da: langilleak urrundu egin zirala Elizatik eta iraultza utsean ipiñi zituztela beren itxaropen guztiak.

Gero, langillean eztarri lutzetako karraixi garratzak entzutean eta aien akabil itxiak gorantz jasorik ikustean..., ikaratu egin ziran elizako gizonak.

Orregaitik, gizon *oick* ez ziran soziologiaren egiazko muiñaz mintzatzera ausartu; ez zituzten sekulan soziologilari ezkertiar aien oldozkerak baiki bazituan alderdi onak ezertarako aipatu, bildur bait ziran igikunde anarkista aietara joanda, betirako Elizatik ez ote ziran langilleak aldenduko, Orrela, soziologiaz itzegite utsa debekatua bezala egon zan kristauen artean.

Giro ortan, kristauek langillcen artean egin zuten guzia, langille aiek ostera kristautasunara ekartzeko izan zan egiña, ez langille ~~guzti~~ aien egoera zuzentzearen, gizarteko legeak aldaarazteko, Eta..., mundu ontan ain era makurrean bizi zitun langille aientzat ez hait zuan atsegingarritasunik mundo ontako okerkerietaz ajolarik ez zitzaiola zirudian kristautasun arek..., langilleak ez ziran kristautasunera itzuli, alderantziz, kristautasunetik alden duaz eta aldenduz jarraitu zuten, Ez dau arritzekoa: ziur zeuden b<t lanaren saria lapurtu egiten zitelak kapitalistek, ortarako kapitalista beraiek ezarritako legetzat baliutuaz, eia ziur iduritzen hai zitzaien Eliza pozik bizi zala lege aien babesean, eia kapitalista lapur aien lagunago zala langille lapurtuena baiño.

Zoritxarrez ez zan orduan gaur-egon Ameriketean sortu zaigun Teologia de la Liberacibn antzekoaren Askapen-Teologi bat sortu, eta orrelako teologi baten faltaz, katolikook ez gera oraindik langillei atsegin lezaiekian igikunde bat eratzeko gauza izan. Ainbeste soziulismo-motaren urtean sozialismo kristau bat ez dugu asmâtu.

Sozialismoa aipatu dugun ezkerero, esan dezagun Godwin'en anarkismoak Europa'n indar artu baiño leenago agertu zala emen ordurako Inghanderrian aski zarra zan sozialismoa, eia lenen sozialismo aren ereilleak, batzuk, kristauak izan zirala.

1807'an idatzi zuan Saint Simon'eko Konteak «Nouveau Christianisme», edo «Kristau tasun Berria» izeneko liburua, denbora artako kristautasuna «atzeraturik» gelditu zala esanaz' Ugazabek baiño geiago gizartearen erakundeak berak zapaltzen omen zuan langilledia. Erakunde oker ori zuzentzeko ola ta lanabes guztien jabe gizarteak, komunitateak, izan bear omen du, ta olagintzaren eta lanketaren xetasun guztiak aurre-eratu edo planifikatu bear

omen ditu Jaurlaritzak. (Urte batzuk geroago, hi puntu auek egingo zituan bere, Karlos Marx'ek).

Saint Simon'en ariketa guzia agiri zaigu kristautasunez betea, eta bide beretik jarraitu zuten bere ikasleek ere. Baita geiegi ere batzuetan, auetako haket, Prosper Enfantin'ek, sasi-mistikara jausita gizon-emakumeen arteko maitasuna iare egiten zuten komunitate batzuk eraiki nai izan bait zituan, orrela anarkistei eskua emanaz. Jakiña da bâ, anarkistak, maitasun-iare zale izan dirala baztar guztietan.

Saint Simon'en garaiekoak ditugu Karlos Fourier kooperatibista Frantzi'an, eta Robert Owen, kooperatibista au cre, Inghanderrian. Gogor eraso zion azkeneko oneI: Elizari, eiconomiari-buruzko gaitzen sustraia gizarteko «giroa» zala, eta giro ori txarra izatearen errua Elizari zor zitzaiola uste zualako. Kristautasunari uko egiñaz, arrazoi utsezko erlijiora jo zuan, dcismora, 1813'an agertu zan bere, «View of Society», «Gizarteari Begiraldia» izeneko idazkia langilledia babesteko lege-egitea, eta beste iñun lanik aurkitzen ez zuten langillei lan-ematea, bete-betea Laterriaren eginkizunak dirala esanaz. Langille asko bildu zuan bere ingurura.

Saint Simon, Fourier eta Owen; sozialismoaren iru Asabak! Iru auen, —eta anarkisten— erakuttsietan aurkituko duzu ia Marx'en dotriña guztia. Pilloka izan ziran iru Asaba aien atzetik, 25 urteren luzaroan, langillediaren alde agertu ziran idazleak; danetan aipagarriena, Gillermo Thompson, 1824'ean argitaratutako «Distribution or Wealth», «Aherastasunaren Banaketa» izeneko idazkiaren bitartez Karlos Marx'i beste gogakizun mardul bat eman ziona: «balioaren teoria»: OInetako aberastasuna ez omen dator kapitaletik-eta-lanetik; «lanetik bakar-bakarrik dator, kapitala ez hait da lanak erabiltzen duan tresna bat besterik». Lana da ororen egillea; lanaren jabeari, langilleari, zor zaio, beraz, olaetan sortzen dan aberastasun guztia. «Balioa» esatea eta «dana» esatea gauza bat berdiña esatea da, «balioa» «dan mamitua» besterik ez hait da; «produktu» biurtutako lana. Thom son'ek zahaldutako gogakizun onen azi-alea Inghanderriko David Ricardo ekonomilari vudutar eta liberal ospetsuaren idazkietan aurki dezakezu, eta andik jaso zuan Thomson'ek.

Donetomas Moro'ren «Utopia» oiñarriztat artuta, beste bide batetik jo zuan Eztebe Calbet Kooperatibistak. Marxitarra izango ez dan sozialismoarentzat gogapen txit garrantzitsuen iragarlea izan genduan sozialista frantziar au, Ta ona emen hue lli gogapen garrantzitsu aiek:

—Legearen bidez lanarentzat sari-txikien bat, «sa<sup>l</sup>aire minime» bat, ezarzteaz bear-bearrezko gauza dala:

—Bear-bearrezko gauza dala, baita're, aberatsei urtetik-urtera aundiagozten joango diran zergak ipintzea, orrela laterkideen arteko geiegiuzko ezberdintasunak ezabatu arte.

Calbet Frantzi'n ari zan bitartean, ekin eta ekin ari ziran 1834'az gero

«Chartists» esaten zitzairen beste batzurk, legeen hitartez erri xumearen egoera jaso nai.

Ikusi daitekeenez, 18-18'ko iraultzaren bezperan ez da oraindik sozialismoa erlijiotasunaren etsai. Elizjendeen adiskide kaxkarra izan zan Fourier, eta deista berriz (hren, baiña ez zioten aurrez-aurre erlijioari eraso. Godwin'en eta Proudhon'en anarki-sistema aiek ere ez ziran jainko-ukatzailleak izan. Sinismenik gabeko Ilegel'en eta Peuerbach'en erakutsiak jarraituz, Karlos Marx'ek biurtuko du sozialismoa erlijio eroren etsai.

Orrenbeste maixu ta iragariek aize-eman da , ari zan esnatzen eta jeikitzen langilledia. Azkar eut bizkor La terri Alkartuetan eta Inghlanderrian; astiro ta geldi emen, Europa'ko lur nagusian. Orrela, Europa'n, 1830'ko iraultza, burgesitar liberalen iraultza izan zan oraindik' [z ordea 18-18'koa. Karlos Marx berak ere ura zola uste izan hait zuan komunismoa munduan ezarriko zuan proletarien iraultza!

Zeero atzipetu zan. Iraultza ura gaiñera, sozialistena ez baiña anarkisten iraultza izan bait zan. Anarkistek egiña, baiña liberal burgesitarrek beren onturrerako era egokian zuzendua. Iraultza artatik jaio zan bâ Frantzi'ko Bigarren Errepublika, oso-osoan liberala, ta burgesitarra!

Iraultza artan esku izan zuan anarkistarik ospetsuena, Augusto Blanqui sa.boiatarra izan genduan, naiz orduan bera espetxean haiturik egon. Iñoiz norbait bokazioz iraultzarako jaiorik izan ba'da, iñor ori Augusto Blanqui izan da ezpairik gabe. Espetxean egon zan ia bere bizi guzian. Ekintza-gizon zalarik, ez zuan idazteko zaletasun aundirik izan. Proletaritzaren Diktaturaren aldekoa izan zun. Iraultza irabazi ondorena, iraultza aren emariak ez galtzeko proletariak artu bear omen Jute bâ agintaritzza, eta beren diktadura ezarri: «Proletari taren Diktadura».

Ez zuan berea 43lanqui'k gogalizun ori, orixe bora idatzi hait zuan Pirektorioaren egunetan gillotinat lpoa galdu zuan Gradins Babeuf arek, eta 13lanqui'k bezala lais ter artuko du beretzat Babeuf'en asmakizuna, orduantxe ain zuzen sozialismora iritxi-berria zan Karlos Marx'ek.



# KARLOS MARX

Ondo ezagunak dira Marx'en oldozkera ta izaera. Elizaren edesti bate-rako jakingarriak izan daitezkean xetasunak bakarrik jasoko ditugu guk emen:

Karlos Marx, judutarra izan zan odolez; burgeskumea giza-maillez; lu-tertarra Igeez, naiz barnez, zearo sinismenik-gabea.

Aita sinisgabe Rousseau-zalarengandik jaso zituan sinisgabekeria ta Rous-seau'renganako zaletasuna. Hegel'en ikasketak finkatu zuan sinisgabetasu-nean, cru Feuerbach'ek biurtu zuan materialista uts. 6 urteko mutikoa, juda-tarren aurka Prusi'n sortutako giro okerrak eraman zuan, aitari jarraituz, itxu-raz bere burua lutertar egitera, eta Prusi'ko Jaurlaritzaren aginduz «Rheinische Zeitung» izparringi kapitalistaren zuzendaritza utzi bear izateak bota zuan ko-munismora, ots, anarkismora, anarkistak bait ziran orduan beren buruei ko-munista esaten zieten iraultzalari geienak. Marx ere, anarkista izango da bere bizitza guztian, anarkismo utsa izanean da here komunismoa ere, ta anarkis-mora iristeko moduan bakarrik berciziko da beste anarkistengandik.

—Marx ez da teori berrien sortzaille. Marx'en dotriña guzia bere aurre-tik beste batzuek asmatutako gogakizunen bilduma bat besterik ez da. Ondo egindako bilduma, ori bai.

Marx ez da, ezta're, zientzi-gizona, naiz berak bere sozialismoa zientzien araura tajututako sozialismoa dala esan da bir-esan. Marx'en zaletasun guz-tiak ikasle zalarik, olertia aurrena, eta filosofia gero, izan omen ziran. Le-giztia, —bere aitak artara bultzata aurrena, eua bere amak beartuta gero—, bizitzarako beste irtenbiderik ez zualako, aski gogo txarrez ikasi omen zuan'

Ez dezagun gaiñera aantzi, Hegel'en ondorengo urte aietan Alemani'ko zientzirik nagusiena filosofia zala! Orixe esan nai digu ain zuzen Marx'ek bere sistema zientzikoia dala esaten digunean: sistema ori logikarik gogo-rrenaren araura egiña duala. Orregaitik ain zuzen, Marx'en idaztietan ez duzu zientziek eskatzen duten enkuesta edo ikerketarik aurkituko.

Marx, filosofilaria da; eta beste anarkista guztiak bezala erromantik-  
-aizeak aski joa' Ez zaitez aztu, bere gaztaroan Marx'ek olerkari izan nai zua-la, olerkaririk onena, eta asmo orrek eraginda, olerki asko idatzi zituala. Batere baliorik ez duten olerkiak.

Olerkari bezala uts egin ondorean [ilosofilari biurtu nai izan zuan: filosofilaririk onena. Uts egin zuan ontan ere. Baiña, dirudianez, ez zuan era baldarean logika ikasi. Logika marduleko gizona agertzen hait zaigu Marx herc idazti guztietan: oinarri bat artu ezkeru, oiñarri orren gainean zuzenttasunik sendoenaz gaztelu osoa craikiko ditun gizona baiña sekulan oiñarritzat ortU-tako ura, ustela dan aIo ez aztertzen asiko ez zaizuna. Nzta're, ez du kontuan artuko gaztelua altxatzeko gaiak egiazkoak cdan edo itxura ederreko gezurrak diran, hcre asmoak aurrera ateratzeko egokiak h<'ditt.

Ona emen, irakurle, gaztelu orren zutahurik nagusienak:

Gui-1 izki utsa, ots, materi utsa da izate-dun guztia.

--Gorpuzki uts, matdi uts, dira gizakumeak erc' i.ta materiak ez bait du «produkzio» edo materi berria sortzea heste elhnrurik, orixe da gizadiaren elburu bakarra crc: hrodukziot: materi herria sortzea. I ;konomiari dagokion elburua.

—Ortaz, ekonomia da edesti osoaren ardatz bakarra; gizadiaren «infra-estruktura» edo azpi-erakundea. Gainerai«) guztia, az\_k i-erakunde orren su-}ira-esiruktura edo gain-erakundea dugu; ta, nolakoa az,ai-erakundea, alakoak izan\_Go dit-a azpi-erakunde orri dagozkion sain-erakundeak ere.

--Gizakumeen lana da, «hrodukzioa» edo «ontasuncn-sorketa» oheagotuz edestiari aurreruntz bultzatzen diona. Langilledia da hcraz munduaren salhatzaillea.

—Gaur-egun ordea langillediari ez zaio nagusitasun ori onezagutzen. Kapitalisnuaa da gaur munduaren nagusi, eta gero ta mixeri gorriagoan aurkientien da langilledia, onen bizItarretik bizitzen bait da kahitalisnioa.

—Kapitalismoak hrodukzioaren haliotik jasotzen (hum guztia, langillediari egindako lapurreta da. Zergaitik? Gauzaren balioa gauza egitea kostatzen dan lana besterik ei: dalako. Ortaz, zuzenttasunaren araura, langilleengana joan hear luke lanak sortutako gauza guztien halioa.

—Kapitalismoa ordea, jaustera dijoa; ent oso laister gainera. Onai zergaitik:

A) Kapitalisten artean ezarririk dagoan alkar-leia edo konpetentzi zakarraren erruz, kapitralisra asko, geienak, mixcra jausiko diralarik, laister kapitalistak 050-050 gutxi eta prolctariak gizadi osoa izango diralako. Orduan gizartearen hira^nidca. bere axp: zabalean ez baiña bere puntta iman egongo da kokatua: zearo ira u nnu'nik gabeko egoeran; buruz bera piramide batek ez bait dezake iraun.

B) Naitanaiez, izadia ber-beraren legeek ala beartuta laister kapitalismoa ezerczrua eta l:milledia n undimren jabe egiña izango dalako.

Marxien erronka au ulertzeko, iAvlarx'ek maixu izan zuan l-lege/en filosofira itzuli hear dugu.

Hegel'eh, gure adimenean gogapen berriak nola stutzen diran adierazte- k «bai zkearen» eta «ezeknaren» teoria aSmatU zIgun, eta teori orri, gre-

ziarren denborako itz zar bati beste zentzu bat emanaz , «dialektika» deitu zion. Ikus:

Gure adimenak gogapen bat («baiezkoa») sortzen duanean , une berean sortzen omen du gogapen aren aurkako gogapena («ezezkoa»). Bi gogapen oiek alkar jotzean buste gogapen berri bat sortzen omen dute, eta au beste bi aiek baiño aberatsagoa, oparagoa, izaten omen da. T'egel'ek , «haiezkoari» «tesis» esan zion; ezezkoari, «antitesis», eta biengandik sortutako gogapen berriari, «sintesis».

Hegel'ek epistemologiari-buruzko arazo bat argivcko asmatutako teori uraxe ber-bera, izadi osoari gain-ezarri zion Karlos Marx'ek. Izaki guztietan aurkitzen omen da bi indar oien aurkatasuna, eta gauza bakoitzaren barnean bi indar oiek alkar joaz era berriak sortzen ari diralako egiten omen du mon-duak aurrera. Gizadia-baitan, kapitalismoa omen da tesis, --Marx'en ustez—, eta proletaritzza, antitesis. Bien arteko atezu edo tensioa giza-maillen arteko borroka, omen da. (Oroi, Marx'en aburuz , gizadiak ez dituala buste gauza guztien antzera bi mailla nagusi besterik: tesla, (kapitalismoa) , eta antitesia (proletaritzza). Atezu ori laister iritxiko omen da krisis-onera, ots , eztanda egiteko onera. Gizarteko maillen borrokaren eztanda izango da ain zuzen az-ken-iraultza. Eta iraultza ortatik jaioko dan mundu berria izango da hi indar aien sintesia: komunismoa: langillediaren paradisua.

(Ori guzia berealaxe gertatuko zala sinisturik egon zan Marx. Ala uste izan zuan, 1848'ko iraultza zala komunismoari sortzea emango zion azken-iraultza).

—Iraultzak bi une izango zituala esan zigun Marx'ek: aurrenekoa , borroka odoltsua; bigarrena, proletaritzaren diktatura: borroka irabazi ondorean proletarietiek eratuko duten Laterria; munduan izango dan azkeneko Laterria; oso-oso denbora laburrerako jaioko dan Laterria gaiñera, bure eginkizun ba-karra produkziogaillu guztiak kapitalistei kenduta aurrena Laterriaren eskue-tara bildu, eta, gero, berealaxe, Laterriaren eskuetatik komunitatearen eskue-tara pasaaraztea izango bait da,

Ta besterik gabe, deusezturik geldituko dira *Kapitalisnma* (gizakume oro-ri betirako kapitalen jabe izateko almena ezereztuko zaiolako), *Proletaritzza*, (kapitalismorik gabe proletaritzarik ezin izan daitekealako) *D ktadrrra*, (proletaritzza deuseztean besterik gabe aien diktatura ere deuseztua gelditzen d f-lako), *Gizarte-barrengo klase* edo maillak, (gizartean kapitalismoa ta prole-taritzza beste maillik ez dala, bi aiek desigitean gizarte-baitako ezberdintasun ara desegiñik gelditzen dalako), eta *Laterria* (kiase edo gizarte-maillak eza-batzean, klase batek bestea menderatzerik izango ez dualako). (Oroi dezagun, Marx'entzat, Laterria ez da la klase batek bestearen gainean duan indarkerizko-aginte-zanpatzaillea besterik).

Laterriarekin batera desegingo dira Taurlaritzza , Autoritate edo Aginmen oro, Legeak, eta Legeak emateko Almena bera. Eta ori izango da KOMU-NISMOA.

--Orixe duzu Marx'ek tajututako sozialismo «zientzikoia» bizkar-ez-urra. Arentzat, gorpuzkia ez dan guzia, gizakumeek asmatutako ameskeri utsa besterik ez da. Ameskeri dira erlijioaren erakuskizun guztiak ere: kaltegarriak gainera, erlijioak besterendu egiten hait du gizakumea; besterena. Tainkoarena, egin, norena izan hear ez duan gizakumea!

Erljioa, jende txiroen opio-belarra, ots, jende pobreen pozgaillua da. Aberatsek beren neke-naigabeetatik iges egiteko, orduan ain garestia zan opia-belarrera jotzen ziten bezala, erlijiora jotzen omen zuan h<t langilledi gaixoak. Baiña ori egitean bere buruaren jahetasuna galtzen omen zuan jabetasun ori ametsezko izakia besterik ez dan jainko bati emateko: besterendu egiten omen zan: alienatu.

—Karlos Marx'ek ez digu esaten Proletarien Diktaturtza, eIa aren ondorengo Komunismoa nola eratu bear diran. Asko idatzi zuan, baiña hi atal oietaz, bere bizitzaren azkenean eta hi-iru liburuetan bakarrik, eta orduan ere iraisean bezala mintzatu zitzaigun: «frantzi'n Laterkide-Arteko-Gudua», «Gotha'ko Egitaraua» eta «Anti-Dñhring» esaten zaienak, dituzu Uhuru oiek.

Proletarien diktaturtaz (lion guztia irakurtzen ari zeran orri ontan sartu daiteke. Ez da gainera zuzenean diktadura ortaz inintzatzen, «Proletarien Diktadura» Paris'ko Komuna bezalakoa izango dala hait dio. Baiña Paris'ko Komuna ere, —ameslarI aundia hait zan Marx—, ex zuan Paris'en gertatu zan bezala ikusi, bere adimen ameslariaz bere buru-muiñen barman ames-margotu zuan bezala baizik. Esaten digun gutxi ortatik auxe bakarrik atera dezakegu garbi: Marx'en sozialismoan, Proletarien Diktadura'k Rousseau'ren bitartekotasunik-gabeko-demokrazia izan bear duala: «Democratia direeta». De mokrazi ori nola eratu daitekean... ez dizu ortaz iMarx'ek tutik esango, geienaz, proletariak legeak eman edo «diktatuko» dituztelako, ez dala «demokrazi» izango, arentzat legeak «diktatzen» zituan Erria, diktatura bait zan, naiz beste guztiontzat demokrazia izan.

Are gutxiago berriz idatzi zuan Komunismoaz: Soilki, inork legerik emango ez dualako ez dala Laterri izango. Orregaitik, eta iñork iñori ezer aginduko ez diolako, demokrazia izango dala. (Marx'entzat, anarkista guztiontzat bezala, anarkia bakarrik hait da demokrazi). Gauza guztiak komunitatearenak, ots, gizarteko gizakume danenak izango dirala. Eta pakezko komunitate ortan danek egingo omen dute lana pozik, lana arrezkero «kontzientziatua» izango dalako. Itz orren bidez, lana, danen artean gertutua eta danen artean zuzendua izango dala, esan uni du Marx'ek, dirudiane.

—Karlos Marx ez zan hangillcak sa/baizea tui/ik komunista egin. Ezta komunismoa egiazko dotriña, edo jokabide zuzena, edo gauza atsegiña iruditzen zitzaiolako. Marx'ek ez zuan orrelako gauzetan une batez ere pentsatu komunismora jo zuanean. "Zergaitik egin zan bâ komunista? Bat-batean kapitalisten aurka sortu zitzaion gorroto itxuak eraginda, kapitalismoaren lepotik apentza, bengantza, artu nai izan zualako, Ikus:



—Naiz itxu-itxuan, bere sentimentuek bultzata, hein erabaki [at artuz gero, Karlos Marx logika txorrotzeko gizona van pentsatzeko garaian; baita gauzak antolatzekoan ere; organizalari bikaiña bait van. Ederki erakutsi yua gauzak egoki eratzeko zuan bizkortasun au, Koloni'n «Rheinische Zeitung» izparringiaren zuzendari egon zanean. Izparringi au Rin ibaiaren lurraldeetako kapitalistena zan, kapitalista aien interesak babesteko sortua. Pozik aritu zitzaigun an Karlos Marx, Rin'eko kapitalismoaren serbitzura, eta pozik egon ziran berarekin izparringiaren ugazaba kapitalistak; Marx'ek asko jaso hait zuan izparringiaren salketa'

—Baifia, hein, Poloni'ren alde Errusi'ko gobernuari eraso zion Marx zuzendariak, eta izparringi aren ezereztea eskatu zion Errusi'ko gobernuak Prusi'koari. Lanik gabe gelditu zan Marx, leenago bein baiño geiagotan bezala. Kapitalismoari buta zion ain maite zuan izparringi artan gertatu zitzaion zoritxar ura, ta artu yuan, erabat munduan kapitalismoa desegiteko erabakia. Ortarako..., komunista egin zan'

—Marx komunista egitea, —Luter protestalari egitea bezala—, sikologiazko problema utsa izan van. Luter'ek, protestalari biurtu zanean, ez yuan Eliza garbitzerik billatzen; betirako salbazioari-buruz bere kontzientziaren la-saitasuna billatzen zuan.

[ra berean Marx'ek, komunismora jua zanean, bere amorruari lasaipena ematea billatzen zuan soilki. Marx ez zan komunista egin, ekonomiaren jakintzak artara eraman zualako. Marx'ek ez zuan ekonomiarik ezagutzen; ez zitzaiola jakintza ori sekulan atsegiñ-izan. esan ni zuan gaiñera. Ezta ez van komunista egin langilledia gaizkatzeko. «Rheinische Zeitung» itxi zanean, ez van an bizia irabazten zuten langilleengaitik ezertxo kezkatu; alderantziz, arrokeri zakarrak jota berak itxiarazi yua izparringi tura, langilleak lanik gabe usteaz urduritu gabe, izparringi ura salbatzeko ez hait zuan zuzendaritzarik utzi nai izan, izparringiaren nagusiek eskatzen zioten bezala'

Are gutxiago egin zan komunista komunismoa guztatzen zitzaiolako, ez hait yua apika komunismorik ere geiegi ezagutzen; gero asiko da sakonki komunismoa ver zan ikasten; komunista egitea erabaki zuean. Kapitalismoa desegiteko, komunismoa beste biderik ez yua bâ! Komunistak bakarrik, —au da, anarkistak—, hait ziran iraultzaren bidez osoro kapitalismoa eze-reztu nai zutenak. Orregaitik egin zan Marx komunista.

Ez da errez une artan Marx'ek «kapitalismo» zeri esaten zion jakitea: «Rheinische Zeitung»en nagusie? Auek, ordea, egin zuten al zutena beren izparringiko zuzendariaren aide. Prusi'ko Jaurlaritzari? Baiña, Prusi'ko jaur-laritzak, leu Marx Saxoni'ko Jaurlaritzaren aurka sartu zanean, ez zituan aintza, artu Saxoni'atiko protestak' Oraingoan, —Errusi ez bait zan Saxoni—, ez zezazkean belarriak itxi. ^Errusi'ako gobernuari, orduan? iTo! Ez ote nekian Marx'ek Errusi'n ez zala industririk, langillerik, kapitalismorik? Errusi erdiaroko feudalitza betean zegoala? i 1851'an kendu zan Errusi'n lege

baten bitartez erdiaroko jopuketa! Marx komunista biurtze ura , berriz zor-  
,z, urrez lénagokoa da: 1843'koa.

Dana dala, garrantzi aundia izanen du soziologirako Marx'en erabaki arek,  
1;uropa'ren egoaldeko langilledi anarkista kendu ezker, munduko langilledia,  
laister, Marx'en ingurura bildu hait zitzaigun'

Bazuten ,Alemani'n orduan sozialistek gidari ospetsu bat: Ferdinand La-  
salle. Bazituzten lenen mailleko buruzagiak anarkistak: Proudhon, Blanqui...,  
baiña danak baino kako i eiago izan zuan tMarx'ek langilledia bereganatzeko.  
Inglanderria gelditu zitzaion kanpoan , eta Iparramerika, an langilleek, lan-  
gille ez ziran «salbatzailleetatik» libre, beren buruen nagusi izan nai bait zuten.

Marx'eu indar izkutuko orren sustraia?: Marx beste danak baiño organi-  
zalarri ohea izatea.

—Marx'ek Ideologi bat eratu zion langillediari. Emezortzigarren mende-  
ko Dabid Rikardo liberaletik asita, aurrena adiskide eta gero etsai amorratu  
izan zituan Lasalle sozialista eta Blanqui anarkistaraiño, ordurarte izandako  
soziolog, lari czkerkoién zugatzetatik adarrak ebatsiaz zugatz berri bat eraiki  
zuan: ntarxismoa , zugatz sendoa, logikaren araura bikainki josia.

Baita borrokarako gudarozte itxurako Erakunde bat ere antolatu zion  
langillediari, ortarako munduko alderdi komunista guztiak batera bilduta  
«The International ledcration of \N'orking Men» edo «Langilleentzako Erri-  
trtcko 13iltzarra», itz laburrez, «I ntern\_tzonal», eratu bait zion. 18h4'ca □ egin  
zuan ori; Londres'en.

—Beste gauzatxo bat eru eskeintzen zien Marx'ek langillei: zerbait iza-  
tera iristeko itxaropena. Reste sozialistek, langintza obeto antolatzeaz min-  
tzatzen ziran bereiziki; eta ondasun-guztien-banaketa zuten berriz anarkistek  
elburn nagusi. Azkeneko auen elburu bera zuan Marx'ek ere azken-une ba-  
tean, ikusi dugunez, baiña azken-une artara iritzi-aurretik itz kilikagarri bat  
oiukatzen zuan an-o, langille zapalduen aurrean: Proletarién Diktatura! Ta  
ori entzutean, «ba-uan garaia-ta azkenean , agintari izango gaituk gu»! , pen-  
tsatzen zuten proletariék.

Oldozkera zailleko gizona da Marx; eta zailagoa du oraindik idazkera.  
Proletariek ci zuten arek esaten zuanetik edo idazten zuanetik tutik uler-  
tien , baiñan «proletarién diktaturak» zer esan nai duan heintzat aditzen zu-  
tela iduritzen ütztien. Bazekiten diktatore izatea mer zan, eta diktatore izateak  
herekin zeramazkien posihilitate guztiak errez usmatzen zituzten.

Gizartean jende-multzoei eskeintzen zaiena alakoa edo orrelakoa izateak  
ez du garrantzi aundirik , eta errez artzen du jendeak eskeintzen zaiona gau-  
za aundia cia aundiaz gaiñera atsegiña ere haldin ba'da, naiz eskeiñi zaiona  
burugabekeririk aundiena izan.

Orixe izan tan ain zuzen, pentsa daitekean burugab\_keririk aundiena, mende  
ontan hertan alemanitarrei Hitler'ek eskiñi ziona: MUndu guztiaren jabe iza-

tea, alajaiña, munduko beste enda guztiak baiño enda garbiagokoak eta altsua-gokoak izanik, monda osoaren jabe izatera destinaturik zeudelako. Bi..., burugabekeri orri erantzunaz joan ziran zoraturik Alemani'ko jendeak gudara, naiz mende ontako alemanitar auek, Marx'i sinistu zioten proletari arlote lan-der aiek baiño kultura geiagoko gitakumeak izan.

Et zuan Marx gizagaixoak bere bizitzan zorion askorik izan. Federik Engels beste lagunik gabe, mundu guziarekin asarre, erretxindurik igaro zituan urteak, eta mixerri gorrian 1849'til: 1868'ra dijoazen emeretziak Londres'en, azkeneko urte ontan Engels bere adiskide kapitalista txit aberatsa diruz laguntzen asi zitzaion arte. «Miseriaz eta eriz iru urne galdu zituen Marx'ek. Frantziska alahatxoa il zitzaionean auzoko batek eman bear izan zion dirua zerraldoa erosteko» (Gotzon M' (arate). Ala ere et tan sekulan Marx, lanean jarri ziteklarik pentsatsen ere asi.

(ero 13iena'n hitler gaztea goseak amorratzen, baiña lanean asteko asmorik gabe egonen tan bezala, ala egon zan Marx Londres'en, kapitalismoa desegiteko ekonomia eta komunismoa ikasiaz. Orrelako gizonak et dira nunbait lan egiteko jaiok, naiz beren umeak goseak il. Sasikuine ba<sub>t</sub> ete izan *toua* Marx'ek Londres'en Engels'ek mixeritik atera zuanetik gero, Elcne Demuth neskame gaztearekin. «Frederik Engels'ek itxurak egin zituan, *bera* umearen aita balitz bezala. Izena eru Frederik eman zioten, eta ama il zitzaionean Demuth abizena artu zuen. Semea ama ikustera joaten zitzaion era ama jendearen aurrean *bere* umearen ntaitale bezela agertzen zan, —gaztea bait tan oraindik Elene--. Marx il-da gero jakin zuen Frederik'elt bere aita nor tan», (G. M' Gante).

«Marx'ek burgesiaren morala madarikatu oi zuan, baina emen barges guziak baiño okerrago jokatu titan. Kemena falta zitzaion *aitaren* leendabiziko eginkizuna betetzeko. Gizadia alicnaziotik atera nai zuenak bure semea betiko alienazioratu tuan» (Id.).

Pentsa detaketu, *ter goazi* egin tion gizaseme :tri, Frederik hure aita kore aita et tala, Karlos «osaba» bere osaba et haiñan bere aita tala, Frederik, Karlos bere aitaren adiskide uts hesterik ez zalarik, beretzako ezer ez tala, eta, berettut ezer et tan Frederik ura, ta Karlos aita, eta Elene here ama ber-hera orrenbeste denboraz berekin joko tiki<sub>tt</sub> antan ihilli zirala jakiteak.

Mutil doakabe artaz gaiñera, heste iru alaha ere izan zituan Karlos Marx

gorputzez eta osasun txit auleko gizalaba, goibeltasun-gaitzer-edo, oraindik ogeitabederatzi urteko emakume gaztea zalarik il tan. Beste hi alabek berriz, eta suin hatek, beren buruak erail zituzten; oraindik irurak aski gazteak zamia gaiñera.

Laura, —Marx'en bigarren alaba—, Paul Lafargue frantziar sozialista ondo ezagunarekin ezkondu zan, eta, itxuraz, zoriontsu bizi ziran biak. Laura ordea ber: aizpa zar ura bezala buruko *aize* txarrez-edo joa zegoan, eta dirudianez gaitz beraz kutsutu Yuan senarra cru, gau batean biek erail hai t zizuten beren buruak.

Irugarrena, Eleanor, «Tussv», iru aizeetan argicna naiz beste biak eru arras argiak izan, Oliber Lissagaray jatorriz euskaldun eta Paris'ko Komunaren aldeko borrokalari izan ondorean Komuna aren edestilari izan zana-rekin oso-osoa maitemindu zan. Aurka jarri zitza'.en ordea Karlos Marx eia ez zan gelditu bi gazte aien arteko maitasun-katea ezabatu zuan arte. «Tussv» gaixoa, ezkonduzik zegoan g' zonezko lotsagabe baten besoetara jausi zan. Eta maitale lizun au denbora butez Marx'en alabatxoaren lanetik bizi-ondorean alargundu zan bezain laister neskaren diru, edergaillu eta buste ondasun guztiak ostuta iges egiñik isillean beste emakume batekin ezkondu zanean, Tussv zorigabeak bere burua il zuan edenez.

Karlos Marx'en sikologia ezagutzeko badugu zirriku egoki bat, arek Tussv bere alaba alako amorruz Lissagarav senarga'iarengandik urrundu nui *iza* te ortan. Begira:

Paris'ko komuna, edestiko gertakizunik aundiena izan zan tMarx'entzat. Paris'ko Komuna ipiñi zigun ain zuzen Proletarien Diktaturtzaren eredu.

Paris'ko Komuna bezalakoa izan beure duala» besterik ez dizu Marx'ek Proletaritzaren diktaturaz esango. Orra bâ. Lissagarav izan zan Paris'ko Komuna aren komunisteetako bat, borrokalari-entakoa, garbientakoa. Zoriontsu izan bear <sup>y</sup>uan beraz Karlos Marx'ek bure alabarik maiteenak eta adimentsuenak orrelako senargai jator bat aurkitu zualako. Lz ba! Karlos Marx'ek ez zuan <sub>B</sub>akerik izan Tussv gaixoa Lissagarav'engandik bereizi zuan arte. Zergaitik? Ez du galderak erantzunik.

Ikusi dugun lez, Marx'en iru alabek izan zuten buru-barnean alako <sub>xoro-</sub>aizeren bat. Aize ori bera, ordea, ez oie zegoan aiek jaio baiño len Karlos Aitaren buru-muiñetan kokatua?

Orixe ain zuzen, buru-muiñetako aize oker ori, izan daiteke Karlos Marx'i jaunni lezaiokegun iraiñik aundienaren azalpena: Proletaritzaren Diktaturaz ain gutxi eia Diktatura aren ondorengo Komunismoaz ia ezer ez idatzi izatearen azalpena.

Marx'entzat, Iraultza eta kapitalismoaren *ezercztea*, *naitanaiez*, jendeak ala nui edo ala nai *ez*, ekonomiaren luge itxuen indarrez fatalki gertatuko diran gauzak ziran. Altaguztiz, Marx'en idatzi guztiak, k:g italismoa dote gai: naitanaiez, iraultzaren zurrunbiLloan jausi-bearra dan kapitalismoa! Bereala zetorrela uste zuan gaiñera kapitalisnuaren amaia; eia une artan bertan, Proletaritzaren Diktatura. Eta berealaxe, Komunismoa! , Proletarien Diktaturak ez bait du kapital guztiak Laterriaren jabetasunpean ipintzeko bearezkoa dan denbora besterik irauñ hear.

Mundua azpikoaz ;ora iraulita;izadi guziari biziera berri ez-ezagun bat ematea, ez da noski txantxetako gauza. Nola burutu beur dute proletarietiek ekintza tantai ori? Marx'ek ez die ezer askorik esango. Erantzun billa aren liburuetara joaten ba'dira, el d u te au besterik aurkituko: Proletarietien Diktaturak Paris'ko Komuna izan zan bezalakoa iztn hear duala. Ots ordea: ez Paris'ko Komuna *egiaz* izan zan bezalakoa, Marx'ek Paris'ko Komuna bere idurimen ameskoian ikusi zuan bezalakoa ha'zil; azkarra hait zan Marx'en buru naasi erromantikoia gaula guztiak ametsezko laifnoz estaltzeko , esan dugunez. Eta, gainera, guzia, orrItxo batzuetan errez sartu daitekeana besterIk ez!

Diktadura-ostean erabatekoa dan Komunismoaz berriz, ez dute komunismo ura edatu bear duten lan illecic Marx'en idaztietan gidaritzarik aurkituko. Soilki, komunismo ura anarki garbia dala , iñor iñoren agintari eta jabe izango ez dalako.

Gizakumea bakarrik dala bure buruaren jabe, eIa bure buruagandik kanpo gizakurneak beste jaberik ez duala, anarkisten sinispideko atal negusia dugo. Fta, Marx anarkista bait zan, onrc ;aitik lion erlijioari alako gorrotoa: erlijioak gizakumea *beste b duna* egiten dualako: , liungoikoarena, alegia. Besteren egite Orri esaten lion M\_arx'ek «alienazio» «bestet-enketa» . Ona zer esaten zuten anarkistek beren aidetik: «buste iñori oheditzea, norik bere buruari uko egitea da, ta no rberaren askatasuna desegitea, *nortasuna c'zabotzea*, bure buruaren jabetasuna zanpatuta besteren morroi biurtzea, norbera besieren gauza IZatera mako-tzea» (Marx Stirner).

«rllienaii» latifnezko itz orri beste zentzu bat ere ematen diote gaur komunistek: Egiazko mundu oni bizkarr a emanarazita gezurrezko beste mundu batean pentsatzen ,artzen duala erli ,ioak gizakuinea, eIa Ori egnaz egiazkoa dan mundu bakar au obeagotzen saiatzeko gogoia moteltzen diola. Orixe bera uste zuan Marx'ek eIa arek erakutsi zuanetik aterea da «alienatio» itzaren zentzu au.

«llienatio» itzaren lenen zentzu ura filosofiarri dagokiona da; bigarren au, sozioloi: iarcn eIa ekonomiaren barrutikoa da; aurreneko ura, filosofiazko arrazoiaren bidez egiztatu bear loua Karlos'ek; bigarren onek esan nai duana ikerketa ta estadistiken bidez sendotu beur danctakoa da. Baiña ez duzu Marx'en idaztietan ez filosofiatik artutako arrazoirik ez zientzien araura egin-dako enkuestarik aurkituko.

Erljio asko ezagutzen zitun Murx'ek: 'Ireberis bure jaioterrian biztanle ia danen erlijioa zan katolikotasuna; bere asaba judutarren judu-erlijioa, eta judu-zi,gorizaillecn erasotik iges egiteko bere sendi osoarekin bataioa ta konfirmazioa-bidez artu zuan lutertasuna, eIa L,ero, Inghanderrian, anglitasuna. Belxika'n eIa Frantzi'n ere, Erantzi'n ere bizitu bait zan, izan zuan bi Late-rri oietako katolikoen biziera ezagutzeko adiontasuna.

Zientzi-lana egitekotan, bear-bearrezkoa zuan Marx'ek erlijio-mota oiek lurralde oietan judutarrei, lutertarrei, anglitarrei eta katolikoei , beste gezu-

rrezko mundu batean pentsatzen egoteagaitik egiazko mundu ontako gauzci jaramon egitea debekatzen zien jakiteko enkueta sakon bat egitea. Ez duzu aren idazkietan cnkttestarik aurkituko: ez sakonik ez ariñik. Bildur ote zan Marx? Tlnkueta orreI: bere esaria gezurtuko ziolaren bildur? 1<sup>7</sup>.z dut uste. Marx'i ez zitzaion orrelako ikerkctarik egitea sekuhtn burntik igaro. kz hait zan zientzi-gizona. **utsa bait** van. bta, batu ere profeta-itxurako iraultzalaria. Orregaitik, ez dizu beññere diona ci ztatzeko, nekerik artuko. ludutarra izaki-ta, antziñako profeta judutar ai,k bezala. bere esakizunak borobil-borobil buta egiten diot Marx'ek.

Orrela buta zuan borobil-borobil erlijioak =,izakumea alienaizen duala ere. Reste munduan pentsatzeagaitik mundu ontako uauzctaz arduratu gabe bizi Oie dira Marx'en endakide judatarra/?:

Alienazio orrek gaitz aundia egiten omen zion g:zadiari , gizakumeak mundu ontako gauzen ibillera gezurrezko jainko baten probidentzia-baitan tzera bultzatzen ditualako. Mundu onen zuzcndakcta Jainkoaren eskuetan tizteko asmotan ote zegoan, orduan **munduaren jabe egiten** uni zan Tnglanderri protesta/aria?

Txiro goseti zorigtbecn asmakizuna omen da erlijioa. Sikologiari dago-kion esari au oiñaritzeko bearrezkoa da ikerketa sakon **binez** galde auen erantzuna billatzea. Benetan txiro goseti zorigabua k ote dira erlijioa sortu dutenak? Prdi-mailleko jendeen artean , --aberats ber-beren artean—, ez ote erlijiorik? Jende mixerableak, egitan, erlijiosoak ote dira? hz duzu Marx'egan orrelako ikerketarik aurkituko.

Alatagutziz, bazuan bere alderdi zuzena erliiii.l alienatz.tillcnri-buru;; Karlos Marx'ek 'vicinal:, garai artako **ontako, arazo latz aiek** ez bait zituan **beur** bezala aintzat itrtzen, eta , mundu ontako arazo aietan odol eia mami egiñik pekatua zegoala ikustcke, eroanpcna ta pazientzia, langille gaixoak baretzeko, ariñegi eta maiz;ci erabiltzen zituan itzak bait ziran.

Marx'en sozinlismoa, erlijio ororen ukamen orokorra da, materia-ez-dan-gauzarik badanik ere ez bait du sinisten. Materizkoa cz dana, ezer ez dala esaten du; gizakumeek asmatutako iuneskeri utsa besterik ez dala.

Alatagutziz ez dit Marx'cl< erlijioa desegin hear danik esaten. Askatasun osoa ematen dio **Mari** --edozein eliz edo erlijiori Proletaricn Ditattiraren denborako; n, eta baita TKomunismo;tren oroen ute. Zut-gaitik?

Bereziki, erlijioa ekonomi kapitalistako infrastruktura edo azpiera-kundearen goierakunde edo supraesu'nktura zala uste iz ^n^k, azpiera-kunde ura eze-rezten zitzaionean liera ere lierez ezerezteko zala pentsatzen zualako.

Marx, Rousseau'ren jarraile bezala , demokrazizale porrokatua izan zan.

Demokrazizale izanik nola ipiñi nai zuan mundua diktadura baten men-peau? Pz zaizala diktadura itzak atzipetu. Marx'cn «Proletaritzaren Dikta-

dura» demokrazi utsa da: mugarik eta bitartekorik gabeko demokrazia: Rousseau'k babesten zuan «demoeratia direeta» uraxe ber-bera. Marx'ek diktadura esaten ba'zion eta ez demokrazi, Marx anarkista zalako esaten zion orrela. Anarkistentzat, demokrazi bakarra anarkia da: iñork legerik ematen ez duan gizarte-bizitz-era. Ori orrela dalarik, prolétarien agintea, kapitalismoa desegiteko legeak emango dituan Lateralri ba ı izango bait da, ez zezaiokean Marx'ek «demokrazi» deitu, «diktadura» baizik, anarkistentzat legeak, «dik-tatzen» dituan gizarte oro diktadura bait da, ez demokrazia'

Demokrazi zale ba'zan Marx, zegaitik mundua iraultza orokor batera eraman nai zuan? Marx'ek ez zuan mundua iraultzara eraman nai. Iraultza berez naitanaiez zetorren gauza zala uste izan zuan.

Zuriz edo beltzez jaztea, giza-naimen edo borondatearen maillako gauza da. Iraultza ez; Iraultza ez da giza-naimenari dagokion gauza, fisi-legeari dagokiona baizik' Leiotik kanpora irtetzen ba'zera , zuk nai edo nai ez, berdin jausiko zera lurrera, jauste ori ez bait da zure naimenari dagokion gauza, fisi-legeari dagokiona baizik' Era berean, zuk eta nik eta Marx'ek eta gizadi guztiak nai edo nai ez, berdin etorriko da iraultza, —eta komunismoa gero—; gauza oiek ere ez bait dira giza naimenari dagozkion gauzak, ekonomiako fisi-legeari dagozkionak baizik'

Ori bai. Egin.'., al zuan guzti-guztia egin yuan Marx'ek iraultzaren etorre-ra laisterragotzeko. Len-bait-len kapitalisten erorketa ikusteko irrikitzen bait zegoan noski, dirudianez. Ez dezagun aztu , soilki kapitalismoa porrokatzeko egin zala komunista.

—Gizarteko erakunde guztien infraestrutkura eta edesti osoaren eragillea ekonomia dala, errez esan daitekean gauza da, Zaillagoa da esakizun ori egiazko demostrazio baten bidez egizatzen . Marx'ek ez zuan demonstraketa ori egiten astirik galdu. Esan zuana esate utsarekin konformatu zan. Gaur, gizartiztilari edo soziologilariak, Weber'ek adibidez, beste erakundeen infraestrutkura, ekonomiarena bereiziki, erlijioa dala errezago esango dizute: gizarte bakoitzak, nolako erlijioa alako ekonomia izaten duala , alegia. Ortan omen dago ekonomiari dagokionez, yudutarren eta arabitarren arteko ezberdintasuna, naiz bai aiek eta bai auek enda berekoak, semdarrak, izan, eta denbora luzean lurralde bat berean, Palestina'n bizitu'

—Marxismoari-buruz bada oraindik aztertu gabe dagoan arazo kilikagarri bat: Frantzi'ko iraultzak demokraziaren zabalkundea geldiarazi zuan bezala, ez ote digu Marx'en sozialismo anker biotz-gabeak egiazko sozialismoaren zabalkundea geldiarazi? Frantzi'ko Iraultza zipotz arek demokraziaganako bildurra sortu zuan bezala, sozialismoaganako ikara beltza sortarazi bait zuan bazter guztietan Marx'en sozialismo zakarrak.

Marx'en sozialismoak langiliediari ekintzarako erakunde bat eman diola, esan-berri digute Frantzi'ko Gotzaiek azalpen batean' Egia, bai noski. Baiñan, ez ote ziran langilleak beren biziera obeagotzera azkarrago eta ziurrago iritxiko

Marx'en orruak entzun gabe beren ekintzarako soilki Inghlanderriko eta Larterri Alkartuetako langilleen erakundeak, --«Labour Party» izeneko Alderdiak eta «[rade Unions» izeneko alkarteak—, erabili ba'zituzten? Badakusgu bâ erakunde auen bidez Luropa'ren Sarkaldeko eta Ipar Amerika'ko langilleak noraiño iritxi diran. Baita're, badakusgu, non utzi dituan Sortalde komunista-ko langilleak Marx'ek asmatutako erakunde arek.

Edestia, ordea, gerta zitekeanaren asmaketa ez baiña gertatu danaren jakintza bait da, ezin izango diogu emen azkeneko galde orri erantzunik eman.

1848'garren urtean, —iraultza-urtean ain zuzen-- , argitaratu zuten Marx'ek eta [ngels'ek, ordurarteko sozialist-anarkist-komunisten allumai( bilduaz, «Manifest der Komunistisehen Partei» cdo «Alderdi Komunistaren Azalpena», Iraultzarako dei nabarmena zan «azalpen» ori, eta ondo ezaguna da dei orlon ikur-itx ospetsua: «Mundu guziko Proletariok batu zaitezte!».

Aburu bat bereko izan ziran 'ngels eta Marx; judutarrak biak gaiñera. [ngels'en laguntzarekin batzuetan, eia bakarrik besteetan, asko idatzi zuan Karlos Marx'ek, «Das Kapitai» izenekoa dn libururik aipatuena, naiz berea 1867'an agertu zan I tomoa bakarrik izan, (Besteak [ngels'ek argitaratu zituan Marx ilda ,gero, eta naiz aiek ere lendil: idatzirik egon ez da erreza beraietan Marx ilda gero; eta urrengo urteetan erc, naiz bakarrik, adoretzu jarraitu zigun idazten —Engels'ek — komunisnwaren aide.

\* \* \*

Marx idazten ari zan bitartean, eten gabe aritu ziran lanean soziologizalc katolikoak I uropa guzian, baiña karitate-cl:invctan bereiziki. Merezimendu bi-1cañeko karitate-ekintzak, alatagutziz. Ez zan bearkizun-orotarik katoliko onuragarri auek beren kargura artuko ez zutenik. Aipu berezia merezi dute apostolu onegille aien artean bi gizonak: Armando Melun'ek eta Maurizio Maitnen'ck.

Beartsu danei laguntzen igaro zuan bizitza islcun'go Bizkonteak, eta iru istuzio bikaiñen aita izan zan Maignen: Erriaren artean lan egitearren sotanaz jazten ez ziran «Fils de Saint-Vincent de Paul» edo «Paul'dar Bizente Donearen Se in e» izeneko erlijiosoen Anaidiarena, «L'Ouvrier» izparringiarena, eta «Le Cercle de Montparnasse» edo «Montparnasse'ko Batzokiarena», Azkeneko batzoki au langillediari bere aurrerapenerako non bildu ta non erabakiak artu eskeintzearren asmatu zuan. Laister sortu ziran, Montparnasse'lcoaren antzera, beste batzoki ugari, eta lan ederra egin zuten langillean aide.

BaiNa ideologiaren arloan, ez zan kristauen artean Marx'en logikari aurka egin zion pentsalaririk sortu. [z ziran bearkizun ontaz oartu ere pentsalari kristauek, oso astiro sartu bait ziran buruetara Marx'en gogoetak. Kezka geiago ematen zieten kristauei anarkistek; Proudhon, Blanqui eta Bakunin hai t ziran langillediaren buruzagiak denbora aietan. Ala, naiz guri arrigarri iduritu, Errusi'ko kapitalistek eta Jaurlaritza berak poz aundisrekin artu zuten



an marxisten alderdi errusiarraren sorketa 1898'an, Errusi'ko anarkista bildugarriak alderdi artara igarota marxisten artean lagunduko ziralaren ustean.

Lenin'ek marxismoari buelta eman zion arte, marxismoak ez zuan inõor ikaratu. Iraultza, liezez eta bere g,u-aiean bakarrik ekonomiaren fisika-legeen araura, sortu bear dan gauza dala esaten dualako, marxismoa, *bere jite*, ez hait da «iraultza-egintzaille», «iraultza-onartzaille» baizik, «iraultzari-atsemaille» geienaz, Orregaitik, katolikoak ere, iraultza-arriskuagaitik baiño geiago erlijioari egin zezaiokean 1:alteagaitile kezkatu zituan marxismoak, ikusten bait zuten marxismoa ordurarte erlijioa?: topatu zuan ukamenik orokorrena zala.

Iraultzari buruz ete ez zan erabatekoa izan Marx'en jardunkera. Teoriaren maillan iraultzari laguntzeak ez zuan zentzurik, iraultza, gizakumeen ekite guztietatik iare, bere garaiean naitanaiez gertatu bear zuan gauza zalako. Praktikaren maillan ordea, teorikeri aide aztuta, al zuan guzia egin zuan iraultza azkarragotzeko.

\* \* \*

Danadala, ideologiaren aldetik erc, 1871'ko iraultzan anarkistek Paris'ko «Commune» edo Udalaren jabe egin aurretik ete asi ziran lanean Alemani'ko pentsalari katoliko bikain batzuk, Maientza'ko Gotzaia zan Gillermo Imanol Von Ketteler, buru zutela.

1848'tik ] 877'raiño egon zan Ketteler Maientza'ko gotzaigoan, eta, urte aietan, bera izan zan, arazo guztietan, Alemani'ko Elizaren egiazko buruzagia. Inõor baiño lenago oartu zan munduaren aldakuntzaz; ikusi zuan biziera herri bat jaioa zain, berriak zirala arazoak, eta berriak izan bear zutela arazo oiek konpontzeko erabilli bear ziran moduak ete.

Gizon ona, apaiz osoa, jakintsu landua, pentsalari crnea, eta langille porrokatua, une oro aurkituko duzu aren izena garai artako Alemaniari-Elizaren edestian. Baita soziologiarenean ere; oraIndik Marx'ena baiño Lasalle'rena geiago zan Alemani'ko langilledi sozialista antan Ketteler izan bait zan langillcen alde geiena lan egin zuan *gizona*. Langille-Alkarteak, lan-sariak, laneko orduak, emakumeen eta umeen lana, izan ziran aren ariketaren gaiak, eta, —lagun bikaiñak asko izan hait zituan—, Parlamentuaren bidez saiatu zan bereiziki, beste jardun-bideak aztu gabe, prolétarien bizimodua zuzentasunaren araura antolarazten.

1878'an Alemani'ko Parlamentuak soziologiari-buruz emandako legeak, Europa guztian bikaiñenak eta aurreratuenak ziran. Bâ, lege aiei, «Ketteler-Legeak» izen-ipini zien jendeak. Ez zituan Ketteler berak lege egiñik ezagutu, urte bete lenago amaitu bait zuan, bere bizitza.

Jarraille bizkorrak utzi zituan Ketteler'ek bai Alemanin', bai Austri'n eta bai Frantzi'n,

Neurri aundian Ketteler'i zor zitzaion Alemani'n «Vereinen» izeneko «alkarte» aiek izan zuten indarra. Soziologiaren arloan orain bereiziki aipatubearko ditugunak autxek dituzu:

—Langilileen onturrerako Kristobal Von Moufang kanonigoak irasi zuana.

—**nue** apaizak sortua; «Volskverein», «Erri-Alkarteak» esango zaie «verein» auei 1890'ez gero'

—Kolping apaizaren «Gesselenvereinen» edo «Enpleatuen Alkarteak». Biribiziko indarra artu eta asko iraun zuten. Ilitler ber-berari ere kosta egin zitzaion alkarte auek ezabatzea.

--Schorlemer Baroiaren «Bauernvereinen» edo nekazarien alkarteak.

Gizon auen artean naitanaiez aipatu bear dira heste Alemani'ko izen ospetsu hatzuk: Wambold, Lo, Huene, (I-Iitze apaizaren. lagunak); Brand, ugazaba katolikoak alkartu zituana; Darbaeh apaiza, lenengo «Banku Sozialaren» asmatzaillea; izan ere ordainduaz artzen bait zuten dirua langille eta nekazari gaixoez, biotzik gabeko diru-aurreratzaileengandik.

Gizartzaic» auei ederki lagundu zien politika-mailletik «Zentrum Partes» edo «Erdiko Alderdi» katolikoak, Alderdi onen buruzagiak, \_\_Windthost, Reichensperger, Ballemsrem—, gizartezale benetakoak izan ziran, eta langillediaren aldekoa izan zan beti alderdia bera. Esku aundia izan zuan «Zentrum Partei» k langilileen alde parlamentuak eman zituan legetan, eta Gillermo II'ak 1890'ean Berlin'ean bildutako Nazioarteko Langintza-Batzarrean.

Austri'n Vogelsang'o Baroia izan zuan Ketteler'ek jarrailerik onena' Baroi au dugu «plutokrazia» itzaren asmatzaillea; Berak esan zuan lendabizi Elizako Asaba Doneek ainbat aldiz esandako ura \_\_aberatsak aberastasuna gizarte osoaren serbitzura erabilli hear- dutela, alegia \_\_, soziologiazko esakeran: «la propriété a une fonetion soziale», «jabetasunak baduala gizartearekingo zer-ikusia».

Alemaniarrek, pentsalari baiño geiago, cUntza-gizonak izan ziran bezala, Ketteler'ek protestalaritzatik katolikotasunera ekarritako Karlos von Vogelsang, batez ere pentsalaria izan zan, itzal aundikoa, berak zuzperu bait zittan, ekonomiaaren kristauketarako, Austri'ko soziologilarien buru izanen zan Schindler apaiza, Lueger Biena'ko alkatea, Karlos Von Loewenstein Printzipea, eta, Jinebra'n, Blome'ko Kontea, au ere protestalaritzatik itznlia. Ketteler beren maixua bezala, pentsalariak izan ziran geienbat gizon auek ere, eta lan ederra egin zuten, Lowenstein Printzipeak batez ere bere Haid'eko Jauregian 1883'tik 1888'ra bildu oi zituan batzarren bidez. Ospetsuak dira «Iaide'ko Tesiak»; moteltxoak, gu'e ustez, baiñan orduan «aurreratu» danen on-iritzia laister irabazi zutenak. Volgelsang aristokrata berari ere ago batez «sozialista» esaten zieten gaitzizenez katoliko bildurtiek.

Blome Konteak zabaldu zituan Suizi'n, berea yuan «Correspondance de Genève» izparringiaren bidez, «I-iaid'eko Tesiak». Bazan ordurako urduritasuna suizitar katoliko-txorta baten artean' Suizi'n, katolikoek asi ere zuten soziologi-ekintza. Bi gizon izan ziran batez ere ekintza ortan onuragarriak: Decurtins eta Mermillod'

Gaspar Decurtins, jakintza-zalea ekintza-gizona, Suizi'ko lau izkuntzetan izlari ■ayoa, politikalarí bezala Grisoien Kantoiako d:putadua; sozialista izan zan gaztetan, eta Akino'ko Tomas Deuna irakurriaz egin zan katolikoa. Berak frantzeratu zituan Ketteler'en idazkiak, berak Aarau'ko Batzarretan Suizi'ko langille katolikoak bildu, berak lurralde artako sindikaritzaz sortu, berak «Langilleen Federapen Orokorra («Fédération Générale Ouvrière») osotu, ortarako 1887'an, Deruaz apaizak erromantxeraz mintzatzen ziran langilleentzat sortutako Alkartea eta Bucber gotzaiak alemanieraz itzegiten zutenentzat irasitakoa batera bilduaz. Lentxeago, berak eskatu<sup>y</sup> uan bateratze au Beran'go Nazio-Batzarrean, «Langintza-Araudi Tnternazional» baten bearra adieraziaz. Ekintza onen ondorioz, Gaspar Decurtins dago, gaur-egun Jinebra'n lan egiten duan O. T. (Otganization Internationale du Travail) deritzan erakunde ospetsuaren sorketan. Gora dezagun suizitar bikain aren izena.

Bigarren langilleen apostolua, Gaspar Mermillod izan zan, langillediaren apaiza lendabizi, Tinebra-Lansana-Friburg'eko gotzaia gero, ta Elizako Kardenala azkenean, bera izan genduan Englanderriko Manning'ekin eta Ameriketako Gibbons'ekin, laneillediaren alde irtendako aurreneko Elizaren Printzipea, Lia iru aiek baiño garrantzi txikiagokoa, laugarrena, Frantzi'ko Lanr niex Kardenala.

Ketteler bezain bizkorra zan Mermillod suiziarra, batez ere izparringietan, —berak sortu eta zuzendu yuan «Le Courier de Genève»—, eta pulpitan, berak astindu zituan b1 itz egoki, latz, horohillen bitartez, Paris'ko Sainte-Clotilde'ko entzule katoliko burgesitarrak 1858'an —. Alako izlari trebe eta ausarta hait zan!

Lau urte geroago, ostera Paris'ko eliz herera izan zan deitua. Gotzaia van ordurako, Ez ziran bere izketak, 1872 ontan, lengo •k baiño goxoagoak izan. Ez zan ala ere oraingoan jendea muzindu, aldaketa aundia egiña bait zan lau urtetxo aien artan Frantzi'ko katolikoen mentalitatean. Aldakuntza orren eragilleak, neurri aundian, bi militar gazte ziran, aristokrazikumeak biak, Armand Melun'goaren jarrailleak eta Ketteler doixtarraren ikasleak: Albert de '1un eta René de la Tour du Pin.

Biak Napoleon IV'aren gudaroztean ze uden 1870'ean Frantzi-eta-Prusiarteko guduán. Frantzi'rentzat ain lotsagarria izan van borroka artan prusiarren katigu jausi ziran biak, eta an, Alemani'n izan zuten Ketteler'en arikuntzen ezaguera. Ikusi aal izan zuten, eria bereail, langillediaren aldeko kezka zenbateraiño zegoan lurralde aietan piztua.

Sedan'go borroka galdurik III Napoleon errenditu ostean ere, Paris'ko

Izatez, Iberi'ako lurretan Batzoki oien sorkuntza, Paris'ko Komunaren iraultza baiño aurreagokoa da, 1864'ean iriki hait zuan Katalauni'n Aita Vincent iñakitarrak Manresa'ko «Langilleen Zirkulua». Ori izan zan aro artan Españi'ko langillediaren *aide*, aurreneko ekintza. Bakarra orduan gaiñera. Egia da leenago Palmes ospetsuak ere (1818-1848) arazo auen kezka biotzean senti zuala. Baiña, askoz geroago, 1870'az gero, proletarien aldeko borroka Pablo Iglesias sozialistak piztu, bizkortu eta giclatu zuan, Ez, noski, zori onegiarekin: Españi'ko proietaritzza, sozialista ez baiña anarkista izan bait da geienbat. Batez ere, Andaluzi'n izan zuan indar emeretzigarren mendean anarkeriak.

\* ✱ ✱

Españi'n katolikoak bezain lo egon ziran Alemani'n protestalariak 1878'-koa da Stoeker'ek an eraturako «Christliche-sozialer Arbeiterpartei», «Langilleen Sozial-Alderdi Kristaua».

Ekonomiari-buruzko zuzentasun-auzietaz *ei oartzeko*, *lo* egote ori, ez zan katolikoan eta mota guztietako protestalarien gatza bakarrik izan. Lo ta itxu egon bait ziran liberal demokrazi-zale berberak. «Il n'y a pas de question sociale» zion Gambetta'k 1872'an: «Sozial-auzirik *ez da*». Baiñan urte ortan bertan, auzi ortaz azterketa bat egitea erabaki zuan Prantzi'ko Diputaduen Batzar Nagusiak, Ona zer ondorio atera zuan bere ariketatik azterketa ori egiteko osotu zan diputaduen Batzordeak: «que tout est parfaitement normal, que la classe ouvrière n'a aucune raison de se plaindre de son sort et, d'ailleurs, ne se plaint pas»: «Dana bere oinean dagoala, langille-jendeak ez duala keixatzeko arrazoirik, eta, gaiñera, ez dala keixatzen».

Batzar nagusi artan izan zan diputado De Mun, (ta izlari bikaiña hait zan, <sup>s</sup>ogor egin zuan, an lana langillediaren aIde legedia zuzentzeko, eta asko zor diote De Mun'i langilleek. Sozialistek ere 1)c Mun izan zuten Batzar artan, liberalen aurka, lagunik bizkorrena, eta ari eskerrak diputadu katolikoek izan ziran langilleen aide lege-egiten geiena saiatu ziranetakoak, danak eraman bait zituan atzetik De Mun azkarraren izkera gartsuak.

Baña De Mun eta, De la 'l'our du Pin zcaro eskubitarrak ziran, iraultzaren etsai orokorrak, borboitarrak gaiñera, eta izate-era ori txertatu nai izan zioten «Oeuv<sup>r</sup>e des Cercles» osoari. Bota zien akats ori aurpegira Armand Melun zabalak, naiz Batzoki aien ekintzarako bere laguntzarik ukatu ez, Era berean jokatu zuan, une antan Prantzi'ak izan zuan soziologilaririk, bearbada, bikaiñenak: Leon Ilarmel'ek.

Ez zan Leon Ilarmel jakintza-gizona, eita proletaria ere, ola-jauna baizik. Reims'cn ondoan, *Val* de Bois'en zegoan eundegi galanta baten nagusia. Izan zuan Leon'ek nundik ikasia, bere aita ere ugazaba kristau zintzoa izan bait zan; 1840'erako bere langiliecei egoki ordaintzen ziena, eta 1846'ean aurrezki kutxa bat eta etorri zitezkean zoritxarrei aurpegi emateko segurantzi-alkarte bat eratu ziena.

Bere aitaren bide ortatik jo zuan Leon'ek ere Val de Bois'en nagusitza artu zuanean, eia laister egin zan ola onen izena Frantzi guztian ezaguna. Baita bere ugazabarena ere.

Sekulako lanak egin zituan gizon bikain oneI: Buste soziolari frantziar (lanak baiño aurreratuagoa zan; egiazko konfiantza zuan langillediacan. Akats bat bakarrik ipiñi lezaiokete gaurko sekulartze-aroko jendeek: bere sozio-ekin-tzetan eta bere itzaldietan, ---asko ta ederki bait zuan itzezin ere—, erlijioaren alde eta ekonomiaren alde ez zituala ondo bereizten. Ikus, adibidez, korporazioetaz ematen Juan azalpena «Manuel de la Corporation» edo «Korporazioen Lskuliburu»an: «Société religieuse et économique, fondée librement, par des chefs de familles industrielles, patrons et ouvriers, de profession analogue, et dont tous les membres sont groupés dans diverses associations de piété»: «Eraspen-anaidietan sarturik dauden, langille edo ugaraba, lanbide berdintsuko sendi-buroek iareki osatzen doten erlijiozko eia ekonomiazko alkartea» .

Beste pouttu zalantzakoi bat ere oartuko dute korporazioaren mugapen ortan gaurko sindikalariek: u H zaha-langilleak bateau bildurik egote ori. Baiña gai ontan ere besteak ez bezelakoa izan zan aurreratna Leon Harmel. Orregaitik, 1884'ean [rantzi'k sindikato-egiteko eskubidea eman zuanean, Leon Harmel] izan zan lege ura ongienik artu zutenetakoa, eia bereala asi zan langille utsen sindikatoak eraikitzen.

Frantzi guztira zabaldu zan [con Harmel'en itzal on egillea. Bear-hearrezkoa da, bere nortasuna zuzenki ezagutzeko aren eginkizun ugarietan erlijiozkoa dana, soziologizkoa edo ekonomizkoa danetik, berciztea, naiz Leon Harmel] bezelako kristau mardul batean orrelako bereizketak zailla!: Juan Burura-eram-zituan lanetatik aipa divagun erligio-arloan:

«La Col<sup>y</sup> drie de Notre-Dame de l'Usine» (Olaetako Andre Mariren La-cundia).

---«Les petites Soeurs de l'Ouvrier» («Langillearen t\rribatNoak»), Iangil-leen artean Lan egin nai zuten lekaimentzat.

----«L'Association Catholique des Patrons du Nord».

Soziologi-arloan berriz,

—«Les Cereles Chrétiens d'Etudes Sociales». («Cereles» edo «Billera» auetan langilleak ez ziran soilki entzule otsak; erabakiak artzeko orduan, b\rrilla auetako askotan, langilleak bakarrik biltzen ziran).

«Les Conseils d'Usine» edo «Ola-Batzordeak»; In-tokietako ibillera kris-tautasunaren aldetik aztertzeoko pentsatuak.

1 Harmel aipagarriena izan ba'zan eru, ez zan bakarra Juan; beste asko aipatu bait daitezke aren alboan, orduango soziologilari frantziarren artean, aro artako kristautasunaren aintzarri. | Fumel beraren ikasle bat bereiziki: Alemani'k., Schorlemer'en bidetik Iangille nekazarien Alkartea sortit zuan Jazinto

Gailhard-Baneel. Besteak aipatzerik ez dugularik, aski heza'gu Frantzi'ko katoliko sekularren biotzetan langileen zoriaren arantza sakonki sartu zala esatea. «Le temps était au social et le mot revenait sans cesse sous les plumes ou sur les lèvres» (Daniel Rops): «Gizarte-giroa zan ura, eta «Gizarte» itza bera, atergabe etorri zetorren lumapeetara eta ezpain-gaiñetara».

Gudarozte-buruak berberak ez ziran kezka oietatik kanpora gelditu. Bedi lekuko, Lyautey mariskal ospetsuak, garai artan kapitan zalarik, gai auetaz «Revue des Deux-Mondes» aldizkarian «du rôle social de l'officier», «gizarteari-buruz izkillu-gizonaren bearkizunetaz» idatzi zuana.

\* \* \*

Giro bera aurkituko dugu Belxika'n ere, baiña alderantzi batekin: lenago asi zala an katolikoaren artean sozio-ekintza Frantzi'n baiño; aberastasunean, olagintzan, lanketa orotan ere aurrerago bait zijoan Belxika txiki bizkorra.

Ain zuzen Lobaina'ko Unibersitate Katolikoa izan zan, unibersitate guztien artean, «gizarte-katedra» bat aurrena ipiñi zuana. Lamennais'en ikasle izandako Karlos de Coux eseri zan irakasle katedra berri artan. Ez zan nolanaiko gizona. Marx'ek baiño amabost urte lenago, 1833'an idatzi zuan «que le capital n'est que du Travail accumulé»: «Kapitala ez zala multzotutako Lana besterik». Gero, De Coux iltzean paternalismora jausiko da Lobaina'ko Unibersitatea.

1843'an Eduardo Duepétiaux agertzen zaigu azterketa-lanetan'

Soziologia, edo gizartiztia jakintza-maillera jaso zutenen artean, bera dugu aurrenekoetakoa; ekintzon bitartez ere, beartsuen alde on aundia egindako gizona. Naitanaiez aitortu bear dira gizartiztiaren sortzaille lez, Napoleon I II'aren denborako Frederik Le Play eta onen ondorengo Enrike de Tourville apaiza ere; frantziarrak biak.

Ospe aundikoak izan ziran Kristaudian «Les Congres de Malines» edo «Malinas'ko Batzarrak». 1863'an asi ziran. Ez ziran bakarrak izan. Sozio-ara-zaok aztertzearen Batzarrak egiteko oitura au, laister bere-egin hai t zuan Europa'ren beste alderdietan kristau-soziologiak.

Arin zabaldu zan marxismoa Belxika'ko langillediaren artean; agian beste lurraldeetan baiño ariñago. Izan zuan zabalkunde onek emari zuzena katolikotasunarentzat; esnaarazi bait zituan apaizak! Eta jakiña da nolako ospe aundia zuten Belxika'n politikaren arazoan ain ederki, bizkor, eta ausarti jokatu zuten apaiz jaunek. Itxarkunde orren zitu izan ziran Belxika osoan sortu zitzaizkigun gizarte-erakundeak. «Les Maisons Catholiques d'Ouvriers» adibidez, edo «Sociétés de Secours Mutuel», («Tarama-Lagundiak»).

Alkarte auek paternalistegiak zirala aitortu bearra da, antziñako «Gildes» edo «gremioak» izan bait zituzten eredu. Demokrazikaiagoak ditugu Olanda'ra ere igaro zan «Fédération des Oeuvres Ouvrières Catholiques» 1868'an sortua, eta batez ere 1891'ko «Ligue Démocratique Belge», bi soziologilari ospe-

(sud, D'1Iellepute'k eta Verhaengen'ek, irasia' 1890'ekoa da nekazarien-tzako egin zan «Boerenhund» izeneko Alkartea'

Eliz-gizonen artean bat izan zan danetan ospetsuena; Doutreloux, Lieja'ko gotzaia, «au verbe pittoresque, et, par dessus tout, ami des mineurs et des ouvriers, une des personalites les plus attachantes de cette époque et de ce mouvement» : «izkera xelebrenko gizona, boina batez eite, ineatzari eta olaetako langilleen adiskidea, garai artako ta sozio-ibillera aietako pertsonik arraiena», ( Daniel Rops). Belxika'ko Elizaren igikunde bikain guztietan egon zan sartua Doutreloux Gotzaia.

Ingländcrrira joaten bagera, Manning Kardinalaren izena aurkituko dugu an, Elizaren gizarte-ekintza geienetan.

Izan zan Londres'en, 1899'an, kaiako langilleek asita , izugarritzko lan-uzte bat. Enrike Manning \Uestminster'ko Goigotzai Kardenala izan zuan lan-uzte ark, konponketa aurkitu ziona. Artaraiñokoa bait zan ordurako kardenal arek irabazia zeukan izena. Lansari motzegtetaz, nntecn eta emakumeen lan-modue-taz, kapitalaren geiegizko skubideetaz eta abar, ez zuan an, beste elizgizon batek, ez katolikoek ez protestalarien artean, Manning'ek bezain gogorki itzik egin. «Sozialismoa zabaltzen ari zera» jaurti omen ñon hein kapita.lista mardul batek: «Yo<sub>t</sub> are making socialism»; Lia, «Bai, apika, zure iritziz. Nere ustez ordea, gaur-egungo gizarteko bizitzara krislautasuna sartzan ari naiz ni», erantzun Goigotzaiak'

Bearbada, pozik aundienetakoa, guretzat, kapitalista soillek ez eze «The Times» izparringi burgesitar garrantzitsuenak ere Manning kardenalari zein oogorki eraso ni zion oroitzea daiteke,

\* \* \*

Beste kardenal bat aurkituko dugu, berriz, Laterri Alkartoetan, katolikoek sozio-igiketaren aitzindari: Gibbons, Baliimore'kn Goigotzt a. Ordurako bazan Laterri aietan «Knights of Labour» edo «Langfnizako Zaldunak» izeneko Al-karte bizkor bat, ¡Ain hizkorra ere! Milloi bat bazkide izatera iritxi hait zan! Alkarte au Kanada'n sartzan asi zanean , masoirzat salatu zuten Erroma'ra gotzai kanadatarrek, 1xillezko billerak egiten omen zituzten «Zeldunek», eta elizjendearengandik iare izan nai omen zuten beren ekintzan. «Masoitarrak!» Ez ziran uste ortakoak Laterri Alkartuetako gotzaiak. Bazekiten katoliko zintzoa zala Powderly, Alkartearen sortzaillea, eia katolikoak zirala alkartuen artean, gutxienez erdiak , eta itxaropen aundia zeukaten —gotzaiak-- Alkarte aren ekintzetan ipiñia.

Bereala idatzi zuan Gihhens'ek Erroma'ra. Ona eskutitz aren atal na-gusiak:

—Zaldunen artean zerbait zuzendu bear dala hrroma'k uste ba'du, zuzen-keta ori eGiteko prest daudela danak Ameriketari: baiña zaldunei, «against ava-

nee and oppression» «zekenkeriaren eta zapalketaren aurka» ekitea, iñongo eragozpenik gabe iare lagatzeko baldintzarekin.

—Langilleek mundu guztian biziera obeagotzeko darabilkiten saiaketan ziriak sartzen astea arrisku aundiko gauza dala Elizarentzat.

—Alegin guztiak egin bear dirala, langilleak Eliza aien aurka dagoala edo aien zuzentasun-guraria sinisten ez duala edo aien onturreaz ajolik ez zaiola edo, —Elizak —, aien akatsak-diralakoak besteenak baiño gogorrago epaitzen dituala uste izatera iritxi ez daitezten.

—Erria galtzen ba'du, etorkizuna galdua duala Elizak. «Atzo errege-lei-ñuekin, —with the dynartys— izan bear zituan naitanaiez Elizak bere arremanak; gaur, ordea, erriarekin izan bear ditu».

Errez irabazi zuan Gibbons'ek auzia, Laterri Alkartuetako gotzaidia berekin zualako, eta Leon XIII'ak ere berdin pentsatzen zualako.

\* \* \*

Beti izan zan, aitasantutza aurretik ere, gizarte arazoetaz kezkatua Leon XIII'a, eta badu orrek meritua. Itali'n, 1871'ko L-aultzara arte, abaro gozoan egon hait ziran katolikoak arazo oni-buruz.

Iraultza artan, bi italiarrek artu zuten parte Paris'ko Komunan: Costa'k eta herni'k. Auek zabaldu zituzten Itali'ra anarkeriaren gogoetak. Itxartu ziran, bildurrez, katolikoak. Ordurarte, an karitate egille ospetsu asko izan ba'zan ere Taparelli d'Azeglio'ren eta Jon Bosco ta Cottolengo Deunen bideetatik, ez hai t zan egiazko soziologilaririk izan. Orain jeiki zan aurrenekoa, Bonomelli, Kremona'ko Gotzaia, pastoral gogor baten bitartez, nekazaritzako ugazaba aundiei beren zekenkeria aurpegira boteaz. Lugintzako langille saripekoek Costa eta Berni anarkistei ain errez eta azkar sinistuarien errua zekenkeri orrena omen zan'

Bonomelli'ren atzetik ugari etorri ziran langillediaren apostoluak, ekintzen maillan, eta, batez ere oldozketa ta azterketarenean; danetan ospetsuena, Jose Toniolo. Sortu ziran Alkarte eta Bazkunak, eta bazkun oietara, beste lurraldeetan bezala, urbidu ziran aristokrazikumeak ere: Drago printzipea, Santueei kontea..., eta baita zientzi-gizonak ere: Malatesta arkeologilaria, Zesar Cantù edestilaria. Toniolo izan zuten danak bide erakusle. Eta ekintza guzti aien gidaritzarako Bazkun Garai bat sortu zan Itali'n: «Opera dei Congressi».

Oso-oso dabiltz oker, emeretzigarren mendean soziologiaren eta ekonomiaeren arloan katolikoek ezer egin ez zutela pentsatzen dutenak' Izugarria izan zan katolikoan igidura. Ezin zenbatu daitezke arlo ontan ari izan ziran gizakumeak: jakintsuak, izlariak, idazleak, izparringilariak, ekintza-gizonak'' Ezin dezazkegu aipatu ere sortu ziran liburuak, izparringiak, billerak, alkar-teak, bazkunak, kofradiak, aurrezki-kutzak, babes-lagundiak, korporazioak..'



Kristaudi guzia zegoan kczketan, Ez, alare , dana; ba... «des grandes nations chrétiennes l'Espagne, — seule l'Espagne—, resta en arrière. Non pas que le problème ne s'y posai pas, dramatiquement, parmi les paysans et les mineurs; mais tout ce qui ressemblait à la Révolution e était détesté. Les initiatives des catholiques sociaux lurent done rares: quelques «ereles agricoles» au Pays Basque et aux environs de Valence. Le sénateur de Cepeda et le Père Vincent, jeusite , fondateur du Cerele Ouvrier de Manresa, tous deux amis de Vogelsang et de la 'four du Pin, parlaient dans le désert»:

«Nazi<sub>0</sub> katoliko aundietatik Españi bakarrik gelditu zan atzeratua. Ez noski Españi'n orrelako auzirik ez zalako, (bai bait zan , eta arras mingarria gaiñera, nekazarien eta meatzaricn artean), baizik-eta Españi'n iraultzaren itxurakoa zitekean guztia iguingarri tzat jotzen zalako. Urriak izan ziran, orregaitik, katoliko gizarte-zaleen saiaketak: Nekazari-Batzoki batzuk Euskalerrian cia Balentzi-ondoan. Cepeda'ko senatorea eta Aita Vincent iñakitarra, au, Manresa'ko Langille-Batzokiaren eratzaillea, eta, biak, Vogelsang'en em De la "Tour du Pin'en adiskideak... bakardade gorrian ai-i izan ziran deadarka» Daniel Rops).

Naitanaiez aitortu-bearra dugu arlo ontan ere gaitz aundia egin ziotela l spañi'ri karlisten iru guduek. Ondo dcsegiña utzi zuten beintzat Euskalerrria!

Cure olagintza eru, gudu oiek bukatzean asi zan , ots, gure Lege Zarra ezereztua izan zanean. Orregaitik, Euskalerriko kapitalismoa ez zan sorTu eusko-legediaren altzoan, Españi'ko legedi liberalaren altzoan baizik. Eta orregaitik ain zuzen, euskaldunoi esperientzi kilikagarri bat faltatu zaigu: Lege Zarraren altzoan eusko-demokraziak kapitalismoari zer erantzun emango zion jakin aal izatea.

«Rerutn Novarum» entziklikaren aurretik bazan, beraz, eta bizkorra gaiñera, sozio-ekintza bat Kristaudian. Baiña akats aundiak zituan ekintza orrek:

—Beranduegi asi zan. Oso gutxi izan ziran 1871'ko Iraultza aurretik olagintzak sorturiko auzi berriak usmatu zituzten katolikoak. Eliza bera, Leon XIII'ak «Rerun Novarum» argitaratu arte, izkutuan bezala egon zan. 1891'koa du lIntziklika . 1848'an azaldu zuten Marx'ek eta Lngels'ek «Komunist-Azalpena»: mende-erdi luxe bat aurretik!

—Sekular aberatsen eta apaiz batzuen ekintza izan zan geienbat , eta seklarrok eta apaizok ez zuten apaizditik bear bezalako laguntzarik jaso. Batez ere gotzaiak egon ziran mututurik; Esku bateko bcatzak naikoak dirala, Frantzi'n igikunde onen alde egon ziran gotzaiak zenbatzeko diosku edestilari batek. Iraultzaren bildurrez? «Des démagogues qui exploitent le terrible problème de la souffrance» izen-eman zien Leon llarmel bezalako gizarte-zalei Angers'ko Gotzaiak: «oñ tzearen auzia ustiatc'n ari diran erri-nastaleak».

Gegorio XVI'a edo Pio IX'a bezalako Aitasantuek isIllik egotea naitanaiezko gauza zala esan bearrrik ei da. Ala ere croitu (lezagun pozik Pio TX'ak «Quanta Cura»n sozialismoa gaitzestean, kapitalaren eta lanaren artetik moralitatea kendu nai duan liberalkeri paganitarra ere gaitz,etsi zuala; maizegi esaten hait da, Aitasantu onek politikazko liberaltasuna epaituan ekonomiazkoa ez zuala aipatu ere egin.

«Katolikoegia» izan zan. Bere elburua, ia bakarra, langille «galduak» ostera Flizarra erakartzea izan bait zuan. Malinas'ko Batzarretan maiz entzuten zan esakizuna duzu, «gizarteko auzi guztien erremedioa langilleak kristau-bearkizunak batetzera erakartzea» zala: «*le retour des ouvriers à leurs devoirs chrétiens*». Orregaitik, Iraultzaren aurkakoegia izan zan. Orren ondorioz:

IL zan langilleen ekintza izan. Naiz arrigarri iduritu ez zan Liberal Katolikoena ere izan, auek kapitalismoaren maillakoak bait ziran geienak. Gaiñera, liberal ziralarik, askatasunaren geiegizko maitalcak ziran eta Laterri:(ekonomi-arazoetan sartzearen etsaiak. Dupanloup bezala politikaren arloan ain ospetsu izan ziran elizgizon aiek ere, soziologaren arlotik-atlgelditu zitzaizkigun.

Ortan gaiñera, sozio-ekintza-katolikoaren I truzaz; i k, asko, aristokraziku-meak eta, Frantzi'n, erregezaleak, erdi-aroko erakunde n miresleak ziralarik, naitanaiez izan bear zuan paternalistegia orduango kristau-soziologiak. Ketteler berberaren oldozkeraren barnean ere erdiaroko teokrazia zegoan! Ta, aberats ere bai hait ziran soziologiaren barrutiko apostolu kristau aiek..', jabemenari, au da, jahe-izateko-eskubidcari eraspén geiegi zioten: «*jus proprietatis*», «*jabe izateko almena*», almen sagaratuegia zan aientzat. Apostolu aietako hatek, Agustin Cochin'ek ain zuzen, «aberastasun aundiak kemen aundien eta zintzotasun aundiagoaren emaitzak» zirala egin zuan oiú Malinas'ko Batzar batean.

—«Paternalista» izan zan. Langilleen igidura ez zuten langilleak berak zuzentzen, gizon landuek baizik: «*l'élite*».

Le Play'ek eman zion «gurasokeriari», «paternalismoari», filosofi-itxurazko erakundea, Napoleon III'a Frantzi'ko Inperatore zalarik. Le Play'en oldozkeran, gizartea «antziñako sendi zabal aietako baten antzekoa» da: «*Une vaste famille à l'antique*»; sendi ortan «*des patres-familias*», «gurasoak», gizarteko mailla garaietako jendeak dira: «*des classes dirigeantes*». Zuzendari oien egin-kizuna, beeko mailletako jendearen zoriona lortzea da. Orra or, non agertzen zaigun, ostera, XVIII mendeko «Despotikeri Argitua».

Gurasokeria ei da, bearbada, oso sistema kristaua, baiña sistema orren altzoan alatagutziz benetan eta egiaz langilleen guraso izan ziran ola-jaun asko aurkituko dituzu: Chevsson eta Rostand Frantzi'n, Alexander Rossi Itali'n..., Leon Harmel aitu gabe, au beste cra bateko gizona hait zan. Lz dira makalak ugazaba aiek beren langilleen alde bururatu zituzten gizarte-lan ederrak.

Motza izan zan. «*La majorité des catholiques et la plupart des autorités ecclésiastiques, jusqu'à la fin du siècle, se refuseront à envisager la nécessité de*

«réformes de structures» et considéreront comme dangereuses les efforts visant à modifier institutionnellement la condition ouvrière» (Roger Aubert). «Katolikorik geienak eta ia eliz-agintari danak muzin eginen diote, mendearen azkena arte, gizarteko erakunde berak aldatu bearrik dirala aitortzera makurtzeari, eta erakunde aiek aldatzera joan zitezkean saiaketa danak, iraultza-bide arriskugarritzat artuko dituzte»

[ta ori ez langilledirik mai te ci zutelako, «Lankera-Jraultzak sorturiko auzi berriak ikusten ez zituztelako» baizik: «par incompréhension des problèmes nouveaux posés par la révolution industrielle» (Idm.). Gutxi izan zuten Tu, filosofilariak edo Adolfo Bartela suiziarrek bezala, begi argiagoa.

Mozkeri orren ondore izan zuan korporatibista utsa izatea. «Korporazioa» eua «sindikatoa» ez dituzu berdiñak. Sindikatoa langille utsen alkartea da; «langilleek berak eratua ta zuzendua». «Korporapenak» alderantziz, lan-mota bat berean ari diran guztiak alkartzen ditu: ugazabak, gu mailleko teknikuak esku-langilleak..., danak. Irdiaroko «gremio» edo «kofradi» aian antza geiago du beraz gaur-egungo sindikato batena baiño. Ta esan bearrik ez da, korporapen oietan langille arruntak eta eskulangilleak ez dirala lasai aurkietien. Leendik ezaguna dugon La Tour du Pin'cko Markesa izan zan korporaketaren eratzaillea. Frantzi guztia korporapen-sare batean arma ikusten zuan, eta, naiz esan ez, erakunde orren buruan erregea ikusten zuan berak; De La Totir du Pin erregezalea hait zan, iLa nolako erregezalca erc! Leon XIII'ak Frantzi'ko katolikoei errepublika onartzeko eskatu zienean, ura izan zan ezetz. erantzun zuenetako bat.

Baiña errege-zale eta aristokrazikume izateak er zion kapitalismoaren akatsak ikusterik gebendu. «Basatia» deitzen dio bere idazkietan, sarien arloan ugazaba-eta-langille-arte askatasunari; [Z zitzaion langillearentzat naikoa iduritzen «bizitzaren neurriko saria», «le salaire vital», eta langillearen bear-kizun guztiak betetzeko Juin zitezkean sari bat eskatzen zuten. Sari uni «salaire naturel» deitzen zion: «berez bearrezkoa dan saria». Eta esan dezagun bere omenez, kapitalistentzat bakarrik on izan zitezkean «mugarik gabeko askatasun» edo «liberté anarchique» liberaletik langilledia babesteko bakarrik, pentsatu zuala korporapenak Frantzi guzian edatzea.

Korporapenak ziran, arentzat, irtenbide zuzena /.../ergaitik... korporapenak bai, eta sindikatoak ez? «Autoritate eta askatasuna alkarrren aurkako dirala uste duan gogaeta iraultzalaritik» iare, korporapenek bakarrik langilledia ponde zczaketela sinisten zualako: «de l'idée révolutionnaire qu'autorité et liberté sont antagonistes».

Oroi, Blanqui bezalako anarki-zaleek ez ezê, Marx'ek berak ere, orixe esaten zuala: «Alkarrren etsai dirala autoritatea ta askatasuna»; eua, orregaitik, demokrazia, autoritate oro ezereztean bakarrik sortuko dala: anarkian; eta gizakumea, askatasunean bakarrik «ez-alienatna» edo «bere buruaren lobe»

izatera eltzen dalako, nori obediturik ez duncan bakarrik izango dala egiazko gizakume: anarkian.

«Rerum Novarum» entziklika irtetze-aurrean, ez ziran aburu batekoak gizartelari katolikoak. «Eskubiagokoak» ziran batzuk, Laterria eta Eliza ekonomi arazoetan sartu bear ez zutela sinisten zutenak. «Angers'ko Eskolan» zeuden auek bilduak, uri artako Gotzaia, Freppel, bait zuten buruzagi. Besteek, «Lieja'ko Eskola» osotzen zuten, Doutreloux ango Gotzaiaren inguruan. Decurtins sindikatozalea, De Mun, Toniolo, Manning, eta beste gizartelari katolikorik ospetsuenak eskola ontakoak ziran: Eliza ta Laterria ekonomi-arazoetan sartuarazi-zaleak!

Bi eskoletako gizonak ez zutela alkar ondoegi artzen, esan bearrik ez da, berritxukeri oiek zarrak bait dira aburu ezberdiñetako katolikoaren artean. Zorroztzak ziran Angers'ko gotzaiak beste «eskolakoci» zuzendu oi -nizkien ziriak. Erroma'ra bertara ere joan zitzaigun gotzai au. «Rerum Novarum» argitara irten baiño lentxeago, «Leon XIII'ari, arren, gizarte-auziaz ez itzegiteko» eskatzera.

Bi eskoletako jendea batera ekartzearren osatu zuan De La Tour du Pin'ek, Mermillod ospetsuaren itzalean, «Friburg'eko Alkartea»: «L'Union de Friburg». 1884'etik 1891'ra, izugarritzko lana egin zuten Alkarte ontako batzarrak, eta iritxi zan lan orren itzala «Rerum Novarum» entziklikaren prestakizunetara ere.

\* \* \*

1891'ko maiatzaren 15'ean agertu zan entziklika ospetsu au. 1871'tik 1891'arteko katolikoaren sozio-ekintza bizkor eta oparotasunez betetako ogei urteen ondorio zetorren. Naiz jatorriz jauntxokume eta bizieraz langillediarekin arremarik izangabeko idazki-gizona izan, ekonomi-auzietaruntz erne izan zuan beti gogoia Leon XIII'ak. Nundit ote gizarte-kezka ori?

Belxika'n nuntzio zalarik, irakurri zituan Ducpèiaux'en enkuetak. Azterketa aietan ikusi aal izan zuan proletarien ezbear gorria.

Perusa'n ainbeste urtetan gotzai izkutua izan zan bitartean, Lamennais, Ozanan, 13almes, eta Ketteler, astiro irakurri zituala badakigu. Tomista zan bete-betea, eta tomismoa apaizen artean zabaltzeko Perusa'n eraiki zuan akademian, maiz jorratu oi mitan 'Fumas Akino'koak ekonomiar-buruz idatzi zizkigun gogoeta zorrotzak; adibidez, «langilleen lana dala Laterrien aberastasun guztien iturria», eta, «mundu ontako gauzen erabilketa gizadi osoaren onerako izan bear duala antolatua». Pecci goigotzaiaren apaizek, ikasi zuten, orrela, soziologia eta ekonomia ez zirala teologiarentzat eta Elizarentzat gai arrotzak.

Gai auetaz, mintzatu zan Goigotzaia beta 1887'ko Pastoral batean. Sozialistan izkera erabiltzeaz lotsatzeke, asmatu zuan, kapitalismoari egiten Lion kritika zorrotzean; baiña aulak izan mitan gaitzarentzat eskeintzen zituan

sendagailluak; espiritualegiak, gogozkoiegiak, bait ziran danak, ez arian bezala lerrotxo batean «giza-salketari», —esklubulzari—, amaia emateko eskatzen zituan legetaz landa.

AuLki Douera igota, irakurri zituan De La Tour du Pin eta Vogelsang. Azkeneko au, ain zuzen, artarokoxe italiaraz:az. Adiskderik miñenetakoa izan zuan Leon Harmel; eta baita Mermillod, Manning eta 'l'uniolo ere' Begiramen ona izan zien Ameriketako «Knights of Labour» edo «Langintzako Zaldu nei».

«Intonuit ergo die XV niai anni MDCCCXCI vox illa dia expetita, caque nee rei difficultate deterrita neque senio debilitata, sed experreeta virtute humanam familiam novas in re sociali doeuit aggredi vins», esanen du berrogei urte geroago Pio XI'ak «Quadragesimo Anno» entziklikan. Adizu euskeraz:

«Egin zuan oles, trumoiaren antzera, luzaroan itxaron izandako abots arek; ez zuten ez gaiaren zailtasunak izutu, ez zartzaroak auldua indar herbiztua-rekin erakutsi bait zizkion giza-sendiari gizarterako bide berriak», Geiegitxoa deritzaigu XI Pio'ren goratarrea, —oitura etc geiegitzkoa hait da, Aitasantu batek bere aurrengoek ekintzak beti goratu bear ori--; baiña, alatagutziz, idazki ederra cIa, eta berriro etc irakurtzea mcrezi duana, Leon XIII'aren «Rerum Novarum».

Baditu bere akatsak: —Iberanduegi jaiola izan zan; «chu expetita»: «aspal-didanik irrikatun», deitu - zion Pio XI'ak; eta beste lerro batzuetan dionez, «rerurn sozialium petiti, operum conductores, et opifiees ipsi, uno ore efflagitabant ut tandem sibi tutum indiearetur iter»: «Gizarte-gaietan jakintsuek, gizarte-ekintzen buruzagiek, nagusiek, eta Iangilleek beraiek, ago batet arrenka eskatzen zuten (efflagitabanti azkenean noizbait bide eskier baten crakusketa».

—Ez du ekonomiaren altzoan sortutako auzi, gertakizun, eta erakunde berrietaz, azterketa mamizko eta sakon bat egiten; eta, orretxagaitik, di:irabilkian arrazoiketa huruzkoegia, astraktoegia, da; eta espirjtualitate-usai geiegi dario. Ez zezaiokean, agian, orduan Aitasantuari geiago esk.ttu ere, eta, akats eta guzti, edertasun bikaiñak ere baditu, bai orixe, berekin, Leon'en entziklikak:

—Zuzen eta bikainki azaltzen ditu Liberalkeriaren eta gero totalismo bior-tubearra zan Laterkeriaren erruak.

—Egoki agertzen digu proletaritzaren zori beltza.

—Argi erakusten du ekonomi-arloan lege-egiteko Laterriak duan bear-kizuna.

—Ekonomia eta soziologia zuzenrasunaren, ots, justiziaren harruti dirala, eta ez karitate utsarenak, zalantzarik gabe erabakitzen du.

—Sindikalismoari zabal irjkitzen dio bidea, «naiz ezpain-punttekin», —«fût ee du but de lèvres»—, (Aubert), langille utsen alkarteak osatzea zillegi dala aitortuaz. Ontan soziologilari katoliko geienen gaindik irten zan Leon XIII'a,

aiek, Friburg'eko Batzarretan, Korporazioa epaitu bait zuten katolikoentzat al-karte zuzen bakarra. Aurrerago jo zuan Aitasantuak. :Ameriketako «Zaldunen» oroitzak eraginda? (Ots: Ala're Leon XIII'ak ez zituan korporapenak gaitzes-ten, ez bait dute auek, berenez, gaitzetsiak izateko ziorik)'

—Betirako ezarria laga zuan, Elizak, naitanaiez, mundu guztiarekin, gizarte-  
-arazoak zuzentzeko bearkizunean erdikide izan bear duala, orrela Elizarentzat bide berri oparo bat marraztuaz.

—Irualtzalari-usteko salakeri oroz garbitzen zuan, anarkistek eta sozialistek geienbat asi eta aizatu zuten Langilleen Igikundea, eta bazuan onek sikologi-  
-arloan ere bere garrantzia: Gizartean aldakuntzak eginbearrak zirala pentsa-  
-tzera beartuak aurkitzen bait ziran arrezkerok, ain aldakuntzen etsai izandako katolikoak, batez ere burgesikoak' Aldakuntza ori oso astiro asi zan, eta gaur ere bere elburutik oso urruti dabillega uste dugu.

\* \* \*

Paternalistegia izan zahi, esan dugu, XIX mendeko katolikoek gizarte-  
ekintza. Ala izan ere izan bai zan. Ez zaitez arritu' Paternalismoa gauza okerra izan daitekeanik, gaur-gaur arte ez bait da iñor oartu. Paternalista izango da Lenin bera XX mendean, «pater» —«aita»— itz biguñia diktatore gorri zakar ari ematea zillegi ba'zaigu.

Lenin'ek ez zuan *ezertaroko* langilleengan konfiantzarik; artalde baten antzeko zerbait besterik ez zan arentzat langilledia, artzai egokien eskuetan bakarrrik baliozkoa zitekean artaldea. Orregaitik «artzai» oietan bakarrik ipiñi zuan bere uste on guzia. Oso-osoan «elitista» izan zan. Gurasoek zentzurik gabeko umeak bezala, elite ortako «gurasoek» zuzendu ta eraman bear zuten, zentzurik gabeko umeak bezalakoak diran langilleen mobitnentua, igikundea. Entzun:

«El marxismo eduea una vanguardia del proletariado eapaz de coger el poder y eonduer el pueblo todo entero al socialismo, de dirigir y organizar un régimen nuevo, de ser el edueador, el jefe y el guia de todos los trabajadores» (Lenin beraren itzak). (Yurre)'

«Lenin concibiô al partido boleheviq como una élite que domina y dirige a la masa». «Tesis fundamental del leninismo: la conciencia autenticamente proletaria esta fuera de la misma masa proletaria; esta en minorias de intelectuales burgueses, los euales por eso se constituyen en la élite dirigente (Yurre).

Ez gaitezen beraz arritu, XIX mendean gure gizartelariak «paternalistak» izateaz'



## SORTALDEKO ELIZAK

IX Pio'ren «erdirakotze» edo «zentralizaketa», Elizarentza, ona izan ote zan edo ez, Aitasantuei zor zaien begirunerik galdu gabe kristauok iareki eztabaidatu dezakegun auzia da. Gauza bat ordea aitortu bearrean gaudela iduritzen zait: ekintza ark ederki sendotu zuala aitasantutzaren eraginmena, eta ori, Sarkaldean beñepein, onurakorra gertatu zala kristaudiarentzat arlo askotan: soziologiaren arloan, adibidez, XIII Leon'gandik onuntzako aitasantuen oldozkera liberalkeriari itxu-itxuan loturik zeuden kapitalista katolikoei arrerazteko. Kapitalista katolikoei..., eta baita iraultzaganako bildurrak ikaratutako ainbeste eta ainbeste gotzaiei ere!

Ezin gindezke berdin mintzatu Sortaldeari-buruz. Beste mundu bat da Sortaldea, eta beste era batekoak ango pentsaera eta ango biziera. Sarkaldean, batez, ere IX Pio'ren garaiean, kinka guztiak zeuden aren erdirakuntza-asmoen aide. Ez ordea Sortaldean. Sortaldeko Eliza, bere izaeraz da, almena-gizon-baten-eskuetan-oro biltzearen arerio. Orrela dalarik ori, Sortaldeko kristaudiari zail egin oi zaio Erroma'ko Elizaren asmoak ulertze ber-bera. Egia da une aietan Sarkaldean baiño sakonagoa ta nabarmenagoa zala an eraberritze baten bearra, baiñan Pio IX'ak ez zuan asmâtu eraberritze ori egiten.

Berak, jakiña, ez zuan Erroma'tik Sortaldeko Elizaren egoera'tik bear bezala ezagutzen, eta orregaitik, naitanaiez, beste batzuen eskuetan utzi hear izan zuan ekintza guziaren gidaritzza. Gizon auk ordea, danak, aburu bat berekoak ziran: Aitasantu beraren aburu berdiñekoak: erdirakuntzaren edo zentralismoaren zaleak, eta ez zeuden, orregaitik ain zuzen, Sortaldeko kristaudi katolikoaren biziera zuzentzeko bear bezalako zugurtasunez jantziak. Askoz gutxiago berriz, ango kristau zismatikoekin jarduteko; baiña IX Pio'k zismatikoetan geiegi ez zuala pentsatu dirudi.

Katolikoan arloan ere iru zisma sortu zitzaizkigun, an, XIX mendean, iru Elizen barnean: Melkatarren, Armenitarren, eta Kaldeatarren Elizen barnean. Eta zisma oien errua, ez zan guzia Eliz aietako zuzedariena izan.

Esan dezagun beste zertxo bat ere. Esan dezagun ezpairik gabe, Sortaldeko Elizari zail egiten ba'zaio Sarkaldekoaren erak ulertzea, Sortaldekoarenak ulertzea ez zaiola errezagoa egiten Sarkaldekoari. Sortalderuntz begiratzean, guk, zisma ikusten dugu beste ooren gaindik: Erdiaroan Elizatik bereizi zan



zatia: Kepa, Elizaren artzai guren bakarrari uko eginda, Kepa'ren artaldetik bereizi zan ardi «biurrien» taldea; sortu zan erdiaroko antziñatasun artan illik gelditua; eta eriotz ortatik berbizteko duintasunik ez duana. Zismatik jaiò zana; zisman illik datzana. Ori da Sarkaldeak duan Sortalde Kristauaren irudia.

Indar egin bear izaten diogu gure buruari Eliz artan sinismena, itxaropena, eta jainkotiar-maitasuna bizirik daudela, eta, Eliz aren ekintzari eskerrak, milloika kristauen arimetan Gogo Deunak lanean jarraitzen duala sinisteko.

Ezin ukatuko dugu hadugula orrela pentsatzeko arrazoi-pittin bat. Oso motela ikusten dugu bâ lurralde artako kristautasuna, mixioketarako kemenik gabea, eta Errege ta Agintarien aurrean bere askatasuna babesteko hear aiña bizkortasunik sekulan izan gabea, marraskilloa koskolo-barrura bezala liturgi utsera bilduta mundu ontako arazoetatik iges dagiana. Errez, errezegi, aztutzen ditugu Eliz aren merezimendu hi: Bata, maometarren artean ainbeste eta alako zigorketa gogorren artean sinismena gordetzeko izan duan trebetasuna. Bestea, bere gogo-bizitz-kristauaren sendotasuna.

Bai noski, badakigu, lurralde aietan zismatikoak ez diran Eliz Katoliko Sarkaldetar batzuk badirala, baiña orixe besterik ez da aietaz dakiguna: badirala. Zer diran eta nolakoak diran ez dakigu, eta askoz gutxiago nota bizi diran, eta nola jokatu bear izan duten edestia-zear. Ez dugu ezagutzen nolako itxura duten' Txikiak hait dira gaiñera kopuruz, Eliz Zismatikoen multzo zabal ugarian estaldurik ikusten ditugu, aiek bezala edestiaren ibillera galduta antziñatasun agorrean errotuak, eta gaur-eguneko denborarako anakroni edo aldizkanpokeri bat besterik ez dirala iduritzen zaigu.

Gaiñera, Sortaldeko Elizei batasunerako deia egiten diegunean sarkaldetar askok ez dakigu ziurki zertara eta forà deitzen ditugun: Aitasantuarengana bakarrik? Erroma'ko Aulki Donearen trakulu-makulu guzira? Sarkaldeko teologi-era eta mistika-aszetika-moduetara? Sortaldeko Eliz oiek badituzte, gortzaiek eta patriarkak aukeratzeko, beren era bereziak. Era oiek Erroma'k ontzat artuko lituzkela? Zer baldintzatan ordea? Ontzat-artze ori..., beste Aitasantu batek ezereztu arte?

Sorkaldetarrek beraiek Lion'go eta Florentzi'ko Kontzilioetan aitortu niten bezala, egia da Kepa dala Elizaren lemazain nagusia, eta Kepaz-kanpo salbametik ez dagoala. Baiña Elizak ez du oraindik Kepa'ren almena noraiño iristen dan erabaki. I Batikan-Kontzilioak, ipiñi zizkion muga ziurrak Kepa'ren utsezintasunari, «ex cathedra» esakizunaren bitartez. Badakigu, eskier eta argi; dotriñaren barrutian Kepa'ren aalmena noraiño iritxi daitekean. Ekonomiaren, eta jaurketa edo eliz-barrengo gobernaketaren arloan, Kepa'ren aalmenek ez ote dute mugaketaren bearrrik? Kepa berarekin batera mugaketa ori beste Kontzilio batean ziur eta era argian egitera ez ote dago Eliza beartua?

Ori egin arte, nere ustez beintzat, ez dira Sortaldeko anai bereziak Erroma'ko Elizarekin alkartuko.

Ortaz gaiñera, anai aien oldozkera obeto ulertu aal dezagun, aiek eta guk Eliza ez dugula era berdiñean ikusten oroitzea ez zaigu gaizki etorriko. Eban-gelioko bi irudiz baliatuko naz esan dedana adierazteko: Azi-alearen irudiaz, eta mâstia renaz.

Sarkaldekoontzat, Eliza, azi-ale bat bakar artatik sortutako zugaitz aundi bat bakarra da. Bat, eta bakarra. Zugaitz orren enborra, Kepa da: Aitasantua. Eta enbor ortan tinko txertaturik ez dagoan eia ez diraun adarra, ez da Elizakoa.

Sortaldekoentzat, Eliza, mâsti bat da: Iaunaren Mâstia, matsondo askoz osotua. Mâstia, bai, bat bakarra da. Matsondoak, ordea, asko eta ezberdiñak; bakoitza, bere «bakoiziasunean», besteengandik bereizia. Senideak dira danak, bai; lur bat beretik bizia artzen duten senideak baiña bata-bestearengandik hanatuak, alkarren artean nâastu-eziñak' Bizia damaien lur bakar ori hi gaiez tajutua *da*. Gai oiek, Sinispidea eta Kanon-legea dira, ots, Eliz bakoitzaren Kanon-legea. Orrela, ez zaie gure anai aiei arrigarri iduritzen guri ain ulerkaitza gerta oi zaigun «Eliz bakoitzaren autozefali edo bere-buru-jabetza» · Grezi'ko Eliza adibidez Errusi'koarengandik oso-osoan iare ba'da, onako galde auxe errez etorriko zaigu mingaiñera: Sortaldeko kristaudi ezberdin artan.'. izenbat Eliza dira? Asko? Gutxienez amarrenba <sub>1</sub> bai? Edo bat bakarra?

Eliz «Alaba» asko, Eliz «Ama» baten altzoan, —erantzungo ligukete eskualde artako kristau ortodoxiarrek. Altzo ortan, Eliz «Alabak» bata bestearengandik iareak dira. Ez dago iñor bestearen gaiñetik Eliz oietako Buruzagien artean ere. Kostantinopla'ko Patriarka ber-bera, deduz, ()ore utsean, da besteak baiño eragokoa, cz ordea agintaritzan. Orregaitik, zailtasun geiegirik gabe jasan zuan ark, Sultanen inperiotza desegitean Laterri iare bakoitzean sorturiko nazio-elizen jaiotza.

Ez zan asieran orrela izan, min aundia eman bait zion Kostantinopla'ri Bulgari'ko Jaurerria iare egin zanean Bulgari'ko Elizak ere, Kostantinopla'tik bereizita, bere burua iare egin izateak. Era berean eman zion min beste Laterrietako Elizen bereizketak. Aurrena bereizitako Bulgari'ko ura eskomikatu ere egin zuan.

Gero ordea, adiskidetu dira danak. Egin dituzte pakeak baita V mendeko Eliz Eterodoxiarrekin ere. <sub>1</sub>Eliz «Alaba» iare asko Eliz «Arna» bat bakararren altzoan!

Apika diozun, Eliz «Alabak» errez ikusten dirala; Eliz «Ama» *bat* ura dala, iñolaz ere ezin aurkitu daitekeana, Baserritarren ustea da zizare bat lau puska egiten ba'da, puska bakoitza zizare berri bizia biurtzen dala. Era berean, Sortaldeko eliza zatitu zanean zati bakoitza Eliz berria biurtu zan. Baiña lau zizare berri aien sorketan zizare zarra illik gelditzen dan bezala, Sortaldeko Eliz berriak jaiotzean, dez al zan Ama Eliz zaarra illik gelditu? Bai, sarkalde-seme adimentsu arrazoizaleontzat; ez, ordea, sortaldekume sentimendu <sub>1</sub>su mistika-maitaleentzat.

Non dago ordea, galdetuko didazu, aiek bizirik ikusten duten Eliz «Ama» ori? Kristau-Eliz danek ontzat artzen duten Sinispide eta antziñako Kontzilioetako Kanon-Lege zaarrean, erantzungo dizute aiek.

SOrri ez dala, Kristo'k, Errez-ikusidaitekean-jaurerri baten antzera irasi zuan Eliza? Ez. Ziurli, ez. Baiña gune anai aiek ori ez Jute guk bezain argi ikusten, eua aien ez-ikuste ori ; aitzakeriarren ondorio (lanik pentsatzen ez zaigu guri zillegi.

Kepa, apostoluetan garaiena dala, sinisten dute; baita, Kristo'k eliza erai-Kitzeko aukeratu zuan arria dala ore! Eta, b;uita, Kristo': beral: egiña izan zala bere artaldeko ardi ta arkume guztien Artzai Nagusi! ! Kepa'ren aalmen orokorra ez dute on-ezagutzen. Ezta dogmaen arloan ere! ! !

Agian, beraiek oartzeke, Kepa'ni baiño bildur geiago dicte Ketna'ren «Kuri»ri: Erroma'ko Kuriaren zentralismoari.

Kepa'ren gidaritzaren faltaz Sinispidea eua Legedia dituzte sortaldetarrek danen Eliz Amaren ezaugarri nabarmenak. 'Ca, sinispidea gurekin bat bera (lute-lako, Lagedia da ain zuzen, Legedia bakarra, —Kanon Zaarrek eua Antziñatiko Oiturek osotzen duten Legedia—, aiek eta geu alkarrengandik bereizten gaitun gauzarik nabarmenena. Legedia da, baitare, Eliz aiei beren nortasuna ematen diena: Kanon Zaarrak eua Antziñatiko Oiturak.

Orregaitik beren nortasuna zaintzeko, Eliz aiek aspaldidanik edestiari begira dauzkagu: beti antziñara begira: atzera eta bannira begira. gaurko eta etorkizuneko munduari so-egiteko gaitasunik gabe! ; munduari ebangelioa zabaltzeaz oartzeke! ; aurreruntz ibiltzen asten pentsatzeko kezkarik eua giartasunik gabe!

A, nolako gaitza egin dieu Eliz aiei Kena'ren faital:

Baiña nabarmenki aien zertasuna eia nortasuna, heraien Kanon Zarrok eua Antziñatiko oiturak ba'dira, aisa ulertuko duzu TX Pio ez zala, iñolaz ere, aiekin alkarriketan asteko gizon egokia.

Errez egin zuan Sarkaldean Elizaren zentralitzaketa, ontarako arras gertnrik bait zegoan emen giroa. Baita're aitortu hear da, une artan zentralizatze ark on geiago egin ziola Elizari kalte baiño. Bazuten Sortaldeko Eliz Katolikoek ere zentralizatze «pixka» baten bearra: baiñan IX Pio'k ez zuan «pixkaen» zentzurik. Obeto esana, aren ez zuan orrelako zentzurik izan, aolkulari integristen eskuetan utzi hait zuan Pio TX'al. Sortaldeko Elizen auzia.

Ori izan zan, gai ontan ere, TX Pio'ren akatsik at.mdierna. Konfiantza osoa bere aburuko ziran gizon bakarren eskuetan ipintzea.

Sortaldeko Eliz Katolikoek Erroma'ri aiña bildur die Frroma'l: Fitz a'ei, gutxiena liste danean zismara iausi daitczkca'aren bildurrez. Orregaitik, badi-rudi ez diela sekulan uste on osorik eman.

Egia da Florentzi'ko Kontzilioak argi-ayei oiue t.,cin zuala Sortalde-Sortaldeko Elizen bateratzea Kontzilio antan «suivis iuribus arovilegiis patriar-

charum» egiten zala, ots, «patriarken eskub de eta almcnik ukitzeke»; maiz aski esan Jute Aitasantuek ere orixe berbera; baiña sortaldeakumeen iritziz, gauza bat esaten omen dure aitasantuek eta beste bat pentsatu. Ez da noski egia, baiñan badu egiazen itxura, aitasantu batzuen jokaera eta hceizilci kuria- tarren pentsaera gogora ekartzen baditugu. Ona itzen eta ekintren arteko ezberdintasun orren adigarri bat, iru edestilari españiarren minizac'atik jasoa:

«Cuestidn disciplinai delicada (Lenen Batikan-Kontzilioan) foc la reforma Lie los Orientales Unidos. Roma siempre se ha mostrado defc'ente eon los sitios orientales venerables por su antig>iedad, y tambien con la eleceidn de las dignidades eciesiastieas. Muchos de los prelados orientales eran a la vez magistrados o prineipes civiles, No era ffcil que Roma pudiera intervenir en su eleeei6n. Los elcgidos al punto tomaban posesitin dc sus cargos sin eon- firmacidn pontifieia. Esto cra un exeeso. Ts cierto que en el Concilio dc Tlorenea se convino en la uniOn «salvis iu l-ibis et privilegiis patriarcharum», pe'6 *dun hahhi lle gado cl caso de interlar tso iH're/or'* La eosa e.xigia pru- dencia, pues los orientales eran mun• tenaces en mantener sus ritos y eostum- bres, ademtis, los eismtitieos habian sembrado deseonfianza». (Llorca, Gareia V' illoslada, Montalbmn)'

«Zismatikuak», ots, «Lrroma'ko Elizatik Bereiziak» aipatu dizkigute edestilari auek. Au duzu Lrroma'rekin alkartzearcn aurka, bcrizitako anai kristau aien argumentu nagusia:

«Gaur Aitasantu batek baiezkoa ematen digu. Bapo: Baiñan, aitasantuen almenalc neurririk ez hait cTu, biar beste Aitasantu batek ez.ezkoa eman dezai- t'uke. Orregatik, ez g'ina ke Aitasantu baten itzetaz nant». Or esan dugu guk, Aitasantuen utsezintasuna i Batikan Kontzilioan, «ex-eathedra» itzaren bitartez, magatua izan zan bezaLa, Aitasantuen almenal: ere baduala agian, beste Kontzilio batean muOatua izatearen bearra. Aitasantuaren one- tsierekin, jakaña, onespen ori gabe ez bait dute Kontzilioek baliorik.

i?liz Zismatiku aundi aien alboan bizi ziran Eliz Uniatci cz zitzaien. cz Sarkaldean ez Sortaldean, garrantzi aundiegzirik ematen, XIX mende artan.

I ;rdi-zismatiku bezala ikusten ez zituzten snrkaldetar aientzat ere, Eliz Uniate ez ziran Eliz Zismatikuak arrapatzeko omit ta sare besterik. Orregai- tik, sortaldctarren liturgia eta oiturak gorde hcarrak ziran, baiñan aien patriar- ka ta gotzaiek al zan neurririk aundienean Erroma'ko Kuriari sendo lotuaz, zismara erori ez zitezen. Ab ;ruak ordea zuzenki epaitu nai ba'ditugn, bildur izateko ziorik aski ematen ziotela Sarkaldeari Sortaideko Eliz Uniata aien al- tzoan ain sarri ger ta oi ziran okerkeri zalaparta eta euiazko zismatxoek, naitanaiez aitortu^hearrean aurkitzen gera.

Sorkaldeko Ortodoxiarrek berriz, oso berai gaiztoz ikusten zituzten beren alboko Eliz Uniata guztiak. Oartzen ziran bā Eliz aiek, ortodoxiaren uretan arrantza-egiteko, Sarkaldeko «arrantzaleen» eskuetan amu eta sare besterik ez zirala. Edo, beintzat, ori cre bazirala baitipat. Eta orrela, anaiek ikasten duten

sareak baliorik ez duan bezala, baliorik gabe gelditu zaran I.liz aie1; ortod.,xiararak Kepa'ren txaluparuntz erakartzeko.

Eliz Uniatak «Propaganda Iide»ren a, gintaritzepean zeuden, Sortaldeko beste arazo guztiek bezala. Eta ez dirudi Bazkun onek erc Eliz aiei n utitsun geiegi izan zicnik. I; zieten bcintzat, --maitasunik-- , Sort aldera bidaltzen zituan mixiolari latindarreko.

IX Pio'k berak ez zuan era egokian aditu zenbateraiñokoak ziran eta nolako garrantzia zuten sortalde-sartaldetarren arteko ezberdintasunek. Ona zer idatzi zion Ravnevald Frantzi'ko enbaxadariak bere laturlaritzari, Aitar. antuaren ezpaitietatik jaso bezala: «I zl->rdinttasun oiek: Oiturak; erri eta abenda bakoitzari dagozkion antziñatiko ekandu zaarrek!.: bigarren mailleko !gauzak. Sinispidearen alboan»: «Habitudes; traditions de race et nationalité!: cboscs secondaires à l'egard du dogme».

Gauza txikiak omen ziran gaiñera ezherdintasun aiek denak: «Si m'nimes que depuis l'arrangement combiné au Coneile de Florence, aucun aete de une parte et d'autre n'était venue infirmer les décisions de ee Coneile»: «Ain txikerrak erel, Florentzi'ko Kontzilioan alkartasuna eratu zanez gero, ez bazuen ez besteen aldetik Kontzilio artan erahtkia ez bait ciu iñork lazkatt»! (Ravnevald),

Bazebillen zuzen, nire Aitasantual!

Oldozkera oiekin ez zezakean Pio IX'ak Sortaldean gauza on askorik egin, Sortaldeko Eliz Uniatak liturgi-oitura-ta-legeadi bait dira bereziki; eta Sortaldeko Ortodoxia, legeadi-oitura-ta-liturgiz gaiñera Sinispena ulertzeko beste modu bat, teologia egiteko beste era bat, eta kristautasuna bizitzeko beste bide ba, ere bai bait da.

Zergaitik gauz oiek Pio IX'ak Frantzi'ko enbaxadariari esan zizkion? Bâ, Frantzi'k, Sorkaldean kristautasuna habestea bere eskuetan arturik zeukalako.

Egia esan, politikaren aldetik ere bazuan Frantzi'k iokacra orrekir irahazi ederrak jasotzeko itxaropena. Iru Laterrri zeuden Turki'ko kristauckin arremetan, edo arremetan asi naiean: Frantzi, Errusi eua Inghanderria. Sultnaren indarra gura zuten auldu' Ortarako, Frantzi'k «iatinizatu» egin nai zuan ango kristautasuna, Errusi'k «eslabizatu», eta Inghanderriak, «protestalarizatu». Zakur gosetien antzera, Turki makalduaren ezur *eta* txirxiak urrupatzearen atzetik zebiltzan irurak. eta ortarako kristauen laguntza hillatzen zuten.

Ain zuzen. Frantzi'ko enhay adari batek sortuko du Sortaldean. IX Pin Aita;antn zalarik, lenengo zalaparta iñakitar latinzaleen alde.

Oso baldar ibilli zitzaizk`gun iñakitarrak an, gciiegizko latinkeriz itxututa.

Iñakitar bat, Valerga, zan Ierusalen'en Eliz I atindarraren Patriarka. Bâ Patriarka latindar onek, eta bere adiskide batek, Van Fverbrock mixiolari latindar iñakitarrak, «*avee* une aerihie et avec une passion peu équitables» (I. Hajjar), «zin'zotasun gut: ilco ;tarraztasunaz eta gr^ñaz», Erroma'ra salatu zuten,

zismagilletzat, lendik ezaguna dugun Melkatarren Patriar4a bikaiña: III Maximos Mazlum' Frantzi'ko enbaxadaria berriz, salatari latindarren alde asi zan diplomazizko bideetatik lanean'

Ta, bitartean, beste mixiolari iñakitar latindar hatek, beti ere indarkeriz. Jakobitarrak latinizatu izan nai zituan 1854'ean, eta haldeatarrak geroxeago. Benito Planehet zuan iñakitar borrokalari onek izena'

Agian Aitasantuaren esanera egoteko egiten duan eskeintza txorrotxegi ulertzen zualako, zentralkerizale sutua eta teokrazizale berna izan z : tzaiz-kigun bazter guztietan XIX mendeko josulajundia. Adiskide bizkorrak sort i, zitzaizkion arlo oietan ,aurreruntz lan egiteko, orduantxe ain zuzen Imanol Alzon'ek irasitako «Agustins *de la Assomption*» ed() «Tasokundearen omenezko Agustindarrak»; erriaren izkeran, «asunzionistak».

Izan ere, ona zer esaten zuan Alzon orrek iñakitarrak atzean utziaz: Sortaldeko kristauak ainbeste goratzen zituzten oitura zar aiek danak izan bear zutela hein betirako ezereztuak! Geiaeo ora'ndik: Berez ezereztuko zirala oitura zar aiek, Europa'ko kultura lurralde aietara zabaltzen zan neurrian.

Ezerezte ori haistertzeko eta azkarragotzeko, egitarau bat ere prestatu ta aurkeztu -zion Aulki Doneari. IX Pio'k ordea, ez zion egitarau ura ontzat artu nai izan. Zergaitik? «Oitura aiek gordetzeko itza Sortaldetarrei emana zenkalako!».

Zer esan nai ote zion Aitasantuak? Soilki , itz ura emanik zeukalako, ez ziola orain egitarau berri au artu nai? Ots, itz ura eman ez baht, agian ontzat artuko zuala Alzon'en asmoa?

Oso beste era batera mintzatu zan 1862'an Sortaldeko Patriarka ta Gottaiei idatzi zien «Amantissimus Ilumani Generis Redemptor» Entziklikan: «Aulki Done onen aurka gezurra esanaz, jende xumea ta eziakiña atzipetn naiean eta okerkeriz zorabiatu naiean bat haiño geiago hadahillela, ederki ezagutzen duzuten *gauza* da, nere Anai Eraspengarriok' iSorkaldeko kristau bereziak katohikotasunera itzultzerakoan , Aulki Done onek beren rituak nztera eta Erroma'ko Elizarenak artzera beartuko halitu bezala!»! Ona, Entziklikarcn itzak:

«Neminem autem Vestrum latet, Venerabiles Fratres, quomodo nonnulli ineaustos praesertim et inueritos dceipere et in errorem indueere nitantur bane Sanetam calumniantes Sedem, perinde ae si ipsa diss' dentes orientales ad eatholicam fidem exeipiens veli , ut ii propium deseran , ritum ae illum latinar Eclesiae amplectantur».

Orrela dabiltzan oiek «Aulki Donearen aurka bekaizgoa ta gorrotoa piztu nai omen dituzte». («Invidiam odiumque contra banc Apostolicam Sedetn excitare eonantur»).

Noiz agertu ote zuan IX Pio'k bere egizko pentsaera Sortaldeko oiturrectaz?

Alzon'ekin niintzatu zanean, edo Entziklika idatzi zanean? Entziklikan noski; entziklikak Elizaren dotriña hait dira.

Baiñan Pio FX'ak ori idazten zuan bitartean, gero ta geiago ari ziran «Propaganda Fide'ren ordezkari eta misiolariak», eta «Propaganda Fide» bera, Sorkaldeko oitura zaar aien arauen aurka Sorkaldeko Fide'ri izen auzi eta arazo guztietan muturra sartzen. Ta, Aitasantuak ori jakin bear zuala dirudi naita-naiez, baiña ei 'zuan sekulan geiegikeri aiek moztutzeko deus egin.

Egia da itz aietan IK Pio'ck ez zuala Sorkaldeko Oitura Zaarrak aipatzen, «zitu» edo elizako zirimonietaz bakarrik mintzatzen zain, baiña sortaldetarrentzat «<rituak» eta «oiturak» gauza bar bera dira eta zitu aiek aiña gorde nai dituzte oitura zaar auk. 'Fa izan ere, oitura zaarren arloan zan bereiziki, ez rituenean, Erroma'ko Kuria zentralistarekin sortaldetarren borroka.

\* \* \*

Sinodoa aipatu dugu lentsago.

Sorkaldeko Elizen biotza bera ziran Sinodoak. Sinodoan bildurik ematen zituan Eliz aietako bakoitzak bere bizitzarako bearrezkoak zituan arau eta lege guztiak: Sinodoan bildurik aukeratzen zuan bere Patriarka. Ez nolanaiko Gotzaiak, Patriarka bakoitza bere Elizaren Errege bakarra hait zan!

Eliz osoa biltzen zan Sinodoan: gotzajak, apaizak, sekularrak. Baiñan urtetik-urtera ari zan «Propaganda Fide» Aitasantuaren onespenearekin sinodo aietan eskua geiago sartzen. TFF Maximus Mazlum Melkatarren Patriarka il zanean «Propaganda Fide»ren «Legatus» edo Ordezkaria izan zan aren ondorengo Patriarka Babuth aukeratu zuan Sinodoan Lendakari, Ori, **artako** Oitura zaarren aurka zegoan; Baiñan orduezkero beste Elizetako Sinodoetan ere «Propaganda Fide»ren Ordezkaria izanen zan Sinodoaren Lendakaria.

Alatagutziz, lendakaritza ori ez haiña beste iru arazo izan ziran Sorkalde Katolikoan ardailik garratzenak sortir zituztenak: Tegutegiaren aldaketa, Sinodoen izaera beraren eraberritzea, Gotzaien aukeraketa.

A): Egutegiaren arazoa. Txepelkeri utsa, sorkaldetarrentzat, ez ordea sortaldetarrentzat, esan bait dingo an oitura zaarrei ematen zaien noraipua. Sorkaldetarren izan ziran Egutegiaren aldaketa ura sortaldetarrei, indarrez gainera, ezarri nai izan zietenak, eta, jarduera orren ondorioz, txepelkeri ark zizmaraiño eramane zuan Melkatarren Elizako kristau sali ugari bat.

Pazkoa noiz ospatu, zan auzi aren suna. Aspalditik jehilien «Propaganda Fide» Erroma'ko Elizaren Egutegia artzeko sortaldetarrei eskatzen; baiñan ezetz erantzuten zuten aieI. beti. Pazkoa egun batean edo bestean ospatze orrek, rba'etc du axolarik? Ez noski. Baiña ezerezkeri orren ennui, naaspil garratzak sortir eenituan Melkatarren artean.

Brunoni, «Propaganda Fide»ren Ordezkari, izan genduan naasketa aien sortzaille, berak artuarazi bait zion Bahuth Melkiten Patriarka-eginherriari,

Melkatarren Elizarako, Erroma'koaren Egutegia; ta, ori, Bahuth brak, Patriarka egiña izan aurretik, bere Elizari aldakuntzarik ez zuala *egingo* itz-eman ziola kontuan artu gabe!

Itz ura gogoan zutela, Bahuth'en aurka jeiki ziran Eliz artako gotzai, apaiz eta kristau geienak. Eta, Sultanen Turki'n Elizek politikagintzan ere bai bait zuten nortasun-apur bat, «Katolikoak bai, Sarkaldetarrak ez» oiuka, Alderdi ba<sub>t</sub> eratu zuten melkita asarretuek, «Melkatar Sortaidezaleen Alderdia», eta Sultanar, Bahuth gaitzesten zutela adieraziaz, beren Elizarentzat beste Lendakari bat eskatu zioten'

(Garai artan, Sultanaren inperio-lurretan Eliz bakoitzeko Patriarka, bere Elizaren Epaille eta Jaurleri ere bazan, auzi eta arazo zibilletarako, Sultanaren Ordezkarri bezala' Eliz bakoitza, nazionalitate bat bezala zan turkiar-jaurlaritzarentzat, eta Sinodoak Patriarka aukeratzen zuan uraxe bera izendatzen zuan Sultanak «nazionalitate» aren Lendakari).

Bi urteko naasketen ondorean Patriarkadutza lagatzea erabaki zuan Bahuth zorigabeak. Baiñan ez zion Pio IX'ak ori egiten utzi. Alderantziz, ez amorerik emateko eta bere agintaritza eskiertzeko, agindu zion; eta, ortarako, izkilluen indarra erabiltzeko aolkua eman zion. Eta ez noski aurreneko aldiz! Berak —Pio'k— dionez, len ere esan omen zion bâ, —Patriarka ari—, «bearrezkoa ba'zan, «beso sekularren» (ots, jaurlaritzaren) laguntza erabiltzeko kezkarik gabe», uste omen zuan bâ «ziurki orrelako laguntzarik Jaurlaritzaren aldetik ez zitziola faltako» «Si opus esset, civilis protestatis seu braehii saecularis au.ri-lium implorare, quod tibi minime defuturum confidebamus». Aitasantuaren eskutizetik jasotako itzak dira. Gaurko giroan ziurki arras ulerkaitzak. Gure gaurko giro au ordea, IX Pio'ren denborako giroa ez izaki!

Frantzi'ko diplomazia ere Bahuth'en *aide* zegoan, eta protestagillien aurka, baiñan ez zan ain errez egutegi-aldaketa doakabc arek sortutako iskamillik konpondu. «Melkatar Sortaldezaleen» Alderdiko jenderik gogorrenak zismara juan ziran, bi apaiz buru zituztela; eta Kostantinopla'ko Patriarka zismatiko ortodoxoaren esanera jarri zitzaizkigun. Eta, ori egitean, zismara jausi zitzaizkigun.

Bi apaiz aietako bat, gotzai sagaratua izan zan, eta Sultanaren aldetik *egiaz*-ko gotzaitzat ezagutua. Zorionez, biotz garbiko gizona zan Bahuth, eta zismaren arra bere Elizaren barnera sarturik ikustean, era bat laga zuan, ain minkatza izan zitzaion Melkita «Uniaten» patriarkadutza.

Gregorio Yussef aukeratu zion Sinodoak ondorengotzat' Onen aurreneko ekintza egutegiaren aldaketa elizbarruti bakoitzaren iritzira iare legatzea izan zan. Ez zan oso erabaki tajuzkoa, ainbeste naigabe sortutako egutegiaren antzea edo ez-artzea iare ipintze ura, nâspill askoren azi gertatu bait zitekean; baiña orduango zisma amaitzeko beintzat, naikoa izan zan. Ortodoxi zismatikora igarotakoetatik, bereala itzuli bait ziran batzuk, «Sortaldeko Patriarka» utzita «Sarkaldeko Patriarkaren» esanera, ots, Aitasantuaren esanera.



Lta, azkenean, danak itzuli ziran! Ain errez egindako joan-etorri ortan daukagu, sortaldetarrak naiz katolikoak izan Aitasantuaren «Primatutza» edo Lendakaritza argi aditzera, emeretzigarren mendearen amaiean oraindik iritxi ez ziralaren siñale bizkorra. Eta sortaldetarrak agian gaur ere «arraia», lerro-ra, iritxi ez ba'dira, dez ote gera sarkaldetarrok, bearbada, lerrotik atera? Len ere aipatu dugun Kontzilio argi-emaille baten bearra...! Barkatua bezaigu oar berâ birrematea: au esatean ez gera aitasantuen maixu-dogma-egille izateko almenaz ari, gobernatzaille eta administralari-izateko eskubideen neurrietaz baizik. Eta arazo guzia Aitasantuak berak ontzat artzekotan, jakiña, aren oniritzirik gabe, Elizan, ezerk ez bait luke deus balioko.

—B): Sinodoen Eraberritzearen Auzia: Armenitarren Elizaren barruan sortu zitzaigun auzia.

Aspalditik zebillen Aulki Donea Sinodoei patriarka aukeratzeko eskubidea kendu naiean, eta I Kēpa IIassum, Armeniatarren Elizako Patriarka, aukeratu izan zanean (1866), ori egiten asteko garaia iritxia zala uste izan zuten «Propaganda Fide»koek, eta orrela jakiñarazi zioten Pio IX'ari. Ez zan au nagi gelditu.

Urrengo urtean izenpetu zuan «Reversurus» izeneko Bulda, eta Bulda artan iru gauza galanta aukeratzeko agintzen zanian: Patriarka aukeratzeko biltzen diran Sinodoetan ez dute apaizek eta sekularrek eskurik izango; gotzaiek bakarrik izango dira ortarako esku izanen dutenak, eta aukeratu ere ez patriarka aukeratzeko, patriarka izan daitezkean iru elizgizonen izenak Aitasantuari aurreratzeko bakarrik baizik; lru patriarka-gai oietatik, Aitasantuak berak aukeratu eta izendatuko du Patriarka izan bear duana.

Agindu oiek ematcarekin bere mamiz ustutzen zuan Pio IX'ak Sortaldeko Elizen Sinodoa.

Alatagutziz, txintik atera gabe artu zituan I-Iassum armeuitarren Patriarka sagaratu-berriak «Reversurus» Buldaren itzak.

Pozik gelditu zan Aitasantua, Armenitarren Elizari agindutakoa beste Eliz «Uniatentzat» ere lege-egitea bait zan bere asmoa.

Baiñan, zorionez, Erroma'n zeuden orduan, Aitasantuari ikustaldia egitera joanak, Sortaldeko bi Patriarka ospetsu: Maroniten Paul Massad eta Melkiten Gregorio Yussef, eta bi patriarka auei agertu zizkion bere asmoak IX Pio'k berak, asmo aiek lege biurtzen asi baiño len.

Bi Patriarkak ziran diplomazirako doai egokien jabe. Ikusi dugu nola bildu zuan Yussef'ek goxoki batera, egutegi-aldaketaren erruz zatiturik aurkitu zuan melkatarren Eliza. Oroi dezagun orain zeñien ederki konpondu zituan Massad'ek «Propaganda Fide»rekin izan zituan iskamillak, onek Marondarren sinodoaren barrura Europa'tik joandako mixiolari latindarrak ere sartu nai izan zizkionean.

Era berean, legunki eta vavoki, iriki zizkioten bi Patriarka zintzo aiek

IX Pio'ri begiak, ematea pentsatzen zuan agindu aiek Sorkaldean sortu zezaz-leten gaitzak ikusi zituan.

Gaitz oietatik, sortu ere Laister sortu zan aurrenekoa: Zisma , armenitarren Elizan! ; (armenitarrentzat emanik bait zegoan ordurako «Reversurus» Buldaren bitartez, beste Elizentzat ez ematea Massad eta Yussef Patriarkek lortu zuten agindu ura).

Hassum, Armenitarren Patriarka berria, «Propaganda Fide»ren ikasle izana bait zan, berealaxe jarri zan zalantzarik gabe Bulda eraberritzaille aren alde. Aukeratu *ere*, artarakoxe aukeratuarazi bait zuten Sinodoaren barruan, indarkeritxo-ttanta batzuk erabilliaz Valerga Jerusalem'go Patriarka Latin-darrak eta «Propaganda Fide»k.

Izan zan Patriarka egiña. Ez zion ordea Armeniar-Eliz osoak jarraitu. Gaiñera, gotzai, apaiz, lekaide eta sekularrik geienak Patriarkarekin eta Aitasantuarekin asarre gelditu ziran! Izan ere, garai artako Aitasantuek oi zuten bezala, Pio IX'ak «Reversurus» Buldan zerabilkian izkuntza utsa, ibai bait zan edozein asarrerazteko modukoa!

Aunditu-ta-audituz bait zijoan Armenitarren arteko urduritasuna.', kezkatu ziran Frantzi'ko diplomazia eta Sultanaren gobernua bera; ta eskatu zioten Erroma'ri zerbait egin zezala, baiña ez zuten Erroma'gandik erantzunik jaso, Kontzilioa-baitan Aitasantuaren utsezintasuna aurrera aterezteko ekintzan sarturik hait zeuden gogo osoz Erroma'ko gizon guren guztiak.

Eta sortu zan Armeniarren artean zisma: Kupelian Gotzaiak, «Reversurus» Buldak asarre laga zituan aien arteko sail ugari batekin eratu zuan zisma. Berealaxe eman zion Sultanak Eliz berri oni bure ezagupena (1871), eta ezagupen onek igitu zuan Erroma, Kepa Hassum I'a, kardenaltzara jasorik, Aulki Donera deitua izan zan, eta aren ordezkari Patriarka berri bat Armeniarren Elizaren lendakaritzan ipiña; Agirian, Sultanaren gobernuak pozik onartu zu an Patriarka.

Patriarka berri onek eztiro deitzen zitualako , eta Sultanaren laguntza galdua zutelako , itzuli ziran Elizaren altzora, zismara joandako armeniar aiek danak.

—D) Gotzaien izendaketa izan zan Pio IX'aren jaurbideak Sortaldean sortutako irugarren ardailla, eu ez iruetan txikiena.

Esanik utzi dugu, Sortaldeko Elizetan Eliz bakoitzeko Patriarkak aukeratu edo, beintzat , sagaratzten zituala bure Elizeko gotzaiak. Ez zeukaten azturik oui, Indi'ko egoaldean bizi ziran Eliz Malabar'eko kristauek, naiz XVI mendez gero Bikario Apostoliku Latindarren mendean egonak izan.

Erdiari garaian gero Indi'n zeuden kristau aiek Babiloni'ko Patriarka Kaldeatarraren agintzapean ipiñi zituan III Julio'k 1555'eanean, baiña berrogeiren bat urtu geroago, —ordurako bere-egin hait zuan Portugal'ek Indien egoalde

ura\_\_\_, Indi'ako kristau kaldeatar aiek naitanaiez latindarren menpera sanruarariak izan tirait

L<sub>1</sub> bai<sub>t</sub> zuten ordea aantzi III lulio'ren erabakia naiz ia irureun **une** paseak izan, eta galdua bair zuan an Portugal'ek bere nagusitza, 1856'ean Babiloni'ko Patriarka uniata Kaldeatarrari bere rituko gotzai baten sagaratzea eskatu zioten.

**VI** f ose Audo zan Kaldeatarren Patriarka. Giton ona, crromatalea gai ñera, Kurdistan'en mixiolari zebilela Jerusalem'go Patriarka Latindarra izanen zan Valerga berberak 1843'an «Propag\*anda 1 ide»ri gomendatua. Malabartarren eskaria jasotzean, em zuan Audo'k here Lanagoko Sulaqua Parriarkari Julio III'ak emandako eskubideai baliatu nai izan. Aulki Dionearekin asarrerik sortu ez zedin, erdiko bide ba<sub>t</sub> esckñi zion «Propaganda Fide»ri: Malabar-I.lizarako lau ikertzaileen izendaketa: lauetatik bi berak izendatuko zituan beste biak «Propaganda Lide»k.

Xamurtasun g iixiagorekin ibilli ziran «Propaganda» nia «Propaganda»k bidali zuan «T.egatus» berria: Frantzi'n jaiotako Msr Amanton domingotarra.

«Propaganda»k, lau ikerleu izendaketa rira ga tz,atsi ondorean, Malabartarrei-buruzko eskubide guztiak kendu zizikion Ando Patniarkari; «Legatns» edo Ordezkarri ark hennit, —Amanton domingot:n-rak ---, asarretu zuan bere diplomazi-faltaz Kaldeatarren Eliza.

baiña Audo'ri ez bait zitzaion iduritzen Aitasantu batek , Julio II [aL, emana Erroma'ko Bazkun batek, «Propnuanda [ ide»k, «kendu zezakeanik, Amanton «legatuaren» zentaietaz asperturik, «Vicarius Pau-iarcalis» edo «Patriarkadutzaren Ordezkarri» bat gotzai sagaratu **lien** malabartarrei: Tomas Rokos. [z tan, ala ere, oraingoan zisntarik lemo , atzera egiteko alkar-artu bait zuten «Propaganda»k eta Patriarkak. Une berean, Amanton «legatua» Kaldeatik, eta Rokos «Bikarioa» Malabar'tik atercak izan ziran. 11 Pio'k berak ez zuan deus egin auzi ura konpontzeko. [t mina beintzat, liabiloni'ko Patriarka Kaldeatarri, 111 Julio'k emandako eskubide rira kendu!

Orregaitik, lan unie geroago, Aud o'li; berak, «Propaganda Pide»nen erabakia kontuan artzeke, zalantzarik gabe sagaratu tien Malabartarrei gotzai, herauen eskariak onartuat, oso gotzai trebe irtengo tan [lias Maris. Onek lotu zitean erahat ,Malabartarrak Kaldea'ko liturgira.

Bateren batek ordea, esku titi geien i bat idatzi zion bereala «Propaganda bide»ko Lendakariari; emen Sartaldean ere geiegi zabaldu zan eskutitz ustela. Zuritu zuan bikainki Audo'k bere burua Lendakari berari idatzitako beste eskutitz batean. Tamalez, eskutitz au, batere ez zan zabaldu eta ia gaur arte argitaratu gabe egona da. Agian orregaitik oin gogor erabilli oi ulule edestilari katoliko askok Audo'ren izena.

Idatzia iman zanean ere em zitzaion egilleari, —Audo'ri—, Labo aundikoa izan. Aitasantu zentralista samindu baren agintaritzaren azkeneko bi urteak

ziran aiek, eta Aitasantuak baiño geiago agintzen zuten Aitasantua baiño zentralistagoak ziran «kuriatarrek». «Propaganda»k ez zion Audo'ri erantzun; Pio IX'ak erantzun zion, eta inola gainera! «Suspensio» batekin, au da, Patriarkari patriarkadutza erabiltzea zearo debekatuaz!

izugarria izan zan Sortalde guztian erabaki orrek sortu zuan zirrara, bai katolikoen artean, bai ortodoxiarren artean ere. Auek, alaitu egin ziran, ain arinki egindako «suspensio» artan ikusten hait zuten Aitasantuak Patriarken eskubideen etsaiak ziralako ustearen ikurra. Zorionez, Audo ez zan gizon arroa. Erromazalea zala ere esan dugu. «Oso katolikoa eta oso sortaldetarra» zala aldi berean, diote beintzat ezagutu zutenek. Kristauki jokatu zuan oraingoan ere. Ez zan Aitasanturen aginduaren aurka jeiki, eta bi urte geroago, santuen moduan amaitu zuan bizia, iltzear zegoala bere Patriarka-eraztunik ederrena Pio IX'ari anaitasun adigarritzat bidaliaz, Uric artan bertan il zan Pio IX'a ere, eta aren ondorengo Leon XIII'ak, beste gizon bat bait zan, errez irabazi *zuan* kaldeatarren biotza, Elias XII Patriarka berriaren laguntzarekin.

\* \* \*

Pio IX'aren zentralkeriari zioten bildurrak, igitu zituan Europa'ko sortaldetarrak ere; bai bait ziran Europa'n Ukraniatarren artean eta Errumanitarren artean Eliz «Uniatak». Austri-Ungari'rena zan Transilbani'n bizi ziran Errumanitarrek ospe aundiko Kostituzio bat eratu zuten Blaj'eko Sinodoan, 1868'garren urtean. Aitasantuak Asi'an, Ma lam'.kin, Audo'rekin ete Maronitekin, eta Armenitarrekin, 'zandal.o iskamillei bideak istea, zuten elburu. Amar ataletan, Eliz Uniates «sortaldetasun» osoa aurkezten digu Errumanitarren Oinarrri-Lege orrek:

Errumani'ko Elizaren eta Erroma'ko Elizaren arteko batasuna, Florentzi'ko Kontzilioak eratu zuan bezalakoa dala;

—Kontzilio ark orrela eratu zualako, Errumani'ko Elizaren jerarkia, zuzenki Aitasantuaren Pertsonari bakarrari lotua dagoala.

Sinodoen barman gotzaiak ez ezê apaizek eta sekularrek ere badutela gotzaiak aukeratzeko eskubidea.

Aitasantuaren eta Errumani'ko Elizaren artean arartekorik ez dala.

—Errumaniar-Elizako katolikoei Jerarki latindarrareng\*ana jotzea ez zaiela zillegi. Aitasantuarengana jo bear dutela zuzenki.

Apaizek aiña esku badutela sekularrek eliz-ondasunen administraktarako.

Ex dutela ordea, sekularrek, orrelako eskubiderik sinismenaren auzietarako.

Gotzai bakoitzak urtero egin bear duala, apaizekin eta sekularren ordezkari sekularrekin hue elizbarrutiko Sinodoa.

Ez zuten, Errumani'ko Eliz Uniatak Blaj'eko Sinodoan tajututako Kostituzioaren atal auek, ezertan okerkeririk, baiña erejiak iza balira bezala artuko ditu Biena'ko Nuntzioak. Eta baita Jaurlaritzak ere! Oso orraztuak, aski belaxkatuak eta naiko aldatuak izan ziranean bakarrik onartu zituan «Propaganda Fide»k.

Asi-zorian zegoan Lenen Batikan-Kontzilioaren zentralkeriari «uniatek» zioten bildurrak, sortarazi zituan Blaj'eko Sinodoa eta Sinodo artako Kostituzioa.

Ain zuzen, urrengo urtean iriki zan Kontzilioa, eta an, Papp-Szilagji zeritzan Errumani'ko Elizaren Gotzai bat izan zan sortaldetasunaren alde egokienik mintzatu ziranetako bat. «Diversitates disciplinarum» eskatu zuan ots, «lege-ta-oi turen-ezberdinasuna», Sarkaldeko eta Sortaldeko Elizentzat; eta, Sortaldean, ango Eliz bakoitzarentzat. Ezberdintasun ori ez omen zan kristauak, bakoitza bere Elizaren altzoan kristauki eru santuki bizitzeko, beñere eragozpen izan. Gaiñera, ez omen zuan itxurarik Sortaldea eraberritzeko, IX Gregorio'k Sarkalderako eman zituan «Dekretalak» erabilli nui izateak.

Leenago, gauza oiek berak, VI Jose Audo 13abiloni'ko Patriarkak eskatu zituan Kontzilioan bertan. Asarretu zan IX Pio ori jakin zuanean, eta Patriarka ura Aitasantuaren asarretik babesteko mintzatu zan ostera gai ortaz sakonago eta astiroago, Errumanitarren Gotzaia.

Edestilaririk erromazaleenek ere diotenez, ez omen zan Aitasantua asarretuko pertsonalki Patriarkari entzun balio. Besteren batek eramait zion, beraz, oker-puzturik Audo'ren mintzaldiaren albistea. «Besteren bat» ori, «Propaganda Fide»ren Lendakaria izan zan: Barnabo Kardenala. Baiña, naiko erru derizkiogu Aitasantu batentzat, bere begi-belarriz jakin ez duan gauzari-buruz, orrelado gai garrantzitsuetan, asarretik erakustea. Ona, Audo'ren itzaldiaren muiña:

1.—I Batikandar Kontzilioaren ariketa Florentzi'ko Kontzilioan erebaki zanaren aurkakoa zala.

2.—Ala izan zala Florentzi'ko Kontzilio ura ezkeru Aitasantuek esandako etea egindako geiena ere.

3.—Batez ere, Aitasantuek gotzaien izendaketa berentzako gorde nai izatea, omen zan, Kontzilio florentziarraren aurkakoa.

4.—Sorkaldean bai onen zuan Eliz bakoitzak bere eraberritzearen langintzarako bere-bere zuan lanabesa: Sinodoa.

5.—Eliz aietako Patriarka bakoitzari omen zegokion bere Elizaren eraberritzea.

Ataltxo auek betiko Sorkaldetasunaren izpiritua bera ziran, eta ez zuten ezer katolikotasunaren aurka, baiña argitasun bizia piztu zuten Kontzilioko Asaben baitan, zearo zentralizatua bai t zegoan ordurako Sarkaldetarren mentalitatea.

Papp-Szilagji Errumaniarraz gaiñera, jeiki zan Audo'ren aide Yussef Melkatarren Patriarka ere, eta izlari hikain eta teologilari ernea bait zan, egokiak eta zorrotzak izan ziran bere arrazoiketak. Audo'ren puntuetatik aurrera joaz, katolikotasunetik at irtendako Ortodoxia beraren aide mintzatu zan Youssef, eta ederki mintzatu gaiñera. Eliz Ortodoxiar aren «Apostolutasuna» eta «Katolikotasuna» Florentzi'ko Kontzilioak ezagutu zituala, zion, eta baita Kostantinopla'ko Patriarkaren almena ere.

Gero, Trento'ko Kontzilioak begirapenik aundienarekin tratatu omen zuan Ortodoxia, eta adulteriozko obenagaitik matrimonioa desegin zitekeala erakusten zuan aburua gaitzetsi ez ha'zuan, Ortodoxia ez zauritzeagaitik ez omen zuan gaitzetsi; Ortodoxiak, alegia, aburu ura hahesten zualako. Orain I Bati-kandar Kontzilioak, Florentzi'koak eta Trento'koak erakutsi zutena aztutzea, Eliz Ortodoxiarra betirako galtzea izango omen zan.

Era berean itzegin zuan Strossmayer'ek Yuseff'eren atzetik'

Edestilari batzuek diotenez Sortaldetar guztien izenean mintzatu omen zan Audo. Ez da egia; danen ordezkartasun ori ezin zitekean gauza bait zan an, Sortaldetarrak herak, beren artean oso bereizirik zeuden ezkerro. Kontzilio aurretik ez ziran, heren artean ahuru haterra iristeko, alkarrekin bildu, eta ezta kontziliokoan ere. Baziran aien artean, apaizak ezkonduak izatearen aurka zeuden gotzaiak, eta baita Patriarken eskubide neurrigabeen aurka zeude-nak ere. Azkeneko auek zerhait adierazi nai digute eskierki: agian, Erroma'ko Kuria orduan hezain zentralkeri-zaleak zirala an, Sortaldean, Patriarkak, bakoitza here Elizaren barruan.

Aurreneko aien artean, herriz, ez zitzaion noski arrazoirik falta Meltxor Nazarian, Mardin'go Gotzai Armenitarrari, apaiz ezkondui eraso zienean; Bere Elizbarrutian hi ez gaiñeko apaiz guztiak, ezkonduak omen zituan eta berak zekusakenez, bakoitza bere sendiaz geiago arduratzen omen zan bere parrokian baiño, eta here emaztetxea apaintzen txindi geiago gastatzen omen zuan Sakramentuaren Kutxa Donea edertzen baiño.

Ezin isilik utzi izango dugu, emen, IX Pio'ren izugarritzko utsune bat: Kontzilioa gertutzeko denboran, osotu zuan Erroma'n Sortaldetarren arazoan azterketarako Batzorde bereizi bat.

Ona bil: Batzorde artara ez zan iñortxo Sortaldeko Eliz Uniatetatik deitua izan. Ezta bat ere! Ez patriarkarik, ez gotzairik, ez teologilaririk. Sortaldeko lurren, —ez jendeen—, aurkezle hakarra, Batzorde artan, Jerusalem'go Patriarka izan zan. ;Baiña Patriarka Latindarra! : Sortaldeko liturgia latintzearen ain adiskide sutsu, eta Sortaldeko Elizen oitura-ta-legeetat ain kezkatu, okerki kezkatu, ikusi aal izan dugun Valerga iñakitar uraxe berbera!! Askí sortaldetarren etsaia!!

Ori zan Erroma'k, eta IX Pio'k herak, orduan Eliz Uniatei ematen zieten balio guztial!!

IX Pio'k nola pentsatzen zuan aditzeko, notion onako gertakizuntxo au: Esan dogu nola gelditu zan asarre eudo Patriarkarckin, onek Kontzilioan itzegin ondorean. I3û... deitu lion bere aurrera, baiña el lion lagunik edo aolkularirik ekartzen utzi. Alderantziz berak uñi zion aolkulari eta lagun bakarra: Valerga, ►crusalen'co Pairiarka inakitar latindarra! ; eta bere aurrera agertu zanean... Kaldcatar-[Iizarako, ots , patriarka Audo zuan Eliz artarako, bi gotzai berrien izendaketa jakiñarazi zion Audo'ri berari.

Eliz artako legeen araura gotzai aiek Audo'rc'n Elizak izendatu eta sagaratu bear zituan, baiñan oraingoan, biak, ez Audo'ri ez Eliz artako beste inori ezer esan gabe, IX Pio'k berak izendatu zituan. Pudo gizagajoa, uste gabean airapatua, zer egin ez zekiala gelditu zan Aitasantuaren aurrean: bi gauza egin zezazkean: edo patriarkadutza laga, edo bere Elizaren legeen aurka izendatutako bi gotzai aiek sagaratu. Azkeneko bide ontatik jo zuan. Orrela, Audo'k, zintzo onartu zuan, eia i?lir. osoaren aurrean aitortu, Aitasantuaren nagusitza orokorra, baiñan IX Pio'k ez zuan bere jokaera orrekin nagusitza ura geiegi gorestu.

Mindurik gelditu ziran beintzat sortaldetarrak danak.

I Batikan-Kontzilioak berak ere, —sortaldetarrak Kontzilioaren luzaera osoan zatiturik eison ziralako eta sarkaldetarrck Kontzilio artan Aitasantuaren agintaritzaz bizkorragotzea besterik buruan euki ez zutelako—, gaitz egin zion on baino geiagi sortaldetasunaren arazoari.

Alatagutziz, cm/.zan Kontzilioaren erriu galdu katolikotasunarentzat, Poloni'ren barruan Erruten-Flizaren azkeneko clizbarruti katolikoa Poloni'n ain maiz gerta oi dira nazionalitateen-arteko borroken erruz baizik. Ukranitarrek ziran endan erruteniar aiek. Ukranitarrek berriz beti izan oi (diure Poloni'ri gorroto. Poloni ez hait da bure mugen barrungn enda ezberdiñekin, ukraniarrekin eta lituanitarrekin adibidez, 050 **garbi bezala** portait], naiz bera cse, sarritan, inguruko Laterri indartsuagoen aldetik gorriak jasan bearrean aurkitu!

Une aietan Poloni'ren zati ura Errusi'ren menpean egoteaz baliaturik, Mikel Popiel apaizak eraman zituan beste apaiz adiskide batzuen laguntzarekin ukraniar katoliko aiek zismara, ots , Aitasantuarelingo lokarriak ausita , Musku'ko Patriarka Ortodoxiarraren esanera. Edestiak ez digu gertakizun artan xceetasun geiegirikgorde, baiña badirudi ukraniarrak ortodoxiara oso gogo txarrez igaro ziralako, Irrusi'ko ertzaindia erabilli bearrean aurkitu hait zan Popiel apaiza, bere asmoak aurrera atera aal izateko.

Elizbarruti amen buru, Popiel izendatu zuan orain Alexander II Inperatoreak eta aren serbitzura ipiñi zuan Poloni'ko ertzaindi errusiarra. Jakin izan dute Errusi'ko Tsarc'k, mesederik egin oi dieten guztiei esker ona agertzen, eta mesede bikaiña egin zion Popiel apaizak Alexander II'ari: Elizbarruti oso baten oparia. ;Eta Poloni'n gaiñera! Ain etsai menderakaitza zuan Poloni'n!

Ain bizkorra izandako Eliz Erruteniar «Uniata» ospetsu artatik elizbarruti

bat bakarrik gelditzen zitzaion orain Erroma'ri: Galitzi'koa, Austri-Ungari'ren barruan.

Pio IX'a il zanean iñoiz baiño okerrago zegoan, apika, Sortalde'ko auzia' «Si l'échec de sa politique était patent, e'est qu'on n'avait pas tenu compte suffisant de l'attachement jaloux et soupçonneux (les diverses éhkrétientés pour leurs rites particulieres)» idatzi zuan, Frantzi'ko gobernuaren eskarira egin-dako azterketa batean, Alfredo Lacazes **Euskeraz: «Bue politikak uts egin du; (IX Pio'renak); ori agirian dago. Eliz aiek beren zirimoni-iei dieten zaletasun itsua eta kezkatatsua ez hait du ark bear bezala kontuan artu».**

Frantzi'k Erroma'n zeukan ordezkari onek bezain argiro igarri zuan utse-gite aren sustraia non egon zan, beste diplomazilari batek: Leon XIII'ak. Orregaitik Aulki Donean eseri zan bezain laister aldatu zuan Sortaldeko Elize-kingo politikagintza. Pio IX'a bezain zentralista zan Leon XIII'a eta ura bezain autokrazi-zalea, baiña arek baiño alkarrizketarako joera aundiagoa zuan; baita neurriaren zentzu aundiagoa eta politikarako esku yavoagoa ere. Gaiñera, arek ez bezala zituan begiak zorrotzak eta adimena argitsua; edo, beintzat, kulturaren arloan obeto pres taturik zegoan'

Ikus zer itzen bitartez agertzen zion aipatutako Laeazes diplomazilariak bere gobernuari, Aitasantu berriaren politika-asmoa: «Dissiper les malentendus, augmenter l'essor des Eglises uniates, favoriser la formation des elergés indigènes, établir des centres d'attraction plus nombreux et plus puissants: tels sont aujourd'hui les moyens d'action que la papauté compte metre en oeuvre». Gure izkuntzan: «Uste okerrak aienatu, Eliz uniaten dizdira bizkortu, bertako semez osoturiko apaizdialc ugaritu, Eliz aietako erakundeak egokiagotu eta ugariagotu, inguruko kristauak irabazteko gai iz.:n cla:tezen: auek dira gaur aitasantutzak lan ontan erabilli nai dituan tresnak». Ezpairik gabe diogu, XIII Leon'ek, Sortaldeko arazoa argi ikusten zuala, ta egiazko maitasuna ziola, —eta ziñezko eraspena— ango Elizen izaerari.

\* \* \*

Aipa ditzagun Leon XIII'ak lanketa ortan izan zituan laguntzailleak: eus-kotar bat aurrena, Baiona'n jaiotako Lavigerie Kardenala; baita, kontzilioa-koan ain gizonki jokatu zuan Strossmayer, «ikusmen luzeko gizona , gotzai aundia, abertzale sendoa» (J. Ilajar); eta, azkenik, Langénieux Kardenal fran-tziarra. Izan zuan Aitasantuak lagun tzaren bearra, azpilan lotsagabea egin bait zioten kuriatar latinzale batek baiño geiagok.

Apaizdi «uniata» ugaritzen saiatzeari ekin zion lendabizi Leon XIII'ak. Ortarako, Melkatarren apaizgaitegia eraiki zuan fesuralen'en (1882), eta Ar-menitarrena Erroma'n (1883). Karitatezko bearkizun bat bete izate utsak bere-ganatu zion ortodoxoen naimena, ots, zismatikoen naimena.



Esku gogorregiarekin zerabilzkian orduan auek Abdul-Hamid sultanak (1876-1909). Bereala agindu zion Aitasantuak Istanbul'en zeukan Ordezkaritari al zuan guztia, larriune artan, Kostantinopla'ko Patriarkari laguntzeko. Arrezkero maiz ikustatu zuten alkar IV Jokin Patriarka'k eta Rotelli «Legatus» erromatarrak. Ez zan aspaldian orrelakorik Bizantzio zarrean gertatu.

Baiña ez zuan Leon XIII'ak bide ortatik aurrera jo. Ez dirudi Ortodoxi zismatikuarekin sakonki arremanetan sartzeko asmorik iñoiz izan zuanik ere. Itxuraz, «uniatekin» Pio IX'aren denboran egin ziran okerrak zuzentzea naikoa zuala pentsatu zuan. Ezur ozkatu-eziña iduritzen zitzaion nunbait, ortodoxia. Edo-ta soziologiaren alorreko arazoak erabat ebatsi zizkieten denhora... ta oarmena!

Eta, ori... ;soziologiaren gaiei-buruz erabilli zuan politikak, ain zuzen, Errusi Ortodoxiarraren atea ere iriki zizkiola! Alexander II'aren eraiketa «Diuturnum illud» entziklikan gaitzetsi izateak, eta, gero, soziologiari-buruzko beste entzikliketan komunismoa okertzat epaitu izateak, irabazi zizkion III Alexander eta II Nikolas Tsar'en gogoak. Aitasantuaren entziklikak Errusi'ko parroki ortodoxiarretan irakurriak eta aintzatuak izan ziran, eta, ori ere bazan bai Kostantinopla'ko alkar-ikustatze aiek bezain gauza arrigarria.

Ez noski, ez! ... Errusi'ko Inperatore autokrata zakarren txalok ez digute Aulki Donearen soziologi-eraren alde deus alaigarririk adierazten, baiña, orduan, Tsar'en ongina arek, Errusi'ko katolikoer bizitza latza biguintzeko bidea eman zion beintzat Aitasantuari.

Nikolas II'ak (1894-1917), Inperatore izatera iritxi zanean, begirapenez jakiñarazi zion bere koroiaketa, eta Leon XIII'ak, esker-moduz, Kristo'ren Ordena'ko Gurutz Nagusia bidali zion, ez noski alperrik, bereala eman bait zituan Nikolas II'ak bata bestearen atzetik iru lege garrantzitsu. Lege oien bitartez'

—Gotzai katolikoek zillegi zuten «ad limina» ikustaldia egitea, ezereztua gelditu hait zan arrezkero, ori galeraziaz Katalin II'ak argitaratutako legea.

—Iare ziran, edozertarako, «uniata» guztiak.

—Desegiñik gelditzen zan, Eliz ortodoxiarretik irtetzen zana eta irtendako au bataiatzen zuan apaiza eriotzera beartzen zituan legea. Iaretasun onen eskiertasunaren babesean 230.000 kristau itzuli ziran katolikotasunera.

Baiña Leon XIII'aren eginkizuna Ortodoxia Erroma'runtz urbiltzea ez baiña Eliz uniatak sendotzea izan zan. Ortarako, 1893'ko Eukaristi-Batzarra, Jerusalem'en egitea nai izandu zuan, bere aolkulari askok pentsatzen zutenaren aurka. Ez zuan ordezkarizat gizon makala aukeratu: Langenieux Kardenala; eta, an eliztarren artean azterketa zeatz bat egiteko agindu zorrotza eman zion oni.

Errez ikusi zuan Aitasantuaren ordezkarriak, lurralde aietan «latindarrek» eta Jerusalem'go Patriarka latindarra zan Piavi berak erabilli oi zuten arrox-

kokeria. Gogoan artu zuan beste gauza bat ere: uniatek, beren alde, Kontzilioen eta Aitasantuen aginduak ateratzen zituztela maiaren gaiñera, «latindarre», berriz, «legatuen» oiturak eta «Propaganda Fide»ren pribilegioak besterik ez zezaketela aurkeztu beren jokabidea zuritzeko. Baita're ikusi aal izan zuan bere begiz, sortaldetarren liturgia; eta oso ederra iduritu zitzaion liturgi zaar ura, Ikus zer esanaz amaitzen zuan Langénieux Kardenalak Aitasantuari idatzitako azalpena:

—Liturgien ugaritasunak, ez dio Elizari kalterik egiten Alderantziz aberastu egiten gaitu, eta asko gaiñera.

—Gaur-egunez, gauza eziña dugu zismatikoak gureganatzea... guban federik ez dutelako; gure anal «uniatak» *zeiñen ditugun Aul;* ikusi hait dute, eta, ori ikusteak, Erroma sortaldetasun berberaren arerio dala sinistrea eraman hait ditu!

—Sortaldean iriki dugun zauria sendatzeko, hi auek dira len-bait-len erabilli hear ditugun sendagailluak: Eliz «uniatei», gure laguntza zabala; Latindarrei, halazta portitza.

Ez ziran, ez orixe!, iñongo zulora galdu Langénieux Ordezkariaren aolku zугurrak, pozik eta bereala asi hait zan XIII Leon lanean. Andik urte betera argitara eman zuan «Praelara Gratulationis» entziklika (1894).

Entziklika ortan, hirrezagutzen ditu Leon XIII'ak lenago Florentzi'ko Kontzilioak onezagutu zituan Patriarken pertsonalitatea eta almena! Badu entziklika onek barkapena eskatu-naiaren itxurazko zerbait ere, ortodoxiarretaz ari dan guztietan ordurarte ez bezalakoa bait da bere itzen doiñua. Ez duzu bertan «ardi galduek» egiazko artaldera itzuli bear dutelarik irakurriko, baiña bai, «anai» bereziak alkarganatzea hearrenetako eginkizuna dala Eliz osoarentzat.

Entziklika orren atzetik Patriarka «uniata» guztiak Erroma'ra deitu zituan Leon XIII'ak aiekin alkarrizketa anaitsuan jardun aal izateko. Astirotsu, laisterketarik gabe, zortzi billera egin zituzten Patriarkek Aitasantuarekin jolas gozoan. Billera oietan gogakizunik garaiena Yusef Melkatarrak pentsatutakoa izan zan: Sortalde kristauarentzat Erroma'n «Kongregazio» edo Bazkun berezi bat eraikitzea. Bazkun ortan Patriarka «uniata» guztiak artuko zuten parte Erroma'n ipiñiko zituzten Ordezkarien bidez, eta Bazkunaren ardurak, Eliz «Uniateetaz» aruntz, Sortaldeko kristautasun osora iritxi bear zuan. Eliz zismatikoak bir-irabazten astea zan Patriarken asmoa'

Ez dakigu zergaitik, *Leon XIII'*ak ez zuan Yusef'en eskaririk mamitu. Ez noski Sorkaldeari jaramonik ematen ez ziolako, 1894'eko urte ortan bertan atera bait zuan bigarren entziklika bat: «Orientalium Dignitas», Europa'ko diplomaziak oso gaizki artu zuan entziklika. (Esan dugu lèn zergaitik ziran Europa'ko Laterriak Sortaldeko Elizak «atzerritartzearen» aldeko). Baiña ori baiño okerragoa dana, oraingo ontan ere, «Propaganda Fide»ren ordezkari, bikario, bidali, eta mixiolari latindarrek, Europa'ko diplomaziaren alde ipiñi

ziran; ez-entzuna eta ez-jakiña egin zioten Aitasantuaren erakutsiari. Ori bera gertatu zitzaion Leon XIII'ak 1896'eau eman zuan «Auspicia Rerum» idazkiari.

Eta, «Propaganda Fide»k, zakurkeriz nuiturik gelditzarekin, aize ematen zien Aitasantuaren esakizuncn aurka ari ziran guzti aiei. Auen erruz ez zuten Aitasantuaren azi-alcek, zezaketcn uztanik ekarri; eia gaitz aundia egin zioten, —latinzale aiek:—, Leon XI[1'aren pertsonari crc, Aitasantua heretarrak esanera erakartzeko gai ez zala ustearazi bait zieten ortodouitarrei. «Leon gure alde dago», pentsatzen zuten auek, «haiña Sarkaldeko Eliza Sorkaldekoaren etsaia da. Sortu bedi Leon iltzean beste Aitasantu bat; bereala asiko da ostera Sarkaldea, Sorkaldetasuna ezerezteko al duan guztia egiten».

Ez zitzaion arrazoirik falta Yusef dcikatarrari Kon;gregazio hereizi bat eskatzen zuanean. Tata, bearbada, au izan zan Leon XIII'aren utsik aundiena: Kongregazio ori erailci ez izatea: Sortaldeko auzietarako ere «Propaganda Pide»rekin jarraitu izatea; latindar utsez osoturiho Krmgrc;;azio arekin sorkel-(leko gauzak ezin egoki cratu zitazkealaz jabetu ez izatea.

«Propaganda Pide» ren eginkiziina, gaiñera, «egiazko fedea zabaltzea» da. Uniatak «Propaganda Tide» ren azpian eukitzca Eliz Uniatak egiazko fcederik ez zutela adieraztea zan. Eta ez al da ori Eliz z'ntzo aiei egin zezaiekeen irair^ik garratzena?

Esan dugu asieran, Pio IX'a bezain zentralista zala Leon XII[T'a. Lenengo seminario «uniata», Melkatarrena, Terus.alen'cn iriki zuan, haiña Erroma'n he-realaxe bigarrena, Armenitarrena, eta Lrroma'n prestatu ziran, xeetasun gu-tian, Eliz Armenitarraren eta Frrutenitarrarcn Sinodoak, naiz bildu, aurrene-koa Txarfcrh'cn (1888), eta higarrcna bildu (1891); eta, biak, Leu-dakatritzat Leon XIII'aren «T.e,atus» edo Ordezkaria zutelal

Badu noski Aitasantuak, personalki edo ordezkarien bidez edozein Elizako sinodoen Lendakari izateko eskubidea, eia eskuhide ori ez diote «uniatek» ukatuko. Kezkatzen dituan gauza. ordezkaritzarako aukeratzen duan gizonaren pentsaera da. Eta gizon orrek Sortaldeko baizen izaeraz duan cdo cz duan ezaupena. XIII Leon'ekin ongi konpondu ziran; benetan artu hait zituan onek ere aintzat, ain bure zituan leguntasun ela yayotasunaz, Sortaldeko Elizak eta Liii aietako arazo guztiak.

X Pio'k, gero, ain benetan aintzat artzen zituan edo ez, ezin jakin deza-kegun gauza da, baina badakigu ez zuala bere aurrekoaren leguntasunik eta yayotasunik izan. Badirudi Sortaldeko Elizetan konfiantza geiegirik ez zuala. Usan bearrik ez da, bere aolkularici eru orixe hora <gertatzen zitzaiola; agin-tariak., —baita Aitasantuak cre—, gustoko dituzten laguntzaileen bakarrik in-guratzen hait dira. Lz litzaioke beraz Elizari erc gaizki etorriko, Laterri de-mokratikuetan bezala, eragozpenik gahe mintza litekean «oposizio» b a ten an-tzeko zerbaít, al dan moduan, bere altzoan antolatzea.

Kirten egokia ematen zioten Pio X'ari bi gertakizunek, Leon XIII'aren politik'era aurrera eramaten saiatzeko. ARi gertakizun oiek?: Nikolas II'ak

Errusi'n erlijio-iaretasuna lege-egin izatea, (1905); eta «Turkitar Gazteek» Sultanen autokrazia ezereztu izatea. Atzera berriz... ;ara nun zetorren Demokrazia Elizari ekintza-bideak irikitzera! Baiña Pio X'ak, San Pio X'ak, Pin TX'aren antza geiago zuan Leon XIII'arena baiña eta ez zion erosotasun ari kirtenetik eldu.

Eslabitarren artean, zerbait lagundu zion Errutenitarren Metropolitari; baiña gutxi eta isilik. Ander Szeptickij zan Metropolita au, Galitzi'n dagoan Lemberg edo Lwow'eko Goigotzaia, gizon on eta argia.

Amaseigarren mendean egin zan, Brest-Litovsk'eko Alkartearen bitartez, Erruntenitarren eta Erroma'ren batasuna; gero Errus,'pera igarotako lurraldeetan, legez beintzat, deseginik gelditu zan batasuna. Uste izan zuan orain Lwow'eko Metropolitak giro berriaren babesean berbiztu aal izanen zuala Brest-Litovsk'eko izpiritua, eta birrekarri aal izanen zituala Erroma'rekingo batasunera Tsar'en mendeko lurraldeetan, (Errusi'n, Ukrani'n, Bielorrusi'n, eta Poloni'n), gogo onez edo txarrez Ortodoxi zismatikura urteen luzaroan erori ziran «Uniatak». Ortarako sortu zuan «Slovo Istini» edo «Egiaren Itza» zeritzaion illerokoa 1913'an.

Ez dakigu noraiña iritxi zitekean Szeptiekij'en ekintza, urrengo urtean sortutako Lenengo Ludi-Guduak lepo egin ez ez ha'lio. X'ak Metropolita bizkor ari eman zion laguntza guztia?: «Orientalium Dignitas» entziklika leondarraren arauak kristau aien artea erabilli aal izateko eskubidea. Baiña ori ere ixillan Ez zuan argitaratu nai izan Lwow'eko Metropolitari orrelako «probilejiorik» eman zionik. Ez zuan X Pio'k eskurik geiegi zabaldu!!!

Aitasantu batek entziklika batean baldintzarik gabe emandako eskubideak, eman al dezazke «pribilejio» bezala beste Aitasantu batek? Bai, legez; ez. ordea, lengo Aitasantuaren jarduera kolokan utzi gabe. Bestalde, gotzai batek bere elizbarrutian bakarrik du jurisdizioa, almena. Ortodoxiar zismatiku aiek Lwow'eko elizbarrutitik landa zeuden. Bearrezkoa zuan beraz, bereak ez zituan kristau aientzat Lwow'ko Metropolitak Aitasantuagandik lortutako almena. Zergaitik orduan X Pio'ren ixilkeri-naia? Lwow, Austri-Ugari'n zegoan; Lwow'eko Metropolitak landu nai zituan kristaudiak, Errusi'n. Laister, bi Laterri auek alkarren aurka ibilliko ziran Lenengo Ludi-Guzuan. Diplomazi-iskamillen bildur ote zan Pio X'a?

Baiña, gudu ori ez zan 1914'a arte asi, eta Pio X'ak 1908'an eman zion «pribilejio» ura Lwow'ko Metropolitari, eta orduan ez zuan inork 1914'ko gudarik aurre-ikusten. Gaiñera, diplomazi-iskamillak eragozteko bazan beste bide bat: Errusi'ko «uniata» berrien artean Buruzagi iare bat ezartzea. Ez ote zitzaion, bâ, Pio X'ari Leon XIII'ak sortaldetarretan izan zuan konfiantzarik atsegin? Ez da sinistekoa. Seguruaski ez zan arazo aietaz oartu ere.

Urria ta motza izan zan Pio X'ak Turki'n egin zuan lanketa ere. Turki'a ez zan noski Soliman'en denborako Laterri indartsu bildurgarria. Luzaroan Sultan eroek edo erdi-eroek gobernatua izanik, lurra jota zegoan ia, gure

mende onen asieran. «L'homme malade», «gaitzak jotako gizakumea» deitzen Lion frantziar-diplomaziak, baiña lurralde zabalen jabe zan oraindik zaurituta-  
tako gizandi ura: Arabi, Mesopotami, Siri, Libano, Palestina, eta Armeni, Turki berberaz ;gaiñera. Eta, baita, izenez beintzat, Ejito bera.

Lurralde aietara ere iritxi zan de mokraziaren aize piska bat-eta aize orrek lasaitasun aundia eman zien Patriarkei beren Elizak atontzen saiatzeko. Ez zuten abeunerik galdu. X Pio ihilli zan izuturik bezala!

Luzaroan Sinodorik egin gabe zeuden Melkarrak, «Propaganda Pide»ren ttenttelkerien erruz. Azkenean, ainbeste urteren ondorean. 1909'an bildu zan Sinodoak ere ez zuan X Pio'ren onespenik izan. «Propaganda Fide»ren Ordezkaririk gabe, eta Erroma'ko kanonlarien iritziaren aurka bildua izan bait zan.

Okerragoa gertatu zitzaigun X Pio'k Armenitarrekin erabilli zuan jarduera. Indarrez, Erroma'n eeiñarazi nai izan zien Sinodoa. "Terzian zuan orduan Armenitarren lauak Patriarka, eta eman zion onek baiezkoa Aitasantua-  
tuaren aginduari. Ezezkoan ipiñi zan ordea Eliz aven zatirik aundiena; eta imita gotzairik geienak ere.

Nagusikeriz erabaki nai izan zuan Pio X'ak korapilloa, ekiñaldi batean Eliz arentzat bederatzai gotzai berri bere adiskidcen artetik aukeratuta izen-  
datuaz.

Igarri dezakegu nola izanen zan arrua Sortaldean X Pio'ren zaplaztako ura. Erorri ziran alatagutziz, Armenitarren gotzaiak Erroma'ra eta asi zuten Sinodoa. Baiñan Sinodo ituna izan zan ura benetan. Gotzai <eeienak ezer-  
-eritetan jarri hait ziran an! Sortaldean berriz, artega zebillen ilrmenitarren kristaudi uniata. Snitanaren Jauralaritzak ere artu zuan artcgatasun artan parte, Erro na'tik itzuli zan bezain laister Terzian Patriarkari armenitarren naziona-  
litatearen lendakaritza kendu bait zion. Baiña ez ordea bere arioz, kristau armenitarren sail ugari baten eskariari erantzunaz bajzik, (1912).

"Terzian gizagaixoak, Ieialki eta isilik, —isiltasun geienirekin agian —, ezer esan gobe jarraitu zuan, Erronw'k ezarri ta mugatu zion bidea. Egunetik egunera ari zitzaion ordea jendea urruntzen, eta azkenean, 1913'ko Abendua-  
ren 8'an lertu zan kristaudi aren asarrea; Terzian'ek, Aulki Donearen agindua jarraituz, bere Elizari Erroma'ko Taizaren Egutegia ezarri nai izan zionean, —zoritxarreko egutegiaren ardaillu ezereza berriro! —, orduan jenderik geien-  
nak, Eliz osoak! , nnizin-egin hait zion asarre.

/\_ittna? iñork ez daki zer gerta izan zitekean an, illabete batzkn -geroago Turki gudan sarturik aurkitu *ez ba'litz*. Orduan turkitarrek armenitarren artean egin zuten eraiketa izugarriak ito zuan odoletan lain artako iskamilla, eta baita oso-oSoan Hiz Armenitarra bera ete Turki'ako lurretan.

Ez zebiltzan obeki gauzak Ejito'n Kopziar katolikoek artean. 1898'an, Leon XIIi'ak, uste izan zuan Eliz txiki ari jerarkiaren osotasuna emateko gara-  
riean iritxia zala, (1a on-irimi orren giroan, Ziril Maeaire, izan zuan Eliz arek lenengo Patriarka. Baiñan 1903'az gero, X Pio genduan Aitasantu, XIII

Leon'ek bezala pentsatzen ez zigun gizona; eta Maeaire'k ez hait zuan Ejito'n ain ugari ziran mixiolari latindarren gidaritzarik morroikiro jasan nai, laister galdu zuan Aulki Donearen uste ona. Eta Erroma'ra deitua izan zan 1908'an.

Ez zituan Erroma'ko oiturak eder-ikusi, eta, hearbada, ez zituan ulertu ere. Orrela, andik itzulitakoan, Patriarkadutza laga, Erroma'rekingo alkartasuna ehaki, eta here jatorri-zko Eliz Kopziar zismatikura joan zitzaigun ostera. Ez ordea fede txarrez, gauzak astiroago eta sakontasun geiagorekin pentsatu ondorean, berriz Eliz Kopziar «Uniata»ren altzora itzuli hait zan, 1912'an. Eta, beti bere fede onaren eragiñari jarraituz, Erroma'ren geiegikeriak azaltzen zituan liburu bat eman zigun urrengo urtean argitara. «Eliza, Jainkotiar-Erakundea».

Legeen arloan Sorkaldeko Elizei-huruz, ez zuan X Pio'k ezer egin. Soilki, Erabaki bat eman zuan 1912'an: «Tradita ah Antiquis», «Arbasoek Eman», eta erabaki artan errez ikusi zitekean Aitasantuak Erroma'ko Liurgi latinezkoari ematen zion nagusitasuna. Garaitza!, oi u egin zuten Sortaldean oro latinizatzearen alderdikoak ziran sarkaldetarrek. Mindurik, ordea, gelditu zitzaizkigun sortaldetarrek.

Sortaldeko arazoetan ez zuan X Pio'k asmatu. Pio IX'ak arazo aiek gaizki erabili ba'zitan, okerrago erabili bait zituan Pin X'ak. ;Ez dala naiko, A1-dareetako Santu izatea, Aitasantu ona izateko!!

Alatagutziz, badu nondik ulertu bi Aitasantu auen jardunhideak.

Len ere esan dugunez, IX Pio'k adimen osoa eta kemen guztia aitasantuzaren almenaren sendoketan ipiñi zituan, demokrazia Elizaren altzora sartzen ha'zitzaion Eliza lurrindu ta ezereztuko zitzaiolaren ustean. Eta, arrazoi zuan, eta ez zuan arrazoirik, ortan.

Arrazoi zuan, Eliza, bere Egilleak ala nai izan zualako, ;Demokrasi bat ez hai da! Ez zuan arrazoirik, Eliza naiz demokrasi izan ez, Aitasantuek gortzaiei, auek apaizek eta apaizek kristau arruntei, dogma uts ez diran gauzeta-rako eskuhide geiago eman hait dezaiekete.

X Pio'rentzat berriz, arazoen-arazoa, Sinispenaren garbitasuna izan zan, Elizarentzat arrisku erioгарria ikusten hait zuan, orduan sortu-berria zan eta berak «modernismus» izen eman zion oldozkera okerrean.

Arrazoi zuan; gaitz aundia egin zezaiokean bâ «berrikeri» ark Elizari. Ta... ez zuan arrazoirik, Sortaldean arazoa, sinispenari-huruzkoa ez haiñan kanon-legeari eta liturgiari-buruzkoa bakarrik bait zan.

Gure bi Aitasantu aiei, Aitasantuzaren sendoketari eta Sinismenaren garbiketari buruzko arazoen aldean txikerrak iduritzen zitzaizkien Sortaldeko Eliz «Uniaten» eztabaidak. Baiñan, naiz txikerrak izan, bazuten eztabaida aiek beren garrantzia, eta garrantzi cri ikusteko ez zuten borondate oneko bi gizon aundi aiek begi zorrotzik izan. Ma, Sorkaldeko auziak oro beste batzuen eskuetan utzi zituzten, aolkulari ta kuriatarren eskuetan, eta, tamalez, laguntzaille auek

aukeratzen ere ez zuten asmatu. Zentralkeriak, ots, guztia erditik ikusi, guztia erditik eratu, guztia erditik agindu eta guztia erditik egin naiak lausotu zituan.

X Pio Donearentzat Sortaldeko Elizen barruti ontan dana oker agertu ez dedin, esan dezagun berak burutu zuala, era egokian gaiñera, Malabar-Elizaren arazoa, orrela Leon XIII'ak asitakoa amaiera ederki eramanaz.

Oroi Malabar'ko Elizari-buruz, urte berean il ziran Pin IX'ak eta Audo Babiloni'ko Patriarka Kaldeatarrak, Eliz artan sortutako zalaparta konpondu gabe utzi zutela; eta XIII Leon'ek egin zuala an pakea, iru eliz-barruti erai-kiaz: Tritxur, Kottayam, Ernakulam. Pake ori erabat sendotzea izan zan Pio X'aren lana.

## RERUM NOVARUM ENTZIKLIKAREN ONDORIOAK

«Poz aundiarekin», —«maxime laetabundi»—, artu zutela langilleek entziklika berria, esaten digu Pio XI'ak (Quad. An.). Ez da oso-osoan egia. Langille katolikoek, bai, apika; baiña auek gutxi ziran ordurako' Langilledia anarkista edo sozialista zan, geienbat; eta Leon XIII'aren idazkiari ez zion jaramonik egin; eta egin balio ere, moteltzat artuko zuan idazki aren mamia.

Jon XXIII'aren iritziz, «gutxitan izan du Aitasantu baten itzak orduan izan zuan aiñako oiartzun orokorra ludian» («Mater. et Mag.). Alaxe da. Oiar-tzun zakarra, liberalen artean, auen artetik batek baiño geiagok, baita katoli-koek ere, Aitasantuari oker-izenez «sozialista» erantsi hait zioten. Egiazko sozialistentzat, anarki-zaleentzat edo marxitarentzat, entziklikaren itzek zen-tzurik ere ez zezaketen izan'

Katoliko geienen kontzientzi-muñean eztena bezala sartu zan Leon XIII'-aren itza. Erantzun koxkorra jaso zuan auengandik. Ez zan iñor aurka irten, ori ez, baiña asko, —geienak—, Aitasantuak erakusten zuan bidetik sartu gabe gelditu ziran' Izan ziran, bai noski, bide berri ortatik pozik ekin zutenak ere. Ez ziran, besteen aldean, asko, baiña bai bizkorrak, eta egin aal izan zuten lan ederrik katolikotasunaren onerako.

«Sindikatoen» eta «Latterria-ekonomian-sartzearen» inguruan piztu ziran gizartelari katolikoek iskamillak eta borrokak.

Entziklikak, bi auzi oIei-buruz baiezkoaren aide epaitu zuan ezker, ez zuan iñork ezezkorik babesten, baiña bai askok, Latterriari al zan eskubiderik gu-xiENA ematea, eta sindikatoen gaindik korporazioak egokiago ta obeagotzat aitortzea'

Aburu ontakoak izan genituan gure gizartelari-geienak' Bildur zieten langille utsez eratutako sindikatoei. Ain zuzen bildur onek alkartu zituan so-ziologilari katolikoak eta liberal katolikoak; aurrenekoak, asko, aristokra-zikume ta erregezale, eta bigarrenak burgesikume ta demokraziale izanik, alkarren arerio izan bait ziran ordurarte.

Maite zuten langillea gure soziologilari aiek. Asko egin zuten langillearen alde, eta oraindik geiago ere egiteko gerturik zeuden, baiñan eginkizun eder aietan langillea lankide artu gabe, guzia berak beren gisara zuzenduaz, ekintza aien zuzendaritzan langillei eskurik eman gabe. «Despotisme éclairé»!



Gure gizartiztilariak, argikuntza-aroko «jauntzar argitu» aiek bezalakoak ziran: «guzia langilleentzat, langillerik gabe». Orregaitik ain zuzen ziran sindikatoen etsai eta korporapenen zale, korporapenetan zuzendaritza langilleena ez dalako. Orixe hait zan, izan ere, aiek nai ez zutena: Langilleen igikundeen zuzendaritza langilleak beren eskuetan artzea. Bildur ziran bā, ori gertatzen ba'zan, langilleak anarkira edo sozialismora ez ote ziran jausiko!

XIII Leon bera bizi zalarik orrela pentsatzen ba'zuten gizartelari katolikoek, Pio X'aren denboran pentsaerarik aldatu ez zutela, ez dugu noski esan bearrik izango. Pio X'a, Elizan, paternalistarik aundienetakoa izan bait zan. Bazuan, mola ez?, proletari gaixoen ardura, baifian proletari katolikoen zuzendaritza elizgizonen eskuetan egon bear zuala uste izan zuan.

Ontan ere branduegi etorri zan «Rerum Novarum» entziklika; Leon XIII'aren aitasantutzaren asieran etorri bearrean, azkenean: erein zuana lantzeko Leon Aitasantuari astirik gelditzen ez zitzaionean! Gero, Pio X'a etorri zan; eta Pio X'arekin, ixilgunea.

\* \* \*

Orrcla, isilgunean, gelditu zan sozio-ekintza katolikoa Inlanderrian, Manning illezkero; eta orrela jarraitu ere du ia gure egunetaraiño. Vaughan eta Bourse kardenalak, buta bestearen ondorean Eliz artako buruzagi izan ziran bitartean, Leon aitasantuaren gizarte-erakusketak ez zuten an erantzunik bildu. Ezer gutxi izan bait zan 1909'an eratutako «Catholic Social Guild»: «Gizarte-Kofradi Katolikoa».

Belxika'n, beti izan zan paternalista gotzaidi geiena, eta ala jarraitu zuan I ntziklikaren ondorean ere. Ori bera esan daiteke Olanda'koaz. Gotzaien bidetik jo zuten soziologilaririk geienak, baiña izan ziran Belxika'n «Rerum Novarum» entziklikaren gogapenik aurreratuenak mami egin nai izan zituzten bazkun eta gizakume ospetsuak: Oroi ditzagun «La Ligue Démocratique Belge», Mercier kardenala, Verhaegen, Rutten domingotarra.

«La Ligue Démocratique», «Rerum Novarum» atera baiño lentxeago, 1891'an bertan, sortu zan. Bere aurreneko zuzendaria Hellepute, paternalista izan zan. Lz ordea amen ondorengoa, Verhaegen, langille bakarrek osaturiko sindikatoen aldekoa baizik. Verhaegen'en eskutik lan aundia egin zuan «Alkarte Demokrazizale» onek parlamentuan, eta lege hikaiñak aterāzi zituan an, horroka bizien ostean, langillediaren alde. Sindikatogintzan, txit izan zitzaion haliozkoa, Rutten domingotar ospetsuaren laguntza. Indar aundia izan dute Belxika'n sindikato katolikoek. Bā..., esan daiteke zalantzarik gabe, Belxikar sindikalismoaren sustraietan domingotar bizkor au egon zala: Rutten Aita.

Esan dezagun alaiki, izan zuala «Alkarte Demokrazizaleak» Pio X'aren onespena. Gaitzetsi berria zean onek Itali'n Murri apaizaren demokrazia..

Bereala jakiñarazi zien Beixika'ko demokrazizalei gaitzespen arek ez zituala arrapatzen.

Mereier kardenala, egiaz izan zan, Malinas'en, Doutrelux xaloaren oiñordeko egokia, eta bere bildurrik-ezak trebetasun aundia eman zien «Rerum Novarum»en jarrailei. «Lorsqu'il travaille à répartir plus équitablement la richesse publique, le sozialisme a raison»: «Gizarteko aberastasuna zuzenago banatzeko lanean ari dan bitartean zuzen ari da sozialismoa», esan zuan bein batean. Sozialismoak zerbaitean arrazoi izan zczakeala esatea, ez zati gutxi orduango gotzai batek agirian esana izateko.

1907'an bi ministro zeuzkan «Alkarte Demokrazizaleak» gobernuan, eta arintasun bizkorra eman aal izan zion, bi aien bitartez, langillediaren aldeko lege-egiteari.

Naiko ederki ibilli ziran gauzak Alemani'n ere. «Rerum Novarum» irten zanean, lanean ziardun ordurako «Volksverein» edo «Erri-Alkartek». Bere buruzagitza Mi.inchen-Gladbach'en zeukalako, «Minehen-Gladbach'eko mobimentua» ere deitu oi zaio «Erri-Alkartearen» igikunde ari. Buruzagiak, Iilitz eta onen ikaslea, Pieper, zituan. Berealaxe asi ziran biak egiazko sindikatoei ats-emenen, eta, 1900'ean, osatu aal izan zan «Kristau-Sindikato Doixtarren Konfederapena»:

Sindikato kristau auek aman urte lenago asi ziran sortzen Renani'n eta Westfali'n, batera langille katolikoak eta protestalariak alkartuaz. Ain zuzen alkatze ontatik sortuko zaie borroka. Alde izan zuten, bete-betea, Koloni'ko Goigotzai Fischer Kardenala, eta maiz babestu zituan Aulki Donearen aurrean bertan. Baiña aurka irten zitzaizkien Alemani'n Kopp, Breslau'ko Goigotzaia, eta Korum, Treberis'ko Gotzaia. Auek katoliko bakarren sindikatoak gara zituzten; beste aiek sozialistekin batera-lan-egiteko zaleegiak omen ziran bâ.

Sindikato Kristauen Konfederapenari aurpegi emateko beste Sindikato Katolikoan Alkarte bat osatu zuten 1897'an, Alkartearen zuzendaritza Berlin'en ipiñiaz. Izan zan zipozkeririk naiko. Baiña Alkarte Katolikoak ez bait zuan beñere indarririk izan, atera zuan aurrera Koloni'ko Fischer'ek Kristauen Konfederapena.

Breslau'ko eta Treberis'ko Gotzaiak ez ziran, iñolaz ere, «eskubitarrak», egiazko langille-sindikatoen alderdikoak baizik, «Eskubitarrak», —Windthorst, Von Hertlung baroia, eta beste soziologilari aundikiak—, Alemani'n ere korporazioen babesleak ziran.

Belxika'n bezala indar aundikoak izan dira Alemani'n kristau-sindikatoak' Indar ori gizon bati zor zaio bereiziki, 1909'a ezkerreko sindikatoen «Konfederapenaren» Idazlari Orokorra izan zan Stegerwald yayoari.

Frantzi'ko gizartelariak ere hi taldetan bereizi ziran. «Eskubikoa», talde bat, korporazioen aldekoa; «ezkerrekoa» bestea, sindikatoen babeslea.

«Eskubikoan» geratu zan, jakiña, La Tour du Pin'eko markesa, eta ia

elizjende L'ana. Gotzaidia, eizarte-ekinr.:ttik osora aldendua g:ldituko da denbora luzerako. Apaizdia, berriz, —orciur,;ite aldendua egon zan apaizdia—, orain sartuko da gizarte-ekintzan, baina eskuhitarren taldean. Laterriagandiko soldata galdu izateak eue, apika eraman zuan ain eskuzabal agertzen zitzaizkion aundiki gizartezale aien alderdira. Ots! I:z apaiz aiek berentzako dina nai zutelako, ez; diru ara beren kristau-lan *cia* karitate-ekintzetarako beau tale-lako haizik, aundiki *gizarte* zale eskuhitar aieI: —eta au ozenki aitortu bearra da—, patrika zabalik hait zeukaten heartsuen alde dirua emateko. Gizarte-arloan eue egintza ederrik ugari burina zuten,

Baiña et tan ori bidea. [gintza eder aietan danetan, zuzendaritta aundikien eta apaizen eskuetan zegoan; langilleak ordea, beren auziak beren eskuetan nai zituzten. Orregaitik, anarkismora edo stnzialismora joanaz jarraitu zuan langillediak, eta proletari-jenderik *gtbe* gelditu zitzaigun frantzi'n Eliza.

Bi talde izan genituan «rerum-novarumd arren» artean eue; eia talde bateko apaiz buruzagiak, Aitasantuak *gaitzetsiak* izan ziran.

Asieran bai, dana ibilli tan ederki asieran.

«Oeuvre des Cercles» ospetsuaren barrendik llarmel berak amat zuan entziklikaren aldeko igiknndearen zuzendaritza. Uko egin zion ordea, laister, «eskubiruntz» eroriaz «Oeuvre» arek, eia bakarrik-ia jarraitu beau izan zuan llarmel'ek lanean. Berak azitako «La Association Des Patrons Du Nord» eue aurka altxa hait zitzaion! XIII Leon Aitasantuak ez zion --llarmel't — beinere bizkairik eman! AlderantzIz, Nerekin izan zuan, ekintza guztietan, Aitasantu aundi amen babesa.

Hlarmel'en asmoa, len-hait-len sindikatoak eratzen astea izan zan. Ori-zalata, jarri zitzaion alde apaiz gazte vavoen sail eder bat: Garnier, Six, Dabrv, Gavraud, Naudet, Lemire... [tan zuan bigarren mailleko aristokrazikume haztuen Laguntza ete. Apaiz aiei, «Les Abbés Demoeeratiuues» esan zitzaien.

Egoki ari [tan ziran lanean apaiz aiek. Alare, gaitzetsiak izan ziran. Et ordea ekonomiari, soziologiari *edo* politikari-huruzko arrazoiengaitik, Elizaren zertasunari-buruz era garbian mintzatzen ez ziralako baizik. Ala beintzat uste izan zuan X Pio'k.

Gaur-egun gazte aien esariak, —bat izan ezik—, parregarriak geiago iduritzen zaizkigu kaltegarriak baiño. Adibidez, «ñork et duala lurrean errepubliklatasuna losukristo'k bezain ederki bere bizitzaren oinarri biurtu». Maiz oiui egin zuten «Terarkia ez dala Eliz osoa», baiñan ori esatean egia besterik et zuten esaten. Egia esaten zuten, baitare, «kristau-erri zumearen ahotsa entzuna izan zedin Elizaren baitan aldakuntzak egin bearrak ziral» esaten zutenean. Badu zentzu egokia «Eliz-Agintarien almena mugatu hearra dala» esateak eru' Askoz bide labaiñagotik zebiltzan, «Eliza, *berea*, —«essentiellement»—, demokratikoa dala» oles zegitenean. Esakizun oui, itzek berez daten zentzuan, ez hait da egia. Ala're, izan dezake zentzu egokia, «Eliza-baitan kristaurik txikiena Aitasanitut hez\_tin kristau ta lainkosemea dala» edo «Lizu-

-baitan gauzarik garrantzitsuen» Jainkoerria dala, eta «guzia, Elizaren altzoan, Erri orren serbitzura dagoala» esan nai ba'du.

Baiñan, onela-bada-erc, arrisku aundikoa bait da esaldi or-, zuzen jokatu zuala X Pio'k iduritzen zaigu. Iz dezagun gaiñera aantzi, gaur errez ulertzen ditugun esakizunek bazutela garai artan ain errez ulertuak ez izateko arriskua.

Ori argi utzi ondorean, zillegi bezaigu beste gauzatxo bat esatea: «Rerutn Novarum» entziklikaren zabalkundeari gaitz gutxiago egingo ziola X Pio'k, apaiz aiek zuzenean gaitzestearen orde, aien esari orren egiazko zentzua argitu batu, eta, arrisku aundikoa dalako, ori gciago ez erabilizeko eskatu balio.

Egia ela apaiz aiek beren gotzaiekin asko izan zituztela, baiña gotzai aiek *ere* soziologiaren eta politikaren gai auetan oso fidagarriak ez zirala badakigu. X Pio'k baiño lenago, entziklika baten bidez zerbait egin nai izan zuan Leon XIII berak, Prantzi'ko gizadizaleen arteko giroa garbitzeko.

\* \* \*

Leon XIII'aren «Graves de Communi» entziklika aren elburuetako bat, Frantzi'n sorturiko borroka ura pakeratzea izan zan. Ez zuan ezer lortu, izan ere, gaur zearo azturik dagoan entziklika aren izketa doakabea, argi emateko baiña illuna sortzeko egokiagoa bait zan.

Ta..., entziklika artan ez bait du Ait.tsanivak demokraziarik galerazten.!, «demokrazi» itza politikan ei erahiltzeko agindu besterik ez ba; du egiten..., itz au edo bestea erabiltzeak garrantzirik ei duala-ta, len bezala jarraitu zuten Apaiz Demokrizizaleek. Len bezala jarraitu zuten aien etsai-multzo .mardulek eru «Apaiz Dennikrazialeen» lepoetatik ereji guztien salaketa zintzilika jarriaz. Batez ere «sillondarrak» edo «modernistak» esan oi zIeten Pio X'ak aldizkari ura eta pentsaera au gaitzetsi zituan ezker. Ez ziran ala Apaiz Demokrazizaleak, naiz gaitzetsiekin gai .iskotan adiskidetasunak izan, eta gaitzesprenakoan, bateren batek gaitzetsien aide itzegin, «zer zioten ulertu gabe gaitzetsiak izan zirala» idatziaz.

1908 'an «Saneti Officii» edo «Ekintz,a Santuaren» erabaki batek apaiz aietako bi, Naudet eta Dabry, jo zituan. Ai;gitarazten zituzten aldizkariak isteko, eta geiago gogo-era antan ez idazteko agintzen zien. Agindutakoa ez, betetzekotan «suspens: a divinis» geldituko ziran, au da: «apaizketarako baimenik gabe». Naudet'ek bereala burua makurtu zuan, gaitzesprenaren berria meza eman ondorean jakinda bere adiskidei «goazen auspez elizara eta egin dezagun otoi» esanaz. Ura bezala makurtu ziran beste apaiz guztiak ere, Dabry ezik, azkeneko ordurarte apaiztasuna ukaturik bizi izan bait ion au. Diotenez, azkeneko une aietan damutu zan!

Dabry'ren antzekoa izan zan Lemire, apaiz aien buruzagia *ere*, naiz onen auzia beste mota batekoa izan. Alkate eta Diputadu zan, bere gotzaiaren naia-aren aurka. 1913'an «Congregatio Consistorialis» deritzan Aulki Doneko Era

kundeak, gotzai bakoitzaren baimenik gabe auteskundeetara irtetzea debekatu zien apaizei. Baimenik gabe ostera diputadu atera zalako, «a divinis» suspenditua izan zan Lemire.

Urrengo urtean sortutako Lenen Ludi-Guduak gertatu zun giroa, apaiz egoskorren eta bere gotzaiaren arteko pakegintzarako'

Asmatu ote zuan bâ Aulki Doneak «apaiz Demokrazizaleen» gaitzespena erabakitzean? Badirudi baietz, gaitzespena etortzerako ia apaiz «ezkerrekoienak» bakarrik gelditzen hait ziran igikunde artan. Gaiñerako «demokrazizale» katolikoek aien ariketan zerbaiten usai txarra sumatzcn zutelaren siñale!

Ona beste gauzatxo jakingarri bat. Apaiz aientzat danentzat, ez zan Demokrazia, Erkala, gauza berdiña. Batzuentzat, gutxientzat, Frkala, gauza laikua zan, Frantzi'ko Errepublika bezala erlijiorik gabea, edo ta beintzat Laterri Alkartuen erara Jaungoikoa gurtu, baiña erlijio guztiei begirune eta askatasun berdiña eskeintzen ziena.

Frantzi'ko apaiz eta sekular demokrazi-zale katoliko geienak, ez ziran aburu ortakoak. Auentzat Erkala, gauza katoliko bat zan. Demokrazitik jaiotako Laterria, katoliko izango zan; Borboien Bakalduntza edo erdi-aroko Inperiotza zârra katolikoak izan ziran bezala. Alderantzi batekin, jakiña: Auek aristokrazian erroturik zeuden bezala, ura, demokrazitik sorturiko Laterri berria autarkien bitartez agertutako erriaren naimenean egongo zala errotua' Eliza, erriarekin bat egindako Eliza, izanen zan Laterri Demokrazikoi orren argiemaillea' Eta Eliza gizakume soillekin baiño, instituzioekin obeki batera etortzen dalako, katoliko aientzat geienentzat, autarkiak ez ziran laterkide bakoitzen eskuetan egongo, sendien eskuetan baizik. «Famili bat, autarki bat»; ez, Argikuntzatiko demokrazi laikoak nai zuan bezala, «laterkide bat, autarki bat».

Esan dugun bezala, laister gelditu bait ziran bakarrik Apaiz Demokrazi-zale «ezkerrekoienak»..., aurrera eta sendo jarraitu zuan, aien politikazko ixkamilletatik urruti, I-Jarmel'ek piztutako sozio-ekintzak'

Frantzi'ko sozio-ekintza onek ez zuan inoiz, Alemani'koak, Belxika'koak, edo Laterri Alkartuetakoak aiña indar eta garrantzirik izan, baiña Frantzi'ko aizeak geiagu sartu bait dira gugana, aipa ditzagun ekintza aren ziturik mardulenak:

—«Union d'Etudes Catholiques Soeiaux» 1901'ean ACTF'ren laguntzar-kin sortua. H. Bazire izan zan, iraultzari aurka egiteko bakarrik sortua genduan ACTE' ari gizarte-auzietarako joera au txertatu ziona (ACTF, 1886'ean Albert de Mun'ek iratsitako «Assotiation Catholique de la Jeunesse Française» ura duzu).

—«Semaines Soeiales», erriz-erri sozio-gaiak irakasten jarduteko Ikastola Ibilkari sail baten antzera 1901'an sortuak. 1906'ean Espafi'n eta 1907'an Itali'n bagenituan «Sozio-Asteak»; Frantzi'koen antzera eratuak; Alemani'koak beste gauza bat izan bait ziran: erriari erakusteko ez baiña, jakintsuei el-karrizketa-bideak emateko sortuak.

—«Action Populaire», sozio-jakintzarako inākitarrek sortua. Aita Leroy'k sortu zuan'

—«Seerétariats Soziaux», (1910), ACJF'ren laguntzarekin langilleak egiazko sindikato katolikoetan biltzeko asmatuak' Ezer gutxi lortu zan, langilleak aspalditik Elizatik oso urruti zebiltzalako.

—«Fédération Française des Syndicats d'Employés» (1912). Frantzi'n, sindikato katolikoaren sorkuntzaren ondorioa: «Frères des Écoles Chrétiennes» edo «Ikastola Kristauetako Anaiei» zor zaiena; auek eratu bait zuten 1887'an «Le Syndicat des Employés du Commerce et de l'Industrie», lendabiziko sindikato kristau frantziarra.

Frantzi'ko izpiritu bikoitza, igaro zan Espāni'ra. Eskubitar paternalistena izan zan «El Consejo Nacional de las Corporaciones Católicas de Obreros»; ez «ezker» ez «eskubi», erdian-edo gelditu zitzaigun, nekazariei dirua errez-tutzeko apaizek asmatu ziguten «Confederación Nacional Católico-Agraria» esaten zitzaion erakundea. «Liberalagoak» izan ziran Severino Aznar'en «Renovación Social» aldizkaria, eta Palau Aitakartzelona'n eratutako «Asociación Social Popular». Bide ontatik ibilli ziran bi domingotar ospetsu ere: Gafo eta Gerad Aitak. Gizon auek danak, egiazko sindikatoen billa zebiltzan. Ezer gutxi lortu zuten. la ezer ez. Palau bera ere, Arjentina'ra uxatua izan bait zan'

Itali'koa zan, an katolikoak Gobernuaren politikan parte artzea debekaturik zeukatelako, sozio-ekintzarako girorik gaitzena, eta edozein soziologilari urdurik Aitasantuarekin iskamillak izateko egokiena' Ala sortu zitzaigun an Murri apaizaren «zisma», eta ala izan genduan motza soziologiaren arloan jaso genduan uzta.

Itali'ko sozio-ekintza, «Opera dei Congressi» integristaren eskuetan zegoan. «Opera» baiño irikixegoa sortu zan 1886'ean «L'Unione Cattolica per gli Studi Sociali», eta irikiagoa egin zan oraindik, Toniolo'k bere eskuetan artu zuanean. Baña Toniolo ez zan ekintza-gizona, jakintza-gizona baizik' Bikaiña, 1893'an asi zuan «Rivista Internazionale di Scienze Sociali». Aldizkari onen argira, ugari sortu ziran urietan Sozio-Ikasketa Batzokiak, eta iriki ziran apaiz-gaitegi batzuetan Gizartizti-Ikaskelak. Orrela pentsatu ta mami egin zan, 1894'ean, «Il Programa de Milano», «Milan'go Egitanu» izentsua.

Bi dira Egitanu aren akatsik aundienak:

—Batez ere katolikoak sozialismotik gordetzeko pentsatua izatea. Ala dager ipiñi zitzaion izenean ere: «Sozialismoari aurpegi emateko katolikoaren Egitamua».

—«Klerikalistegia» izatea' Toniolo'rengandik jasotako margoa du apaizkeri-margo au, Toniolo, Ketteler bezala, naiz gizon argia eta zintzoa izan, erdiaroaren geiegizko maitalea bait zan; katoliko guztiak, Aitasantuaren gidaritzapean Kristau-Demokrazi-Egitamu batekin, bildu zitezkeala uste zuana.

Orregaitik, Milan'go Egitarauak ez zuan balio izan ez eskubikoentzat ez ezkerrekoentzat; eta antzu gelditu zan.

Itali'ko gizartiztilari katolikoak, ia danak, eskubitarrek ziran eta integristak, liberaltasunaren arerio sutsuak; «Rerum Novarum»dik, batez ere liberaltasunaren gaitzespena jaso zuten. Bi zatitan zeuden banatuak, kristaudi guttitan bezala: Korporazio-zaleak, sindikato-zaleak. Eta azkeneko auek ere bazituzten beren hi zatiak: Felipe Meda'ren antzera Gobernuko liberal burutsuekm arrem:inctan astearcn alderdikoak ziranena, \_\_ iparraldean zuten auek batez ere indarrrik geiena—, eta Romulo Murri ta «don Sturzo» siziliarra bezala, liberalekingo arrem 17uztien etsaiena. Ots ordea: auek ere sinisten zuten sozio-azuiak politikaren bitartez bakarrik zuzendu zitezkeala. Soilki Itali'ko Gobernu liberalarekin alkarrizketan astea ez zuten ontzat artzen. Ontan, Aitasantuaren jarraille ziran.

B I... Aitasantutar auen artetik sortuko da zismatxo koxkor bat Pio X'aren aitasantutzan. Baiña zismara iritxi baiña lenago ere, Murri gogorki izan zan integristen aldetik astindua, batez ere «Civiltà Cattoliea» aldizkari iñakitarraren partetik.

Sturzo'ren eta Meda'ren aurka ere asarre zeuden eskubitarrek, biak gero eta demokrazi-zaleago agertzen ziralako. Baretu nai izan zituan asarre aiek Leon XIII'ak, bure «Graves de Communi» entziklikaren hitartez, Frantzi'ko «apaiz demokrazizalcentzat» aiña izan bait zan Itali'ko murritarrentzat idatzia, baiña, an bezala, ez zuan emen ere pakerik lortu.

Gero ta geiago ari zan Murri Elizaren Jerarkiagandik aldentzen. Ratez ere, Itali'ko Jaurlaritzza liberalarckin Elizaren Jerarkia konponketan astera zijoala iruditu zitzaion ezkeru.

Demokrazi pitxia Murri'ren demokrazia; katoliko bakarrentzako sortua; katoliko cz ziranekin deus jakin nai ez zuana. Itzez, Murri'k, Elizako Terarkiak zuzendu bear zuala, esaten zuan, katolikoen demokrazi-ekintza. Baiña XIII Leon il zalarik, X Pio bera, aurka jartzen zitziola ikusi zuanean, berealaxe aztu zitzaion ordurarte Elizako Jerarkiari izan oi zion maitasuna.

Orixe bera gertatu zitzaien bere jarrailleei etc. Ta, une antan auek «Opera dei Congressi»ren jabe hait ziran, Elizaren pakarentzat bazuten gertakizun aiek arriskurik naiko. Oartu zan X Pio Aitasantu berria; ikusi zuan eskuetatik bazi-joakiola ordurarte katolikoan at-tean ain eraspentsua izandako «Opera» ospetsu ura, eia ez zan txantxetan ib:III: urrengo urtean ezereztu hait zuan «Opera dei Congressi» oker-biurtu ura, erakunde aren orde z heste barri bat: «L'Unione Economico Sociale» izendatu zuana, Itali guzian edatzeko asmatuaz.

«Alkarte» au, gotzaien zaintzapean egongo zan zuzenean, elizbarruti ba-koitzean. Ttali osoan berriz Aulki Donea bera izango zuan zaindari nagusi.

Murri'k ordea, geiago nai izan zuan ordurarte: Jerarkia, zaindari ez ezé, zuzendari ete izatea. Ordurarte bakarrik ordea; Jerarkiagandik iare izanen

zan «Lega Democratica Nazionale» bat sartuaz erantzun bait zion orain Pio X'ari. Onek, «lega» edo «alkargo» ortan sartzea dabekatu zien apaizei, eta ia bakarrik gelditu zan Murri, baiña ez zuan bururik makurtu, ezta bere idazki batzuk eta batez ere orduan argitaratzen zuan «La Rivista di Cultura» liburu debekatuen zerredan sartuak izan ziranean ere. Rena, «a divinis» suspenditua izan zan.

Eta, Gobernu liberalarekin konponketarik nai ez zuan Murri apaiz uraxe bera, Gobernu liberalaren Parlamenturako autcskundeetara agertu zan; eta baita diputadu atera ere atera zan; baiña Aitasantuaren eskomika gaiñera jausi zitzaionean, ezkontza zibillean emazte-arturik, El <sup>1</sup>zatic at bizitu zitzaigun. Erioztakoan itzuli zan, zorionez, Elizaren altzora.

Motel jarraitu zuan Itali'n sozio-ekintza katolikoak; oso motel, eta izan zituan bere baitan Kristaudiko heste lu<sup>1</sup>raldean ikusi aal izan dizkiogun akats guztiak, eta anpatuaoak, bearbada, Itali'ra, h:ste iñun baiño: Elizjendekeria: klerikalismoa; erdiruntzkeria: zentralismoa; gurasokeria: paternalismoa; geie-gizko gogokoikeria edo espiritualismoa; Iraultz-usaia zezakean orori bildurra; Langille utsezko sindikatoei ikaro.; langillean auziak l--angillecn eskuetan utzi nai ez izatea...

Ez zan, zalantzarik gabe, Elizaren zirriku guztietatik arriskua ikusten zuan San Pio X'a «Rerum Novarum»ek irikitako bideetatik aurrera jotzeko Aitasan-turik egokiena. Esan daiteke, azi-aleak neguan lurpean bezala, lu egon zala aren aitasantutzan Elizaren sozio-ekintza.

Lo, ez illik; eta, azi aleak lez, piztuko da laister, X Pio'ren atzetik beste gizon batzuk Aulki Donera igo bezain arin, A! ta naiz Eliza Eliz bezala geldik egon, aurrera jarraitu zuten, Alemani'n, Belxika'n, Laterri Alkartuetan, eta, asko edo gutxi Kristaudi guztian, lanean ikusi ditugun katoliko-sorta bikaiñek.

Fkintza tira ez zan naikoa, I840'aren inguruan asitako, proletaricn Elizagandik iges-egitea geldiarazteko; bai ordea gutxiagotzeko. «In many countries the drift of the working classes into irréligion \vas slanned»: «Erljiogahekerira langillediaren joera moztuxca izm za a errialde askotan» (Eneye' Brit.).

Egia; «Rerum Novarum» eta aren ondorengo «Quadragesimo Anno» izan ez balira, Kristo'ren Elizatik kanpo ikusiko hait genituzke gaur, oso-osoan, Kristo'ren gizamaillako gizakumcak: langilleak, proletariak. Orregaitik, Entziklopedi berak aitortzen duanez, «The Rerum Novarum vvas a sensacional departure from traditional pones in the Church»: «Ordurarte Elizak erabillitako hideetatik irtetze (eta bide berriak erakuste) zirrargille bizkorra izan zan «Rerum Novarum».

Baiñan ez omen zuan XIII Leon'ek ori lortzerik izango, aren aurretik IX Pio'k aitasantuaren nortasuna ain scndoki Elizaren barman tinkotu ez balo!





## ESPAÑI MENDEAREN BIGARREN ERDIAN

Aurreneko Karlisten Gudua amaituta, Isabel II'a utzi dugu España'n erre-  
gin. Badira erregin au maitakerietan errex nâsi oi zan emakumea izan zala  
diotenak. Baleike, baiña ez dakigu ziur. Ez bait da erreza erregin baten izku-  
tuko bizitza ezagutzea. Dana dala, gezur aundia esan zuan Valle Inelan idazle  
bikaiñak, «la reina prostituta», «erregin urdanga» gaitzizen ipiñi zionean;  
eta ori egitean, Isabel'en ospea baiño geiago zikindu zuan berak bere burua.  
Ez dezagun aantzi Balle Inclan «carlista» zala, karlatarra, naiz sinismenik  
gabeko gizona izan!

Alderantziz, sinismen sendoko emakumea, eta Elizaren maitale benetakoa  
agertu zitzaigun beti Erregiña, batez ere Andoni Mari Claret gogo-zuzendari  
aukeratu zuan ezker. Gizon rnaratza, gaur aldareetan daukagun Katalauni'ko  
seme au; apaiz zindoa, erri landerraren maitalea, ain zuzen erri gaixo oni  
sinismenaren bideetan laguntzeko «Maria'ren Biotz Sortzez Garbiaren Seme  
Mixiolarien Anadia»ren asmatzaillea, Kuba'ko Santiago'n gotzai izana.

Espartero jeneral ezerezaren diktaturtza amaitu zanetik, saiatu zan Erre-  
giña Elizari egindako kalteak ordaintzen. Ospe aundia eta almen ederra eman  
zion Elizari 1851'ko Konkordatoaren bitartez! Zoritzarrez, pake-aro goxo  
artan, i lo artu zigun Elizak!

Zearo kontserbatzaillea eta «eskubitarra» izan zan maizenik Isabel II'aren  
Jaurlaritza liberala! Ala ziran Jaurleri aiek aukeratu zituzten gotzaiak ere.  
Ez karlistak, noski; baiña bai berrikeri zitekean ororen etsaiak: zar-gorde-  
tzailleak. Mundu berritik eun milla leguaz urruti zeudenak. Gotzaiak baiño  
kontserbatzailleagoak ziran oraindik apaizak; karlistak geienak, batez ere ipa-  
rreko eta sortaldeko probintzietan, ostera On Karlos'ek guda noiz asi zai  
zeudenak, ez bait zan aientzat karlistetaz landa kristaurik España gutzian.

Apaiz ugari zuan España'ko Elizak; 380 biztanlantzat apaiz bat 1868'an.  
Oroituko zera garai aietan Poloni'n apaiz batek 1.400 gizakume zaindu bear  
zituala. Poloni baiño askoz obeki zegoan Frantzi'n 760 elizkide ziran apaiz  
bakoitzarentzat; Olanda'n 485 Suizi'n, 477.

Iñon gutxitan izango ziran apaizak España'n bezain tradizionalistak, antzi-  
ñakeriarcn miñak joak, leenaren maitaleak; batez ere orduan, Espartero zeri-  
tzan militartzar aren diktaturtza txoro biurria jasan-berriak ziranean!

«Leena», Leen-Aro amestua, ' spañi'ko apaizdiarentzat-, Pelipe II'aren erregetza izan da beti: «la [dad de Oro] : «Urrezko Aroa»; kristaundiak gaur arte lortu aal izan duan gaillurrik garaiena , sekulan atzera berriz lortukn ez duana, (Beraicn usiez, jakiña).

Euskalerrian bertan ere, gure apaizdia , emezortzigarren mendean ain «ar-gitua» eta inbala izan llendualn apaizdi agurgarra; orain, emerctzignrrean, zearo gogoctua, fanatikeriz betea, horrokalaria , eta erdi-jantsenitarra agertzen zaigu. hz apaizetan bakarrik, Euskalerrri guzt:an nabari daiteke aldakuntza (11'I. Inuiz iñon <gizarte zabalik, gizarte ai' :rik , gizarte eraspenkoi eta II'II'Ciñik, alkarrizketa bal-eultuel-1 maitale eta gogorkeri ta indarkeriaren etsairik izan ba'da, gizartc ori emezortzigarren mendeko eusko gizartea du gu.

**Bai!:** Iarramendi Askatasunaren abesle iñakitarraren F,uskatierria. Rous-seau kristau biurtu nai izan zuan Altuna Azkoiti'ko zaldunaren Euskalerrria; eusko-jakintza Europa'ko nrtillau il: garaicnetara jaso zuan Bergara'ko Seminarioaren Euskalerrria...!

Eta izpiritua bezela lurra ere. Bai iparrctil; bai egoaldetik, mende artan onera etorrI ZIran bidazti uriztiek, «paradls'tta» deadar bait dag,tc arriturik gure lur au ikustean. Bâ..., con urte geroago aldaturik datza oro. Animetan gorrotoa, allkar aditu-eziña, alkar-aditu-n ;i-eza, alkarrizketarako gai-ez-izatea, indarkeri utsa crabiltzeko;riña, borrokarako joera, guda-naia, ndol-egarria. Eta ori dana... jaungoikotasunez igurtzia!

Ta gogoen barrunbea bezala lurra erc. «Paradis» cieltutako lur ami, «la terre plus misérable du monde», «ludiko larrik mizeablenu» deitu bait zion Frantzii; On Kaarlos'en ondoan zeukan ordezkariak, i iarispç'ko konteak. Paris'ko Tauralaritzari 1847'an idatzitako txosten batean. ;«Munduko lurrrik mixc:ibinna», munduko «paradistra» zana! Zerk ondatna? Gudateck! Napoleon'ek ekarritako endak aurrena, (TTarispc'k ain zuzen ondotxo ezagutzen zuan gudak, bertan ira'.mzi bait zuan jcreraltza, eIa geroago kondetza), eta Napoleon'en erasoaren ondorean karlatarren lenengo guduak, (gudu onen bukaerakoa bait da Tlarispç'ren txosten aipatua).

Oraindik urduritasun, matxinada, eta borroka asko jausi bear zuten gure erriaren gaiñera, azkeneko karlisten guda odoletan amaituta, pakea berriro itzuli zan arte. Ai, baiña..., nolako pakea! Leste Zarra galdurik, Lege amen alde borrokara irten ziran euskaldunak len baiño asarrcago utzi zituan pakea!

Euskalerrriko lurraren atala zakartu Ia legortu zitzaigun bezala, zekendu eta gogortu zitzaigun Lnskalerrriko gizadiaren izpiritua. Bon arte baiño Icnago, 1936'a iristerako berbiztu ta aldatu aal izan genduan lurra, baiña ez genduan izpiriturik aldatu. Ari giñan aldatzen. Baiña, orduan, T?spañi'ko militarren «Gurntzada Santua» amaitzean... ;Franko'ren diktaturtza! Zigorra oraindik ere! Eta gorrotoa , ta indarkcria! Ta, guzi orren ondorioz, E.T.A.!

Leen baiño gogorrakoa irten zaigu izurrite oietatik eusko-gogoa; alkarrizketarako gauza ez dala, indarkerira okertua, odol-isurle bortitza. Basapisti bd-

durgarri biurtu zaizkigu Euskalerriko semeak; beren artean p:ztiek bezala jokatu nai dutenak, kankaka, aria âriarekin bezala, adarka. Ain zuzen ori genezake gaurko eusko-alkarrizketaren iduririk egokiena: âri-talka.

Ez dirala euskotar guztiak orrelakoak? Ez noski danak. Ezta geienak ere. Baiñan bai kopuru ugari bat. Eta ori da borrokalaria oiek munduari eskeintzen dioten Euskalerraren irudia. Eta aski sinisturik dago mundua ori dala Euskalerraren egiazko irudia. Ta, borrokalaria rnarxitarak ez dran euskotarrak, euskotar katolikoak, ainba t zatitan puska tu ri k, alkar gorrotatuaz, alkar ezin ikusiaz dabiltzala ikuste utsa, ez al da negargarria?

Itzuli gaitezen emeretzigarren mendeko Lspañi'ra. 1868'ko Iraultzan galdu zuan Isabel II'ak agintaritza. Frantzisko Serrano, Torre'ko Dukea, Erregiñaren kuttuna izandakoak, garaitu zituan Isabel H'aren indarrak Alkolea'ko borrokaldian. «La Gloriosa RevoluciOn del 68» izen eman zioten españiarrek Iraultza ari. Bai hai t zuten gogoan, inglanderriarrek izan zutela «Iraultza Aintzakor» bat, 1688'ko «The Glorious Revolution!» ;:Nola españiarrek beerago gelditu?

Españi'ko Iraultza artako gizonak: Serrano, Prim. Amadeo I'a, Aurreneko Errepublikaren lau Lendakariak..., ez ziran gizon gaiztoak. Azkeneko lau auek baitipat maitasun berezia zioten zuzentasunari, Ala ere, egin ziran okerkeri galantak karriketari. Erre edo itxi ziran, indarrez, konbentu eta jauretze bazuk; eta apaiz klaretar bat, Crusat, aiztoz erailla izan zan.

Orduangoak dira Manterola'tar Bixente'k Madrid'ko Kongresuan, —Castelar ospetsuari egoki aurpegi emanaz—, egin zituan itzaldi bikaiñak.

Manterolak ez zion bere buruari galdetu, ezta beste elizgizonek ere, zergaitik Españi'ko erri landerrak askatasun pittin bat lortzen duan bezain laister, Elizari zuzenean erasotzen dion. Emeretzigarren mendearen asiera ezkeror maiz gertatu zaigu ori, illa gero ta geiago! Ez bide da Españi'ko erria, esan oi dan bezain guztiro katolikoa. Gotzaiak berriz, gaur-gaur arte Españi oso-osoa katolikoa dala esaten ari izan oi dira are ta geiago: munduko erririk katolikoena!

Ori egia ba'da, arrigarria benetan «erri oso-osoa katoliko» orren jokaera! Edo ta beintzat, erri orren zati aundi batek bere Elizako agintariak aspalditik etsaitzat dauzkala egia baldin ba'da, —eta orrela dala dirudi—, Jirriarena ote da errua?

Ots, ordea. Erria Elizagandik urrutiratuaz joan dala diogunean urietako jendeaz ami gera. Baserrietan eta uri kozkorretan sakonki kristau jarraitu hait zuan jendeak, naiz jende lander gaixo onen kristautasuna, Españi'ren lurralde geienetan, siniskeriz orbandurik ibilli.

Jendetza kristau ontatik inten ziran, batez ere, «Karloš VIParen» alde Bigarren Karlista-Guda'ko borrokalaria portitzak. «Batez ere», esan dogu, eta ez dakigu asmâtu dugun; Bigarren Karlista-Guda ontan, Euskalerrian heintzat,

crlijioak aiña, Lege Zarra birreskuratu-naiak bultza bait zituan gure gazteak gudara. Eta orrelako zerbait gertatu omen zan Katalauni'n eta Balentzi'n ere.

Gaztelerrian-eta, asarretuxe zehilien elizjendea Erregiñarekin, Isabel II'ak, Narvâez lenen ministroaren bitartez, Bitor Imanol II'a Itali osoko erregetzat ezagutu zuan ezker; eta karlisteetara alderatzen asia zan an ere jende katoliko-aren zati bat'

Errezegi aztutzen zuan Espâni'ko apaizdiak, Narvâez arek berak, Pio IX'ak Gaeta'ra aldegin bear izandu zuanean 8.000 gudari bidali zituala Itali'ra Aita-santua Erroma'n hirrez.artzeko; Narvâez'en esku gogorrari zor zitzaiola, Euro-pa guztia nâsi zuan 1848'ko Iraultza Espâni'ra ez iritxi izarea; eta Narvâez izan zala, Espâni'ko ikastola osoro katoliko egitearren, Castelar, Sanz del Rio, Fernando Castro, Salmerôn, Giner, eta gaiñerako irakasle ez-katolikoak irakas-kintzatik agindu baten bitartez uxatu zituana' Lz zan, noski, Raman Maria Narvâez jenerala, agintari egokien eredo. Baiñan ala izan ez ba'zan ere, ez zuan beintzat Espâni'ko Eliz integristak aren politikagintzarekin asarre ego-teko arrazoirik.

Illa zan Narvâez, —eta jausia Isabel II'a, aren agintaritza-denborako Erregiña—, «On Karlos VII'a» izkilluz jeiki zitzaigunean. Bereala jarri zan On Karlos'en aide, Iparraldeko lurraldeetan, apaizdiaren zatirik aundiena, eta zer esanik ez praille-jendea.

Amadeo I'a zan orduan Errege. Lspâni'ko Eliz-Buruzagiek, Erroma Aita-santuari ebatsi zion Bitor Imanol II'aren seme oni ez zioten beññere maita-sunik izan. Gero, 1873'an, Amadeo Saboitarrak buruntza utzi zualarik Erre-publika sortu zanean, naiko hildurgarri zan Espâni'ko Elizaren baitan «erre-publika» izena bera apaizdi eta frailledi osoa On Karlos'en aidera eramateko, naiz Lendakaria, Estanislao Figueras, arras gizon zuzena izan.

Robespierre'ren zekenkeria oroiarazten bait zien espâniar katolikoei erre-publikaren izen ber-berak! Eta badirudi, Espâni'n ere erriko jende arruntak Iraultza sortu zanetik uri bateau edo bestean egindako geiegikeriak eliztarrei arrazoi ematera zetozela: ango edo emengo eliz-kiskalketa aiek «o Don Carlos o el petr6leo» oiuka zion Bixente Manterola Gazteiz'ko Kanoniguari arrazoi ematera zetozela! «O Don Carlos o el petraleo»: «Aukera dezagun: Edo On Karlos edo eliz-kiskaltzailleen arrolioa!»

Galdua zeukaten anda karlistek 1874'aren abenduan Espâni'ko gudaroz-teak kolpe baten bitartez erregetza Alfontso XI'ari eman zion ezker, Isabel II'aren seme onen aidera hildu hait ziran, oso-oso eskubitar amorratuak ez ziran kontserbatzaille guztiak. Ala ere aurrera jarraitu zuan hi urte geiagoz gudateak, 1876'ean Euskalerriko mendietan karlatarrak errenditu ziran arte.

Urte ortan bertan kendu zizkion Espâni'k Euskalerruari Lege Zarraren azke-neko ondarrak indarkeriz baliaturik. Ain zuzen beste Karlista-Gudaren amaie-ran, aurreneko gudaren amaieran, eman zizkion gure Lege Zâr Doneari len-

dabiziko kolpeak; orduan ere indarkeriz, eta maltzurkeriz. Orrela galdu zuan Euskalerriak ain berea zuan Askatasuna.

Sortu zan, zorionez, amurru biziko une aietan gure artean, Euskalerrria karlisten indarkeri-utsezko-bidetik atera aal izan zuan gizona: Sabin Arana abandotarra. Onek erakutsi zion Euskalerrriari bere nortasuna: onek itzularazi zuan gure jendea ain euskotar ziran demokraziatzko bideetara; onek zabaldu zuan euskaldunen adimena. Eta gure apaizak ere, —egiazko apaiz euskaldunak—, ain gizon irikiak, mundu berriari so-egiteko ain gizon zabalak, eta, zapaldu guztien alde zuzentasunaren omenez zapaltzaillcen aurrean ozenki mintzatzeko ain igarle ausartiak izan ba'dira, oni , Arana Goiri'tar Sabin'eri diote zor neurri galantean, gaitasun ori gutzia.

Kristau bikain batek, eliztar zintzo batek aldatu zigun geienik euskal Elizaren itxura; baiña eliztar ori ez zan gotzai bat izan; ezta apaiz bat edo fraille bat ere; kristau sekular bat izan zan: Arana Goiri'tar Sabin.

Zoritzarrez, gure mende ontan, euskaldun asko, batzuk fatxista-moduko españarren bideetatik abiatuak, beste batzuk Marx'en anarkikeriak edo Lenin'en totalismoak eraginda, Sabin Arana'ren ideologiari uko egiñaz, Sabin'en aurreko gogorkerira itzuli dira, ori omen da bâ gaur munduaren legea. Oñaze, odol, larritasun eta kezka-arteon, Sabin'en pentsaera b\_•rbiztu dezakean baten zai datza gure Euskalerrria.

\* ★ \*

Artu dezagun ostera, Alfonso XII'aren jasoerakoan etenik utzi (legun ar+a.

Bi izan ziran une aietan Españi'ko politikalaririk trebeenak: Cînovas del Castillo kontserbatzailea, eta Sagasta liberala. Bi buruzagi auen zuzendaritzapean, txandaka eukiko dute bi Alderdiek jaurlaritzaz, aski pake gozoan, 1923'an Primo de Rivera jeneralak bere diktadurtzari asiera eman arte'

Aski pake gozoan bizi izan zan Eliza ere.

1876'eko Kostitutzioak, lege egin zuan ostera, Elizarentzat egiaz onuratsua zan 1851'ko Konkordatoa' Karlista asko, guda galdu ondorean, Alfonso XII'aren aidera etorri ziran, eta orrela tajutu zan alderdi katoliko berri bat alkarrizketarako prest zegoana. Alderdi oni ats eta indar emateko bidali zuan Leon XIII'ak Nuntzio Madrid'era Aulki Doneak zuan diplomazilaririk argiena: Rampolla, gero ain KardenaI ospetsua izanen zana.

Garai artan ospe aundia hait zuten Españi'n Agustindarrek, berealaxe asi zan praille auekin alkarrizketan Nuntzio berria, eta laister bereganatu zituan. Ez ala gaiñerako fraillejendea. Ezta iñakitarrak ere, naiz aurretik Josulagundiaren Agintari Orokorrari laguntza eskatu' Integristegiak ziran praille auek danak; eta, oraindik «Por Dios por la Patria y el Rey moriremos nosotros también» kantari On Karlos'en guda garaille baten zai jarraitzen zuten karlistekin zegoan aien biotza. Egiazko katolikotasunaren zaindari bait zan aien

listez hrege Iradirinnalista. Bai h<sup>^</sup>intzat «Xiii Leen AitAsantu erdi-sozialista» bai<sup>ño</sup> geiago. Seguruaski, badatorkizn gogora Frantzi'ko «Ralliement» zalako aren oroitza. Berdiñak hait dira aldi guztietan eia baztar danetan integristak.

I:z nion batere onik egin I,izari cz Frantzi'n ez Fs;aañi'n katoliko «santu» aien jarduerak; geroago ia geiago, etsaiei bczala so egiten bait zien erriak «luna gizona. Noiz asi cute zan, Fernando VI l'aren aurrean «gora kateak!» , «v'it'a las cachas» (sic), deadar zeian Españi'ko erri motela, iraultzalari bildurgarri biurtzen?

[gitan kristau zan erri tira \apnleon'cn nudatekoan. Ralita «kristauegia» ere, Jainkoaren izenean egin hait zuan hnrroka. A'a onartu zuan, zoriotsu, Fernando VII iguingarria, Errege a,i s i 4'e in crbestetik itzuli zanean; Fernando VII'a erriarentzat «;rrege Katoliko» hait zan.

Zortzi urte geroago, Riego aurrena eta O'I)oncll het'eala iraultzan jeiki ziranean, iraultzalari agertu zan erri i'ra, —erri auen zati galanta bat heintzat-- uni aundietan, eta zakarkeri asko la aundiak egin zituon Elizaren aurka: Erre, autsi, ostu, jo..., eta baita erail enc. Zortzi urte laburren eoca!) erri katoliko apal arek orrelako aldaketa egiteko, ,zer gerta ote zitzaigun Españi'n zortzi tuile aietan?

Ezer ez... Lita asko. i ier ez, Fernando VII'aren ,lhsolttisino gogorraren azpian ezer gertatu cz zitekalako. Askî . ahsolutismoa hora' bakarragintze zihotza, naiko crcertakari izan bait zan bera bakarrik. Eta hak arragintze zoro tira gocerregla izatea bain okerragoa dana, ;cliziende guztia «ahsolrtismoaren» eusle brntitza agertu izatea, nalbarmen!i. erri gi tiar•t.n begien aurrean!

Cuire usiez, orduan asi ziran puskatzen erri xearen eta eliziendearen arteko lokarriak, Eta <geroago ta geiago jarraituko h tit di eliziendeak absolutismoaren aldeko, geroano ta geiago agertuko da erriko jendea elizjendearen aurkako.

Orregaitik, errez itsatsi ziran aurreneko s,'zialisien eta anarkisten goigoetak, Andaluzi'n balez cire anarkistenak, be'sie iñun Muño aundiagoa hait zan au lur-jabe aiberats aundien ankanean erri lancien-tu-en zoriataitz ankerra, eta iñon baiño ni n c'arrianoa agertzen bait zan aberats aien eta eliziendeen arteko kuttunkeria. Proudhon izan zan españ'ar anarkisten igarle nagusia; eta baita Blanqui eta Raknnin ere. Sozial's•ennh berriz Fourier ami-erut. Lassalle t^ernagn. Eta ;Lcroagn oraindik, Mars.

Alderdi sozialisia 1855'an sort i tan. Be ili an dana cdestiatri () menez esana, guk ez bait diinii uste Españi'ko erriak cz sozialistei ez anarkistei, ez heste politikazko ittikumdeci jaramon aundirik egiten die•nik Españi'ko erria ez dote cot"anek erabilten; sentipehek erab i, 'n dtute. Ez d uni Uste iraultz:aldictan espñiar-erria Flizaren aurka ideolot,iak buta duanik, F,lizlko burtizagiei izan Ji\_u() i'urroteal; blizil:. Ala, enueretzearren mendeko matx nodetan; ala, 1907'-an. Alfonso XII'a Errege tala, Rat'tzelonaa'ko «Aste Odoltsuan» eta ala 193C-

ean, Hitler'en eua Mussolini'ren laguntzarekin, Españi'ko militarrek piztutako *guduaren* urte la tzet an.

Gaur, bearbada, iñoiz baiño galduagoa dugu Elizarentzat erriaren puska galanta bat; eta langilledia, ia oso-osoa. Gaur ez zaio Elizari jaramonik egiten. Eta au, zalantzarik gabe, okerragoa da noski'

Ez dira ola-langilleak bakarrik, aldendu zaizkigunak. Emeretzigarren mendearen asieratik jende buruz-landua ere Elizatik kanpora joan bait zaigu. Mendearen amaieran, lenen mailleko jakintsuen artean, Menendez Pelavo bakarrik izanen dugu katolikoa. Beste danak, oroi Raman y Cajal naparra, oroi Ortega y Gasset gaztelarra, oroi Unmuno bizkaitarra edo Baroja gipuzkoarra, Elizatik at ibilliko zaizkigu danak. Ta jakintsuen atal oni-buruz ere, galdera bera datorkigu lurraren puntara: Unamuno bezala beti kezka artean sufritzen bizi izan diran gizon bide-galdu oiena bakarrik ote da erru guztia? Ez ote Jute Elizako jakintsuak erruaren zati bat?

Izan bait dira jakintsuak Españi'ko Eliza-baitan, juan dan mendearen azkeneko erdian eta mende onen asieran! Eta baba aldizkariak ere! Aipa ditza-gun aldizkarien artean «Ciudad de Dios», 1889'an sortua, «Razón y Fe» (1901), «Estudios Franciscanos» (1907), «Ciencia Tomista» (1910)... Aldizkari auek, teologiaren arloan, beste Europa'ko aldizkari katoliko guztiak bezain onak ziran, baiña baita beste guztiak baiño integristagoak eta zar-gordetzailleagoak ere: «kontserbatzailleagoak».

Ez zuten, beraz, adimen irikiko jendarentzat balio, eta ez ziran sekular jakintsuen eskuetara iristen; are ta gutxiago, Elizatik aldundurako aldizkariak katolikoena bezain onak edo obeak ziralarik! Oroí «La Revista de Occidente».

Ikastolen arloan ere zuzpeltu zan I;lt . 1886'e an asi zitzaigun Deusto'ko Unibersitatei; 1890'e an Komillas'koa, eta 1910'eko da Erroma'ko «Colegio Español» izen duana. Unibersitate auetaz gaiñera, bereak zituan Elizak bigarren mailleko eunetan larogei ta aman ikastola: 90! la danak! Beste 10'ak ere Elizaren mende an zeuden, erlijioari-buruzko atal guztietan; eta baita Laterriaren Unibersitateak ere; eta zer esanik ez lenengo mailleko ikastolak. Elizaren zaintzapean ipiñi hait zuan Isabel II'arekin egindako Konkordatoak, leen ere ia beti Elizaren zaintzapean egon oi zan gatzediaren eziketa.

Ez ziran lo egon, ez noski, bitartean Sanz del Rio kraustarraren o.ñordekoak. Auetako batek, Giner de los Rios'ek, iriki zuan Laterriaren erakuskintza katolikoari erantzuna emateko, «La Institución Libre de Enseñanza» zeritzaion, bigarren mailako Ikastola.

Ez zan «Erakuskintzarako Erakunde lare» au Elizaren edo sinismenaren aurkako, baiña bai osoro sinismenik gabea. Ikastola bezala, Elizarenak eta Laterriarenak baiño obea izan zan, baiña Españi'ko jakintsu katoliko-ozak, geienak, ez ziran andik atera.

«Il est très important de noter que *la generación del 98* dont Miguel de Unamuno fut un des plus brillante représentants, ires caractéristique de l'évo-



lution en cours, avai<sub>t</sub> été formée presque-entièrement dans des collèges eatholiques». Arrazoi du Roger Aubert Lobaina'ko irakasleak itz oietan: «Españiaren aldakuntzan, esku bortitza izan zuten 98'ko *Belau, ralcliko* idazleek». Idazle oien «aurkezlerik egokiena berriz, Unamuno'tar Mikel da inolaz ere». Bâ, Mikel Unamuno'tarra eta beste «Belaunaldi artako idazle aiek», ez ziran Giner del Rio'ren ikastetxetik atera, ez. «Elizaren ikastoletan eziak izan ziran ia danak». (Aubert'en itzak dira).

Zertan egon ote zan, utsegiterik izan ba'zan, gure ikastetxeetako eziketa aren utsegitea? Entzun Aita Oromi edestilariaren iritzia: «Ce ne fut pas la corruption de moeurs qui poussa les jeunes intellectuels à abandonner le dogme catholique, comme on a l'habitude de le dire ici trop souvent par paresse intellectuelle ou pour simplifier l'histoire, mais une véritable indigence intellectuelle qui s'était exagérément laissée sentir dans le eatholieisme espagnol de ees derniers siècles».

Izketa ortan esaten danez, sinismena galdu zuten «gazte jakintsu aiek ez omen zituzten sinist-egi katolikoak lizunkeriak bultzata laga». «Gure artean ori maiz esaten ba'da, alperkeriak edestia al dan errezena biurtzera okertzen gaitulako esaten omen da». Baiña, gazte aiek Elizatik atereazi zituan egiazko arrazoia au omen da: «Txirotasuna». «Indigence Intellectuelle»: «Adimenak erakuskintzari eskatzen dizkion aberastasun aien txirotasuna». «Egiazko txirotasuna»: «Une véritable indigence». Eta txirotasun ori, «azkeneko mende auen luzaroan, neurriz gaindikoa izatera iritxi omen zan Españi'ko katolikotasunean»: «S'était lainé sentir EXAGÉRÉMENT»!

Iritzi berekoak dira aipatu dugun Aubert, eta Lain Entralgo. Biak jasotzen dituzte A. Oromi'ren itzak'

Badu Españi'ko Elizak zertan pentsatu Ikastola Nagusietako jendea bereganatzeko, eta proletarien konfiantza berrirabazteko. Eta ez da samurragoa, zama, guretzat, Euskalerrian.

Gure jendeak sentitzen duan gogo-txirotasun orri... mola erantzun?

## IPAR-AMERIKA'N ELIZAREN SENDOKETA

Emetzigarren mendearen erdian indartsu utzi genduan Laterri Alkartuetan Eliza, Demokraziaren pake-giroan. Eta ala jarraitu zuan, gero ta indartsuago, mende onen erdira arte. Ez du orrek esan mai bere bidea nekerik gabeko bide laua izan zanik, ez hait du iñoiz iñun Elizak nekerik gabeko biderik eta oztoporik gabeko ibilketarik izango'

Naiko oztopogari izanen zuan bere izaera bera, Laterri Alkartuetako Elizak! , ordurarte bezala gerontzean ere Eliz ura anei enda, oitura, eta izkuntz ezberdiñetako jendeen bilduma bat izango hait zan. Ikus , naspilla ura zenbaki batzuetan:

1850'ean katolikoak 1.606.000 ziran, ia denak kanpotarrak, 35.000'ra doi-doi iristen hait ziran Ameriketara bertan ja'otakoak. Ogeitamabost milla auek ez beste gaiñerako aietatik, 710.791, irlandarrak ziran; 151 .904, alemaniarak; 64.000, frantziarrak.

Eten gabe iristen ziran katoliko berriak Eliz gazte urduri aren altzora. la-ia milloi bat etorri zitzaizkion, 1840'tik 1850'era, amar urtetan. 1848'tik 1860'eera, amabi urtetan, irlandarrak bakarrik, etorri ziran 2.000.000. Amar urte gerogo, 1870'ean asita 1900'era, 3.079.000 katoliko sartu ziran Laterri Alkartuetan. 3 milloi luze auetatik, Alemaniarrak 680.000 ziran; Italiarrak, 347.000; Irlandarrak, 520.000; Austri-Ungaritarak, 412.000 Kanadatarak, 343.500; Poloniarrak, 294.000.

Ogeigarren mendean ere joan-da-joan jarraituko dute katolikoek ugari. 1900'etik 1910'era, 802.000 italiar sartu ziran USA'ra; 608.000 Poloniar; 553.000 Austri-Ungariar; 120.000 Mexikotar. Eta bereala , —Europa'ko katoliko auen etorrera eten gabe—, Antilletakoena asiko zan ugari.

Bada enda-moltso polita! Are aundiagoa Laterri Alkartuetara eun millatik gora katoliko bidali zituzten Lurraldean izenak bakarrik aipatu ditugula kontuan artzen ba'duzu. Oroi gaiñera Lurralde batekoak *bezela* aipatu oi diran jendeak askotan enda ezberdiñetakoak zirala. Ala gertatu oi zan adibidez «Turkitarrekin» , «Austri-Ungaritarrekin»...

Inmigratzaille oiek danak , jantzita zekarzten zarpa zarrak besterik ez zutela, iristen ziran lan-billa , izaeraz eta oiturez ain beste-modubatekoa ger-

tatzen zitzaizen lur artara. Gaiñera, irlandarretaz landa, ez zekiten inglanderaz mintzatzen. iBaian orduan Laterri Alkaruetako 1.1iza, munduko izkuntza guztien Pentekostc-jari,! Baiña Pentekostc-eguneko Elizan danak ulertzen zuten Aar. 11z ala Ipar Amerikakoan, aziaz eta aziaz joan bait ziran, leendik, igarotako mendearen aurreneko erdian piuturik ikusi ditugun asarreak.

Irlandarren erruz? Besteak h.tiño geiaeo ziralako, izkuntza ezagutzen zutelako, eta, berez Trlanda'ko semeak ausarditsuak diralako, irlandarrak *egin* ziran Eliz aren jabe.

Trlanda'koak ziran, jaiotzez *edo* jatorriz, Flizaren bum/agi geienak, eru, Irlandar usaia izan du beti Laterri Alkartuetako katolikotaasunaak, naiz an kaa-tolikorik hizkorrenak eta Iangillecnak ulc'nan'arrak izan. Raltimore'ko 3'garren Nazio-Konzilioan 72 gotzai bildu zitzaizkigun, eta aietatik erdia baiño geiago, 40, irlandarrak ziran, Irlandar gotzai auek, elizbyarrat'rik aundicnetan zeuden gaiñera. Era bazan clizha rrori ederrik Amcriccta aietan!

1972'garren urtean Baltimorc'koak, 3.066 kilometrotan. au da nere Aruba haiño pixkatxo bat zabalagoko lurraldean, 2.018.034 katoliko zituan; Txikago'koak, gutxi nora bera gure Bizkai'ren neurriko 2.250 kilometrotan 2.406.300; Kaliforni'ko Los Angeles'koak 1')20S kilometrotan, doi doi Nاپarroa'ren Alabaren era Gipuzkoa'ren lurraldean I .791 .932.

Luzaroan jarraituko dote irlandarrek F.liz aren buruzagi. 1071'an, atzo bertan, 9 kardenaletatik, S irlandarrek ziran!

Maiz izan zituzten iskamillak, irlandarrek eskupera tutaako ierarki arekin beste jatorrikoak ziran katoliko saillek. Alcmari: rrek aaircno. Parrokirik onenak apaiz irlandarrentza, izaren omen ziran bâ, eta, txarrenak, alemaniarrenzatz! Ori gertatzen omen zan butez ere Missouri'ko Saint Louis'en. Peter Kenrick zegoan an goigotzai, irlandar setsua, ain zuzen T Batikandar kontzilioan aitasantuaren utsezintasunaren dogma a alatorrikat\_zearea eTsairik gogorrcnetakoa izan genduana.

Asarre ziran frantzi-kanadiarrak ere Massabusetts'en, eta inguruko Laterri\_e tan, gotzaidiarekin. Ira bereail italiarrak, Yorke Berrian; ungariarrak, Ohio'n: eia poloniarrrak, Intzira Aundictako lurralde\_e tan, ez zebiltzan eozocgi bren clizba rrutietako jerarkiarekin.

Pensilbani'n dago Skraton'go elizbarrutia, Emen izan ziran gogorrenak irlandar cia poloniar apaizen arteko asarreak. Cillermo **Goigotzaiak** ez znan baretasuna sortarazrerik lorao aal\_izara, eta zismara juan ziran poloniar setatsuenak. Auen buruzgia, 1898'an izan zan O'ITara Goigotzaiak eskomikatua, baiña ez zan errenditu. Laister, naiz era zismatikoa, gotzai sagaratua izan zan, sagaratzaille Utretch'eko Goigotzai «Katoliko Zarra» zuala. Orrela jaio zan «Poloniar )endearen eliza Katoliko», «The Polish Nacional Catholic Church», gaur oraindik 282 milla kr.srau, 151 apaiz era 162 parroki hadiraan Eliz zismatikoa.

Ez zaitez arritu zisma ba<sub>t</sub> sortu izanagaitik. Aneika zisma Ameriketa aietan artaraiño<sub>ko</sub> ezberdintasunez betetako Eliz batean sortu ez izatea da arritzekoa. Meritu ori ezin ukatu zaio Eliz artako gotzaidiari, ederki gorde bait zuan jendeen ezberdintasunean Elizaren batasuna.

Alatagutziz izan zan beste zisma bat ere; errutenitarren artean au. Sortaldetiko kristauak beren oitura eta liturgiarekin jarraitzen zuten Ameriketari Errutenitarrei, 1907 'an eman zitzaizen Laterri Alkartuetan berengandiko gotzai bereizi bat; eta 1913'an, «exarkadutza» edo elizbarruti batean bilduak izan ziran danak.

Ederki joanen ziran gauzak Amerika'ko Eliz «latindarrak» ulerpen apurtxo baten faltaz okertu ez balitu. Gotzai «latindarrek» 1919'an Aulki Doneari agindu bat emanarazi zioten. Agindu ortan Laterri Alkartuetako Erruteniar Elizari ezkonduak apaiz sagaratzten, eta apaizen bitartez Konfirmazioa, Sendotza-Sakramentua, eman aal izatea galerazten zitzaion. Oso-oso gaizki artua izan zan Agindu oni errutenitarren artean, bai bata, ezkonduak apaiz egiñak izatea, eta bai bestea, apaizek Sendotzaren Sakramentua ematea, Aulki Donearen onetsiarekin Eliz arek Europa'n beti egin zituan eta orduan bertan ere egiten zituan gauzak bait ziran.

Zori <sub>t</sub>arrez apaiz sail batek ez zuan bear aiña pazientzirik edo eramankizunik izan, eta 1929'an Aitasantuaren kcrizpetik irten ziran. Apaiz aietako bat, gainera, gotzai sagaratu izan zan-eta, Eliz zismakoi berri bat sortu zitzaigun Ameriketari orrela; «Karpaziar-Errusiar Jatorrizko Eliza Katoliko Greziar Ortodoxiarra», gaur-egunean 104.600 kristau dituana.

Ez, arren, uste izan erruteniar danak Ameriketari zismara joan ziranik, geienak katoliko jarraitu zuten-eta.

562.493 dira erruteniar katoliko auek Laterri Alkartuetan, eta badituzte 8 gotzai eta 518 apaiz. Baiña mingarri da, gotzai «latindarrek» eta Aulki Doneak zabaltasun pixka bat geiago izan balute, zismara joandako aiek ere gaur katoliko jarraituko zutela gogoratzea.

Erruteniarnen ondoan badira an beste Eliz sortaldetar katoliko bi ere: Marondarrena 152.507 kristauekin, eran Melkatarrena 20.000'rekin'

Alkarrekin jatorri ezberdiñetako katolikoak muturturik ibiltze orrek, karitatearen aurka egindako obenetaz landa, ekarri zion Amerikari-Elizari beste kalte bat ere: Inmigratzailleak Ameriketara iristean aurkitzen zituzten arriskuak ikusi aal izateko, begiak lausotzea. Arrisku oietan aundiena sinismena galtzeko zori garratz mardula zan'

Inmigratzaille aiek erlijio-kulturik gabeko jendeak ziran; eguneroko ogia irabazteko bearkizun larrian aurkitzen ziran, eta ez zuten erlijio-auzietan pentsatzen asteko beta geiegirik; askotan, protestalaritzara joatea ogibidea borabiltzeko eta gizartearen gorago igotzeko laguntza zitzaizen, katolikoak Ameriketari gutxiengo bat ziralako; beren jatorrizko katolikoaren sail bat billatzea zail egiten

zitzaien maiz aski eta beste jatorrizkoren bat billatzea alperrikako gauza zuten, auen izkuntzarik ulertu ere egiten ez zuten ezkerok.

Birtartean, apaizak lanpetuegiak zebiltzan bakoitza bere endako jendeen eskubideak babesten, inmigratzaille berrien galbideetaz oartzeko. Zenbat katoliko galdu ote ziran orrela Elizarentzat?

1890'ean, Lieja'ko Batzar Katolikoan, Yorke Berritik etorritako apaiz kanadiar batek itzegin zuan. Apaiz orrek an esan zuanez, OGEITA BAT MILLOI galdu omen ziran Laterri Alkartuen askatasuna ezkerok. Zenbaki puztuegia iduritzen zaigu milloikada ori. Apaiz kanadiarrak gotzai irlandarrekin ez zirala ondoegi konpontzen ere gogoan artu bearra dugu, eta, agian, kanadiar izateak, apaiz ari, berak uste gabe, kontzientzipetik adimena n isten ziola pitin bat'

Apalagoak izan ziran beintzat zenbaki kontuetan urte ortan bertan Europa'ko Emigratzailleen Laguntzarako Erakundeen **jaunek; Leon** ari ~~bidalitako~~ informe edo txosten batean katoliko galduak AMAR milloikada izan zirala esaten bait zioten.

Aundiegi dirudi amarrekok onek ere.

Mendearen asieran, 1836'ean, Charleston'go Gotzai Jon Ireland'ek, 3.760'000 galdu zirala 1787'tik 1835'era, idatzi z' on Gregorio XVI'ari, Askotxo esatea zan ori ere. Gaiñera, Ireland'en zenbaketa ura batere zientzi-araurik gabe egindako «Liste uts ustela besterik ez zan» (Shaughnessy). Gaurko edestilariet diotenez auxe da egia: o20'tik %40'era katoliko galdu zitriizkigula Laterri Alkartuetako lurretan. Zenbaketa zeatzagorik egiteko ez digu edestiak gairik ematen.

Galerak ez ziran berdiñak izan toki guztietan; lurren batzuk katolikoagoak bait airan an besteak baiño! La airan enda edo etni guztietan ere arazoak berdiñak izan, adibidez laguntasun geiagok aurkitzen hait zuten irlandarrek beste errialde batzuetatiko inmigratzailleek baino. Gaiñera, Europa'n bertan, ez zan berdiña emigratzaille aien sorterrietako katolikotasunaren sendotasuna. Orregaitik ez gaitu arritu bear lurren batzuetako semeak, Ameriketan iristean, beste lurren batzuetakoak baiño obeki beren sinismena gorde izateak'

Danadala, katoliko asko galdu zitzaigun emigraketa artan; irurden bat bai gutxi gora bera. Askotxo, bai noski. Baiña geiagok ez galdu izatea da arritzekoa inmigratzaille aiek zer modutan iristen airan eta an zer modutan gelditzen ziran gogora ekartzen ba'dugu'

Eta samina goa dana, eten gabe jarraitzen digu Elizaren jario orrek: 1940'ean 21.403.136 airan katolikoak (Official Catholic Directory), baiña soziologiariek diotenez, bataioak eta konbertsioak kontuan artu ezkerok, katolikoak urte ortan 30.000.000 izan bear zuten. fNun gaku zitzaizkion «Gidari-Liburu Ofizialari» bere orrietan agertzen ez ziran 8 milloiterdi aiek?

Liburu berak dionez, 1972'an katolikoak 48.390.990 omen ziran, baiña

oraingoan ere, soziologiariek arrazoi berak oiñarriztat arturik askoz geiago zirala, egiaz, katoliko amerikarrak, diote' 60'ren bat milloi! Elizara urbiltzen ziranak ordea, 48 milloi *t'ardi* aiek bakarrik.

Alatagutziz, Laterri Alkartuetako Eliza iraindu baiño leenago, gogora dezagun Elizaren galerak aundiagoak izan dirala beste lurralde askotan, eta Laterri Alkartuetako Elizak, katolikotzat, parrokiekin artuemanak dituzten aiek bakarrik zenbatzen dituala. Orrela jokatuko bagiña gu, zenbat izango lirake gure errietan katolikoak?

Alataere, emeretzigarren mendean enda bereizietako katolikoaren artean karitate eta zuzentasun geiago izan balitz, oarkuntza geiago ipiñiko hait zuan Elizak etorri berrien arriskueta..., orduan, apika, gutxiago izanen ziran Elizaren seine galduak.

\* \* \*

Puntu au amaitzeko esan dezagun Amerika'ko Eliz ezberdiñaren altzoko etnien urduritasunen berri, Europa'ra ere iritxi zala; Laterri Alkartuetako Lendakaria, Benjamin Harrison bera larr tuarazteraiño gaiñera! Bildur zan nunbait: Amerika'k bere izen ona galduko ote zualaren bildur, 1891'ean Baltimore'ko Gibbons Kardenalarekin alkarrizketa batean orrelako arriskurik ez zegoala jakin zuanean lasaitu zan.

Ez. Ez zan sekulan ortaraiñoako arriskurik izan' Ezta Eliza Katolikoaren batasuna zatitzekorik ere. Bat jarraitu zuan onek eta bat dakusgu gaur ere. Lortu zuan ori gotzaidi oparo arek eta eskerrik onena merezi du lorkuntza orregaitik.

¿Nolakoak ziran gotzai aiek? Bâ", salbuespen guztiekin, Artzai bezala, Europa'koak baino obeak noski; adimenez zabalagoak; baita zabalegiak ere, Erroma'ren iritiz. Aia ere artzai baiño geiago ziran «administratzaille» yavoak; izan ere, ia gaur-gaur arte, ori izan bait da, administraketarako gaiontasuna alegia, parroko edo gotzai egiterakoan elizgizon bati Ameriketa aietan eskatzen zitzaion doairik leenena.

Doai bereizi ori gotzai guztiek eta batez ere parroketako apaiz buruzagiek naroki bazutelako sortu zitzaizkigun an ainbeste ikastola, ainbeste apaizgaitegi, jauretxe, eta parroki, ainbeste erakunde. Beste kontu bat da eraiketa oiek era antetsuan, era egokian, egiñak izan ziran igartzea'

Jauretxeak, beintzat, ederti-arloan geiegizko baliorik gabeak irten zitzaizkigun; «neo-gotiko» edo «gotik-era berriaren» araura tajukuak. Ez da, ez, ori, amerikar katoliko bakarren akatsa, oztopo-arri ber-berean jausi bait ziran an protestalariak, eta jausi bai giñan emen katolikook. Oroi Donosti'ko «Artzai Onaren» Jauretzea edo Gasteiz'ko Katedral Berria'

Seminarioak, geiegi izan ziran, Beti izan oi dute gotzaiek bakoitzak bere seminariotxoa izateko kutizi eskarga, neurrigabea. Arrazoi asko ipiñi oi di-

tuzte kutizi ori zurikatzeko, baiña egiazko arrazoia gotzaien kontzientzipeko leze-txuloan dago. Neskatil batentzat txakurtxo bat dana bera da gotzai batentzat seminarioa: edergarri pitxia, inportantzi-ernaille pinpiriña. Eta gotzaiak eta neskatillak gizakume izaki! Gizaseme-gizaalabak!!

Laterri Alkartuetako apaizgaitegietan erakuskintzak ez zuan bear aiñako goitasunik, Ipar Ameriketean irakasle egokiak izan zitezkean elizgizonak oso-oso gutxi ziran' Ameriketa gazte artan goi-ikasketari ardura gutxi ematen zitzaien bâ; katolikoan artean, bereiziki; Ameriketako katolikoak jende xume landerrak hait ziran, eta aruntz joaten ziran apaizak ere ez bait ziran buruz landuenekoak izaten. Naiko lan zuan gaiñera Eliz arek bizitzen jarraitze utsarekin, eta bere elizkide arlote aiek bere altzoan gordetze soillarekin' Ortik, «Unibersitate Katolikoak» bizitzara ernetzeko aurkitu zituan eragozpenak'

Elizgizon jakintsu guztiak bateratuaz, osa zitekean noski Sernanario bikain bat. Baiña'..!

Unibersitate Katoliko baten aipua, 1884'ean egin zan, gotzaiak Baltimore'n Batzar Orokorrean bildurik zeudela. Illinois'en dagon Peoria'ko Gotzai Jon Spalding'ek jaurti zuan an Unibersitate katoliko bat eraikitzeo gogoeta' Bai omen zituan, ortarako katoliko aberats batek emanak , 300.000 dolar. Dirutza aundia garai artarako' Baiña Batzar artan zeuden gotzaiak doi-doi zekiten Unibersitate bat zer zan, ez bait ziran berak sekulan unibersitate baten atarrietatik igaro. Ameriketako Eliz lander arek gaiñera ezertarako zezakean Unibersitate bat? Orduan Minnesota'ko St. Paul'eko Goigotzai zan Jon Ireland bakarrik atera zan unibersitategintza aren alde, baiña Ireland'en izenak gaitz geiago egin zion on baiño Peoria'ko Gotzaiaren asmoari.

Ipar Ameriketean alemaniarrek ziran goi mailleko ikasketak onartzeko eta aurrera irtenerazteko egokien prestaturik zeuden katolikoak. Ireland ordea irlandarra zan; eta, ori ikustean, alemaniarrek irlandarkeriari bildur izan zioten; eta muzin egin zioten Unibersitate-eraikitzeo asmoari. Oker zebiltzan; Ireland, irlandarra baiño askoz geiago bait zan amerikarra, inmigratzaille guztiak len-bait-len amerikar biurtuaraztearen alderdikoa; agian, «amerikartze» ontan, bere Aberri berriari zion maitasunak bein edo bein neurritik pasaraazi ere zuana'

Beste gotzaiak bekaizkeritxoaren antzeko zerbait ere bazioten bearbada, goigotzai minnesotatarriari. Ain bait zan Ireland'dar Jon, gizon oldartsua, portitza, zaratatsu-xamarra, tolesgahea, konplejurik gabeal

Agertu zitzaizkion laister unibersitate oraindik-jaiogabeari beste arerio batzuk ere: Iñakitarrak. Ordurarte auek izan ziran Laterri Alkartuetan erakusketa dotore apain guztiaren nagusiak, eta monopolio ori galduko ote zutelako bildurra sentitzen zuten orain. Bekaizkeria! Loiola'koak ikusi balitu'..!

Alatagutziz, atera aal izan zuten argira beren asmoa Spalding'ek eta onen adiskide diruemailllek..., eta Ireland'ek!

1889'an iriki zan «The Catholie University of Ameriea»' Ez zan beste munduko gauza: doi-doi, apaizgai bakarrentzako Seminario bat baiño geiago. Lenen Ludi-Gudua amaitu-ondorean artu zuan Unibertitate baten itxura, baiña, ez orduan, ez gero, ez zion kristau-jakintzari dizdira geiegikorik eman, kontserbatzaille zimurra izan bait zan beti. Jon Ireland'engandik artu zuan izena, baiña ez zuan goigotzai aundi aren izpiritua bereganatu.

Geroago, ia gure egunetan ugarituko dira Laterri Alkartuetan Eliza'ren Unibersitateak, eta zabalduko da aien pentsaera. Eta, baita, batzuetan, geiegi ere zabalduko da unibersitate oietako irakasleena!

\* \* \*

Ipar Amerika'ko gotzaidiaren ardurarik aundiena, umeen ikastolentzako izan zan' Bere ikastolak gura zituan Elizak bere umeentzako. Egia da ori egitean egheto» itxura geiago ematen ziola oraindik katolikotasunari, baiña Laterri-ikastolak protestalarien Erljio-Abesti-Liburuak erabiltzen zituala ere kontuan artu bear dugun gauza da, Elizaren jokaera epaitu baiño len. Laterri-Ikastola aien gogo-zuzendaritza gaiñera, «Nativists» edo «Jatorritasun-Zaleen» eskuetan zegoan, eta badakigu noraiño ziran buruz itxiak «Nativists» protestalari aiek.

Korapillorik aundiena, Elizarentzat, ekonomi korapilloa zan. Katolikoek bi aldiz ordaintzen zuten beren umeen eziketa: bat, beste laterkideek bezala Laterriari-zergak ordaintzerakoan, eta, bestea, beren umeen ikaskuntza bereiziki parrokkiko ikastolari ordaintzerakoan, ez bait zuten ikastola auek laterriaren-gandik sosik ere jasotzen.

Zuzentasunaren aurkakoa zan ori bete-betea, eta baita katolikoek patrikaren posibilitateen aurkakoa ere, dakigun bezala, txit diruz motzak hait ziran katoliko aiek. Luzaroan lagundu bear izan zioten Europa'ko Eliz zaarrek Ameriketako Eliz berriari diruz'

Ireland goigotzaiak asmatu zuan 1890'ean korapillo ura askatzeko modua: Elizaren ikastolak Laterriaren ikastola-sarean sartzea. Laterriak ordainduko zituan gastu guztiak, beste laterkideei bezala katolikoek ere erakuskintza-zerga kobratzen zien ezkerero. Erakuskintzarako, Laterriaren egitamuak, programak, erabilliko ziran. Erljio-erakusketa, eskola-orduen ondorean egiñen zan.

Ederra zan benetan Ireland'en proiektua. Laterri-ikastola biurtzen zituan Ireland'ek Elizaren ikastolak' Laterri-ikastolak protestalari-kutsua zuten, baiñan protestalari-kutsu ori kentzea ez zan zaillegia gertatuko agintariekin trantuan asi ezkerero. Baiña...! Ireland izaki ordea egitarau aren gurasoa!

Aurka irten ziran, Unibersitategintzakoan bezala, alemaniarrek, iñakitarrak, eta baita, beren isiltasunean, gotzaiak ere' Iñakitarrak, erakuskintzan zuten nagusitasuna galtzea sentitzen zuten. Alemaniarren izenean, Yorke Berriko Goigotzai Corrigan integrastak itzegin zuan' Gotzaiak..., Ireland'en ospe ta itzal



aundiak kezkatzen zituan' Ala ete aren aide irten zan Baltimore'ko Goigotzai Gibbons Kardenai agurgarria.

Ez dazekezu igarri zenbateraiñoko zalaparata atera zuan ikastolen auzi onek Amerika'ko izparringietan, bai katolikoan artean, bai protestalarien artean ere, azkeneko auen sail biurriak eten gabe aritu bait zitzaizkigun an Bigarren-Luri-Gudura arte katolikotasunaren aurka.

Ezagunak ditugu «Natibistak»; Aien atzetik sortu zan katolikotasuna de-  
sgitcko asmoarekin «Know Nothing» edo «Deus Jakin Nai ez Dutenen»  
bazkuna, eta geroxeago APA «American Protective Association» edo «Amerika  
Babesteko Bazkuna». 1920'ean Ku-Klux-Klan iguingarria bera igitu zan kato-  
likotasunaren aurka, eta 1947'an osatu zitzaigun beste Bazkun zipotz bat  
POAU izenekoa: «Protestants and Other Americans United for Separation of  
Chureh and State»; euskeraz: «Elizaren eta Laterriaren bereizketa lortu nai  
dugun Ostelari eta Gaiñerako Amerikarren Alkartea».

\* \* \*

Ez ditzagun ala ete gauzak neurritik atera. Ostelari berritzu gogo-muin  
legorreko oiek beti izan dira an gutxiengo bat, minori bat. Baiña! , baiña...!  
Eliza katolikoa ere beti izan da amerikarrentzat amerikarra ez dan gauza; zer-  
bait erbestekoa; atzerritarra. Amerika'ko umeek ostelaritza, protestalaritza,  
euki dute beti Ameriketako gogo-giro jatortzat. Jon Kennedy Lendakari aut-  
tua izatean galdu zuan Eliza Katolikoak atzerritzar-usai guztia. Orduantxe  
jantzi zan, betirako, anierikartasunaz.

Ireland goigotzaiaren denboran, Laterriaren Ikastolak Elizaren menpeta-  
sunera eramán nai zituála poliki-poliki, jaurti zioten ari orduango ostelari  
borrokalariek. Katoliko geienak ete aren aurka bait zegiten oiú, Erroma'raino  
iritxi za iskamil aren otsa' Leon XIII'ak, ordea, iritzi on aundian euki bait  
zuan beti Gibbons Kardenai azkarra, au Ireland'en aide zegoala ikustean ikerle  
bat bidali zuan Laterri Alkartuetara an arazoa personalki aztertu aal zezan.  
Ireland'i eman zion arrazoia Aitasantuaren Bidaliak. Ez zion beintzat arrazoit-  
tik kendu. «Nihil obstab», izan zan aren epai-itza. «Ez dago zergaitik eragoz-  
penik ipiñi» . Ala ere, ainbeste areriores artean, ez zan aurrera atera Ireland'en  
egitaraua.

Izugarritzko lana egin du Laterri Alkartuetako Elizak erakuskintzaren ar-  
loan. Ikus zenbaki batzuk: 1970'garren urtean, 10.927 lenen mailleko ikastola  
zituan; bigarren maillekoak, 2.341; apaizgaitegi eta praillegaitegiak, 575; eta  
303 unibersitate. Ez zan iñun munduan erakuskintzarako orrelako enpresarik,  
Laterriak berak izan ezik. 6.150.035 ikasle ezitzen ziran Elizaren ikastetxe  
aietan. ¡Sei milloitik gorá! Bada gudarozte bikaiña' Ederra benetan.

Baiña ekintza miragarri aren aunditasuna «zenbakietan geiago zegoan era-  
kuskintzaren bikaintasunean baiño» (T. Ellis)' iZenbat aldiz aipatu dira Bro-

gan'ek 1941'ko bere «USA.-An Outline of the Country», «LL' AA.-Lurralde onen Marrazki Bat» izeneko liburuan idatzi zituan itz illun auek: «Ez da iñon katolikotasunaren jakintza-ospea (the prestige intellectual of the catholicism) Amerika onetan bezain beera jausi. Ta emen izan da ain zuzen jausketa ori: emen, aberastasunean, organiazaketarako trebetasunean, eta mota oroko erakundeen (institutions) ugaritasunean, Eliza ain oparoa eta indartsua agertzen zaigun Lurralde ontantxe!»

Utsegite orren mamia argitzearren, eman oi dira majiña bat arrazoi:

«Amerikar guztiak ekintza gizonak geiago izan dirala jakintza-gizonak baiño». Ez da naiko arrazoia, Elizako unibersitateak ez bait ziran sekulan Laterriaren unibersitateen maillara iritxi, naiz auetako irakasleak ere, amerikatar lez, bereiziki «ekintza-gizonak» izan. John Kennedy bera Laterriaren ikastoletan aurrena eta gero Harvard'eko Unibersitatean, Ameriketako unibersitaterik onenean, ikasia zan, Ez omen zan bestela «Laterri Alkartuetako Lendakari izatera iritxiko» (J. T. Ellis).

«Inmigratzaille katolikoak diruz bezain txiroak zirala jakituriz». Au egia da. Ez bait zuten jakintsuek emigratzen, analfabetuek baizik.

«Gotzaiak kulturari zioten maitasun urria!» Egia da au ere' Gotzaiak apaizetatik irtetzen dira, eta Ameriketara emigratzen zuten apaizak ez ziran unibersitateetako irakasleak edo zientzi-gizonak izaten, baizik-eta mixiolariak' Ekintza-gizonak, ez pentsalariak. Bai beintzat mentalitatez, naiz, gotzai aietatik bat baiño geiago Unibersitean egonak izan.

—«Elizak bear aiña d'Irurik ez izatea, eta zituan txanponak, ater gabe iritxi eta iritxi ari ziran inmigratzaillei laguntzen gastatu bear izatea»' Egia.

—«Irakasle yayo gutxi eta ikastetxe geiegi izatea». Ainbeste seminario!, ainbeste unibersitate! Amerikatarra, ordea, zenbaki aundien maitale izaki...

Batez ere onako azkeneko arrazoi au iruditzen zaigu pixu aundikoa: «Ameriketako Elizak bere ikastoletako erakuskintzari elburu motzegia ipintzen ziola»: soilki ikasleen sinismenaren babesle izatea' Ortaz gaiñera, bizitzan ibiltzeko bearrezkoak zituzten gaiak gazteei erakustea. Jakintzen azterketarako ikasleak ezitzea eta prestatzea, erakuskintza aren arauetatik eta asmoetatik zearo kanpora zegoan.

Ez da, beraz, arritzekoa katolikoek izenak Ameriketa aietako kulturaren edestian ain gutxitan agertzea. Amar izen geienaz; eta, amar oietatik, lauek bakarrik egin zituzten beren ikasketak Elizaren ikastoletan eta lau auetatik ere ez danek ikasketa guztiak. Mingarria benetan. Mingarriagoa oraindik Elizatik irten zitzaizkigun jakintsuen oroitza: Fitzgerald, Farrell, eta O'Hara eleberridazleak, nobelistak; adibidez.

Ez dezagun alatagutziz itxaropenik galdu. Gaitzei aurrez-aurre begiratzea omen da sendagaiak billatzeko biderik egokiena. Bâ..., beste iñon ez bezala ari da Ameriketean Eliza bere gaitzei bildurrik gabe so-egiten azkeneko aldi auetan' Ez dezagun aztu gaiñera, bere akats guztiekin, orrenbeste urtetan ain-

beste gazte ezitzea lortu aal izateak duan meritua, eta eskertu dezagun bear bezala Amerika'ko Eliza.

iAinbeste arazo ezberdiñen artean erabilli bear izan zuan gaiñera Eliz arek, erakuskintzaren problema au! Eta nolako arazoak, aiek! Urtero-urteroko eta egunero-eguneroako inmigratzaileen txirotasunaren arazoa; ainbeste enda bereiziz eta izkera ezberdiñez osatutako Elizaren Batasuna gordetzeko arazoa; ola-langille katoliko borrokalarien gidaritzaren arazoa; eta beltzen arazo beltza...!!!

Aztertu dezagun, orain, azkeneko au.

\* \* \*

Elizak Eliz bezala ez zuan jopu beltzen auzian parterik artu' Gotzaiak, apaizak, eta sekularrak, ez ziran danak, auzi orri-buruz, aburu berekoak. Ori bera gertatzen zan protestalarien artean ere'

Jatorrizko amerikar katolikoak, —emezortzigarren mendean Ameriketara iritxi ziran sendi katolikocn oiñordekoak— aipatu ditugun ogeitamabost millatxo aiek, Pentsilbani'n, Marilanda'n, edo Birjini'n bizi ziran, Marilanda'n geienak, eia asko tabako-soro zabalen nagusi ziralarik, kezkarik gabe erabilli oi zituzten lanerako jopu beltzak. Jon Carroll Baltimore'ko lenen gotzai bikaiñaren sendiak ere bazituan jopuak, eia apika, baita Carroll'ek berak ere, ain bait zegoan orduan oitura ori sartua! Eta ez dezagun bazterrera jaurti orduango gertakiunak epatzeko orduango mentalitatea artu bear dugula.

Esan dezagun gaiñera ederki portatu oi zirala geienean katoliko aiek jopuekin. Beste Laterrietan baiño askoz geiago izaten ziran an, Marilanda'n, askatasuna lortzen zutenak, eta askatasunera iristen ez ziranak ere beste iñon baiño obeki bizi ziran an. Marilanda zan jopu beltzen paradisua.

Oituriztilariek, moralistek, beraiek ere ez zuten illunkeri artan argi ikusi aal izaterik lortzen. Auetako batek, *gero* Baltimore'ko Goigotzai izanen zan Kenrick'ctar hrantzisko'k, 1841'ean argitaratu zuan «Theologia Moralis» izeneko liburu bat. Liburu artakoak dira onako gogakizun auek:

Askatasuna da gure denboretako lorkintzarik aundiena. Askatasun-arogan ez luke esklabutza'rik izan bear, baiña bada. Jopu oien kultura obcagotzearen aurka, eta, zer esanik ez, jopu oiek kristauki bizi aal izateari eragozpenak ipintzeko ematen diran lege guztiak lege gaiztoak dira. Onuragarria da jopuen zona ontzeko egiten dan guztia' «Baiña gauzak guk nai bezelakoak ez baiña, berak diran bezelakoak diralako, ez da esklabutza ontzat artzen duan legearen aurka ezer egin bear; askoz gutxiago oraindik uztarria gogo txarrez eramatera jopuak bultza lezazkean ezertxorik esan; edo egin». Bere aldiaren seme zan moralista au ere'

Amarren bat urte geroago, 1858'an, Baltimore'ko Goigotzai zala, Erroma'ra bidalita zeukan apaizgai beltz batek, ikasketak bukatu zituala jakiñarazi

zion Berealaxe idatzi zion goigotzaiak Propaganda Fide'ko Barnabé Kardenal lendakariari, —Propaganda Fide'ren menpean bait zegoan oraindik Ipar Amerika—, apaiz beltz ura ez, arren, Ipar Amerika'ra destinatzeko; ez omen zuan bâ inork an onartuko. «Mingarria benetan, baiña sentimentu auek desegin nai izatea alperrikako ekintza litzake. Ain sarturik hait daude gure jendearen biotzetan», zion gotzai moralistak'

1850'eko estadistikan Beltzak iru milloierdi ziran. Zuriak, amasei milloi t'erdí' Beltzei askatasuna eman edo ez eman erabakitzeko, ez dira arrezkero naikoak izketak eta idazketak; gudara doaz Laterri Alkartuak, Eizak, ofizialki, auzian parterik artu gabe jarraitzen du. Ona zer zioten 1858'an, gudaren bezperan ia, Baltimore'ko Eliz-Probiutziko gotzaiak: «iareak dira kristau sekularrak, Yosukristo'ren dotriñaren eta legearen mugen barruan, politikari eta gizarte-bizimoduari dagozkion gaitan beren aburua eratzeko. Orregaitik ez dira gure apaizak auzi ontan kristauen pentsaeraren moldaketan sartu».

Esklabutzaren auzia Yosukristo'ren dotriñaren mugetatik kanpora ote zegoan? Bai adibidez Charleston'go Gotzai Lyneh jaunarentzat; 1861'ean guda asi zanean Egoko esklabutza-zaleen alde ipiñi bait zan. Baita geroxeago Baltimore'ko Goigotzai zan Martin Spalding'entzat ere, egotarren alde idatzi hait zuan onek Aulki Donera. Baltimore'n Goigotzai onen aurrekoa, Frantzisko Kenrieh Goigotzai moralista, gudua asi ta laister il zana, ipartarren aldekoa izan zala dirudi, eta ipartarren aldekoa izan zan agiri-agirian Yorke Berriko Hughes Goigotzaiak'

Alde bietan ibilli ziran katolikoak borrokan! Alde bietan apaizak kapillau bezala; bi aldetan lekaiameak karitate ekintzetan. Munduan izan diran sarraskirik aundienetakoak izan ziran guda artako borrokak. 1865'eko jorraitaren 14'ean amaitu zan guda, Grant ipartarrak Lee egotarra menderatu ondorean. Urrengo egunean izan zan tiroz erailla heltzei askatasuna ekarri zien Lincoln Lendakaria; gizon aundia, bai gorputzez eta bai gogoz; benetan onuragarria. Berea izan zan esklabutza deusezteko azkena ixuritako odola. Iare ziran beltzak. Irabazi zuten legeagandiko askatasuna; ez ordea zurien maitasuna.

Bazan uraxe garai egoki-egokia, askatasuna lortuberri-ondorean noruntz jo ez zekitela zebiltzan beltz aiek danak katolikotasunera erakartzeko! Aski zuan ortarako Elizak aietaz ardura pittin bat erakustea. «Lau milloi gizagaixo gure karitateari deika dauzkagu», zion 1866'ean Me Closkev Yorke Berriko Goigotzaiak, Baltimore'n II Nazio-Kontzilio Orokorrean bildurik zeuden gotzaien aurrean. «Isilla da gizagaixo oien deia, baiña inolako antsiz eta indarrez bete! ¡A nolako urrezko oportunitatea Elizarentzat uzta naro bat biltzeko! Gaurko adiontasun au galtzen ba'dugu, ez zaigu sekulan beste orrelako bat azalduko».

Gizagaixo aiek..., beltzak ziran ordea.! Eta, urte batzuk lénago katoliko zuriak apaiz beltz bat Elizaren altzoan onartzeko gerturik ez ba'zeuden, askoz gutxiago zeuden orain, atzo arte esklabu izandako beltz iguingarri batzuk senidetzat artzeko. ¡Beltzak! ¡Margo zikiña zan beltza!

Bizirik dirau oraindik umerikar katolikoan artean beltzenganako sentimental txarrak. Ontan, katolikoak, gaiñerako amerikarrak bezelakotxeak izan dira, eta katolikoan artean okerrenak, irlandarrak, ain zuzen Europa'n aurrena, eta Ameriketako gero, luzaroan ain arbuatuak eta oker ikusiak izan d'ran irlandarrak.

1866'ean ez zuan }izai: «urrezko oportunitate» ura aintzat artu, eta iragarle irten zan Mc Closkev vorkeberritarra: ez zain gero sekulan Elizari beste oportunitate bat aurkeztu. Beltzak beren Elizak osatu zituzten orduan, haptisten *edo* metodisten sinispidean ta danak. Gan t' ere protestalari jarraitzen dute Ipar Amerika'ko Beltzak. 25.500.000 ziran 1972'an; katolikoak, —katoliko beltzak—, ez ziran milloi butera iristen.

Irlandarrak izan zirala katolikuen artean beltzen areriorik gogorrenak, esan dugu. Baiña irlandarren artean gizon zuzenak izan zirala aitortu bear dugu, no :z banakak izan. Ala, aitzintxe aipatu dugun Mc Closkev, eta O'Roile \X1as-bington'eko Kardenala, eta, nola ez, ain ezaguna dugun Ireland Goigotzaia.

Ona zer idatzi zuan onek 1891'an: «Badira 28 urte Lincoln'ek beltzei askatasuna eman ziela, baiña zuriek ez dizkiete oraindik askatasunak berekin daramazkian eskubideak eman: Gizakume orok berezkoak dituan eskubideak. Gizakume zuriarentzako eskatzen ditudan gauzak berak eskatzen ditut gizakume beltzarentzat, Soilki, margoen esia nui nuke ezereztu. Non licet! : Ez da zillegi! Esi ori zuzentasun ororen aurkakoa da. Esi ori gordetzea gudateari bizirik jarraiaraztea da».

Goigotzai au izan zan bere St Paul'eko elizbarrutiko ikastoletan Beltzak Zurien artean artu zituana. Berroueitamasei urte roago, 1947'an egingo du ori bera Missouri'ko St Lou' s'en Ritter Goigotzaiak, eta urteak igaro bearko dote oraindik Laterri Alkartuetako jaurlaritzak ere bere ikastoletan Ireland'en araua 1954'ean luge egin baiño lenago.

«Noizean beingo» gizon bikaiña, «figure exeptionelle», (j. Ellis), Jon Ireland Goigotzaia!, baiña bere alboan, ibai mingarria beste gaiñerako gotzai geienen oarmenaren falta! 1879'an idatzi zion 20 urte Mississippi'n Natehez'ko gotzai izandako Eider Jaunak Baltimore'ko Goigoizai Gibbons Kardenalari orain ikusiko duzun kezka-oiu au. Biak ziran elizgizon bikain-bikaiñak. «Badut kontzientzian arra, ---esaten zion Mississipitarrak—, badut beltzen alde deus egin ezaren danma; banituan asmo onak, baiña, seguruaski, asmo oiek gurarkeri ustel utsa besterik ez ziran, ez hait ziran beñere egiazko naipen sendo biurtu, eia ekintzetan mamitu».

Axolagabekeri oni izan da Ipar Ameriketako Elizaren obenik aundienetako; apa.z batzuk eta lekaime batzuk egiaz egin duten lanak estali ez dezakeana. «Sug\*taren burua, bai; sugearen buma il zan: zapaldu bait zuan Lincoln'en «hur.t ori». --zion Ireland goigotzaiak—, baiña suge aren buztana bizirik dabil ora'nd:k, zilipurdika, gure artean». Lla egia zion. 1966'ean Txikago'n beltzen aurkako nardakeririk aundienak, katolikoan auzoetan egin aran: Benvvn'en eta Cicero'n'

Protestalariek guk bezain oker jokatu dutela esan aal izatea ez daiteke guretzako pozgaillu bat izan. Are-ta-gutxiago beltzen aldeko ekintza mardula katoliko batek ez baiña «Luter» batek sortarazi duala pentsatzen ba'dugu: Martin Luter King martiri agurgarriak.

Beltzak baiño ardura geiago jaso zuten inditarrak katolikoan aldetik. betidanik izan hait zituzten auk mixiolariak. 1972'an, 792.730 ziran Laterri Alkartuetako inditarrak auetatik 146.980, katolikoak; bostetik bat.

Beltzen problema ez zuten Amerika'ko gotzaiek ikusi. Gauza arrigarria? Bai, baiña edozein moduz ere, gore arteko ijituekin guri gertatu zaigun cita oraindik ere gertatzen zaigunaren antzekoa.

Zorionez zurgurkiago ibilli ziran Laterri Alkartuetan iroletaritzaren altzoan been-beeneko mailleko katolikoak: inmigratzaille zarpatzuak. Langillediaren igikundeetan asieratik egon ziran sartuak. Pentsilbani'ko meatzetan 1860'ean sortutako «Molly Maguires» izeneko alkarte ala-alakoctan ugari ziran irlandar katolikoak, eta 1870'ean alkarte oiek sortutako indarkerizko lan-uzte baten ondorean 20 meatzari eriotzez zigortuak izan ziranean, eraillak, geienak, katolikoak ziran. Ori ez dute sekulan gure marxistarrck aipatu ere egiten.

Langillediaren itxarkundearen asieran, Elizak, beltzen arazoan bezela, eztabaidan sartu gabe egon nai izan zuan, Alperrik; etorri eta etorri ari ziran inmigratzailleek laister eman hait zioten proletari-margoa an Kristo'ren artalde guztiari. Naitanaiezkoa izan zuten Artzaiek igikundeetan sartu bearra, Eta gizonki, kristauki era zurgurki jokatu zuten. Iru gotzai izan ziran ekintza, ontan, batez ere ont ragarriak: betiko Treland, Minnesota'ko St Paul'ekoa; Keane, Birjini'ko Richmond'ukoa; eta Gibbons, Marilanda'ko Baltimore'koa.

Leendik ezagunak ditugu «Langintzako Zaldunak», «The Knights of Labor». Badakigu gotzaidiaren zati bat aien aurka jarri zala, «Zaldun» aien alkarte «izkutuzko» eta «sillezko alkarte» bat naiaren aitzekiarekin. Naitanaiez bear zuten isillezkoak eta izkutuzkoak izan, bestela, legedi liberalaren arauera bizi tan lurralde batean herealaxe izango bait ziran ezereztuak, Aipatutako iru gotzaien babesketa indarsuak salbatu zituan orduan.

Baiña geroxeago, Kanada'ko gotzaidiak «The Knights of Labor» aiek galerazi zituanean, Aulki Donea ere prestatu zan berak ere Langintzako Zaldun ulerkaitz aiek gaitzesteko. Oraingoan Gibbons Kardenalaren ausardiak gorde zituan gaitzcspentik, Ireland'en eskariei erantzunaz, trebe idatzi bait tien Baltimore'ko Kardenal onek Erroma'ko Kardeneiei, «Zaldunen» goratzarrea egiñaz, «Zan leikean zoritxarrik aundicoa ela Elizarentzat orria galtzea; aberats guztien adiskidetasunak ordaindu ez dezakean kaltea», zion Gibbons maitagarriak.

Langilledi katolikoaren bizia eta bizkortasuna baiño zerbaite geiago ere salbatu zutela orduan Gibbons Kardenalak eta bere lagunak, dio Ameriketako

edestilaririk onenetako batek. Katolikoek Ipar Amerika artako langille-igikunde-  
dean izan duten itzal eta esku aundiari zor omen zaio bit, an anarkistak eta  
marxistek jarraillarik aurkitu ez izatea, eta baita Laterri Alkartuetan «Labor  
Party» edo «Langille-Alderli» bat jaio ez izatea ere, naikoa etsitzen omen  
dute bei lengilleek beren «Labor Unions» edo «Langille-Alkarte» izeneko sindi-  
katoen zurgurtasuna, ;ta kernena! , beren eskubideak politikaren arloan ere  
babestu aal izateko. JLi... zurgurtasun ori eta kmmen eta bizkortasun oiek  
langille-buruzagi katolikoei zor omen dizkiete Ipar Amerika'ko sindikatoek.

Ekintzaren maillan ederki jokatu zuan, beraz, Eliza katolikoak; sindikatoei  
eman zien babespeaz landa, zenbatu ezin aña izan bait ziran karitategintzarako  
osatu zituan mota guztietako erakundeak.

\* \* \*

Oldozkeraren maillan, Edorta Me Glnn'en inguruan sortu zitzaigun ar-  
dailla clugu gertakizunik aipagarriena. Me Glnn apaiza zan , Yorke Berri'an  
parrokirik garrantzitsuenan parrokoa. Enrike George'ren adiskidea ere bazan.  
Ondo ezaguna da gizaritiztilarien artean George, sozialista ez-marxitarra.

George'k lurraren jabetasuna Laterriari ematen zion; lur guztiarena. Gero  
Laterriak, lur-pusketa bat nai zuanari, errenta bat jasoko zion lur-pusketa ura  
crabiltzearen truke. F,rrenta ori Laterriak izan dezazkean bearkizun guztiei  
erantzutekoa naikoa omen litzake , eta , orregaitik, errenta ori izan bear omen  
luke Laterriak jaso beur duan zerga bakarra. Ontatik esan oi zaio «georgeta-  
sunari» «Single Tax Movement»: «Zerga Bakarren Igikundea».

George'ren oldozketan oiñarri arturik asi zan Me Glnn bere idaz-lanak  
argitaratzen eta bere itzaldiak zuzentzen. Berealaxe jarri zitzaion aurka bere  
goigotzaia, Mikel Corrigan, Laterri Alkartuetako elizgizonik tradizionaliste-  
netakoa. Goigotzaia jatorriz alemaniarra eta apaiza irlandarrai zirala ere...,  
ez da azturik laga bear dan gauza.

Apaizak, George'k berak bezala, lurraren sal-neurri edo prezioen bitartez  
gizarte guztiari eta batez ere erri landerrari egiten zitzaizkion okerkariak era-  
gozi nai zituan. Lurra, bear-bearrekoa zan urietan, olak egiteko, etxeak erai-  
kitzeko ,eta iainbat gauzatarako! Baiña urietan lurra balio izugarria zuan,  
eta balio orren ondorio, garestiegiak irtetzen ziran jende xearentzat bizi-lekuak.

Goigotzaiak, ordea, apaiza zearo sozialista zala uste izan zuan, edo ta  
beintzat, jabetasunerako eskubideari zuzenak ez ziran neurriak ipintzen  
zizkiola.

Yorke Iberriko «aristokrazia» goigotzaiaren aide jarri zan; erri landerra,  
oso-osoan, apaizaren alde. Eta gutxi, foso gutxi! , hait ziran Eliz artan aundi-  
kak..., esan daiteke Yorke Berri'ko Eliz guztia apaizaren aide zegoala.

Izpurringietan, batzokietan, karriketetan, jauretxeetan bertan, berebiziko  
istilluak sortu ziran.

Goigotzaiak, apaiz-lanketarako baimenak kendu zizkion apaizari. Sartu zan iskamillean Aulki Donea, eta Erroma'ra deitu zuan apaiza.

Eta orain egin zuan Me Glynn'ek bere oztopo bakarra: ez zan Erroma'ra joan. Ori ikustean, goigotzaiak, eskomika jaurti zion.

Aurrera jarraitu nai izan zuan Corrigan Goigotzaiak eta Aulki Doneari Enrike George'ren idazkiak Liburu Debekatuen Zerrendan sartzeko eskatu zion; baiñan, oraingoan, apaiz soil bat baiño etsai bortitzagoa jeiki zitzaion: Baltimore'ko Gibbons Kardenala bera. Eta aundia bait zan Gibbons zugarra-  
ren itzalak Erroma'n zuan ospea, errez lortu zuan kardenalak txosten burutsu baten bitartez, George'ren liburuen salbamena'

George salbatzean, are ta geiago, aren adiskide Me Glynn apaiza salbatzen zuan' Ala, andik lau urtera, 1892'an, Ordezkarri bat iritxi zan Erroma'tik Yorke Berri'ra, auzi ura aztertzeko Leon XIII'ak bereiziki bidalia. Me Glynn'en erakuskizunetan Elizaren dotriñen aurka zitekean gauzarik ez zegoala erabaki zuan Ordezkarri ark'

\* ✧ ✧

Poliki-poliki, asi ziran katolikoak Politikaren Erakundeetan ere sartzen udaletxeetatik asita. Anaiarteko gudua amaitu ondorean, laister, katolikoak, irlandarrak bereiziki, Boston, Yorke Berri, Filadelfi, Txikago, Kansas, San Frantzisko eta Newark'eko udaletan sarturik zeuden. «Por desgracia, el eseaso brillo con que desempeñaron sus cargos no hizo honor a la historia politica americana ni a la Iglesia». (Traey Ellis-Muñoz). 1880'ean Boston'ek eta Yorke Berriak, katolikoa zuten alkatea.

Lenengo-Ludi Guduaren ostean Katolikoa izan zin Yorke Berri Laterriko jaurlaria, gobernadorea. Ain zuzen jaurlari au, Alfredo Smith, izanen da 1928'-ko auteskundeetan, «Demokraziar Alderdiaren» izenean Laterri Alkartuetako Lendakari-gai aurrena aurkeztuko dan politikari katolikoa. Txe-txe egiña izan zan gizagaixoa auteskunde aietan; baiña katoliko bat bi Alderdirik audiene-  
tako batek bere ordezkarriztat eratua izate utsak, Laterri Alkartuetan katoliko-  
tasunaren indarra zenbateraiño azitzen ari zan erakusten digu.

Ogeitabost urte batzuk geroago, 1960'ean, beste katoliko bat aukeratuko zuan «Demokraziar Alderdiak» Lendakarigaitzat, eta oraingoan, garaille irten-  
go zan auteskundeetan politikari katoliko gaztea: Yon Kennedy. «Garaiketa au, katolikotasunaren aurkako «prejudices», «oker-iritzi» eta kezka guztien amaia izan zan» (F. Converse).

Naiz Ameriketako Eliza teologilaririk gabeko Eliza izan, sortarazi zuan ala ere teologizko matxinadatxo zaratatsu bat' Baduzu noski «americanismus» edo «amerikakeriaren» entzutea. Ots, ordea. «Americanismus» ori, ez zala Ameriketako okerkaria izan, esan bearra dala uste dugu; europarra izan zala, frantziarra batez ere, iñoiz okerkeri izan ba'zan.

Itzak, esariak, izkerak, bai; Ameriketakoak ziran. Ekintza-gizonen izkerak, ez unibersitate-geletako teologilarien pentsakizun astiro neurtuak. Igikor izan



zitezen aukeratutako esakerak; dotriña bat mugatzea ez baiña, entzuleak a-tintzca gura nai zuten izkerak. St Paul'eko Ireland Goigotzai bikain ausartia bezalako gizonak, jendea lanean ipintzearren erabilitako izkerak' Oroï gure arteko erri-miziolarien itzak. Oroï Santuen izkerak. Oroï 'Uhuru Doneetako esakizun asko ere...!

Izketa arek ez zuan asmo okerrik. Lz zuan oldozketa okerrik estaltzen ere. Orregaitik Ameriketari ez zion inork garrantzirik eman. Frantzi'n okertu ziran gauzak; Lcon XIII'aren «Ralliement»erako asmoengaitik naasirik zegoan Frantzi'n.

Gogor zeuden emen tradizionalistak Airasantuaren asmoak desegitea lortu ondorean, beren garaitza, arrisku zitekean edozertxotik sendo hahesteko beti ornaï. Mindurik, Amcrikctitra begiratzon zuten ordu demokrazi-zaleek itxaropen eske. An Elizak goresia ikusten zuten Frantzi'n Elizak gaitzetsia izan zan Erkala. Eta Frantzi'ko katolikoaren artean Frantzi'ko Demokrazia goratzerik ez zegoan ezkerre, Laterri Alk. artuteko Demokrazia oortzca gogoan artu zuten,

Asmo orrekin Paris'ko «Institut Cotholique» edo «Katolik-Frakundeko» Felix Klein apaizak, Ireland St Paul'eko aogotzaiaren itzaldi-bilduma bat itzuli zuan frantziarara. Gaizki am, zuten liburu ura katoliko tradizionalista erregezaleek. Errepublikaren goratzearekin zala uste iman zuten, Monarkiaren gaitzespena. Ireland'en izkerak, gaitzetsia liberaltasun-usaia zerion bazter guztietarik Frantzi'ko iradizionalistek. Eta baita protestalaritzaren usaia ete. Erdi-erreje iruditzen zitzaizkien Ireland Goigotza'a eta bere adiskideak, adibidez, auen artean Keane, Richmond'eko Gotuaia, cia Isaak Heckel- «Paulists» edo «Pauldar»-Anaidiaren sou/aile bikaiña bera.

1897'an lortu zan asarrea, unie ortan frantzeratu bait zuan Klein berak «Aita Hecker'en Rizitza». Illa zan ordurako Hecker, eta bure adiskide batek idatzi zuan aren bizitza, era aZti eia erredioean, dou-inarik erakusteko asmorik hatere gabe, periodistek idatzi ni durcit moduan. T\_ liburu:k bi itzaurre zera-mazkian: Ireland'ena bat, I Hecker'en goratzearekin egiñaz, eut Klein itzultzailearen beste, eta au zan liburu arek zera-mazkian itzularik gogorrena, ertzakoiena, estremistena.

Orrela, «Ameriketari garrantzirik ez zuan izkerak, \_\_ekintzaren eta lanketaren lurra bait da ura pentsakizunena baiña geiago—, neurririk gabe astunagoa zirudian frantziar baten buruak birpentsatuta, era argi ta araukoican ezarria izan zanez gero»; «paraissait inrinitement plus grave repensé par un cerveau français et exposé de façon elaire et systématique» (Daniel Rops).

Azterketa zitala bear zan, ala enc liburu artan okerrik billatzeko, baiña ez zitzaion orrelako azterketarik peitu. Izan zituan aldekoak; auen artean Paris'ko Goigotzai Richard Kardenala bora, eta baita beste gotzai batzuk ere, baiña aurka irten zitzaizkion ?apuzturik katoliko tradizionalista guztiak, Turinaz Nancy'ko Gotzai berekin zutela'

«Amerikakeriaren» etsairik zakarrena Karlos *iA Iaignen apaiza* izan zan, Laterri Alkartuetako gotzai demokratikoen aurkako liburuxka baten egilea. Ez zion Paris'ko Goigotzai Kardenalak argitara irtetzeko baietzarik eman liburu latz oni. Gz zuan apaizak ere etsi , eta Aulki Doneari eskatu zion Goigotzaiak ukatzen zion baietsia' Baiezko erantzuna eman zion Frroma'k Aita Lepidi'ren bitartez. Alperrikakoa izan zan Laterri Alkartuetako gotzaidiak Estadutzako Idazkariari Erroma'ra b`dali zion osteketa, protesta. Alatagutziz ez ziran gotzai guztiak Laterri Alkartuetan aburu bateko.

1888'garren urtea, «amerikakeriari»-buruzko eztabaiden urtea izan zan Frantzi'n; eta baita Laterri Alkartuetan ere. Era berean itxartu bait ziran an gotzairik tradizionalistenak: Me Quaid Yorke Berri Laterriko Rochester'ko Gotzaia eia Yorke Berri Uriko Corrigan Goigotzaia baitipat . Ara zer esan zion azkeneko onek Ledochrnvski Kardenalari: «Sartu zaigu gure komunitate ontan liberalkeriaren aize ustela Nerejaun Ireland *eta* Nerejaun *Keane* bezalako zuzendarien eruz. Ilgarria izan liteke aize ustel cri, denboraz erremediorik artzen ez ba'da».

Ledochowski poloniarra zan. Prusi'ren menpeko Poloni'aren zatikoa: Po:-sen'go Gotzaia, Bismarck'ek crbestcrizia, eta Aullci Donean zegoana. Tradizionalista ere bazan, eta igarri dezakezu Aulki Donearen baitan *aren* infor-meeek sortu zezaketen zirrara.

Urrengo urtean, 1889'an etorri zan «amerikakeriaren» gaitzespena, Leon XIII'ak Baltimore'ko Goigotzai Gibbons Kardenalari idatzitako «Testeur Benevolentiae» eskutitzean. Baiñan... , ezer zan «Amerikakeria»? Ez da erreza erantzuna. Ona zer ataletan ezarri zuan Leon XIII'ak okerkeri aren muiña:

—«Directio spiritualis externa» edo «apaiz batengandiko gogo-zuzendari-tza», gaur Gogo Deunak lèn baino doai geiago banatzen dituala aitzekizatartuaz baliogabekotzat eukitzea.

—«Virtutibus naturalibus» edo «gizakumeak berez lortu dezazkean onbideei», jainkoagandik bakarrik datozten onbide «supernaturalibus» edo «izadiz-gaindizkoei» baiña garrantzi geiago ematea.

—«Virtutibus activis», edo «ekintzara zuzendutako onbideei», «jasanpen-nera zuzendutako», «virtutibus passivis» edo «jasakunde onbideei» baiño balio geiago egoztea.

—Erlijosoen eskeintza edo botoei eraspen txikia erakustea.

—Apostolutzako era zaarrak arbuatuta era berriak billatu nai izatea.

Ori ote zan «Amerikakeria»? Asmatu ote zuan Leon XI f 1'ak itz ori, Amerika gogora zekarren itz ori, erabiltzean?

Berealaxe id.t,ai zuan Erroma'ra Ireland'ek «okerkeri eta txorakeri batzuk adierazteko «Americanismus» itza erabiltzearen zuzengabekeria eta arriskua» Aulki Doneari erakutsiaz. Amerikar guztien sentimentuak mintzen omen zituan itz orrek. Gaiñera, Aterrika'ko katolikoek ez omen zuTen sekulan Aitasantuak

aipatzen zituan okerkeri aiek babestu. Era berean jakiñarazi zioten Aitasantuari beren «samiña eta arrazoi guzizko asarrea» \X<sup>7</sup> isconsin'go Milwaukee'tik goi-elizbarruti artako Gotzai danek.

Oso jende gutxiren izenean mintzatu zan Yorke Berriko Corrigan tradizionalista Aitasantuari «erejiatik Amerika gaizkatu zualako», eskerrak eman zizkionean' Ango gotzaiek eta katolikoek, geienek, Aitasantuak uts egin zuala uste izan zuten, eta badirudi, ontan, arrazoi zutela. Zergaitik idatzi ote zuan Leon XIII'ak ain bere era guztien aurka zijoan eskutitz ura? 1892'an, «le ralliement à la République» edo «Errepublika ontzat artzeko» eskatuaz, «Au milieu des sollicitudes» izeneko gutun ura idatzi zuanez gero Frantzi'n ain asarre zeuzkan katolikoek naimena bir-irabazi nai izan zualako? Ez zuala bere asmorik lortu, esan bearko dugu naitanaiez, ori izan ba'zan bere asmoa.

«Amerikakeriaren» aurka idatzitako «Testem Benevolentiae»ren sorkundea ulertzeko onako auxe ere gogoan artu bearra dugu: 1889'ko Leon XIII'a ez zala lengo Aitasantua. Zartua ta arras nekatua, eriotzaren atarian ia, ez zala lengo gizona ere. Asko akitu bait zuten, batez ere bere politika-bideak Frantzi'n izan zituan erantzun zipotzek eta ondorio makurrek. Leon XIII'aren inguruko elizjendea, berriz, Aulki Doneko Jaun Agintari aiek, Frantzi'ko antikerikeriak izaturik zeuzkan danak.

Gaiñera, Aulki Doneko Jaun Agintari aiek, Amerika'ko katolikotasuna protestalaritzaz kutsutuko ote zalaren bildurrez zeuden, protestalaritza bera arrazoikeriaren galdetan urtzen ari zala zirudian une aietan. Ez zekiten Laterri Alkartuetan Katolikoak beti protestalariei bizkarra emanaz bizi izan dirala.

Frantziarrek oker ulertu zuten Leon XIII'ak «amerikakeri» zalakoa gaitzetsiaz idatzi zuan eskutitza. Politika-bidearen aldaketa bat izan zala uste izan zuten, eskutiz ura: Errepublika'ren gaitzespena Monarkiaren alde. Bourges'ko Goigotzaiari idatzi bearrean aurkitu zan Aitasantu nekepetua, frantziar errege-gurtzallei, —ia Frantzi'ko katoliko guztiei! —, ordurarte politikarako eman nizkien zuzentasun bideak aldatu ez zituala jakiñarazteko.

Amerikarrak ez zioten nekerik eman, ez bait zioten gaitzespen-eskutitz ari jaramonik egin. «Americanismus» dalako ori «ez da Ameriketako gaitza» pentsatuaz, len bezala jarraitu zuten izkeran eta jardunkean. Baiña sendoa zan aien sinismena. Sendotasun orren azalpenik aundiena izango da, urtetxo batzuk geroago Frantzi'ko «modernismoak» Ameriketara susirairik bota ez izatea. Iru elizgizon bakarrik jausi ziran an modernismora: bi apaiz eta iñakitar bat.

Beti izan zan sendoa amerikar Elizaren sinismena. Baita elizkideek Elizako gauza eta pertsona izan dieten zaletasuna ere. Munduan bere apaizak maite dituan jenderik baldin ba'da, jende ori Laterri Alkartuetako jende katolikoa da. Egia da asko zor dietela beren apaizei katoliko aiek, apaizak izan bait dituzte, orotarako, zuzendari, gidari, eta buruzagi.

Geiegizkoa ere izan omen da apaizen nagusitasun ori eta eman omen dio Eliz osoari alako klerikeri-margo nabarmen bat. Baiña ez dezagun aztu, sindi-

kalaritzan beintzat, beste inon ez bezala izan dirala iare eta bere buruen jabe sekularrak Ameriketara, eta karitate-ekintzetan ere esku aundia izan dutela beti.

Karitategintzara, eredu izan zaigu Ipar Amerika'ko Eliza' Esan dugu, luzaroan Europa'ko Elizen laguntzaren bearrean bizitu zala. Ia-ia 8 milloi dolar artu zituan 80'ren bat urtetan Paris'ko, Lyon'go, Biena'ko eta Munieh'eko «Mixio-Laguntza-BazkUNETATIK». Baiña asi zan, emeretzigarren mendearen amaieran bere semeen irabazietatik bizitzea eta kanpoko Elizei Laguntzen, eta, asi ere, nolako biotz zabalez asi! Ez dezagun aantzi Pio IX'ak ango «National Welfare Conferenee» («Ongintzarako Nazio Bazkuna») mundu guztiari ipini ziola eredutzat, eta mundu guztiko gotzaiei eskatu ziola arâ joateko, an Bazkunaren izaera ta jarduera aztertu ta ikasi zitzaten.

Elizkizunaren zale, betidanik izan dira ango kristauak, bai protestalariak, bai katolikoak.

Europa'tik eramandako eraspen guztiak izan zuten bizitza bizkorra katolikoaren artean Ameriketara: Errosarioak, Josu'ren «ta Mari'ren Biotz Doneen jairak», «ta erri-mixioek. Ospe aundikoa izan zan mixioetako eginkizun ontan Josu-Lagundiko Weninger austriarra, zortzireun mixio Ameriketara eman zituana. Lan aundia egin zuten mixioetan Isaak Heeker eta bere «pauldarrek» ere, Azkeneko auek, beste inork ez bezalako ardura ipini oi zuten gainera, katoliko ez ziranengana iristeko al zuten guztia egiten.

Katolikoaren mixioetara bizkor ura, aldi berean protestalariak zerabilkiten «revivalism» zalakoaren kidekoa zan, kristaudi guzira bidali bait zuan oparo bere arnasa Gogo Deunak aro artan.

Elizjendeen aurka, atera oi da argira gaur akats loditxo bat: ondoegi, aberatsegi, bizi zirala.

Egia da ori, (ia-ia gaurko gure egunok ante), gotzai batzuei-buruz.

1892'an elizbarruti egin zan Santa Rosa'ko lenengo Gotzaiak, ia lur-joarazi zion elizbarrutiko ekonomiari, bere jauregia jasotzearren. Birja otzako Printzipe bat bezala bizi izan zan berriz, 1939'an il zan arte, Txikago'ko Mundeiein Goigotzai Kardenala. Baiña gotzai auen aldean „:beste zenbat eta zenbat gotzai eta apaiz era egokian bizi izan dira, eta, gero ta geiago orain ere bizi oi dira?

Kritika oiek, gainera, gaurko denborakoak dira. Orduan ez gotzaiak ez erriak, ez zuen akats aien oarmenik. Erriari atsegin zitzaion bere apaizak larritasunik «ta estutasunikgabe bizitzen ikustea. Maite zituan bene-benetan bere apaizak, eta gustora biltzen zan bere apaizen inguruan.

Orrela, gure garai auetara iristean sendo zegoan katolikotasunean erri ura. 1964'ean, oraindik 100'etik 70 katoliko joaten ziran zintzo igandero mezara' Eta 1960'garren urtea arte ez dira igandero bezperak galduko. Aundia zan apaizkuntzara edo konbentuetara bere urratsak zuzentzen zituan gaztedia ere.

1967'an Iberameriketako mixiolarietatik eunetan berrogeitamasei, iparramerikatarrak ziran, bizkorra izan bait zan mende onen asieraz gero Laterri

Alkartuetako katolikotasunaren mixioketarako zaletasuna, naiz ekintza ontan Laterri Alkartuak, Alemani'ren, Olanda'ren, edo Irlanda'ren maillara iritxi ez. Irlanda'k, izan ere, urte ortan bertan bere °ô 68 apaIz eta °S 70 praille mixioetan bait zeuzkan!

1921'ean il zan «loved and esteemed by Americans of every walk of life and every religious belief», (Eneyelopaedia Britanica), «edozein motako eta edozein sinispidezko amerikarren maitasunaren eta begirunearen jabe», James Gibbons Baltimore'ko Goigotzai Kardenala. Sortzez. amerikarra, —Marilanda'n bertan jaioa—, James Gibbons dugu Laterri Alkartuetako Elizaren irudirik egokiena.

Arrokeririk gabeko langillea, egiaren alde zehillenean ezerri bildurrik ez ziona, benetan Apaiz, eta Artzai ona, bazitun idazteko erreztasuna ere. Oraindik asko saldu oi da 1878'an argitartu zuan «The faith of our fathers» edo «Gure asaben sinismena» izeneko liburua. Idatzi zituan beste lau liburu ere, danak kristau bizitzaren erakusketari zuzenduak. Bere izaera garbi, aritz, patxadakoaren bitartez ospe aundia irabazi zuan Elizarentzat. «The most respected, venerated and useful citizen of the U. S.»; «Laterri Alkartuetako laterkiderik omenduena, agurtuena, eta baliotsucna» deitu zion 1917'an Teodoro Roosevelt Lendakariak.

Aberriaren eta aberri artako politika-bideen maitale setsua izan zan. Laterri Alkartuetako Oiñarrilegea zala, oles egin zuan hein, «the greatest instrument of government that ever issued from the hand of man»; «jaurketarako gizonen eskutik irten clan izkillurik bikaiñena». Ireland Keane eta beste adimen eta biotz irikiko gotzai guztien adiskide zintzoa izan zan beti, eta aiek bezala, erkala-zale portitza.

Egin zituan egiñalak bere oldozketa Eliz osoari erakutsi naiean. Erroma'n bertan, bere Kardenai-Jauretxearen nagusitasuna artzerakoan, bildurrik gabe egin zuan Eliza Laterriarengandik iare eta bereizia egotearen goratarrea. Bear zan orduan, 1887'garren urtean, ori esateko ausardi galanta. Ez hait zuan oraindik Eliza Katolikoak, ez bait zuan Aulki Doncan zegoan Leon XIII'ak berak ikusi, edestiak erakusten digun egirik sendoena auxe dala; Eliza Laterriarekin alkatu dan geienetan, Eliza galtzaille irten dala.

Bigarren Batikandar Kontzilioak emanen zion arrazoia Baltimore'ko Kardenalari.

Askoz leenago eman zion Laterri Alkartuetako jendeak. 191 l'an ospatu zuan Gibbons Kardenalak, bere apaizgintzaren berrogeitamargarren urtebetetzea, eta kardenalgintzaren ogeitabostgarrena. Nazio osoak erakutsi zion maitasunik beroena, ospakizun ura, «politikazko kargurik gabeko gizakume bati iñoiz egindako omenaldirik gaillurrena izan hait zain»; eta, «nazio guztiaren izenean, gaiñera, Taft Lendakaria bera izan hait zan omenaldi artan aurresku»;

«the most distinguished gathering that it had ever seen in honour of a private citizen, led by President Taft», dio katolikoegi izatearen aitzaki orotik iare dan «Encyclopaedia Britannica»k.

Guk ere Gibbons Kardenalaren oroipena berritzean, ekarri dezagun, batean, gogora, Laterri Alkartuetako Eliz osoaren bizkortasuna, bere ariketa sendoa, eta bere pentsaera zabala. Erakus dezaiogun, gaiñera, gure eskerra; astiro-astiro, baiña gero ta geiago, oparo zabaldu bait da Eliz gazte aren itzala munduko beste Elizetara, eta, ziurki, itzal ori onerako izan bait zaigu guztioi.



## IBER-AMERIKA'N ELIZA SENDOTZEN

Oso berdiña dugu gutxi gora bera, Iber-Amerika'ko Laterri guztien edestia, eta edesti ortan atal txit garrantzitsua izan da Laterriaren eta Elizaren arteko arremanen auzia: Argikuntza ezkerero Europa'n ere ainbeste ardailla sortutako auzi zaar neketsua!

Kristautasunak esku aundia izan du beti Iber-Amerika'ko Laterrien ibileran, eta ondo ezaguna da elizgizonek lurralde aietako jendeen biotzetan izan duten eta oraindik ere baduten eragipen zabala. Orregaitik elizgizonen laguntza irabazi naiean ibilli zaizkigu beti Laterri aietako agintariek beren politikagintzarako Elizaren itzalaz baliatu naiean. Laterri aiek danak..' Españi' ren eta Portugal'en umeak izaki! XVIII mendeko Españi' ren ta Portugal'en umeak gaiñera...!

Noizbeinka, izan oi dira, Mexiko'n adibidez, elizjendeen aurka zalapartak ere. Ondo nabari hait da lurralde aien edestia-zear Pombal'eko Markesaren edo A randa'ko Kontearen aztarna.

Eta, nolakoa mamia gauzek, alakoa izaten baie dute atala, berdiña da Laterri guzti aietan edestiaren azala ere, berdiñak bait dira edesti ortan ikusi dezaz-kegun goraberek: matxinadak, borrokak, iraultza gogorak, anaiarteko guduak, odolkeria, jende arruntaren txirotasun gogorra, militar agintza-gosetien lotsa-gabekeri nardagarria...

Ez gaitu arritu hear Iher-Amerika'ko ia Laterri danen amairik gabeko odol-ixurketak, Laterri aietako guda-buruak Españi'koen oiñordekoak hait dira; eta Españi'n berriz, VII Fernando Errege zala Rafael Diego'k alde batetik eta O'Donell'ek bestetik gudaroztea iraultzan altxa zutenetik Franko'ren «gurutzadaraiño» eun urteren epean istillurik gogorrenak bakarrik zenbatzen ba'ditugu, izan bait dira irurogei guda, iraultza, eta izkilluketa, danak Españi'ko gudarozte «aintzagarriak» sortuak! Izkillu-kolpe bat eun urteren epe motzean hi urteko asti bakoitza akitu baiño len!

Ederki ikasi zuten Amerika'ko «Alabek» Europa'ko «Amaren» irakaski-zuna; Bolibi'n adibidez, 1825'ean askatasuna lortu zuenez gero, izan bait dira 155 urtetan militarrek sortutako 189 matraka zikin odoltsu. Ta, Mexiko'k ere izan ditu ia-ia Bolibi'k aiña borroka; eta ez dabiltz Bolibi'rengandik urruti Guatemala, Peru... ta Amerika aietako beste Laterriak. Ezpairik gabe esan



dezakegu, azkeneko bi mende auetan Espaini'n eta Iber-Amerika'ko Laterrietan gudaroztea izan dala erriaren gurutze-zigorrik latzena, erriaren etsairik aundiena.

Ez dezagun gaiñera aantzi, Iber-Ameriketako Iraultza, bere mentalitatean, ez zala Ipar-Amerika'ko iraultzaren jarraipena izan; alderantziz Frantzi'ko iraultzaren ondorio izan zala: burgesitar liberalkoi ezkertiarra.

Bi Alderdi, bi bakarrik, izan dira Iber-Ameriketan Laterri guztietako politika erabili duten Alderdiak: «El Partido Conservador» eta «El Partido Liberal».

Egin dezagun ordea oarpen garrantzitsu bat: «Kontserbatzaile», «Liberal», izen mardulak ditugu Europa'n, beren barrenean mentalitate-zama sendoa daramatenak. Ez orrela Iberameriketan! An oldozkerak baiño geiago bereizten digu bi Alderdi oietako jendea, beste gauza illunago ta zikiñagoren batek: sendien arteko gorroto zakarrak, aundikien arteko bekaizkeriak..., politikaren bidez aberaspide bat aurkitu naiak... iAidenagusikeria, maiz aski, antziñako Euskalerrian bezala!

Alatagutziz, bazituzten bi Alderdiek, politikagintzari dagozkion gaian bereiztasun errez nabarigarriak, batez ere Europa'n 1848'ko Iraultza piztu zanez gero. Ordurarte oso gutxi ziran bi Alderdietan, politikaz gogapen argirik zutenak! Gaiñera, Askatasuna-osteko lenen-egun aietan, bai kontserbatzaileak eta bai liberalak, batez ere ekonomiari dagozkion auzietara egon ziran erne, askatasunaren aldeko guduak sorturiko ekonomi-zauriak len-bait-len sendatzearren!

Ajola aundiko beste oartxo bat berriro: Theramerikak ez zuala bere ideologia Iparreko Laterri gazte Alkartuetatik artu; Europa'ko Laterri Zaar eta Alkarren-Artean-Bereizietatik atu zuala. Auguste Comte izan zan ango liberalen maixua; Donoso Cortés berriz, kontserbatzaileena.

Baiñan, ekonomiari-buruzko arazoetan, liberal] zipotzak hait ziran an Espaini'n bezala kontserbatzaillerik eskubitarrenak ere, ekonomia izan da, ots, agintarien ekonomia, Laterri aietako politikagintzaren lenen elburua; egiaz liberalak ziranentzat, elburu nagusia, teoriz beintzat: Ekonomi-era egoki baten bidez Laterri osoaren eta laterkide bakoitzaren aberastasuna lortzea; al daitekean aberastasunik aundiena, aberastasun oparoaren altzo naroan bakarrik atxiki daitezke bâ, liberalkeriaren ustez, gizakumeen atsegiña ta gizarteko pakea. Ta, gizarteko pake au eta atsegiñ ura ez al dira politikaren elburu bakarra? Ori guztia... teoriz, jakiña. Bizitzaren maillan bakoitzak bere aberastasunean ardura geiago ipintzen hait zuten jaun aiek Laterriaren aberastasuncan baiño.

(Ez aztu gaiñera, Comte, positibista zala, eta ez aztu positibismuarentzat «beste mundurik» ez dala, eta beste mundu ortako zorionetan pentsatzea ameskeri utsa besterik ez daitekela naitanaiez izan)'

Kontserbatzailleentzat, aberastasunaren garrantzirik ukatzeke, —ondo maitea bait zuten aiek ere dirua...! —, leenagokoa zan, gizabide zuzen kristauaren araura, erriko jendearen eziketa egokia, ots, erlijioaren erakusketa, erri ura pakean bizi zedin eta pakean lan egin zezan. Teoriz, ori ere; bizitzaren maillan aberastasunari dagokion guztian, liberalen kide bai ziran kontserbatzailleak'

Teoriaren maillan liberalak eta kontserbatzailleak oldozkeraz ezberdiñak ba'ziran ere, zearo berdiñak ziran eguneroko bizieran gauzak erabiltzeko moduan: «egin beza lan jendeak apalki guretzako, eta aberastu gaitzen gu al dugunik geiena», zenuan aien politikagintzaren egiatzko muiña.

Bai Iparrean, bai Egoan, inditarrak izan dira, eta oraindik dira, gizarte-maillarik doakabeena.

—Teoriz, maite zuan inditar-jendea Alderdi Liberalak Iberamerika'n. Aitorzen zuan inditar aiek egiatzko gizakumeak zirala, eta edozertarako beste edozein gizakume bezain gai bazirala. Soilki kultura falta zitzaie, —esaten zuan—, era bat beste gizakumeen kideko izatera igotzeko. Ez zan gutxi aitorzea. Ez bait zuan Alderdi Kontserbatzailleak beste orrenbeste egiten!

Kontserbatzailleentzat inditarrak ez ziran, ezertan ere, beste gizakumeak aiña' Ez zuten ukatzen inditarrak pertsona ziranik, ori ez; baiña, aientzat, inditarrak bigarren edo irugarren maillako pertsonak ziran' Bai noski, oker zebiltzan ontan kontserbatzailleak, baiña oker-zulo berera jausi ziran, luzaro gabe, liberalak ere; Konbeni hait zitzaien auei ere inditarrak erdi-gizakumetzat eukitzea, lurgintzarako morroi merkeak billatu aal izateko!

Toki batzuetan bazituan an Elizak inditarrak, erdi-inditarrak eta beltzak bere serbitzura' Orren aurka jeiki ziran liberalik zitalenak. Baiñan ori egitean, proletaritzaren leizera jaurti zituzten «elizaren menpetik» gaizkatutako jende gizagaixo aiek' Eta, menpez-menpe, askoz ariña goa ta goxoagoa zan jende txiro errukarri aientzat Elizaren menpeal

—Politikaren arloan, Liberalak, gizaseme bakoitzari autarki bat ematearen aldeko izan ziran; liberaltasunaren dogma izan bait da beti gizakume guztien legezko berdintasuna. Alderantziz Kontserbatzailleek, inditarrak eta erriko jende xea «nor-aukeratu-eta-nor-aukeratu-ez» jakiteko gauza ez ziralaren aitzakiarekin, «jende landuarentzako» bakarrik gorde nai zituzten auteskundeetako autarkiak.

Ez'zazula ala're uste liberalak kontserbatzailleak baiño txintxoagoak ziranik, autarkiak erosten edo autalariak atzipetzen edo autarkien zenbaketa gezurketaz aizuntzen ikusiko bait dituzu beti batak eta besteak lotsa aundirik gabe'

—Erriko jende xea, —inditarrak bereiziki—, «kofradietan», «anaidietan» edo «mixioetan», —sendi aundi baten antzekoak ziran «mixioetan»—, bildu-

rik bizi oi ziran. Frantzi'ko gizartizti katolikoak sortutako «Korporazioen» itxura aundia zuten Iberameriketako «Alkarte» aiek danek.

Ain zuzen, Iberamerika'ko Kontserbatzailleak Frantzi'tiko «Korporazio» aien aldeko izan ziran, eta aurkako Liberalak nagusi-langilleen arteko politikagintzan. Liberalek ziotenez, Ameriketan Elizak eratutako «Korporazio-Antzeko-Allkarte» aiek danak erriko jendea-baitan alperkeria eta ardurarik-gabe-bizi-nai-izatea sortarazten omen zuten. Bearrezkoa zan, beraz, «Korporazio» aiek desegitea, inditarren artean ere, Kapitalismoak zaiñetako odol duan negozio-gosea ernârazteko; «gose» ortatik omen dator bâ errien aberastasuna, eta, aberastasunetik, zoriona!

Egia zan «Korporazio» aiek bai Ameriketan, eta bai Frantzi'n ere, zartuak zeudela. Egia zan beste Sindikato batzuk hear zirala. Baiña orrelako sindikatorik ez zan oarindik Iberameriketean. Ta eziñegon eta laisterkeri geiegirekin ibilli ziran Liberalak. Eta «Korporazio» aiek deusezen-truke ezereztearekin, crraik gabeko kapitalista zakarren eskuetan utzi zituzten, babesik gabe, erriko jende landerrak eta inditar gaixo zorigabeak.

«Korporazio» aien orde ez zuten liberalak sindikatorik sortu. Ez noski! Franzi'n eta monda guztian bezala Ameriketean ere, sindikatoak nagusi-langilleen arteko askatasunarentzat oztopo zirala-ta, sindikato ooren aurka irten hait zitzaizkigun liberalak. Askatasun ituna ta zorigaiztokoa Liberaltasun Zaarraren askatasuna! Bakarrik eta billutzik, babesik gabe, uzten bait zuan indartsuen aurrean jende txiroa! Ala jausi ziran aberatsen atzaparretara inditarren eta erriko jendearen lur eta alorrek, aberats aien abere-taldeentzako bazka-toki bihurturik. Ta orrela diraute oraïndik! ;Askatasun Liberala!

—Ondo maite zuten, ala ta guztiz, Liberalak Askatasuna. Orregaitik, bildur aundia izan zioten gobernu-indartsuari. Jaurlaritzari indar geiegi ez emateko Parlamentua bizkortze ta sendotzaren aldeko izan ziran eta federapenketaren maitale. «Federalistas» eta «Unitarios», amaika iskanbil sortârazi zuten itzak! Liberalzaleak federalistak ziran; «unitarioak», ots, laterri-bateratu-zaleak berriz kontserbatzailleak. Auen ustez ez zan Parlamentuen bearrrik; Jaurlaritzari eman bear zitzaion almen guztia, ez omen daiteke bâ bestela erriaren altzoan pakerik gorde. Ezta, atzerrietako etsaien aurka, Laterriaren eskier-tasunik ere. Ortik sortuko zaigu Brasill'en, Arjentina'n, Txile'n eta beste ainbat tokietan ainbeste gaitz egin duan «Laterriaren Lskiertasuna» edo «La Seguridad del Estado» izenez ezagutu oi dan politika-dotriña.

«Nacionalistas» esan oi zieten beren buruei kontserbatzailleak, mundu guztian, —Españi'n eta Frantzi'n batez ere—, kontserbatzailleentzat, «Nazioa», Estadua besterik ez hait da. Ontan, oso-osoan, «kontserbatore» integrista zakarrak dira Frantzi'ko eta Españi'ko liberalak ere.

Baiña Laterria nola moldatzeari dagozkion gaietan ere laister etorri ziran jokaera berdiñera kontserbatzailleak eta liberalak Iberamerika'n; an ain sarri gerta oi diran matxinaden erruz, alde batetik, eta, besterik, eragozpenik

gabe agintzeak berekin daraman atsegin goxoa txastatu zutelako, Liberalak ere kontserbatzailleak bezain Jaurlaritza Gogorren zale egin ziran bâ!

Kulturaren arloan liberalak kontserbatzailleak baiña amerinditar kulturaren maitaleago agertu zitzaizkigun, itzez' Itzez; izatez, bai auek eta bai aiek, kulturaz Luropa'ren seme bait ziran oso-osoan, eta , ekitez, amerikar jatorrizko kulturaren alde, auek bezain gutxi egin bait zuten aiek. Europa'ko etnologiariek sortuta Europa'tik joan zan aruntz jatorrizko kulturenganako ardura.

Bitartean elizjendeak zer zegian? Erdibitua egon zan asieran, 1848'ko iraultza europatarren ondorioak Ameriketara sumatu ziran arte. Kontserbatzailleen adiskideak toki batzuetan baiña liberalen alderdikoak beste batzuetan, Mexikon adibidez, edo Arjentina, Uruguai, Peru ta Benezuela'n. Gero, ~~polki-polki~~ kontserbatzailleen alderdiruntz jo zuten danek. Ori ordea, ango apaizen gogo zabalaren aztarna dugu, eta alako apaiz aiek eskubiruntz jotzearen errua, libera] zipotzen estukeri zitalarena izan zala adierazten digu' Antiklerikeri murriztera jausi bait ziran liberalak, aipatutako iraultza aren ondorean.

1848'az gero, Iberamerika'n elizjendearen eisai izan bear zan egiazko liberala izateko. Uste ere uste izan hait zan liberalen artean, Eliza «atzerakoi» zala, «retrograda», aurrerapen ororen aurkakoa, «no-progresista», beraien izkeran. Aitor dezagun apalki, uste ortan geiago sendotu zituala oraindik, IX Pio'ren jokaerak. XIII Leon berriz, ekonomiaren arloan kontserbatzailleak bezain kontserbatzaille ziran liberalentzat, eta, arlo berean liberalak bezain liberal-kapitalistak ziran kontserbatzailleentzat, «Aitasantu sozialista» izan zan.

X Pio, bai; IX'a bezain maite izan zuten kontserbatzailleek; liberalek ordea ez zuten, bazanik ere, ezertarako aintzat artu.

Antikleritasunetik libera] batzuk Comte'ren eskutik positibismora, eta azkenean, jainkogabekerira igaro zitzaizkigun. Arrezkero, ori ikustean, elizjendearentzat, an, liberaltasuna, liberaltasun oro, Jainkoari bizkar-ematea izango da, eta liberaltasunari borroka-egitea beren eginkizunik garrantzitsuenetakoa bihurtuko da. Ain zuzen Peru'n, apaiz bat, Bartolomé Herrera, dakusgu Alderdi Kontserbatzaillearen zuzendari.

1848'ko iraultza aren ondorean joan ziran Ameriketara lenen apaiz mihiolari espainiarrak; integrista beroak guztiak, Candido Nocedal'en adiskideak. Arreta bizia ipiñi zuten Iberamerika'ko apaiz eta gotzai liberalak liberaltasunetik ateratzeko. Eta ez zan ura alperrik egindako lana izan laister, «quien se adhiera a los conservadores, a Dios se adhiere» esaten bait zan Txile'n.

Elizgizonok gaiñera errez egiten ditugu bat «Kristo'ren pakea» eta «monduaren pakea», ark «bere pakea ematen zigula, baiña ez munduak ematen diguna bezalakoa», esan zigula oroitzeko. Ta diktatore eskubitarrek, munduko pake ori, naiz gogorkeriaren bidetik, lortu beintzat lortzen bait zuten, eta, gaiñera, begirune aundiz tratatzen bait zuten Eliza..., beraien lagun egin zitzaizkigun gotzaiak eta apaizak, eta jakiña, zen esan ez, prailleak. Oroipen gozoa

gorde zioten XIX mende guztian Mexiko'n Iturbide Inperatorcari eta Arjentina'n Rosas diktatoreari. Menxikotarren eraspén ark ez gaitu arritu bear geiegi, agintari egokia izan hait zan Iturbide. Arrigarriagoa da Arjentina'ko katalikoen.

Baiñan beste agintarien gáindik, Tberamerika'ko katoliko eskubitarrentzat eta baita Europa'koentzat ere, —frantziarrentzat bereiziki—, agintari katolikoén eredu kkuator'ko Gabriel Garcia Moreno izan da: «de grand President, Chretien», ez besteak bezala odolzalea, bai ña bai alatagutziz diktatora.

Kontserbatzaille ta liberalen azalpen au bukatzeko, esan dezagun bi aiederdiéntzat izan zuala Elizak izugarritzko garrantzia, izan ere, bi Alderdien arteko ezberdintasunik aundiena, ia ezberdintasun bakarra, Elizari politika-arloan eman bear zitzaion trama izan Hait zan. Kontserbatzailleéntzat, Eliza ta Laterria, iraultzen denboraz aurretik egon ziran bezain batuak egon bear zuten. Zearo bereiziak berriz liberaléntzat. Alkartze ez-alkartze ortatik gora, baziran hi Alderdietan aburu crtzakoi latzagoko gizonak, teokrazi nabarmenaraiño iristen ziranak alde batetik, erlijio oro ezereztu nai izateraiño erori ziranak, bestetik.

\* \* \*

Lau ataletan ebaki dezakegu Iberamerika'ren edestia. Ta, gutxi gora-bera garai bcrdintsuan gertatu ziran lan atal oiek ango Laterri guztietan:

--Lendabizi, kontseerbatzaille-itxurako jaurlaritzá sendoak eratu zizkiguten «askatzailleek»: «los libertadores».

--1848'az *gero*, liberalak asi ziran, —an gaur, emen biar--, jaurlaritzaren jabe egiten, eta mendearen azkenerako, Kolonbi'n izan ezik, politikarako indarririk gabe bazterturik gelditu zan Eliza. naiz bere itzalak erriagan len bezain sendo jarraitu.

—XX mendearen asieran, osterá gobernu bizkor indartsuak genituan agintari, Elizaren itzal artan oarturik gotzai-apaizen adiskidetasuna gura zuten Jaurlaritzak. Mexiko zebillen jardunkera ortaz banda.

—Azkenik, «pakezko» giro ortan adiskidetasun goxoan jokatu dute Laterriak eta Elizak Mexiko'n ez gaiñerako Laterrietan, ia gure egunok arte.

Cure egunotan, zorionez, Eliza izan da politikaren ha-artean Laterriengá'idik bereizi dana, eta ezpairik gabe, reoriz beintzat, bcartsuen alde gartsu jeiki zai-guna. « Askapen-teologia » izan dugu igikunde orren gaillurra. Bai noski, bide berriak irikitzean heti gerta oi dan bezala, izan da igikunde orren altzoan bide zezena galdu dean teologilari bat edo bat, baiña, alatagutziz teologi ori dugu, «la Teologia de la Liberaeidn», Elizaren edesti osoko idoroketarik pozgarrientako bat. Gutierrez deritzan apaiz perutarra izan du sortzaille. Bitez beretzat gure txalorik eskertsuenak.

\* \* \*

Gure egunotako gertakizunak ordea ez dira oraindik cdestiarentzat gai egokiak-eta, itzuli gaitzen, Mexiko'tik asita, XIX mendeko gertakizunetara, Mexikon izan bait dira, beste inon ez bezala gogorrak, Elizaren eta Laterriaren arteko zer-ikusiak.

38 bazkideek osotutako « Regeneia » edo « IErregeordelcotza » batekin asizuan 1821'can Mexiko'k bere bizitza iarea. Urrengo urtean, (1822) Bazkun ura deseginda, Inperatore zan Agustin I Iturbide. Ez luzararorako, Mexiko'n jende ikasia errepublikazale izanik, 1823'an inperiotza laga-bearrean aurkitu hait zan gure Iturbide; erbesteratua izan zan; eia fusillatua, 1824'ean, Mexiko'ra itzuli zanean.

Iraultzez, anaiarteko gudaz, eta militarren kolpez josia gerta zitzaigun XIX mendean Mexiko'ren bizitza. « Erregeordezko-Bazkun » artako 38 Jaun aiek eta 1860'ean eratu zan « Junta Superior » eko beste aiekzenhatu gabe, Iturbide'gandik Porfirio Diaz'en denboraraino izan zituan 62 urtetan .59 Lendakari Mexiko'ko Errepublika zorigabeak. Ta, gaiñera, ez'zazula uste Lendakari auen zenbaketa ain gauza erreza danik! , izan bai dira. batera hi Lendakarik, « duunvirato » edo « bikundean » , agintzen zuten astiak, eta baita irukundean iruk agintzen zutenak ere. Anaiarteko guduetan naasirik denbora berean hi Lendakari ere izan ni dito aldi batzuetan; iru berriz, beste batzuetan! ; an, dakusakezunez, mundu guztiak agindu nai hait zean. Orregaitik, bildur aundiz darnaizut 59'ko kopuru ori, edestilari batzuek lendakaritzat daukatena besteek ez bait dute aintzat artzen.

\* \* \*

Guatemala'n, aurreneko Agintariak liberal ezkerkoiak izan ziran, baiñan laister artu zuan agintaritzza Rafael Carrera kontserbatzailleak. 1844'tik 1865'era, hi aldiz izan zan Guatemala'ko Errepublikaren Lendakari, baiña Lendakari ez zanean ere bere eskuetan euki zuan 21 urte luze aietan Errepublikaren eta Erdiko Amerika osoaren gidaritzza.

Katolikoa hait zan, itzuli zizkion Elizari aurreko jaurlari liberalek kendu zizkioten ontasun guztiak eta egin zuan 1852'ean IX Pio'rekin konkordato bat ere, Amerika'ko Laterriak Aulki Donearekin egindakoetan lenengoa, eta ez Elizarentzat nolanaikoa, ematen hait zizkion, bizitzeko bear zuan dirulaguntza, gaztediaren eziketa osoaren zuzendaritza, eta Guatemala'n argitaratzen ziran idazki guztien garhitasunaren zaintza. Ez zan asarre gelditu elizjendea bere Lendakari berriarekin.

Guatemala'tik landa ere, Amerika'ren gerri artan jende guztiak izan zion Rafael Carrera Lendakariari begirune zabala ta maitasun aundia. Orregaitik, bereala egin zuten arek egindakoaren antzeko konkordato bat Onduras'ko Lendakariak aurrena eta San Salvador'koak gero. Ez zan asarre ez orixe IX Pio!

Alatagutziz Rafael Carreras Lendakariak ez zuan beñere, urte batzuk geroago, Agustín Iturbide Inperatoreak aiñako izen aundirik irabazi katoliko-koen artean. Agian, orretxegaitik ain zuzen: Inperatore izan ez zalako, jakiñña bait da, orain arte katolikoek hakalduntzari izan dioten niaitakeria. Ta mingarriagoa zaigun, ez zuan Carreras'ek Arjentina'ko Juan Manuel de Rosas diktatoreak aiñako osperik ere jaso. Au ura baiño askoz gogorragoa izan zalako? Baleike! Zoritxarrez azkeneko mende t'erdian katoliko-koen gozapena diktaturtza izan hait da!

\* \* \*

Arjentina'n askatasunaren atzetik, «federalisten» eta «zentralisten» artean borroka ta guda luzeak sorti: ziria, eta gudate orren ostean igo zan Rosas lendakaritzara. Indarkeri gogorraren bidez egin zuan «erriko pakea»; ongi losintxatu zuan Eliza; ondorioz, errez irabazi zuan, luzarorako gaiñera, elizjendeen esker ona. Iñakitarrak bakarrik aurkituko dituzu aldi luzean, Rosas diktatorearen aurka mintzatzen, ez bait ziran arekin ondo konpondu. Ori... gazteen eziketarako Arjentina'ra Rosas'ek berak deitu zituala!

Sortu zan berriro, an, laterkideen arteko guda, eta Justo Jose Urkiza'k menderatu zuan Rojas 1852'ko borrokaldi batean; eta naiz orduan agintaritzaren jake liberalak egin, ez zan txarra irten 1853'an Urkiza Lendakariak I X Pio'rekin izenpetu zuan konkordatoa.

\* \* \*

Rosas atzerrian azturik bizi zan artean, Ekuator'en Garcia Moreno genduan agintaritzaren jabe. izan zuan lenago ere Andeerako Errepublika ark bere gizon altsua, Juan Jose Flores, aipu bereizia merezi duan gizakutnea; kontserbatzaillerei eta liberaleri biei batera atsegin emateko politika-era herri haten asmatzaille izan zitzaigun bñ! Kontserbatzailleren laguntzarik ez galizeko, jaurlaritzara zentralista gogor bat ezarri zuan Kito'n, eta liberalak ipintzen zioten mutur zakarra goxatzeko, erlijio guztiei eman zien askatasun berdiña, orrela, Eliza Katolikoak bakarrik zuan legezko nagusitasun bereizia deseginaz.

Kontserbatzaillak eta liberalak, danak asarretu zitzaizkion. Aiek, Ekuator guzia katolikoak zalarik beste erlijio «gezurtiak» egiazko erlijioarekin kidatzean Flizai-i eta Ekuator'i, bici, uko egin ziela, jaurti zioten aurpegira. Liberalak berriz, erlijioeci emandako askatasun arekin, ez zuala bere burua diktatore egitean politikarako askatasunari eman zion eriotzarik ordaintzen, egin zioten oiuz zakarki. Ez zuan Flores diktatore kontserbatzaillak pakegintzarako bere asmo bitxi ura garaille atera, baiña ez zan alatagutziz aren saiaketa ain alperrikakoa gertatu, geroago, beste Laterrietan beste Lendakari batzuek adu obeerle; n kontua artua izan hait zan.

Guayakil'en piztutako matxinada batek jauni zuan Flores lendakaritzatik. Flores'en atzetik, amabost urteko zurrunbillo gaitzera jausi zan Errepublikak. Guayakil eta Kito urien arteko bekaizkeriak, kontserbatzailleen eta liberalen agindu-naiak, eta Elizaganako batzuen eta besteen sentimentu ezberdiñek, ia bi pusketan zatitu ere egin zuten Laterri gaixoa' Borroka, matxinada, iraultza, eta gudate zikin aietan ospetsu egin zitzaizkigun izenak dituzu, Askasubi, Elizalde, Urbina, Franeo, Flores ostera.', baiñan batez ere, Urbina gudalburua.

Garesti ordaindu zituan Ekuator'ek politikolari zeken eta militar anker guzti aien joku trakets aiek, erne egon bait zan Castilla Peru'ko Lendakaria txorabiokeri artan ozka egiñaz Ekuator gaixo ari puska eder bat kentzeko.

Naste-borraste artatik irten zan trebe, bizkor, indartsu, Gabriel Garcia Moreno, «Lendakari Katoliko»'

Gizon argia, naimen onekoa eta zuzentasunaren maitale sendoa zala ez du iñork eztabaidan ipintzen. Edestilari guztiek dioskute Laterriko mugen barruko pakea ederki lortu zuala, eta mugetatik landa ere, Ekuator'entzako inguruko Laterrien begirunea ta lotsa ziurki irabazi zituala; eta erriarentzat onuragarriak ziran lanei eragiñaz eta erakuskintzari ats berna emanaz nazioaren aberastasunari indar bikaiña eman ziola...; baiña militarren laguntzarekin matxinada baten bidez artu bait zuan bere bigarren lendakaritza, eta, gaiñera, gizarteko askatasunak deuseztu bait zituan berak tajututako Oiñarri-Lege baten bitartez, gorroto zakarra izan zioten orduan, eta izan diote gero, liberal guztiek.

«Carta de la Eselavitud» izen-eman zioten aren Oiñarri-Lege ari. «Monstruo abominable a quien se puede matar impunemente como a un tigre o a una eulebra» omen zan Lendakari ura, Ekuator'ko idazlerik onenetako batek, Juan Montalvo'k, idatzi zigunez.

Ez dira edestilari guztiak Montalvo'ren iritzikoak: «La figura de Garcia Moreno es en el aspecto polftico-religioso la màs alta, pura y heroica de toda Amèrica y nada pierde en la comparaciòn con los màs culminantes *de* la Europa cristiana en sus tiempos mejores' Basta ella sola, aunque faltaran otras, para que la repitblica del Ecuador merezea un brillante capltulo en los anales de la Iglesia» (Montalvàn).

Bene-benetako katolikoa izan zitzaigun Garcia Moreno, eta al zuan guztia lagundu zion Elizari' «Ikastola Kristauekako Anaïen» eskuetan ipiñi zuan, al izan zuan tokietan, mutikoen eziketa; eta lekaimen eskuetan, neskatoena. Birrekarriz zituan Ekuator'era Urbina Lendakariak andik uxatutako iñakitararak, eta bete-betean eman zien bere konfiantza guztia: aiek, esker aundiz eskertu izan dioten konfiantza' Bere agoz eskeiñi zion Josu'ren Biotzari Ekuator'ko Errepublikak. Iñoiz Elizak lortu duan konkordatorik atsegiñena egin zuan IX Pio'rekin. Bera izan zan, italiarrek Aitasantuen jaurerria desegin zutenean indarkeriaren aurka oiui egin zuan Laterri-Buru bakarria,



1862'ko Konkordato aren bidez,

Katolikotasuna izanen zan Ekuator'en erlijio bakarra: «inicia v exclusiva»; «beste guztien baztertzaille!»

—Katolikotasuna babestera bearturik egonen zan Errepublika.

Latetriak emanen zien inditarren arteko mixiolarici bear zuten laguntza uzta.

Debekaturik geldituko ziran besterik gabe Ekuator'en, Elizak gaitzetsi zezazkean erakunde danak.

Uko egiten zien Latetriak «exequatur» eta «plaet» izenez ezagutzen ziran sasi-eskubide aiei danci'

Gotzaiak eta gaiñerako kargu guztiak izendatzeko eskubide ta iaretasun osoak izango zituan I aizak Latetriaren aldetiko eragozpenen bildurrik gabe.

—Izanen zuan baitare, Elizak, Errepublikaren lurralde guzian, irakaskuntzako mailla guztietan zer eta nola erakusten zan ikertzeko eskubidea: Baita katolikotasunaren aurkako liburuak galeraztekoa, eta sinismen zuzenekoak ez ziran irakasleei irakatsi aal izatea debekatzekoa ere.

Aitasantuari berriz, bereiziki aukeratutako Ordezkarri baten bitartez Ekuator'ko Elizaren eraberritzeaz ez aztutzeko, eskatzen zitzaion.

Biotzez maite bait zuan Eliza, arin ete azkar ibilli nai izan zuan Gareia Moreno'k, Geiegizkoa ere iduritu zitzaion IX Pio'ri arek Lkuator'ko Elizaren aurpegia garbitzeko zerabilkian laisterra baiña errez etorri ziran biak batera, Aitasantua ta Lendakaria; eta onen ariketari eskerrak, bildu aal izan zan Kito'n 1863'ko Eliz Ekuatortarraren Kontzilioa.

Pozik eta eskertsu gelditu zitzaion Aitasantua. Eratu zituan, bere «seme lendakari maite-maite» aren eskaria onartuaz, lau elizbarruti berri «Errepublika txit kristau» aren lurraldeetan: Ibarra, 1862'an: Riobamba, 1863'an; Loja, 1866'ean; Portoviejo, 1871'ean.

«Exemption hereuse» omen zan, Daniel Rops'en iritziz, Gareia Moreno'ren Errepublika, Iberamerika guztian. Baiña an, Ekuator'en, anitz zabaldurik zeuden Montalvo'ren iritziko jendeak: «se le puede matar impunemente como a un tigre o a una eulebra».

Itxarotzen zuan Gareia Moreno'k eriotza, ondo hait zekian berak Amerika aietan politikoaren erailketa noiz-naiko gauza zala. Eriotzaren bildurrak ordea ez zuan «ee grand eroyant» (Idm.), «sinistun aundi ura», errez ikaratzen..

Kempis'en sarri-sarriko irakurlea zalarik, ondo zeukan gogoia edozertarako gertutua. mayor felicidad, Santísimo Padre, que la de ser odiado y calumniado por amor de nuestro Divino Redentor?» idatzi zion Pio IX'ari. Onela jarraitzen zuan berriz geroxeago: «Y qué mayor felicidad, si vuestra bendición me obtiene del ciclo la gracia de derramar mi sangre por aquel que siendo Dios quiso derramar la suya por nosotros en la cruz?».

Ain zuzen Aldareko jaunari ikustaldia egitetik zetorren, eraille batek koldarki bizia kendu zionean. Liberalen saillekoa zan eraille zoro zipotz ura.

Andemendia lurrikarak bezala astindu zituan erailketa arek Amerika guztiko katolikoen erraiak.

Garcia Moreno gizon aundia izan zala ezin daiteke ukatu. «Libertad para todos y para todo menos para el mal y los malechores», izan zuan ikur-itx, Diktatore izan zala bere bigarren lendakaritzan? Bai noski. Baiña Garcia Moreno'k gaztaroan ezagutu zuan Ekuator ari konbeni al zitzaion orduan beste jaurketa-modorik?

I Batikan-Kontzilioaren denbora artan bizi-bearrean II Batikan-Kontzilioaren denbora auetan bizi izan ba'litz, a! nolako Lendakari bikaiña izango zitzaigun «gizaseme jator» ura'

\* ★ \*

Gutxi gora bera, Garcia Moreno'ren denborakoa izan zan Peru'n Ramon Castilla Lendakari, (1845-1851, eta 1854-1862). Peru'ren edestia, XIX'ean, ez da Ekuator'enaren antzekoa, an beti kontserbatzailleak egon hait ziran agintari. Ala ere naiko indar arturik zeuden liberalak, Castilla lendakaritzara igo zanean, eta liberal aien artean baziran gizon erneak, Txile'koen edo Benezuela'koen antzekoak.

Liberal auek, Laterriarentzako nai zuten izaera ber-bera artuarazi nai zioten Elizari. Liheralizatu egin nai zuten Eliza, Erroma'ri autoritatea kendu nai zioten, Laterri bakoitzako Elizari almen geiago emateko eta Eliz bakoitz auen baitan apaizjendearen nortasuna tnoztuaz kristau landerrena bizkortzeko.

Laterriaren barruan, parrokiak eta elizbarrutiz osotutako Laterri demokraziko bat bezala antolatu nai zuten Eliza. Demokrazizko Laterri konfederatu bat bezala eratu nai zuten, agian, Eliz Orokorra'

Kide-kidekoa izan zan kontserbatzailleen erantzuna, auek Kristo'k eraiki zuan Elizaren antzera moldatu nai bait zuten Laterri bakoitza. Ori jaurti oi diote liberalek Garcia Moreno'ri ere aurpegira: «Teokrazi laga zuala Errepublikak artu zuan Ekuator». Eta ori, agian, egia da, naiz laga zuan teokrazi ura, artu zuan errepublika baiño askoz baretsuagoa, ederragoa, indartsnagoa eta aheratsagoa izan'

Rafael Castilla'k bildur zien Peru'ko liberal ertzakoiei. Bildur zien, —aipatua dugun Bartolomé Herrera'k, eta Españi'tik orduantxe iritxitako apaiz integristek aize emanda—, iñoiz baiño beroago zebiltzan kontserbatzailleei ere. Eta Ekuator'en Flores lendakariak ibilli nai izan zuan jokaera jarraituaz, liberalen eta kontserbatzailleen arteko alkartasuna al zan guztian lortzea, artu zuan bere lendakaritzaren elburu.

Flores'ek Ekuator'en lortu ez zuana, lortu aal izan zuan Castilla'k Peru'n. Ortarako, gerturik egon zan beti, danekin itzegiteko, eta ez zuan sekulan ezer agindu aurretik bi alderdian onetsia lortu gabe. Ariketa orren emari izan

zuan 1840'eko Kostituzioa, bi alderdietako jendeek alkarrekin aski baretsu politikaren bidean aurreruntz ibiltzeko polito eraturtako gurdia.

Liberalen atsedencrako, 1:izari erakuskintzaren monopolioa edo «nagusi-bakar-izatea» kentzen zion kostituzio ark, Laterriaren ikastola-sare laiku bat eraikiaz; apaizak saritu bearretik iaretzen zuan gobernua, eta kentzen zituan Elizaren epai-mai bereiziak. Kontserbatzailleak zuritzeko, berriz, Jaurilaritza erdirakoi eta aski indartsu bat ezartzeaz gainera, Eliza bere ikastolcn jabe uzten zuan eta zituan aberastasun guztien nagusi; gotzaiei berriz, baba politikazko auzietarako ere, aske itzegiteko almena ematen zien.

Castilla'k bere asmoak aurrera atera ba'zitan, hlores'ek Ekuator'en billatu ez zuan laguntza aurkitu zualako izan zan: gotzai erne batzuen onespena. Gotzai oiek, Xabier Luna Pizarro ria batez eru onen ondorengo Sebastian Goienetxe izan ziran, Lima'ko Goigotzaiak biak. Azkeneko gizon onuragarri oni zor dio Castilla lendakariari baiño geiago Peru'ko Errepublikak emeretzigarren mendearen luzaroan, beste Laterriak borroka beltzetan nâsirik zebiltzan artean, pake-aro atsegingarri gozoan bizi aal izatea, Goienetxe'k isilduarazi bait zituan Kostituzio herriaren aurka jeiki ziran Bartolome Herrera —Alderdi Kontserbatzaillearn aitzindaria —, eta apaiz españiar integristak, eta berak eramán bait zuan kontserbatzailleen alderdia, aolku egokien bidez, Casilla'rcn asmoak ontzat artzera eta asmo aiei bere laguntza ematera.

\* \* \*

Kolonbi'n ez zan aurreneko urteetan egiazko Alderdirik izan. Borrokak bai, izan ziran ugari baiña sendi aberatsen artean askatasunaren aurretik piztutako bekaizkeri, alkar-ezin-ikusizate ta gorrotoetatik sortutako horrokak. Ixuri zan, ugari, odola.

Gudate nardagarri ura amaitzeko, gudarozteko buruzagiak, lur-nagusi aberatsak eta elizjnde garaiak Alkarte batean bildu ziran. «Los Ministcriales», izen-eman zieten beren buruei. 1841'ean artu zuten eskuetan Jaurilaritza, eta politik-era katoliko eta erdirakoi bat ezarri zutelako, jaun aien Alderdia, kontserbatzaille-alderdiaren azi-aletzat eukia izan da Kolonbi'ren edestian. Ez zuten luzaro agindu, 1849'an liberalak baIt ziran auteskundeetan nagusi.

\* \* \*

Brasill'eko kontzerhatzailleak beste era batekoak izan ziran, izenez bai katolikoak, baiña izatez, Arginkuntza-aroko aundiki «filosofizale» aien antzekoak. Emezortzigarren mendea ezkerro arras sarturik zegoan an elizgizonen artean ere masoiketa, eta, beste inon gerta ez zana, sortit ziran Brasill'en «as irmandades» izeneko erlijio-anaidi batzuk masoitzarcn bahespean eta masoien esanera.

Bi inperatoreak ere, Pedro I'a eta II'a, erregekeri-zale portitzak izan zirala ikusi dugu. Erregekerietaz landa, Pedro II'a, (1840-1849), mixiolari protestalariak gogo goxoz artzeraiño iritxi zan, eta masoitzaren aurka Aitasantuek argitaratutako legeek ez zuten sekulan Brasill'en «plaeet» zeritzaion baimen ura jaso, eta, orregaitik, kontzientzia beartzeko almenik gabe gelditu ziran an.

Eta Inperiotzak iraun zuan bitartean inperatoreen morroi apal izan ziran gotzaiak.

Orregaitik izan zan onuragarria errepublikaren sorkundea 1849'an: gozaiak eta Eliza iaretu zitualako. Gotzaiak gaiñera, ikaratzen asiak ziran, Jaur-laritzan esku-zuten pentsalari liberal asko, Alemani'ko teologilari aiek bezala, Aitasantuen utsezintasunaren etsai agertzen ziralak. Pio IX'aren Syllabus idazkiak esnatuko ditu erabat, Brasill'go elizgizonak.

\* \* \*

—Liberalen Aroa: 1840'aren inguruan liheraltasun berri bat Ameriketara zahaldu zala, esan dina: ertzakoiagoa, miñagoa, ezkertagoa; eta Europa'n 1848'an lortutako iraultzak aize bizkorra eman ziola ere esan dugu. Baiña askoz lénago, 1834'ean erne zegoan liheraltasun eliz-zannatzaille ori Mexiko'n. Urte ortan sortu zan. Iturbide inneratore fusillatuaren odoletik Errepublika Federakoia, eta arrezkero ez da luzaroan Elizarentzat lur aietan atsedetik izango. Ezta Mexiko berarentzat ere, iraultzalari eta militar guztiak an arer-gunerik gabe gudan ihilliko hait dira.

1833'an Antonio Lopez *de* Santa Ana jenerala politikan indar artzen asi zan arte, aman urtetan amabi gizon egon ziran Mexiko'ren lendakaritzan. Ez zuten Elizari arretarik emateko astirik izan, alkarren arteko borroketan naiko lan ibilli zutelako. P,z uste izan Santa Ana'k pakea ekarri zuanik, Mexiko'rentzat mingarria izan hait zan militartzar onen agintaritzza. 1833'tik 1855'era egon zan politikan sartua, eta 22 urte oietan bera 7 aldiz igo zan Lendakari-Aulkira; eta, heraz gaiñera eseri ziran Aulki artan heste 15 gizon, eta, oietatik 5, hi aldiz izan ziran Lendakari, eta beste 2, iru aldiz! 22 urteren epean 29 aldiz aldatu zuan Mexiko'k lendakariz! !!

Santa Ana'k ekarri zuana zera izan zan: Elizari erasotzen astea' 1833'an, konhentuak itxiak izan ziran, mixioak sekularizatuak, au da, elizjendearen agintaritzari kenduak, eta mixioen ondasun guztiak, lauurreta bizian, Laterriaren jahetzara paseak. Mexiko'n zecoan ordurako Angelonolis'ko Gotzaia, Gregorio XVI'ak bere ordezkaritzat bidalia; ez zion Mexiko'ko Tauraritzak ezer egiten utzi, eta, oraindik garratzagoa, dana, Aitasantuari ber-herari ukatu zion Mexiko'n ezer egin aal izateko almena. Elizarentzat baiño okerragoa izan zan Laterriarentzat militar arroputz aren agintaritzza, Mugen barruan, eten gahe ari izan zan gudua zentralisten eta federalisten artean, eta probintzi osoak bereizi ziran nazkaturik hakoitza bere askatasunaren billa. Ala Yukatan 1841'ean, Mugazkanpora ere maiz jarri zuan era negargarrian Mexiko gaixoa, 1839'an Frantzi-

ko itxasontzien kañoiek Berakruz astindu zuten bonbaz. 1845'ean Texas zabala Laterrri Alkartuetara igaro zan. 1857'an, Mexiko, Laterrri Alkartuekin gudan zan, eta guda orren ondorean saldu zituan, 18 milloi dolar mixeableen truke, Kalifornia'n eta Mexiko Berria.

Orrela, bere lurraldearen erdia galdu zuan Mexiko'k Santa Ana'ren denboran, eta aren urrengo iru urteetan. Ori guzia, neurri ederrean, Santana'ren erruz.

1845'ean eratu zuten Alvarez eta Ignacio Comonfort jeneralek Ayutla'ko «Plan» edo «Egitamua», Santa Ana lendakaritzatik jaurtitzeko; eta borroketa motz gogor baten ostean lortu zuten urrengo urtean beren elburua. Ez zan ordea pakerik Mexiko'ra iritxi. 1855'ean, iru gizon egon ziran agintzen, irue-tan aipagarriena Ayutla'ko Egitaraua egin zutenetako bat: Alvarez jenerala, inditarra, Morales apaizarekin españiarren aurka askatasunaren alde gudan ibillia.

Ez zuan asko iraun; urrengo urtean, Comonfort bait zan Iendakari; inditarra au ere, Ayutla'n Alvarez'en iraultzakide izana. Agintzen egon zan iru urteetan, aurrera eraman zuan, Santa Ana'ren bidetik Elizarentzako zipozkeria. 1857'ko Kostituzioan gelditu zan mamiturik zipozkeri ura, baiña ez luzarorako, bereala jeiki bait ziran, izkilluak eskuetan, Oiñarri-Lege Lira deusezteko, kon tserbatzailleak.

Erroma'tik ere etorri zitzaion gaitzespena Kostituzio txatxu ari. Erroma baiña aurrerago joan zitzaigun Lizaro de la Garza Mexiko'ko Goigotzaia, Oiñarri-Lege artan Elizaren aurkakoak zitezkean ataletaz gaiñera, gaitzetsi hait zituan liberaltasun-usairik euki zezaketen guzti aiek ere. 1859'an, Comonfort'ek atzerrira alde-egin ondorean, Felix Zuluaga jenerala zan Lendakari... agintaritzatza motzerako. Urte ortan bertan, iraultzatik iraultzara, eskutik eskura ibilli bait zan Mexiko'ko lendakaritza: Zuloaga'gandik Robles Pezuela'rengana, onengandik Benito Juarez inditarrarengana, Zuloaga'rengana ostera...

Urrerigo urtean Migel Miramon da nagusi eta urrerigoan, 1860'ean Pavon (aurrena Miramon'ekin). Eta gero Junta Suprema edo Bazkun Goienero bat.

1860'tik 1868'ra bi gobernu izan ziran batean: Mexiko Urikoaz gaiñera, Berakruz'en Benito Juarez'ek osotu zuana. Bi gobernuiek saiatu ziran egiñalean, (alkarren artean borroketa odoltsuan zebiltzan artean), Elizaren ondasunak lapurtzen, eta baita atzerritarren ondasunak berenganatzen ere. Orrela itzuli ziran ostera, atzerriko gobernuen gudarozteak, tiroka Mexiko'ra.

1860'garren urte ortan Berakruz'etik ekinda sartu zan garaille, azkenean, Mexiko urian Benito Juarez, baiña Inghanderriak, España'k eta Frantzi'k gudarozte bat bildu zuten, eta Prim españiarra buruzagi ezarrira Mexiko'ra bidali zuten gudarozte ura, Juarez'i Mexiko'n egindako atzerritar-ondasun-arrapaketan kontu-eskatzera.

Alkar-konpontzera iritxi ziran Prim eta Juarez «Convención de la Soledad» izenero «Itunean», (1862), baiña beste asmo batzuk zituan Frantzi'k-eta, ez

zian «Soledad'eko Itun» ari onetsirik eman. Españiarrak eta inglanderriarrak etxera itzuli ziran orduan; frantziarrak, ordea, bertan gelditu ziran eta Juarez menderatuta Austri'ko Frantzisko Jose I'aren anai bat, Maximilian, ipiñi zuten Mexiko'n Inperatore. Zer nai ote zuan Napoleon III'ak? Mexiko'n Elizarentzat giro paketsua ezarriaz Frantzi'ko Elizaren onginaia bereganatu?; edo, soilki, Maximilian'en bitartez bere burua Mexiko'ren jabe biurtu?

Maximilian I'a Mexiko'ra zetorren artean «Junta de Gobierno» edo «Jaurketa-Bazkun» bat eratu zuan Frantzi'k an. Bazkun orren lendakari, Mexiko'ko Goigotzaia izan zan: Labastida'ko Pelai Andoni Jauna. Arin ibilli zan Pio IX'a jerarkia ugaritzen: Ordurarte goigotzai bat eta aman gotzai zituan Mexiko'k iru goigotzai eta amabost gotzai izanen zituan gerontzean.

I Maximilian, (1864-1867), naimen zuzeneko gizona zan, baiña Mexiko gobernatzea bere posibilitateen gainetik zegoan gauza zuan; berak baiño askoz geiago balio zuan Iturbide'k lortu ez zuan gauza! Gaiñera, esan leike III Napoleon'ek jarri eta III Napoleon'ek bota zuala; Frantzi'ko gudarozteak Mexiko'n egindako gastuak Maximilian'i ordainarazi bait zizkion, eta, ordainketa ura egiteko Maximilian'ek mexikotarrei ipiñi bear izan zizkien zerga astunek, erriaren naia osoro galduarazi bait zioten'

Kontserbatzailleak ziran, Inperatoreak alde zeuzkan jende urriak; baiña Ekuator'eko Flores'en bidetik eta gero Castilla'k Peru'n erabili zuan bide artatik ekiñaz, kon tserbatzailleak eta liberalak alderatuaz bien laguntzarekin nai izan zuan agindu. Mexiko ordea ez izaki Peru. Peru'n ez zan odol ixurtzerik izan; Mexiko'n, berriz, ater-unerik gabe era izugarrian ixuri zan, Laterriaren sorkunde beretik, bai liberalen bai kontserbatzailleen odola.

Ez zuan, gaiñera, Maximilian'ek Castilla'ren yayasunik izan. Liberalak irabazteko ukitu gabe utzi zuan oso-osoa Elizarentzat ain kaltegarria zan Mexiko'ko legedi guztia, eta nuntzioa atzerrira jaurti zuan bere ekintzak onestera ezin ekarri izan zualako. Parregarriagoa dana, Argikuntza-aroko inperatore austriarren josepekeria sartu nai izan zuan bere inperiotzara, ortarako «plaeet» izeneko almen aiek eskatuaz. Neurri oiekin ez zuan liberalen biotzik bereganatu, — i ez ziran bâ errepublikazale makalak mexikotarrak! —; eta kontserbaille asko... urrundu egin zituan.

Azkenean erabat kontserbatzailleen eskuetan ipiñi zuan bere zoria. Beranduegi, gutxi bait ziran ordurako kontserbatzailleetan ere inperio-zaleak, eta gero ta azkarrago ari bait ziran Juarez'en gudariak lurralde osoaren jabe egiten. Napoleon III'ak bere gudaroztea Frantzi'ra ekarri zuanean, berea zuan ezparrik gabe Juarez'ek agintaritzari-buruzko dema. Maximilian, Keretaro'n garaitua, antxe bertan izan zan epaitua ta fusillatua.

Atzera berriz Benito Juarez inditarra Mexiko osoaren nagusi dugu. Gizon bizkorra zan, bere aberria bene-benetan maite zuana, langille aundia, eta, batez ere, Mexiko'ren aunditasunari-buruzko gaietan ameslari idealista aundiagoa. Zoritzarrez, beste liberal askok bezala, egitan uste izan zuan Eliza

Mexiko'ren aunditasunarentzat, eta Laterri ororen aurrerapenarentzat, oztopo mardula zala. Amerika aietako beste errialdeetan ere, Benezuela'n batez ere, eta Uruguai'en aski zabaldua egon zan uste ori, eta pentsatu bear genduke katolikoak, ea guretarren ariketak uste oker ori sortzeko gairik geiegi eman ez ote zuan.

Santa Ana bezain gogorra izan zan Juarez Elizarentzat. Ikastoletan kristau-bidea erakustca galerazi zuan, eta, baita, erlijiosoak, Karitateko Aizpak eta guzti, il Mexiko'til, erbesteratu ere. Apaizei sotanaz jantzita ibiltzea debekatu zien, Jauretxeetako aberastasunak arrapatzen bizkorra izan zan, eta gotzai bat baiñoueciago ere erbesteratu zuan. Alperrikakoa izan zan 1861'ean, Juarez'en lenengo agintaritzakoan, Pio IX'ak egin zan osteketa, protesta'

Baiña, matez inditarraren omenez esan bearra da, Mexiko'ren aberastasuna aunditu zuala, erri-barruko pakea tortu zuala, eta jende landerraren alde saiatu zala; Santa Ana ez bezalako gizona bait zan Juarez.

Bera il zanean piztu zan ostera anaiarteko gudua, eta piztu ziran matxinadak, 1876'ean beste jenerai batek, Porfirio Diaz'ek, indarrez nagusitza artu zuan arte. 35 urtez izan zan Porfirio Diaz diktatore. «El Porfirato» deitu oi diote mexikotarrek diktaturtza luze orri. Aro ortan, azi zan baiki aberastasuren Mexiko, baiña galdu zuan gizarteko askatasuna, eta aundiagoak egin ziran gizarte-mailen arteko ezberdintasunak'

Erljioaren arloan Porfirio'k ez zuan legerik aldatu, baiña *lege* zipotz aiei jaramonik egin gabe, era paketsuan asi zuan jaurketa, eta katolikotasunaren aurka Mexiko gobernatzcrik ez zegoala oartu *zalako*, pakean laga zuan era bat Eliza.

Elizaren adiskidetasuna irabazteak izan zezakean baloreaz oartu ziran Iberameriketako beste agintariak erc, eta Laterri guztietan etorri zitzaion Elizari atsedeen-osasungarri bat ekaitzaren ondorean.

\* \* \*

Kolonbi'n 1849'tik 1880'era egon ziran liberalak agintzen, baiña ez ziran Elizarentzat ain *gogorrek izan*. Onura gutxi ekarri zion Kolonbi'ko erriari liberalen agintaritzak; jende orori askatasun eta zori ta oportunitate berdiñak emateko aitzakiarekin, desegin bait zituzten, liberalak, Elizak jende landerrarenzako eratuak zeuzkan kofradi eta korporazioak, orrela jende lander ura babesik gabe utzia'

Inditar gaixoci kendutako alorrak aundikien eskuetara igaro ziran' Eta len nekazaritzako soro ziran lurak, orain abereentzako belardi biurtu bait ziran, edatu zan gosea Kolonbi guztira. Aberastasuna eunen bat sendi aunditsuen eskuetara bildu zan, eta erria txirotasun beltzera jausi. Inditarrak, berriz, zearo aterperik gabe gelditu ziran.

Orixe bera gertatu zan Iberameriketako beste Laterrietan ere. Guatemala'n adibidez. 1871'an artu zuten emen liberalek agintaritzea. Liberal aiek, ez ziran pentsakeraz liberalak, Rafael Carrera'ren etsai utsak baizik, diktatorearen agintaritzapean bazterturik egon bear izan zutenak. Eta Eliza Carrera'ren adiskide maitetsua izan bait zan, Elizari botatzen zioten diktaturtza arek ainbeste iraun izatearen errua.

Justo Rufino Barrios (1873-1885) izan zan Guatemala'ko lendakarietan Elizarentzat biurriena; 1879'ko Kostitutuzioaren bitartez kendu zion Elizari ezeren jabe izateko eskubidea eta debekatu zion politikaren usai izan zezakean ariketa oro. Bide beretik abiatu ziran Onduras, Nikaragua eta El Salvador. Emen ere, liberaltasunak sortu raziko aberastasunak sendi-sail txiki baten sakeletara joan ziran; erria, len baiño gosetiago gelditu zan!

Justo Rufino Barrios Guatemala'ko Lendakaria ez zitzaigun Elizaren aurka lege-emate utsarekin atsedendu. Laterri Alkartuak ikustatzera juan zalarik, (1882), an Presbiteritarren Kontseju Nagusiari, Guatemala'ra mixiolari protestalariak bidaltzeko eskatu zion. Berak ordainduko omen zion aurreneko mixiolariari bideko gastu guttia. Berak! Apaiz katolikoei Guatemala katolikoan diru-laguntz oro ukatu zien gizonak!

Txile'n katolikoek asi zuten asarre-unea. Egia da Txile'n beti aski liberal eta laikoa izan zala Jaurlaritzea, baiña ala ere gogorregia izan zan Rafael Valentin Valdivieso Santiago'ko Goitzaiak 1845'ean asi zuan jarduketa. Anketatik burura integrista sutsua zan gizon au; liberalekin katolikoek, ezertarako ere, batean aritzerik ez zeukatela, oso-osoan sinisten zuana.

Muturrez-aurrera sartu zan politikan kontserbatzailleen alde, baiña etsai gogorra aurkitu zuan Manuel Montt Lendakaria (1851-1861). Zerraldo galdu zuten emen ere dema katolikoek. 1870'erako liberalak Taurlaritzaren nagusi igikaitzak ziran. Alperrik, orduan, elizgizonengandiko eskomikanenak. Katolikoak politikatik at gelditu ziran, eta, beren buruak kontsolatzeko, «katolikotasuna» eta «txiletasuna» bat egiñaz goxatu nai izan zuten galera. Amar urte lenago, «kontserbatzailietza» eta «Jainkotasuna» eta «Txiletasuna» zirala bat, esan oi zuten.

Zorionez Txile'ko liberalak esku biguiñeko politikariak ziran eta ez zean Mexiko'n bezala Elizak zigorketarik jasan bearrrik izan. Pentsalari pinpiriñak ziran gaiñera; biotz guttiz «laissez faire, laissez passer» zalako aren alderdikoak. Baiña «oro egin aal izate eta orori pasatzen uzte» orrek, «edozer-gauza-egiteko-indar-asko» eta «kontzientzi gutxi» zuten trata'rien kutxetara bildu zuan Txile'n ere aberastasun guttia! Aundia izan zan, ondorioz, erriko jendearen beartasuna!



Mingarriagoa, Ekuator gaixoaren gurutz-bidea. Gareia Moreno'ren atzetik Kito'ko Goigotzaia izan zan erailla 1877'aren Ostiral Santu egunean elizkizunetan ari zala. Kalizako ardoan naasi zioten edena; agian, Veintimilia Lendakaria Elizaren aurka oker ari zala, esatera ausartu zalako. Mexiko'k Iturbide'ren fusillatze-ostean bezala Ekuator'ek ere ez zuan emeretzigarren mendean pakerik izan. Bata bestearen atzetik etorri zItzaizkion gaiñera matxinadak, borrokak, indarrezko kolpeak. Iru Jaurlaritzza izan zituan batera 1882'an: Kito'koa, Guayakil'koa eta Esmeralda'koa! Gure mende onetan ere ez dute eskier-tasun geiegirik izan Ekuator'ko Jaurlariek.

An Elizaren aurkakoenak izan zaizkigun Lendakarien artean, Veintimilla'z gaiñera Eloy Alfaro'k, (1895-1901; 1906-1911), eta Leonidas Plaza'k (1901-1905; 1912-1916), merezi dute aipu bereizia, auek eraman hait zuten aurrera Errepublikaren bizitzaren sekularizatzea, Gareia Moreno'k bizia galdu zuan ezkerero, agintari guztien kuttuna izandako ekintza.

Bereizi zuten Laterria Elizarengandik, baiña bereizte ori itzezkoa geiago izan zan izatezkoa baiño, Eliza gobernatzearcn zale izan hait genituan Ekuator'ko Lendakari danak. Elizaren aurka ez zan odolketarik izan, baiña Elizari eman bear zitzaion poliTikazko tratuari-buruz ozen jarraitu zuan liberalen eta kontserbatzaillien artean izka-mizkak, katolikotasunaren kalterako.

Ekuator'en eta beste Ameriketetan elizgizonek, —beren eta Elizaren esku-bideak babesten itxu-itxu ari ziran artean—, ez zuten begirik izan lurralde aietako gizartea-baitan mardultzen zijoazen gaitz ikaragarriak ikusteko, zazpi begiz zorioneko «Elizaren eskubide» viei hegira egon ziralako. Laister jeikiko zaizkigu an *erc* marxitarrak gaitz aien salaketa oiuka egiñaz, eta erri oinpe-tuaren salbamenerako bide bakartzat beren ideologia eskeiñiaz.

Al Ekuator'ko Eloy Alfaro gizagaixoak, irugarren aldiz lendakaritzza artu nairik Guayakil'ko karriketan galdu zuan bizia. Berak... eta herarekin batera, matxinada artako buruzagi danek'

Borroka-zelaiean iraultza tira ondatu zuana Leonidas Plaza izan zan. Orre-gaitik dakusgu amen bigarren lendakaritzza aurrenekoa baiño Elizarentzat le-gunagoa.

\* \* \*

Brasill'en Pedro II'aren inperiotzan, (1831-1889) izan zituan Elizak libe-ralkeriarekin iskamillak, batez ere 1872'a ezkerero izparringi liberalak gotzaien, apaizen ete Eliza beraren izena loitzen asi ziranean. Elizaren babeslerik biz-korrena buruñurdun bat izan genduan: Gonçalves de Oliveira, Olinda'ko Gotzaia.

Masoiketari ere zorrotz ekin zion Gotzai onek *eta* lortu zuan Aitasantua-rengandik 1873'an masoitzaren mendeko ziran «irmandades religiosas» aiek desegiteko baimena, baiña, \_\_a izorioneko «plaeet! —, Inperatorearen one-

tsirik jaso gabe baimen ura erabiltzen asi zalako, giltzapean sartu zuan gobernuak: bera, eta ariketa artan lagundu zion Parâ-Belen'go Gotzaia, Andoni Maceedo Costa.

II Pedro agintari ona izan zan Brasill'entzat. Liberala zalako, egin zuan, paperean, Elizaren eta Laterriaren bereizketa, baiña gizon argia ere bazalako oartzen zan Laterri Katoliko batean katolikoekin asarrerik ez zitzaiola konbeni; ala, eguneroko bizitzaren artu-emanetan alkarren adiskide jarraitu zuten Elizak eta Laterriak bera Inperatore izan zan artean'

Errepublikaren aurreneko lana kostutuzio laiku bat argitaratzea izan zan. Eta, ordurako, Syllabus irakurtzeak igitu bait zuan Brasill'eko Eliza, egin zuten gotzaiek oiú «laikuketaren» aurka, baiña laister ikusi aal izan zuten Errepublikak Elizari ematen zion askatasun osoa Inperatoreen babes astuna baiño askoz onuragarriagoa zitzaiea. Gobernuaren aldetik ez du Brasill'en Elizak eraspena eta onginaia besterik jaso, naiz legez gobernua Elizarengandik bereizirik egon.

Katolikotasunaren arriskurik aundienak, an, erriaren siniskeritik sortu izan dira. Ala agertu zan 1890'ean Sertaô deritzan ipar-sortaldeko lurraldean sasi-profeta bat: Antonio Mael, «O Conselheiro», «Aolkularia», erriak ipiñi zion izenez. Jendetza aundiak eraman zituan atzetik: baita apaizak ere, ez hait zan oso luzea Brasill'eko ipar-lurralde legor aretako apaizen jakinduria' Pentsa'zazu; elizetan sermoi-egiten utzi zioten sasi-profeta ari, eta baita aitor-ketak entzuten ere!

Agian, neurririk gabeko lurralde aietan, orduan, albisteak geldi zabaltzen ziralako, luzaroan egon ziran gotzaiak ezer esan gabe' «O Conselheiro» argi-argian sinismenaren aurkako dotriñak zabaltzen asi zanean, asi ziran aiek ere mintzatzan. Baiña gotzaietako baiño fede geiago zioten sertoatarrak bere «santuari», eta aren alde jarraitu zuten. Egiatzko matxinadan amaitu zuan azkenean «Conselheiro» ark bere ariketa, eta, orduan, ere, bere sinisteak aldean izan zitualako, 600 gudari bear izan ziran matxinada ura borrokaldi batean menderatzeko. An galdu zuan bizia sasi-profetak eta tiroka illak izan ziran beretar asko.

Ogeigarren mende ontan «o espiritismo» «gogoenganako-sasi-eraspema» izan da an katolikotasunaren pipia'

\* >< ><

Landuagotzat euki du beti ere Arjentina'k bere burua; eta, —orain arte heintzat—, ango jendea Brasill'ekoa baiño kulturaz eziagoa izan dala aitortu bearra da. Liberal jakintsuek aundi ikusi oi dute an beren burua. Agian, aien artean positibitza beste tokietako liberalen artean baiño geiago errotu zalako. Aien iritziz, Eliza Katolikoa «erdi-arotiko gogapen atzeratuen bilduma» bat omen zan. A! , ta politika ez omen zan iñolaz ere Elizaren eginkizuna.

1870'aren inguruan egin ziran liberalak Arjentina'ko politikaren jabe, baiña esku zuria erabili zuten Elizarekin. Onen ikastolak ukitzeke, beste ikastola sare jaiku bat edatu zuten, eta, orrela, irriño ta losintxa, liberalen eta kontserbatzailleen arteko pakea egin zuten, eta Eliza atsekabcrik gabe bizi izan zitzaigun pake aren goxotasunean.

Laterriaren aberastasuna ere egin zuten. Lurralde dirutsua zan 1880'a ezkerero Arjentina zabala, baiña an ere Txile'n ikusi dugun bezala, eta beste Laterri danetan bezala, «laissez faire» doakabe arek, a! nolako proletaritzta kupigarri zorigabea sortarazi zuan aberastason zenbatuezin aren altzoan!

\* \* \*

So-egin dezaigun, oraindik atal ontan aipatu ere apika egin dugun Benezuela'ri. An Elizarentzat agintaririk onena Simon Bolibar bera izan zan, ondorengoak, 1908'an Vicente Gomez'ek lendakaritzta artu aurretik danak izan bait ziran antikleri-zaleak. Ez, Elizaren etsaiak, ez; Elizari bizkar-emailleak baizik. Biguinki ezkertiarra, baiña beste Laterrietakoa baiño ezkertiarra, izan da Benezuela'ko Iberaltasuna. Sinismena bera, katolikoan artean, meagoa eta axelekoagoa izan bait zan an Españi'ren denboretan ere; jende gutxiago zualako-edo, apaizak ere urriagoak izan ziran bâ Benezuela'n.

1830'ean lendakaritzta artu zuan Jose Antonio Paes'ek kendu zion Elizari Laterriagandiko laguntza guztia. Arrezkero ez du an Elizak zigorketarik izango, baiña ezta laguntzarik ere. Elizarik ez ba'litz bezala gobernaturiko dute lendakariek.

Lendakari apain, begirunetsu aien artean bat bakarra izan zan txoro-antzekoa: Antonio Guzman Blanco (1870-1888). Eskoletara Comte'ren positibismoa sartzen bizkorki saiatu zitzaigun; eta Alernani'tik eta Laterri Alkartuetatik etorritako mixiolari katolikoei ikastolak itxitzen zizkien bitartean mixiolari protestalariak eskatu zituan Benezuela'n irakasle izan zitezzen. Ikusi dugu Guatemala'ko Barrios eskaera berdiña egiten. Guzman Blanco onek eskea egiteaz gainera, emango digu artarako izan zuan arrazoia ere: «para la difusión en Venezuela de las virtudes prácticas de la ética protestante»: «Ostelaritzaren etikak berekin daramazkian birtute eraginkorrak Benezuela'n zabaldu daitezzen». Ondo arrazoi liberal-benezuelatarra benetan!

Aurrera jarraituaz, konbentu sail bat itxi zigun ondorean; aien aberastason guztiak arrapatuaz, jakiña! Karakas'ko Goigotzaia erbesteratu zuan; eta, aren atzetik, nuntzioa bera; apaizen ezkontza legezkoa egiten ere saiatu zan; alperrik, ikusi hait zuan laister saiaketa arek buruauste aundiak ekarriko zizkiola; ezkontza zibilla legezko egin zuan, eta zirigarria da katolikoentzat, ori egiteko eman zuan arrazoia: ezkontza zibilla debaldekoa zan ezkerero, alkarrekin bizi ziran gizonezko ta emakumezko guztiak ezkonduko zirala, eta orrela ez zala aurrerantzean ainbeste sasikumerik izango. Ezkontzarik kobratzen ez dala ere, oraindik sasikurneak Benezuela'n ugari dirala ondotxo dakigu,

baiñan alatagutziz badu puntta zorrotza, guretzako, Guzman Blanco'ren arrazoi orrek.

Benezuela'ko erriak, arras maite izan zuan lendakari au, erria beste lurraldeetan bezain katoliko berna ez zalako, eta lendakariak Benezuela'ren alde ederki lan egin zualako. Alatagutziz, erria katolikoa da. Ori bazekian Lendakariak, eta ez bait zan adimenez motza, sumatu zuan bere bide artatik jarraituaz Elizarekin tankatako aundiegi bat izaten bazuan erriaren naimen ona galdu zezakeala, eta eman zuan amore bere asmo biurrietan. Eman zuan amore Erroma'k ere. Ameriketako agintariek, katolikoekingo pakerik gabe gobernatzerik ez zegoala ikusi ba'zuten, ikusi bait zuan Erroma'k ere gobernu liberal aiekin konpondu gabe Ameriketetan lan egiterik ez zuala, Mexiko'ko gertakizunek iriki zioten Erroma'ri begia.

\* \* \*

—ELIZAREN TTXARKUNDEA: Mexiko aipatu dugu. Ikus dezagun nola jarraitzen zuten Mexiko'n gauzak. Porfirio Diaz'ekin pakean utzi dugu an Eliza.

Ez hait zan politikalarien zigorketarekin erriaren federik orheldu, bizkor atera zan ostera katolikotasuna karriketara, Mexiko'ko katolikotasuna, batez ere peregrinazio, erromeri eta ibildeunez ornitutako katolikotasun errikoia. Ikusgarriak izan ziran, atzera berriz. Guadalupe'ko «Birjintxoaren» Tauretxera biltzen ziran erromes-taldeak. Itzuli ziran praille erbesteratuak, aunditu zan ostera gotzaigo herriekin jerarkia, eta egin ziran gotzaien kontzilioak ere...

Egia da askatasunik ez zala, aberastasuna gaizki banatzen zala, gizarteko mailen ezberdintasuna gero ta aundiagoa zala, baiña bazuan beintzat Elizak pakea eta bazuan Laterriak ere erri-barruko-pakea, «ordena»! , eta ondo konpontzen ziran gotzaiak eta Porfirio Diaz diktatorea.

Bizirik zegoan ordea Mexiko'n liheraltasuna, eta ez, ain zuzen, Tuarez'ena, marxikeriz gorrixututako beste liberaltasun berri bat baizik. Urduri zeuden militarrek ere Iheramerika guztian, baiña batez ere Ekuator'en eta Mexiko'n; Aherriaren larrutik beren buruak aunditzearren tiroka asteko, beti gerturik egon diran militartzarrak!

1910'ean piztu zan Mexiko'n iraultza Frantzisko Madero buruzagi zuala. Odola ostera Mexiko'ko zelaietan. 1911'ean Porfirio Diaz, lendakaritza Frantzisko Leon de la Barra'ri utzita, iges dijoa atzerrira. Urte ortan bertan, Frantzisko Madero lendakari da. Baiña aurka ditu, alde batetik, porfiristak, eta, besterik, batez ere Emiliano Zapata iraultzalari errikoia, len bait len aberatsen lurak nekazari landerren artean zatitzea eskatzen duana. 1913'an, purfiristek garaille ziran eta eriotzara galdu zuten Madero. Laskurain'dar Pedro'k artu zuan lendakaritza, berealaxe Bitoriano Huerta, porfiristen buruzagiari emateko. 1913'an gaude oraindik, baiña Huerta'ren aurka jeikitzen dira Emiliano Zapata, Pancho Villa eta Benustiano Carranza; eta urrengo urtean,

191-Pean Mexiko'ren nagusi ziran, baiña berealaxe beren artean asarretzeko: Carranza alde batetik, Villa, eta Zapata bestetik.

Pakeak egiteko bildu zan Aguascalientes'en «la Convención Nacional Revolucionaria», eta Billera onek Eulalie Gutierrez'i eman zion lendakaritza. Aldegin zuan Carranza'k Mexiko uritik, baiña ez zuan billera aren erabakirik onartu, Villa eta Zapata ere laister Gutierrez'en aurka ziran, eta Roke Gonzalez Garza izendatu zuten lendakari. Urte artan baditugu Mexiko'n 3 lendakari (Gonzalez Garza, Mexiko urian; Gutierrez, San Luis-Potosi'n; Benustiano Carranza Berakruz'en; eta 2 Iraultzaren-Buruzagi: Pantxo Villa, eta Zapata. Carranza'k irabazi zuan jokua Laterri Alkartuek ari lagundu ziotelako. Lz zuan Mexiko guztian agindu, bere etsaiak tiroka jarraitzen zutelarik; baiña bera artu oi da Laterriko Lendakaritzat edestilarien artean, 1915'etik 1920'eraño dijoan denhorarako.

Bost urte oietan garrantzi aundiko hi legei eman zien sortzea: 1915'eko «Lev de la Reforma Agraria» *ed.*) «Nekazaritza Berriztatzekeo Legeari» eta 1917'an Keretaro'n egindako Oñarri Legeari, Knstituzioari, oraindik ere Mexiko'ko Oñarri-Lege dan Kostituzioari. Aurrera eraman zuten ordea etsaiek borroka, eta 1920'can Carrantin gorputz zan, maltzurkeriz erailla. Adolfo de la Huerta'k artu zuan lendakaritza eta orduantxe amaitu zan Mexiko'ko Traultzaren aro odoltsua.

Iraultza! Izen santua duzu Mexiko'n Iraultza. Oraindik ere iraultzalari-zat dauzkate ango agintariek haren politik-era ta beren oldozkera, baiña egiazko Iraultza, Porfirio'ren erortzetik Carranza'ren eraiketaraiño sei urteen luzaroa iraun zuan gudate gordiña izan zan, eta, politikaren aldaketari dago-kionez, egi-egi-zako iraultzalaria, Benustiano Carranza duzu.

«Lev de Reforma Agraria»ren bidez egin zuan lur-zatiketa baiño geiago ajola zaigu guri Elizaren edestirako, Keretaro'ko Kostituzioaren hidez katolikotasunarentzat gaur arte egiñik utzi zuan giro-aldaketa. Ona, Oñarri-Lege aren atalik garrantzitsuenak:

Elizari Pertsonalitatea ukatzen dio, ots, Legearen aurrerako Nortasuna. Orrela, legearentzat Eliza ezer ez da; ez da Elizarik Mexiko'n, ango Legearentzat'

—Nortasunik ez dualako, Eliza ez daiteke ezerren jabe izan; ezta Elizako Anaidiek *eta* Lagundiek ere.

Jauretxeak, parrokiak berak, eta gaixotegiak une hai, Latcrrriarenak izango dira.

—Elizak ez du, ez erakusteko, ez gaixoen edo landerren aldeko karitate-ekintzarik egiteko, eskuhinetik izango; ezta apaizek ere, ez dute orrelako eskuhiderik izango'

—Laterri bakoitzak, (Mexiko, Laterrien Alkartasun bat bait da), izanen du bere lurraldean zenbat apaiz hear dituan erabakitzeko eskubidea.

—Ibildeunik eta beste inolako katolikotasuna-karriketara-atcratzerik, ez da zillegi izango.

—«Botoak», edo erlijiosoen eskeintzak, debekaturik gelditzen dira, eta era berean apaizen «zelibatoa» edo «ez-ezkondu-bearra».

Oiñarri Lege ori ez da sekulan bete izan, baiña apaiz asko, praille eta lekaiume ugari, eta baita gotzai batzuk ere atzerrira igesegin bearrean aurkitu ziran. Artean sutan ziardun mendi-baso-urietan izkilluekingo Iraultzak, eta baita, aldi berean, pentsakizunaren Iraultza ixillagoak ere.

Leendik ari zan kulturadun sail txiki langille bat Marx'en oldozkera Mexiko'n ereiten, eta ereintza orren zitua zan Keretaro'ko Oiñarri Lege au ere puntu askotan. Orduangoa da Mexiko'n elertiak erri xearen kulturari, bertako inditarren oiturei eta Colon etorri aurretiko Erri zârren jakintzari erakutsi oi dion zaletasuna. Kontserbatzailleak Ispanismoa, ots, Españitasuna eta Katolikotasuna gauza bat bera aitortzen hait zituzten, Españi'tiko kultura birrintzean katolikotasuna makaldu aal izango zutela uste izan zuten sozilogiaren miñak ukittutako jakintsu gorrixka aiek.

Obregon'dar Albar'ek, izan zuan Carranza'ren legeak betearazteko asmoa; ez zan, ordea, asmoetatik egiteetara igarotzen saiatu. Urrats ori emango duana Plutarko Elias Galles izanen da, (1924-1928).

'enerai onek, erabat katolikotasuna Mexiko'tik garbitu nai izan zuala dirudi. Errepublikari artako apaiz eta elizjende guztien zerrenda zeatz bat egitea agindu zuan lendabizi. Gero, Laterriko errialde bakoitzean zenbat apaiz izan zitezkean xedatu zuan. Ona zenbat apaiz izan bear zuan Mexiko'n Lendakari amen ustez: Apaiz bat, 10.000 kristaudentzat, toki batzuetan; 15.000'rentzat berriz beste batzuetan. Carranza'ren Keretako'ko Oiñarri-Legea eskuetan, kristau-eginkizun orori oztopo jarriaz, aize-faltaz nai izan zuan Eliza itoarazi'

Ark uste baiño astunagoa zan ordea bizkarren gainean artu zuan lana. «Interdium» deritzan zigorra jaurtia erantzun zioten gotzaiek, ots elizkizunak egitea debekatuaz. Igarri dezakezu nolako zirrara eragin zion debeku arek biotz-muiñik biguñinenean, mexikoarra bezain erri eraspenkoi bati eta nolako zuzmurrua jeiki zan Jaurlaritzaren arka Kaliforni'tik Guatemala'ra. Itxutu zitzaigun Galles eta asi zan katoliko-espetxeratzen eta fusillatzen. Azkeneko auen artean, fusillatuen artean alegia, ezaguna da Migel Agustin Pro inakitarra' Beste elizgizon eta katoliko askok, iges egin zuten; eta Erroma'n ere Pio XI'ak «Iniquis Afflictisque» entziklikaren bitartez oiue egin bearrean aurkitzen zala uste izan zuan.

1927'ko Entziklika ortan, «persecutio dioeletiana» izen-ipuritzen dio Galles lendakariaren arikerari: «Diokleziano'naren antzeko zigorketa». Aitasantuen oiuek baiño geiago ikaratu zuten Galles, Guadalajara-inguruan jeiki zitzaizkion «eristeros» izeneko borrokalarien tiro-otsek. Iru **une** iraun zuan «gurutze-gudari» berri auen guduak, 1926'tik 1929'ra. Erriko jende katolikoak gustora begiratzen zien-da, lan beltza izanen zan Jaurlaritzarentzat

diek mendcratzea, gotzaiak, Jaurlaritzarekin itun-egiñaz, izkilluak uzteko agio-  
du ez baliete' Asarre gelditu zan gotzaiekin erria.

Obregon'ek artu nai izan zuan Calles-ondoren bigarren aldiz lendakaritza, baiña crailla izan hait zan, Emilio Portes Gil eseri zitzaigun Laterriko Aul-  
kirik erpiñekoenean. Begi zorrotzez, katolikoekin pakeak egin nai izan zi-  
tuan; eta baita lortu ere, lortu zituan neurri ederrean bere asmoak. «Modus  
vivendi» edo ainbesteraiñoko «biziera» bat beintzat osotu zuan; haiña Len-  
dakariak nui baiño aurrerago joan zitzaizkion bere Alderdiko politikoak. Ba-  
ziran auen urtean Mexiko'ko katolikotasun guztia 50.000, geienaz 100.000  
pertonetara moztu nai izan zutenak, eta oui lortzearren, laterri-kargu guz-  
tietatik bere burua katoliko aitortzen zuan oro jaurtitzca pentsaturik zeu-  
katen.

Altxa zuan aurka bere abotsa Paskual Diaz Mexiko'ko Goigotzaiak, 1931'-  
an; baita. Pio Xi'ak ere 1932'an «Acerva Animi Anxietudo» entziklikaren  
bitartez, baiña aurrera jarraitu zuan ekaitz arek Portes Gil'en ondorengo bi  
Lendakarien denboran ere. Pascual Ortiz Ruhio (1930-19321 eta Ahelardo  
Rodriguez (1932-1934) izan ziran Lendakari aiek. Mexiko'ko Goigotzaia , lèn  
aipatutako Paskual Diaz, espetxeratua izan zan, eta kendu zitzaizkien apaizei  
laterkide-eskubide guztiak.

Larri zan, iñoiz *ez bezala*, Mexikoar-Eliza. Eta ez zitzaion arrazoirik falta.  
Jaurlaritzaren nagusi zan Alderdiak, «El Partido Nacional Revolucionario»k,  
1934'ean, Mexiko marxismora eramateko asmoa agiri-agirian azaldu hait zuan,  
auteskundeak irabazten ba'zituan ikastola guztietan «la doctrina socialista sos-  
tenicla pur la RevoluciOn Mexicana» erakutsiaraziko zuala oles egiñaz. Berea-  
luxe idatzi zuan Laterri Alkartuetutik, \_\_an bait zegoan Calles'en denbora ez-  
kero erbesteratua\_\_, Jesus Manriquez y Zarate Iluejutla'ko Gotzaiak «el  
monstruo bolchevique»ren aurka. Geitxo berotu zitzaion pure Gotzai ari to-  
ma; «traida por la conjuración judeo-masónica» zala, esaten zigun hâ, «pizti  
boltxehiketar» ura.

Lrbestera jaurtia zegoan, Aitasantuak Mexikora bidalitako Ordezkaria  
ere. Era berean beltz ikusten zuan ark Mexiko'ren etorkizuna, «aundia omen  
ban bâ komunismora amiltzeko arriskua».

Auteskundeak, errez, «Partido Naeional Revoluejonario» zalako aren len-  
dakari-gai Lazaro Cardenas'ek irabazi zituanean, uste izan zuten Katolikoek  
Calles'en denborako eraso gañean zutela. Baiña Cardenas ez zan Calies'en  
antzeko gizona; naiz clizjendeari arek bezain oker begiratu, politikarako as-  
koz begi zorrotzagoa hait zuan. Abertzale sutsua, Mexiko'ren aunditasuna nai  
zuan beste ooren gaindik Cardenas'ek, eta aunditasun ori lortzeko erri-ba-  
rrungo gentza.

Berez, gogo zuzeneko antiklerista izan zala dirudi; au da: Eliza errien  
aurrerapenaren etsai zala bene-benetan uste zutenetakoa. Ala ere laister oartu  
zan Elizarekin arremanetan asi gabe Mexiko'n ezer egiterik ez zuala izango,

arriturik ikusi hait zuan ainbeste zigorketan ondorean nolako indarrarekin jeiki zitzaizkion katolikoak Alderdi berri bat osatuaz, beren sinispidea ostera arriskuan zala uste izan zutenean. Alderdi au «La Unión Nacional Sinarquista» izan zan. 1937'an eratua, eta Mexiko'ko erritar txiro katolikoan artean, batez ere nekazarien artean, arin eta ugari zabaldu zana.

Cárdenas ez bait zan gañera komunista, —naiz, ikusi dugun bezala, Aita-santuaren ordezkaria komunismoaren bildur izan—, hein lendakaritza artu, Elizaren aurkako legedi guztia bazterrean utzita Mexiko goratzearren Elizarekin alkarriketa paketsuan astea erabaki zuan. Orrela iritxi zan an, Eliza, atsedenean bizi eta lan egin aal izatera, beste Iberamerikako Laterrietan bezala. Baiña atsedeen-aro au atal onen azkeneko puntua hait dugu ikus dezagun nola zebillen Eliza beste Laterri aietan irugarren puntuan: liberaltasun ezkeztarrarenean'



Esan bearrik ez da ez zirala liberalak iñon Mexiko'n bezain zipotzak izan. Azaldu dugun bezala, bazter guztietan so-egin oi zien kezka aundiarekin Elizari, baiña ez zioten danetan era berean eraso. Obeto esateko, ez zioten eraso; Eliza ezertarako aintzat ez artzea, eta ezkontza-gaietan edo erakuskitza-gaietan Eliza Tik ez balitz bezala gobernatzea aski izango zutela, iruditu hait zitzaien.

Agian, Mexiko'ren ondorean Laterririk nâsiena Ekuator izan genduan, iraultzatik iraultzara ihillia dugu bâ Errepublika txiki bizkor au, Garcia Moreno erailla izan zan ezkeror; baiñan emen ere Alderdiek odolkeria eta indarra beren artean bata bestearen aurka bakarrik erabili zuten. Elizaren aurka, legea izan zuten izkillu. Orrela, erabat baztertu zuten Eliza Laterriko bizitza ofizialetik.

Barbada, Ekuator'koa baiña naasiagoa eta odoltsuagoa izan da oraindik Bolibi aberats gaixoaren edestia, baiña Iberameriketako errialderik goseti ta atzeratuaren ontan ere, Elizaz aztutze utsaz konformatu ziran agintariak'

Mende-erdi baten luzaroan orrenbeste Laterri bereizien artean noizbeinka Elizaren aurka indarrezko kolpe gaitzarik falta ez zala esan bearrik ez da. Ala, Kito'ko Goigotzaiaren erailketa 1877'an, Buenos Aires'ko Goigotzaitegiaren eta uri artako iñakitarren ikastolaren erretzea 1875'ean, edo Silbestre Guevara Karakas'ko Goigotzaia indarrez kargu tik jaurtitzea, 1879'an.

Baiña, poliki-poliki, zenbat eta mendea aurrerago, gozatzen joan zan Laterri guztietan Elizarentzat giroa, Mexiko'z landa. Ikusi dugun bezala, Mexiko'n irauin bait zuan luzeenik eta gogorrenik eliz-zigorketak.

Auetekek izan daitezke Iberamerika'n aro artako Elizaren eta Laterrien arteko ezaugarririk garrantzitsuenak:



Oparoa da Laterri guztietan aberastasuna, baiña oso jende gutxiaren eskutik dagoan aberastasuna.

--Txirotasun gorrian bizi da erriko jende landerra.

Aberatsak, izugarri aberatsak dira, gero ta aberatsagoak, liberalek eta baita kontserbatzaileek ere ekonomigintzarako eskatzen duten askatasun orokorraren erruz. Ondorioz, beartsuak, zero beartsuak dira, gero ta txiroagoak diruz, askatasunaren beraren erruz, eta gero ta ugariagoak kopuruz.

—Liberalak dira Jaurlaritzetan agintari, baiña kontserbatzaileekin pake goxoan bizi dira. Baita Elizarekin ere. Eliz arek, España'ko Elizaren alaba dalarik, ez hait du ekonomiaren okertasunak ikusteko aalmenik. Askí itxu genduan orduan oraindik Eliz osoa ere okerkeri aiei bear bezala begiratzeko.

—Eliza ta Laterria alkarrengandik bereizirik bizi dira. Jaurle liberalek ez diote arrezkero Elizari bildurrik, baiña ezta begirune aundirik ere; askoz gutxiago zaletasunik edo adiskidetasunik. Alderantziz, iraiñezko irriparez so-egin *oi* diote oraindik.

Askatasun osoa dute protestalarien Eliz guztiek apostolutzarako.

Legedia, Elizaren aurkakoa da, baiñan ez du inok inon legedi ori be-  
tearazten. Orrela, ez da Elizaren eta Laterriaren artean zalaparta aundirik  
sortzen. Laterriaren barruan Elizarik ez balitz bezala daukagu politikaren jar-  
dunketa eraturik.

—Liberal kulturdunen hurubide nagusia Comte'rcn positibismoa da, au da,  
zetzuen bidez ezagutu, neurtu ta mugatu ta gero arrazoi utsez argitu daite-  
keana bakarrik egizat eukitzea. Filosofikera orri dagokionez, begi xamurra-  
goz so-dagiote liberalek protestalarien Elizei, Eliza katolikoari baiño. Alde  
batetik, protestalariak razionalistagoak dirala iruditzen zaielako. Bestetik, li-  
beralen pentsaerarekin protestalariena kidekoagoa ikusten dutelako. Tzan ere,  
protestalariantzat aberastasuna Jainkoaren onespina baita! Kapitalista libe-  
ralentzat bai al daiteke gogoeta atsegiñagorik?

Orri eskerrak, astiro, baiña gelditzeke, ari da protestalaritza lurralde  
aietan zabaltzen.

—Uri aundietan berriz, proletaritzta da esnatzen ari dana, munduan beste  
inon baiño aundiagoa baita Iberamerika'n aberatsen eta txiroen arteko osin  
zabal sakona. Giroa gerturik dago, eta noiz nai sortu daiteke iraultza gogo-  
rra, an edo emen iraultzagille trebe bat agertzen ba'da.

—Iraultza gert'errez orren pizgaillu litzake, lurralde aietaraiño iritxi dan  
marxitarren oldozkera.

—An, bertako jatorrizko jendeek, inditarrek, ez dute, egiaren egiz, *ezer*-  
tarako eskubiderik. Jaurleak ez dira aietaz ardurutzen. Itzez bai, bateren  
bat; ekitez, inor ez. Inditarrek ez dute apaiz eta eraille mixiolarien babesa  
besterik.

—Eliza, oartzeko, arazo larri oietaz landa bizi da. Eta orrela jarraituko du, gure mende onen erdian bildu clan Medellin'go Batzar ospetsura arte; lenagoko igikunde motelek aipatzerik ere geiegi merezi ez dutelarik, Medellin'en ikusi bait zuan bere burua txiroen alde lan egitera beartu bearko zuala, Krisro'gandik jasotako mezuak ber-berak ori eskatzen ziolako. «Askapeneko Teologia» izango zaigu, bere akatsak eta gutzi, berbizkunde orren azken urratsa, orain arte beintzat.

Ots ordea, Medellin'go Batzarraren aurretik ere izan zuan Iberamerika'ko Elizak beste era bateko berbizkunde bikain bat.

Ez-berdiñak ditugu berbizkunde ari sortzea eman zioten gertakizunak eta igikundeak. Aipa dezagun lendabizi 1899'an XIII Leon'ek Erroma'n bildutako «Iberamerika guztiko Gotzaien Kontzilioa»; arras zuzpertz bait zituan Billera ark amerikar-kristauen biotzak'

Alatagutziz., ez zan naikoa izango Billera ura bakarrik. Zorionez ordea, ernetu zan XIX mendearen bukaeran eta XX'aren asieran, gogo-barruko urduritasun bat Iberamerika'ko jende buruz-landuaren artean. Positibismoz akiturik zeuden jende landuak. Positibitzak mundu ontako gauzak eta mundu ontako aberastasunak bakarrik aintzat artzen hait ditu, aberastasunaren serbitzurako lanabes animarik-gabea biurtzen zuala gizakumea, iduritzen zitzaien jende landu aiei; mundua, ondorioz, olatzar aundi bat biurtzen zuala; dirua berriz, olatzar biurtutako mundu orren errege bakar egiten zuala, eta gizadia, orrela, izpirituaren argi oroz antxu, materialismorik gogorrenaren atzaparretan uzten zuala.

Antzutasun orren aurka jeiki zan Mexiko'n Antonio Caro, ta bereala alkartu zitzaizkion beste idazle batzuk ere. Auen artean danetan ospetsuena Uruguai'ko Jose Enrique Rodo izan zan, Amerika'k orduan zituan luma-gizonetan yavoenetako bat.

Idazle auek ez ziran katolikoak, ez ta erlijiosoak ere; agnostiku utsak ziran. Aien gogo-iraultzaren eragille, Ernest() Renan eta Enrike Bergson ziran. Positibitzaren aurka altxa nai zuten Gogoaren Nagusitasuna. Gogoaren Nagusitasun ori, grezitar zaarren umanismoa zan: giza-zaletasuna; jakintzaz, elertiz, eta erti oroz, eta izadi-legezko moralitatez, oretutako umanismoa.

Baiña poliki-poliki katolikotasunera joan ziran; Katolikotasunaren edertasunari begi arrituz begiratzera, lendabizi Sinismen gabea zan 1909'an igurutzearen aide! jeiki zanean, aipatu dugun Jose Enrique Rock>. Uruguai'ko Jaurlaritzak gurutzeta ikastoletatik kendu nai izan zuan. «La fuente de la civilizacion hispanica y latina estÀ en el Cristianismo» oles egin zion arek: «Ispaniar cua latindar gizabidearen iturburu kristautasuna da». Oiartzun aundia esnârazi bait zuten idazle ospetsuaren itzak, atzera-egin bearrean aurkitu zan Jaurlaritza. Beti ere ain indar pattalekoa izandako Eliz uruguaitarra bazegokean oraintxe pozez, ez bait ziran gutxi aldatu gauzak Uruguai ezkertari li.beral antan!

1910'etik 1930'era idazle «gizazale» aiek danak Elizara etorri zitzaizkigun, teologian errotzen ez dan jakintza gezurrezkoa dala, eta jainkotasunean oiñarritzen ez dan gizarterik izan ez ditekeala argi-argi ikusi ondorean. Jose Vaseoneellos eta Alfonso Junco Mexiko'n, *eta* Alberto Herrera Uruguai'en, ziran orain igikunde aren idazlerik bikaiñenak. Eta bi filosofilar Brasill'en: Jaekson Figueiredo eta Alceu Amoroso Lima, itzal aundiko gizonak biak, positibitzaren, masoikeriaren, eta erlijioari-buruzko-arduragabekeriaren pipiak jotako gizarte aundi aren artean!

Baiña gogo-hizitaruntzko igikunde dizdiratsu au ere ez zan naikoa izanen kontserhatzailleak, liberalak eta Eliza baiera crakartzyko, Leste irugarren gertakizun batek eragin ez balio. Irugarren gertakizun au marxikeriaren iristen izan zan. Ordurarte alkaturik zeuden liberalak eta kontserbauailleak politika-gaietan, batak eta besteak, —; oi, agintearen goxoa! —, agintaritzaren jabe txandaka beti hi alderdietako jendea izateko, adiskide zarren modura alkar era paketsuan arturik, aurretik auteskundeak egoki gertutzea, eta, gero, hearezkoa ba'zan, autarkiak lardaskatzea konbeni zitzaicela oarturik hait zeuden.

Alkaturik zeuden era berean ekonomiari-buruzko auzietan ere, erri-guztitiaren baitan kapitalismo-gosea ernâraztea, beren aberastasunak arriskuan ipintzea eta ordurarte ain ugari izan zuten langillei merkea betirako galtzea izango zala ere ikusten bait zuten. Eta gozoa bada agintea, ez bait da minkatza aberatsa izatea!

Elizari-buruzko gaietan alkartzea bakarrik falta zitzaien. Marxitasunaren ctoerrerak egin zuan, ;uso gaiñera! alkartze ori; marxitarren mistikari erantzuteko bearrezkoa bait zuten Leste mistika bat: Elizaren mistika!

Benezuela'n ikusi zuten lendabizi politikalariek Elizak eskeintzen mien egokitasuna ori. Ala egin al izan zuten an Billera Nagusi bat Laterri guztiko gotzaiek 1904'ean. Elizaren eta Laterriaren arteko arremanetan aldakuntza izugarri bat gertatu zalaren aztarna zan ura. Laister, Vicente Cornez zan agintari, eta onen diktaturtza luzean (1908-1935) eztaietan hezela hizi izan ziran Eliza ta Laterria. Garrantzi aundia izan zuan Iheramerika guztirako Benezuela'n gertatuak, aspaldidanik, errepublika ura hait zan ezkertienetan ezkertienetako, naiz ezkertasun txukunekoa izan.

Bereala, 1910'ean Porfirio Diaz'cn aurka Madero jeikitzean, sutan zan Mexiko'n Iraultza: marxikeriz gorritzutako iraultza. Ikaratu ziran Theramerika'n Jauntxo guztiak, liberalak eta kontserbatzailleak; eta Elizari ere Jaur-larien laguntza bearrezkoa zuala iduritu hait zitzaion sozialismoaren ugaldea geldiarazteko, irikiak zeuden adiskidetasunerako atar'ak; orrela 1930'aren inguruan adiskidetasun oiek egiñak zeuden lurralde aietan danetan. Zutik dago adiskidetasun orren adigarri, Rio *de* Janeiro'ren gaiñean, Josu-Biotzaren

irudi bikain galanta, bizirik daude bait'are guztion oroimenean lurralde aietan osatutako elizkizun ospesuek, adibidez, Pacelli Kardenala lendakari izan zuan Buenos Aires'ko Eukaristi-Batzar Nagusia.

Langillediak ekar zezazkean zcmái eta arriskuei aurpegi emateko « korporazioetar» jo zuten, adiskidetasun-giro artan, jaurlariek eta elizjendeek batera. Ez da arritzekoa, Europa'n bezala bildur bait zitzaien an ere langilleak bakarrik osaturiko alkartei. Gremio, edo kofradi, edo korpozaio aiek Laterriko Jaurlaritzaren eskuetan zeuden, eta korporazioetako langilleak lansarien jasoketaren orde bestea emaitza batzuk jasotzearekin korforme gelditzen ziran; emaitza oiek, lan ohearen trukeko eskupekoak ziran, adibidez; edo bizitzeko toki merkeagoak, gaixoardietarako sendagaiak, zartzarorako laguntza... Bide ortatik, jakaña gero ta geiago ari ziran langilleak ugazabcn mendetasunera jausten.

Ondo zekiten an kapitalistek, —liberalek eta kontserbatzailliek—, langilleei lan-sari ziur bat ematen bazitzaien indar aundia artuko zutela auker eta, korporazio «gurasokoi» aiei bizkar-emanda, egiazko sindikato borrokarietan bilduko zirala.

Ta, ez yuan Iberamerika'n inork sindikatorik gura: ez liberalek ez kontserbatzailliek ez gotzaiek'

Alatagutziz, naiz zuzentasun ber-beraren araura langilleentzat egokiak izan ez, ezer-ez baiño geixeago haziran-da, ez ziran korporapen aiek kaltegarriak izan. Babesa aurkitu zuten beintzat beraietan langilleek. Gogora dezagun nola gelditu ziran len babes ori gabe Iberamerika'ko jende lander guztiak, liberalek XIX mendean korporapen aiek galazi zituztenean.

Danadala, asmorik zintzoenarekin sartu ziran korporapenen birbizkunde artan gotzaiak bazter guztietan; Tsile'koak batez cre. Oroi ditzagun bi gotzai, Crescendo Errazuriz Santiago'koa ta Jose Alejo Eizagirre, La Serena'koa. Oroi ditzagun iru apaiz ere: Franeiseo Ruiz de Balmaseda, Manuel Jose Irrazabal, eta Rafael Edwards.

Elizgizon aiek ez zuten ikusi lazarora korporaketa arek Elizari naitanaiez ekarri zezaiokean kalterik, eta biotz-biotzez eman zioten beren onespina. Soilki, korporapen aietarako esku geiago eskatu zioten, Elizarentzat, Jaurlaritzari; aien ametsa Eliza langillediaren alkarte guztien zuzendari egitea hait zan: Korporazio «paternalista» batzuen zuzendari «paternalista»!

Ez zuten beren eskaririk lortu aal izan. ¡Zori onean! Bestela, laister langilleak gurasokeri aietaz aspertuta sindikatoak eratzean, Elizaren aurka jobearrean aurkituko bait ziran zuzen-zuzenean, korporapen aiek deseginda sindikatoak aurrera atera aal izateko!

Era berean, ez ziran gotzaiak oartu Jaurlaritzekingo adiskidetasun aundiegia arrisku bildurgarria dirala beti Elizarentzat, batez ere Agintaritza osoa

gizon bakar baten eskuetan dagoan uneetan, naiz gizon ori Benezuela'ko Vicente Gomez, Arjentina'ko Juan Domingo Peron, edo beste edonungo edozein diktatore izan.

\* \* \*

Totalitasun-usai geiegi izan zuan mende onen asieran katolikoek politikak erak. «Nacionalistas», esaten zieten auei: beren buruei. Baiñan Iberamerika'n, auzirik kilikagarriena, ango nazio aietako bakoitzaren «naziotasuna» zertan zegoan jakitea izan zuten ain zuzen naziozale aiek danek; ots, «la identidad nacional» billatzea: nazio aietako bakoitza zerk nazio egiten zuan jakitea.

Katolikoentzat «zer» ori katolikotasuna zan. Egia da *zertasun* orrek be-reizi baiño alkartu geiago egiten zituala ango nazio aiek danak, baiñan, danadala, Iberamerika Angloamerika'rengandik bereizteko balio bait zuan, katolikotasunean ipiñi zuten naziotasunaren oñarririk nagusiena. Katolikotasun ori, ispanitasunarekin alkarturik zekusatzen katoliko aietan integristeenak, eta nazio bakoitzaren zertasuna zintzo gordetzeko bearrezkoa etsitzen zuten autokrazia, edo, beintzat, Laterri bakoitzean Jaurilaritza gogor indartsu bat.

Liberalentzat «zer» ara, Iberamerika'ko inditarren kultura zan, teoriaren maillan beintzat. Ez noski osa ezaugarri garbia, Laterri bakoitzaren altzoan inditar kultur ez-berdin asko bizi bait ziran, eta kultura bereko inditarrak hi edo iru-lau Laterrien lurraldeetan hanaturik bait zeuden.

Batez ere Peru'n izan genduan nabarmenagoa inditar-zaleen eta ispanizaleen arteko zuloa, an liberalekin ez baiña sozialisiekkin bait zan katolikoek borroka' Bat egiten zituzten Peru'ko sozialista martxitarrek sozialismoa ta inditasuna, eta, jakiña, aiei aurpegi emateko iñon baiño geiago bateratzen zituzten katolikoek ere ispanitasuna ta katolikotasuna. Gurutzada baten antzeko zerbaiz izan zan ango elizgizonentzat, sozialismoari aurka egiteko, ispanitasuna goraiatzeta, naiz ortarako inditar-kultura gutxietsi. Orrela, inditar gaitxoek zearo galdu zuten ordurarte izan-edo zuten arrakasta motz laburra.

Alatagutziz, ez zituan Elizak inditarrak aztu. Lanean jarraitu zuten aien artean mixiolariak, maitasun aundiz eta gogo onez gaiñera, naiz aien ekin-tza, inditar aiek kristautzeaz gaiñera ispanizatzeaz *ere* geiegi maiz arduratu.

Edozein modura ere, Elizak ez zuan gurutzada antan ezer galdu. Alde batetik, Peru'n marxitar indi-zaleak oso gutxi ziralako, eta besterik, inditarrak ezertaz oartu ez ziralarik Elizarekin asarretu ez ziralako.

Alderantziz, komunismoaren aurka ain gogorki agertzen zalako, irabazi egin zuan Elizak: Politikariaren adiskidetasuna irabazi zuan: Liberal eta konserbatzaileen adiskidetasuna; ez noski irabazi txit goresgarria, komunismoa eragozi naiez, nekazari landerren ondasunaren aurka ere jarri bait ziran be-

raiek oartzeke elizgizonak 192-Taren inguruko urteetan. Ez dugu zertaz arritu «Askapenaren-aldeko-Teologia» Peru'n sortzen dala ikusten ba'dugu.

1945'garren urtean jaio zitzaigun Peru'n bertan igikunde berri bat, jende landuaren artean. Igikunde onen aburuz, «el mesticismo» omen zan Peru'ren nortasuna: Inkatarren eta españiarren odol eta kulturaren nasketa. Ondorioz, lortu zuten ostera inditar-jendeek jakintsuen eder-iritzia, teoriaren maillan, beti bezala, beste eguneroko-bizitzaren-mailla gogorrean, praille mixiolariak bakarrik urbiltzen bait ziran inditarrengana.

Peru'n bezain gogor sartu zan Arjentina'n gotzaidia «identidad nacional» zalako aren iskanbillean, esan ere esan bait daiteke an sortu zala lendabizi zentzurik gabeko jostaketa txolin ura. Izan ere, nazio aiek ez bait dute nazio-kideen sentipenaz landa, beste «izateko-arrazoirik»!

Danadala, «la cultura eriolla» aurkeztu zuten Arjentina'ko katolikoek Arjentina'ren nortasun-zertasunen adigarri lez; Arjentina'n jaiotako españitar-semeen kultura. Onako auek ziran berriz kultura orren zutabeak: katolikotasuna, ispanitasuna, Jaurlaritzaren sendotasuna'

Arjentindasunaren etsai bakarra berriz, «la ideologia antieristiana aportada por la inmigración», omen zan; 1.854'ean asi omen zan pentsaera biurri ori zekarten europatarren etorrera. Ordurarte katikoa izan omen zan Arjentina. Arrezkero biurtu omen da, bere nortasuna galduta, erlijiorik eta moraliterik gabea, Aldaketa orren errua, etorriberriek ekarritako liberalkeri ta marxikeriarena omen da.

Egia esateko, gutxi ziran an martxitarrak, baiña asko gogortu bait zan liberaltasuna, batez ere 1916'ean «Unian Civica Radieab» Alderdia sortu zan ezkerero, bildurtu ziran Arjentinaren aundiki aberatsak, baita liberalak izan ziran aiek ere, eta gustora alderatu ziran katolikoek naziotasunera eta naziotasun orren babesle gotor agertzen zan Elizarengana. Orrela eraman zuten Lendakaritzara, 1930'ean José Félix Uriburu.

Nai izan zuan onek korporatibitzan oiñarritutako Laterri bat eraiki, baiña bere asmorik ezin lortu aal izan zualako, beste buruzagi batengana jo zuten eskubitar naziozaleek: Juan Domingo Peron'engana; eta, 1946'ean, Lendakari zan au auteskundeetan. «Serai el Jefe que liberaré a las masas de la alienación del liberalismo, del socialismo y del comunismo», idatzi zuan Arjentina'ko nazionalisten artean idazlerik yayoena zan Julio Meinvielle apaizak.

Eskubitar katoliko auek gura zuten Laterriak badu Franko'k España'n eraiki zuanaren antza, laterkideek ez bait zuten zuzenki diputadu aukeratuen bitartez politikan parterik artzen, korporazioen bitartez baizik, ots: sendien bitartez, udalen bitartez, sindikatoen bitartez, eta beste orrelako lan-alkarte edo kultur-bazkuneren bitartez. Parlamentua ez zan erriak aukeratutako ordezkarien billera Korporazio oiek bidalitakoena baizik.

Asko galdu zuan Elizak, gotzaiak eta apaizak «identitate» auzi ortan ain

buru-belarri sartu ziralako, emen etsaiak ez bait ziran Peru'n bezala, marxizale-sail txiki bat eua, --naiz orduan ia-ia gizakume izatera ere iritxi ez— noizbait asarre jeiki zitekean inditar kupigarricn multzoa. Emen etsaiak, inmigrazioko jende azkar, trebe, ausarti, borrokalariak ziran, eta menderdi batean agintzen egon ziran liberalen alderdiko jende landu sail ugariak, politikarako eua kultur-gidaritzarako almen aundiaren jabe ziranak.

Aukeratu ere, alako buruzagia aukeratu hait zuten an korporaziozaleek! Peron!, neurriaren zentzurik gabeko gizona, inmieratzaille eta langiieen onginaia laister-batean irabaztearren, ekonomiaren barrutian egin leikean miraririk aundiena, — Arjentina bezain errialde aberats bat txirotasunik makurrenera ondatzcko miraria — egiteko gai izanen zan gizona!, eta liberalen onepena berceganatzearren Elizarekin asarretzeraiño iritxiko zana. Ez bait zan ain tentela Peron Arjentina katolikotasun utsa ez zala ez ikusteko inmigraziotik etorritako jendetz a urduri baliosoa ere bezala!, eua jakintsu liberalen sail ugaria ere bai!

!Baiña berak uste baiño indar geiago zuan Elizak. Eta gudarozteak!

Ederki konpondu ziran Eliza ta militarren Jaurlaritza, —Leonardi aurrena, eia Aranburu gero, Lendakari zirala—, 1955'an militarren kolpe batek Peron bota zuanez gero.

Pedro Aranburu'k eman zion Elizari ordurarte Elizak iñoiz lortu aal izan ez zuana: Unibersitate Katolikoak iritzeko eskubidea.

Peru'n bezala, «Nortasunaren Auzia» «El problema de la Identidad Nacional» Mexiko'n ere Tnditar eua Ispanitar kulturen artean izan zan eztabaidatua. Eskubitarrak emen «Sinarkistak» ziran, liberaltasunaren etsaiak baiña batez ere gizarte-arteko-maillen-borrokaeren etsaiak, emen bene-benetan marxitarrek bait ziran iraultzalariak.

Sinarkisten utsunik aundiena, eskeintzen zuten egitamu edo programaren gaiegizko mistikeria izan zan; eta baita egitamu aren geiegizko erretolika ere, maitasunaz, anaitasunaz, eta espiritualitateaz besterik ez bait ziran an mintzatzzen. A!, onbide oiek danak «Ilsipanismo» itzean bateratzen zituzten.

Oartu ziran gotzaiak egitamu orren kixatasun-faltaz. Ikusi zuten, aurrean zeuzkaten etsaiak txantxetako gizonak ez zirala, 1910'cko Iraultzaren semeak baizik: 1917'ko Oñarri-lege marxikoa harrendik i.xillean mamiarazi zutenak. Gogoan zeuzkaten agintari eskubitarrekin geiegi alkartu izateak Elizari Mexiko'n ekarri zizkion kalteak. Gaiñera, batez ere Cardenas lendakaritzara igo zanetik, sumatu zuten arek pake-egiteko zekarkian asmo zindoa, eta politikagintzatik urruti gelditzea erabaki zuten.

Ez ziran oker ibilli. Erbesteratu guztiei atek iriki zizkien Ciardenas Lendakariak. Utzi zitzaion Elizari pakean bizitzen eta lan egiten. Eta alako giro-aldaketa arrigarri bat gertatu zan: bata bestearen buruak zikintzeari amai-eman zioten iraultzalariek eta katolikoek; alkarrekin pakean bizi zitezkeala

ikusituzen; erriaren onerako alkarri laguntzea ere errez egin zezaketen gauza zala oartu ziran. Apaiz askok ikusi zuten iraultzalarien elburuetan azal asko, kristautasunaren argira ere, egoki-egokiak zirala, ta asi zan teologi berri baten ernekuntza, apaiz aiek izan hait ziran geroago Egoamerikan sortuko diran teologiarik kementsuen aitzindari.

Mexiko'n bezain ernea izan zan Txile'n gotzaidia. Piztu bait zan emen ere Nortasunari-buruzko eztabaida. Moteltxeagoa, bai noski, Txile'n marxizaleak Peru'koak aiña, eta aiek bezain urduriak, ez ziralako; eta inmi \*razioa Arjentina'n baiño askozaz txikiagoa, eta liberaltasuna an baiño heratzagoa izan zalako. Kultura geiago zuan gaiñera Txile'ko jende ikasiak, eta laister ikusi zuten katoliko landuek korporapena ez zala gaurko langille-jendearen arazoen askabidea, eta, baita liberalak ere «laissez faire» zaratatsu ura oso giltza makurra zala gizarteko zorionaren atak irikitzeko.

Alkar errez ulertzeko egurats orren altzoan sortu zan «Democraeia Kristiana» zeritzaion Alderdia. Eduardo Frei izan zan alderdi orren Lendakari, baiña alderdiaren filosofiaririk vavoenak bi iñakitar irau: José Ferntindez Pradel, eta Alberto Ilurtado. Ots, orde; agian, Txile'n oraindik antikle-ritasuna adimen askotan aski errotua zegoala agertzen zalako, Elizak ez zuan, ezta kristau izeneko alderdi orrekin ere, politika-eraketan sartu nai izan; eta benetan gerta zitzaion onurakorra, iñorekin politikakide ez izan nai ori.

Ez ziran ain zugarrak izan Guatemala'ko eliztarrak. Emen 1944'can piztu zan gizarte-arazoei-buruzko Iraultza. Elizjendea Mariana Rossel Goigotzaia zuzendari zuala, komunismoaren eta protestalaritzaren aurkako itz-jariozko <sup>g</sup>urutzada batean sartu zan. Gizon arentzat iraultzalarien asmo guztiak okerrak ziran. Bai beintzat arriskugarriak, komunistek ekarriak izanik komunismora erria eraman zezaketelako.

Orregaitik, Jakob Arbenz Lendakariak 1951'an, iraultzalarien gizarte-ekintza aurrera eraman nai izan zuanean bere aurka ipiñi zan Eliza agiri-agirian. Eta Arbenz'en aurka bait zeuden Guatemala'ko lur-jabe aberatsak eta gudaroztea ere, militarren kolpe batek kendu zion lendakaritza 1951'ean. Pozik eskertu zion jaurlaritza berriak Elizari laguntza, XIX mendeko liberalen legedi guziaz desegiñaz.

Oroi dezagun azkenik Kosta Rika. An, Elizaren eskuetan egon zan beti gaztediaren eziketa, eta azken ontan beintzat, iñon baiño aundiagoak izan dira an kultura, pakea, erriaren ondasuna, demokrazia eta soziologiari-buruzko auzietan pentsalarien zahaltasuna. Merezi du aipun bereizia Vietor Manuel Sanabria Goigotzai argiak; batez ere, Iberamerika'ko Elizak, azken denbora auek arte, balio aundiko gotzai askorik izan ez dualako.

Guatemala'ko Arbenz lendakariaren erortzea aipatzerakoan ez dugu esan Ipar Ameriketako Laterri Alkartuak ere aren aurka egon zirala beti. Eta ori esan bearra da, Egoameika'ren gaitzik aundiena gaiñean Iparramerika euki-



tzea bait da. Goiko Laterri Federal Indartsu arek erabiltzen dito beeko Laterrien politikagintzaren ugelak. Arek ipintzen dito, sarritan, lendakariak; arek kentzen, lore g lstokoak ez diranean. Iparramerika'ko poxpoloek piztutzen dituzte maiz aski Egoamerika'ko iraultza eta matxinadak. Eta politikaren gidaritza orokor ori beti, jakiña, Iparramerika'ren onturrerako izaten da, eta Iparramerika'ko erri-jendea ludilco jenderik aberatsena eta ongien bizi dana ba'da, neurri aundi batean, Egoamerika'ko erri-jendea ain txiroa dalako eta ain gaizki bizi dalako da, auen lepotik bizi hait dira aiek, puskatxo eder batean'

Egoarnerika'ko erri xea menderatzelco eta Laterri aietako aberastasunak Iparrare eramateko Laterri bakoitzeko aundiki aberatsetaz eta militarren agintze-zaletasunaz baliatu oi da Iparramerika. Eliza, berriz, gaur arte, aberats eta militar oien adiskide izan da. Baiña punttu orri-buruz elizjendeak baiño askoz erru geiago dute sozialistek. Ameriketako demokrazi-liberalaren truke Elizak ez zeukan an sozialtasuna beste autaketarik, baiña sozialistek Errusi'n, Txina'n, eta jaurlaritza arrapatu duten Laterri guztietan ezarritako politika-era ez zan ziurki Elizarentzat autaketa zuzena. Erljio ooren ezerezle, askatasun guztien ukatzaillc, gizakumeen eta errien pertsonalitatearen zanpatzaillc, sozialismo ori ludiak ezagutu aal izan duan diktatutzarik nardagarriena eta odoltsucna bait da.

Bere akats eta guzti Iberamerika da gaur Eliz orokorraren itxaropenik sendoena, Ez noski Iberameril:a'ko Eliza ekaitz guztietatik irtenda itxas barean dijoalako, ez orixe; ekaitz guztietatitc sendo ateratzeko kemen berriak, kemen bereziak erakusten dizkigulako baizik, Ez dira bâ rnakalak, lurralde artan gure Elizak oraindik ere idoro bearko dituan arazoak! Ikus:

1.'—Biztanleen neurrigabeko ugaritzea. Mundu guztiaren zabaleran ere Jende-ugaritze ori Industri-Iraultzaren ondorioa dugu. I750'can ludiko biztanle guztiak 800 milloi besterik ez ziran; gaurko Txina bakarrarenak baiño askoz gutxiago. Mende onen asieran, 1900'ean, biztanle aielt 1.600 milloi baziran; hi aldiz geiago 1964'garren urterako: 3.200 milloi, Mende au amaitzean 6.300 milloi izango dira. A! Jendetzaren aziketa ortan aundiena, Iberameriketako da.

2.'—Jende landerraren ugaritzea. Ludi guztian bezala, Iberameriketean erc ugaritzerik aundiena jende txiro eta ezjakiñarena da. Ain zuzen Iberamerika ortan, lenen maillako ikastoletara joan diran emalcumeeic juan ez diranak baiño bi erditze gutxiago izan oi dituzte. Emakumezko aberatsak, berriz, gutxiago oraindik; enal-eragozleak errez erabiltzen oituak hait daude. Ar dezagun adibidetzat Kolonbi'a, seguruaski, lurralde aietan katolikoena. Ba, an, goi mailletara jo gabe une, erdi mailleko emakurneetan %40'ek, Ogino'ren arauaz landa, erabiltzen zituzten enal-eragozleak, 1965'aren inguruan. Eta emakume oietatik, elizara maiz joaten ziranak elizatatik urrundurik bizi ziranak aiña baziran' Ernalmen-arazo oni-buruz, Elizaren aginduei elizkizunetara sarri-

-sarri joan oi diran emakumeek ere jaramon aundirik ematen ez dietelaren adigarri.

Baiña moralitatezko oarpen auetaz landa, txirotasuna neurri gabe ugaritzen ari dala esan nai digute zenbaki oiek; eta Josukristoren itzetan bereiziki «txi-roak bait dira ebangelizatu-bearrak», lanik asko prestatzen zaio Elizari.

3.'—Proletaritzaren azitzea. Laterri aietako nekazaritza-lurra 9 60'ean biztanleen %20'ena da. Auek izugarri aberatsak dira. Biztanleen beste %80'ak zero txi-roak eta beartsuak. Auentzat ez dago lur zabaletan bizimodurik, eta urietara bildu dira. Orrela, 4'tan eta % 5'etan azi da urietako langilledia. Eta zenbaki oiek gorago joango dira, esan dugun bezala jende txi-roaren artean jaiotzak gero ta geiago diralako. Eta baduzu ori arantza zorrotza, gaur bertan urietako langille-jendeak % 40, —ia erdiak—, eta toki batzuetan baita erdiak baiño geiago ere lanik gabe bait daude.

4.'—Komunismoaren arriskua. Esan dugun lez iñoiz baiñoaundiagoa da gaur Iberamerika'n aberatsen eta landerren arteko tartea. Aiek iñoiz baiño abera-txagoak dira, sekulan baiño pobregoak berriz auek. Orain arte, —Kontserbatzailleek, Liberalek eta Kristau-DemokrazIak—, danek utsegin dute tarte ori txikiagotzeko eginkizun hear-bearrezko ontan,

Erru aundia du utsegite ikara-sortzaille ontan Iparramerika'k, egoaldeko lurraldeak jezteari uko egiteko ez hait dago iñolaz ere prest; baiña erru aundia dute egoaldeko politikariek ere naiz liberalak naiz kristauak izan. Bearbada, politikarai auei aberastasunaren banaketa zintzoago bat egitea, geitxoegi eskatzea ere badugu noski. Iberamerika'ko Laterri bakoitza 200 sendiena dala esan oi da, eta politikari aiek danak berriz i200 sendi aberats oietako semeak izaki! Bene-benetan bearko lukete Asis'ko Prantzisko Deunaren izpiritua, aberastasun-partiketeta ura egiteko. Baiña, agian, beren aberastasuna salbatzarren, beren aberriak ondatu dezazkete; erreze hait zaieke marxitarrei, politikarai guztien utsegite galanta ikurrintzat artuaz, langilledi amorratua, eta naiko arrazoiez amorratua gaiñera, komunismoaren leitzera eraman aal izatea'

Al, eta uste dugu Iberamerika'z esan dugunak Europa'ko Laterri askoren-tzat ere balio lezakela, batez ere Españi'rentzat, Portugal'entzat, Itali'rentzat, Grezi'rentzat...

5"—Era berrien aurkitu-bearra' Egia aitortu bearra da-ta, Iberameriketako Elizak profetaritza azturik euki duala aitortu bearrean gera' Egia da emere-tzigarren mendearen bigarren erdian, liberalak agintaritzan zeuden bitartean, ez zuala Elizak politika-auzietarako esku aundirik izan! Baiña esku ori bazua-nean ere, —kontserbatzailleak agintari ziranean-eta—, ez zuan Jaurlarien eta Jaurlaritza-sistema osoaren akats izugarri aiek beatz zorrotzez gizadiari iragar-tzeko oarmenik izan. Eskierki, Iberamerika'ko gotzaiak ez ziran Donibane Batailariaren ezpalekoak: ez ziran profetak.

Sar gaitezen gotzai aien kontzientzi-barrura:

Gotzai aientzat Elizaren egitekoa sinismena erein eta animaren onbideak erakustea zan: orixe bakarrik; eta ori egiteko biderik egokiena gizarteari goiko mailietako gizakumeen ejemplo cdo eredu tzaren bitartez eragitea zala uste izan zuten, jende xearentzat ikasbiderik egokiena bere buruzagiak kristauki bizi dirala ikustea zalakoan. Orregaitik, unibersitate eta erdi maillako ikastolan bitartez, mailla garaietako jendearen eziketari ekin zion Elizak bereiziki. Ikus zenbaki batzuk: Brasill'en, lenen mailleko ikastolak, ia danak Laterriarcnak dira: <sup>û</sup> h87. Bigarren maillakoak berriz, Laterriarenak, 526 bakarrik dira; gaiñerakoak, ia danak, Elizarenak dituzu. Eta, naiz orren era nabarmenean ez, berdintsu gertatzen da beste Laterrietan ere.

Ikusten zuten gotzaiak jende errikoiaeren txirotasuna, baiña, beartasun ari erantzuteko Elizak karitatea beste modurik ez zuala, uste zuten; eta karitate-egiten esku luzekoak izan zirala ez dezake inork ukatu. Bere denborako semeak ziran gotzai aiek. Guk okerkeri guztiak, aurretik, beste iñork baiño lenago ikusten dituan Eliz ba t nai genduke, eta okerkeri oiei, ia azaltzen zaizkigun baiño lenago, zuzenbidea erakusten diena. Jainkoak uni beza anrrentz orrelakoa izan dedin, eta saia gaiten elizkideok, Jainkoaren naiari erantzunaz, orrelako Eliz bat osatzen.

Ez dezagun gaiñera aantzi Iberamenika'ko gotzaiak bildurra ere bazutela. Ez beren gain erori zitezkeen kalteen bildurra, ez; Elizaren gaiñera jausi zitezkean «aitzen bildurra baizik; ale, gia, agintarien, aundikien, eta aberatsen bidegabekeriak profeten erara agerian gaitzesten ba'zituzten, gobernuek Lliari ezpañiak eta eskuak erabat lotuko ote zizkiotelaren bildurra. Ots; gaur Poloni'n, Ungari'n, Kuba'n eta beste Laterri komunista guztietan gotzaiak izan ni duten bildurra bera, «mutatis mutandis», «alda-bearrak diran xeetasunak aldatu rik».

6.º—Protestalaritzaren zabalkundea. Ez dira asko Pretestalariak Iberamerikak'n: ^?ô7, biztanle guztien artean. **Iberameriketako proporzio-rik** aundiena. Ez dira asko, baiña azitzen ani dira, pentekostetarrak batez ere. Ez da arritzekoa Lurralde artako katolikotasuna maiz izan da biñ sentimen utsezkoa, eta orrelako katolikoak, kezkarik gabe urbiltzen dira gure Kristo bera goratzen duten protestalariengana, batez ere sentimenari an parte aundia ematen dioten pentekostetarren billeretara. Ain zezen Pentekostalaritza Katolikoa eta «Kristaukunde-Ikaskunzak» edo «Cursillos de Cristiandad» diralakoak izan daitezke an katolikotasunarentzat orrantza egokia, izpiritukeri utsean gelditzen ez ba'dira.

7.º—Sinkretismoaren zabaltzea. «Sincretisnms» erligio ezberdiñak alkarrekin oratzeari deitu oi zaio. «Sinkresi» ori, errez egin dute inditarrak Ekuator'en, Bolibi'n, eta Peru'n; eta Brasill'en, inditarrak, beltzA cita erdibeltzek, jentilletzako oitura eta siniskeri Arrak mixiolariengandik entzundako kristautasunari erantsiaz. Inditarrak ez dira beiñere «kristauak» izan; ez dute kristau izateko biderik izan ere. Gaur-gaur arte ez dira gure mixiolariak jende aiek beste mundu bat dirala oartu; europatarren aurrean bezala, era ber-berean

mintzatzen ziran inditarren aurrean, eta inditarrak ez zieten aditzen; entzun bai, beste erremediorik ez zuten-eta, entzuten zieten; baiña ez aditu, era aditzen zieten pixka, beren kulturaren erara aditzen zieten. Orregaitik esan oi zuten ain maiz amazortzigarren mendeko apaizek, Mexiko'n-eta, «inditarrak berenez siniskerira eta erejira okertuak zeudela»: «propensos pur naturaleza a la superstición y a la herejía»,

8.—Apaizen urritasuna. Kolonbi'az landa aundia da apaizen falta. 1912'an Iberamerika guztian apaiz bat bakarra zan 4.480 gizakumerentzat; 1960'e'an, bat bakarra 5.478'rentzat; eta mende onen azkenean apaiz batentzat 6.800 gizakume besterik ez ba'dira, zoriontsu omen leike Eliza. Urritasun orren arrazoiak bi omen dira: bata, erriko jendearen arteko famili-bizitarik eza.

Eusko-elizbarrutietako apaiz mixiolariak Ekuator'era jua ziranean, baziran an Los Rios probintzian 100 urretik 80 sasikume zituzten erriak. Orrelako errietan apaizik sortzerik ez dago.

Beste arrazoia, goi eta erdi mailleko gazteentzat Elizak, liberaitasunak ospe guztia kendu zion ezkerero, bizimodu dizdiraturik ezin eskeñi aal izatea omen da; eta badirudi egiazko arrazoia, Kolonbi'n, liberaltasunak ukittu ez zuan tokian, ez bait zitzaion Elizari apaizgairik peitu. Ala're, ez uste izan, Kolonbi'n apaizak geiegi diranik!

9.—Atzerriko apaizen bearra, 1960'e'an iberakerika'ko jaupariak, ots, apaiz, eta praille mezaemalieak, atzerritarrak ziran <sup>o</sup>h37. Benezuela'n, %60'tik gora, eta Guatemala'n, % 85.

Atzerritiko apaiz jende ontatik (*i*) 54 espainiarrak ziran, eta % 20 iparra-merikarrak. Baiña arrotz auek ez dira bertako elizjendearekin ondoegi konpondu, bakoitzak bere aherriko kultura geiagotzat joaz, bertakoa iraintzen omen zuten bâ! Gaiñera, maizegi, beren aberriko kezka eta griñak eraman dituzte Iberamerika'ra. XIX mendean Espaini'tik iritxitako apaizek liberaltasunari zioten gorrotoa oso-osoan aldatu zuten Iberamerika'ko Elizara, orrela Elizaren baitan sortzen ari zan liheraltasun garbiari lepo-egiñaz. Eta 1939'a ezkerero joandakoe, franeo-zale zintzoak ziralarik, komunismoaren bildurra neurritz gaindi anpatu zuten orrela kapitalismoari indar emanaz, eta bertako elizgizonei, gizarteko zuzentasunari-buruzko auziak zuzenki ikusteko begiak lausotuaz.

Askatu gabe dago, beraz, an apaiz-urritasunaren korapilloa. Eta ez apaize-na bakarrik, heste korapillo guztiak ere askatu gabe hait dauzka Elizak oraindik an. Baiña zahal dezagun biotza, iñoiz baiño ernego bait dakusgu Iberamerika'ko kristautasuna, eta nabari hait dira Eliz ura Izpirituak agintza aundie-arako prestatzen dualaren aztarnak:

—Kolon Ameriketara iritxi zanez gero iñoiz izan ez duan askatasuna du gaur an Elizak. Ez du lengo aberastasunik, ez du Laterrietako Agintari bontitzen laguntzarik, baiña ez bait du agintari liberalen etsaigorik ere, iñoren bildurrik eta iñorenganako esker-erakutsi bearrik gabe, iare da Eliza bere bizitza sendotzeko eta bere apostolu tza gertu tzeko.

—Badu Eliz artako gotzaidiak, mendeterdiko edesti samiñak erakutsia, alako «prudenti» edo zugurtasun bereizi bat, politikazko Alderdietaz geiegi ez fiatzeko, eta beren Eleiza Alderdi orotik at gordetzeko. Baike, badira an kristau gazteen artean, marxitasunean, asmo onegiarekin, gizadiaren etorkizuna ikusten dutenak; eta marxitasunara eramane nai lukete Eiiza. Ots: orrela pensatzen duten kristauak, batez ere apaizak, egiazko kristauak eta apaizak dira; ez dira, —aietatik asko beintzat—, eliz-ukatzailleak, ezta sinismen oro galdu-tako gizakumeak ere.

Baiñan, apaiz oien arteko batzuek, jende xume mixeablearen «gorputze-ko ogiari» eman bear zaion garrantzi guztia zintzo ematen dioten bitartean «izpituaren ogia» gutxiesten date, beraiek oartzeko noski. Talde bereko beste apaiz batzuk, gure iritziz, berak uste baiño askoz klerikalagoak dira, —oartzeko auek ere—, proletaritzaren jasokundea baiño *geiigo* billatzen bait dute Elizaren iraunpena. Ziur-ziur uste izan dute, —«dute» diot, gaur egun uste ontakoak gutxiago bait dira—, datorkigun mundua komunista izango dala; eta manda komunista ortan Elizari bizi aal izateko eta bere eginkizuna gizartean betetzen jarrai aal izateko giroa prestau nai diote' Manda komunis-tean ere apaiz jarraitzeko asmoa dute eta orduan ere manda ori ebangelizatzen iraun nai dute. Oker dabiltz, komunismoan ez hait da sekulan ez Elizarentzat ez beste edozein sinispiderentzat «giorik» izango. Komunismoarentzat erlijioa, gizadia erotzen duan opio-belarra da; zaiñetik len-bait-len zearo atera bear dan belarra. Komunismoak ez du erlijioarentzat tokirik. Ez beintzat guk orain arte ezagutu aal izan dugun komunismo onek.

Bada urduritasun berri bat Iberamerika'ko gotza:diaren altzoan. Badira erakunde berriak ere. CELAM bera, ospetsuena. Komunismoaganako bildurrak sortua duzu zirrara itxaropentsu ori dana. Entzun nola: Mao-tse-Tung'ek Txina artu zuanean, Iberamerika'ra etorri ziran arek bidalitako mixiolarietatik asko; ikaratu ziran benetan, Iberamerika'ko jende xumearen zori makurra ikasi zu-tenean, komunismuaren arrisku bizia usmatzen bait zuten! Kutsatu zioten bildur ori gotzaidiari, eta gotzaiak ikaratzean ikaratu zan Erroma ere. Ta bildur orrek eraginda «Comisian Pontificia para la América Latina» ize-neko Bazkuna irasi zigun Aulki Doneak; eta, Iberameriketako kristau guztien indarrak bateratzen asteko, Rio de Janeiro'ko Batzar Nagusia eratu zigun Bazkun arek 1955'ean. Batzarra amaitzerakoan berr iz, an bertan, Iberame-rika'ko Gotzaien Billera Orokor bat egitea erabaki zan.

Billera ortan sorta zan «El Consejo Episcopal Latino-Americano», esaera laburrez CELAM. Kontzeju ortara, Laterri bakoitzak gotzai bat bidaltzen du Laterri artako gotzaien ordezkari, eta gotzai orrek ekartzen die gero bere Laterriko gotzai Kontzejuan aztertutako arazoen berri.

Beti izan oi dira CELAM'en ere gotzai aurrerazaleen eta lengoa-gorde-zaleen artean alkar-ulertu eziñak; azkenekook gaiñera indar sendoa artu date an Jon Paul II'a Aulki Douera igo danez gero, baiñan alatagutziz, on aundia egin die Ameriketean elizjendeei CELANT orrek. Ala, II Batikan-Kontzilioa

zala-ta, 670 gotzai iberamerikar Erroma'ra urbildu ziranean, lanerako beste gotzai guztiak baiño obeto gertaturik etorri zitzaizkigun ziurki; ordurako gotzai aiek alkarri entzuten, alkar aditzen, eta alkarrekin lan-egiten oiturik bait zetozen, eta, gizarteko zuzentasunari-buruzko auzirik gogorrenei ere bildurrik gabe begiratzera, leendik jarririk bait zeuden.

Arriturik ikusi zuten beste kontziliokideek gotzaidi ura dana bere buruzagirik aurreratuenen atzetik kontzilioa zabaltasunaruntz eta «demokraziruntz» bultzatzen. Buruzagi aiek, Txile'ko Manuel Larrain eta Silva Enriquez, Brasil'eko Eider Camara eta Eugenio Salas :zan ziran, ez noski kuriatarrentzat arras atsegiñak.

Izan gaitezen ala're neurritsuak eta ez dezagun uste ain kontserbatzaille ikusi dugun gotzaidi ura goizetik gauera zearo antzaldatu zanik; Ameriketara itzuli ziranean..!', bakoitzak bere elizbarrutian len bezala jarraitu hait zuan. Ez zaitez arritu! Kontzilioan itzegin zutenak ez hait ziran gotzai aiek izan. CELAM izan zitzaigun an mintzatu zana! Eta CELAM'ek marraztutako bi-deak or gelditu zitzaizkigun Kontzilioaren idaztietan!

Orrelako zerbait gertatu zan Medellin'en ere, bertan izan ziran gotzaiei etxera itzuli bezain laister aztu hait zitzaien, geienei beintzat, an izenpetu zutena. Medellin'go batzar artan ere, gotzaiak ez baiño CELAM'en izpiritua mintzatu bait zan! Baiña or daukagu guztiok, Eliz osoari bide berriak erakutsiaz, Medellin'en Iberamerika'ko gotzaiek, beraiek oartzeke bearbada, osotu ziguten egitamu bikaiña.

—Asmamen berria ernetu zain Iberameriketa'ko Elizari arazo garratzei aurpegi emateko. Apaiz-urritasuna beste nolabait betetzeko adibidez. Egia esan, azkeneko urte auetan Europa'tik joan zaizkion apaizak ez dira lenagoko aiek bezalakoak izan; ezta Españi'tik joan zaizkionak ere. «Ces prêtres espagnols issus du mouvement de rénovation religieuse et de libéralisation qui était en cours dans leur pays natal, évitèrent l'anticomunisme et adoptèrent un rôle d'animateurs dans les mouvements destinés à moderniser et à réformer l'Eglise aussi bien que la société» (Pike): Gure izkeraz: «Apaiz españiar auek, beren jaiterrian kristau-berbizkunderako eta askatasunaren zabalketarako mardultzen ari zan igikundetik sortuak izanik, ez ziran Ameriketara komunismo-zapalketara lotu, alderantziz, an, Eliza, eta gizartea bera, berriztatzen eta suspertzen ziar-duten igikundeen ats-emaille biurtu ziran».

Izan zituzten bai noski, apaiz auek, lendik joandako beste aiekin oztupoak, lengo aientzat apaiz baten eginkizunak garrantzitsuena komunismoari guda egitea hait zan. Izan ere, orduan, Franko zegoan oraindik Españi'n agintzen, eta une aietan, beste errialde guztiak baiño santuagotzat zeukaten españiar jainkozaleek beren aberria («reinaré en España más que en todas las naciones»); uste ere zuten, («por el imperio hacia Dios») '«reserva espiritual del mundo» zan Españi'k salbatu bear zuala gizadiarentzat kristautasunaren izpiritua. Gaiñera, Ameriketara aurrena joandako apaizek «manifestaient le tra-

ditionnel complexe de supériorité que les espagnols nés dans la Péninsule ont toujours éprouvé à regard des créoles et des métis»: ango apaizei «goitik beera begiratzten zietela alegia, erdiugaratean jaiotako espāñiarrek beti «kriollo» ta odol nāsikoei be,i. iratu oi dieten lez» (Pike).

Franko'ren diktatutzaren azkeneko urteetan joandako aiek ordea, apalago jua ziran, «E. spañi'ko Elizaren morroitsunaz lotsatuta jua ziralako, agian?»

Naiz pure burua goratzea izan, ez dezakegu isillean utzi pure elizbarruti euskaldunetatik joandako misiolariak, 1952'an Los Rios deritzan lurraldera irit>.i ziran ezker Ekuator'en, henezuela'n, Brasill'en, Txile'n, Angola'n, Rw uanda'n eta Zaire'n egin duten lan miressgarria. Bai eban;gelio-zabaltzen (Ia bai giza-eziketan eta gizarte-lanetan, arrigarriak izan hait dira an pure apaizak eta gure mixiolari sekularrak: aitzindariak benetan, eta egiazko maixuak'

Mixioetaz ari galararik: badugu euskaldunok zertaz poztu. Euskalerritik-ugari irten dira beti mixiolariak ludi zabalera, \_\_ oroi pure iñakitarrak, frantziskotarrak, karmeldarrak, domingotarrak, eta agustindarrak, beste ezer kendu gabe Anaidirik ugariak bakarrik aipatzeko \_\_; baiñan ortaz gainera, badugu pozik egoteko beste arrazoi bereizi bat: Euskalerriko elizbarrutiak izan dirala alajaiña munduan lendabizi Aitasantuarengandik beren kargura m:xio-lur bat artu dutenak. Aipatu dugun 1952 ortan utzi zuan XII Pio'k Gazteiz'-ko elizbarrutiaren kontura betirako Ekuator'en, Los Rios'eko probintzi zabalera. (Oroi une artan Araba ez ezê, Gazteiz'ko elizbarruti zerala Bizkai ta Gipuzkoa ere). Artean ez zion beñere Aulki Doneak elizharruti bateri mixio-lur bat erantsi.

[san dugunez, ordea, ez dira apaiz arrotzak Iberamerika'ren irtenbiderik egokiena. Oartu zaigu ortaz ango Eliza ere, eta ari da bide berriak billatzen apaiz-urritasunaren zulo ori beste erabatera betetzeko. Inditarrak, eta erdi-inditarrak egiaz kristautzeko, enda bakoitzean gizakumerik egokienak aurkeratzen ditu, eta, kristautasunean egoki ezi ondorean, beren errietara «bidaltzen» ditu katekista bihurturik; kristautasuna, erri artako kulturaz baliatuak zabaldu dezaten. Katekista sekular auk dira egiazko «hi\_laliak» «apostoluak» bakoitza bere endako jendeen giroan. Erdi-inditarren artean katekistetaz gaiñera ederki baliatu da Eliza, bizi-guzirako-diakono sagaratu dituan gizon eskondiretaz.

Katekista eta diakono auk iz.ingo dira seguruaski Inzaroan Iheramcrika'ko Elizaren zutaberik bikaiñenetaoak.

Iaide henni oien asmaketa gotzaiena ba iño gejago apaizena izan dala, esan bearrik ez dala izango, iduritzen zaigu. Eta ibillera berri oietan ere euskal-elizharrutietako mixiolariak aitzindari izan zaizkigula, pozik aitortuko dugu.

Ez dugu orrekin Iheramerika'ko gotzaiak zearo motelak diranik esan uni, izarrio ttenttel askoren artean, gotzaidi artan, lenen mailleko eguzki dizdiratsnak *erc* bai hait dira... Aipatu ditugu gotzai bikain urri auen izen batzuk.

—Baiña igikunde pozgarri orren azpitik badago gure Listez beste zer bait, askoz ere pozgarriagoa: ango apaiz sail batek eraiki digun teologi berria: «La Teologia de la Liberação»: «Askapen Orokorraren Teologia».

Len ere izan dira mundu ontako gauzei eta gertakizunei teologiaren argia jaurti nai izan dieten pentsalariak! Baiña Iberameriketatik «Askapenaren Teologiak» badu berea bakarra dan bereiztasun bat sendoa: Beste teologiariek, geienek beintzat, mundu ontako gauzetaz edo gizarteko auzietaz jardutean, Elizaren jende-jarioa geldiaraztea edo ez-kristauak Elizaruntz erakartzea zeukaten begien aurrean: «Credibilem faere [i'dem]: «Sinismena sinisgarri egitea»; eta Eliza-baitan konfiantza galdu zuan jendea berrirabazteagaitik ukitzen zituzten gizarteari eta politikari buruzko gaiak; «bestela positibista jainkorik-gabea, edo komunista, egingo bait zaigu mundu guztia». Oroi dezagun asmo oiek zerabilzkiala Aulki Doneak ere CELAM argitara atera zuten aurre-lanetan.

Cure teologilari auek, ez; auek ez darabilzki «Lizak jende asko edo gutxi galdu lezakearen bildurrak». Teologiaren zertasunak eta izaerak daramazki teologia munduko auzi guztietan sartuaraztera: jaungoikoaren Erakusketaren elburua, gizakumea da. —Ots, bai: lendabizi Jaungoiko beraren aintza! , b iña, berea duan aintza ori gizakumearen zuzentasunetik itzul tzen zaio jaungoikoari—. Orregaitik Jaungoikoak, itzegitean, gizakumea dauka begien aurrean. Gizakumeari dion maitasunak eraginda mintzatu da. Jainkoa bera bezain teologiaren mami-mamian dago beraz gizakumea. Eta gizakumea , Jainkoaren naiez, gizartean bizzizeko eratua izan dalako, baita gizartea ere.

Gizarteko bizitza zer da ordea soziologia ta politika baizik? Ta mundua bera ere gizakumeentzat egin bait zuan Jainkoak..., eta mundu ortan ezarri bait zuan gizakumeek bizitzeko bearrezkoa duten guzia..., eta ontasun eta aberastasun oiek gizakume guztien eskuetara era egokian iristea nai hait du..., bete-betean teologiaren muiña dira mundua bera, munduko aberastasunak, eta aberastasun oier. banaketa egokiari Jainkoaren aldetik dagokion guztia.

Nork ukatu izan ere, zuzentasuna, zuzentasun orokorra, Idazti Deunen elburua dala? Oroi, zuzentasuna, Igarle guztien ezpaitan egon zan itza dala! Oroi josu'k berak, bere burua ta gizarteko unerik txiroenak bat-egin zituala! «Txiro auetako bateri dagiozutena neri dagidazute».

Profeten eginkizuna, —aldarrikatutakoa jendeak sinistu edo ez sinistu— jainkoaren itza aldarrikatzea dan bezala, teologiaren beirkizuna, jendearen erantzunari ardura geiegirik egin gabe, jendeei lainkoaren Itz orren zen tzua al dan egokienik azaltzea da. Or duzu teologiketa berri onen gunea.

Bide berritik abiatzen diran pentsalari guztiei bezala, atera lezaieke akatsik teologilari auei ere, izkerarar, aratzasunaren aldetik batez ere. Gogoan euki bear dugun gauza da, gaiñera, «Askapenaren Teologia» izen uts bezala ere, izen ederra dala, eta , orregaitik, izen ortaz jantzirik agertzen zaizkigula , ez teologilari ez pentsalari diran bat edo bi baiño geiago.



Berez ere ez da Teologi ori, era bat bakarreko oldozkera, bere altzoan berderatziren bat «era» ezberdin bereizi hait ditezke. [Z da beraz arritzekoa teologilari oien artean bide zuzenetik irten diranak aurki aal izatea. Ori adienazi nai izan ligu, Aulki Doneak Ratzinger Karlenalaren bidez; agian, zorrotzegi; Aitasantuak berak gero «Askapenaren Teologiari» egin dizkion goratzarreak gogoratzen ba'ditugu. Ta ez du noski iñork esango Jon Paul gure Aitasantua «liberalegia» danik!

Ondo etorria bedi, uda legorrean intza bezala etorri zaigun Askapenaren Teologia. Eta ezin ukatuko dugu teologilari berri auk badutela teologilari zar batzuekin, Bitori'ko Frantzisko'rekin adibidez, aidetasun bereizi bat. Bitori'ko Frantzisko ere, inditarrak kristau biurtu nai izateak ez ezik teologiaren aberastasunak berak ere bultzata mintzatu hait zitzaigun gizarteko auzietaz.

## X PIO

Jose Sarto, bataioko izenez. Itali'ren iparraldean, Beneto esan oi zaion lurraldean, Trebis'o'ko probintziaren Riese'n jaio zan , sendi apal bateko seme. Mutiko argia; seminarioan , irakaslerik zaarrenek ere ez omen zuten ura baiño ikasle trebeagorik ezagutu'

Aitasantu aukeratuak izan diranen artean oiturazkoa ez dan gauza, mailaz-mailla, igaro zituan X Pio'k eliz-artzaingoaren mailla guztiak: Bikario, baserriska batean, parroko errikozkor mardul batean; kanonigo, eta seminarioko erretore. 17 urte igaroak zituan apaiz bezala, Trebis'o'ko Gotzai egin nai izan zutenean. Berak ordea , ez zuan gotzaitzarako eske ori ontzat artu nai izan. Eta, geroxeago ere, «Leon XIII'ak agindu ziolako», «at the command of Leo XIII» (Enc' Brit.) , makurtu zuan burua, eta izan zan Mantua'ko Gotzai sagaratua. 9 urte geroago, Benezi'ko Patriarka zan.

«Instaurare omnia in Christo» . «Guzia Kristo'gan oiñarritzea» artu zuan bere ekintza guztien elburu; eta beste gauza guztien gaindik, apaiz, apaiz bikaiña bait zan, laister irabazi zuan Ber.ezi'n ere jendearen onginaia' Are geiago, baita Elizatik urrun zabiltzanen begirunea ere, politika-arazoetan erabilli zuan jokaerari eskerrak'

Oroi, garai artan, Itali'k Elizari Laterriak kendu zizkion ezkeru, Elizaren eta Jaurlaritzaren arteko arremanak zirala Itali'n arazorik gaitzenak. Ona bâ: «In Venice his piety, simplicity, and readiness to act in harmony with the Italian government made him very popular» (Ibm.): «bere jainkozaletasunak, tolesgabetasunak , eta Itali'ko Jaurlaritzarekin batera lan egiteko agertu zuan gogo onak, irabazi zioten Benezi'n erriaren oniritzia.»

Alatagutziz, gizon apala izaki-ta, Itali'tik landa ez zan atzerrian ezaguna Jose Sarto Benezi'ko Patriarka, XIII Leon il zanean,

\* \* \*

Aski konklabe naasia gertatu zitzaigun XIII Leon'en ondorengo Aitasantua aukeratzeko bildu zan giltzapeko batzarra.

Leort'ek Elizaren ospea oso gora jaso zuala-ta, arek Estadutzako idazkari eta ekintza guztietan lankide zintzo yayoa izan zuan Rampolla Kardenala gura zuten Aitasantu , kardenal askok. Beste batzuk ordea , geienak, aldakun-

tza bat egitearen zale ziran. "Zergaitik? Sail hatekoek, Itali'ko Jaurlaritzarekin pakeak egiten astea nai zutelako. Argi omen zegoan bli Itali'ren batasuna betirako egiñik gelditu zan gauza zala, naiz Rampolla batasun aren etsai gogorra izan. Beste sail batek, Rampolla'ren demokrazi-zaletasunari zion bildurra, eta auen artekoa zan seguruaski Jose Sarto bera. Leon'en eta Rampolla'ren demokrazi-bideok ez omen zioten Elizari kaltea besterik egin-da, IX Pio'ren bideetara itzuli bearra omen zan bâ. Orixe ain zuzen izan zan Aitasantu berritik egingo zuana: «Pius X brought the ehureh back from the diplomatie tvavs of Leo XIII to the paths mapped out bez Pius IX's intransigence»: «Pio X'ak Eliza, XIII Leon'en diplomazizko bideotatik, atzera IX Pio'ren gogorkeriak urratutako bideetara eraman zuan».

Diplomazia aipatu dugu. Bazan konklabean diplomazikeriari mudu egiten zion kardenal-sail bat ere: Gotzai eta apaiz geienen guraria jasoaz, artzai bat nai zuan sail orrek Aitasantu; ez kuriako diplomazilari bat.

Giltzapeko batzarretik at ere, bazan XIII Leon'en azken-aldietan Late-rrietako Jaurlaritzen artean naiko matraka' Napoleon jausi zanetik, XIX mendearen luzaroan gero-ta-geiago ari izan bait zitzaizkigun {aurlaritza aiek Aulli Donearen garrantziaz oartzten, Baba Frantzi'koa bezala Elizaren etsai agertzen ziran Jaurlaritza libera} ezkertiarrek ere.

Frantzi, ain zuzen, oraingoan Rampolla Aitasantu egitearen aldekoa zan. Austri ordea, aurka zuan onek; batez ere, Frantzisko Jose Inperatorea zegoan zalantzan, Krakobi'ko Goigotzai zan Puzvna Kardenal poloniarrek Rampolla'ren aurka irauli zualako. Krakobi, eia Galitzi guzia, Austri'renak ziran orduan, eta Puzvna Kardenalak oso zaletasun gutxi zion Rampolla'ri; l.rrusi'ren politikaren onturrerako Poloni'ren eskubideak gutxi-etsitzen zituala iduritzen bait zitzaion. Eta abertzaleok Elizaren eta Aherriaren onura errez nâsten hait dituzte, Rampolla Aitasantu egitea Elizarentzat gaitz aundia izango zala («serait nêfaste pour l'Église») ere esan omen zuan Kardenal santu arek, (Z. Obervnski).

Pozik entzun bide zion Austri'ko Jaurlaritzak, bai Rampolla'ren demokrazitasunari bildur ziolako, bai Balkanetako politikan Rampolla eslabitarren aldekoa zala uste zualako; eta Austri'ko Inperatorearen ordezkari lez joan zan Konklabera Puzvna Kardenal ura'

Danadala, aurreneko auteskundeetan Rampolla'k cramait zituan autarkirik; geienak. Banian orduan jaurti zion Puzvna'k, Frantzisko lose'ren izenean, Inperatore aren bero edo ezezpena. Alperrikako ekintza, ez hait zuan beñiere Rampolla'k Aitasantu izateko bearrezkoak zituan autarkien bi irurdenak jasoko.

Orduan, autarkiak nori ematea nai zuan esateko eskatu zioten Rampolla'ri bere alderdikoeak. Arek ordea berak jarraitu nai zuala aitasantu-gai, erantzun zuan, «Austri'ren menpera jausi zala iñok uste ez zezan», berak esan

zuanez, baiña, eskierki, naiz berak norbait aurkeztu, norbait orrek bear aiña autarkirik jasoko ez zuala ikusten zualako.

Al , ta kardenalen batek Puzyna'ri Austri'ren esanera zebillela aurpegira jaurti zionean, «Ce n'est pas l'Autriche qui m'a utilisé, mais bien plus moi qui ai utilisé l'Autriche» erantzun omen zion arek (id.): «Ez da Austri nitzaz baliatu dana; ni naiz Austri'z baliatu naizena».

Ikaratu zan Jose Sarto, bere aldeko autarkiak goraka ta goraka asi ziranean, eta lan egin bear izan zuten kardenalek, gero ta argiago agertzen zan geiengoaren naiari, arek, uko-egifiaz erantzun ez zezaion.

Ala izan zan azkenean, 1903'ko Dagonillaren 4'ean, Aitasantu izendatua. Azkeneko auteskundean, 50 autarki jaso zituan. Amar , oraindik, Rampolla'rentzat izan ziran. Irugarren aitasantugaia, Gotti Kardenal karmeldarra, Propaganda Fide'ren zuzendaria, «dotriña-arloan kontserbatzaillea, politika ta soziologi gaietan gizon irikia» (R. Auvert), autarkirik gabe gelditu zan azkeneko auteskunde ontan.

«Pio artzen dut izen, mende ontan izen ortako Aitasantuak erejeen eta ereji pozoitsuen aurka gogor ekin duten gizonak izan diralako», oles egin zuan Aitasantu berriak,

\* \* \*

Politikaren arloan, X Pio'ren zer-egifirik latzena, Itali'n bertan aurkitzen zan. Arrazoi zuten bera Aitasantu aukeratuarazi zuten kardenalek: Itali'ren batasuna, bein betirako egifirik zegoan. Batasun ura austerik ez zegoan; ez beintzat Aitasantuen eskuetan. Itali'ren batasun ura puskatuta ostera Elizaren Laterriak berriro tajutu nai izaten ibiltzea, ameskeri utsa besterik ez zan. IX Pio eta XIII Leon'en jarduerak zentzurik ez zuan. Naitanaiezkoa zuan Elizak, Itali'ko kristautasunaren onturrerako, Itali batuaren Jaurlaritzarekin konpontzea. Ortarako ain zuzen aukeratu zuten Jose Sarto aitasantutzarako.

Jose Sarto'k berak ere ikusten zuan ori-ta, ez zituan, X Pio biurturik, bere autaleak atzipetu. Egin zuan zerbeit konponketa bidean' Ez asko, baiñan bai zerbeit. «Son pontifieat allait marquer la début d'une lente ameliotarion de rapports entre le Vatiean et le Quirinal» (idm.). «Batikano'ko eta Kirinal'eko Tauregien artean, asi zuan arremanen obeagotze geldi bat bere aitasantutzak».

Ez zan asko, baiñan, beintzat, Jaurlaritzari beti aurpegi asarrea erakusten ibiltzeari ipiñi zion amaia' «He ceased to pursue actively the quarrel with the Italian government, and something like a modus vivendi was reached without eider side's formaly giving way»: «Alkarrekin bizitzeko era egoki baten antzeko zerbeit lortu aal izan zuten, amorerik emateke, bi aiederdiek» (Ene. Brit)'

Benezi'ko Patriarka zalarik, udaletako politikagintzan katolikoek eta libera] baretsuek alkarrekin lan egiteko ez hait zuan eragozpenik jarri, lasai-

tasun ori Jauraritzarekingo arremanetara zabaldu zuan orain. Eta «ori, garai artan, esan-nai aundiko gauza zan»: «It was significant that individual Catholics were allowed to enter Italian politics, with a view to combating the parties of the left»; «ezkerreko alderdiei aurka egiteko», jakitúa. (Ibm.).

«Individual Catholics», ots, «gizaseme katolikoek»; ez, «Alderdiek!» Alderdi politikoetan X Pio'k ez bait zuan konfiantzarik. Demokraziari zion bildurraren ondorioa!

Sindikato eta langille-alkarteetan uste geiago izan zuan. Ez ordea geiegi. Alkarte oiek danak, gaiñerako beste alkarte guztiak bezala, konfesionalak izan bear zuten, ots, katoliko utsez osotuak, eta gotzaien esanera egon beti.

Nere ustez, alkarte oien elburua apostolutza zala pentsatzen zuan X Pio'k, eta, zalantzarik gabe ats eman izan zien era ortako alkarteei. Orregaitik, Katoliko-Ekintzaren aurre-irasle bezala ere artua izan daiteke.

Frantzi'n bazan «Le Sillon» edo «ildo» izeneko alkarte bat, Marcos Sagnier'ek eratua. 1902'an zalantzarik gabe goraiatu zuan XIII Leon'ek Alkarte indartsu ori' Eta baita X Pio'k berak ere 1903'an. Zergaitik alkarte ori bera, 1910'ean gaitzetsi zuan?

«Le Sillon» asieran kristau-soziologiaren arloan lan egiteko izan zan sortua' Laister oatu zan ordea Sagnier, gizarte eta ekonomiaren arazo danak politikaren maillan konpondu edo okerragotzen zirala, eta politikaren barrutiruntz jo zuan' Naikoa, X Pio'ren begientzat atsegiña ez izateko.

1907'an batzar bat egin zuan «Le Sillon»ek Orleans'en. Batzar ortan. «Le Sillon» alderdi politikoa biurtzea eskatu zuan Sagnier'ek: Alderdi demokrazi zalea, katolikoentzat ez ezê, protestalarientzat eta sinisgabeentzat, borondate oneko gizakume guztientzat irikia, eta gotzaiengandik iarea' Batez ere soziologiaren arloko ekintzetarako nai zituan Sagnier'ek «guztientzako zabaltasun» eta «gotzaiengandiko iaretasun» aiek. Ots: ekintzarako nai zuan askatasun ura, Sagnier'ek ez bait zuan sekulan esan bere alderdi berria Elizaren gizarte-dortziatik iaretu nai zuanik!

Geiegi zan X Pio'rentzat. «Notre Charge Apostolique» esan oi zaion eskutitz baten bidez gaitzetsi zuan «Le Sillon» 1910'eko Dagonillaren 25'ean, eta Gotzaien mendean zeuden alkarteetan, —elzabarrutietako alkarteetan—, sartzeko agindu zien «desillondarre». Auek, katoliko zintzoak ziran danak eta txintik atera gabe makurtu zuten burua, eta bete zuten Aitasantu asarretuaren agindua.

Apaltasun orrek berak adierazten digu atzipeturik zebillela gure Aitasantua

Alare, ez dezagun aztu, orduango arazoak gaurko begiekin epaitzerik ez zaigula zillegi. Baiñan, mingarri zaigu katolikooi, Sagnier katoliko zintzoaren «Le Sillon» gaitzetsi zuan X Pio'k berak, begi onez ikusi zuala sinismenik gabeko Maurras'ek sortutako «Action Française» errege-zale totalitaria, aitor-

tu bearra: Urte batzuk geroago XI Pio'k gaitzetsiko zuan «Action Française» ura ber-bera!

Zer lortu zezakean X Pio'k katolikoei politikagintzarako askatasun geiago ez ematearekin? IX Pio'k eta XIII Leon'ek Itali'n katolikoei auteskundeetan parte artzea galeraztearekin lortu zutena: Politika zero eta oso-osoan Elizaren etsaien eskuetan uztea! Ez Frantzi'n ez inon ere, katolikoek ez bait dute, arrazoiara iritxi ez diran umeak balira bezala, soilki Gotzaien zuzendaritzapean dauden Alderdietan sartu nai izaten. Orrela gainera, X Pio'k, ez al zituan gotzaiak berena ez dan eginkizun batera, politikagintzara, bultzatzen?

Era berean sindikatoak gotzaien menpean ipintzean, ez al zituan arlo ontan ere gotzaiak bide okerreruntz eramaten? Okerragoa dana, ez al zituan langilleak Elizatik kanpora bultzatzen? Sindikato oiek, sindikato «oriak», olajabeiei aurpegi emateko baliorik gabeak zirala ikustean, ez al ziran langilleak, —gertatu dala gero ikusi aal izan dugun bezala—, multzuan sindikato marxizaleetaruntz abiatuko?

Pio X'ak ordea, ez zuan orduan orrelakorik ikusten, eta gero ere asko kostatzen zaio Elizari egi ortaz jabetzea!, jabetu ere, azkenean jabetu ba'da beintzat!

Alemanian ere izan zuan sindikatoei-buruzko arazo berdiña! An ordea ez zien langille katolikoei katoliko ez ziranekin sindikato berean alkarrezko eskubidea kendu! Bereziak omen ziran, Alemanian baldintzak!

Izan zuan X Pio'k Alemanian ere beste iskamil bat ere. Edestia-zear Aitasantuek oitura izan duten bezala, etsaien aurka izkera zakarra erabiltzen zuan X Pio'k ere! Ala, katoliko liberalei, «ardilarruz jantzitako otsoak» esan oi zien. Era ortan iraindu zituan XVI mendeko Luter, Kalbin, eta beste protestalariak ere, Karlos Borromeo Donearen goratzarrea egiñaz idatzi zuan «Editae Saepe» entziklikan. «Asi, la cosa mas trivial removi6 las nimos en Alemania, y levant6 una protesta de Berlin» (F. J. Montalbn). Gaizki esana. Ez da «arinkeria» Aitasantu batentzat gizakumeen aurkako izkera zakarra. Ez zitzaizkien protestalarietarako arinkeria iruditu; ezta Alemanian Jaurlaritzari ere. Pio X'a, barkapena eskatu bearrean aurkitu zan, eta Entziklika ura Alemanian ez irakurtzeko agindu zuan.

1907'ko Urtarrillaren 6'ean, kristau ekintza oro Gotzaien iritzien araura eta azkenean Aitasantuen erakutsien araura egin bear zala erakutsiaz, entziklika berri bat idatzi zigun. Ori dana egia da! Baian ori besterik eskatu ez balu ez zuan politikalarik katolikoekin arazorik izango. Baia doctriinari-buruzkoa baian aundiagoa zan eskatzen zien menpetasuna:

Aitasantutzara igo ta laister, itzaldi batean, Laterrien politika Elizaren erakutsietatik urrunzen ari zala ikusteak ematen zion atsekabea agertu zuan. Ez ote zuan ikusten bere jardunkerak «urruntze» ori aundiagoa egiten zuala? Ez noski, jakina.

Oroituko zera Frantzi'n Jaurlaritzak, Elizarengandik bereizi zanean sortutako «Associations Cultuelles» aietaz' Bâ katoliko askoren iritziaren aurka gaitzetsi zituan Pio X'ak «Gravissimi Officii Munere» izeneko buldaren bitartez, (1906' Dagonillak 10).

Arrazoiak: Alkarte aiek jerarkia bazterrean uzten zutela; Eliza Laterriaren mendean ipintzen zutela.

Egia zan ori. Alkarte aiek ez ziran gauza onak. Baiñan alare, ezer ez baiño obeak, bai, baziran.

Elizaren eta Laterriaren arteko bereizketa, Frantzi'n 1905'eko Uztaillaren 3'koa da, eta urte ortan bertan Abenduaren 9'an izan zan Senatuan onartua. Bi illabete geroago 1906'ko Otsaillaren 11'ean idatzi zuan ekintza aren aurka X Pio'k «Vebementer Nos» entziklika. Arrazoi zuan Aitasantuak. Bereizketa ura, Napoleon ezkerreko lege egirik zegoan Konkordatoa bere kasa urratuaz e. ir, bait zuan Frantzi'ko Jaurlaritzak.

Urtebete leenago ere, izan zituan Frantzi'k zuzentasunaren eta gizabidearen aurkako zakarkeri mardulak.

1904'eko Jorrallean, Itali'ko Erregea ikustatzera joan zan Erroma'ra Loubet, Frantzi'ko Errepublikaren Lendakaria. Bainan *et* zan Aitasantuarengana urbildu, gizabideak erakusten duana zanpatuaz, naiz bera nazio katoliko baten Lendakaria izan. Egin zuan Pio X'ak bidezkoa zan protesta, osteketa. Frantzi'k zakarkeri bati beste zakarkeri aundiago bat eruntsiaz, bere enbaxadaria kendo zuan Aitasantuaren albotik.

Gertakizun oiekin zer-ikusirik gabe, Dijon'go eta Labal'ko Gotzaiak de rri eman zezaioten. Asarretu zan Frantzi'ko Jaurlaritza Liberala, cua dei ura ezerezteko eskatu zion Aitasantuari eta Frantzi'tik irtetzea galerazi zien gotzai.

Frantzi'ko Jaurleek ez zekiten Pio nor zan. Tinko jarraitu zuan bere egoeran. Frantzi'k, amorrus, Aniki Donearekingo arremanak urratu zituan orduan; eta Nuntzioa atzerrira jaurti. Eta nuntzitegira indarrez sartu eta ango artxibo guztien jabe egin zan, zuzentasun ororen aurka. Orrelako okerkeriak naiz egin izan zituzten nun-nai, bazter guztietan zuzentasunaren babesle bakar *agurtzen* ziran liberalak.

Ta.', Itali'ra ete liberalak bait ziran jaurleak, ez zitzaion Itali'n ere X Pio'ri atsekaberik peitu.

Alare, Pio X'ak, gozatu nui izan zituan Jaurlaritzarekingo arremanak. Oroituko zu'a, Itali'ko Erregeak Erroma kendu zionean, IX Pio'k Itali'ko katolikoei politikan parte artzea debekatu ziola «Non Expedit», edo «Ez da Egokia» izeneko erabakiaren bitartez. Katolikoak ez zitezkean politikaren einkizunetarako ez autatuak ez autaleak izan'

Benezi'ko Patriarka „ala udaletako karguetan parte artzen, X Pio'k, ka-

tolikoei utzi ziela, esan dugu. Orain, Aitasantu zala, utzi zien Parlamentuan diputado izaten ere. Baiñan Elizaren onetsiarekin eta katoliko batzuei bakarrik.

Ez ote ziran Aitasantu aiek oartzen, katolikoak politikatik kanpo ego-tera beartzearekin, politikagintza guzia Itali'n liberal ezkertiarren eskuetan uzten zutela?

Ortaz ain zuzen mintzatu zan Pio X'a bera Aitasantutza artuta bereala, itzaldi batean, politikagintza Elizaren araeatik ainbeste urrundu zalako bere naigabea azalduz. Ez ote zuan ikusten, katolikoak politikatik uxatzen ba'zitan, urruntze ura naitanaiezko gauza zuala?

Danadala, X Pio'k ez zuan politikan konfiantza aundiegirik izan. Ezta diplomazigintzan ere. Laterriekin egindako iturbe orok eskual: Jotzen zizkio-la uste izan bait zuan. Orregaitik, XIII Leon'en diplomaziak Elizari on bai-ño kalte geiago egin ziola iduritzen omen zitzaion. Berak , eskuak iare nai zituau, iñorekingo loturarik gabe Eliza zuzentzeko.

Baiñan naiz ori egia izan, urrats aundia eman zuan aurrera 1905'eau go-tzaiei, beren elizbarrutietako katolikoei diputadu izatea iare azteko eskubide orokorra eman zienean. «Cuando con ellos se pudiera impedir la elección de eandidatos peores» (Neuss. Gareia Ortega'k gazteleratua). Batere balio ez duan oarkizuna azkeneko oar au, erlijioari dagozkiñonetan diputadugai katoli-koak beste guztiak baiño obeak izango zirala pentsatzekoa hait da! Gaiñera, diputadu izateko, „\_bear al dute katoliko ez-apaizek gotzaien baimenik?

1904'eau, «Opera dei Congressi» izena zuten Bazkunak debekatu zituan X Pio'k. Bazkun aiek IX Pio'ren aitasantutzakoan sortu ziran Itali'n. Eli-zak bere Laterriak galdu bezain laister . Asieran, erlijio-bazkunak ziran berei-ziki, katoliko integristez beteak, baiñan poliki-poliki, XIII Leon'en denbo-ran soziologi-arloa lantzen asi ziran, egunetik egunera apaiz eta gotzaien men-petik iareago. Leon Aitasantuak bazekian cri, baiñan, alatagutziz, iaretasun aundiagoaren zale zan Ferrara'ko Grosoli Kontcari eman zion beraien zuzen-daritza.

Asarretn ziran integristak eta asi ziran Grosoli'ren aurka lanean. Ta ga-raille irten ziran azkenean, naiz 1904'eau X Pio'k berak ari bere uste ona aurkeztu.

Urte orren uztaillean, Grosoli'k berriro askatasun osoa eskatu zean ekin-tzarako. Aurka ekin zion «L'Osservatore Romano»k. «Frente a la afirmación *de* que la cuestión de la absoluta libertad o inlpendencia efectiva con res-pecto a la santa sede era la meta *de* la Acción católica, se volvia a insistir (por L'Osservatore) en que los católicos dependen de la autoridad de los obispos no sólo en sus inicitivas religiosas sino también en las económicas y sociales y en que deben montenerse al margen de las elecciones políticas» (H. Jedin-T,ator Ros), Grosoli'k, Merry del Val Estadutzako idazkariaren es-



kuetan utzi zuan bere kargua; eta, bereala, ezereztuak izan ziran «Opera dei Congressi» aiek. «Egia da «Opera» aien alzoan aski zabaldu zirala Murry'ren aburu okerrak, baiñan «L'Osservatore Romano»ren izketan katolikoen «erlijiozko ekintza», «sozio-ekintza» eta «politikazko ekintza» ez al daude naa-siegiak?

Arau berriak eman zituan Katoliko-Ekintzarako X Pio, eta izan daiteke, ori dalata, Erakunde orren aurre-sortzailletzat eukia, lez esan dugunez.

\* ★

«MODERNISMUS», «BERRIKERIA». — X Pio'k egindako eta idatzitako gauza guztien artetik hi idazti dira, seguruaski, soññurik geiena atera dutenak: «Lamentabili» (1907. Uztaillak 3) eta «Pascendi» entziklika (1907. Iraillak 8). Biak «modernismus» esan zitzaion pentsaeraren aurka.

Itza, «modernisme», aurreneko aldiz, «Ami du Clergé» izeneko aldizkarian agertu zan, (1893), eta beralaxe Frantzi eta Alemani-zear zabaldu. Ofizialki berriz, Itali'ren Iparreko gotzaiek erabilli zuten lendabizi «il modernismo» esaera, 1905'eko eguberrietan argitaratu zuten gutun pastoral batean,

«Berrikeri» edo «Modernismo» ori zer dan? Asmo berri askoren bilduma. Asmo aietatik batzuk zuzenak ziran. Beste batzuk, ez. Bereizketa ori ez egitea izan zan X Pio'ren errua.

Modernismoaren aurkezlerik nagusiena? Alfredo Loisy'ren atzetik, bere ikaslea, Tyrrel josulagun inglanderriarra. Azkarra au ere, eta biak, idazle yayoak'

Ernest Renan irakurriaz asi zan Loisy apaiza fedea galtzen, eta Inghlanderriko XIX mendeko teologilari protestalariak aztertuaz okertu zitzaigun berriz Tyrrel.

Orregaitik, modernismoaren sustraietan protestalarian askatasun-zalekeria, eta erromantikoen sentimenkeria aurkituko dituzu. Eta baita, jakiña, jakintza berrienganako maitasuna, eta XIX mendeko inmanentismoaren usaia, edo «erlijiozko izakiak oro gizonak sortzen dituan izakiak besterik ez dirala uste izatearen» usaia. «Izaki oiek, eta Jainkoa, soil, (i gizakumearen buruaren «harruan daude» —(in marien) —, gizakumeak sortutako gogapen uts besterik ez hait dira», inmanentismoaren ustez.

«Modernismoa» edo «berrikeri-zaletasuna» bere erarik latzenean zer izan zan jakiteko, ikus dezagun zer izan zan Loisy'ren oldozkera:

—Orain arte, teologia, metafisikan oiñarritua egon da; eta teologi ortatik sortu zaigun kristautasuna, legorra izan da, kristau bizitza sendo bat ernârazteko gaitasunik gabea.

—Giza-arrazoia ez da Jainkoa ezagutzeko gauza. Erlijioa ez hait da, gainëra, arrazoiketatik sortzen, gizakume orok ortarako bere barruan baduan erlijiorako ezagumen edo intuizio bizkor batetik baizik.

—Ezagumen barnekoi orren bitartez, gizadia, edestia-zear, erlijioaren izaera eta erlijioaren zentzua garbitzen eta garbitzen ari izan da eten gabe.

—Kristautasuna da gizadiak lortu duan erlijio-zentzurik garbiena, baiñan kristautasuna bera ezerezturik geldituko da, bera ere bere erlijio-zentzu ori garbitzen eta garbitzen saiatzen ez ba'da. (Loisy'rentzat erlijioa, barne-ezagumen orren bidez erlijioak bere burua garbitzen-eta-garbitzen ari izate ori besterik ez hait da).

—Erljio-mota bakoitza, eta siniste-era bakoitza, gizadiak garbiketa lan ortan igaro dituan maillak besterik ez dira'

—Sinismena, ez da Jainkoak esana sinistea, barne-ezagueraren bitartez, gure baitan jainkoaz sumatzen duguna ontzat artzea baizik. Azken-unean, beraz, erlijioa sentipena besterik ez da. (Unamuno'ren idatziak irakurri ba'dituzu, irakurle, errez igarriko duzu, Unamuno zenbateraiño zan «modernista», bere oldozpen asko Loisy'ren oldozpenak bait dira)' Jarrai dezagun ordea Loisy'rekin.

—Biblia, gizadiak Jainkoa garbiago ezagutzeko saiaketan igaro dituan sentipen-maillen edestia besterik ez da. Orrela, ez da jainkoak erakutsi digunaren kopurua. Ez da Jainkoaren itza; Jainkoa billatu nai izan duten gizakumeen itza da.

—Dogmak, ots, egi-sinesbearrak, ez dira aldakaitzak, ez dira «bein-betirako egiak»; soilki, edestiaren aro bakoitzean gizadiak Jainkoari-buruz bere barruan sumatu duan sentipenaren azalpenak dira. Sortu ziran garaierako bakarrik balio dute. Gero, gizakumeak, bere erlijio-zentzua garbiagotzen duan eran, dogma berriak sortuko ditu'

—Orrela, kristautasuna, garbitze-bidean aurrera joaten ez ba'da, «sers substituido por otra religion que saldrs del sentido intuitivo que el hombre tiene de lo divino». (Idm.).

Loisy'ren pentsakizun oiei deitu zien «modernismo», «Ami du Clergé»k 1893 'an.

Berealaxe asi ziran Frantzi'n salaketak. Oroitzen al zera XVII mendean «jantsenizale» nola deitzen zitzaion edozciñi? Ori bera gertatu zan orain; batez ere, 1901'ean Fontaine'k, Battiffol'en eta «Revue d'Histoire et de Littérature Religieuses»-en aurka, idazlan gogor bat idatzi zuanez gero.

Egia zan, aldizkari arek, benetan modernistak ziran teologilari batzuen idazlanak argitaratu zituala, baiñan Batiffol ez zan modernista; aren aide irten ziran bi biblilari ospetsu ere, E. Portalíe eta Lagrange bera, modernistatzat salatuak izan ziran. Sortu zan beste askoren aurka salaketa geiago, «which confused rather than clarified issues and won sympathy for real modernists in quarters where they and their ideas were unacceptable» (Enc' Brit.): «Zalaparta aiek, araztu bearrean zikindu egin zuten arazoa, eta adiskidetasuna ira-

bazi egiazko modernisten aide; baita, ez baraiek ez beraien oldozkera, onartuak ez ziran jendeen artean ere!»

1902'an, «L'Évangile et l'Église» izeneko liburuan, Eliza ez zuala Kristo'k sortu bere ikasleek sortu zutela, idatzi zuan Loisy'k. Kristo'k, Jainkoaren Erreñua aldarrikatu besterik ez amen zuan egin: berealaxe etortzekoa zan Erreñua, Gero, apostoluek, Erreñu ori ez zala etortzen ikusi zutenean, Kristo'ren erakutsiak aldatuaz, ots, beste era batera ulertuaz, Eliza sortu omen zuten.

Kristo'k ez amen zituan «egiak» erakutsi; soilki, «irudiak», «ikurrak», «symboles», eman omen zizkigun. Betirako balla duten ikurrak, irudiak, ara bakoitzak ara artako erlijio-zentzuaren araura artu dezazkealako.

Irudi oiek, Tyrrel'en ustez, «speculatively false but practically true» amen dira, ots, «gogapenen maillan egitamunik <nab:ak, baiñan bizitzaren arloan, egiak». Beren ezaguera ez amen da Eliza-bitarte lortzen, pertsona bakoitzaren erlijio-ezagumena-bitarte baiziki: «by a religious personal intuition». Ikur oietan aundiena Josu'ren berbikundea amen dugu.

Ona zer dioskun Tyrrel'ek Tosu'ren berbikundeari-buruz:

—Berbikundearen ikur orrek, Josu'ren jainkozko pertsonalitatea illezkorra dala adierazi nai digu.

Nola ordea illezkorra? Eriotzik jasan ez dezakcana dalako? Ez. Ezta gizadiak Josu sekulan aztuko ez dualako bakarrik, baizik eta, Gizaldiaren Erlijio-Zentzuan, ots, «intuitive sense of the divine»n ikur orrek izan duan arrakasta ain aundia izan dalarik, etorkizuneko erlijioek Tosu'ren gogoetak naitanaiez onartu bearko dituztelako, «All future religions must incorporate his ideals».

—Itzari bere zentzua ematen ba'zaio, Kristo ez zain berbiztu, esan heur dugu; baiña itz ori ondo ulertzen ba'da, «properly understood», erlijiodun gizakume orok sinistu bearko du Kristo'ren herbikundea, berbikunde ori gizadiaren barren-ezagumenaren erlijio-idoropen bat hait da: «minee it is a datum of humanity's intuitive sense of the divine».

1903'an Tyrrel'en oldozkera borobildnaz Loisy'k esan zigunez, dogmak gizakumeen barren-ezagumenak erlijiozko irudiak ulertzeko egiten dituan saiokak besterik ez dira; adibidez, Josu'ren berbikundea era egokian ulertzeko egiten dituan saiaketen azalpenak. Gizakumeen ekintza dira beraz dogmak; ez Jainkoagandak etorri zaizkigun egiak. Eta Josu'ren herbikundea bera, ei da egiaz gertatutako gauza, gizakumeek asmatutako «symbol» edo «irudia» baizik.

1908'an izan zan Loisy eskomikatua, eta 1940'aren Ekainean il zan, izadiko Jainko baten gurtzaille. Era berean il zan Tyrrel ere 1909'an. Ona berari buruz Encyclopaedia Britannica'k dioskuna:

«Tyrrel's intelligence was very acute but he suffered from lack of historical, scriptural, or linguistic training, and could not really judge the scrip-

tural criticism», «Arras adimen zorrotzeko gizona zan Tyrrel, baiñan edesti, bibli, eta izkuntziztien arloan ondo ezi gabea; ez zan bibliaren ikerketa nola egin bear zan ulertzeko gai izan».

PASCENDI GNTZIKLIKA' —Aski zabaldu ziran Loisy'ren gogoetak Frantzi'n eta Itali'n. Ez ainbeste Alemani'n, an beste arazo batzuek hait zeramaiten atzetik katolikoek ardura: Baiñan Itali'n eta Frantzi'n ere egiazko modernistak baiño geiago ziran modernistatzat salatutako elizgizonak. Gogorra izan bait zan Aulki Donean ere, Aitasantua bera baiño aitasantuzaleago ziran integristen eraso.

1906'ean Itali'ko seminarioetatik jaurtiak izan ziran irakasle asko. [z zitzaien ez beren buruak babesteko ez itzegiteko eskubiderik eman.

1907'aren jorraitlean «il neorreformismo religioso»ren aurka mintzatu zitzaien X Pio kardenalei kontsistorio edo batzar batean.

Ekaiñean, zorionak emanaz, eta «reformkatholizismus»en buruzagia zan II. Sell'en aurka ekitean «elizari serbitzu aundi bat egin ziola» esanaz idatzi zion Commet- teologilari austriarrari. Sell ordea ez zan modernista, ezta ez zan modernista «reformkatholizismus» izeneko igikundea ere. Askatasun geiagoren zalea bai; eta bibliaren azalpenerako jakintza berrien erakutsiak erahiltzearen zalea ere bai. Baiñan modernista, ez.

Uztaillean, Santo Ofieio edo Ekintza Deunaren bidez, «Lamentabili» izeneko erabakia argitaratu zuan, modernismoaren 65 esariz bilduma bat osotu ta gaitzetsiaz.

Iraillaren 8'an eman zigun «Pascendi» entziklika.

Bi dokumentu oiek «Lamentabili» erabakia eia «Pascendi» entziklika, «idazti itunak, tristeak, dira», gure egunotako Koenig Kardenalaren ustez. Zergaitik? X Pio'k, «modernismoa» esan zitzaion igikunde artan Loisy eta Tyrrel'en okerkeriak bakarrik ikusi zitualako! Baiñan ez zan, igikunde artan, guztia okerkeri, jakintza sagaratuei indar berria txertatzeko lei zuzena baizik.

Orregaitik, modernista esan zitzaien aiek, ia danak, berealaxe makurtu zuten Aitasantuaren esanera hurua. Oso gutxi izan ziran, foso gutxi!, bururik ez makurtzeagaitik Elizatik irten ziranak.

Egia esan, «modernismo» esan zitzaion igikunde tira ez zan kristau-errira iritxi; bai ordea, oparo, apaizetara; eta betirako marraturik utzi zituan auek, naiz X Pio'ren agindura, apalki, burua makurtu izan!

Apaiz auek, ez bait ziran crejeak!, soilki, era berrien zaleak bait ziran! . Menderdi bat geroago, II Batikan-Kontzilioak beteko zuan apaiz aien gurari zuzena.

Pio X'a, aditnenez gizon azkarra zan, baiña teologia besterik ikasi ez zuan gizona. Beste jakintzen ezaguera sendorik ez zuan, Ez zezakean beraz ondo ulertu jakintza aiek jakintza sagaratuei ekar zezaieketen laguntza'

Izugarria izan zan, «Pascendi» entziklika jaso zutenean. beren buruei «eat-toliei integristi» esaten zieten aien poza. Asi ziran baztar guztietan ereje «modernistak» ikusten, eta, edozein, modernista lez, salatzen. Ekin zuten demokrazizaleen eta sindikatoetako jendeen aurka ere. 1914'ean ia-ia lortu izan zuten sindikaltza katoliko guztiaren igikundea geldiaraztea inakitarren «La Civiltà Gattoliea»k sindikato aietan «ebangelioaren aurkakoak ziran gauza asko» aurkitzen ziralara esan zualako. Gaitzespena, Aulki Donearen barruan eragimen aundia zuten pertsona batzuei eskerrak eragozi aal izan zan.

Ala bear ere zan, Aulki Donearen altzoan bait zegoan «katoliko integrista» aien buruzagitza.

Buruzagi ori Aulki Donean bertan lan egiten zuan Benigni «monseñorra» zan, Modernismoari aurka egiteko «nazioarteko sare» ba t eratu zuana: «La Sapiniera» esan oi zitzaion sarea.

Ez zan modernista gogorra izan bearrik, sare aren korapilloetan arrapatu-rik gelditzeko, «sukarrak sukarra izateko 40'garren graduraino iritxi bearrik ez duala» esanten bai zuan Benigni'k'

Aitasantua salbatzeagaitik, aren ezaguerarik gabe ari izan zala Benigni idatzi zuten edestilari batzuek. Ez da egia. Entzun, (Muñoz'ek gaztelaratuta), R. Aubert edestilari ezagunari:

«Es seguro que el Papa subvencionó a la «sabiniera» y conoieió, aproba e impulsé las actividades de su fundador que le informaba diariamente por medio de Monseñor Bressan. Asi pues, Pio X respaldó personalmente a una especie de Poliefa seereta eelesiástica que boy parece difícilmente admisible, —se ha llegado a hablar, a propósito de esos años, de «la era staliniana del Vaticano»—, pero que dl erefa legítima en la situación dramática en que a su juicio estaba sumergida la Iglesia. A lo sumo puede suponerse que no supo todo, y que de haber estado mejor informado, quizá hubiera juzgado repro- hables ciertos procedimientos».

Kalte aundia egin zuan X Pio'ren geiegizko bildurrak. «Ilov se reeonee unánimemente que la renovación que se había iniciado bajo Leon XIII se vio seriamente eortada durante una generación». (Idm.).

Seminarioetan «tomismoa», ots, Donetomas'en teolot ia bakarrik erakustea nai zuan Pio X'ak, eta idatzi Doneak argitzeko soilki antziñako Asaba Doneak, batez ere Jeronimo Donea, erabiltzea. Oridalata, lengo gauzak esan eta bir-esan besterik ez zan egiten seminario eta universitate katolikoetan. Azterketa berrietara ez zan inor ausartzen, «berri» oro, rmodernistatztat artua izan bait zitekean!

Alemanî'n bakarrik jaso zuten teologilari katolikoek burua. 1910'eko Irailaren 1'ean, «modernismoaren aurkako zinketa» egitea agindu zuan X Pio'k' Irakasketa asi aurretik urtero egin bear zuten seminario eta unibersitate katolikoek zinketa ori. Eta apaiz sagaratuak izatera zijoaztenek. Eta Elizako kargu aundi bat artzen zuten guztiek. Alemanî'ko irakasleei ordea barkatu bear izan zitzaien zin-egite ori, «ikerketarako askatasunaren» izenean. Egia da, an modernismoaren arrisku aundirik ez zala.

Danadala goxoagoa dugu «Eneyelopaedia Britannica»k arazo auei-buruz ematen digun aburua: «It has been claimed that by this action Pius put the Church off from modern scholarship. It is fairer to say that he endeavoured rather to compel the Church to conduct his own works of scholarship instead of leaving them to institutions outside his control».

Euskeraz: «Ekintza oiekin, Pio'k Eliza jakite-era berrietatik at utzi zuala esan oi da. Zuzenago legoke beste onako au esatea: Ikaste-era oiek bere zainzapetik kanpora zudenen eskuetan ez uzteagaitik, Elizari bere jakite-erak sortarazi nai izan zizkiola».

Alatagutziz, egia da jakintza berriei bildur izan ziela: «He was utterly opposed to the employment of secular disciplines in subjects affecting the faith» (Ibm.). «Sinispenari dagozkionetan jakintza sekularrak erabiltzearen arerio izan zan osoro»,

Areriotasun ortan, berekin izan zituan inakitarrek eta inakitarren aldizkariak; baiñan ez danak. Azkenean gotzaiak berak asi bait ziran asarretzen!

Inakitarren aldizkari batzuk ere asi ziran estukeri aren aurka oles egiten. Min artu zuan Aitasantuak. Inakitar askatasun-geiagoren-eskale aien atzetik Wernz josu-Lagundiaren Zuzendari Nagusia bera z<sup>o</sup>goala bai bait zekian! «Pio proferia amargas quejas de aislamiento en su lucha por defender la ortodoxia integral» (Aubert). Wernz inakitarren zuzendaritzatik kentzeko ere gerturik omen zegoan, baiña ez zion eriotzak ortarako astirik eman, ia aldi berean il hait ziran biak: «Wernz zuzendari nagusia, eta X Pio Aitasantua.

Pio X'a aldareetan daukagu gaur: X Pio Donea.

Baiñan len ere maiz erakutsi digu Elizaren edestiak, santu izatea ez dala naikoa, auzi orotan Aitasantu egokia izateko'

\* ✂ ✂

Egoera zail aren erruz, «la Santa Sede (...) vivid durante varios años en una atmósfera de pánico» (H. Jedin. Lator Ros'ek gazteleratua). Oiñarririk gabekoak —«sin fundamento»— ziran salaketei errezegi jaramon egiten hait zitzaien. (Id.).

Alare, Albi'ko Goigotzaia zan Mignot ospetsuaren iritziz, «no hay ninguna conciencia cristiana que no rehae con todas las energías de su fe todos los errores condenados por la enieliea», baiñan berealaxe, entziklikaren «desafue-

ro» edo okerra, aipatu zigun: «limitarse a condenar sin decir qué es lo que se puede creer sin ser modernista» (Ibm').

Ederki, V. Delbos filosofilariak: «La enciclica tiene una laguna demasiado visible, que consiste en el descuido o el desconocimiento *de* las causas profundas que han desencadenado el llamado movimiento modernista».

Eta ederki Birot apaizak ere: «La enciclica incluye en una misma condenación a amigos e enemigos» (Ibm.).

\* \* \*

Aitasantua zuritzearren, aren laguntzaillei jauni oi diote, zuzena izan ez zan guziaren errua, edestilari katoliko batzuek.

Ez zaie arrazoirik peitzen; X Pio'k, dana berak egin eta dana berak ikusi ta zuzentzea guztatzen zaien pertsona oietakoa izanda ere, berak uste baiño eragimen geiago izan bait zuten hie gauzetan inguruko laguntzaille eta aolkulariek.

Edestilari oiek, ordea, kontuan euki bearuko lukete laguntzaille eta aolkulari aiek danak, X Pio'k berak aukeratzen zituala: bere gustokoak danak; integristak, erlijiosoak la danak; inñakitarrak batez ere; auek bait ziran bere ustez integristeenak.

Integrista zan hie «alboko idazkaria», Bressan, «a veces de celo personal excesivo». Integristak ziran batez ere «tres cardenales muy intransigentes considerados por algunos como los genios maléficis del pontificado de Pio X: el capuchino Vives, de gran influencia en el Santo Oficio, De Lay, prefecto de la Congregación del Consistorio, y el Secretario de Estado Merry del Val (ibm.). Aurrenekoa, eta irugarrena, katalauniarrak ziran.

Alare, ez dezagun azni irugarren uni, Merry del Val, Benigni «La Sapiniera»ren zuzendariak uste zuanez, ez zala bear bezain integrista.

Danadala, egia da laguntzaille batzuek gogorkerira bultzatu nai izan zutela Aitasantua; beste batzuk berriz bein baiño geiagotan amen erabakiak goxatzen ibilli zirala. jabetu zan ontaz X Pio bera eta baita asarretan ere Batikanoaren barruan bertan antiinteorismoa azitzen ari zitzaiolako.

Batzuetan, Aulki Doneko jendeak, Pio X'ak .Eliza erabarritzeko egoki eman zituan erabakiei ere kendu zieten indarra, kontserhatzailleek ez bait zuten inñolazko aldaketarik nai. Ez dabil oker beraz Poulet edestilaria, «Pio X'a», «naimen sendo eta autoritate auleko Aitasantu» izan zala dioskunean: «Pape de volonté force et autorité faible».

—<sup>riz</sup> dugu orrekin Pio X'a Aitasantu okerra izan zanik adierazi nai. Ez orixel Integrismoaz landa, txit egoki ari izan bait zan beste arazo guztietan.

—Gizarte-auziedarako sendo babestu zituan Elizaren eskubideak. Auzi oietan oitura zuzenak edo moralitatea jokuan daudelako, bai omen du Elizak

rlo ortan bce itza adierazteko eskubidea . Egia da, bai sindikatoak eta bai gizarte-ekintza osoa, Elizari, eta azken-unean bere pertsonari, geiegi lotu nai izan zizkiola , baiña langillcen zona obeagotzeko arduratik ez zizaion peitu. Orrela, ez zien sindikato katoliko eta ez-katolikoan artean elburu bereizi ja-kiñak lortzeko egin zitezkean «cartels» edo alkartei eragozpenik ipiñi.

—Saiatu zan, Eliza bera eraberritzen ere. Ortarako, aurrena, «Commissum Nobis» izeneko erabakiaren bidez, 1904'eko Urtarrillaren l'ean, Laterriek konklabeetan ordurarte izan zituzten eskubide guztiak ezabatu zituan, eta «Va-eante Sede» izenekoaren bidez, konklaberako arau berriak eman , urte berean; gure egunok arte lege izan diran arauak.

—Eraberritu zuan Aulki Doneko Kuria, aitasantuen jaurlaritzako m nis. terioak diran «kongregazioak» era berrian antolatuaz.

—Ez zan katekesian aantzi. Texto bat bera gertuarazi zuan Itali'ko eliz-barruti guztietarako.

—Itali'n seminario geiegi zirala-ta , saiatu zan seminario aiek batuta apaiz-gaitegi egokiagoak erutzen. Antolatu zuan apaizentzat ere otoiz liburu , ots, «brebiario» berri bat, 1910'eko «Divino Afflatu» buldaren bidez.

—Aldatu eta garbitu nai izan zuan jauretxeetako eresia , musika, 1903'ko «Inter Sollicitudines» zeritzan aginduaren bitartez.

—Berak irasia dugu «Acta Apostolicae Sedis» izeneko Aulki Donearen izparringi ofiziala, len «Acta Sanctae Sedis» zeritzan aldizkaria eraberrituaz.

—Esan dugun bezala berak sortu zigun Erroma'ko «Institutum Biblieum», josulagunen eskuetan ipiñi zuana. «Vulgata» deritzan Idazti Deunaren bir-argitaratzeko lana berriz, beneditarrei eman zien; heneditarrek, iñakitarrak bezain integristak ziralako , agian.

—Eliz-Laterrien askatasunari zegokionez, XIII Leon eta IX Pio'ren aburu batekoa izan zan. Izan ere ez ez bait zitezkean beste aburu batekoa izan! Aitasantu aiek ziur uste zuten bâ, Laterri aiek, Elizaren askatasuna babesteko Jainkoak emanak zituztela. Laister, XV Benedikto izango da beste modu ba-tera pentsatzen asiko dana. Arras Aitasantu aundia izan bait zan XV Be-nedikto!

Bere bi aurrekoei bezala, ez zitzaion X Pio'ri, Eliz-Laterriak zirala-ta, arantzarik peitu. Ma, 1909'ko Iraillaren 20'ean, aren aurka Nathan Erroma'ko alkate judutarrak egindako itzaldi lotsagarria.

—Pio X'aren bi ekintzarik aundienak ordea, jaunarrzea erreztea, eta Eliz-legearen «Codex» edo bilduma berria antolatzea izan ziran,

Anei tokitan barreiatu rik aurkitzen zan Elizaren legedia. Aitasantutza artu zuan une beretik agertu zuan lege aiek danak aztertu, araztu, bateratu, era-berritu eta guztiak liburu batean argitaratzeko zekarren asmoa. Batzorde bat antolatu zuan ortarako, Batzorde orrek ludiko gotzai guztiei bidaltzen zizkien,



iritzia eskatuz, tajutzen zituan eskemak. Orrela, X Pio il zanean bukatu-rik zegoan «Codex» edo Bilduma berria. XV Benedikto'k ez zuan Codex ura argi-taratu besterik egin.

Esan dezagun ordea, legezkoa data, Kepa Gasparri Kardenala izan zala Codex berriaren aita, berak egin hait zuan eginkizun artan lanik geiena, eta berak guzia zuzendu.

Gasparri'ren Codex ori izan dugu lege, II Jon Paul'ek 1983'ean Codex berria, —Elizaren edestian bigarrena—, argira eman digun arte.

—Arrazoi aundiz esan oi zaio Pio X'ari «eguneroko jaunartzearen apos-tolua», berak erreztu bait zion kristau-erriari eukaristira maiz urbildu aal izatea.

Sustrai sakonak utzi zituan Elizan Jansenio'ren eta Saint Cyran'go Abata euskaldunaren gogorkeriak. Pio X'ak eman zion gogorkeri zital ari azkeneko kolpea.

1905'ean agindu baten bidez, al zuten maizenik jaunartzera urbiltzeko arren eskatu zien ludiko kristau guztiei. Al zuten maizenik, ots, baita egunero ere, ortarako, kontzientzia oben astunetik iare eukitzea naikoa zutela adiera-ziaz. Arindu zien gaixo zeudenei jaunartze-aurreko bararen legea, eta iare uzten zien katoliko guztiei edozein rito katolikoan jaunartu aal izatea.

Bost urte geroago, beste agindu baten bidez, umeek, arrazoiak baliatzeko gai izatera iristen ziran bezain laister Jauna artu bear zutela jakiñarazi zion kristaudi osoari'

Jainkoak bakarrik daki zenbat on egin duan X Pio'ren zabaltasun orrek Elizaren altzoan.

1914'eko dagonillaren 20'ean il zan X Pio. Uztaillaren 28'an asia zan, lenen-ludi-gudua. Eta bada une aietan X Pio'k erabilli zuan jardunkerari-buruz esamesa ezberdiñik ugari. Ikus dezagun esamesa naasi oietan zer daitekean eta zer ez daitekean egia:

A. de Cigala, X Pio'ren edestilariak, idatzi zuanez, au erantzun omen zion Aitasantuak Austri'ko enbaxadariari onek Inperatorearentzat onespena eskatu zionean: «Esaiazu Inperatoreari, nik ezin dezaketala gudarik onetsi; ezta, goda au nai izan duanik ere».

Seguruaski, ori, ez da egia' Itzak bai, ederrak dira itz oiek, baiñan mende onen amaierakoak geiago dira mende onen asierakoak baiño. «Guda zintzoaz», «de bello iusto», aritzen ziran orduan oraindik oituriztilariak mintza eta min-tza' X Pio bere denborako semea zan: guda, maiz, zintzoa izan zitekeala uste zuana beraz. Eta ez zezakean egun aietan, ez zuan astirik izan-da, Aus-tri'k Serbi'ri jaurti zion gudaketa «iustum» ots, zintzoa zan edo ez erabaki.

Zerbai, pentsatzekotan, guda ura zintzoa zala pentsatzen zuan, laister ikusiko dugunez'

Baiñan, A. de Cigala'k idatzi zuanez, beste onako au ere erantzun omen zion X Pio'k Austri'ko enbaxadariari; «que l'Empereur s'estime hereux de ne pas recevoir la malediction du Vicaire de Christ»: «Zoriontsu etsi beza Inperatoreak bere burua Kristo'ren Ordezkariarengandik ga:tzespenik jasotzen ez ba'du».

Ezpairik gabe esan dezakegu X Pio'ren ezpaiñetatik ez zala beiñere orrelako esakizunik irten. Oraintxe bertan guda aren zuzentasunari-buruz esan dugunez landa, Pio X'ak orrelakorik ez esateko bai bait zuan beste arrazoi sendo bat: Austri'ko Inperatorea, Frantzisko-Jose zarra, oso adiskide izatea. Pio eskertu izan zitzaion beti, arek aitasantutzaruntz beti agertu izan zuan begirune maitekorragaitik'

Aitasantua il zanean bere idazkari batek Austri'ko enbaxadariaren aurrean onen adiskide bati azaldu zionez, onela erantzun omen zien Aitasantuak, baztar guztietatik guda geldiaraztearren zerbait egiteko eskatzen ziotenei: «Bat bakarra da neri entzungo lidaken Laterri-Burua: Austri'ko Inperatorea, bere bizitza guztian Aulki Dnearekin leial eraspentsua izan dalako. Baiñan ain zuzen Inperatoreari ezin dezaioket ezer esan, Austri'k ari duan guda bete-betea zintzoa bait da». Baita ere, esan omen zuan, guda aren zabalketaren errua Errusi'rena zala.

Egia ote da ori dana? Ez dakigu. Ez bait dugu egia dala esateko «oiñarri ziurrik» (Hudal).

Pio X'aren kanonizazioko aurr-epaiketean, au azaldu zuan aren sendagille izan zan Marehifava'k: «Oroitzen naiz nola esan zidan bere eskuz idatzi ziola Austri'ko Inperatoreari, guda eragoztearren al zuan guztia egiteko arren-darren eskatuaz».

Ori baleike egia izatea; baiñan, Merry del Val Estadutzako Idazkariak «ez dut uste, --diosku—, Austri'ko Inperatoreari idatzi ziola eskier esan daitekeanik».

Frantzi'ko eta Itali'ko izparringietan bai, agertu zan gutun bat, Aitasantuak Inperatoreari 1914 artako dagonillaren 14'ean idatzia' Gaur ordea bada-kigu ziur gutun ura gezurrezkoa izan zala. Orduan zabaldu zan, baitare, austriarren aldekoa zan Merry del Val'ek pozoitu zuala Pio X'a, onek, guda asi zuan Austri'aren aurka ezer esan ez zezan, eta pozoiketa orren ondorioz il zala.

Ori ere gezur utsa dala, ez da noski esan bearrik izango.

Babiera'ko enbaxadariak berriz, Ritter baroiak, guda-aurretik, au idazten zuan Uztaillaren 26'ean: «Onartzen du Aitasantuak Austri'ren jokaera gogorra».

Austri'koak berriz, Pallfy Konteak, beste onako au: «Austri'k Serbi'ri bidalitako oarra, arras gogorra iduritu zaio Kardenalari», (ots, Merry del Val Estadutzako Idazkariari). Baiñan ontzat artu du ala ere ezpairik gabe, eta

une berean gure erregetzak tinko jardungo dualaren itxaropena agertu digu»: «que la monarchie tiendrait bon jusqu'au bout». Gaiñera, «sentitzekoa da, —azken-esan digu—, Serbi aspaldi apaldu ez izana»: «Il est regrettable Litre la Serbie n'ait pas été rebaiscée depuis longtemps».

Eta geiago dana. «Izketa ori bat dator Aitasantuaren oldozkerarekin, —zion bere kasa enbaxadariak —, azkeneko urte auetan maiz agertu hait du bere atsekabea, Austri'k bere auzoko Serbi arriskugarri ori bear bezala estutu ez dualako».

Ori guztia... egia ote? Bai beintzat Merry del Val ariñegi mintzatu *zala*. Ori dana argitaratu zanean, au esan hait zuan onek:

«Egia da, Sarajbo'ko erailketa ikaragarriaren ondorean, Austri'k tinko jardun beur zuala, Palfv Konteari azaldu niola; baita're esan nion Austri'k bazuala «des plus solennelles réparations», «ordaiñik beteenak», eskatzeko eskubidea, eta baita, nola ez, bere izatea babestekoa ere. Lz nion ordea, Austri gudan asi zitekeanik aipatu ere egin».

Merry del Val Estadutzako Idazkariak eta Palfv Konteak alkarrizketa ura izan zutenean guda lortzeko zegoan oraindik. Erantzisko-Pernando Austri'ko inperatoregaia eta bere emaztea, ekaiñaren 28'an izan ziran Sarajebon erailak. Frailleak Serbi'ko talde eslabizale batekoak ziran eta Serbi'n izan zan erailketa prestatua. Alare, uztailaren 23'a arte ez zioa Austri'k Surbi'ri bere azken-oarra bidali. Leenago izan zan Kardeaalaren eta Kontearen arteko alkarrizketa; Beraz, 24'an Errusi'k, istilluan parte artzeke ezin egon izango zuala jakiñarazi baiño askoz leenago. 28'an ekin zion Austri'k serbi'ri. Andik lan egunera, dagonillaren l'ean, Errusi, maIan zan. Askoz leenagokoa da Kardenalaren izketa.

Errusi'k ez zuala oraindik bure asmorik argi azaldu-ta, Merry del Val'ek beste orduango diplomazilari askok bezala, istillua Austri ta Serbi'ren artean mugatua geldituko zala *geiago zabaltzeke*, liste izan zuan seguruaski; «baiñan izkera ura, Austri'k, naitanaiez, bere jokaerari indar ematera zetorkiola, sinistu heur zuan», Lobaina'ko R. Albert edestilariak egoki dionez.

Altagutziz esan dezagun Merry del Val'en alde, berak ez ezê, Prantzi'k, Inghanderriak eta Alemani'k ere garai artan, borroka guzia Austri'ren eta Serbi-ren esparruetara mugatu zitekeala uste izan zutela, eia, ori lortzeko, lanean ari zirala, Errusi'k gudan asteko bere gudaroztea bildu eta zutik ipiñi zuan arte.

Esan dezagun, baitare, naiz agian ariñegi mintzatu izan, egia dala Palfv Konteari esan ziona: Austri'k bazuala, alegia, Serbi'ri kontuak zorrotz eskatzeko eskubidea; eta egia dala baitare berak, —Merry del Val'ek—, eta Aulki bono osoak gudarik ez zutela nai. Oroi dezagun Sarajehoko erailketa baiño illabete bat leenago, naiz Austri asarretu, X Pio'k Serbi'rekin konkordato bat nola izenpetu zuan. Oroi dezagun baitare nola Serbi'ri bidalitako azken-oarra edo «ultimatum» Austri'ko enbaxadariak erakutsi zionean, Pio X'ak berealaxe

eskeiñi zuala bere burua Austri'ko eta Serbi'ko Jaurlaritzaren artean, pakea lortzearren, izketan asteko.

Gure Aitasantu au austrizale genduala egia da, eta ez da arritzekoa. Adiskide zuan Frantzisko Jose Inperatorea; adiskide zuan Frantzisko-Fernando inperatore-gaia, eta adiskide zuan Austri-Ungari'ko inperioa bera; Frantzi'ko liberalkeri ergelaren, Alemani'ko protestalaritza gogorraren eta Errusi'ko ortodoxi zitalaren artean ura ikusten bait zuan katolikotasunaren zutaberik bikaiñena

Azkenik, esan dezagun egia ziola Pio X'ak, gudua zabaldu izatearen errudon Errusi zaka esan zuanean. Goda nai zuan Errusi'k, Frantzi'ren eta Ingalderriaren laguntzarekin Alcmanni eta Austri zapalduta, Japon'en aurki jasanberria zuan jipoi lotsagarria aztuaraziko zualaren ustean.

Danadala, goda asi zanean otoitzerako dei bat besterik ez zuan egin X Pio'k; aski dei motela gaiñera' Zergaitik? Agian Aulki Doneak beste ezer geiago egiterik ez zuala iduritu zitzaiolako eta, ziurrago oraindik, une aietan zaarturik, auldurik, eta ia-ia azkenekoetan aurkitzen zalako, I1 ere berealaxe il bait zan, esan dugunez: Dagonillaren 20'ean'

1954'ko orrillaren 29'an izan zan Done aldarrikatua: San Pin X'a.

\* ★ \*

Elizaren aintzarako, egokia iza zan benetan Pin X'aren ondoren etorri zitzaigun Aitasantua: odolez gorritutako urte ikaragarri aiek bearrezkoa zuten Profeta vavo, ausarti, kementsua: *santiago* della Chiesa: BENFDIKTO XV'a, ez nolanaiko, kristauon buruzagia.



# AURKIBIDEA

ESKEINTZA ... ..	3
ITZAURREA ....."....."	5
BIRREZARKETA: Frantzi'ko Iraultza eta Napoleon'en gudatea Demokraziarentzat kaltegarri zergaitik. — Katolikoak Demokraziaren aurka jarri izateko arrazoia. — Elizak iraultzalariegiengandik jasotako ondamenak. — Eliza egoera berri baten aurrean: arazo berriak; itxaropen eta bildur berriak .....	9
BIENA'KO BATZARRA eta «ALKARTE DONEA»: Metternich eta Talleyrand. — Consalvi Kardenala. — Biena'ko Batzarra, onugarri ala kaltegarri Elizarentzat?. — «Alkarte Donea», «atsokeri» utsa?	19
«L'ULTRAMONTANISME» edo «MENDIZARUNZKETA»: Zer izan zan eta zergaitik sortu zan: Joseph de Maistre, «La Traditionnisme» edo «Agozagotasuna»: Louis Bonald. — Aitasantutzak garai ontan izandako ospe aundiaren arrazoia. — VII Pio ostera Erroma'n Errege. Berak aukeratutako jaurlalitzen ariketa baldarra. — Consalvi eta konkordatogintza. — Josu-Lagundiaren berbizkundera. — Kristauen artean «integrisinoa» nagusi: Ori, zergaitik? ... ..	25
ELIZAREN LATERRIAK: Iraultza-ostean Vil Pio'ren erreinua nola zegoan' — Erreinua ortako jaurlari integristak gero ta okerrago' — Erreinua ortan, laterkiderik geienak Aitasantua errege izatearen aurka?. — Consalvi eta konkordatogintza. — Josulagundiaren berbizkundera. — Mundua-zear kristauen artean integrismoa nagusi zer-	31
DEMOKRAZIAREN GARAITZA: Zerclalata, Eliza demokraziaren aurka?. — Kristau-teologia eta demokrazia — «La laïcité» edo «erlijiorikeza», modan. — Jakintza berriak kristautasunaren aurka. — Errua, jaikintsu aiena bakarrik? ... ..	43

% XII LI?C)N: konklab:: edo gili /:tp^ kio;..rre^:o arazoak. Aita santu  
 berriak I:rrc^c bc%ula l;:re I;ttCl'ri^i ^n crabli^t^t^u) !x)litik'era' ---  
 Aitasantu bezala XII Leon'cn j:udunker,t ' ... .. 59

VIII I R.): Giltzapcico-hatzura.. — 1.830'eko 1r:niltzak I?lrari cginlal:o  
 ka!tea. --- VI?I Pio Aitasantu egokia. I.lit.:ren Lat: rrial< V111  
 ... .. 67

XVI GRI?GORIO: I:ztabaiduk berriro Ciilt;IVpU-batz,urcn.n. — Aita  
 herriaren p::ntsaera. — XVI C',regorio clumokrazia gaitzesten  
 goi=or. — Gcroraitik ote?. — I)oloni katolikoa I.rrusi otodoxia-  
 rraren aurka; Belziku k:uolikoa T Gülermo errege kalbinistaren  
 aurka. Polon'n eta Ilelxii.a'n X': I Gr^egor^o borrok !:ari katolikoan  
 ¶urtia eta lneratore ortodoxiarraren cta 1 .rre;ee kalbinistaren aide.  
 — Jardunkera orren arrazoia. --- .^nnduku dLmokrazialeal< Aita-  
 santual'cicin as:u'r^:. --- li^.\*rc I;:,Icrricn b.lrrt^,a;t ^A I Gre,n(riO i^,rrc  
 t,c:ren politika latza. ... .. 73

1.AMENN\IS: I nncnnais, Bonald'cn modura u'adizionalista, eta tco-  
 kraziz,tle:t. — Aitusantuagan zuan ustea, e^^,iazko «sinistea» ez baiña  
 siniskeri aizuna. --- Xii Leon eta Lamennais. — «L'Avenir». —  
 XVI Gregorio cta Lamennais. — Lamennais'en gtitzespcna itxuraz  
 o<sup>s</sup>oriagoa izatez b.^iño. -- I m-\_nn:;is, arr^ kerl.,I; it.<ut^i?. — 13cre  
 zk(^n uricak cl' eHorZa. -\_ = Mir:ui Vos » uni /il<l karea axt^crkcta.  
 Gteiorio ^VI'i:iri-burur. iritzia.... .. 85

FRAN'CZ!: Frantzi'ko Birrciarketa. — Elizaren egoera. — Borpoial;  
 berriro frantzi'n errece' XV11I Koldobika eta Karlos: Eliza ta  
 Laterria citai gozoz bat egifnik. — 1830'eko Iraultza Erregearen eta  
 Illizaren aurka. -- Orleans'tar Koldobika felipe krrege liberala eta  
 107

¶1;T,XIKA: 13elsika, Biena'1•o Batzarrak Olanda'r. kin Laterri bateau  
 «dice-Lurraldeetak(, Jaurerrian», alkartua. — T G^illcrrmo kalbinda-  
 rraren erre ekeria. Belxika'n k:uolikoak eia liberalak Errege at•en  
 aurka. — Gregorio XVI'u berriz, aien aurka' — Katolikuen eta  
 Liberalen alkartasuna. — Rclgika, Laterri iarea: Errege berria; lii .  
 Lurraldeetako  
 Iaurerriaren zatiketa ^l izarcnizat eta Europa 'rentzat onuragarria a  
 kaltegarri?. — Belxika'ko Mixa .... .. 121

OLANDA: I Gillertno Olanda'ko Errege lez. — Katolikoan askatasun  
 orokorra. -- II Gillermo errege egokia. --.- Onaren aurreralkna. 1 31

ESPAIE eta PORTIJG/^-1: Iendeen m:ntalitatea. Portugal'en anai-  
 -arteko guda. — Eliza absolutisten alde. \_\_\_\_\_ Riego'ren  
 iraultza. Deunaren Eunmilla SLIneelc) i raul-  
 tza deseginda berrira \.!II Fer:land-st agintari ollsolutista. — Lizaren  
 Lenen Kelisla-Gucla eia XVI Gregario. — Men dizabal.  
 — Ilspartero'ren agintpritzza zipotza. — Gotzaiak eia apaizak. —  
 Erri tundietako jendea Fliz ren aurka, zergait<sup>i</sup> k ote?' 133

l'TAL] eta Laterri txikiak, baiña ,ski arazo mardulak. —  
 Liberalen eta katolikoan arteko borrokak eta guda. — Eliza'ren 147

A 4x, \IAN Ak<sub>i</sub> nani<sup>1</sup>,<sub>o</sub> iendc landua et:: Id+z oparoa. --- Febrnnikenia  
 agir:tarie:1 crtean Batzarrak Printz<sup>i</sup> pe prntest:11:1-  
 rien mendean jarritako katolikoan biziera Babiera Itatolikoan  
 Flizarentzat Jaurlaritza nekagarria. --1<sup>3</sup> rusi'ko T II FrAlerik-Giflor-  
 no, ;1',liza ezereztu <sub>11,1</sub> <sup>12</sup> m z. — Ekontzen arazo ininiannia Prusi'n.  
 Silcsi eta Renan:. Donc,: Alemani'<sup>t</sup>:o istilleetan 151

EN(,;1,ANI)E.1;11A: Katolikoentzat era bern bateo asiera: Askatasuna-  
 ren pizktmtlea. men: Ai:arc extoa.  
 ioandft!'-(: Icatoc<sup>i</sup> koHt: (ta ans:Ir:1k. irlanda'n Fnglan-  
 derri protes1.-11'riak ;u:rka zigorra:  
 or,n,iPen y.crail71 orokorra IrlanIt'ko ell 17:liz Ra-  
 tolilKoaremz.tt. \\11,;sley'ren ruetoclisten  
 lanak. ProtostaIn-itza-b:lita1:0 «Revivalism» edo ,Bir--13;ziral<eta».  
 — Oxford 'aŋ «Mobimentua». Ne\yman... 163

RAT01.11<0-1;1K11\r172,: Ancr1;i<moari<sub>i</sub> zab:111;inlea, 11.1iza,  
 oietaz oarlzeke?' «h-rclnantikera» eta Kriirtautaua. Erro-  
 mantikeraren ondorio On et:1 txarrak **Ectierbcc11**. —  
 Kristall-Te()1(w,i1. Pr)restali.Hen arteko «1)ietsn->» edo «crispein-  
 ;eria». :in motelzergallik? 179

DII■REZ.ARKETA-AP,0K0 IsTR1ST;\ U-I31ZIT'ZA: Elizaren bizkortar,un  
 arrigarvia. «Santuen aroa». Errege.-n rmentalitatea.  
 -- Lang Elizatik pi ra tri urrutign' Gertakizun itun orteil  
 Erliliosn•Anaidi berrica sorketa ug:tri miresgarria. —  
 Erlijioso-Anaidi zarren IDerbizkuncia. Kr:statt-ekintza naroa. —  
 Liturgiaren Bcnditarri& — A1cn-lani'ko1iturgiliariak. \_\_\_193

MIXIO[N PI ZKUNDLA : EIKumengintza. — Protestalarien mixioketa'  
 — Iraultzak Elizaren mixioei egindako gaitza. Mixioketarako za-



- letasunaren bir-sorkuntza. — «Padroao» eta «Patronato»en arazoak. — Gregorio XVI'a eta Ameriketako Laterri gazteak. — Aitasantu onek mixieetan erabilitako jardunkera 213
- SORTALDEKO KRISTAUTASUNA:** Frantzi eta Sorta<sup>1</sup> deko kristauak. — Protestalariak Sortaldean. — Ter-usann'go Elizharruti protestalari batua. — Erdiaroko Tenisalen'ao-Patriarkadutzn-Latindarraren birrezarketa. — Sortaldeko Eliz Uniaten egoera. — «Propaganda Fide» ren jokarea baldarra. — Melkatarrak: III Maximo Mazium. — Takobitan-en Elizaren arazoak. -- Kaldeatarrak. — Erroma'ren oztupoak. — Kopziarrak . . . . . 219
- IPAR-AMERTKA'KO ELIZA:** Ango iraultzaren izaera bereziaren ondorioak. — Laterri Alkartuetako Elizaren arazoak. — Ton Carrol gotzaia. — Bere gauzen jabe izateko Elizak legearen aldetik aurkitutako eragozpenak, — AskaTasun osoaren giroan protestalari zipotz batzuen etsaigoa. — Eliza, azitzen ' . . . . . ' . . . 229
- KANADA'KO ELIZA:** Inghlanderriko Tauralaritza ta Kanada'ko katolikoak. Kanada iarcen elizaren bizkortasuna. — Irakasketa-arazoak. 241
- IBERAMERTKA'KO ELIZA:** Ango Laterrien askatasun-gudua eta Eliza. — Bolibar. — Ameriketako agintari berrien mentalitatea. — Leon XII'aren jardunkera makurra. — Iberamerika'ko gotzaiak eta apaizak. — Paraguai, Arjentina eta Guatemala dikaturtzapean. — Agintari berrien erregekeria. — Juan Diaz de Espada Landa, Kuba'n gotzai eta, Españi'ko erregearen izenean, Jaunie. — Bol iba r'en eriotza. . . . . ' . . . . . ' . . . 243
- IX PIO:** Aitasantu onen izaera. — Bere ikasketen urritasuna. — Kristauterriak izan zion maitasuna' — IX Pio'ren aitasantutza... ' . . . 253
- PARIS'KO KOMUNA. FRANTZI'KO 111 ERREPUBLIKA:** Komuna'ren Iraultza. — Zergaitik eta nola sortu zan. — Marx eta Paris'ko Komuna. — Paris'ko Komunaren egunetan Elizaren zona. — Errepublikaren gudarozteak Paris'ko komunatarren artean egindako sarraskia' — III Errepublika elizaren aurka. — Katolikoak Ii Errepublikaren aurka. — XIII Leon «de Ralliement a la République» edo Katolikoek «Errepublikaganako Alderaketa» egin naican. — Katolikoek, Aitasantuari entzungor. -- X Pio'k gauzak gogorrako i'vi. — Frantzi'ko Elizak bere aberastasun guztiak galdu. — Errepublikako Jaurliariak, zer egin ez dakitela.



KARLOS MARI: Bere perisonalitatea eta bere gogapenik garrantzitsuenak. — Marx zergaitik komunista egin zan. -- Izan zuan arrakastaren zergaitia. — Marx'en burumuinetan „, jaitzaren bat et ote? — I\ilarx'en sozialismoa, „, zicntifihoa»? — Marx eta erlijioa. ;■Iarx'ek, langillediarcn aurreral-enari egin ez?. — Kristau-, „izarte-ekintza. AleniaM'ko gizartzale kristau k: .Kettek'r tzaia. — Suizi'ko eta Frantzi'ko ekintza kristauak. — Belgika' — Laterri Alkartuetako gizadiza<sup>1</sup>eak: «Kni<sub>it</sub>hts of I.abour» («Langin-izako 'Zaldunak»). — Itali: "I'oniolo. «Operada dei Congressi». — Ekintza kristauaren alde onak cla txarrak, — Korporatibitza . «Rerum Novarum. — Lntziklika onen balioa . . . . ' . ' . . . . 345

SORTALDEKO IEIZAK: Sarkaldeko eta Sortald<sub>ko</sub> Elizen arteko llerieziasunaren zio<sub>l</sub>. — IX Pio'k ez zuan asnlātu. --- Fi renla'ko Leuegia Sortaldean sartu na izateak sortutako zalapartak. Uniatetako Patriarken autakerari-buruzko arazo larriak. — Gotzaien izendaketa. — Lrrumani'ko Eliza'ren araudi berri arras interesgarria. Sortaldeko Gotz,dak I I til:an-kontzilioan. — XIII I.con'ek IX Pio'ren jokaera nola aldatu zuan. -- X111 Leon eta Sortaldeko Luit zismatikoak. -- X Pio. ---- Armenitarren artean X Pio'k sortârazitako iskanbilla. -- Malabar'ko Eliza, .....! 373

RERUM NOVARLIM F.N'IZIKLIKAREN ONDORIOAK: Siudikatoei eta Laterrien almenei-burtizko auzia. AieicLi' Kardenala. -- «Graecs de C;otnuni» envikiika Frantzi, -- Itali --- X Pio. 397

ESPAÑI MkinNDI;AREN B1GARRI.N I RD1,1ti': Ilizjendearen oldozkera, -- Euzkadi, — Españi'ko urietan, erri Ianderra Llizjende Iren aarl;a. --- Karlisten azken-gudua. — Euskalerr:aren itxarku' dea. XIII Leon eu<sub>t</sub> Españi'ko «eskubitarrak». — Anarkismoaren eta sozialismoaren zabalkundea' — jende ikasia, Elix,- tilo kanpora. Zergaitik? ... 407

I PAR-AMERIKA'N 11,¡ZA SENDOTZEN: Ango Elizaren itxura. — Llizkideen arteko asarreak, -- Iritxi-berrien arriskuak. — Elizak zenbat elizkide galde?. - Eliz artako gotzaiak, sen:inar oak, ikaste-txeak: Unibrsitatca. -- Irland gotzai bikaiña. - Protestalari ezkertiarak katolikotasunare<sub>1</sub> aurka. I^lizaren ikaslolen alderdi onak eut t;arrak. - Iparicko (Ja Ego::ldeko I,ai eri'en a t:tin anaiarteko-gudua, eta Elizaren jardunkera.-- Jopu beltzen arazoa. — Proletaritzta ta Eliza. -- Gibbons kardenal onitgarria. — Eliza bere gauzen jebe izateko laterri-legearen aldetiko eragozpenak. — Katolikoak Laterrietako politikagintzan. -- «Amerikanismus» okerejia. — Karitategintza. — kKris<sub>t</sub>abizitzaren sendotasuna. Gihh: ns'en criotta ... .. ' !' .. .. ' !' ' .. .. 415

1JI;RAiA-IJ:R I KA'N i'LI'/.;1 SENDOTZEN: ]:rrik, jendeen ctiocra. -- Agintari I beralen antiklerikria. — Alderdi politikoak . -- Aheras-  
 tasuna ta txirotasUna, -- Eliza politikan. — Latcrrri bako:tzeko ara-  
 zoak. --- Dikiatorcak: Iturbide, Carranza, Francia, Rosas, Juarez,  
 Garcia Moreno, Vicnte Gainez, ;:Porfirio Diaz? Peran. — Dikta-  
 torcak eta Fliza. -- Santana'ren z:pozkeritik Calles'en gogorkerira,  
 Mexiko, okerretik okerragora, -- Cirdenas, lendakari. — Marxis-  
 moaren zabalketa Iberamerika'n. -- CLLAtM, :Medcllin'go  
 tzarra. --- «Askapen-Teologia»...- ;; ..' '.. ... .. .. .. ..' ... 437

X I'10: Konklabecko arazoak. — Jose Sarto'ren izaera. — X Pio biur-  
 turik Jose Sarto'ren jardunkera. — «Le Sillon»cn gaitzeslxna. —  
 Alemani'ko Jaurlaritzaren asarrea. — «Opera dei Congressi»ren  
 gaitzespena. — «Modernismus», «13errikeria». — «I.amentabili»,  
 «Paseendi». — Aulki Donearen geiegizko bildurra. -- Eliz-legeen  
 «Codex» edo Bilduma. —X Pio ta eukaristia. — Pio<sup>x</sup>'a ra Lenen-  
 -Ludi-Gudua ... ... . 479